

**Gustave Flaubert**

**Madame Bovary**

**euskaratzailea: Patxi Apalategi**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Patxi Apalategi.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1993

Jatorrizkoaren data: 1857

Gustave Flaubert euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=192>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=831>

# MADAME BOVARY ZERUETAN ZARENA

## **Flaubert eta Emma Bovary**

Kuriosoa da baina zenbat eta gehiagotan irakurri «Madame Bovary», orduan eta konbentzituago nago nobela horren balioaz. Maisu-lana iruditzen zait liburua, handia Flauberten talentua. Hala ere bada obraren perfekzioa eta nire irudipena iluntzen dituen zerbait: gero eta jasanezinagoa aurkitzen dut Emma Bovary protagonista, mediokridadearen eredu bere fikziozko munduan. Aitortu beharrean nago ordea, Emma Bovary bezalako pertsonaia bat jenio batek soilik sor dezakeela. Ederra da (literarioki esanda), berekoia, oso argia ez, teatrerako oso, handitasun-ametsak darama hara-hona.

Emma Bovaryren historia etengabeko engainuarena da. Hasteko, bere burua eta senarra ditu engainatzen, inguratzen dutenak engainuan erortzen dira, eta zer esanik ez, engainu horretarako partaide eta konplize bihurtzen da irakurlea. Seguru nago joko horretatik kanpo geratzen den

bakarrenetakoa idazlea bera dela. Oso ondo baitzekien zer nolako pertsonaia eta emakume sortzen ari zen; bere estatusari ez dagokion egoera nahi lukeen emakume anbiziosa, egunerokotasunari aurre egiteko borrokatu beharrean, egunerokotasun hori zetaz eta lakirioz jantzirik disimilatu duena. Askotan aipatu izan da histeriaren manupean ibiltzen zirela Flaubert eta Emma Bovary, histeriak lotzen zituela haien kirioen mataza. Aipa dezadan beraz Flauberten sekretua. Bere aita medikuari iruzur egin zion. Sines-tarazi zion gaixo zegoela eta horregatik utzi behar zituela Zuzenbide ikasketak. Aita konbentzitu baldin bazuen, horrek esan nahi du gure idazlea histrioniko eta gezurti aparta zela; obserbadore ona izanik oso ondo ezagutzen zituela gizon-emakumeen ahuldadeak, eta berak ere etekina ateratzen zietela horiei. Aprobetxategi galanta genuen.

Beste egurreko ezpala da Flaubertek bere fikziozko kreaturarekin zituen harremanak. Berak idatzitako gutunetan garbi azaltzen zuen Emma Bovaryk sorrarazten zion nazka. Egia esan, Flaubert ez zen san Antonio, urkoa ez zitzaion maita-

garri; are gehiago, mespretxuz hartzen zituen auzokoak eta lagunak. Baina haren defentsan esatea zilegi da, bere burua ere sarri askotan zitzaion jasanezin. Zikoitza zen traturako.

Misogino omen zen, hala diote ezagutu zutenek, eta hala iruditzen zaio irakurleari, beti mantentzen baitu distantzia luze-zabala bera eta Emma Bovaryren artean, pertsonaiarekin identifikatzera inoiz iritsi gabe. Baina emakumeak gogoko ez bazituen, gauza bera esan daiteke gizonezkoei buruz. Esan nahi dut ez zuela inguruko jendea aintzat hartzen. Flauberten ustea da mediokridadea literaturgai bilaka daitekeela jenialidadea bilakatu izan den modura. Hori onartuz gero, gizateriaren kontra zuzentzen da Flauberten kritika, errukirik gabe, eta sexoen arteko ezberdintasuna kontutan hartzeke.

## **Konfliktoak**

Hiru konflikto ageri zaizkigu nobelan zehar: Charles Bovaryrena, Emma Bovaryrena eta Monsieur Homaisena.

Charles Bovaryk sortzen du Emma Bovaryren baitako konfliktoa. Jakina baita debekupeko

harremani ekiten badie emakume ezkondu batek, senarraren pasibitatearengatik dela neurri handian. Hiru emakume igarotzen dira Charlesen bizitzetik: bere ama, aurreneko emaztea eta Emma, bigarren emaztea. Hiru emakumeek eragina dute, hiruren artean moldatzen baitute Charlesen izpiritua, konformista bihurturik. Ingaratzen duen errealitate pertsonala eta soziala onartzen du Charlesek. Pertsonaia honekin entsaiatu zuen Flaubertek determinismoari buruz zuen teoria. Emakumearen presentzia kaltegarria da gizonezkoentzat; halaxe da Charlesentzat hiru emakumeena, eta halakoxea bihurtzen da Emmaren eragina Leon eta Rodolphe bere maitaleentzat, gizonezkoak amodio-harremanetan galtzaile baitira beti, Flauberten uste-tan.

Errealitatearekin da Emmaren konfliktua. Alde batetik, insatisfakzio sexuala dakusagu; izan ere, bere hezkuntza kastrantea dela medio Charlesek ez baitu imajinatzen emakumeak sexudun direnik. Bestetik, fikziozko heroekin eraiki du mundua, fikzioaren arabera interpreta-tu nahi duelarik bere egoera. Egunerokotasunari

gorroto dio, egunerokotasunak esan nahi baitu sexu-monotonia, amatasuna, dirua, eta gaueko zopa ketsua, Emmak nazka dion errealitate bete baten sinbolo. Emma, esan dezadan garbi, idealista da, bere ondasun pitzarrak eta bere bizitzea erre kara botatzen baditu, ez da dirusurrean dabilelako. Amodioarena eta sexoarena da Emmaren gose infinitoa. Hiri txikian bizi denez, ihesbide gutxi eta txikiak aurkituko ditu.

Monsieur Homaisen konfliktoa estatus politikoaren kontrakoa da. Zinismoa eta ilustrazioa dira darabiltzan armak. Oso jantzia dago fisiokratek erabili ohi dituzten argumentoetan, eta periodikoa irakurrizale dugu. Erregimenaren aurkako izanik, azkenean, gauza guztiek beren tinua hartzen dutenean, irabazle ikusiko dugu. Garaiko burgesiaren adierazle zaigu pertsonaia han, Inperioan integratuz aberastasuna lortu zuen jende-klase baten aintzindari. Arribista baten irudia ekartzen digu Flaubertek, baina ez dugu ahaztu behar, idazlearen ispilu eta zuriketare badela, izan ere Flaubertek Napoleon III.aren ordena onartu baitzuen eta lortu zituen beste batzuei ukatu zitzaizkien ohoreak.

## Idazkera

Zer dira hitzak? Zentzuen luzapena ez bada? Flauberten baitan kontraesan bat ageri da: desio eta errealitatearen artekoa. Beranduago Cernudak poetizatuko zuen berbera. Hala zioen Flaubertek: «Bizitzak bere horretan ez du pena merezi». Flauberten pertsonaiak, san Julian, san Anton, Emma Bovary, ihesaren heroeak dira.

Baina ezin da ahaztu bizitzea egokitu zitzaion garaia, determinismoa nagusi zen momentua. Felicite, «Bihotz apal bat»eko pertsonaia, jostailu da patuaren eskuetan, eta Emma irakurtzen hasten denean Rousseauren «Eloisa Berria», garbi ikusten da saio guztiak frakasora daudela kondenaturik. Honetan ez baitago engainurik.

Patuak agintzen du Emma sutsua izatea gorputzez eta izaeraz, eta Normandiako herri zarraztrajo batean sortua izatea, hiri handi batean, Parisen esaterako, jaio beharrean.

Erromantizismoaren ametsak ez du zereginik nobela honetan. Ez dago inongo ihesbiderik. Lord Byronen ametsa hilda dago, behin ere bizi-



rik egon baldin bazen behintzat. Objektua da baliozgarri izan daitekeen bakarra. Kapitalismoaren aro berri bati dagokion bezala. Eta idazlana dugu objetuen artean perfektoena. Perfekzioa baita Flauberten idazkeraren ezaugarria. Eskuz landatutako harri bitxia dirudi.

Oreka lortzen du Flaubertek, konposizioan, hiztegian, esaldi bakoitzaren erritmoan. Frantsez irakurri duzuenok konturatuko zarete berehala zeinen zaila den duintasunez nobela hau euskaratzea.

**Felipe Juaristi**

# **LEHEN PARTEA**

Estudioan ginen Zuzendaria sartu zenean, bere atzetik kalejantzian berri bat zuela eta klase-zaindari bat pupitre handi bat zeramala. Lo zeudenak esnatu egin ziren, eta bakoitza bere lanean harrapatu balute bezala zutitu zen.

Zuzendariak keinu egin zigun eser gintez; ondoren, ikasketa-maisuarengana itzuli eta:

— Monsieur Roger, esan zion ahopean, hona hemen gomendatzen dizudan ikasle bat, bosgarrenean sartu da. Bere lanaz eta portaeraz merezi badu, *handietara* pasatuko da, adinez dago-kion bezala.

Bazterrean pausaturik, atearen atzean, doi-doi hautemateko eran, *berria* mutiko nekazari bat zen, hamabosten bat urte ingurukoa, eta gu guztiotariko inor baino luzeagoa. Ilea kopetan zuzen moztua zeraman, herri-txikiko txantre baten antzo, tankera zuhurra eta oso aztoratua. Nahiz eta bizkar zabalekoa ez izan, oihal berdezko bere txamarra botoi-belztuna deseroso zetorkion nonbait soinean eta besomuturretako zulo-

etatik eskutur gorriak, biluzi ibiltzen ohituak, ageri zituen. Bere hankak, galtzerdi gorritz jantzirik, tirantez oso tiraturiko praka horizta batzue-tatik ateratzen zitzaizkion. Oinetan zapata zeken batzuk zeramatzan, gaizki lustratuak, iltzez hornituak.

Ikasgaien errezitazioa hasi zen. Hura buru-belarri egon zen entzuten, sermoian bezain adi, zangoak gurutzatzen ere ausartu gabe, ezta ukondoak tinkatzen ere, eta, ordubietan, kanpaiak jo zuenean, ikasketa-maisuak ohartarazi egin behar izan zion, ilaran gurekin batera jar zedin.

Ikasgelara sartzean gure bonetak lurrera botatzeko ohitura genuen, horrela eskuak libreago edukitzearren; alatzetik bertatik jaurtiki behar izaten ziren aulkipera, hormaren kontra jotzean hauts ugari harrotzeko eran; horrela zen hango *jokoa*.

Baina, maniobra horretaz ohartu ez zelako edo horretara plegatzera ausartu ez zelako, errezoa bukatu eta gero ere behintzat, *berriak* bere boneta artean bere bi belaunen gainean zeukan. Ordena konposatuko kapelu horietako

bat zen, non kausitzen baitira ilezko sonprailua-  
ren elementuak, chapskarenak, kapela borobila-  
renak, ugadera-larruzko txanoarenak eta algo-  
doizko txapelarenak, gauza pobre horietako bat,  
alegia, zeinaren itsusitasun mutuak ergel baten  
aurpegiak adinako espresio-sakontasunak baititu.  
Oboidea eta balen-bizarrez hanpatua, hiru  
buzkantz zirkularrez hasten zen; segidan, xingo-  
la gorri batek bereizirik balusazko erronbo  
batzuk eta untxillezko batzuk txandakatzen  
ziren; ondoren zaku antzeko zerbait zetorren  
poligono kartoneztatu batez buruturik, galarru-  
bordatu bihurri batez estalirik, eta honetatik zint-  
zilik, kordoi luze mehegi baten puntan, urre-  
harizko gurutzaburu txiki bat, purpuseta eran.  
Berria zen; bixerak distira egiten zuen.

— Altxa zaitez, esan zuen irakasleak.

Altxatu egin zen. Bere boneta erori egin  
zitzaion. Gela osoak barreari eman zion.

Jasotzera makurtu zen. Alboko batek ukondo-  
az jo eta lurrera bota zion, berak berriro ere jaso  
egin zuen.

— Jaregiozu ba zure boneta horri, esan zuen  
irakasleak, gizaseme jarria izaki.

Ikasleak algaraz lehertzen hasi eta mutil gizarajoa larritu egin zen, hain larritu ere, non ez baitzekien boneta eskuan gorde behar ote zuen ala lurrean utzi ala bere buruan jantzi.

Berrero eseri zen eta belaunen gainean ipini zuen.

— Altxa zaitez, berriz ere irakasleak, eta esadazu zure izena.

*Berriak* izen ulertezin bat ahoskatu zuen totalka.

— Berriz!

Silaba-totalkada berbera entzun zen, gelako uhuka-oihuek estalirik.

— Ozenkiago! maisuak deiadarka, ozenkiago!

*Berriak* orduan, erabateko erabakia harturik, egundoko ahoa ireki zuen eta eztarria lehertzeare bota zuen, norbaiti deika bezala, hitz hau: *Charbovari*.

Bat-batean oldartu zen iskanbila, *in crescendo* ozendu zen, garrasi zorrotzez (uhuriaka, ahausika, lurrari ostikoka, errepikatuz: *Charbovari! Charbovari!*), gero nota bakanetan errestatu zen, nekez baretuz, eta tarteka berrero kol-

pean hasten zen eserlekuren bateko ilaran, edo han-hemenka lehertzen zen, gaizki itzalitako petardo baten gisa, barre itoren bat.

Halere, zigor-erauntsipean ordea, itzuli zen ordena poliki-poliki gelara, eta irakasleak, noiz-baitekoan ere Charles Bovaryren izena atxikirik, diktatu, letreiatu eta berrirakur erazi ondoren, gizaixoari segituan agindu zion nagien aulkian esertzera joan zedin, irakaslemahaiaren oinean. Mugitzen hasi zen baina, abiatu baino lehen, zalantza izan zuen.

— Zeren bila zabilta? galdetu zuen irakasleak.

— Nire bo..., esan zuen *berriak* herabeki, bere baranoan begirada kezkatuak pasiatuz.

— Bostehun berso klase osoak! ahots hasez oihukatzeak gerarazi zuen, *Quos ego* hark bezala, beste ekaitz bat. — Trankil egon zaitzte ba! jarraitu zuen irakasleak asaldaturik, eta bere kapelapetik atera berria zuen mokanesaz beko-  
kia xukatuz: Eta zuk, *berriak*, hogeit aldiz kopiatuko didazu *ridiculus sum* aditza.

Ondoren, ahots samurragoaz:

— Aizu! aurkituko duzu zure boneta; inork ez dizu lapurtu!

Dena bere onera itzuli zen. Buruak karpeten gainera makurtu ziren, eta *berria* ereduako jarre-ran egon zen bi ordutan zehar, nahiz eta, tarte-ka, lumapuntaren bidez jaurtiki eta bere aurpe-gian zaplaztatzera zetorren paper-bolatxoren bat edo beste izan zen arren. Baina hark, eskuaz xukatu eta geldi-geldi segitzen zuen, begiak apaldurik.

Gauean, Estudioan, bere pupitretik mahuka-muturrak atera zituen, bere gauzatxoak ordena-tu zituen, bere papera arreta handiz marratu zuen. Lanean serioa aritzen ikusi genuen, hitz guztiak hiztegia begiratzuz eta bere gain lan handia hartuz. Bistan erakutsi zuen borondate on horri esker, hain zuen, ez zuen beheragoko klasera jaitsi beharrik izan; zeren eta, bere erre-gelak pasamoduan zekizkien arren, ez baitzeu-kan ia inolako dotoreziarik esakeran. Bere herri-ko apaizarekin hasia zuen latina, bere gurasoek, diruak premiaturik, ahalik eta beranduen arte ez baitzuten bidali ikastetxera.



Bere aita, Charles-Denis-Bartholomé Bovary, ofiziale mediku militar baten laguntzaile-ohia, 1812. urte aldera kinto-libratze arazotan konprometatur, eta garaimodutsu hartan zerbitzua uztera behartua, bere xarma pertsonalez baliatu zen orduan, ehun-merkatari baten alabaren baitan eskaintzen zen hirurogei mila liberatako dotea iraitzean atxikitzeko, hura bere giza-plantaz enamoratu baitzen. Gizaseme bikaina, arranditsua, ezproin-soinu handia eraginez, papiloteak bibotearekin elkaturik zituela, behatzak beti eraztunez horniturik eta kolore ikusgarri jantzirik, gizaseme bizkorraren itxura zeukan, salmentari bidaiante baten bixitasun airosarekin. Ezkondu ondoren, bere emaztearen fortunaren kontura bizi izan zen bi edo hiru urtez, ongi janez, berandu jeiki, portzelanazko pipa handitan erre, arratsean espektakuluen ondoren arte etxeratu gabe eta kafetegietan sarri ibiliz. Aitagi narreba hil zen eta ezer gutxi utzi zuen; hori gaitzi izan zitzaion, *fabrikan* ekin zion, hartan diru apurren bat galdu zuen, ondoren landetara erretiratu zen eta hura *aurrera atera* nahi izan zuen. Baina, nekazaritzan ere nonbait ez izan ehungin-

tzan baino trebatuago, bere zaldiak zamalkatu egiten baitzituen laborantzara bidali ordez, bere sagardoa botilaka edaten baitzuen upaka saldu ordez, bere oilategiko hegaztirik ederrenak jan egiten baitzituen eta bere zerrien urdaiaz bere ehize-oinetakoak gantzutzen baitzituen, ez zitzaion luze joan ohartzeko, hobe zuela espekulazio oro bertan behera utzi.

Urteko berrehun libera medio, aurkitu zuen herrixka batean, Caux eta Picardie arteko mugan, bizileku-molde bat erdi landetxe erdi jauregia, alogeran hartzeko. Eta, zaputz, atseka-bez dolaturik, zerua akusatuz, mundu guztiaren kontra bekaizti, berrogeita bost urtez gero bere baitan hertsu zen, gizonez nazkaturik, zioen berak, eta bakean bizitzea deliberaturik.

Bere emaztea hartaz txol enamoraturik egona zen garai batean; senarra beregandik are gehiago urrundu zuten mila mirabekeriaz maite izan zuen; lehen alaia, lagunkorra, guztiz maitalea, zahartzean ordea (airetara irekirik mintzen den ardoa bezala), umore-gaitz, karrankari, urduri bilakatu zen. Hainbat sufritua zen, kexatu gabe, hasieran, hura herriko maripurtzil guztien

atzetik ikusten zuenean eta hamaikatxo zulo gaiztotatik arratsean bidaltzen ziotenean, ahiturik eta mozkor-kiratsa zeriola! Gero harrotasuna erreboltatu zitzaion. Orduan isildu egin zen, hil arte guztian gorde zuen estoizismo mutu batean bere amorrua irentsiz. Hara eta hona negoziotan zebilen beti. Auzi-prokuradoreengana, presidentarengana, bera joaten zen, zor-agirien epeburuak gogoan izaten zituen, luzamenduak lortzen zituen; eta, etxean, lisatu, josi, lixiba jo, langileak zaindu eta kontuak ordaintzen zituen, eta bitartean etxekojauna, ezertaz arduratu gabe, etengabeko lozorro zaputzean mokorturik egoten zen, sutondoan pipatzen, errautsetara ttuka, eta hartatik ez zen esnatzen andreari gauza higuingarriak esateko baino.

Haurra izan zuenean, inudetu beharra izan zen. Etxera itzultzean, printze bat bezala mixkindu zuten umea. Bere amak gozokiz elikatzen zuen; bere aitak oinutsik ibiltzen uzten zion, eta, filosofatzeari emanetz, esan ere egiten zuen, zeharo biluzi ere ibil zitekeela, piztien umeak bezala. Amaren jiteen kontrakarran, haurtzaroaz halakoxe ideial ordoski bat zeukan buruan, zei-

naren arabera saiatzen baitzen bere semea hezitzen, laztasunean, espartarren erara hazi nahiez, hura askai ederrekoa egitearren. Surik gabe bidaltzen zuen ohera, ron hurrupa handiak edaten eta prozesioei irain egiten irakasten zion. Baina, berez baketsua izaki, txikiak erantzun eskasa ematen zien haren ahaleginei. Amak bere atzetik zeraman beti; kartoizko jostailuak musarratzen zizkion, ipuinak kontatzen zizkion, berarekin aritzen zen solasean bozkario malenkoniatsuz eta hizjario-balakuz beteriko bakarrizketa etengabetan. Bere bizitzako bakardade hartan, haur haren baitan ipini zituen bere arrandi sakabanatu eta apurtu guztiak. Goreneko graduez amets egiten zuen, jada handia eginik ikusten zuen, dotorea, zorrotza, finkatua, zubi eta errepide injinerutzan edo magistraturan. Irakurtzen irakatsi zion, eta kantatzen ere, berak zeukan piano zahar batean, bi edo hiru erromantza-txo. Baina, hau guztia zela-eta, Bovary jaunak, letrez gutxi axolatzen baitzen, esaten zuen ez *zuela pena merezi!* Inoiz izango al zuen gobernuaren eskoletan zertaz mantendurik, kargu bat edo negozio bat erosteko lain? Bestalde, *mutiria*

*izanik, gizona beti ateratzen baita aurrera munduan.* Bovary andreak ezpainak ausikitzen zituen eta haurra dilingo-dalango ibiltzen zen herrian barrena.

Laborarien atzetik joaten zen, eta sokorka uxatzen zituen beleak, zeinak hegaztatu egiten baitziren. Arroiletan barrena masustak jaten zituen, puloiak zaintzen zituen arbazta batez, belar iharra eskuareten zuen, basoetan zehar korrika ibiltzen zen, euri egunetan elizatariko aterpean txingotan jolas egiten zuen, eta, jaiegun handietan, sakristauari otoi eskatzen zion kanpaiak jotzen utz ziezaion, bere gorputz osoa soka handitik dilindatu eta hark bere kulunkan eramanik sentitzearren.

Hazi ere horrela egin zen haritz bat bezala. Esku sendoak egin zitzaizkion, kolore ederrak.

Hamabi urtetan, bere amak lortu zuen ikasketei ekin ziezaien. Horretaz apaiza arduratu zen. Baina ikastorduak hain laburrak eta hain gaizki jarraituak izaki, ezin zuten noski gauza handitarako balio izan. Hutsarteetan ematen zituzten, sakristian, zutik, presaka, bataio baten eta hileta batzuen artean; edota apaizak norbait

bidaltzen zuen bere ikaslearen bila Angelus ondoren, berak irten beharrik ez zeukanetan. Bere gelara igotzen ziren, bertan egokitzen ziren: eulibeltzak eta gautximeletak hegabiraka ibiltzen ziren kandelaren inguruan. Bero egiten zuen, haurra loak hartzen zuen; eta gizon gizartekoak, eskuak zilbor gainean zituela lokarturik, ez zuen denbora luzerik behar izaten zurrungaka hasteko, ahoa zabalik. Beste batzuetan, apaiz jaunak, inguruetakoa gaixoren bati elizakoak ematetik itzultzean, Charles zelaietan zehar bereetakoak egiten ikusten zuenean, hots egiten zion, ordu laurden batez sermoia bota eta tenoreaz baliatzen zen aditz-jokuak errepika arazteko zuhaitz baten oinean. Eta baina euria zetorren etenaraztera, edota inguruan pasatzen zen ezagunen bat. Gainontzean, hartaz kontent zen apaiza beti, eta gizontxoak oroimen azkarra zuela ere esaten zuen.

Charles ezin zitekeen hartan geratu. Andrea gogor jarri zen. Lotsaz, edota asperturik gehienbat, etxekojaunak amor eman zuen jarkipenik gabe eta artean beste urtebete itxoin zuten

harik eta haurrak lehen jaunartzea egin zuen arte.

Beste sei hilabete ere iragan ziren; eta, hurrengo urtean, bidali zuten Charles behingoan ere Rouengo ikastetxera, aitak berak eramanez zuelarik, urriaren bukaera aldean, San-Romane-tako feriaren egunetan.

Gutariko edonori ezinezkoa litzaioke orain hartaz ezer gogoan izatea. Temperamendu eratsuzko mutila zen, errekreoetan jolas egiten zuen, estudioan langilea, klasean entzun, logelari ondo lo eta jangela ondo jaten zuena. Ganterie kaleko kinkaila-saltzaile bat zeukan babesle, eta honek ateratzen zuen hilean behin, igandez, bere denda itxi ondoren, itsasuntziei begira pasiatzera portu aldera bidaliz, eta gero zazpiak ondoren eramaten zuen berriro ikastetxera, afalurrean. Ostegun gauero, eskutitz luze bat idazten zion bere amari, tinta gorri eta hiru lakrez zigilaturik; ondoren historiako bere apunteak erreparatzen zituen, edota estudioan harat-honat zerabilten *Anacharsisen* bolumen zahar bat irakurtzen zuen. Pasieretan, morroiarekin hitz egiten zuen, laboraria baitzen bera bezala.

Saiatzearen poderioz, beti ere klasearen erdialdean mantendu zen; behin batez, natur-historian lehen accesit bat irabazi ere egin zuen. Baina, hirugarrena bukatzean, bere gurasoek ikastetxetik atera egin zuten medikuntza ikastarazteko, batxilerra burutu arte bera bakarrik moldatzeko gauza izango zela pentsatuz.

Bere amak aukeratu zion gela bat, Eau-de-Robec kaleko laugarren batean, ezaguna zuen tindatzaile baten etxean. Amak berak burutu zuen haren ostatatze-tratua, altzariak lortu zituen, mahai bat eta bi aulki, bere etxetik ekarrazazi zuen basagerezizko ohe zahar bat, eta gainera burdinazko txopeta bat erosi zuen, bere seme gaixoa berotu behar zuen suegur-hornidura eta guzti.

Eta astebetearen buruan ama joan egin zen ongi portatzeko mila gomendio eman ondoren, orain bere kasa abandonaturik geratuko baitzen.

Iragarki-taulan irakurri zuen ikasketa-programak, zorabiatu utzi zuen; anatomia-ikasketak, patologia ikasketak, fisiologia-ikasketak, farmazi ikasketak, kimika-ikasketak, botanika-ikasketak, eta klinikakoak, eta terapeutikakoak ere, hori



higienea eta medikuntzagaiak kontatu gabe, guztiak ere etimologiarik ezagutzen ez zuen hitzak eta bakoitza ere ilunpe gurgarriz betetako saindutegitako ate bana bezala.

Ez zuen ezer ulertu; entzun bai entzun, ez zuen ezer atxikitzen. Lana egiten zuen horratio, apunte-koadernoak azala jarrita zeuzkan. Klase guztietara joaten zen, ez zuen bisita bat bera ere galtzen. Bere eguneroko eginkizuntxoak betetzen zuen, begiak estalirik toki berean jiraka dabilen igara-zaldiak bezala, lantzen ari den beharraren zantzurik ere gabe.

Mutilaren gastuak murriztearren, bere amak astero igortzen zion, erre kardariaren bidez, labean erretako zekorki zati bat, eta hori jaten zuen goizean, ospitaletik itzultzean, oinzolak hormakontra ostikoka berotuz. Segituan korrika joan beharra zegoen klaseetara, anfiteatrora, ospiziora, eta bere etxera itzuli, kale guztiak barrena. Gauean, bere etxenagusiaren afari urriaren ondoren, bere gelara igotzen zen eta lanari ekiten zion, bere soinean jantzi bustiei txo-peta goriaren aurrean lurruna zeriela.

Udako arrats ederretan, kale epelak hutsik dauden garaian, neskameak atarietan gabote-jolasean aritu ohi direnean, bere leihoa ireki eta ukondoak pausatzen zen bertan. Rouengo auzo hau nobleziarik gabeko Venezia-txiki kaskar bat bihurtzen duen ibaia, han behean bere azpian zihoan hori, ubel edo urdin, bere zubi eta barandilen artean. Langile batzuek, ertzean kukurturik, beren besoak garbitzen zituzten uretan. Ganbara gainetatik ateratzen ziren haga batzuetatik zintzilik algodoi-matazak egoten ziren airetan lehortzen. Aurrez-aurre, teilatuez bestaldean, zeru haundi gardena hedatzen zen, sartzen ari zen eguzki gorriarekin. Han bai egingo zuela giro ona! Zer nolako freskura hariztiko itzalean? Eta bere sudurak irekitzen zituen, bereganaino heltzen ez ziren landetako usain onak arnasteko.

Argaldu egin zen, kaizuz luzatu, eta bere aurpegiak ia interesgarri bihurtze arterainoko halakoxe espresio mindurua hartu zuen.

Arian-arian, zabarkeriaz, hartuak zituen erabaki guztiak bertan behera uzten joan zen. Behin batez, bisitara huts egin zuen, biharamunean

bere klasera, eta, nagikeria dastatuz, poliki-poliki, ez zen gehiago betebeharretara itzuli.

Kabaretetarako ohitura hartu zuen, domino-en grinarekin. Areto publiko zikin batean gauero sartu eta han marmolezko mahai batzuetan puntu beltzez markaturiko arkume-hezur txiki batzuk kaskatzea, bere askatasunaren egintza preziatu bat iruditzen zitzaion, eta berekiko goratu egiten zuen bere buruarenganako istimuan. Mundu-bizitzako hastapena bezala zen, debekuzko plazeretarako sarbidea; eta, sartzerakoan, bozkario ia sentsual batez pausatzen zuen eskua ateko krisketan. Orduan, bere baitan hertsaturiko gauza asko hedatu egin ziren; ongietorrietan kantatzen zituen koplak batzuk buruz ikasi zituen, Beranger-ekiko entusiasmatu zen, pontxe egiten ikasi zuen eta azkenik amodioa ezagutu zuen.

Prestakuntza-lan hauei esker, osasun-ofiziale-tarako azterketetan zeharo porrot egin zuen. Gau hartan bertan bere etxean zain zituen bere arrakasta ospatzeko!

Oinez abiatu zen eta herriaren sarrera-aldean gelditu eta bere amari abisua bidali zion, eta

dena kontatu zion. Amak desenkusatu egin zuen, porrotaren errua azterketarien injustiziari leporatuz, eta zuzpertz zuen pixka bat, gauzak konpontzen ere bera arduratuz.

Handik bost urtetara bakarrik jakin zuen Bovary Jk egia; egia zaharra zen, onartu egin zuen, bestalde ezin suposaturik beregandik sortutako gizon bat memeloa izan zitekeenik.

Beraz Charles berriro lanari lotu zitzaion eta bere azterketarako gaiak etenik gabe prestatu zituen, galde-erantzun guztiak aurrez buruz ikasiz. Nota nahiko ona atera zuen. Bai egun ederra bere amarentzat! Egundoko afaria eman zuten.

Nora joango ote zen bere artea egikaritzera? Tostes-era. Han mediku zahar bat besterik ez zegoen. Bovary andrea aspaldi hartan zelatan zegoen hura noiz hilko. Gizon gizarajoa artean azken bidaiarako zorroa tolesten, eta Charles jadanik aurrez aurre instalaturik zen haren ondorengo gisa.

Baina ez zen aski bere semea hezi izana, hari medikuntza ikastarazi izana eta medikuntzan lan egiteko Tostes aurkitu izana: emaztea ere behar zuen. Amak bai aurkitu ere: Dieppeko ataltzain

baten alarguntsa, berrogeita bost urtekoa eta mila eta berrehun liberatako errentaduna.

Nahiz eta itsusia izan, txilarre lehorra bezain idorra, eta udaberria muinez bezainbat zuldarrez jantzia zegoen arren, eskiarki Dubuc andreari non aukeraturik ez zitzaion falta. Bere xedeetara heltzeko, Bovary andreak hauek guztiak iraitzi behar izan zituen, eta apaizen sostengua zeukan zerriki-dendari baten azpijokoak ere trebezia handiz desegin zituen.

Charlesekin sumatua zuen ezkontzaren bidez egoera hobe baten etorrera, libreago izango zelakoan eta bere buruaz eta bere diruaz baliatuzeko aukera izango zuelakoan. Baina bere emaztea izan zen nagusi; senarrak jendearen aurrean halako esan behar zuen, eta beste honako ez zuen esan behar, ostiralero barau egin behar zuen, emazteari iruditzen zitzaion bezala jantzi, ordaintzen ez zuten bezeroak bere aginduz hertsatu. Emazteak irekitzen zizkion bere eskutitzak, bere joan-etorriak zelatatzen zituen, eta bere kabineteko kontsultak entzuten zizkion, paretaz bestaldetik, emakumeak zituenean.

Goizero bere txokolatea behar zuen, amairik gabeko mila balaku. Arrenkuraz ari zen etengabe bere nerbioengatik, bere bularrarengatik, bere umorengatik. Oin-hotsak kalte egiten zion; alde egin behar; bakardadea gorrotagarri bilakatzeko zitzaion; bere albora itzuli behar, hiltzen ikustearren, noski. Arratsean, Charles etxeratzen zenean, emazteak maindireen azpitik bere besoluzerak ateratzen zituen eta lepoaren inguruan pasatzen zizkion, eta, ohearen ertzean eserlarazi ondoren, bere atsekabeez mintzatzen hasten zitzaion: ahazturik zeukala, beste norbait maite zuela! Esan ziotela bai, dohakabea izango zela; eta bukatzeko jaraberen bat eskatzen zion bere osasunarentzako, eta amodio pixka bat gehiago.

Gau batez, hamaikak aldera, atari aurrean gelditu zen zaldi baten zaratak esnatu zituen. Neskameak ireki zuen ganbarako leihatila eta denboratxo batez eleketan aritu zen behean kalean zegoen gizon batekin. Medikuairen bila zetorren; gutun bat zekarren. Nastasiek hotzak dardaraz jaitsi zituen mailak, eta sarraila eta morroiloak, bata bestearen ondoren, irekitzera joan zen. Gizonak utzi zuen bere zaldia eta, neskamearen atzetik, Bat-batean sartu zen haren ondoren. Artilezko bere zapel mortxil-grisdunaren barrutik atera zuen zapi batean bildutako gutun bat, eta begirunez aurkeztu zion Charlesi, zeina burkoan ukondoaz tinkatu baitzen irakurtzeko. Nastasiek, ohe alboan, argiari eusten zion. Etxekoandrea, ahalkez, trenkadaldeko tarterantz jiraturik zegoen eta bizkarra erakusten zuen.

Gutun honek, argizari urdinezko zigilu txiki batez zigilatua, Bovary J.ri otoikatzen zion Bertaux-etako etxaldera berehalakoan joan zedin,

hanka hautsi bat konpontzera. Alegia, Tostesetik Bertauxetara badago sei legoa luzetako bidea, Longueville eta Saint-Victortik barrena. Gaua beltza zen. Bovary andre gaztea, bere senarrari istripuren bat gerta zekioken beldur zen. Beraz, erabaki zen, ikuilu-morroia joango zela aurrez. Charles hiru ordu beranduago abiatuko zen, ilargia irtetearekin batera. Mutiko bat bidaliko zitzaion bila, etxalderako bidea erakutsi eta bideko langak ireki ziezazkion.

Goizeko laurak aldera, Charlesekin, bere gainjantzian ongi bildurik, Bertaux-etako etxalderako bidea hartu zuen. Loaldiko berotan artean lokarturik, bere aberearen trosta baketsuan kulunkatzen uzten zuen bere burua. Erreten-ertzetan sakontzen diren sasiz inguratutako zulo horien aurrean zaldia bere kabuz gelditzen zenean, Charles, tupustean atzarririk, laster oroitzen zen hanka hautsiaz, eta ezagutzen zituen haustura guztiak berriz bururatzen saiatzen zen. Jadanik ez zen euririk erortzen; eguna zabaltzen hasia zen, eta, historik gabeko sagarrondoan adarretan, txoriak geldi-geldirik zeuden, goizeko haize hotzetan beren luma txikiak harrotuz. Landeta



laua bistaz galtze arteraino hedatzen zen, eta etxaldean inguruko zuhaitz-basotxoek, elkarrengandik urrun tartekaturik, orban more-beltzak egiten zituzten zeruaren tonu goibelarekin batera ortzimugan galtzen zen azalera gris zabal hartan. Charlesek, aldian behin, begiak irekitzen zituen; gero, gogoia nekaturik eta logalea bere kasa itzulirik, laster sartzen zen nolabaiteko lozorro batean eta hartan, bere berrikitako sentrazioak oroipenekin nahasten baitziren, bere burua bikoitz sumatzen zuen, aldi berean, ikasle eta ezkondua, bere ohean etzanda arestian bezala, operatuen gela zeharkatzen garai batean bezala. Kataplasma-usain beroa ihintzaren usain berdearekin nahasten zen bere buruan; hala entzuten zituen oheen burdinazko mailak barra gainean errestan eta bere emaztea lotan... Vassonvilletik pasatzean, mutiko bat ikusi zuen, erroil baten ertzean, belarretan eserita.

— Zu al zara medikua? galdetu zuen mutikoak.

Eta, Charlesen erantzuna medio, eskalaproinak eskuetan hartu eta bere aurrean korrika hasi zen.

Osasun-ofizialeak, bidean zihoan bitartean, bere gidariaren solasari esker ulertu zuen Rouault J. nekazarietarik nonbait aberatsenetakoa zela. Bezpera gauean, auzoko batenean *Erregeak ospatzetik* itzultzean, hanka hautsi zuen. Bere emaztea zuela bi urte hila zen. Harekin bere *demoiselle* besterik ez zen bizi, eta honek laguntzen zion etxeko lanak egiten.

Gurtarrastoak sakonagoak bilakatu ziren. Bertauxetatik hurbil ziren. Mutikoa, hesiko zulo batetik barrena, desagertu egin zen, gero esparru baten bestaldetik itzuli zen bertako atea irekitzera. Zaldia irrist egiten zuen belar bustiaren gainean; Charles makurtu egiten zen adarren azpitik pasatzeko. Etxeko zakurrak beren txokoran zaunkaz ari ziren beren kateetatik tiraka.

Bertauxetara sartu zenean zaldia beldurtu egin zen eta brastako handi bat egin zuen.

Itxura ederreko etxaldea zen. Ikuiluetan, irekitako ateen gainerik, laborantzarako zaldi handiak ikusten ziren ezarian jaten ganbela berrie-

tan. Edifizioen luzetara goroztegi zabala hedatzen zen, lurratsa zerion, eta, oiloen eta puloien artean, bost edo seikoren bat pauma zebilen mokoka, Caux aldeko oilategietako luxua. Artegia luzea zen, etxea handia, bere hormak ahurra bezain leunak. Aterpean bi gurdi handi eta lau golde zeuden, beren zaharo, beren goilare, beren zaltresna guztiekin, hauen artile urdinezko mototsak bihitegietatik erortzen zen hauts finaz zikintzen zirelarik. Eskorta pendoitzean zihoan, simetrikoki tartekaturiko zuhaitzez landaturik, eta antzara saldo baten karranka alaia ateratzen zen ihidoi aldetik.

Emakume gazte bat, hiru aloz-hegalez apainduriko meriñu-urdinezko soinekoz jantzirik, etxe-ko atalasea etorri zen Bovary J.ri harrera egitera, eta sukaldera lagundu zion, non su handia garretan baitzegoen. Suaren bornuan morroien bazkaria ari zen irakiten, tamaina desberdinetako eltze txikitan. Zenbait arropa busti ari zen lehortzen pantetx barruan. Burtzina, suhartzak eta hauspoaren mokoia dizdiz zeuden altzairu arradatua bezala, eta hormetan zehar berriz ugari hedatzen zen sukalde-tresneria, non mirai-

latzen baitzen desberdinki surtako gar argia, leiarretatik zetozen lehen eguzki-zohargiekin bateraturik.

Charles igo zen, lehenengora, gaixoa ikustera. Ohean aurkitu zuen, estalkien pean izerditan eta bere algodoizko txanoa ongi urrutira iraitzia zuelarik. Berrogeita hamar urtetako gizon txiki potzolo bat zen, larrazal zurikoa, begiurdina, buruko aurrealdea soila, eta belarritakoak zermatzen. Bere alboan, aulki baten gainean patardamasa handi bat zeukan, eta bertatik tarteka hurrupa bat ateratzen zuen barrunbeak zuzperetzeko; baina, medikua ikusi zuen orduko, bere asaldapena apaldu egin zen, eta, hamabi ordu hartan ari zen bezala biraokatu orde, motel-motel heiagoraka hasi zen. Haustura ximplea zen, inolako katramilarik gabekoa. Charles ezin zatekeen ausartu ere errazagorik espero izaten. Beraz, zaurituen ohe ondoan bere maisuen jokaera-moldeak gogoratuz, gaixoa adoretu zuen molde orotako hitz ederrez, bisturiak koipartzeko den olioaren antzeko balaku kirurgikoez.

Oholkoak edukitzearren, gurditegira joan ziren, estrabe-haxe baten bila. Charlesek bat

aukeratu zuen, zenbait zatitan moztu zuen eta beira-puska batez leundu zuen, neskamea bendak egiteko izarak zarratatzen eta Emma ande-  
reñoa kuxinak josten saiatzen ari ziren bitartean. Bere jostun-xixkua aurkitzerako denbora luzea eman zuenez, aita ernegatu egin zen; berak ez zuen ezer erantzun; baina, josten ari zen bitartean, bere behatzak xulatu eta berehala ahora eramaten zituen xurgatzeko.

Charles harritu egin zen haren hatzazalen zuriaz. Distiratsuak ziren, puntazorrotzak, Diepeko marfilak baino garbituagoak, eta almendra eran moztuak. Haren eskua ordea ez zen polita, aukeran ez nahiko zuhaila, agian, eta falanjeetan igar xamarra; gainera luzeegia zen, eta biraguneetan malgudura-marra beratxik gabekoa. Ederrik eder zuena, begiak ziren: nabarrak izanik ere beltzak ziruditen, betileak medio, eta bere begirada zabalkiro iristen zitzaizun ozartasun xalo batez.

Jada bendak loturik, Rouault Jk berberak gonbidatu zuen medikua *aharmen bat hartzera*, abiatu baino lehen.

Charles salara jaitsi zen, eskaratzera. Bi kubierto zeuden, zilarrezko godaletekin, mahai txiki baten gainean, turko-irudiko pertsonaiatzko indi-ehun batez jantzitako errezeldun ohe handi baten oinean. Leihoaren aurrez aurre zegoen haritz-zurezko alasa altutik jalgitzen zen lili eta izarra hezatsuren usaina aditzen zen. Lurrean, ertzetan, zutika taiuturik, gari-zakuak zeuden. Hiru harmailaren bidez igotzen zen alboko bihi-tegiaren gainezkako zen. Egongua apaintzeko, iltze baretik zintzilik, pintura berdea kresalaz harrotzen ari zitzaion hormaren erdian, Minerbaren buru bat zegoen arkatz beltzez marraztua, urrekoloreko markoan, eta oinean, letra gotikoz idatzirik zeraman: «Nire aitatxo maiteari». Lehenbizi gaixoaz mintzatu ziren, gero egiten ari zen eguraldiaz, hotz handiez, gauez landetan zehar zebiltzan otsoez. Rouault andereñoa ez zen hain laket nekazaritza-bizigiroan, batez ere orain ia berak bakarrik baitzuen etxaldea zaintzearen ardura. Salan hozkirri egiten zuenez, jaten ari zen bizarrean hotzikaraz zegoen andereñoa, eta horrek bere ezpain mardulak pixka

bat nabarmendu egiten zituen, ohituraz hoxkatu egiten baitzituen isiluneetan.

Bere iduna goleta zuri tolestu batetik irteten zen. Bere ilea, zeinaren bi adats beltzek bakoitza puska osokoa baitziruditen, hain ziren izan ere zapalak, buruaren erdian berezirik zegoen arroil fin batez, eta hau poliki-poliki hondoratzen zen buru-hezuraren makurdurari jarraiki; eta, belarri-gangaila doi-doi ikusten utziz, atzealdean nahasten ziren motots naharo batean, adegien inguruan bihurtura kizkur batez, zeina hantxe hauteman baitzuen landeta-medikuak bere bizi-tzan lehen aldiz. Matrailalboak gorritzak zituen. Bere gerrontzeko bi botoiren artean loturik, gizonak bezala, maskorrezko betaurrekoak zeramatzan.

Charles, Rouault zaharrari agur egitera igo ondoren, abiatu aurrez salara itzuli zenean, zutik topatu zuen, bekokia leihoaren kontra, baratzer begira, non babarrunen zurkaitzak eratsiak baitzituen haizeak. Itzuli egin zen.

— Zerbaiten bila zabilta? galdetu zion.

— Nire zaharoa, mesedez, erantzun zuen gizonak.

Eta miaketan hasi zen ohe gainean, ateen atzean, aulkipeetan; lurrera erorita zegoen, zakuen eta hormaren artean. Emma andereñoak aurkitu zuen; gari-zakuen gainean makurtu zen. Charles, kortesiaz, lehiatu egin zen, eta, berak ere mugimendu berean besoa luzatu zuelarik, bere bularrondoak sentitu zuen azpian makurturik zegoen neska gaztearen bizkarra ferekatzen.

Gorri-gorri zutitu zen neska eta sorbalda gainetik begiratu zion, bere idi-zurda luzatuz.

Bertauxetara handik hiru egunetara etorri ordez, agindu zuen bezala, biharamunean bertan itzuli zen, eta gero astean bi bider ziurki, eta hori tarteka, oharkabean bezala, egiten zituen ustekabeko bisitak kontatu gabe.

Gainontzean, dena ongi joan zen; sendakuntza arautu bezala gauzatu zen, eta, berrogeita sei egunen buruan, Rouault zaharra bere oilategian bakarrik ibiltzen saiatzen zela ikusi zutenean, Bovary J. trebetasun handiko gizontzat ematen hasi ziren. Rouault zaharrak esaten zuen, Yvetot-ko lehen medikuek ezta Rouengoek ere ez zuketela hobeto sendatuko.



Charlesi dagokionez, ez zen saiatu ere egin bere buruari galdetzen ea zergatik etortzen ote zen atseginez Bertauxetara. Horrelakorik bururatu balitzaio ere, kasuaren grabetasunari eraxekekio ziokeen bere arreta sutsua, edota horretatik ateratzea espero zuen onurari beharbada. Baina horregatik ote zen ordea, etxalde hartara bere bisitak, bere bizimoldeko zeregin hutsalen artean, salbuespen xarmagarri bat izatea? Egun horietan goiz jeikitzen zen, asapalan abiatzen zen, astintzen zuen zaldia, gero jaitsi egiten zen oinak belarretan garbitzera, eta bere eskularru beltzak jazten zituen sartu baino lehen. Atsegin zuen bere burua larrainera heltzen ikustea, bere bizkarraren kontra langa jiratzen sentitzea, eta horma gainean kukurruka ari zen oilarra, atera irteten zitzaizkion mutilak. Atsegin zituen etxea eta abeltegiak; bere salbatzaile deituz eskuan xapla-xapla ematen zion Rouault zaharra atsegin zuen; atsegin zituen Emma andereñoaren eskalaproin txikiak sukaldeko harlosa ikuzien gainean; hauen orpogain altuek pixka bat handia-gotu egiten zuten, eta, neska bere aurretik ziho-

anean, zurezko zoruek, azkar altxatuz, hots idor batez klaskatzen ziren larruzko oskien kontra.

Eskilaretako lehen mailaraino laguntzen zion beti. Artean bere zaldia ekarri ez ziotenetan, neska hantxe geratzen zen. Elkarri agur esana zioten, ez ziren gehiago mintzatzen; aire zabalak inguratzen zuen, bere garandoko ilaunak nahasian harrotuz, edo bere mantalaren lokarriak gerrondoan astinduz, zeinak banderola gisa bihurkatzen baitziren. Behin batez, gesaltze garaian, atarian zuhaitzen azala jarioan ari zen, eraikinetako sabai gainetan elurra urtzen ari zen. Neska atalasean zegoen; bere guardasolaren bila joan zen, ireki egin zuen. Guardasolak, usapal-paparraren gisako zetazkoa, eguzkiak zeharkatzen baitzuen, bere aurpegiko azal zuria islara mugikorrez argitzen zuen. Haren pean bero epeletan irribarre egiten zuen; eta ur tantak entzuten ziren, banaka banaka, leinuru-oihal teinkatuaren gainera erortzen.

Charles Bertauxetara joan ohi zen lehen garaietan, Bovary andre gazteak ez zion huts egiten gaixoaren berri galdetzeari, eta halaber, berak bikoitzean zeraman liburuan, Rouault

J.rentzako orri zuri eder bat hautatua zeukan. Baina, hark alaba bat bazuela jakin zuenean, informazio bila hasi zen; eta jakin ere egin zuen, Rouault andereñoak, komentuan hezia, Ursuline-tan hain zuzen, jasoa zuela esaten den bezala, *hezkuntza bikaina*, eta bazekiela, beraz, dantza, geografia, marrazkigintza, tapizak egiten eta pianoa jotzen. Hau gehiegikoa izan zen!

— Horregatik du beraz, zioen berekiko, aurpegi hain alaia hura ikustera doanean, eta horregatik jazten al du gerrontze berria, euritan hondatzeko arriskuz? Ah! emakume hori! emakume hori!...

Eta higuindu egin zuen, oldez. Hasieran, zipladaka lasatu zen. Charlesek ez zituen ulertu; ondoren, bidenabarreko gogoetaz, eta gizonak pasatzen uzten zituen ekaitzaren beldurrez; azkenik, apostrofe zuzen-zorrotzez, eta hauei ez zekien zer erantzun.

— Nondik norakoa zen gero, Bertauxetara itzuli behar hori, zeren eta Rouault J. sendaturik baitzegoen eta jende hark oraindik ez baitzuen ordaindu? Ah! bazen han ordea pertsona bat, solasean zekien norbait, eta brodatzen ere, izpi-

ritu finekoa. Hori zen hark atsegin zuena: hiriko andereñoak behar zituen! Eta berriro ekiten zion:

— Rouault zaharraren alaba, hiriko andereño bat! Tira! bere aitona artzaina zen, eta badute lehengusu bat, auzipetzeko zorian ibilia kolpe txar batengatik, tekela batean. Ez dago hainbeste espanturen beharrik, ez eta igandean elizan zetaz jantzirik azaldu beharrik ere, kondesa bat bezala. Eta bestalde zahar gizarajo hori, zeren, iazko koltzarik gabe, nahiko lan izango baitzukeen atzeratuak ordaintzen!

Unaduraz, Charlesek utzi egin zion Bertauxetara itzultzeari. Heloisak zin eginarazia zion, sekula gehiago ez zela joango, eskua meza-liburuaren gainean, nigarzotin eta musuka askoren ondoren, maitasun-zalaparta handi batean. Obeditu egin zuen beraz; baina bere desiraren mutirigoak protestatu egin zuen bere portaeraren jopukeriaren aurka, eta, hipokresia-molde xalo bat medio, hura ikusteko debeku hau hura maitatzeko eskubidea bezala zela eman zuen berekiko. Eta gainera alarguntsa igarra zen; hortzak luzeak zituen; urtaro oroz buruko zapi beltza jaz-

ten zuen eta honen muturra omoplatoen artean jaisten zitzaion. Bere gerri gogorra zorro antzeko soinekotan galkaturik zegoen, motzegiak izaki, txonkatilak erakusten zituela bere zapata handien kadartsoak galtzerdi grisen gainean gurutzurik.

Charlesen ama noizean behin etortzen zen bisitan, baina, zenbait egunen buruan, bazurdierrainak ama axatzen ziola semeari; eta orduan, bi labana bezala, hura matrazatzeari ekiten zioten beren gogarte eta ohartarazpenen bidez. Oker egiten zuen hainbeste jatea! Zergatik hurrupa bat eskaini azaltzen zen edonori? Zer nolako kasketaldia gero, franelarik jantzi nahi ez hori!

Eta gertatu zen ze, udaberri hasiera aldera, Ingouvilleko notario bat, Dubuc alarguntsaren fondoan edukitzailea, itsasaldi on batez itsasoratu egin zela, bere estudioko diru guztia berarekin eramanez. Heloisek, egia da, bazuen artean ere, sei mila liberatan balioztaturiko itsasuntzi parte batez gainera, Saint François kaleko bere etxea; eta halere, hain ozenki durundatu izandako dirutza guzti horretatik, etxean ordea, altzari bakan

batzuk eta zenbait trapuzarrez beste, ez zen ezertxo ere azaldu. Gauza argitu egin behar izan zen. Dieppeko etxea hipotekaz biplaturik aurkitu zen bere zutoinetaraino; notarioarenean jarrita zuena, Jainkoak jakin, eta txaluparen parte ez zen mila ezkututatik pasatu. Gezurretan aritu zitzairen beraz, atso gajoa! Bere amorrazioan, Bovary J. zaharrak, zolaren kontra aulki bat txikituz, bere emaztea salatu zuen beren semearen zorigaitza erakarri zuelako molde horretako xamalko batekin uztartuz, zeinaren pildek ez baitzuten azalak beste balio. Tostesera etorri ziren. Izan zen tekelarik franko. Izan zen kalapitarik. Heloisek, negar-zotinka, bere senarraren besoetara jauzi eginez, bere gurasoetatik defenda zezan otoikatu zion. Charlesek haren faboretan hitz egin nahi izan zuen. Gurasoak haserretu egin ziren, eta alde egin zuten.

Baina *zartada emana zegoen*. Handik zortzi egunetara, eskortan arropa zabaltzen ari zelarik, odol-errustaka hasi zen, eta biharamunean, Charlesek leihoko gortinak ixteko bizkarra ematen zion bitartean, esan zuen: «Ai ene Jainkoa!»

hasperen bat bota zuen eta kordea galdu zuen. Hilik zegoen! Zer nolako txundioa!

Kanposantuan dena bukatu zenean, Charles etxera itzuli zen. Behean inor ez zuen topatu; lehenengora igo zen, gelara, emaztearen soinekoa ikusi zuen oraindik dilindan etzanguaren oinean; orduan, idazmahaiaren kontra jarririk, ametseria minduratsu batean galdurik geratu zen arratsera arte. Nolanahi ere, emazteak maite izan baitzuen.



Goiz batez, Rouault zaharra etorri zen sendatutako bere hankaren ordainketa Charlesi ekartzera: hirurogei libera berrogei sositako txanponetan, eta puloi bat. Haren zorigaitzaren berri bazuen, eta ahal zuen eran kontsolatu egin zuen.

— Nik badakit zer den hori! esaten zion bizkarrean xafladaka; zu bezalaxe egona naiz, neu ere! Nire emaztea, gaixo hura, hil zitzaidanean, landetan zehar joaten nintzen bakarrik egotearren, edozein zuhaitzen oinean etzaten nintzen, negar egiten nuen, gure Jainkoari dei egiten nion, ergelkeriak esaten nizkion; arbaztetan ikusten nituen satorrak bezala egon nahi izango nukeen sabelzola harrez josirik, lehertuta, alegia. Eta pentsatzen nuenean, beste batzuk momentu horretan bertan beren emaztetxoekin zeudela elkarren kontra besarkadan loturik, nire makilaz lurrean egundoko danbatekoak jotzen nituen; ia-ia eroturik bainengoen, ez nuen jan ere egiten; tabernara joatea pentsatze hutsak



nazka ematen zidan, ez zenuke sinetsi ere egingo. Eta horrelaxe, poliki-poliki, egun bakoitzak aurrekoa estaliz, neguaren gainean udaberria eta udaren gainera udazkena, iragan egin zen pixkinka-pixkinka, apurka-apurka; joan egin zen, alde egin zuen, zera jaitsi egin zela esan nahi dut, zeren eta beti geratzen baitzaizu zerbait hondoan, alegia... zama bat, hemen, bular gainean! Eta baina guztioi dagokigun zoria denez, ez dago geure buruari ahulezian erortzen zertan utzirik ere, eta, beste batzuk hil direlako, hil nahi izaterik ere... Astindu hori zeure gainera, Bovary jauna; pasatuko zaizu eta! Egiguzu bisitatxo bat; nire alaba zutaz oroitzen da tarteka, badakizu, eta berak dioenez zuk ahaztu egin omen duzu. Laster dugu udaberria; untxiren bat bota araziko dizugu geure basoan, apur bat olga zaitezten.

Charles jarraiki zitzaion haren aholkuari. Ber-tauxetara itzuli zen. Dena bezperan bezalaxe aurkitu zuen, zuela bost hilabete bezala, alegia. Udare-arbolak jada loretan zeuden, eta gure Renault zaharra, oraingoan zutik, hara eta hona zebilen, eta horrek bizi gehiago ematen zion etxaldeari.

Medikuari kortesiak ahalik eta oparoen eskaintzera beharturik zegoela pentsatuz, haren atsekabezko egoerarengatik, aurrerantzean kapelarik ez erantzeko erregutu zion, ahots apalez mintzatu zitzaion, gaixo bailitzan, eta halaber haserretze itxura ere egin zuen eskierki haren-tzako gainontzeko guztia baino zerbait arinagorik prestatu ez izanagatik, esate baterako mami-poto batzuk edo udare egosiak. Zenbait istorio kontatu zuen. Charlesek barrez kausitu zuen bere burua. Baina bere emaztearen oroipenak, Bat-batean bereganaturik, goibeldu egin zuen. Kafea atera zuten; eta ez zuen hartaz gehiago pentsatu.

Are gutxiago pentsatu zuen hartaz, bakarrik bizitzen ohitzearen heinean. Independentziaren gozamen berriak laster bihurtu zion bakardadea jasankorrago. Orain bere otordu-garaiak alda zitzakeen, kontuak eman beharrik gabe irten eta etxeratu, eta, nahiko nekaturik zegoenean, bere hanka eta besoak luze adina zabal ohean etzan. Beraz, bere burua txeraz hartu zuen, losindu egin zuen eta ematen zizkioten kontsolamenduak onartu egin zituen. Bestalde, bere emaz-

tearen heriotza ez zitzaion inolaz ere oker baliatu bere lanbiderako, zeren eta hilabete batez aritu baitziren errepikatzen: «Gizon gazte gizaria-joa! zer-nolako zorigaitza!» Bere izena hedatu egin zen, bere bezeroak ugaltu egin ziren; eta gainera gogoa zuenean Bertauxerara joaten zen. Xederik gabeko esperantza bat zeukan, zorion zehazgabe bat; bere aurpegia atseginagoa kausitzen zuen ispiluaren aurrean bere papiloteak orrazterakoan.

Egun batez hirurak aldera iritsi zen; jende guztia landa-lanetara joana zen; sukaldean sartu zen, baina hasieran Emma ez zuen ikusi; leiholak itxirik zeuden. Zuraren pitzatuetatik, eguzkiak zoru gainean luzatzen zituen marradura mehar handiak, altzarien ertzetan puskatu eta sabaian dardarikatzen zirela. Euliak, mahai gainean, erabilia zeuden godaletetan gora igotzen ziren, eta hondoan itotzear burrunda egiten zuten, sagardo-kondarretan. Tximiniatik jaisten zen egun-argiak, elatzeko kedarrea balusatzuz, pixka bat urdinkatu egiten zuen errauts hotza. Leihoaren eta sutondoaren artean, Emma josten ari zen; ez

zeraman lepoihalik, bere sorbalda biluzietan izerdi-tanta txikiak ikusten ziren.

Landa-herrietako ohiturari jarraiki, zerbait edatea proposatu zion emakumeak. Berak uko egin zion, hark erautsi, eta azkenik, barrez, elkarrekin likore-baso bana hartzea eskaini zion. Eta alasara joan zen curaçao botila baten bila; bi godalet txiki atzeman zituen, bata goraino bete zuen, bestean zertxobait isuri zuen eta, topa egin ondoren, ahora eraman zuen. Ia hutsik zegoenez, atzeraka irauli zen edateko: eta, burua atzeraka, ezpainak luzaturik, lepoa teink, barre egiten zuen ezer ez sentitzeaz, eta bitartean bere mihiaren puntak, bere hortz finen arteik aterata, ukituka mihizkatzen zuen godaletaren hondoa.

Berriro eseri eta bere lanari ekin zion, algodoi zurizko galtzerdi bat sareztatzen: bekokia apalduarik ari zen lanean; ez zuen hitz egiten. Charlesek ere ez. Aireak, atearen azpitik pasatuz, hauts pixka bat bultzatzen zuen harlauzen gainean; haren errestari begira zegoen, eta bere buruko barne taupadak bakarrik entzuten zituen, oilategietan, urrun, erruten ari zen oilo baten

kakarazarekin batera. Emmak, aldian-aldian, masailak freskatzen zituen eskuzabalak bertan ezarriz, ondoren hauek sutxakur handien burdinazko eskulekuetan hotzitzen zituela.

Urtaroaren hasieraz gero zorabioak jasateaz kexu zen emakumea; itsasoko bainuak baliagarri gerta ote zekizkiokeen galdetu zion; komentuz mintzatzan hasi zen, eta Charles bere ikastetxeaz, eta esaldiak etorri egin zitzaizkien. Haren gelara igo ziren. Aspaldiko bere musika-koadernoak erakutsi zizkion, sari gisa eman zizkioten liburu txikiak eta haritz-hostozko koroak, alasaren zoko batean abandonaturik. Bere amaz ere hitz egin zion, kanposantuz, eta hilaren lehen ostiralero bere amaren hilobian ipintzeko loreak biltzen zituen arloa ere erakutsi zion jardinean. Baina etxean zeukaten lorezainak ez zuen tutik ulertzen; izan ere miraberia hain zen eskasa! Berak nahi bai nahi izango zukeen, gutxienez ere neguan behintzat, hirian bizi izatea, nahiz eta egun ederren luzeak landa-herria udan agian are aspergarriago bihurtu; — eta, esaten zuenaren arabera, bere ahotsa ozena zen, edo zorrotza, edo, Bat-batean ahunduraz beterik, modulazioak

errestatu egiten zituen ia xuxurla batean bukatuz, bere buruari mintzatzen zitzaionean, — oraintxe alai, begi xaloak irekiz, oraintxe betazalak erdi itxirik, begirada asperrez itorik, pentsamendua alderrai.

Arratsean, handik itzultzean, Charlesek bana-banaka errepikatu zituen hark ahoskatu zituen esaldiak, hauek gogoratzen, hauen zentzua osatzen saiatuz, berak ezagutzen ez zuen garaian hark bizi izana zuen bizialdiaren zatiaz jabetzearren. Baina inoiz ezin izan zuen ikusi bere pentsamenduan, lehen aldiz ikusi zuenaz edo arestian utzi-berria zuenaz beste era batean. Gero, hura zer bilakatuko ore zen galde-tu zion bere buruari, ea ezkonduko ote zen, eta norekin? Horra! Rouault zaharra ongi aberatsa zen, eta alaba!... hain ederra! Baina beti ere Emmaren aurpegia azaltzen zitzaion bere begien aurrean, eta ziba baten zurrungaren antzeko zera monotono batek burrunda egiten zion belarrietan: «Eta heu ezkonduko bahintz, horratio! ezkonduko bahintz!» Gauean, ez zuen lorik egin, bere eztarria hertsaturik zegoen, egarri zen; pitxarretik ura edatera jaiki zen, eta leihoa ireki

zuen; zerua izarrez estalirik zegoen, haize beroa zebilen; urrunean zakur batzuk ahausika ari ziren. Bertaux aldera itzuli zuen burua.

Pentsatuz ezen, azken finean, ez zuela deus arriskatzen, Charlesek bere buruari agindu zion egingo zuela eskaera, horretarako aukera eskainiko zitzaionean; baina, aukera eskaintzen zen bakoitzean, hitz egokiak ezin aurkitu izatearen beldurrak lotzen zizkion ezpainak.

Rouault zaharra ez zatekeen haserre norbaitetik bere alabarengandik libratuko zukeenekoan, etxean ez baitzion ia ezertarako balio. Desenkusatu egiten zuen berekiko, neskak laboraritzarako izpiritu finegia zuela iritziz, bestalde zeruak madarikatutako lanbidea izaki, zeren eta honetan inoiz ez baitzen milionariorik ikusten. Horretan aberastu ordez, berak ere galdu egiten zuen urtetik urtera gizarajoak: zeren, merkatuetan gozaten bazuen ere, non laket baitzen ofizioko amarruetan, aitzitik, nekazaritzako lana bera ordea, landetxearen barne gobernuarekin batera, edonori baino gutxiago baitzegokion. Ez zituen gogo handiz ateratzen bere eskuak patrikeratik, eta bere bizimoduari zegokion orotan ez

zuen gastua begiratzeko, ongi jan, epelean egon eta lasai oheratu nahi izaten zuelarik. Atsegin zituen sagardo bizia, arkume-izter erregorria, kale eta patar nahasia luzez irabiatua. Otorduak sukaldean egin ohi zituen, bakarrik, suaren aurrez aurre, teatroan bezala erabat zerbitzaturik ekartzen zioten mahai txiki batean.

Beraz Charlesi bere alabaren hurbilean masailmuturrak gorritzen zitzaizkiola ohartu zenean, horrek esan nahi baitzuen egun luze baino lehen ezkontzeko eskatuko ziola, Rouault zaharrak aurrez hausnartu zuen arazo guztia. Nolabait ere izpindola xamarra aurkitzen zuen, eta eskierki ez zen berak nahi izango zukeen bezalako suhia; baina ziotenez portaera zintzokoa, gordezalea, estudio handitakoa zen, eta zalantzarik gabe hura ez zitzaion zikoizkeriatan hasiko doteari buruz. Beraz, Rouault zaharra bere ondaretik hogeitabi akre saltzera beharturik izango zenez, asko zor baitzion igeltseroari, asko uhalginari, tolarearen haga aldatu beharra baitzegoen:

— Alaba eskatzen badit, eman egingo diot, deliberatu zuen berekiko.



San Migeletan, Bertauxetara hiru egun pasatzen etorria zen Charles. Azkeneko eguna joan zen aurrekoak bezalaxe, ordu laurdenka luzamendutan atzeratzen. Rouault zaharrak lagunduzion bidemutur batez. Murkoarteko bide batean aurrera zihoazen oinez, elkarri agur esateko heinean ziren; huraxe zen tenorea. Laparresiaren ertzerainoko epea eman zion Charlesek bere buruari, eta noizbait ere, hura iragan ondoren:

— Rouault jauna, esan zuen ahopean, zerbait esan nahi nizuke ba.

Gelditu egin ziren. Charles isilik.

— Kontadazu ba, zure istorioa! Ez ote dakit ba dena! esan zuen Rouault zaharrak, eztiki barre eginez.

— Rouault jauna..., Rouault jauna, zizakatu zuen Charlesek.

— Nik neuk ez dut hoberik eskatzen, jarraitu zuen laborariak. Gure neskatoa eskierki nirekin bat etorriko den arren, galdetu beharra dago halere bere iritzia. Joan zaitetz ba; ni etxera itzuliko naiz. Baiezkoa bada, entzudazu ongi, ez daukazu berriro etorri beharrik, jendearengatik alegia, eta, bestalde, alabarentzat gogorregia litza-

teke. Baina zu tripajaten gera ez zaitezzen, nik leihola hormaren kontra zabal-zabal irekiko dut: atzealdetik ikusi ahal izango duzu, laparresiaren gainetik begiratzuz.

Eta urrundu egin zen.

Charlesek bere zaldia zuhaitz bati lotu zion. Korrika joan zen bidetxiorrean paratzera; zain egon zen. Orduerdi bat iragan zen, gero hemeretzi minutu kontatu zituen bere erlojuan. Bat-batean zarata izan zen hormaren kontra; leihola irekita zegoen, artean dardar ari zen krisketa.

Biharamunean, goizeko bederatzietarako, Charles etxaldean zen. Sartu zenean, Emma gorritu egin zen, halere, erabidetsu, barre txiki bat egiten bermatuz. Rouault zaharrak bere suhi-gaia besarkatu egin zuen. Interesen konponbidez hasi ziren solasean; bazuten, bestalde, horretarako denbora franko, zeren eta ezkontza ezin baitzen itxuronean ospatu harik eta Charlesen dolua burutu arte, alegia hurrengo urteko udaberri aldera arte.

Aiduruko honetan iragan zen negua. Rouault andereñoa bere deusez arduratu zen. Parte bat Rouendik ekarrarazi zen, eta berak alkandorak

eta oherako txanoak josi zituen, abantzuan laga zizkioten moda-marrazki batzuei jarraiki. Charlesek etxaldera egiten zituen bisitetan, ezteien prestakuntzaz aritzen ziren solasean, afaria zein aretotan emango ote zuten; zenbateko plater pila behar izango zen eta jaki-bitartekoak zeintzuk izango ote ziren.

Emmaren desioa, aldiz, gauerdian ezkontzea zen, zuzien argitan; baina Rouault zaharrari ez zitzaion inola ere sartu burutapen horrenik. Hortaz ospatu ziren ezteiak, eta hauetara berrogeita hiru pertsona etorri ziren, eta mahaian hama sei ordu bota zituzten, biharamunean berriro ekinenez eta ondorengo egunetan beste pixka bat.

## —IV—

Ezteiliarrak garaiz iritsi ziren kotxez, zaldi bakarreko gurtarinez, bi gurpiletako zalgurdi eserlekudunez, kapota gabeko gurtitxi zaharrez, larruzko gortinadun landoz, eta hurbileneko herrietako gazte-jendea gurdietan zutik ilaratan, ez erortzeko eskuez gurtesiei helduz, trostan eta gogor astindurik. Hamar legoa ingurutik etorri ziren, Godervilletik, Normanvilletik eta Canytik. Bi familietako ahaide guztiak gonbidaturik zeuden; lagun haserretuekin bakeak eginak zituzten; aspaldian bistatik galdutako ezagunei idatzi zieten.

Aldian behin, zaharokadak entzuten ziren laparresi atzetik; berehalaxe langa irekitzen zen: gurtarinen bat sartzen zen. Atariko eskilarako lehen harmailaraino asapalan, han tinko gelditzen zen, eta jendez husten zen, alde guztietatik irtenez belaunak iguzten eta besoak luzatzen. Damak, ginbaila buruan, hiriko erara jantzirik zeuden, urrezko erloju-kateak, puntak gerrian gurutzaturiko besanak, edo kolorezko lepozapiak

gibelean orratz batez atxikirik eta atzealdetik lepoa erakusten zutela. Mutikoek, beren aitak bezala jantzirik, beren jantzi berriengatik deseroso ziruditen (askok estrinatu ere egun horretan egin baitzuten beren bizitzako lehen bota-para), eta hauen ondoan ikusten zen, txintik esan gabe, beren lehen jaunartzeko jantzia abagu honetarako luzatua soinean, hamalau edo hamasei urteko zenbait neskato handi, haien lehengusina edo arreba zaharrenak segur aski, musugorri, kikildurik, arrosa-ukenduz ileak gantzaturik, eta beren eskuxorroak zikintzeko beldurraren beldurrez. Kotxe guztiak askatzeko nahiko gorta-morroirik ez zegoenez, jaunek besoak garbailtzen zituzten eta beraiek ekiten zioten lanari. Beren maila sozial desberdinari jarraiki frakez, xenilaz, maripulisez edo jakaz jantzirik zeuden; — jantzi onak, familia baten begirune osoaz inguratuak, eta armairutik festaburuetakoko baino ateratzen ez zirenak; xenilak beren hegal handiak haizetan kulunkatuz, anoki zilindrikodunak, zakuak bezalako patrika zabalekin; maripulisak ehun lodizkoak, biseran kobrez inguraturiko txota bat eta guzti maizenik; jaka oso

motzak, bizkarrean bi botoi elkarrengandik hurbil zituztela bi begi bezala, eta beren txaramelek bloke bat beratan arotz baten aizkoraz mozturik ziruditela. Bazen beste zenbait ere (baina hauek, jakina, mahaiaren beheko muturrean jan behar izan zuten) zeremonietako brusaz jantzirik, alegia idunekoa sorbalda gainetara eraitsia, bizkarrak zimurdura meharretan tolestua eta gerria oso behean hertsatua gerriko josi batez.

Eta alkandorak koraza gisa hanpatzen ziren bulargainetan! Jende guztiak ilea motxaldu berria zuen, belarriak aldendu egiten ziren buruetatik, bizarra motz kendua; zenbaitzuk halaber, egunsentia baino lehen jaiki baitziren, bizarra egiterakoan oso argi ikusi ez nonbait eta, sudurpean urratuak zituzten diagonalean, edo, masailan zehar, hiru liberatako eskutuaren zabalera arrastarak, eta bidean kanpoko haizetan gaiztotu zirenez, horrek aurpegi gizen zuri bozkariotsu hauek guztiak plaka arrosaz nabartzen zituen pixka bat.

Udaletxea etxaldetik legoa-erdi batera aurkitzen zenez, oinez joan ziren; eta itzuli ere bai, elizako zeremonia buruturik. Jarraigoa, hasieran

batua kolorezko xingola bakar baten antzo landetan uhinduz, gari berdeen artean bihurkaturiko bidexiorrean barrena, laster luzatu zen eta puskatu egin zen solasean atzendu ziren talde desberdinetan. Musikaria aurrean zihoan zinta girgilez gandorturiko bere arrabitarekin; ezkonberriak zetozen ondoren, ahaideak, lagunak denak nahasian, eta atzean haurrak geratzen ziren, olo izpiei loretxilinak erauzten jolasean edo elkarren artean liskarrean, ikusten ez zituzten bitartean. Emmaren soinekoa, luzeegia, barrenetik pixka bat errestatu egiten zen; tarteka-tarteka gelditu egiten zen hari tira egiteko, eta orduan emekiro, bere behatz estaliez, kendu egiten zituen belar zakarrak kazkarroen gezitxoekin batera, eta bitartean Charles, esku hutsik, zain geratzen zen hark bukatu arte. Renault zaharrak, zetazko kapela berria buruan eta frak beltzaren besomuturrek eskuak hatzazaletaraino estaltzen zizkiotela, Bovary andere amari besoa emanda zihoan. Bovary jaun aitari dagokionez, zeina, bere baitarako jende hau guztia mespretxatzen zuenez, bestegabe pikura militarreko botoi zerrenda bakarreko xenila batez jan-

tzirik etorria baitzen, neskagazte laborari-alaba horail bati kafetegi-zokoetako galaikeriak botatzen ari zitzaion. Neskak agurtzen zuen, gorritzen zen eta ez zekien zer erantzun. Ezteietako gainerako jendea beren gorabeherei buruz elkarren artean solasean ari zen edo atzetik elkarri txostaka, alaitasunerako alde zuzenetik girotuz; eta, adi jarri ezkerrean, landetan barrena jotzen segitzen zuen musikariaren kren-kren hotsa entzuten zen. Bere atzetik urrun zirela ohartzen zenean, hatsa hartzen geratzen zen, bere arrabela kolofanez luzaro ezkotzen zuen, hariak hobeto kirrinka zezatzen, eta gero berriro oinez abiatzen zen, arrabitaren giderra jaitsiz eta altxatuz txandaka, bere buruari neurria ongi markatzeko. Tresnaren zaratak urrundik izutzen zituen txori txikiak.

Gurdien estalpean zegoen mahaia ipinita. Mahai gainean lau azpizuin, sei oilasko saltsan, zekorki-tupin saltsatuak, hiru arkume-izter eta, erdi erdian, esnetxerri eder bat erreta, mingotx belarrezko lau odolkoz inguraturik. Ertzetan pattarra aurkitzen zen txanbiletan. Botiletako sagardo gozoari bere bits lodia zerion txantole-



poetatik behera, eta edalontzi guztiak aurrez ardoz goraino beteak zituzten. Mahaia ukitu hutsarekin beren kasa kulunkatzen ziren krema horizko azpil handi batzuk aurkezten zituzten, beren azal berdinean marrazturik, ezkonberrien inzialak banan banako arabeskotan. Opilak eta pastelak egiteko Yvetota joan ziren pastelero baten bila. Eskualde hartan lehen aldia zuenez, fin saiatu zen bere lanean; eta ekarri ere bai, berberak, postretarako, jendea harridura-hasperenka utzi zuen tarta-eraiki bat. Oinean, lehenik kartoi urdinezko karratu bat zuen tenplu bat irudikatuz lorioak, zutabeak eta iztukuzko irudi txikiak zituela inguru guztian urre-paperezko izarrez konstelaturiko konka batzuetan; gero, bigarren oinean Saboiako okorezko dorre bat aingerubelarrezko, almendrazko, mahaspaxazko eta laranja puskazko harresi txikiz inguraturik; eta azkenik, gaineko xabalkoan, zeina harkaitzak konfiturazko aintzirekin eta ur-azalezko txalupak eta guzti zeuden belaze berde bat baitzen, Cupido txiki bat ikusten zen, txokolatzeko dantzarte batean zabuka, eta honen bi zutabeak arrosa

naturalezko bi pinportaz bukatzen ziren, bola gisa, erpinean.

Arratsera arte, jan egin zuten. Eserita egoten nekatuxe zeudenean, sarobeetan paseatzera joaten ziren edota ganbaran tortoloxetara saio bat jokatzera, eta ondoren mahaira itzultzen ziren. Batzuk, azken aldera, loak hartu zituen eta zurrunga egin zuten. Baina, kafe garaian, berriro dena bizkortu zen; orduan kantuan ekin zioten, indar probak egin ziren, kargak eraman, behatzandiaren gainean norbera azpikoz gain jiratu, gurdiak bizkarrera altxatzen saiatu, pasadizo gordinak kontatu, damak musukatu. Arratsean, abiatzerakoan, oloz sudurzuloetaraino asetako zaldiek nahiko lan izan zuten pertiken artean sartzen; ostikoka hasten ziren, xutikatu egiten ziren, kraistuak hausten ziren, beren jabeak biraoka edo barrez; eta gau osoan, ilargiaren argitan, eskualdeko bideetan barrena izan zen gurtarinik asapala bizian errestaturik, arroiletan jauzika, harkazkar gainetik metroak saltoka, pendoitzak urratuz, erremalak atxikitzeke emakumeak atetik kanpora makurtzen zirela.

Bertauxetan geratu zirenek edaten bota zuten gaua sukaldean. Hurrek aulkipeetan egin zuten lo.

Emazte ezkonberriak bere aitari erregutu zion, ohizko txantxetatik libra zezan. Halere, bere lehengusuen arteko arrantzari bat (zeinak, gainera, alauza gisa mihiarrain pare bat ekarria baitzuen) bere ahoaz sarraile zulotik ura puskatzen hasia zen, Rouault zaharra heldu zenean horrelakorik eragozteko doi-doi garaiz, eta hari esplikatu zion ezen, bere suhiaren gradu itzaltsuak ez zuela ametitzen halako oieskeriarik. Lehengusuak, dena den, nekez amore eman zuen arrazoi hauen aurrean. Bere baitarako, Rouault zaharra harrotzat jauki zuen, eta bazter batean beste lau edo bost ezteiliarrekin elkartzera joan zen, zeinak, mahaian ausaz askotan segidan okela puskarik kaxkarrenak beraiei suertatu nonbait-eta, abegi txarrez hartuak izanaren iritzikoak baitziren, gonbidatzailearen lepo marmarrean ari ziren eta hari hondamendia opa zioten ahopean.

Bovary andre amak ez zuen txintik ere esan egun osoan. Ez baitzioten aholkurik eskatu ez

errainaren jantzia ezta ezteietako ospakizunen ordenuaz ere; garaiz erretiratu zen. Bere senarrak, hari jarraitu ordez, Saint-Victoretik zigarpuruak ekarrarazi zituen eta eguna argitu arte erretzen aritu zen, kirsch-grogak edanez, bere ingurukoentzako nahastura ezezaguna izaki, eta hori berarekiko begirune ate handiagoaren iturburu gisa izan zen.

Charles ez zen inolaz ere txantxetarako gizon jarria, ezteietan ez zen distirante nabarmendu. Erdipurdi erantzun zien, salda hartu orduko bota beharrezkotzat eman zituzten txantxei, ziriei, zeharritzei, ahobitako esanei, zorion-agurrei eta gordinkeriei.

Biharamunean, aitzitik, beste gizon bat zirudien. Batipat bera zen bezperako birjintzat harzatekeena, aldiz emazte ezkonberriak zerbait sumarazteko bide izan zitekeenik ezer ez zuen agertzera uzten. Bihurrienek ez zekiten zer erantzun eta, beraien alboan pasatzen zenean, gehiegizko izpiritu-teinkadaz so egiten zioten. Baina Charlesek ez zuen ezer disimulatzen. Nire emaztea deitzen zion, hika egiten zion, haren berri galdetzen zion edonori, haren bila zebilen

edonon, eta sarritan eskortetara eramaten zuen, eta han, urrunetik ikusten zen, zuhaitz artean, gerritik besoa pasatzen ziola eta harengana erdi makurturik aurrera segitzen zuela, buruaz haren bruxaren brodadurak ximurtuz.

Ezkontza ondorengo bigarren egunean, ezkonberriak joan egin ziren: Charlesek, bere gaixoak zirela medio, ezin zezakeen luzaroago faltatu. Renault zaharrak bere landoan eraman arazi zituen, eta Vasonvilleraino berak lagundu zien. Han, bere alaba berriro ere besarkatu zuen, jaitsi zen eta bere bidea hartu zuen. Ehun pauso inguru eman ondoren, gelditu egin zen, eta, landoan urrutiratzen ikusirik, haren gurpilak hautsetan jiratzen zirela, hasperen handi bat bota zuen. Gero bere ezteietaz oroitu zen, bere aintzinako garaiaz, bere emaztearen lehen sabelaldiaz; oso pozik zegoen, bera ere, haren aitaren etxetik beraren etxera eraman zuen egunean, zaldiz zeramanean elur gainean trostan; Eguberriak aldera baitzen eta landak zuri-zuri zeuden; hark beso batetik heltzen zion, bestea otarreari atxikirik zeraman; haizeak astintzen zituen haren Cauxko usuariozko jantziaren farfaila luzeak,

batzuetan aho gagnetik pasatzen zizkion, eta, burua itzultzen zuenean, bere ondoan ikusten zuen, sorbalda gainean, haren aurpegi txiki gorrizta isilean irribarrez, ginbailaren urrezko xaflaren azpian. Behatzak berotzearren, bular gainera sartzen zizkion tarteka. Bai zaharra, hori guztia! Beren semeak hogeita hamar urte zukeen orain! Berriro atzera begiratu zuen, bidean ez zuen ezer hauteman. Triste sentitu zen hustutako etxe bat bezala; eta parrandako lainoek ilundutako bere garunean oroitzapen samurrak pentsamendu goibelekin nahasturik, une batez sartu zitzaion eliza aldetik jira bat egiteko gogoia ere. Baina hura ikusteak, ordea, are tristeago jarriko ez ote zuen beldur izan zenez, zuzenean bere etxera itzuli zen.

Monsieur eta Madame Charles seiak aldera iritsi ziren Tostesera. Auzotarrak leihoetan kokatu ziren beren medikuaren emazte berria ikusteko.

Neskame zaharra aurkeztu zen, ongietorria eman zion, afaria prest ez zegoelako desenkustatu zen, eta, bien bitartean, Madame bere etxearen ezagutza egitera bideratu zuen.

Arriluzko fatxada, doi-doi bat zetorren kalearen, edo hobeto esateko errepidearen, lerroarekin. Atearen atzean zintzilikaturik aurkitzen ziren esklabina txikidun beroki bat, erremal bat, larru beltzezko txano bat eta, txoko batean, lurrean, polaina pare bat artean lohi lehorrez beterik. Eskuinetara sala zegoen, alegia otorduak egiteko eta egonean egoteko aretoa. Paper kanarihoria, gueneko aldean lore xurailezko xorta batez burutua, oso osorik dardaritzen zen gaizki teinkaturiko oihalaren gainean, algodoi zurizko errezelak, mendel gorri batez inguratuak, leihoe-tan zehar elkarren artean gurutzatzen ziren, eta su gaineko apal meharrean Hipokratesen burua zeukan erloju batek dizdiratzen zuen, zilar plakatuzko bi argimutilen artean, eite obalatzuko globo batzuen azpian. Korridorearen beste aldean Charlesen kabineta zegoen, sei urrats inguru zabaleko gela txikia, mahai bat, hiru aulki eta bulego-besalki batekin. «Dictionnaire des sciences médicales» obraren tomoek, orriak

ebaki gabe, baina pasatuak zituzten bata bestearen ondoko salmenta guztietan nozitu izandako azala zutela, ia beraiek bakarrik hornitzen zituzten pinu-zurezko bibliotekako sei apalak. Sukaldeko saltsen usaina hormatik barrena bertaraino sartzen zen, kontsulta denboran, eta era berean entzuten ziren sukaldetik kabineteko gai-xoen eztulak eta jalgitzen zuten beren istorio osoa. Ondoren, aurrez aurre baila zuela, non aurkitzen baitzen ikuilua, labe bat zeukan areto handi zaharkitu bat zetorren, eta orain suegurte-gitarako, sototarako, ganbaratarako erabiltzen zen, txatarrez, upela hutsez, erabilezineko laborantza-lanabesez beterik, eta erabilpena asmatu ezineko beste gauza pila bat ere hautsez estalita.

Baratzea, zabal baino luzeagoa, kereta moduan albarikokeondoz estalitako pezuzko bi hormaren artean zihoan, landetatik bereizten zuen arantzazko laparresi batetaraino. Erdian, arbelezko eguzki-erloju bat zegoen, harlanduzko oin baten gainean; basarrosa maskalez hornituri-ko lau loresailek inguratzen zuten simetrikoki landareri serioaren arlorik baliagarriena. Han



hondoan, llerkoen azpian, igeltsuzko apaiz bat bere brebiarioa irakurtzen ari zen.

Emma geletara igo zen. Lehenengoa ez zegoen haltzariz jantzita; baina bigarrenak, ezkonetzangua zenak, kaoba-zurezko ohea zeukan oihal gorritzko gelaoste batean. Txirlazko kaxa batek apaintzen zuen komoda; eta, idazmahaiaren gainean, leihoaren ondoan, bazegoen, pitxar batean, laranja-lore sorta bat, saten zurizko xingola batez loturik. Ezkonberriren loresorta bat zen, bestearen loresorta! Emmak so egin zion. Charles ohartu zen, hartu zuen eta ganbarara eramatera joan zen, bitartean besalki batean eserita (bere gauzak bere inguruan ipintzen ari ziren), Emma bere ezkonberri-loresortaz pentsatzen ari zen, kartoi batean bildurik baitzegoen, eta bere buruari galdetzen zion, amets eginez, ea hartaz zer egingo ote zuketean baldin eta menturaz bera hiltzea gertatuko balitz.

Lehen egunak, bere etxean zein aldakuntza egin pentsatzen eman zituen. Argimutiletako globoak erretiratu zituen, paper berria jarrarazi zuen, eskilarak pintatu eta lorategian eserlekuak egin arazi, eguzki-erlojuaren inguruan; halaber

galdetu zuen nola moldatu behar zen urmahel zurrustadun bat edukitzeko arrain eta guzti. Bere senarrak berriz, kotxez pasiatzea atsegin zuela jakinik, «boc» bat aurkitu zuen oso modu onean, eta, argiontzi berriak eta larrulatzezko lohibabesak ipini ondoren, ia-ia tilbury bat zirudien.

Gizona beraz zoriontsu zen eta munduan ezertaz kezkatu beharrik gabe. Elkarrekin otordu bat aurrez aurre, arratsean errepide nagusian barrena pasiera bat, buruko zapirantz haren eskuaren keinu bat, leiho baten txaratiletik zintzilik haren lastozko ginbaila ikustea, eta Charlesek artean sekula sumatu ere gabeko beste gauza askoren plazerak, hauek osatzen zuten orain bere zorionaren etengabea. Ohean, goizetan, buruko gainean alboz albo, eguzkiaren argiari begiratzen zion haren txanetaren papilote xaflatuek erdizka estaltzen zizkieten masaila gorrixketako ilaunen artean pasatzen. Horren hurbiletik ikusirik, haren begiak handiagoak iruditzen zitzaizkion, batez ere esnatzerakoan betazalak behin eta berriz segidan irekitzen zitue-nean; ilunpean beltzak eta egun argitan urdin

ilunak, bata bestearen gaineko kolore-geruzak bezala zituzten, eta hauek, hondoan lodiagoak, esmaltearen azalerantz argiagotzen zihoazen. Gizonaren begia sakonera hauetan galtzen zen, eta haietan ikusten zuen bere burua txiki-txiki sorbaldetaraino, jantzitako bere buruko zapiarekin eta bere alkandoraren goiko aldea irekita. Jaiki egiten zen. Emaztea leihora irteten zen abiatzen ikusteko; eta han geratzen zen, ukondoak leiho-ertzean tinkaturik, bi jeranio-potoren artean, soinean lasa zeukan bere txabusina jantzirik. Charlesek, kalean, bere ezproin-hedeak lotzen zituen zedarriaren gainean, eta hari mintzatzen segitzen zuen emazteak han goitik, bere ahoaz lore edo belar izpiren bat erauzten zuen bitartean, gero putz eginez haren aldera botatzeko, eta hau, itzulbiraka, kulunkatuz, airean txori baten antzo zirkulu-erdiak eginez, han joaten zen, erori aurrez, atarian ekuru zegoen behor zahar zuriaren zurda gaizki orraztuei atxikitzen. Charlesek, zaldi gainetik, musu bat bidaltzen zion; emazteak keinu batez erantzuten zuen, leihoa ixten zuen, gizona abiatu egiten zen. Eta orduan, hauts zerrenda luzea bukaera-

rik gabe hedatzen zuen errepide nagusian barrena, zuhaitzak gangadura gisa makurtzen ziren murko-bideetan zehar, gariak belaunetaraino iristen zitzaizkion bidexiorretan aurrera, bere bizkarretan eguzkia eta bere sudurretan goizeko airea, bihotza gaueko zorionez beterik, izpiritua bare, haragia pozik, han joaten zen bere zorionaren hausnarrean, afaldu eta gerora ere lisirtzen ari diren trufen gustua artean murtxikatzen dutenak bezala.

Anarteraino zer izan zuen ba onik, bere bizialdian. Agian ikastetxeko garai hura, lau hormaren artean hertsirik egoten zen hartakoa, bera baino aberatsagoak edo klaseetan azkarragoak ziren ikaskide haien artean bakarrik, bere hizkerarengatik barre eragiten zienean, bere jazkerarengatik adarra jotzen ziotenean, eta haien amak bisitara mahuketan goxokiak zituztela etortzen zirenean? Agian geroago, medikuntza ikasten ari zenean eta bere amorante bilaka zitekeen langile-alabatxoren bati edo besteri kontradantza ordaintzeko poltsa nahiko berria inoiz izaten ez zuen garai hartan? Ondoren hamalau hilabetez bizi izan zen alarguntsarekin, zeinaren oinak,

ohé barruan, koilak bezain hotzak baitziren. Baina, orain ordea, adoratzen zuen emakume polit hau berea zuen bizitza osorako. Unibertsoak, berarentzako, ez zuen gainditzen haren gonaren bira zetatsua; hura ez maitatzea alatzten zion bere buruari, berriz ere hura ikusteko gogoia sartzen zitzaion; berehalaxe itzultzen zen, eskilaretan gora igotzen zen, bihotza taupaka. Emma, bere gelan, bere burua apaintzen arituko zen; gizona urratsisilez bertaratzen zen, bizkarrean munkatzen zuen, hark garrasi bat botatzen zuen.

Haren orrazia, haren eraztunak, haren lepoihala etengabe ukitzeko gogoari ezin zion eutsi; batzuetan, ahobeteko musu handiak ematen zizkion masailetan, edota munka txikiak herrenkadan bere beso biluzian barrena, behatzen puntatik hasi eta sorbaldaraino; eta emazteak iraitzi egiten zuen, erdi irribarrez erdi zaputzean, hankapetik atera ezin duzun haur bati egiten zaion bezala.

Ezkondu zen aurrez, maitemindurik zegoela uste izan zuen; baina maitasun horretatik eratorri behar izango zukeen zoriona etorri ez zenez,

nonbait herraturik egon behar zuen inolaz ere, pentsatzen zuen bere artean. Eta Emmak jakin egin nahi zuen, zehatz mehatz zer ulertzen ote zen bizitzan, liburuetan hain ederrak iruditu zitzaizkion *zoriona*, *irritsa* eta *lilura* hitzez.

«Paul et Virginie» irakurria zuen, eta banbuzko etxetxoaz, Domingo beltzaz, Leial zakurraz amets egina zen, baina batez ere anaiatxo zintzoren baten adiskidetasunaz, kanpandorrea baino altuagoko zuhaitz handietara zuretzako fruitu gorriren bila doanarena, edo hondarretan oinutsik korrika txori-habia bat ekartzen dizunarena.

Hamahiru urte bete zituenean, bere aitak berak eraman zuen hirira, komentuan sartzeko. Saint Gervais auzoko ostatu batean hartu zuten etzauntza, non Mademoiselle de La Vallière-n historia irudikatua zuten platerak izan baitzituzten afaltzerakoan. Azalpen idatziek, labainen urraduraz han-hemenka moztuak, erlijioa, bihotz-samurtasunak eta Gorteko punpeziak goresten zituzten guztiek.

Lehen garaietan ez zen ez aspertu komentuan, aitzitik atsegin izan zuen monjatxoek elkartean, zeinek, bera laketzearren, kaperara eramaten baitzuten, jangelatik korridore luze

batean barrena sartuaz. Errekreoetan oso jolas gutxi egiten zuen, katixima ongi ulertzen zuen, eta bera zen beti bikario jaunari erantzuten ziona, galdera zailetan. Beraz klaseetako giro epeletik sekulan irten gabe bizi izanik eta kobrezko gurutzedun errosarioak zeramatzaten larrantz zuriko emakume haien artean, aldareko lurringozoei, ur bedeinkatuaren freskurari eta kandelen leinuruari darien ahuldura mistikoan lokartu zen eztiki. Mezari jarraiki orde, ertz urdinezko santu-irudiei begiratzen zien bere liburuan, eta atsegin zuen bildots gaixoa, eta gezi zorrotzez zulaturiko bihotz sakratua, edo bidean bere gurutzearen gainera erortzen den Jesus urrikalgarria. Saiatu zen, sakrifizioz, egun oso batez jan gabe geratzen. Bete beharreko promesa bila ibiltzen zen berekiko.

Konfesiara joaten zenean, pekatu txikiak asmatzen zituen, apaizaren xuxurla-babesean ahalik eta denbora luzeenez geratzearen, ilunpean belauniko, eskuak elkaturik, aurpegia sarearen kontra. Sermoietan sarri azaltzen diren ezkongai, senar, maitale zerutiar eta ezkontza



eternoaren konparazioek, ustekabeko gozame-  
nak harrotzen zizkioten arimaren zolan.

Arratsean, oroitzaren aurrez, irakurketa erli-  
jioso bat egiten zen estudioan. Hau, astegune-  
tan, Historia Santuaren laburpenen bat edo  
Frayssinous abadearen «Conferences» izaten  
zen, eta, igandean, olguratarako, «Génie du  
Christianisme»-tik pasarteren batzuk. Zer nola  
entzun izan zuen, lehenengo aldietan, lurreko  
eta betikotasuneko oihartzun guztietan errepika-  
tzen, malenkonia erromantikoen auhendura  
ozena! Bere hartzaroa merkatari auzalde bate-  
ko denda-zoko batean iragana izan balitz, agian  
bere barnea zabalduko zitzaien naturaren eraso  
lirikoei, zeinak, komunzki, idazleen azalpenen  
bidez besterik ez baitzaizkigu heltzen. Baina  
berak gehiegi ezagutzen zuen landa; artaldean  
beekarak, esnekenteak, goldeak ezagunak  
zituen. Giro baretara ohitua izaki, bera aitzitik  
artekatsuetarantz itzultzen zen. Itsasoa ez zuen  
maite ekaitzengatik baino, eta berdea hondaki-  
nen artean sakabanaturik zegoenean bakarrik.  
Beharrezkoa zitzaion gauzetatik nolabaiteko ete-  
kin pertsonal bat ustiatu ahal izatea; eta alperre-

kotzat iraitzen zuen bere bihotzaren berehalako kontsumorako baliagarri ez zen oro, — tenperamenduz artista baino gehiago sentimentala izaki, emozioen bila eta ez paisaiaren bila.

Bazen komentuan hileru zortzi egunez etortzen zen neskazahar bat, arropa zuria lantzera. Iraultzaren eraginez lur jotako aintzinako aitosemeren familia batekoa izaki artzapezpikuak babesten zuenez, jangelan egiten zituen otorduak monjen mahaian, eta, jatostean, solasalditxo bat egin ohi zuen beraiekin, berriro lanera igo aurrez. Sarritan pentsionistek estudiantik alde egiten zuten hura ikustera joateko. Buruz zekizkien joan den mendeko galai-abestiak, eta ahapeka abesten zituen bere jostorrazari eragiten zion bitarrean. Istorioak kontatzen zituen, berriak ekartzen zituen, hirian zure mandatuak egiten zizkizun eta, ezkutuka, beti ere bere mantalaren poltsikoan zuen nobelaren bat lagatzen zien handiei, eta atsotxo gajoak berak ere kapitulu luzeak irensten zituen bere laneko hutsartetan. Amodioak, amoranteak eta maitaleak besterik ez zen han, dama pertsekutatuak areto bakartitan zorabioz erortzen, zaltzainak ostatu

guztietan hiltzen, zaldiak orrialde guztietan lehertzen, baso ilunak, bihotz larridurak, zin egiteak, negar zotinak, malkoak eta musuak, ilargi argitan txalupatxoak, basotxikietan urretxindorrrak, eta gizasemeak lehoia bezain ausartak, bildotsa bezain eztiak, izaten ez den bezain birtutesuak, beti txukun plantatuak, eta zerraldontziei bezala negarra zerienak. Sei hilabetetan zehar, hamabost urtetan, irakur-gela zaharretako hauts honetan koipeztatu zituen beraz Emmak eskuak. Gero, Walter Scottekin, gauza historikoez zaletu zen, kutxatzarrak, goardia-gelak eta koblakariak izan zituen amets. Jauretxe zahar batean bizi izan nahiko zukeen, gaztelu-andere gorontze luzedun haiek bezala, zeinak, arkuburuko hirus-taren pean, ukondoa harrian eta kokotsa eskuan, luma zuridun zaldun bat zaldi beltz baten gainean asapalan landaren azken muturretik noiz etorriko begira pasatzen baitzituzten egunak. Garai hartan Marie Stuarthen kultura eduki zuen eta emakume ospetsu edo dohaka-beekiko benerazio sutsua. Jeanne Darc, Héloïse, Agnes Sorel, Ferronnière ederra eta Clémence Isaure, berarentzat, kometak bezala nabarmen-

tzen ziren historiaren ilunpe hondogabearen gainerik, non halaber ageri baitziren han-hemenka, baina ilunpean galduago eta elkarren artean inolako zerikusirik gabe, san Louis bere haritzarekin, Bayard hiltzorian, Louis XI.aren zenbait oiestasun, Saint-Barthelemyren zertxobait, Biarnotarraren purpula, eta Louis XIV goraiatzaren zuten plater pintatuen oroitzapena beti ere.

Musikako klaseetan, kantatzen zituen erromantzeetan, ez zen besterik azaltzen, urrezko hegodun aingerutxoak, madonak, lakutxoak, gondolariak, alegia estiloaren inozokeriaren eta notaren zuhurgabekeriaren bidez errealitate sentimentalen fantasmagoria erakargarria sumatzen uzten zioten konposizio baketsuak. Bere ikaskideetarikoz batzuk, opari gisa hartuak zituzten keepsakeak ekartzen zituzten komentura. Ezkutatatu egin behar ziren, arazo bat zen; logelari irakurtzen zituzten. Haien azal satinatu ederrak emekiro erabiltzean, obraren oinean sinatu zuten egile ezezagunen izenetan pausatzen zuten bere begirada liluratua, gehienetan kondeak eta bizkondeak.

Ikarak hunkitzen zuen, bere hatsaz grabatuen zetazko papera altxatzean, zeina erdi tolesturik igo eta emekiro erortzen baitzen berriro orriaren kontra. Balkoi bateko baranda atzean, beroki motzez jantzitako gizon gazte bat zen, gerrian katanarru bat zeraman soineko zuridun neska gazte bat bere beso artean hertsatuz; edota kiribil horaildun ladie ingelesen erretratu anonimoak, zeinek, beren lasta-ginbail borobilen azpitik, begi handi argiez begiratzen baitizute. Baziren zalgurdietan erraskail ageri zirenak, parkeetan barrena lerratzen, galtza zuriz jantzitako bi zaltzaintxok trostan gidatzen zuten zaltuztariaren aurrean erbizakur bat saltaka zutela. Beste batzuk, sofa gainean gutun ireki baten urrean ametsetan, ilargiari so zeuden, errezel beltzez erdijantzitako leiho erdibildu batetik. Inuxenteak berriz, malko bat masailan, usapal bati mokomuxuka ari ziren kaiola gotiko baten bur-niharien artetik, edo, burua sorbalda gainean irribarrez, bitxilore bat hostokatzen ari ziren, oski muturjasoen antzo luzatutako beren eri zorrotzez. Eta zuek ere han zineten, pipa luzedun sultanok, pendizpeetan balditurik neska

dantzarisen besoetan, djiaurak, sable turkiar-  
rak, txano greziarrak, eta batez ere zuek,  
eskualde ditiranbikoetako paisaia hitsak, non  
sarritan erakusten baitzaizkigu aldi berean pal-  
mondoak, pinuak, tigreak eskuinetan, lehoi bat  
ezkerretan, minarete tartaroak ostertzean, lehen  
planoan hondakin erromatarrak, gero gamelu  
kuzkurrak; — guztia ere oihan birjin ongi txukun-  
du batez inguraturik, eta eguzki zirrinta perpen-  
dikular handi bat ñirñir uretan, non tarteka naba-  
ri baitira urradura zuritan, altzairu grisezko hon-  
doaren gainean, zisne batzuk igeri.

Eta kinkearen pantailak, Emmaren buruaren  
gainaldean horman eskegiak, argitzen zituen  
munduko irudi hauek guztiak, bere aurrean bata  
bestearen ondoren pasatzen zirenak, logelako  
isilean eta artean bulebarretan barrena zihoan  
zalgurdi berantiarren baten urruneko azantze-  
tan.

Bere ama hil zenean, negar handiak egin  
zituen lehen egunetan. Zenaren ileaz hileta-koa-  
dro bat egin ziezaioten enkargatu zuen, eta, Ber-  
tauxetara bidali zuen gutun batean, bizitzari  
buruzko gogoeta tristez erabat betea, noizbait

ere hilobi hartan bertan ehortzi zezaten eskatzzen zuen. Aita gizarajoari gaixorik zegoela iruditu zitzaion eta ikustera etorri zen. Emma berekiko poztu egin zen existentzia hitsen ideal miets hartara lehen saioan heldurik sentitzeaz, zeinetara sekula ez baitira bihotz oiesak iristen. Beraz meandro lamartinianoetara labaintzen utzi zion bere buruari, entzun zituen laku gainetan harpak, zisne hiltzearren kantu guztiak, hostoen erorketa guztiak, zerura igotzen diren birjina garbiak, eta Eternalaren ahotsa ibarretan barrena barreiatzen. Hartaz aspertu zen, ez zuen horratio aitortu nahi izan, ohituraz segitu zuen, gero haizekeriaz, eta azkenik, harriduraz ohartu zen nareturik sentitzen zela, eta ez zuela bihotzean tristurarik bekokian zimurrik baino gehiago.

Monjatxo gajoak, hain garbitzat emana baitzuten haren bokazioa, harridura handiz ohartu ziren, Rouault andereñoak beren ardurapetik lekaturik zirudiela. Izan ere hain oparo eskaini zizkioten ofizioak, erretiroak, bederatziurrenak, sermoiak, hain ederki predikatua zioten santuei eta martiriei zor zaien begirunea, hain aholku

zuzenak emanak zizkioten gorputzaren apaltasunerako eta arimaren salbaziorako ezen hark hedetik tira egiten zaien zaldiek bezala egin baitzuen: kolpean gelditu eta ahoburdina hortzeta-  
tik jalgi egin zitzaion. Izpiritu hura, bere suharren artean positiboa, zeinak eliza loreengatik, musika erromantzeetako hitzengatik, eta literatura bere grina-kitzikadurengatik maite izan baitzuten, fedeko misterioen aurrez aurre matxinatu egiten zen, diziplinaren kontra are gehiago asaldatzen zen bezalaxe, zeren bere konstituzioarekiko gauza antipatikoa baitzen. Bere aitak pentsiotik atera zuenean, hura joaten ikustean ez zen haserrerik izan. Superioraren iritzia zen eskierki, hura azken denboretan begirune eska-sekoa bilakatu zela komunitatearekiko.

Emmak, bere etxera itzulirik, atsegin izan zuen hasieran neskame-morroiei agintzen, ondoren landari nazka hartu zion eta bere komentua damuz zuen amets. Charles Bertauxetara lehen aldiz etorri zenean, etsimenduak jota ikusten zuen bere burua, jada ezer ikastekorik gabe eta ezer ezsentitzera beharturik.



Baina egoera berri baten herstura, edo agian gizon honen presentziak eragindako sumindura, aski izan zen hari sinestarazteko ezen, ordurarte zero poetikoetako distiran kulunka zebilen txori handi luma arrosailduntzat emandako irrirts hura, azkenik ere berea zuela; — eta berak orain ezin pentsa zezakeen, bera bizi zen baretasun hura zatekeenik amestutako zoriona.

Batzuetan pentsatzen zuen bai, haiexek zirela hain zuzen bere bizitzako egunik ederrenak, eztei-ilargi egunak, esan ohi zen bezala. Hauen gozoa dastatzeko beharrezkoa zatekeen, dudarik gabe, ezkontzaren biharamunek nagi samurragoak dituzten herrialde izen-ozendun horietarantz joatea! Posta-aulkitan, zeta urdinezko errezelen pean, pausoka igotzen da bide mukerretan gora, zaltzainaren abestia entzunez, ahuntzen zintzarriekin eta urjauziaren azantz sorrarekin batera mendian errepikatzen dela. Eguzkia sartzen denean, zitroinondoan lurrina arnasten da itsasgolkoetako ertzean; gero, arratsean, txaletetako terrazan, biak bakarrik eta elkarren behatzak antxumaturik, izarrei begira egon proiektuak egiten. Iruditzen zitzaion, lurbirako zenbait lekuk zoriona ekoitzi behar zutela, zenbait lurretako propiala den eta beste edonon gaizki hazten den landarea bezala. Eta berak ezin ordea Suitzako txaleten balkoian ukondoak pausatu edo Eskoziako landetxe baten barruan bere tris-

tura hertsitu, balusa beltzezko frak barren-luzeduna soinean eta bota bigunak oinetan eta kape-lu txurruiloa eta eskuturretako farfailaz jantzitako senar batekin!

Berak agian gogoia izango zukeen gauza hauen guztien konfidentzia norbaiti egiteko. Baina nola aditzera eman, ordea, lainoak bezala itxuraz aldatzen den, haizea bezala zurrumbiltzen den ondoez atxikiezin bat? Eta hitzak falta zitzaizkion, eta aukera, eta ausardia.

Charlesek nahi izan balu halere, susmatu izan balu, haren begirada, behin bederen, bere pentsamenduarekin topo egitera etorri balitz, bere bihotzetik oldarrezko oparotasuna jalgi zatekeela iruditzen zitzaion, kereta batetik uzta erortzen den bezala eskua bertara luzatu orduko. Baina beren bizitzako intimitatea hersten zihoan heinean, harengandik banantzen zuen barne-etendura bat egiten ari zen.

Charlesen elkarrizketa lana zen kale bateko espaloia bezala, eta mundu guztiaren ideiek han desfilatzen zuten, beren janzkera arruntean, hunkipenik, barrerik edo ametseriarik kitzikatu gabe. Berak zioenez, Rouenen bizi izan zen bitar-

tean inoiz ez omen zuen grinarik izan teatora Parisko aktoreak ikustera joateko. Ez zekien igeri egiten, ez armak erabiltzen, ez pistolaz tiratzen eta, behin batez, ezin izan zion esplikatu nobela batean aurkitua zuen zaldiketa-termino bat.

Gizon batek, ordea, ez al zuen ba dena eza-gutu behar, askotariko jardueratan gailendu behar, irritsaren kemenetan, bizitzako findadeetan, misterio guztietan emakumea eskolatu behar? Baina honek ez zuen ezer irakasten, ez zekien ezer, ez zuen ezer desio. Hark uste zuen zoriontsu zela emaztea; eta honek ezin zion eraman hain ongi finkaturiko baretasun hura, pisutasun lasai hura, ezta hark ematen zion zoriona bera ere.

Batzuetan marrazten aritzen zen; eta Charlesentzat biziki laketgarri izaten zen hantxe gertzea, zut-zutik, hari begira bere kartoï gainean makurturik, begiak keinaka, bere obra hobeto ikustearren, edo erpuruaz ogi-mamizko bolatxoak borobiltzen. Pianoari dagokionez, zenbat eta azkarrago bere behatzek korritu, hainbat eta liluratuago senarra. Tentu zuhurrez sakatzen zuen tekla gainean, eta teklatu guztia zeharkatzen

zuen goitik beheraino etenik egin gabe. Hark horrela eraginik, tresna zahar hura, zeinaren hariak dardarikatu egiten baitziren, herrian barrena azkeneko muturreraino ere entzuten zen, baldin eta leioa irekita bazegoen, eta sarritan herriko aguazila, burutsik eta oski-erresta errepidean aurrera zihoala, hura entzuten gertzen zen, bere paper-orria eskuan.

Emmak, bestalde, bazekien bere etxea eramaten. Gaixoei bisiten kontua bidaltzen zien, faktura usainik ez zuten ongi moldaturiko gutunetan. Igandetan edo, afaltzera auzotarren bat zutenean, plater apainik eskaintzeko modua aurkitzen zuen, klaudia-aranak mahats-hostoren gainean piramidetan ipintzeko moldatzen zen, konfitura-potoak plater batean iraulita ateratzen zituen, eta bazkalbururako ahoa garbitzekoak erosteaz ere hitz egiten zuen. Guzti honetatik Bovaryrenganako begirune handia jalgitzen zen.

Horrelako emaztea zeukalako bere burua gehiagotzat estimatuz bukatzen zuen Charlesek. Harro erakusten zituen, salan, berun-arkatzezko bi krokis txiki, zeinak senarrak berak markozta arazi baitzituen marko oso zabalez eta hormako

paperaren kontra eskegi kordoi berde luze batzuez. Mezatatik irtetean, bere atarian ikusiko zenuen tapizeriazko oski-erresta eder batzuekin.

Berandu zen etxeratzen, hamarretan, batzuetan gauerdian. Orduan jateko zerbait eskatzen zuen, eta, neskamea oheraturik izaten zenez, Emma izaten zen zerbitzatzen ziona. Bere xenila erantzi egiten zuen laketkiago afaltzeko. Bata bestearen ondoren esaten joaten zen zein jenderekin topo egin zuen, zein herritan izan zen, zein errezeta idatzi zituen eta, bere buruaz asebetarik, okela-saltsaren hondarrak jaten zituen, bere gaztaren azala zuritzen zuen, sagar bat hozkatzen zuen, bere txanbila husten zuen, ondoren ohera joaten zen, bizkar gainean etzaten zen eta zurrunga egiten zuen. Denbora luzez algodoizko txanoaren ohitura izana zuenez, bere buruko zapia ez zitzaion belarrietara atxikirik mantentzen; beraz ileak, goizerako, aurpegira erortzen zitzaizkion nahas-mahas eta bere burukoaren lumatxaz zurituz, honen xingolak askatu egiten baitziren gauean zehar. Bota sendarrak eramaten zituen beti, hanka-muturretik orkatilerantz bi tolesdura lodik saihesten zutela, aldiz

domuaren gainerakoak lerro zuzenean segitzen zuela, zurezko oin batek bezala teinkatuta. Berak zioenez, *aski eta sobera ona zen landarako*.

Bere amak onetsi egiten zuen ekonomia honetan; zeren lehenago bezalaxe etortzen baitzitzaion bisitan, bere etxean ekaitz bortiz-xamarren bat izana zuenean; eta halere madame Bovary amak bere errainaren kontra erne jarrita zirudien. *Beren fortuna-egoerarako aukeran harroxsuegi kaustitzen zuen; egurra, azukrea eta kandela etxe handi batean bezala joaten ziren*, eta sukaldean erretzen zen su guzti hura aski zatekeen hogeita bost plater prestatzeko! Berak jasotzen zuen arropa zuria arramarioetan eta okela ekartzen zuenean harakinari kontu hartzen irakasten zion; Emmak onartzen zituen lezio hauek; eta madame Bovary amak barra-barra ematen zizkion; eta 'amatxo' eta 'alabaxo' hitzak hitzetik hortzera erabiltzen ziren egun osoan zehar, ezpainetako dardaratxo batekin batera, bakoitzak bere mintzo gozoak amonru dardarizozko ahotsez botatzen zituztela.

Madame Dubuc zenaren garaietan, ama zaharra gogokoentzat sentitzen zen artean; baina orain, Emmarenganako Charlesen amodioa berarenganako maitasunetik desertzioa iruditzen zitzaion, berea zuen horren kontrako inbasioa; eta bere semearen zorionari isiltasun triste batez erreparatzen zion, porrot egindako pertsona batek bere aintzinako etxean mahairaturik leiarretatik barrena jendeari begiratzen dion bezala. Bere semeari gogorarazten zizkion, oroitzarri gisa, bere neke eta sufrikarioak, eta, Emmaren arduragabekeriekin konparatuz, ondorio gisa ateratzen zuen ez zela inola ere arrazoizkoa hain era eksklusiboan adoratzeari hura.

Charlesekin ez zekien zer erantzun; bere ama errespetatzen zuen, eta baina bere emaztea amaigabe maite zuen; bataren ebazpena hutsezinezkotzat ematen zuen, eta bestea ordea huts-gabeko aurkitzen zuen. Madame Bovary ama joan ondoren, herabeki saiatzen zen gizona, eta haren hitz beretan, bere amatxori jalgitzen entzunak zizkion ohartarazpen hutsalenetariko bat edo beste menturatzen; Emmak, oker zego-



ela hitz batean frogatu eta bere gaixoengana bidaltzen zuen.

Halatan Emmak, onak zirela uste zuen teoriaren aranera, bere buruari maitasuna opa nahi izan zion. Ilargi argitan, jardinean, errima lera-tsuetarik buruz zekien oro errezitatzen zuen eta adagio malenkoniatsuak kantatzen zizkion hasperenka; baina bera ondoren ere aurrez bezain bare aurkitzen zen, eta Charlesek ez zirudien maiteminduago ezta hunkituago ere.

Horrela bere bihotzean sukarrria apur bat astindurik izan zuenean pindar bat bera ere atera arazi gabe, eta bestalde, berak sentitzen ez zuena ezin ulertu izanik, eta halaber era egokituta azaltzen ez zen oro ezin sinetsi izanik, neke handirik gabe konbentzitu zuen bere burua, Charlesen lerak ez zeukala jada ezer larregirik. Erregularrak bilakatuak ziren beren jostaldiak; ordu seinalatuta besarkatzen zuen. Ohitura bat zen besteren artean, eta aurrez jakiniko postre bat bezala, afariko monotoniaren ondoren.

Bularreko fluxio batetik Bovary jaunak sendaturiko igurain batek, Italiako erbizakur kume bat

eman zion Bovary andreari; pasiatzera berarekin eramaten zuen, zeren batzuetan irten egiten baitzen, tartetxo batez bakarrik egotearren eta betiko jardina hautsezko bidearekin begien aurrean ez edukitzearren.

Bannevilleko hariztiraino joaten zen, hormaren ertza osatzen duen pabilioi abandonatutik hurbil, landa aldean. Badira han, lezoinean, belarren artean, orri zorroztun kainabera luze batzuk.

Hasteko inguru guztira begiratzen zuen, bera etorri zen azkeneko aldiak gero ezer aldatu ez ote zen ikusteko. Leku berean aurkitzen zituen kukubelarrak eta zerbak, asun sortak harri handien inguruan, eta liken plakak hiru leihoen luzeran, zeintzuen leihatila beti itxiak ustelduraz apurtzen ari baitziren, beren burdin-barra herdoilduen gainera. Bere pentsamendua, hasieran xederik gabe, alderrai ibiltzen zen, bere erbizakur kumea bezalaxe, zeinak landan zirkuluak egin, tximeleta horien atzetik zaunka ibili eta satitsuak ehizatzen baitzituen gari soro baten ertzean mitxoletak hoxkatuz. Gero bere ideiak poliki-poliki finkatu egiten ziren eta, bere guar-

dasolaren muturraz golpe txikika ziztakatzen zuen belar gainean eserita, Emmak berekiko errepikatzen zuen:

— Ene Jainkoa, zergatik ezkondu ote nintzen?

Bere buruari galdetzen zion, ez ote zatekeen medioren bat izan, zoriaren beste konbinazio batzuen bidez, beste gizon bat topatu izateko; eta irudikatzen saiatzen zen ea zeintzuk ote ziratekeen jazo gabeko gertakizun haiek, bizitza desberdin hura, berak ezagutzen ez zuen senar hura. Guztiek, izan ere, ez zuten honen antzik. Izan zitekeen ederra, azkarra, adeitsua, xarmangarria, komentuko bere lagun ohien ezkontideak dudarik gabe diratekeen bezala. Zer egiten ote zuten orain? Hirian, kaleetako zarata artean, antzokietako surmurren artean eta dantzalekue-tako argitan, bihotza hedatzen duen, zentzuak zabaltzen dituen bizimodua zeramaten. Bera ordea, bere bizitza hotza zen leihozuloa iparral-dera duen ganbara bezala, eta unadura, armiar-ma isil hori, ilunpean amarauna ehuntzen ari zitzaien bere bihotzeko zoko guztietan. Sarien banaketako egunez oroitzen zen, bere koroa txi-kiak jasotzera estradura igotzen zenekoez. Bere

ile txirikordatuarekin, bere soineko zuria eta bere basakanezko oinetako irekiekin, itxura xarmanta zeukan, eta bere lekura itzultzerakoan, jaun haiek makurtu egiten ziren berari zorionak emateko; ataria zalgurdiz beterik zegoen, haien atekatik agur egiten zioten, musika-maisua agur esanez pasatzen zen, bere arrabita-kaxarekin. Bai urrun, hura guztia! zeinen urrun!

Djaliri dei egiten zion, bere belaunen artean hartzen zuen, bere buru luze finaren gainean behatzak pasatzen zizkion eta esaten zion:

— Ea, musu anderetxoari, penarik ez duan horrek.

Gero, aharrausika geldiro ari zen animalia lirainaren betarte malenkoniatsuari erreparatuz, hunkitu egiten zen, eta, bere buruarekin konparatuz, ozenki hitz egiten zion, kontsolatu nahi den atsekabetu bati bezalaxe.

Lantzean behin haize-boladak iristen ziren, itsasotik haizekirriak, zeintzuk, Caux eskualdeko lautada osoaren gainetik jauzka batean iraganik, ekartzen baitzuten, landetan barrena urrutiraino, freskura kresalatsua. Ihiek xixtu egiten zuten lurrazalean eta haritzen hostoek surmur dardari-

zo laster batean, eta adaburuek berriz, beti ere kulunkan, beren xuxurla handian segitzen zuten. Emma, bere besana sorbalda-kontra estutu eta altxatu egiten zen.

Bidean, hostaiak apalduriko egunargi berdeak argitzen zuen bere oinen azpian emeki karrankatzen zen goroldio txaroa. Eguzkia sartzen zihoan; zerua gorri zegoen adar artean, eta lerroan zuzen landaturiko zuhaitzen enbor berdintsuek zutoin zerrenda arre bat ziruditen urrezko hondoaren kontra nabarmendurik; nola-baiteko beldur batek atxikitzen zuen, Djaliri dei egiten zion, Tostesera itzultzen zen arin errepi-dean barrena, besalki batean abailtzen, eta arrats osoan ez zuen hitzik egiten.

Baina, irailaren bukaera aldera, halakoxe aparteko gauza bat kausitu zen bere bizitzan; Vaubyessardera gonbidatu zuten, Andervilliers-ko markesaren etxera.

Restaurazio garaian Estatu-Idazkari izana, Markes Jauna, berriro bizitza politikora itzuli nahian, zehar-meharka ari zen antolatzen Diputatu Ganbararako bere kandidatura. Neguan, suegur banaketa ugari egiten zuen, eta, Kontsei-

Iu Nagusian, suharkiro erreklamaten zituen beti ere bere eskualderako kamioak. Berote handien garaian, hantura bat eduki zuen ahoan, eta Charlesek sendatu zion mirakuluz bezala, bertan ziztako bat puntu-puntu eman ez. Ebakuntza ordaintzeko Tostesera bidalitako gizonak, arratsan kontatu zuen, medikuaren baratzetxoan egundoko gereziak ikusi zituela. Eta, Vaubyessarden gereziak kaxkar heltzen baitziren, Markes Jaunak txertaki batzuk eskatu zizkionez Bovaryri, bere burua behartuzat eman zuen berberak hori eskertzerara, Emma ikusi zuen, iruditu zitzaion planta polita zeukala eta ez zuela laborarisa eran agurtzen; hain egoki ere, non ez baitzitzaien iruditu gazteluan graduz apaltzearen mugak gainditzen zituztenik ezta, bestalde, aldrebeskeriarik egiten zutenik ere bikote gaztea gonbidatuz.

Asteazken batez, hiruretan, Bovary J. Andreak, beren landoa harturik, Vaubyessard alderantz abiatu ziren, arropakutxa handi bat atzean loturik eta aurrean ginbail kaxa bat leihoko oihalaren aitzinean ipinia. Charlesek, gainera, kartoizko kaxa bat zeraman hanken artean.

Ilunabarrean heldu ziren, parkean kriseiluak pizten hastearekin batera, kotxeentzako argia izatearren.

## —VIII—

Gaztelua, eraikuntza modernokoa, italiar eraikoa, bi hegal aurreraturekin eta hiru harreskilarekin, belaze zabal baten behealdean hedatzen zen, non behi batzuk baitzebiltzan larrean, zuhaitz handitako basagunetxo sakabanaturen artean, eta zuhamuxka mordoskak berriz, rododendroak, seringak eta andurak berde desberdinezko beren muluak kapelutzen zituzten hondarezko bidearen lerro bihurrian barrena. Erreka bat pasatzen zen zubi baten azpitik; laino artean sumatzen ziren lastozko teilatudun eraikin batzuk, han-hemenka banaturik belazean, zeina basoz estalitako bi hegik inguratzen baitzuten isuri leunean, eta atzealdean, muinoetan, bi lerro paralelotan altxatzen ziren estalpeak eta ikuiluak, aintzinako gaztelu eraitsitik gordetako hondakinak.

Charlesen *boc*-a erdiko harreskilararen aurrean gelditu zen; zerbitzari batzuk agertu ziren; Markes jauna aurreratu zen, eta, medikua-



ren emazteari bere besoa eskainiz, eskaratzera lagundu zion.

Oso altua, marmolezko lauzaz zolaturik zegoen, eta ahotsekin batera eliza batean bezala durundatzen zuten oin hotsek. Aurrez aurre eskilara bat zihoan zuzen gora, eta ezkerretan jardinerantz ematen zuen loriobide batek billar-salarrera zeraman, nondik entzuten baitziren, atera orduko, bolizko bolen karanbolak. Areto nagusira joateko hura zeharkatzen ari zela, jokoaren inguruan ikusi zituen Emmak aurpegi zuhurreko gizonak, korbata altuen gainean kokotsa pausatuturik, guztiak kondekoratuak, eta billarreko makilari eraginez isilean irribarreka. Hormetako zur ilunaren gainean, urrekoloreko marko handi batzuk beren ertzaren behealdean letra beltzez idatzitako izenak zeramatzaten. Emmak irakurri zuen: «Jean-Antoine d'Andervilliers d'Yverbonville, Vaubyessadko kondea eta Fresnayeko baroia, Coutrasko guduan hila 1587.eko urriaren 20an». Eta beste batean: «Jean-Antoine-Henry-Guy d'Andervilliers Vaubyessardkoa, Frantziako almirantea eta Saint-Michel ordenako zalduna, Hougue-Saint-Vaasteko guduan zauritua

1692.eko maiatzaren 29an, Vaubyessarden hila 1693.eko urtarrilaren 23an». Gero, ozta haute-maten ziren ondoren zetozenak, zeren lanparen argiak, billarreko ehun berdearen gainera jaurtikirik, ilungunea uzten baitzuen aretoan kulunkatzen. Mihise horizontalak nabartuz, hauen kontra zartatzen zen ertz zorrotzetan, bernizaren arraildurei jarraiki. Eta urrez islaturiko karratu beltz handi hauetatik guztietatik, pinturaren zati argiagoren bat edo beste nabarmentzen zen, han-hemenka, bekoki zurail bat, zuri begira zeuden bi begi, jantzi gorrien sorbalda hautsezta-tuaren ganean ileordeak deskribiltzen, edota galtzari baten mihiztoa izter mardul baten goian.

Markesak ireki zuen saloiko atea; dametariko bat zutitu egin zen (andere Markesa berbera), Emmarengana etorri zen eta bere alboan eserarazi zuen, zizailu batean, eta lagunkiro solasean hasi zitzaion, aspaldidanik ezagutu izan balu bezala. Berrogei urte inguruko emakumea zen, soinez ederra, sudur makoa, ahots errestakorra, eta bere ile gaztaintzaren ganean, arrats hartan, puntuzko burukozapi sare bat zeraman atzealdera triangeluan erortzen zitzaiola. Gazte

horail bat zegoen bere ondoan, bizkar luzeko aulki batean; eta beren jakaren botoizuloan lore txiki bana zeramaten jaun batzuk, damekin solasean ari ziren tximiniaren inguruan.

Zazpian zerbitzatu zuten afaria. Gizonak, ugariago izaki, eskaratzean lehen mahaian eseri ziren, eta damak bigarreanean, jangelan, Markes eta Markesarekin.

Emma, sartzean, giro bero batez inguraturik sentitu zen, loreen eta dafaileria ederraren lurrin nahasiarekin, jakien lurrina eta trufen usainarekin batera. Argimutiletako kandelak zilarrezko gazta-ontzien gainera luzatzen zituzten garrak; kristal zizelatuek, gandu hitsez estaliak, argizpi zurbilak bidaltzen zizkioten elkarri; loresortak zerrendan zeuden mahai guztian luze, eta, hegal zabaldun plateretan, mahaizapiekin, gotzai-kapeluren antzera moldatuak, bakoitzak opiltxo obalatu bat zeukaten beren bi tolesduren ahozabalarren barruan. Abakandoen hagin gorriek erretiluak gainditu egiten zituzten; fruitu handiak otarre saretan mailakaturik zeuden goroldio gainean; galeperrek beren lumak zituzten, lurrina zerien; eta, zetazko galtzerdiak jantzita, galtza

motzetan, korbata zuria eta paparoa, epaile bat bezain borbots, mahai-zainak, afaltiarren sorbal-den artean okela zatikatuen erretiluak pasatuz, bere goilararen kolpe batez jauzarazten zuen zeuk aukeratutako puska. Kobrezko barradun portzelanazko berogailu handiaren gainean, kokotseraino jantzitako emakume-estatua batek ekuru begiratzen zuen jendez betetako aretora.

Bovary andreak hauteman zuen, dama askok ez zituztela ipini eskuestalkiak beren edalontzietan.

Bitartean, mahaiaren goiko muturrean, emakume guzti haien artean bakarrik, bere plater betearen gainera makurturik eta haur batek bezala dafaila lepoan loturik, agure bat jaten ari zen, ahotik saltsa zeriola tantaka. Begiak gorriturik zeuzkan eta txikorda txiki bat zeraman xingola beltz batez loturik. Markesaren aitagarreba zen, Laverdiere duke zaharra, Artoisko kondearen begikoa izana, Vaudreuilgo ehiza-saioen garaian, Conflansko markesaren etxean, eta, ziotenez, Marie-Antoinette erreginaren amoran-tea izana monsieur de Coignyren eta monsieur de Lauzunen artean. Nabarmenkeriaz gainezka-

ko bizitza zuen eramana, dueluz, jokoz, emakume-ebasketaz betea, bere ondasun guztiak xahutu zituen eta bere familia guztia izutu. Morroi batek, haren aulkiaren atzean, ozenki izendatzen zizkion, belarrira, berak totelka behatzez seinalatzen zituen erretiluak; eta beti ere, agure ezpain-dilingo horrengana itzultzen ziren Emmaren begiak bere kasa, gauza harrigarri eta miresgarriren batera bezala. Gortean bizi izana zen eta erreginaren ohean etzan izana!

Champagneko ardoa izotzetan zerbitzatu zuten. Emma bere larrazal osoaz hotzikaratu zen bere ahoan haren hotza sentitzean. Granadak inoiz ikusi gabe eta ananak sekulan jan gabe zegoen. Azukre hautsa bera ere beste edonon baino zuriagoa eta finagoa iruditu zitzaion.

Damak, ondoren, beren geletara igo ziren dantzarako prestatzera.

Aktoresa baten estreinaldiko kontzientzia arretatsuaz apaindu zen Emma. Ileapaintzailearen gomendioen arabera adelatu zuen bere ilea, eta ohearen gainean zabaldutako bere oihalezko soinekoan sartu zen. Charlesi sabela estutzen zioten galtzek.

— Orkaiek traba egingo didate dantzarako, esan zuen gizonak.

— Dantza? ihardetsi zuen Emmak.

— Bai!

— Baina zoratu egin zara! zutaz trufatuko lirateke, gera zaitez zure lekuan. Bestalde, mediku batentzat egokiago da, erantsi zuen.

Charles isildu egin zen. Gelaren mutur bate-tik bestera zebilen, Emma jantzi arte zain.

Atzetik ikusten zuen, ispiluan, bi argiontziren artean. Haren begi beltzek are beltzago ziruditen. Bere adatsek, belarrietarantz leunkiro harrotuak, printzel urdinez distiratzen zuten; arrosa batek bere mototsean dardara egiten zuen xuxtar higikorrean, bere hostoen ertzean ur tanta aizun batzuekin. Soineko zafran zuraila zeraman, berdez nahasturiko ipotxarrosazko hiru xortaz dotoreturik.

Charles sorbaldan musu ematera etorri zitzaion.

— Utz nazazu! esan zion, dena zimurtzen didazu.

Bibolinen ritornello bat entzun zen, eta turuta baten soinua. Emmak eskilarak jaitsi zituen, ez korritzen saiatuz.

Koadrilak hasiak ziren. Jendea heltzen ari zen. Elkarri bultzaka. Bera ate ondoan pausatu zen, aulkitto batean. Kontradantza bukatu zenean, lekua libre geratu zen zutik solasean ari ziren gizonezko taldeentzako eta erratilu handiak zekartzaten libreadun sehientzako. Eseritako emakumeen zerrendan, haizagailu pintatuak astintzen ziren, loresortek erdizka ezkutatzen zituzten aurpegietako irribarreak, eta urrezko tapoidun potoxinak esku erdi-irekietan jiraka zebiltzan, beraietako eskuzorro zuriek hatzazalen forma markatu eta eskumuturretako haragia hertsatzen zutelarik. Egalun apainduriek, diamantezko orratzek, dominazko eskuturrekoek ikara zegiten gorontzetan, distira bularretan, soinua beso biluzietan. Adatsek, bekokian ongi erantsiak eta garondoan bihurrituak, koroa, luku edo xorta modura zeuzkaten miosotiak, jazminak, granada-loreak, galburuak edo nabarloreak. Bake-bakean beren lekuetan, bekozko iluneko ama batzuk turbante gorriz jantzita zeuden.

Bere zaldunak behatz-puntetatik heldurik, ilaran jartzera joan zenean eta dantzari ekiteko arku-kolpearen zain egon zenean, pixka bat tau-paka egin zion Emmari bihotzak. Baina emozioa berehala desagertu zen; eta, orkestraren erritmoan kulunkatuz, aurrerantz lerratzen zen, idunaren mugimendu zoliekin batera. Irribarrea jalgitzen zitzaion ezpainetara arrabitaren zenbait samurtasun bide, honek, batzuetan, bakarrik jotzean, beste instrumentuak isiltzen zirenean; urrezko luisen soinu garbia entzuten zen alboan, mahaietako tapizaren gainera jaurtikitzen; gero berriro hasten zen dena batera, pistoizko turutak soinu printzal bat botatzean. Oinak batera jaus-ten ziren, gonak puztu egiten ziren eta elkar ferekatu, eskuak elkarri eman, eta askatu; begiak ere, zure aurrean beheratuz, zureetan tinkatzera itzultzen ziren.

Gizon batzuk (hamabostekoren bat) hogeita bostetik berrogei urtetara bitartekoak, dantzarien artean sakabanatuak nahiz ate ondoetan solasean, famili-aire batez bereizten ziren jende multzotik, beraien arteko adin, jazkera edo aurpegi diferentziak edozein izanik ere.



Beren jantziek, hobeto eginak, oihal zalua-  
gozkoak ziruditen, eta haien ileek, lokiak aldera  
kiribilez moldatuak, ukendu finagoz lustratuak.  
Aberastasunaren larrantza zeukaten, portzela-  
nen xuailtasunak, satenaren leinuruak, haltzari  
ederren bernizak nabarmenagotzen duten  
larrantz zuri hori, eta elikadura gozoren erregi-  
men zogi batek osasuntsu mantentzen duena.  
Haien idunak aise jiratzen ziren korbata zapalen  
gainean; haien papilote luzeak iduneko zabalen  
gainera erortzen ziren; inisial handi batez broda-  
turiko musuzapiez xukatzen zituzten ezpainak,  
eta usain ezia zerien. Zahartzen hasiak zirenek  
gazte itxura zuten, eta heldutasunezko zertxo-  
bait nabari zen aldiz gazteen aurpegietan. Beren  
begirada aihergabeetan, egunik egun asetako  
irritsen naretasunak flotatzen zuen; eta, beren  
jarduera baretsuen bidez ateratzen zen gauza  
erdierrazak menderatzeak ematen duen mutiri-  
keria berezi hori, zeinetan indarra erabiltzen  
baita eta harrokeria laketzen baita, arrazako zal-  
diak meneratzea eta emakume galduen lagunar-  
tea.

Emmarengandik hiruro pausotara, urdinez jantzitako zaldun bat Italiar hitz egiten ari zen per-lazko apaindura zeraman emakume gazte zuhail batekin. Goresten ari ziren San Pedroko zuta-been lodiera, Tivoli, Vesuvio, Castellamare eta Cassineak, Genovako arrosak, Coliseoa ilargi-argitan. Emma entzuten ari zen bere beste belarriaz, ulertzen ez zituen hitzez jositako elkarrizketa bat. Inguraturik zeukaten mutil gaztetxo bat, zeinak, aurreko astean, «Miss Arabelle» eta «Romulus» garaitu eta bi mila luis irabazi baitzuen lezoin bat saltatzen, Ingalaterran. Bata bere lasterkariez kexu zen, gizendu egiten baitziren; beste bat inprimategiko akatsez, bere zaldiaren izena andeatu baitzuten.

Dantza-aretoko airea astuna zen; argiak laru-tzen ari ziren. Billar-aretora gibelatzen ziren. Sehi bat aulki batera igo zen eta bi kristal puska-tu zituen; beiraki pusken zaratarra, madame Bovaryk burua jiratu zuen eta jardinean, leihoen kontra, begira zeuden laborari-jendearen aurpegiak hauteman zituen. Orduan Bertauxen oroipe-na heldu zitzaion. Berrito bere etxaldea ikusi zuen, aintzira zingiratsua, bere aita atorra jantzi-

rik sagastian, eta bere burua ere ikusi zuen, garai batean bezala, esnetegian tupinetako esnegaina behatzaz biltzen. Baina, oraingo oreneko distiretara, bere iraganeko bizitza, ordurarte hain argitsua, zeharo histen zen, eta zalan-tzan jartzen zuen bizi izana ere ia. Bera han zegoen; bestez, dantzaren inguruan, itzala besterik ez zegoen, gainerako guztiaren gainean kokatuta. Ezkerreko eskuaz maskor urregorri batean eusten zion marraskinezko elatu bat jaten ari zen, eta begiak erdizka ixten zituen, goilarea hortzetan zuela.

Dama batek, bere alboan, haizagailua lurrera erortzen utzi zuen. Dantzari bat ari zen pasatzen.

— Egingo al zenidake, jauna, esan zuen damak, kanape honen atzean dagoen nire haizagailua jasotzeko mesede?

Jauna makurtu zen, eta, bere besoa luzatzeko mugimendua egiten zuen bitartean, Emmak dama gaztearen eskua ikusi zuen haren kapelara gauza zuriren bat, triangelutan tolesturik, botatzen. Jaunak haizegailua jaso, damari eskaini zion, begirunez; damak buruaren keinu

batez eskerrak eman eta bere loresorta usaintzeari ekin zion.

Afariaren ondoren, non ugari izan baitziren Espainiako ardoak eta Rhineko ardoak, zopak karramarroekin eta almendra-esnearekin, Trafalgar erako puddingak eta mota guztietako okela hotzak inguruan jelatinarekin erretiluetan dildil egiten zutela, kotxeak, bata besteen ondoren, joaten hasi ziren. Muselinazko gortina ertzetik apartatuz, beren linternen argia ilunpean erres-tatzen ikusten zen. Eserlekuak argitu egin ziren; jokalaria batzuk geratzen ziren artean; musikariek beren behazpunta freskatzen zituzten beren mihingainetan; Charles erdilotan zegoen, bizkarrara ate baten kontra tinkaturik.

Goizeko hiruretan, kotiloia hasi zen. Emmak ez zekien baltsean. Mundu guztia baltsean zebilen, baita mademoiselle d'Andervilliers bera eta andere Markesa ere. Gazteluko ostatiarrak besterik ez zen geratzen, dozena bat pertsona gutxi gora behera.

Hartan, nabasiki *Bizkondea* deitzen zioten baltselari bat, zeinaren maripulix oso irekiak bere bular ondoan orkoitua baitzirudien, biga-

rren aldiz ere etorri zen madame Bovary gonbidatzera, berak gidatuko zuela eta oso ongi moldatuko zela ziurtatuz.

Geldiro hasi ziren, gero lasterrago segitu zuten. Jiraka zebiltzan: dena zebilen jiraka beren inguruan, argiak, altzariak, zurezko hormak, eta zorua, pibote puntan diska bat bezala. Ateen ondoan pasatzean, Emmaren soinekoa, barreneko aldean gizonaren galtzei atxikitzen zitzairen; bere hankak elkarren artera sartzen ziren; gizonak berarengana jaisten zituen begiradak, berak harengana jasotzen zituen bereak; lozorroa bezala zetorkion, gelditu egin zen. Berriro ekin zioten; eta, mugimendu arinago batez, Bizkondea, bera eramanez, berarekin desagertu zen lorioaren muturreraino, non, hatsanka, erortzeko zorian egon baitzen emakumea, eta, une batez, burua haren bular gainean pausatu zuen. Eta gero, beti ere jiraka, baina polikiago, berriro bere lekura eraman zuen; hormaren kontra sostengatu zen eta eskua begien aurrean ipini zuen.

Berriro ireki zituenean, aretoaren erdian, aulxikut batean eseritako dama batek hiru baltselari zituen belauniko bere aurrean. Hark Bizkondea

hautatu zuen, eta bibolina berriro jotzen hasi zen.

Haiei hegira zeuden; iragaiten ziren eta berriro itzultzen ziren, emakumea gorputzez ekuru eta kokotsa apal, eta gizona beti jarrera berean, sorbaldak atzeraka, ukondoa makoturik, ahoa aurrerantz. Hark bai bazekien baltsean, emakume hark! Denbora luzez jarraitu zuten eta beste guztiak nekarazi zituzten.

Oraindik ere zenbait minutu solasean egin zuten, eta, agurren ondoren, edo hobeto egunonen ondoren, gazteluko ostatiarrak ohantzera joan ziren.

Charles errestan zihoan aldapan gora, *belau-nak gorputzean sartzen zitzaizkion*. Bost ordu segidan paseak zituen, zutik mahaien aurrean, whistera jokatzeko begira, hartaz ezer ulertu gabe. Eta bere botak atera zituenean atsedensuspizio handi bat ere bota zuen.

Emmak besana bat ipini zuen bere sorbalde-tan, leihoa ireki zuen eta ukondoak bertan pausatuta zituen.

Gaua beltza zen. Euri tanta batzuk ari zituen. Betazalak freskatzen zizkion haize hezea arnas-

tu zuen. Dantzako musikak burrunba egiten zuen artean bere belarrietan, eta bere ahalegiak egiten zituen esna mantentzeko, laster abandonatu behar izango zuen luxuzko bizitza honen lilura luzatzearen.

Egunsentia argitzen hasi zuen. Gazteluko leihoei begira egon zen, luzaro, bezperan haute-man zituen guzti haien gelak zeintzuk ote ziren asmatzen saiatuz. Haien bizitzak ezagutzea, haietan sartzea, haietan nahastea nahi izango zukeen.

Baina hotzak ikaraz zegoen. Erantzi zen eta izaren artean kiribildu zen, lotan zetzan Charlesen kontra.

Jende asko izan zen gosaltzen. Otorduak hamar minutu iraun zuen; ez zen inolako likorerik atera, eta horrek medikua harritu egin zuen. Ondoren mademoiselle d'Andervilliersek opil hondarrak otarretxo batean bildu zituen, urmaheleko zisneei eramateko, eta negutegi beroan paseatzera joan ziren, non, ontzi eskegiren azpian piramidetan mailakatzen baitziren landare bitxiak, ilez laztuak, zeinek, suge-habi betegiak bezala, dilindan erortzen uzten baitzituzten,

beren ertzetatik, kordoi luze berdeak elkarren artean korapilaturik. Azkeneko muturrean zegoen laranjadiak, aterberik aterbe zeraman gazteluaren etxakoetaraino. Markesak, emakume gaztea laketzearren, zaltegiak ikustera eramanezuen. Saski antzeko ganbelen gainaldean, porzellanazko plaka batzuk beltzez zeramaten zaldi bakoitzaren izena. Abereak zalapartatu egiten ziren beren tokian, ondoan mihia klaskatuz pasatzean. Zelategiko zoruak iñatu egiten zuen saloi bateko oholtzak bezala. Zalgurdi pildak bi zutabe jirakorretan jasorik zeuden erdian, eta ahokoak, zaharoak, erremalak, txarrantxak horman zehar zerrendan ipinita.

Charles, bitarte horretan, sehi bati eskatzera joan zen, bere *boc*-a uztar zezan. Harreskilaren aurrera atera zioten eta, pardel guztiak bertan sarturik, Bovary senar-emazteek Markes jaunari eta Markesa andereari beren esker-agurrak azaldu zizkieten, eta Tostes aldera abiatu ziren.

Emmak, isilik, gurpilei begiratzen zien jiratzten. Charlesekin, eserlekuaren muturreko ertzean eserira, bi besoak aldebanaturik gidatzen zuen, eta zalditxoaren trosta-ibilian zihoan,



berarentzat zabalegi ziren gurtagen artean. Hedeak lasa, gilborra jotzen zuten bertako izerdiz hanpatuz, eta *boc*-aren atzealdean estekaturiko kaxak gurtesiaren kontra ematen zituen danbatako handi erregularrak.

Thibourvilleko lepoetan ziren eta horra non beraien aurretik, Bat-batean, zaldun batzuk pasatu ziren barrez, hortzetan zigarroak zituztela. Emmak haien artean Bizkondea ezagutu uste izan zuen; jiratu zen, eta ez zuen hauteman hortze-hegian jaisten eta igotzen buruen mugimendua besterik, trostaren edo asapalaren kadentzia desberdinaren arabera.

Legoa laurden bat aurrerago, gelditu egin behar izan zuten, hautsita zegoen aztanuhala konpontzeko, sokaz.

Baina Charlesek, pildei azken begirada bat botatzerakoan, lurrean zerbait ikusi zuen, bere zaldiaren hanka artean; eta zigarro-toxa bat jaso zuen dena berdez brodatua eta bere erdian armarri irudiarekin, zalgurdi baten atea bezala.

— Eta gainera barruan bi zigarro daude, esan zuen; gaur arratserako, afalondorako.

— Erretzen al duzu ba? galdetu zuen emazteak.

— Noizbehinka, aukera suertatzen denean.

Bere aurkipena poltsikoan sartu zuen eta bere xamalkoari zaharoz eragin zion.

Beren etxera iritsi zirenean, afaririk ez zegoen prest. Etxekoandrea haserretu egin zen. Nastasiak ozarki erantzun zion.

— Hanka hemendik! esan zuen Emmak. Hau maxiatzea da, alde etxe honetatik.

Afaltzeko tipula-zopa zegoen eta zekorki zati bat mingotxetan. Charlesek, Emmaren aurrean eserita, aire zoriontsuz eskuzabalak igurtziaz esan zuen:

— Atsegin da berriro etxean egotea!

Nastasia negarrez entzuten zen. Charlesek maite zuen pixkatxo bat neska gajo hura. Hark lagun egin izan zion, garai batean, arrats askotan ere askotan, bere alargun-denborako astisoberatan. Hura izan zuen bere lehen bezeroa, herriko bere ezagun aintzinakoena.

— Benetan kanpora bota al duzu? esan zuen azkenik.

— Bai. Eta nork eragotziko dit? erantzun zuen andreak.

Gero sukaldean berotu ziren beren gela pres-tatzen zuten bitartean. Charles zigarroa erretzen hasi zen. Ezpainak luzatuz erretzen zuen, unetik unera ttuka, ahotara bakoitzeko atzera eginez.

— Zeure buruari kalte egingo diozu, esan zuen emazteak erdeinuz.

Bere zigarroa utzi zuen, eta lasterka joan zen ponpatik baso bat ur hotza irenstera. Emmak, zigarro-toxa atxiki eta arramario-zokora bota zuen arin.

Egun luzea izan zen, biharamunekoa. Bere jardintxoan paseatzen ibili zen, bidatz beretarik iraganez eta itzuliz, loresailen aurrean, kereten aurrean, igeltsuzko apaizaren aurrean geldituz, berak hain ongi ezagutzen zituen garai bateko gauza hauek guztiak liluraz begiztatuz. Bai urrun iruditzen zitzaiola, dagoeneko, dantza hura! Nork aldentzen ote zituen ba, elkarrengandik hain urrun, herenegungo goiza eta gaurko arratsaldea? Vaubyessarderako bere bidaiak bere bizitzan zulo bat egina zuen, ekaintz batek, gau bakar batean, mendietan noizbehinka irekitzen

dituen arraildura handi horiek bezala. Halere etsi egin zuen: bere soineko ederra begirunerik handienaz jaso zuen komodan eta satenezko bere oinetakoak ere, beren zola zoruko argizari limurikorrez horizkatua zutela. Bere bihotza haiek bezalaxe zegoen: aberastasunarekin ferekatzeaz, ezabatuko ez zen zerbait kokatua zuen gainean.

Zeregin bat izan zen beraz, Emmarentzat, dantza haren oroitzapena. Asteazkena iristen zen guztietan, bere buruari esaten zion esnatzean: «Ah! duela zortzi egun... duela hamabost egun... duela hiru aste, hantxe nintzen!». Eta poliki-poliki fisonomiak nahasten joan zitzaizkion oroimenean; kontradantzen doinua ahaztu zitzaion; jada ez zituen ikusten hain argiro sehi libreadunak eta gelak; xehetasun batzuk joan egin ziren, baina atsekabea geratu egin zitzaion.

## —IX—

Sarritan, Charles kanpoan zenean, arramario-ra joaten zen, laga zuen arropazuriren toledura artetik zeta berdezko zigarro-toxa hartzera.

Begiratzen zion, irekitzen zuen, eta haren forraduraren lurrina ere usaintzen zuen, izustaz eta tabakoz nahasia. Norena ote zen?... Bizkondearena. Agian bere amorantearen opari bat zen. Hau, eskierki, palisandrozko bastidoreren batean brodatu zuen, begi orotatik ezkututzen zen altzari moñoñoa, hainbat ordu eramanean ziona eta langile pentsakorraren ilekiribil lazoak gainean pausatzen zitzaizkiona. Kalamu-ehun sarean barrena maitasun hatsa pasatua zen; orratzaren ziztada bakoitzak esperantza bat edo oroipen bat tinkatu zuen han, eta elkarren artean gurutzatutako zetazko hari hauek guztiak isileko irruts bat beraren jarraipena besterik ez ziren. Eta gero Bizkondeak, goiz batez, berarekin eramanean zuen. Eta kanpai zabaleko tximinien gainean, loreontzien eta Pompadour erlojuen artean geratzen zenean, zertaz hitz egin ote

zuten? Bera Tostesen zegoen. Hura, Parisen zegoen, orain; han nonbait! Nolako ote zen Paris hori? Bai izen neurrigabea! Berekiko errepi-katzen zuen ahopean, bere buruari gusto emateko; katedraleko ezkila nagusiak bezala durrundatzen zuen bere belarrietan; bere ukendu-poto-etako etiketen gainean ere distira egiten zuen bere begietara.

Gauean, arraindariak beren gurdietan *Marjolaine* kantatuz bere leihopetik pasatzen zirenean, esnatu egiten zen; eta, herrigunetik irteetan, lur gainean berehala ilauntzen zen gurpil burdinduen zarata entzutean:

— Bihar han izango dira! zioen berekiko.

Eta haiei jarraikitzen zitzaien bere pentsamenduan, aldapak igoaz eta jaitsiaz, herri txikietan barrena, errepidean aurrera presaka izarren argitan. Distantzia zehazgabe baten buruan beti ere plaza nahasgarriren bat aurkitzen zen eta han ahitzen bere ametsa.

Parisko plano bat erosi zuen, eta, bere behatzaren puntaz, maparen gainean, ibilaldiak egiten zituen hiriburuan barrena. Bulebarretan gora joaten zen, izkina bakoitzean geldituz, kaleen

marren artean, etxeak irudikatzen dituzten karratu zurien aurrean. Begiak nekaturik, azkeanean, betazalak ixten zituen, eta ilunpean ikusten zituen gasezko kriseiluak haizetan okertzen, antzerkietako lorioen aurrean zarata handiz jaitzen ziren landoen oinlekuekin batera.

*Corbeille*, emakumeen egunkariaren harpidedun egin zen, eta *Sylphe des Salons*-ena ere bai. Irentsi egiten zituen, ezertxo ere utzi gabe, lehen antzezpenen, lasterketen eta handiki-jaien kontu-aipamen guztiak, kantarisa baten estreinaldiaz, denda berri baten irekiduraz axolatzen zen. Bazekizkien moda berriak, jostun onen helbideak, Bois edo Operako egunak. Ikasi zituen, Eugene Sueren baitan, altzariztapenen deskripzioak; Balzac eta George Sand irakurri zituen, bere irrika pertsonalenezko irudimenezko asebideren bila. Mahaira ere bere liburua ekartzen zuen, eta orriak pasatzen zituen Charles berari hitz eginez jaten ari zen bitartean. Bere irakurketetan beti Bizkondearen oroitzapena etortzen zitzaion. Haren eta asmatutako pertsonaien artean alderakuntzak egiten zituen. Baina erdigunea Bizkondea zuen zirkulu hau, haren ingu-

ruan poliki-poliki zabaltzen joan zen, eta zeukan aureola hau, haren aurpegitik aldenduz, urrunago hedatu zen, beste amets batzuk argitzeko.

Parisek, ozeanoa baino zabalago, egurats gorritzata batean distiratsen zuen beraz Emmaren begietara. Nahas-mahas hartan zalapartatzen zen bizitza ugaria, parteka banatuta zegoen halere, arlo desberdinetan sailkatua. Emmak ez zuen haietarik bizpahiru besterik hautematen, hauek beste guztiak ezkututzen zizkioten eta hauek bakarrik gizadi osoa ordezkatzeko zuten. Enbajadoreen mundua solairu distiratsuren gainean ibiltzen zen, ispiluz jantzitako saloietan, urrezko mendeldun balusazko tapizez estalitako mahai obalaturen inguruan. Bazen han ziadun soinekorik, misterio handirik, irribarrepean estalitako larritasunik. Ondoren dukesen lagunartea zetorren: han beluriak ziren; lauretan jaikitzen ziren; emakumeek, aingeru gaixoak! Ingalaterrako puntu-farfaila zeramaten beren gonapean, eta gizonak, trebezia ezezagunak gainaxal hutsalen pean, beren zaldia lehertzen zituzten laketgarritarako, uda aldia pasatzera Badera joaten ziren, eta azkenik berrogei urte aldera, abe-



rats-alabaren batekin ezkontzen ziren. Gauerditik aurrera afaltzen den jatetxeetako areto apartean, kandelen argitan, barre egiten zuen letretako jendearen eta aktoreen multzo nabarrak. Erregeak bezain eskuzabalak ziren hauek, irritis idealez eta eldarnio liluragarritz beteak. Besteez gainetiko existentzia zen, zeruaren eta lurraren artean, ekaitz artean, gauza sublimea. Munduko gainontzekoari dagokionez, guztia galdurik zegoen, toki zehatzik gabe eta existituko ez balitz bezala. Eta gainera, gauzak zenbat eta hurbilago eduki, are gehiago aldentzen zen hauetatik bere pentsamendua. Hurbilgoan inguratzen zuen oro, landa aspergarria, burges-txiki ergelak, bizitza kaxkarra, munduan salbuespen bat iruditzen zitzaion, bera harrapaturik zeukan zori partikular bat, eta aldiz honez bestaldean hedatzen zela bistaz galtzerainoko guztian zorionen eta irritsen herrialde mugagabea. Nahastatu egiten zituen, bere nahikundean, luxuaren sensualitateak bihotzaren bozkarioekin, azturen dotoreziak eta sentimenduaren eztitasunak. Ez al zitzaion ba beharrezkoa maitasunari, Indiako landareei bezalaxe, lur prestatua, temperatura

berezia? Ilargi argitan suspirioak, besarkada luzeak, abandonatzen diren eskuen gainera isurtzen diren malkoak, haragiaren sukar guztiak eta laztantasanaren ahuldurak ez ziren beraz aldentzen aisiaz beteta dauden gaztelu handietako balkoitik, tapiz lodi-lodi eta zetazko errezeldun salatxo batetik, loreontzi beteetatik, ohe bat oholtza gainera eraikia, ezta harri bitxien eta librea-kordoien ñirñirduratik ere.

Goizero zaldia txarrantxatzera etortzen zen postako mutilak, bere eskalaproin handiekin zeharkatzen zuen lorioa; bere txamarrak zuloak zituen, bere oinak larrugorri zeuden oskien barruan. Eta galtza motzetako *groom* horrekin konformatu behar! Bere egitekoa burutuz gero, ez zen gehiago egun osoan itzultzen; zeren Charlesek, etxeratzean, berak eramaten baitzuen zaldia ikuilura, zela kentzen zion eta hedea pasatzen zion, neskameak besara bat ahotz ekarri eta, ahal zuen bezala, ganbelara botatzen zuen bitartean.

Nastasieren ordeztan (azkenean ere joan baitzen Tostesetik malko-errekak isuriz), Emmak neskametarako hamalau urtetako neskato bat

hartu zuen, umezurtza eta fisonomiaz gozoa. Algodoizko txanoak debekatu egin zizkion, beraiei hirugarren pertsonan hitz egin behar ziela erakutsi zion, baso-ura plater batean ekarri behar zela, sartu baino lehen atea jo behar zela, eta lisatzen, almidonatzen, etxekoandrea jazten, hartaz bere dontzeila egin nahi izan zuen. Nes-kame berriak txintik gabe obeditzen zuen, kan-pora bota ez zezaten; eta, etxekoandreak giltza alasan laga ohi zuenez, Felicitek, arratsero, azu-kre hornidura txiki bat hartzen zuen, gero berak bakarrik jateko, ohean, bere errezoak egin ondo-ren.

Arratsaldean, batzuetan, neskatoa kaleaz bestaldera joaten zen zaltzainekin solasera. Etxekoandrea goian egoten zen, bere gelan.

Txabusina oso irekia jazten zuen, zeinak, soi-naren lepoko tolesduren artean, zokota plisatu bat uzten baitzuen agerian urrezko hiru botoire-kin. Bere gerrikoa purpuseta handidun kordoi bat zen, eta granate koloreko bere oskierresta txikiek xingola zabalezko xorta bat zeukaten, oin-lepoaren gainera zabaltzen zela. Paperzorro bat, gutunpapera, portaluma bat eta kartazalak

erosi zituen, nahiz eta nori idatzirik ez eduki; apaleko hautsa kentzen zuen, bere buruari ispi-luan begiratzen zion, liburu bat hartzen zuen, eta gero, lerro artean amets eginez, erortzen uzten zuen bere belaunen gainera. Bidaiak egiteko gogoia zeukan, edo bere komentura bizitzera itzultzekoa. Aldi berean desiatzen zuen hiltzea eta Parisen bizitzea.

Charles, elurra izan nahiz euria, zeharbidetan barrena zamalkatzen zen. Laborarien etxeetako mahaian tortilak jaten zituen, ohe hezetan sartzen zuen besoa, odolateren xorrostara epela aurpegian jasotzen zuen, karrankak entzukatzen zituen, konketak azterkatzen zituen, maindire zikinik franko altxatzen zuen; baina, arratsero, sua garretan aurkitzen zuen, mahaia prest, altzari zaloiak eta findadez jantzirako emaztea, xarmanta eta freskura-usainduna, usain hura nondik zetorren ere ezin jakin izateraino, edota balinba haren larrazala ez ote zen bere alkandorra urrindatzen zuen.

Pilaka milikuz xarmatzen zuen senarra; batean kandelentzako paperezko xirrindolak eratzekeo modu berri bat zen, nahiz bere soineko-

ari aldatu zion alozna bat, edota neskameari oker irtendako plater erraz baten izen harrigarria, eta baina Charlesek, kondarretaraino, oso gustora jaten zuena. Erlojuetan zintzilikario mordo bat zeramaten dama batzuk ikusi zituen Ruenen; berak ere zintzilikarioak erosi zituen. Etxeko sukanean beira urdinezko bi pitxar handi nahi izan zituen, eta, handik zenbait denboratarara, bolizko nezaser bat urrekoloreko oin batekin. Zenbat eta gutxiago ulertu Charlesek dotorezia hauek, are eta gehiago nozitzen zuen hauen lilura. Hauek zerbait gehitzen zieten bere zentzuen plazerari eta bere etxeko goxotasunari. Bere bizitzaren bidexka luzera osoan hareaztatzen zuen urrezko hautsa bezala zen.

Ongi zebilen, itxura ederra zuen; bere aipua erabat finkaturik zegoen. Nekazari jendeak maite zuen harroa ez zelako. Haurrak ferekatzen zituen, inoiz ez zen tabernara sartzen, eta, bestalde, bere moralitatearengatik konfidantza sorrarazten zuen. Bereziki katarroetan eta bularreko gaitzetan zuen arrakasta. Bere jendea hiltzeko beldur handiz, Charlesek, hain zuzen, edabe aringarriak ia besterik ez zuen errezeta-

tzen, lantzean behin oka-eragileren bat, oinen bainuak edo itxainak. Ez zen kirurgiari beldur ziolako; barra-barra egiten zizkizun odolatera-tzeak, jendea zaldiak bailiran, eta haginak ateratzeko *deabru guztien eskua* zeukan.

Dena den, *jakinean mantentzeko, Ruche medicale* aldizkari berriaren harpidedun egin zen, zeinaren prospektua hartua baitzuen. Afalondoan irakurtzen zuen pixka bat, baina, liseriketarekin batera, gelako beroak eraginik bost minuturen buruan loak hartzen zuen; eta hantxe geratzen zen, kokotsa bere bi eskuen gainean, eta ileak zurdile gisa argimutilaren oineraino erorita. Emmak bizkarrak uzkurtuz begiratzen zion. Eta berak ez eduki behar senar gisa, gutxienez ere, gauez liburu artean lanean aritzen diren oldar isileko gizon horietako bat, eta azkenik hirurogei urtetan, erreumatismoen adina heltzean, beren frak gaizki josian ohorezko dominaz orratz bat eramaten duten horietakoa. Berak nahi izango zukeen, Bovary izen hura, halaber berea baitzen, ospetsua izan zedin, liburudendetako apaletan zabaldurik, egunkarietan errepikaturik, Frantzia osoan ezaguna eginik

ikustea. Baina Charlesek ez zeukan inolako handinahirik! Ivetotko mediku batek, zeinarekin topo egin baitzuen zuela gutxi kontsulta batean, umilatu egin zuen apurtxo bat, gaixoaren ohe ondoan bertan, bildutako ahaideen aurrean. Charlesek pasadizo hori kontatu zionean, arratsen, Emmak bereak eta bi bota zituen ofiziokide haren kontra. Charles hunkiturik geratu zen. Bekokian musu eman zion malko bat zeriola. Baina emaztea lotsaz sumindurik zegoen, joka ekiteko gogoia zeukan, loriora joan zen leihoa irekitzera eta aire freskoa arnastu zuen baretzeko.

— Gizaixoa! Zer nolako gizaixoa! zioen aho-pean, ezpainak hozkatuz.

Gainera, senarraren kontra haserreago sentitzen zen. Adinarekin, jokamolde oiesak hartzen ari zen; bazkalburuan, botila hutsen kortxoa ebakitzen zuen; jan ondoren, mihingaina pasatzen zuen hortzen gainean; zopa hartzerakoan, hurrupada bakoitzeko koroka egiten zuen, eta, gizen-tzen hasia zenez, bere begiek, berez ere txikiak, lokietara igotzen ari zirela ziruditen masailondoen hanturarengatik.

Emmak, batzuetan, sartzen zion gerrontzean jertsearen ertz goma, bere korbata txukuntzen zion, edo bazterrera botatzen zituen hura jazte-  
ra zihoan eskularru histuak; eta hori ez zen, senarrak uste bezala, berarengatik; emazteak bere buruaren alde egiten zuen hori, berekoike-  
riaren lasaipenez, urduritasun erreaz. Batzuetan halaber, irakurri zituen gauzez hitz egiten zion, nobela bateko pasarte batetaz, antzerki-obra berri batetaz edo foiletinean kontatzen zen *handiki munduko* pasadizo batez; zeren, azken finean, Charles norbait zen, belarri bat beti irekia, onespen bat beti prest. Konfidentziarik franko egiten zion bere xarlango emeari ere! Egingo ziekeen surtako ileriei eta erlojuaren dindilari ere.

Bere arimaren zokoan, halere, gertakizunen baten zain zegoen. Galdutako marinelek bezala, bere bizitzako bakardadean barrena begi etsituak pasiatzen zituen, urrunean uhartzeko laino artean bela zuriren baten bila. Berak ez zekien zein izango zen adur hura, zer haizek bultzatuko zuen bereganaino, zein itsas-hegitara eramango zuen, txalupa bat ala hiru zubitako untzia ote



zen, larriduraz kargatua ala zorionez kainoizulotaraino betea. Baina, goizero, esnatzean, egun hartarako espero izaten zuen, eta zarata guztiak entzuten zituen, itsumustuan jaikitzen zen, harritu egiten zen hura etorri gabe izateaz; gero, eguzkia sartzean, beti ere tristeago, jada bihar-munean izatea desiatzen zuen.

Udaberria heldu zen. Lehen beroekin batera itolarriak izan zituen, udareondoak loretu zirenean.

Uztailaren hasieraz gero, bere behatzekin kontatu zuen zenbat aste geratzen zitzaion urrira iristeko, Andervilliersko markesak, agian, Vaubyessarden beste dantza bat emango zuela pentsatuz. Baina irail osoa iragan zen gutunik ez bisitarik gabe.

Dezepzio honen unaduraren ondoren, bere bihotza, berriro, hutsik geratu zen, eta orduan egun berdinen zerrenda hasi zen beraz.

Eta orain horrela segituko zuten beraz bata bestearen ondoren ilaran, beti berdin, ezin konta ala, eta ezer berririk ekarri gabe! Beste existentziek, arruntenak izanik ere, bazuten bederen gertakizunen baten aukera. Abentura batek era-

kartzen zuen batzuetan alehun gertakari, eta dekorazioa aldatu egiten zen. Baina, berari, ezer ez zitzaion suertatzen, Jainkoak nonbait hala nahi! Etorkizuna korridore zeharo beltza zen, eta azken muturrean atea ongi itxirik zeukana.

Musika utzi zuen. Zertarako jo? Nork entzun behar zion? Zeren eta berak ezin izango baitzuen inoiz, balusazko jantzi mahuka-motzetan, Erard piano batean, kontzertuan, bere behatz aisitez bolizko teklak joz, haizexka baten gisa sentitu bere inguruan extasi-murmurioa barreiatzen, ez zuen beraz ikasten unatzeak merezi. Arramararioan utzi zituen bere marrazki-karpetak eta tapizeria. Zertarako aritu? Zertarako? Josteak amorrarazi egiten zuen.

— Irakurri dut dena, zioen berekiko.

Eta han egoten zen suhartzak gori arazten, edo euriari erortzen begira.

Bai triste egoten zela, igandez; bezperetarako kanpaiak jotzen zuenean! Tuntundura adikor batean entzuten zituen, banaka-banaka jotzen, ezkilaren dangako pitzatuak. Katuren bat poliki-poliki zebilen teilatuetan, eguzkiaren izeki zurailetara bizkarra harrotuz. Haizeak, errepidean

barrena, hauts boladak puskatzen zituen. Urru-  
nean, tarteka, zakur batek uluaka egiten zuen;  
eta ezkilak, ixilgune berdinka, bere dangara  
monotonoan segitzen zuen, landetan barrena  
galduz.

Hartan, irteten ziren elizatik. Emakumeak  
eskalaproin lustratuekin, laborariak brusa berrie-  
kin, haurrak burutsik saltaka haien aurrean, guz-  
tiak etxeratu egiten ziren. Eta gauera arte, bos-  
pasei gizon, beti berberak, kokiloan jokatzeko  
geratzen ziren, ostatuko ate handiaren aurrean.

Negua hotza izan zen. Kristalak, goizero, izo-  
tzez estalirik zeuden, eta argia, haietatik barre-  
na zurizka, beira latzetan zehar bezala, batzue-  
tan ez zen aldatzen egun osoan. Arratsaldeko  
laurak ezkerreko, lanpara piztu behar izaten zen.

Eguraldi ona egiten zuenetan, jardineran jais-  
ten zen. Ihintzak aza artean utziak zituen zila-  
rrezko ehun-sareak batetik bestera hedatzen  
ziren hari argitsu luzez. Ez zen txoririk entzuten,  
dena loratzen zirudien, bai lastoz estalitako kereta  
bai mahatsondoa suge handi gaixo baten gisa  
horma-txapelaren pean, non ikusten baitziren,  
hurbilduz gero, hanka ugaridun kattalingorriak

errestan. Llerkoen aldean, laparresiaren ondoan, bere breviariora irakurtzen ari zen apaiz txapelokerdunak eskuineko oina galdua zuen, eta igeltsuak berak ere, izotzetan zartaturik, zaragar zuria sortua zuen bere aurpegian.

Gero berriro igotzen zen, atea ixten zuen, txingarrak zabaltzen zituen, eta, suaren berotan ahulduz, unadurarik astunena sentitzen zuen bereganatzen. Pozik jaitsi zatekeen neskamearekin solasera, baina nolabaiteko ahalkeak eusten zion.

Egunero, ordu berean, eskolamaisuak, zeta beltzeko boneta buruan, bere etxeko leihatilak irekitzen zituen, eta landazaina iragaiten zen, brusa gainean bere sablea zuela. Arratsean eta goizean, posta-zaldiek, hirunaka, kalea zeharkatzen zuten uraskara edatera joateko. Lantzean behin, taberna bateko atea bere txilinari eragiten zion, eta, haizea zebilenetan, dendaren ezaugarritarako ziren motxailearen kobrezko bizarrontzitxoak karranka entzuten ziren bi burdinzirien gainean. Dekorazio gisa moda-grabatu zahar bat zeukan kristal baten kontra erantsita, eta ile horiak zituen argizarizko emakume-soin

bat. Hark ere, ilemotxaileak, auhendatzen zuen bere bokazio huts egina, bere etorkizun galdua, eta, hiri handi batean, esateko Rouenen, adibidez, portu gainean, antzokitik hurbil, dendaren bat amestuz, han egoten zen egun osoan luze paseatzen, udaletxetik elizaraino, goibel, eta bezeroen esperoan. Madame Bovaryk begiak altxatzen zituenean, hantxe ikusten zuen beti, zentinela bat goardian bezala, bere boneta greziarra belarri gainean eta bere 'lasting' txamarrarekin.

Arratsaldean, batzuetan, gizon baten burua agertzen zen salako leiarren atzean, buru bronzeatua, papilote beltzak, eta astiro irribarrez hortz zurizko irribarre zabal ezti batez. Berehala vals bat hasten zen, eta, organo-doinura, saloi txiki batean, behatz baten alturako dantzariak, zorongo arrosadun emakumeak, tiroles maripulixdunak, frak beltzez tximuak, galtza motzetan jaunak, jiraka eta jiraka egiten zuten besalki, kanape eta kotsola artean, urrekoloreko paperxerra batez haien ertzetan erantsirik zeuden ispilu-pusketan errepikatuz. Gizonak biraderari eragiten zion, eskubitara, ezkerretara eta leihoe-

tarantz begiratur. Aldian behin, kantoiharriaren kontra xistukada uher luze bat tukatzearekin batera, belaunaz altxatzen zuen bere tresna, zeinaren uhal gogorrak sorbalda nekatzen baitzion; eta, noiz minduraz eta errestan, noiz alai eta arin, tramankuluko musika burrundaka jalgitzen zen tafetan arroxazko errezeletik barrena, kobrezko arabeskodun sarearen azpitik. Beste nonbait, antzokietan, jotzen zituzten doinuak ziren, saloietan kantatzen zituztenak, arratsean armiarma-lanpara pizturen pean dantzatzen zituztenak, Emmarenganaino iristen ziren munduaren oihartzunak. Etengabeko zarabandak iragaiten ziren bere buruan, eta, tapiz bateko loreen gainean dantzari bat bezala, bere pentsamenduak jauzi egiten zuen notekin batera, ametsik amets kulunkatzen zen, tristurarik tristura. Gizonak bere elemusina honetan jasotzen zue-nean, artile urdinezko estalki zahar bat zabal-tzen zuen, bere tresna bizkarrera botatzen zuen eta pausaje nekoso urruntzen zen. Emmak aldentzen begiratzen zion.

Baina batez ere otordu garaian izaten zuen ezin jasana, eskaratzeko sala txiki hartan, bero-

gailua kea zeriola, atea kirrinkaz, hormak izerditan, zorua ezkotua; bizitzako mingostasun guztia bere platerean zerbitzaturik iruditzen zitzaion, eta, saldaren lurrunarekin batera, bere arimaren zolatik igotzen zen beste hainbat garratzasun-bafadaren gisa. Charlesi luze joaten zitzaion jaten; Emmak ur batzuk kurruskatzen zituen, edota, ukondoa tinkaturik, bere aiztoaren puntaz ulearen gainean marrak egiten jostatzen zuen.

Etxeko lanetan dena bere kasa uzten zuen orain, eta madame Bovary ama, garizumaren parte bat Tostesen pasatzera etorri zenean, biziki harritu zen aldakuntza honetaz. Izan ere, garai batean hain arduratsua eta zolia, orain ordea egun osoz geratzen zen jantzi gabe, algodoi griseko galtzerdiak jantzi ohi zituen, kandelaz argitzen zen. Errepikatzen zuen, ekonomizatu beharra zegoela, ez baitziren aberats, eta erantsen zuen oso pozik zegoela, oso zoriontsu zela, Tostes biziki atsegin zuela, eta bere amaginarrebari ahoa hertsarazten zioten beste zenbait erretolika berri. Gainera, Emmak ez zirudien jada haren aholkuei jarraikitze prest; behin halako batean, madame Bovary amak lehiatzeko buru-

tazioa izan zuelarik, ezen ugazabek zaindu egin behar zutela beren sehien erlijioa, errainak begirada hain gozakaitzez eta irribarre hain hotzez erantzun zion, non emakume gajoa ez baitzen gehiago halakotan ausartu.

Emma zaila ari zen bilakatzen, apetatsua. Zenbait plater eskatzen zuen beretzako, gero ez zuen ukitu ere egiten, egun batean ez zuen esne hutsa besterik edango, eta, biharamunean, te kikarak dozenaka. Sarritan, tematu egiten zen ez irteten, gero itolarriak izaten zituen, leihoak irekitzen zituen, arropa arinak jazten zituen. Bere neskamea ederki astindu ondoren, gero opariak egiten zizkion edota auzokoen etxera bidaltzen zuen denborapasa, halaber batzuetan eskaleei ematen zizkien bere poltsako txanpon zuri guztiak, nahiz eta ez izan inola ere bihozbera horratio, ezta ere besteren antsiak erraz hunkitzekoa, laborarien artetik irtendako jenderik gehiena bezala, beti gordetzen baitute ariman gurasoen eskuetako maskurduratarik zertxobait.

Otsailaren bukaera aldera, Renault zaharrak, bere sendakuntzaren oroigarri, berak ekarri zion bere suinari puloi bikain bat, eta hiru egun gera-



tu zen Tostesen. Charlesbere gaixoekin lanpeturik izaki, Emmak egin zion lagun. Gelan pipatzen aritu zen, suburnietara tuka egin zuen, nekazari-tzaz, zekorrez, behiez, hegaztiez eta udalaz mintzatu zen; alafede non, hura joan zenean, bera ere harritu zuen atsedeen sentimendu batez itxi baitzuen Emmak atea. Bestalde, ez zuen ezere-kiko ez inorekiko arbuiorik ezkututzen; eta noiz-behinka iritzi bitxiak azaltzeari ekiten zion, onetsi ohi zena gaitzetsiz, eta gauza zitalak edo inmoralak onetsiz: eta horrek begiak zabal-zabal ireki arazten zizkion bere senarrari.

Zorigaizto honek betirako iraun behar ote zuen? Ez al zen ba hartatik irtengo? Berak ere balio zuen horratio, zoriontsu bizi ziren emakume guzti haiek adina! Ikusiak zituen, Vaubyessarden, kaizu astunagoa eta portaera arruntagoak zituzten dukesak, eta Jainkoaren injustizia higuintzen zuen; burua horma kontra ipintzen zuen negar egiteko; bekaizti zen bizitza zalapartatsuez, gau mozorrotuez, plazer mutiriez, berak ezagutzen ez zituen eta hauek nonbait eman behar zituzten zorabio guztiengatik.

Zurbiltzen ari zen eta bihotz-tupakoak izan ohi zituen. Charlesek suharbelarra eta alkanforbainuak hartu arazi zizkion. Entseiatzen zuten orok, are gehiago narriatzen zuela zirudien.

Zenbait egunetan oparotasun sukarti batez eleketatzen zen; asaldapen hauei, Bat-batean, zurrundurak jarraitzen zitzaizkien, non hitz egin gabe, mugitu gabe geratzen baitzen. Orduan suspertzen zuen gauza bakarra, potoxin bat Kolonia-ur besoetan zabaltzea izaten zen.

Tostesez etengabe kexu zenez, Charlesi iruditu zitzaion, haren gaitzaren arrazoia herri hartako eraginen batean zetzala zalantzarik gabe, eta, ideia horretan finkaturik, beste nonbaitera mediku joatea pentsatu zuen serioски.

Hartan, Emmak ozpina edan zuen argaltzearen, eztul txiki lehor bat harrapatu zuen eta zeharo galdu zuen jangura.

Kostatzen zitzaion Charlesi Testes uztea, lau urtez egon ondoren eta *bertan tokia egiten hasia zen momentuan*. Beharrezkoa bazen, ordea! Rouena eraman zuen, bere irakasle-ohia ikustera. Nerbiotako gaitza zen: giroz aldatu behar zuen.

Batera eta bestera bila ibili ondoren, Charlesek jakin zuen, bazela, Neufchatelgo eskualdean, Yonville-l'Abbaye zeritzan herri handi bat, eta bertako medikua, poloniar errefuxiatu bat, aurreko astean aldegin berria zela. Beraz herriko botikarioari idatzi zion galdetuz ea zenbatekoa zen biztanlegoa, hurbileneko ofiziokidea zer distantziatara aurkitzen zen, lehengo medikuak urtean zenbat irabazten zuen, e.a.; eta, erantzunak atseginkorrek izan zirenez, udaberri aldera hara aldatzea erabaki zuen, baldin eta Emmaren osasuna hobetzen ez bazen.

Egun batez, abioaren aurrikuspenean kaxoi bateko gauzak zuzentzen ari zela, behatzak zultatu zituen zerbaitekin. Bere ezkontzako loresortaren burdinazko hari bat zen. Laranja-loreak hautsez hori zeuden, eta satenezko xingolak, zilarrrezko eraztunak, bazterretan listen ari ziren. Surtara bota zuen. Lasto lehorra baino aiseago sutu zen. Gero errauts gainean sasi gorri bat bezala izan zen, eta poliki-poliki karraskatzen zihoan. Erretzen begira egon zitzaion. Kartoizko bikor txikiek zapart egiten zuten, latoizko hariak bihurritu egiten ziren, galartzua funditu egiten

zen; eta paperezko lorehostoak, malgorturik, tximeleta beltzen gisa plakan zehar kulunkatuz, azkenean hegan joan ziren tximiniatik barrena.

Tostesetik joan zirenean, martxoan, madame Bovary haurdun zegoen.

# **BIGARREN PARTEA**

Yonville-l'Abbaye (jada hondakinik ere gertzen ez den aintzinako Kaputxinoen komentu bat zela eta horrela izendatua) Rouendik zortzi legoatara dagoen herri bat da, Abbevilleko errepidearen eta Beauvaiskoaren artean, Rieule erreka txikiak ureztatzen duen haranaren zokoan, bere bokale aldera hiru errota jira arazi ondoren Andellera jaurtikitzen dena, eta honetan amuarrairekin batzuk ere izaten dira, zeinak kainaberaz arrantzatzen mutikoak igandetara laketzen diren.

Errepide nagusia La Boissieren uzten da eta ordekari jarraitzen zaio Leuxko aldaparen gainera arte eta handik begiztatzen da harana. Zeharkatzen duen erreka, fisonomia desberdineko bi eskualde bezala egiten ditu hartaz: ezkerretara dagoen guztia belardi da, eskuinetara dagoen guztia labore. Belazea muino apalezko burute baten pean luzatzen da Bray eskualdeko larreakin atzealdetik elkartzeko, eta aldiz ekialdetik, lautada, emeki-emeki igoz, zabaltzen doa eta begibistatik galtzerainoko guztian hedatzen

ditu bere gari-soro horailak. Belar ertzetik iragai-  
ten den urak bereizten ditu marra zuri batez  
belartzarien kolorea eta ildoena, eta landak,  
horrela, zabaldutako mantu handi bat dirudi,  
zilarrezko galartzu batez mendeturik balusazko  
lepoa duela.

Ortzimugan, iristerakoan, zure aurrean ditu-  
zu Argueilko basoko haritzak, goitik behera arroi-  
gorri luzez, desberdinez, marraturiko Saint-Jean  
aldapako malkarrekin. Euriteen lorratzak dira,  
eta arrilu-nabardura horiek, mendiaren kolore  
grisaren gainean xerra meharretan ebakiak,  
harago inguruko eskualdean darien metaliturri  
anitzetatik datoz.

Normandia, Pikardia eta Ile-de-Franceren  
arteko mugaldeen gara hemen, lurralde bortea,  
eta bertako hizkera elairerik gabea da, halaber  
paisaia aiurririk gabekoa. Hemen da eskualde  
osoko Neufchatel-gaztarik txarrena egiten dena,  
eta, bestalde, nekazaritza nekoso da, zeren eta  
simaur ugari behar baita hondarrez eta harriz  
betetako lur tortoil hauek gozatzeko.

1835. urtera arte ez zegoen Yonvillera iriste-  
ko bide taiuzkorik; baina garai inguru hartan

moldata zuten Abbevilleko errepeidea Amiensko-arekin lotzen duen *auzabide handia*, Rouendik Flandres aldera doazen gurtzainek batzuetan erabiltzen dutena. Halere, Yonville-l'Abbayek bere hartan iraun du, bere irtenbide berriak arren. Soroak hobetu ordez, belazeetan tematzen dira oraindik ere, nahiko esmoil izan arren, eta hirigune nagiak, lautadatik aldenduz, ibai aldera hazten segitu du noski. Urrundik ikusten da, ibai ertzean luze etzanik, ur bazterrean sies-ta egiten ari den unai baten gisa.

Aldaparen barrenean, zubiaren ondoren, gal-tzara bat hasten da ikararbola gaztez landatua, eta zuzen-zuzen eramaten zaitu herriko lehen etxeetaraino. Laparresiz inguraturik daude, erai-kin sakabanatuz betetako larrainen erdian, tola-reak, gurditegiak eta destilategiak zuhaitz hosto-tsuren pean barreiatuak, beren adar artetik zintzilik esku-eskilarak, hagak edo segak dituztela. Lastozko teilatuak, begien gainera eroritako larruzko txanoak bezala, behe leihoen gutxi-gora-behera hereneraino jaisten dira, hauen beira lodi sabelduak erdian koskor batez hornituak daudelarik, botilipurdien eran. Habe beltzek



diagonalean zeharkatzen duten igeltsuzko hor-  
man tarteka udareondo erkinen bat atxikitzen  
da, eta ezkaratzek beren ateetan txanketa jira-  
kor txiki bat dute, sagardotan bustitako ogibeltz  
papur batzuk mokokatzera atalarrira datozen  
txitoetatik babesteko. Larrainak gero eta estua-  
goak dira, etxebizitzak bata bestearengandik  
hurbilago, laparresiak desagertzen doaz; garo  
xorta bat dilindan dabil leiho baten pean erratz-  
kirten baten puntan; errementari baten sutegia  
dago eta segidan gurdigin bat kanpoan kamioa  
ere hartuz bi edo hiru gurdi berri dituela. Gero,  
hesitura batean barrena, etxe zuri bat ageri da,  
behatza ezpainetan pausaturik duen Amour  
batek apaindutako belartxagune borobil batez  
bestaldetik; mailadiaren alde bakoitzean burdi-  
nazko bi ontzi daude; atean zigiluek distira egi-  
ten dute; notarioaren etxea da, eta herri-ingu-  
ruetako ederrena.

Eliza kaleaz bestaldean dago, hogeitauko  
aurrerago, plazaren sarreran. Inguruan duen  
kanposantu txikia, besoak bertan pausatzeko  
altura duen horma batez itxia, hain dago hilobiz  
betea non lurrazaleko harri zaharrek etenik

gabeko lauzadura osatzen baitute, eta belarrak berez marraztu ditu lauki berde erregularrak. Eliza erabat berreraiki zuten Charles X.ren erregetzako azken urteetan. Zurezko sabaia guenetik usteltzen hasia da eta, han-hemenka, bere kolore urdinean zulogune beltzak ditu. Atearen gainaldean, organoak zeudekeen tokian, gizonentzako solairu bat dago, eskalaproien pean burrunba egiten duen eskilara kiribil batekin.

Egun-argiak, kolore bereko leiartzetatik heldurik, saiheska argitzen ditu, han-hemenka tapiz iltzatu batzuez jantzitako hormaren trabesean lerrunkaturik dauden bankuak, eta tapizen azpialdean letra handiz hitz hauek: «Halako Jau-naren bankua». Harago, eliza-barnea mehartzen den tokian, konfesionarioak bikotea osatzen du Amabirjinaren estatua batekin, satenezko soinekoz jantzia, zilarrezko izarrez betetako tulezko mantalina bat buruan, eta masailak Sandwich irletako idolo batek bezala arras purpureztatuak. Azkenik *Saint-Familleren* kopia batek, *Barne Ministroak opari egina*, lau argimutilen artean aldare nagusia dominatuz, burutzen du hondoan

ikuspegia. Koruko aulkiak, pinu-zurezkoak, pintatu gabe geratuak dira.

Merkatuak, alegia hogeiren bat zutabek sostengaturiko teilazko teilatu bat, berak bakarrik hartzen du Yonvilleko plaza handiaren erdia inguru. Udaletxea, *Parisko arkitektu baten diseinuen aranera* eraikia, tenplu greziar baten moldekoa da, botikarioaren etxearen alboan kantoia egiten duela. Behe-oinean hiru pilare joniko dauzka, eta lehen oinean puntu-erdiko arkuzlorio bat, eta aldiz burutzen duen tinpanoa galiar oilar batek betetzen du, hanka batez Kartan finkatua eta besteaz justiziaren balantza sostengatuz.

Baina begiak gehien erakartzen dituena, *Lion d'Or* ostatuaren aurrez aurre, zera da, Homais jaunaren botika! Arratsean, gehienbat, bere kinka pizturik dagoenean eta bere erakusleioa apaintzen duten kristalezko poto gorri eta berdeek lurrean, urrutira, beren bi argi-koloreak luzatzen dituztenean, orduan, haietan barrena, Bengalasuetan bezala, botikarioaren errainua sumatzen da bere pupitrearen gainean ukondak tinkaturik. Bere etxea, goitik beheraino, izkri-

bu-plakaz estalirik dago idazkera ingelesez, biritxoz, moldez: «Vichy, Seltz eta Bareges urak, arropa arazkorak, Raspail sendagaia, Arabiarren rakahuta, Darcet pastilak, Renault kipurra, bendak, bainuak, osasun-txokolateak, e.a. Eta izenburuak, dendaren zabalera osoa hartuz, urrezko letratan dio: *Homais, farmazilaria*. Gero, dendako zokoan, salmenta-mahai gainean gardainaturiko balantza handien atzean, 'laborategia' hitza hedatzen da ate kristaldun baten gainean zeinak, bere alturaren erdialdera, berriro errepikatzen baitu Homais, urrezko letraz, azpi beltz baten gainean.

Horrez gero ez dago beste zer ikusirik Yonvillen. Kalea (bakarra), fusil tirabide bateko luzerakoa eta zenbait dendaz hegituia, Bat-batean bukatzen da kamioaren bihurgunean. Eskuinetara uzten bada eta Saint-Jean aldapa behera jarraituz gero, berehala heltzen da kanposantura.

Kolera garaian, handiagotzeko, horma-alde bat eraitsi egin zuten eta alboan hiru akre lur erosi; baina zati berri hau guztia ia habitatu gabe dago, eta hilobiak, garai batean bezalaxe, ate

ondoan metatzen segitzen dute. Zaindaria, bera baita aldi berean ehortzailea eta elizako sakristaua (horrela parrokiako gorpuetatik etekin bikoitza atereaz), hutsik dagoen lurraldeaz baliatu da bertan patata ereiteko. Urterik urte, horratio, bere sorotxoak murrizten ari da, eta, izurrite bat datorrenean, ez daki heriotzengatik poztu behar duen edo hilobiengatik penatu.

— Zu hildakoen lepotik bazkatzen zara, Lestiboudois! esan zion azkenik, egun batez, apaiz jaunak.

Mintzo ilun horrek pentsa arazi egin zion; denboraldi batez gerarazi zuen; baina, gaur egun ere oraindik, bere tuberkuluen laborantzari jarraitzen zaio, eta baieztatu ere sotiltasun ausartez baieztatzen du haiek beren kasa ernetzen direla.

Kontatu bide diren gertaeren ondoren, eskierki ezertxo ere ez da aldatu Yonvillen. Latorrizko hirukoloretako banderak jiraka segitzen du elizako kanpandorrearen puntan; moda-saltzailearen dendak indianazko bi banderolak kulunkatzen ditu oraindik haizetan; botikarioaren hilorrak, ardagai zurizko paketeen gisa, gero eta

gehiago ari dira usteltzen beren alkohol arretan, eta, ostatuko ate handiaren gainean, urrezko lehoi zaharrak, euriek destindaturik, oraindik ere bidariei bere toto-kizkurrak erakusten dizkie.

Bovary senar-emazteek Yonvillera iritsi behar zuten egunean, Lefrançois andere alarguntsa, ostatu honetako etxekoandrea, hain zebilen lanpeturik non izerdi patsetan ari baitzen bere eltzeei eragiten. Merkatu eguna zen, biharamunean, herrian. Aurrez haragia ebaki beharra zegoen, oilaskoak garbitu, salda eta kafea egin. Gainera, bere ostalierren bazkaria ere bazeukan, medikuarena, haren emaztearena eta haien nes-kamearena; billarrak algara bizitan burrunbartzten zuen; hiru errotari, sala txikian, deika ari ziren pattar eske; egurra garretan zegoen, txingarrak pindarka, eta, sukaldeko mahai luzearen gainean, arkume-laurden gordinen artean, plater pilak altxatzen ziren, espinakak txikitzen ari ziren pikaderaren astinduekin dardara eginez. Eskortan hegaztiak kakarazka entzuten ziren neskamea atzetik segika zutela lepoa mozteko.

Gizon bat, larru berdezko oskierrestak oinetan, baztangak apur bat markatua eta buruan

urrezko purpuxetadun balusazko txanoa, bizkarrara berotzen ari zen tximiniaren kontra. Bere aurpegiak ez zuen azaltzen berekiko atsegina baino, eta bere buruaren gainean, zumitzezko kaiola batean, zintzilikaturiko gardantxuloak bezain aire lasaia zeukan bere bizitzan: botikarioa zen.

— Artemise! egiten zuen garrasi ostalersak, txikitu egurra, bete pitxarrak, ekarri pattarra, mugi zaitez! Gutxienik ere jakingo banu behintzat, zuk espero duzun jende horri zer postre eskaini! Ene Jainkoa! etxealdaketako horiek ekin diote berriz ere beren zalapartari billarrean! Eta ate handiaren azpian geratu den beraien gurdia? *Hirondelle* trebe da iristerakoan hori deboilatze-ko. Hots egiozu Polyteri hortik eramán dezan!... Esatea ere, Homais jauna, gaur goizaz gero beharbada hamabost partida jokatu dituztela eta zortzi pitxar sagardo edan!... Baina tapiza urratu behar didate, segitzen zuen andreak urrunetik haiei begira, bere bitsadera eskuan.

— Kaltea ez litzateke handia, erantzun zuen Homais jaunak, erosiko zenuke beste bat.

— Beste billar bat! alarguntsak oihuka.

— Honek ezin baitu gehiago irau, madame Lefrançois, berriro ere esango dizut, oker zaude! oso oker zaude! Eta gainera billarzaleek, gaur egun, zulo estuak nahi dituzte eta makila astunak. Jada karanboletara ez da jokutzen; dena aldatu da! Garaiekin batera aurreratu behar da! Begira Tellerri, hori bai...

Ostalersa gorri-gorri jarri zen amorruz.

— Haren billarra, nahi duzuna esan, zurea baino politagoa da; eta, eman dezagun, Polonia-ren aldeko edo Lyongo uholdetuen aldeko txapelketa patriotiko bat antolatzea pentsatzen dela...

— Hori bezalako txaldanek ez gaituzte, ez, beldurtuko! moztu zuen ostalersak, bere sorbalda gizenak altxatuz. Tira! tira! Homais jauna, harik eta Lyon d'or bizirik den arte, jendea hona etorriko da. Gure poltsan ez dabil haizerik! Aldiz goiz hauetako edozeinetan ikusiko duzu *Cafe français* itxita, eta leiho aurrean kartel eder batekin!... Nire billarra aldatu, jarraitzen zuen bere golkorako hitz eginez, hain eroso zait gainera nire lixuba jasotzeko, eta bertan, ehiza



garaian, sei bidaiari ere sartu izan ditut gainean lotan!... Eta Hivert barekondo hori ez da heltzen!

— Zure jaun horien afarirako al zaude haien zain? galdetu zuen botikarioak.

— Zain egon? Eta baina Binet jauna! Seiak jotzearekin batera ikusiko duzu sartzen, izan ere bera bezalako beste bat ez baita lurbira osoan puntualtasunerako. Bere tokia behar du beti sala txikian! Nahiago luke hil, beste leku batean afaltarazi baino! eta hain mixkina da! eta sagardoa-ekin hain asmagaitza! Ez da monsieur Leon bezala; hura, batzuetan zazpietan iristen da, baita zazpi t'erdietan ere; jaten duenari ez dio begiratzen ere. Hori bai gizaseme zintzoa! Inoiz ez hitz bat bestea baino ozenago.

— Izan ere bada diferentziarik franko, bistan da, hezkuntza jaso duen norbaiten eta zergabil-tzaile den karabinero-ohi baten artean.

Seiak jo zuten. Binet sartu zen.

Xenila urdinez jantzita zegoen, bere gorputz argalaren inguruan bere kasa zuzen-zuzen erortzen zitzaiola, eta larruzko bere bonetak, buru gainean kordoiz lotutako belarriduna, agerian uzten zuen, kopetegal altxatuaren azpian, kas-

koaren ohiturak behehitua zuen bekoki soila. Oihal beltzeko gerrontzea zeraman, zurdilezko lepokoa, galtza grisak, eta, urtaro orotan, bere behatsetako joanikoteak medio bi kozkor paralelo zituzten bota ongi lustratuak. Ilepunta batek berak ere ez zuen gainditzen bere bizar gorriaren muga-lerroa, zeinak, matrailezurra ingurukatzuz, lorearlo baten hegiak bezala kokatzen baitzuen bere aurpegi hits luzea, bere begi txikiakin eta sudur makoarekin. Karta-joko guztietan trebea, ehiztari ona eta idazkera eder baten jabe, tornu bat zeukan etxean eta hartan jolasten zen etxea-bete zeuzkan dafaila-uztaiak egiten, artista baten joranaz eta burges baten berekoikeriaz.

Sala txikirantz abiatu zen: baina lehenik hiru errotariak atera arazi behar izan zen; eta Binet, bere mahaia hornitzen egin zuten denbora guztian, isilik egon zen bere tokian, berogailuaren ondoan; gero atea itxi zuen eta boneta erantzi zuen, ohi bezala.

— Ez dira horratio kortesiak izango mihia histuko diotenak! esan zuen botikarioak, ostalersarekin bakarrik geratu zen orduko.

— Sekulan ez du gehiago hitz egiten, erantzun zuen andreak; etorri ziren hona, joan den astean, bi oihal-saltzaile bidaiari, grazia handiko mutilak, eta, arratsean, egundoko gauza barre-garri pila kontatu zuten, niri barrez malkoak ateratzeraino: ba aizu! berak hortxe segitu zuen, konkor-konkor, hitzik esan gabe.

— Bai, esan zuen botikarioak, ez imajinario-rik, ez ateraldirik, lagunarteko gizona egiten duenik ezertxo ere ez!

— Baliakizunik baduela diote ba, halere, argudiatu zuen ostalersak.

— Baliakizunak! errepikatu zuen Homais jaunak; horrek, baliakizunak? Bere kirakoen artean, baliteke, erantsi zuen beste tonu lasaiago batez.

Eta berriro berak:

— Ah! harreman ugari dituen negozio-gizon bat, legegizon bat, mediku bat, farmazilari bat aldartetsu eta oies ere bilakatzerainoxe arazoturik egotea, nik ulertzen dut; horrelako hamaika aipatzen da historian! Baina, gutxienez ere, horiek zerbaitetaz pentsatzen dute behintzat. Niri, esate baterako, zenbat aldiz gertatu ote zait etiketa bat idazteko bulegoko mahai gainean

nire lumaren bila ibiltzea eta, noizbait ere, nire belarrian ipinia nuela kausitzea!

Hartan, Lefrançois andrea atera irten zen, *Hirondelle* iristen ez ote zen begiratzera. Ikaratu egin zen. Beltzez jantzitako gizon bat sartu zen Bat-batean sukaldean. Nabari zen, arrastiriko azken zohargitara, aurpegi gorritzat zeukala eta gorputz atletikoa.

— Zerbait egin al dezakegu zuretzako, apaiz jauna? galdetu zuen ostatuko etxekoandreak, sukanean beren kandelekin zutabe-zerrenda gisa ipinita zeuden kobrezko argimutiletariko bat hartzen zuen bitartean; zerbait hartu nahi al duzu? Arakatz likore ttantta bat, baso bat ardo?

Kortesia handiz errefusatu zuen elizgizonak. Aurreko batean Ernemonteko komentuan ahaztu zuen guardasolaren bila zetorren, eta, hura arrastean bertan apaizetxera norbaiten bidez eraman arazi ziezaion madame Lefrançoisri eskatu ondoren, irten egin zen elizara joateko, Angelusa jotzen ari baitzen.

Botikarioak, haren oinetakoen hotsa plazan jada entzun ez zuenean, zuela gutxiko haren portaera oso desegokia kausitu zuen. Freskaga-

rri bat onartzeari uko egite hura, hipokresiarik gorrotagarriena iruditzen zitzaion; apaizek guztiek ematen zioten zurrutari inork ikusten ez zituenean, eta hamarrenen garaiak itzularazten saiatzen ziren.

Ostalersak bere apaizaren defentsa hartu zuen:

— Gainera zu bezalako lauri egingo lioke horrek gerrentzin bere belaunaren gainean. Joan den urtean, lastoa jasotzen lagundu zion gure jendeari; eta sei ahotz-haxe ere eramaten zituen batera, indartsua izan horratio!

— Ederto! esan zuen botikarioak. Bidal itzazu gero zure alabak konfesiara horrelako sasoia duten morroskoengana! Gobernua banintz, hilean behin apaizei odolateratzea egin araziko nieke, nik. Bai, madame Lefrançois, hilero, flebotomia oparo bana, gizabidearen eta ohituren interesez!

— Baina zaude isilik, Homais jauna! Fedegabea zara zu! Ez daukazu erlijiorik!

Botikarioak erantzun zuen:

— Nik badut erlijioa, nire erlijioa, eta horiek guztiek baino gehiago gainera, beren berritxuke-

ria eta komeriantekeria guztiekin ere! Aitzitik, nik Jainkoa adoratzeko dut! Izaki Gorena, Sortzailea badela sinesten dut, edozein delarik ere, hori gutxi axola, hemen behean ipini gaituena gure hiritar-eginkizunak eta famili-gurasorenak bete-  
tzeko; baina nik ez daukat joan beharrik, eliza batera, zilarrezko ontziei muin ematera eta gu baino hobeto elikatzen diren zurikondo pila hori nire poltsatik gizontzera! Zeren eta Jainkoa ohoratu liteke era berean baso batean, landa batean, edo baita ortze-sabaiari so ere, aintzina-koek bezala. Nire Jainkoa, neurea, Sokratesen Jainkoa da, Franklinena, Voltairerena eta Berangerrena! Ni, *bikario saboiarraren Fede-aitorpenaren* eta 89.eko printzipio hilezkorren alde nago! Eta ez dut noski ametitzen gure Jainkoaren gizontxorik makila eskuan bere baratzean pasiatzen dabilenik, bere lagunak balea-sabeletan ostatatzen dituenik, garrasi bat boteaz hil eta hiru egunen buruan berpizten denik: gauza zentzugabeak beren baitan, eta, bestalde, fisika-ko lege guztien kontrakarrakoak zeharo; eta honek, bide batez, frogatzen dizu, apaizak beti ere ezjakinkeria nabarmen batean murgildurik

egon direla, eta herriak ere beraiekin batera hortxe hondoratzen saiatzen direla.

Isildu egin zen, entzulegoaren begien bila bere inguruan, zeren, bere suharrean, botikarioak, momentu batez, bete-betean udal batzarraldian zegoela uste izan baitzuen. Baina ostatuko etxeakoandreak jada ez zion entzuten: urruneko burrundara bati luzatzen zion belarria. Lando baten zarata nabaritu zen lurra jotzen zuten ferra lasa batzuen klaskaketarekin batera, eta *Hirondelle*, noizbaiten, ate aurrean gelditu zen.

Kutxa hori bat zen bi gurpil handik garraiatua, zeinak, gainalderaino igotzen zirelarik, bidaiariei kamioa ikusten galarazi eta bizkarrak zikintzen baitzizkieten. Bere leihatila estuetako leiar txikiek dardara zegiten beren markoetan kotxea itxirik zegoenean, eta lohi-zipriztinak gordetzen zituzten, han-hemenka, ekaitz-euriek ere erabat garbitzen ez zuten hauts-geruza zaharren artean. Hiru zaldiz uztarritua zen, eta haue-tarik bata aurreratua, eta, aldapak jaisterakoan, azpia jotzen zuen binbilikatuz.

Yonvilleko burges batzuk bildu ziren plazara; guztiek batera hitz egiten zuten, berriak, argibi-

deak eta xixtroak eskatuz: Hivertek ez zekien nori erantzun. Herrialdeko mandatuak hiritik egiten zituen bera zen. Dendetara joaten zen, zapatariari larru-bilguak ekartzen zizkion, perratzaileari burdinak, bere amorantearentzako sardina-zahar dupa, txapelginarenetik ginbailak, ileapaindegitik bilordeak; eta, bidean barrena, itzultzerakoan, bere paketeak banatzen zituen, eskortetako itxituren gaineratik botatzen zituela, bere eserlekuan zutik, eta birrikak betean deidar eginez, bere zaldia bakarriz zihozten bitartean.

Ustekabe batek berandutu zuen; madame Bovaryren xarlango emeak landetan zehar ihes egin zuen. Ordu laurden luze batez xixtuka aritu zitzaizkion. Hivert itzuli ere egin zen legoa erdi bat atzera, hauteman zuela ustetan minutuero; baina bideari jarraiki behar izan zitzaizkion. Emmak negar egin zuen, haserretu zen; ez behar horren errua Charlesi leporatu zion. Lheureux jauna, landoan berarekin aurkitzen zen oihalmerkatari bat, saiatu zen hura kontsolatzen galdutako zakurren mila exenpluren bidez, urte luzeren buruan beren jabea ezagutzen ohi dutela-ta. Halako bat aipatu zuen, berak zioenez,



Constantinoplatik Parisera itzuli zena. Beste batek berrogeitamar legoa egin omen zituen zuzen-zuzenean eta lau ibai iragan igerika; eta bere aitak berak ere izan omen zuen txalin-txakur bat, zeinak, hamabi urte kanpoan pasa ondoren, Bat-batean bizkarrera jauzi egin baitzion, arrats batez, kalean, kanpoan afaltzera zihoan batean.

Emma jaitsi zen lehenengo, eta ondoren Felicite, monsieur Lheureux, inude bat, eta Charles bere txokoan iratzarri beharra izan zen, gaua heldu orduko hantxe lo seko geratua baitzen.

Homais azaldu zen, bere kortesia eskaini zion Madameri eta adeitsuki agurtu zuen Monsieur, haiei zerbitzurik eskaini ahal izanaz xarmaturik zegoela esan zuen, eta bere burua gonbidatzeko atrebentzia izan zuela erantsi zuen txeratsuki, gainera bere emaztea kanpora joana baitzen.

Madame Bovary sukalderatu zenean, sutondora hurbildu zen. Bere bi behatzen puntaz bere soinekoa belaunen gaineratik atxiki eta, horrela orkatiletaraino altxaturik, botin beltzez jantzitako bere oina garretarantz luzatu zuen jiraka erretzen ari zen arkume-izterraren gaineratik. Suak bete-betean argitzen zuen, bere soinekoaren bil-bea, bere larrazal zuriko txularme berdinak, baita tarteka ñirñirkatzen zituen bere betazalak ere argi gordinez gardenduz. Erdirekitako atetik

zettorren haizearen ufakoaren arabera kolore gorri zabala hedatzen zitzaion gainera.

Suaz beste aldetik, gizon gazte ilehori bat begira ari zitzaion isil-isilik.

Yonvillen, nonbait zen Guillaumin notarioaren urgazle, asper-asper egiten zenez, monsieur Leon Dupuis-k (bera zen Lion D'or-eko maizene-ko bezeroetarik bigarrena) bere otordu garaia atzeratu egiten zuen, arratsa solasean iragaite-ko aukerako bidaiariren bat ostatura helduko ote zen zain. Bere lanbidea burutu eta besterik zer egin asmatu ezinik, puntu-puntuko orduan iritsi beharrean gertatzen zen zenbait egunez, eta zoparekin ekin eta harik eta gaztarekin bukatu arte Bineten hizjario-erasoa jasan behar izaten zuen. Pozik onartu zuen, beraz, ostalersaren proposamena helduberriekin batera afaltzeko, eta jangela handira pasatu ziren, non madame Lefrançoisek, arrandiz, presta arazia baitzuen lau kubiertoz mahaia.

Homaisek bere txapel greziarra erantzi gabe segitzeko baimena eskatu zuen, mukieriaren beldurrez.

Gero, bere alboko damarengana itzuli eta:

— Madame, eskierki unatu xamar zara. Izu-garriak baitira izan ere gure *Hirondelle* horren barruan hartzen diren astinduak!

— Egia da hori, erantzun zuen Emmak, baina zalapartak dibertitu egiten nau beti; lekuz aldatzea atsegin dut.

— Hain da aspergarria izan ere, hasperendu zuen urgazleak, beti leku batera bertara iltzaturik egon beharra.

— Ni bezala bazeunde, esan zuen Charlesek, etengabe zaldiz ibiltzera beharturik...

— Baina, jarraitu zuen Leonek madame Bovaryrengana zuzenduz, atseginagorik ez dago, nire ustez; ahal denean behintzat, erantsi zuen.

— Gainera, zioen botikarioak, medikuntzalaria gure eskualde hauetan ez da oso neketsua; zeren gure kamioen egoerak kabrioletaz baliatzeke bidea ematen baitu, eta, gehienetan, nahiko ongi ordaindu ohi da, laborariek ondasunik aski izaki. Medikuntzaren ikuspuntutik, hestemin, marranta, sabeljario eta antzeko kasu arruntez aparte, uzta garaiko helgaitzen bat edo beste izaten dugu noizbehinka, baina guztitara

ere, gauza larririk asko ez, bereziki seinatzeko-  
rik ez, umorotz ugariak izan ezik, eta hauek,  
zalantzarik gabe, gure nekazarien etxebizitzeta-  
ko higie-kondizio tamalgarriek eraginak. Ah!  
borrokatu beharreko aurreritzi frankorekin topo  
gingo duzu, Bovary jauna; ohiturazko hamaika  
burugogorkeria ere bai, eta zure zientziaren aha-  
legin guztiek egunero haien kontra topo egingo  
dute; zeren oraindik ere bederatziurreneta,  
erlikietara, apaizarengana jotzen baita, noski,  
medikuarengana edo botikarioarengana zuzen-  
ean etorri baino lehen. Halere, klima, egia  
esan, ez da hain txarra, eta gure herrian lauro-  
geita hamar urtetatik gorakoak ere batzu-batzuk  
baditugu. Termometroa (neuk egiaztatu izan  
dut) neguan lau gradutaraino jaisten da, eta,  
urtegarai bortitzenean hogeita bost, asko jota  
hogeita hamar zentigradutara heltzen da, alegia  
hogeita lau Reaumur gehienez ere, edota berro-  
geitamalau Fahrenheit (neurri ingelesa), gehia-  
gorik ez! — eta, hain zuzen, alde batetik Argueil-  
ko basoak babesten gaitu iparreko haizeetatik,  
bestalde Saint Jean mendiak mendebaleko hai-  
zeetatik; eta bero hau, hala eta guzti ere ibaiak

jaregiten duen lurruna eta larreetan aurkitzen diren anitz piztia direla medio, hauek, zuk daki-zun bezala, amoniako ugari bafadatzen baitute, alegia gatzugaia, hidrogenoa eta oxigenoa (ez, gatzugaia eta hidrogenoa bakarrik), eta honek lurreko lupetza basituz, lurrun-jario guztiak nahasiz, nolabait esateko guztiak sorta batean bilduz, eta eguratsean hedaturiko elektrizitatearekin, dagoenean behintzat, bere kasa konbinatuz, luzarora ahal izango luke, lurralde tropikaletan bezala, kirats osasungaitzik sortu; — bero hau, alegia, egokiro epeldurik gertatzen da sorburua duen lekuan, edota zehazkiago esateko sorburua lukeen aldean, hots, hegoaldean, hegoekialdeko haizeen eraginez, hauek, Seine ibaian barrena iragaitean berez freskaturik, batzuetan Bat-batean heltzen zaizkigu, Errusiako haizegorriaren gisa.

— Inguruetan paseabideren batzuk izango al dituzue behintzat? zioen madame Bovaryk gizon gazteari mintzo.

— Oh! oso gutxi, erantzun zuen hark. Pature deritzan leku bat badago, aldapa gainean, baso hegian. Batzuetan, igandez, hara joaten naiz, eta

hantxe egoten naiz liburu batekin, eguzkiaren sarrerari begira.

— Eguzkiaren sarrera bezain gauza miragarriarik ez da niretzat, zioen damak, eta batez ere itsasertzean.

— Oh! biziki maite dut itsasoa, esan zuen monsieur Leonek.

— Eta bestalde ez al zaizu iruditzen, ihardetsi madame Bovaryk, izpirituak librekiago bogatzen duela zabalera mugagabe horretan, zeinaren betespenak arima jasotzen baitizu eta idealaren eta amairik gabearen ideiak ematen baitizkizu?

— Gauza bera gertatzen da mendialdeko zenbait paisaiatan, esan zuen Leonek. Iaz Suitzan izan zen lehengusu bat badut nik, eta hark esan zidanez, lakuen poesia, urjauzien xarma, glaziareen eragin itzela ezin omen dira irudikatu. Handitasun sinesgaitzeko pinuak ikusten omen dira, uramiletan zehar, eta erroitzetan eskegitako etxolak, eta han, zure azpian mila oin beherago, ibarrak bere zabaltasun osoan, hodeien tarteguneetatik. Ikuskari horiek entusiasmagarriak izan behar dute, otoitzera eragin, extasira! Horrela ez nau bat ere harritzen musikari ospe-

tsu harenak, bere irudimena hobeto kilikatzearen pianoa jotzera leku ikusgarri itzel horietako baten aurrera joan ohi zen hark.

— Musika egiten duzu? galdetu zuen damak.

— Ez, baina biziki atsegin dut, erantzun zuen gizonak.

— Ah! ez iezaiozu jaramonik egin, Bovary andrea, tarteratu zuen Homaisek bere plateraren gainera burua luzatuz, apaltasun hutsa da.

— Nola gero, adiskide! Eh! orain-hurrengo batean ere, zure gelan, miragarri bikain kantatzen zenuen *l'Ange Gardien*. Laborategitik entzuten nizun; aktore bati bezalaxe ateratzen zitzazun.

Leonek, hain zuzen, botikarioaren etxean zuen ostatu, non gelatxo bat baitzeukan bigarren solairuan, plazara begira. Bere etxenagusia-  
ren laudorioaz lotsagorritu egin zen, eta hura jadanik medikuarengana itzuli eta Yonvilleko biztanle handikienean zerrenda banan-bana jalgitzen ari zitzaion. Pasadizoak kontatu eta zenbait argibide ematen ari zitzaion; notarioaren aberastasunak zehazki ez zituela inork ezagutzen, eta



enbarazurik franko egiten zuen Tuvache etxea ere han zegoela.

Emmak zioen:

— Eta zein musika duzu atseginena?

— Oh! musika alemana, amets egitera bul-tzatzen duen hori. — Italiarrak ezagutzen al dituzu?

— Oraindik ez; baina datorren urtean ikusiko ditut, Parisera bizitzera joango naizenean, nire zuzenbide-estudioak bukatzera.

— Ihes egin duen Yanoda gizarajo hori dela-eta, zioen botikarioak, zure senar jaunari azal-tzea ohore izan dudan bezala; hark egin dituen erokeriei esker, Yonvilleko etxerik erosoenetari-ko batez gozatzeko aukera izango duzue. Batez ere mediku batentzat biziro egoki daukana, inork ikusi gabe sartu eta irten ahal izateko eran *Allée*-ra ematen duen atea da. Bestalde, etxe batera-ko atsegina den gauza oroz horniturik dago: lixi-ba-lekua, sukaldea sukaltatze eta guzti, famili-aretoa, fruitu-umaotegia e.a. Diruari errepara-tzen ez zion mutila zen! Jardinaren buruan, ibaia-ren ertzean, beste gabe udan zerbeza edateko

pendiz bat eraiki arazi zuen, eta etxekoandreak baratzea atsegin badu...

— Nire emaztea ezer gutxi aritzen da horretan, esan zuen Charlesek; zerbaitetan jardutea gomendatzen zaion arren, beti ere bere gelan geratzen da, irakurtzen.

— Ni bezala, ihardetsi zuen Leonek; izan ere zer hoberik arratsean sutondoan liburu batekin egotea baino, haizeak leihoetako beirak astintzen dituen bitartean, kriseilu-garraren argitan?...

— Ez al da hala? esan zuen damak, bere begi beltzak handi irekirik hari aurrez-aurre tinkatuz.

— Inolako kezkarik gabe, segitu zuen gizonak, orduak badoaz joanean. Mugitu ere gabe pasiatzen zara ikusi uste dituzun herrialdeetan barrena, eta zure pentsamenduak, fikzioari atxikirik, xehetasunen artean jolas egiten du edo abenturen isladari darraio. Pertsonaien artean nahasten da; badirudi, haien janzturen barnean pirpiraka ari dena zen zarela.

— Egia da! egia da! zioen damak.

— Inoiz edo behin gertatu al zaizu, berriro Leonek, sumatu izan duzun ideia lainotsu bat

liburu batean topatzea, urrunetik datorren irudi ilunen bat, zure sentimendurik zolienaren bete-  
beteko azalpen gisa?

— Nabaritu izan dut hori, erantzun zuen.

— Hain zuzen horregatik, zioen gizonak, niri batez ere poetak gustatzen zaizkit. Nik olerkiak prosa baino samurragoak idoro ditut, eta gainera askoz hobeto eragiten dute negarra.

— Baina luzera ordea aspertu egiten dute, Emmak ihardetsiz, eta orain, aitzitik, hasi eta bukatu hats batean irakurtzen diren istorioak biziki maite ditut, beldurra eragiten dutenak. Heroe arruntak eta sentimendu epelak, naturan dauden bezalakoak, arbuio ditut.

— Eskierki, oharteman zuen urgazleak, bihotza hunkitzen ez duten obra horiek, nire iritzirako, Artearen benetako xedetik urrun geratzen dira. Izan ere hain da goxoa, bizitzako desenkantuen artean, nobleziazko izakeratan, maitasun garbitan eta zorion-girotan pentsamenduz murgiltzea. Niri dagokidanez, hemen, mundutik urrun bizi naizelarik, horixe dut nire jostabide bakarra; hain baliakizun gutxi eskaintzen du, eskaini ere, Yonvillek!

— Tostesek bezala inolaz ere, esan zuen Emmak; irakurtegi bateko harpidedun izan naiz beti ere.

— Madamek hartaz baliatzeko ohorea egin nahi badit, esan zuen botikarioak azkeneko hitz hauek entzutean, neuk daukat autorerik hobere-  
nez osaturiko biblioteka bere esku jartzeko: Vol-  
taire, Rousseau, Delille, Walter Scott, *L'Echo des  
Feuilletons* e.a., eta gainera zenbait aldizkari ere  
hartzen dut, hauen artean *Le Fanal de Rouen*  
egunero, eta bestalde azken honetako berrie-  
mailea naiz Buchy, Forges, Neufchatel, Yonville  
eta inguruko herrietarako.

Bazen bi ordu t'erdi mahaian zirela; zeren eta  
Artemise neskameak, bere oin-puntetako txine-  
lak baldosa gainean soraioki errestatuz, platerak  
banaka-banaka ekartzen baitzituen, dena ahaz-  
ten zitzaion, ez zuen ezer ulertzen eta beti ere  
billareko atea erdirekirik uzten baitzuen, kriske-  
ta-muturraz hormaren kontra danbaka.

Bera ohartu gabe, hizketan ari zen bitartean,  
Leonek madame Bovary eserita zegoen aulkia-  
ren barroteetariko baten gainean pausatu zuen  
bere oina. Damak zeta urdinezko korbatatxo bat

zeraman, zeinak eusten baitzion batistazko lepotutuari esola bat bezain zuzen; eta emakumeak egiten zituen buru-mugimenduen arabera, bere aurpegiaren behealdea ehun artean murgiltzen zen edo handik irteten zen emekiro. Horrela, elkarrengandik hurbil-hurbil, Charles eta botikarioa solasean ari ziren bitartean, elkarrizketa uher horietako batean barrena sartu ziren, non esaldien menturak elkarrenganako sinpatiaren erdimuin finkora eramaten baitu beti ere. Pariseko ikuskariak, zenbait nobelaren izenburuak, dantza berriak, eta ezagutzen ez zuten mundua, dama bizi izana zen Tostesko herria, orain biak zeuden Yonville, dena arakatu zuten, orori buruz hitz egin zuten afariaren bukaera arte.

Kafea zerbitzatu zutenean, Felicite etxe berriko gela prestatzera joan zen, eta afaltiarrek berehalaxe utzi zuten mahaia. Madame Lefrançois errautsen ondoan lo zegoen, eta morroia berriz, kriseilua eskuan zuela, Bovary jaun-andreen zain zegoen beren etxeraino laguntzeko. Bere txima gorrien artean ahotz-izpiak zituen nahasian, eta ezkerreko hankaz erren egiten zuen. Bere beste eskuaz apaiz jau-

naren guardasola hartu zuenean abiatu egin ziren. Auzaldea lo zetzan. Arkupetako harroinek errainu handiak luzatzen zituzten. Lurra erabat grisa zegoen, uda-gau batez bezalaxe.

Baina, medikuaren etxea ostatutik berrogeita hamar pausotara baitzegoen, ia berehalaxe elkarri gauona opa behar izan zioten, eta laguntaldea sakabanatu egin zen.

Emmak eskaratzera orduko sentitu zuen bere sorbalda gainera erortzen, oihal hezatsu baten gisa, igeltsuaren hotza. Hormak berriak ziren eta zurezko eskilara-mailek kirrinka egin zuten. Gelan, lehen solairuan, errezelik gabeko leihoe-tatik egunargi zuriska sartzen zen. Zuhaitz-buru batzuk sumatzen ziren, eta urrunago belazeak, ibaiaren bideari jarraiki ilargi-argitan zerion lainaldetan erdi-hondoraturik. Apartamentuaren erdian nahas-mahasean, komoda-kaxoiak, botilak, errezel-makilak, urre-koloreko txistenak aulki gainetan koltxoiekin eta lurrean ontziak, — altzariak ekarri zituzten bi gizonen hantxe utzia baitzuten dena zabarki.

Leku ezezagun batean lotaratzen laugarren aldia zuen. Lehenengoa komentura sartu zenean

izan zen, bigarrena Tostesa iritsi zenean, hirugarrena Vaubyessarden, laugarrena hauxe zen; eta hauetariko bakoitza bere bizitzako fase berri baten ekinera gisa kausitua zitzaion. Berak ez zuen pentsatzen leku desberdinetan gauzak berdin gerta zitezkeenik eta, hanarteraino bizi izandakoa txarra zenez, bizi izateko geratzen zenak hobeia izan behar.



Biharamunean, esnatzean, urgazlea haute-man zuen plazan. Bera gela-jantzitan zegoen. Mutilak burua altxatu eta agurtu egin zuen. Emmak presakako gur bat egin eta berriro leihoa itxi zuen.

Leon zain egon zen egun osoan zehar arratsaldeko seiak noiz iritsiko: baina, ostatura sartzean, Monsieur Binet besterik ez zuen aurkitu mahairaturik.

Bezperako afari hura berarentzat gertaera garrantzitsua zen; anarteraino inoiz ez zuen solas egin bi orduz segidan *dama* batekin. Nolaz adierazi ahal izan zituen, beraz, eta halako hizkera-moldez, aurrez hain ongi ezin esan izango zituzkeen gauza haiek guztiak? Azturaz herabe zen, eta aldi berean ahalketik eta itxura egitetik parte duen zuhurtzia hori gordetzen zuen. Yonvillen kausitzen zuten, *behar den bezalako* gizalegea zuela. Pertsona helduen arrazonamenduak entzuten zituen eta ez zirudien bat ere burube-roa politikan, gauza ohargarria gazte baten bai-



tan. Gainera zenbait dohain ere bazeukan, akua-relaz pintatzen zuen, sol klabea irakurtzen bazekien, eta atsegin zuen afalondoan literatura lantzea, kartetan jokatzeko ez zuenean. Homais jaunak aintzakotzat hartzen zuen bere eskolarengatik; Homais andreak txera zion bere atsegintasunarengatik, zeren sarritan eramaten baitzituen jardenera Homais txikiak, ume beti zikinak, gaizki heziak eta apur bat linfatikoak, beren ama bezala. Haien zaintzeko, neskamez aparte, Justin zeukaten, farmazia-ikaslea, Homais jaunaren lehengusu txikia, etxean karitatez hartua, eta aldi berean sehi gisa baliagarri zitzaiena.

Botikarioa auzokiderik hoberenaren gisa portatu zen. Bovary andreari hornitzaileei buruzko argibideak eman zizkion, berari sagardoa ekartzeko ziona espresuki etorrarazi zuen, berak dastatu zuen edaria, eta bera arduratu zen sotoan upela ongi ezar zezaten; berak erakutsi zuen halaber zein eratan moldatu behar zen gurin-hornidura oso merke lortzeko, eta Lestiboudois sakristauarekin trama egin zuen, hura baitzen, bere eliza eta hileta eginkizunez gain, Yonvilleko jardinerik nagusienak zaintzen zituenena, orduka

nahiz urteko hainbesteko batean, pertsona bakoitzaren gustuaren arabera.

Besteez arazotzeko beharrak bakarrik ez zuen bultzatzen botikarioa hainbesteko adeitasun eskuzabalera, bazegoen han hondoan egitamu bat.

XI. urteko Haizetsuaren 19.ko legea, 1. artikulua, hautsi zuen, zeinak debekatzen baitio diplomarik ez daukan indibiduo orori medikuntza egikaritzea; hartan beraz, salakuntza ilunbetsuren batzuen ondorioz, Homaisek Rouenen aurkez zedin manamendua jaso zuen, erregeren prokuradorearen aurrera, bere kabinete partikularrean. Magistratuak zutik hartu zuen, togaz jantzirik, katazuri larrua lepoan eta boneta buruan. Goizez izan zen, bista baino lehen. Korridorean entzuten ziren jendarmeen bota gogorak iragaiten, eta hersten ziren sarraila handiren urruneko zarata bezala. Odolkolpe batez erortzera zihoala uste izateko eran burrundatu zioten belarriek botikarioari; ziega zokoak sumatu zituen, bere familia negarrez, farmazia saldua, ontzi guztiak barreiatu; eta kafetegi batean sartzera beharturik gertatu zen ron baso

bat Seltz urarekin hartzera, bere onera itzuli ahal izateko.

Poliki-poliki, ohartarazpen haren oroipena ahuldu egin zen, eta segitu egin zuen, garai haietan bezala, bere botika-atzean bere kontsulta txastarrak ematen. Baina alkateak begitea zion, bere ofiziokideak bekaizti zeuden, edozein beldur izan behar. Kortesian bidez Bovary jauna atxikitzea, bere eskerrona irabaztea zen eta egunen batean hitz egin zezan eragozte, baldin eta zerbaitetaz ohartzan bazen. Halaber, egunero, Homaisek egunkaria eramaten zion, eta sarritan, arratsaldean, momentu batez farmazia uzten zuen sendagile ofzialarengana joateko hitzaspertu bat egitera.

Charles triste zegoen: bezeroak ez ziren etortzen. Ordu luzez egoten zen eserita, hitz egin gabe, bere kabinetera joaten zen lotara, edo bere emazteari josten begira egoten zen. Leko-ratzeko, bere etxean enplegatu zen peontzan, eta saiatu ere egin zen ganbara pintatzen pintatzaileek utzia zuten margo hondar batekin. Baina diru arazoek kezkatzen zuten. Gastatu ere hainbeste zuen gastatu Tostesen konponketarako,

emaztearen apainduratarako eta ethez aldatzeko, non ezkontsari guztia, hiru mila eskutu baino gehiago, xahutua baitzen bi urtetan. Gainera, Tostesetik Yonvillerako garraioan zenbait gauza hondatu edo galdu zen, igeltsuzko apaiza kontatu gabe, zeina, balantzara zakarregi batean gurditik erorira, mila puskatan txikitu baitzen Quincampoixko hatzolarearen kontra!

Beste kezka larriago bat etorri zitzaion lekoratzeko, bere emaztearen haurdunaldia alegia. Bukaera hurbiltzen ari zen eran, berak are laz-tankiago maite zuen. Beste haragi-lotura bat zen ezartzen ari zena, eta elkarganatze konplexuago baten sentimendu etengabea bezala. Haren ibilkera nagia eta gerrontzerik gabeko haren aldaken ganean gerria emeki jiratzen ikusten zuenean; biak elkarrekin, aurrez aurre, gozatsuki kontenplazten zuenean eta emazteak, eserita, bere besalkian jarrera unatuak hartzen zituztenean, orduan bere zorionari ezin zion barnean eutsi; altxatzen zen, besarkatzen zuen, eskuak aurpegian pasatzen zizkion, amatxo deitzen zion, dantza eginarazi nahi izaten zion, eta, erdi barrez erdi negarrez, gogora zetozkion molde

orotako bitxikeria txeratsiak jalgitzen zizkion. Haur bat sortarazi izanaren ideiak atsegin ematen zion. Ezer ez zitzaion jadanik falta. Giza-existentzia bere zabalera osoan ezagutzen zuen, eta bi ukondoak tinkatuz mahairatzen zen patxadaz.

Emmak, hasieran, harridura handia sentitu zuen, gero lehenbailehen erditzeko gogoia izan zuen, ama izate hori zer ote zen jakitearren. Baina, berak nahi zituen gastuak egiterik ez zeukanez, alegia txanel antzeko sehaska bat zeta arrosazko errezelekin eta txano brodatuak edukitzea, sein-atuari uko egin zion, samintasun eraso batean, eta herriko jostun bati enkargatu zion dena batera, ezer hautatu eta eztabaidatu gabe. Ez zen beraz laketu amaren samurtasuna guratzen den prestakuntza hauetan, eta hortaz agian, sorreratik bertatik, bere txera apur batez apaldurik geratu zen.

Halere, Charlesek, otordu guztietan, umeaz hitz egiten zuenez, laster bera ere hartaz sarriago amesten hasi zen.

Emmak semea nahi zuen; sendoa eta beltzarrana izango zen, eta Georges deituko zion; eta haur arra edukitzearen ideia hau, iraganeko bere

ahalezin guztien ordain-esperantza molde bat zen. Gizon bat, gutxienik ere, libre da; grinetan eta herrialdeetan barrena ibil daiteke, oztopoak zeharka ditzake, urruneneko gozamenak hozka ditzake. Baina emakume bati etengabe eragotzi egiten zaio. Aldi berean geldo eta malgu, bere kontra ditu haragiaren guritasunak legearen menpekotasunarekin batera. Bere borondateak, gerpa batez lotutako bere ginbailaren beloak bezala, haize orotara pilpiratzen du, beti dago erakartzen duen gurariren bat, beti eusten dion eratasunen bat.

Igande batez erditu zen, seiak aldera, eguzkia irtetearekin batera.

— Neska da! esan zuen Charlesekin.

Emmak burua jiratu zuen eta zorabiatu egin zen.

La segituan, madame Homais bereganatu zen eta besarkatu egin zuen, halaber *Lion d'or* ostatuko Lefrançois andreak. Botikarioak, gizon zogia izaki, behin-behineko zorion-agur batzuk bakarrik zuzendu zizkion, erdi-irekitako atetik. Haurra ikusi nahi izan zuen eta ongi osatua kausitu zuen.

Erditu ondoko denboran, asko saiatu zen bere alabarentzako izen baten bila. Lehenik bukaera italiarra zuten guztiak pasatu zituen banan-bana, esateko Clara, Louisa, Amanda, Atala; berak atsegin zuen Galsuinde, are gehiago Yseult edo Leocadie. Charlesek haurra bere ama bezala deitzea nain zuen; Emma horren aurka zegoen. Egutegia aldenik alde jorratu zuten, eta kanpokoei iritzia eskatu zieten.

— Monsieur Leon, zioen botikarioak, lehengo batean berarekin solasean ari nintzela, harritu egiten zen zuek Madeleine ez hautatzeaz, gaur egun sobera modan dagoenez.

Bovary amak ongi ozenki heia goratu zuen pekatari-izen horri buruz. Monsieur Homaisek, bere aldetik, begiko zituen gizon handiren bat, gertaera ospetsuren bat edo gogamen bikain bat oroitarazten zuten guztiak eta sistema horren arabera bataiatuak zituen bere lau haurrak. Hala, Napoleonek ospea irudikatzen zuen eta Franklinek askatasuna; Irma, agian, erromantizismoari amore ematea izan zen; baina Athalie antzerki frantseseko obra-nagusirik hilezkorrenari omenaldia. Zeren bere konbentzimendu filo-

sofikoek ez zituzten eragozten bere mirespen artistikoak; beregan, pentsatzaileak ez zuen inola ere itotzen gizon sentikorra; berak baze-kien diferentziak ezartzen, irudimenaren arloa eta fanatismoarena aldebanatzen. Tragedia honetatik, adibidez, ideiak gaitzesten zituen, baina estiloa miresten zuen; gogamoldea mada-rikatzen zuen, baina zertzelada guztiak txalotzen zituen, eta pertsonaien kontra haserretzen zen, beraien diskurtsoaren alde suhartuz. Pasarte handiak irakurtzen zituenean, liluratu egiten zen; baina pentsatzen zuenean, ponteigelek har-tatik beren kaparrerako abantaila ateratzen zutela, etsipenak jotzen zuen, eta, bere burua trabatzen zen sentimendu-korapilo honetan, aldi berean nahi izango zukeen bere bi eskuez Raci-ne koroatu ahal izatea eta berarekin ordu laur-den luze batez eztabaidatzea.

Azkenik, Emmari gogoratu zitzaion Vaubyes-sardko gazteluan entzun zuela markesa neska-gazte bati Berthe deitzen; orduantxe bertan hau-tatua geratu zen izen hori, eta, Rouault zaharrak etortzerik ez zeukanez, Homais jaunari erregutu zioten aitabitxi izan zedin. Opari gisa, guztiak



bere dendako produktuak eman zituen, alegia: sei kaxa kereisanza, rakahut poto bat osoa, hiru lurrontzi malbazuri-orez, eta, gainera, apal batean atzeman zituen azukre gardenezko sei makila. Bataioko arratsean, afari handi bat izan zen; apaiza han aurkitzen zen; berotu egin ziren. Monsieur Homaisek, likoreetako tenorean, *Le Dieux des bonnes gens* kantatu zuen, Monsieur Leonek barkarola bat abestu zuen, eta madame Bovary amak, amabitxia baitzen, Inperioaren garaietako erromantze bat; azkenik, monsieur Bovary zaharrak, haurra jaitsi zezaten galdu zuen, eta goitik buru gainera isurtzen zion txanpain-kopa batekin hura bataiatzeari ekin zion. Sakramentuetarik lehenaren iseka honek Bournisien abadea asaldatu egin zuen; Bovary zaharrak *La Guerre des dieux*-ko aipamen batez erantzun zion, apaizak joan egin nahi izan zuen: damak otoika ari zitzaizkion; Homais artean sartu zen, eta lortu zen elizgizona berriro eseri araztea, eta honek berriro lasai eraso zion, bere plater txikian, erdi edandako kikara-erdi kafeari.

Monsieur Bovary aita artean beste hilabete batez geratu zen Yonvillen, non, goizetan plazan

bere pipa erretzeko eraman ohi zuen zilarrezko galartzudun polizia-txapel hanpurutsu bat medio, bertako biztanleak liluratu baitzituen. Halaber pattarra ugari edateko ohitura zeukanez, sarritan bidaltzen zuen neskamea *Lion d'orera* beretzako botila bat eroatera, hau bere semearen kontuan apuntatzen zutelarik; eta bere lepokoak lurrintzen, bere errainaren Kolornia-ur hornidura osoa bukatu zuen.

Errainak ez zuen inola ere higuin haren lagungoan. Munduan zehar ibilia zen: Berlinez, Vienaz, Strasburgoz hitz egiten zuen, bere ofizial garaiez, izan zituen amorantez, egin zituen bazkari handiez, gero txeratsu azaltzen zen, eta batzuetan, eskilaretan nahiz jardinean, gerritik heltzen ere zion ozenki esanez:

— Charles, argi ibili!

Horretan Bovary ama bere semearen zorionarengatik larritu zen, eta, bere senarrak, luzarora, emakume gaztearen ideien gain eragin inmorala izango ote zuen beldurrez, presa izan zuen abioa aurreratzen. Agian kezka serioagorik ere bazuen. Bovary jauna ezer errespetatuko ez zuen gizona zen.

Egun batez, Emmari Bat-batean beharra sortu zitzaion bere alabatxoak ikusteko, zeina zurginaren emaztearen baitan inudetua baitzegoen, eta, Amabirjinaren sei asteek oraindik irauten ote zuten egutegian begiratu gabe, han abiatu zen herriaren azken muturrean, aldaparen behealdean, errepidearen eta belazeen artean aurkitzen zen Rolleten etxerantz.

Eguerdia zen; etxeek leihatilak itxirik zeuzkaten, eta zeru urdineko argi latzaren pean distiratzten zuten arbelezko teilatuek, beren gailurertzetan pindarrak zirtakatzen zituztela zirudien. Haize afoina zebilen. Emma oinez ibiltzean ahul sentitzen zen; espaloiko harkazkarrek min ematen zioten; bere etxera itzuli ala nonbait esertze-ra sartu zalantzan egon zen.

Une horretan, Monsieur Leon irten zen auzoko ate batetik, galtzarbean paper-xorta bat zuela. Agurtzera etorri zitzaion eta itzalean jarri zen Lheureuxen dendaren aurrean, irekita zegoen kaparraren pean.

Madame Bovaryk esan zuen, bere haurra ikusterazihoala, baina unatzen hasia zela.

— Baldin..., hasi zen Leon, jarraitzen ausar-  
tzeke.

— Zereginik bai al duzu nonbait? galdetu zion  
emakumeak.

Eta, urgazlearen erantzuna bide, laguntzeko  
eskatu zion. Arratsean bertan, Yonvillen bazuten  
horren berri, eta Tuvache andreak, alkatearen  
emazteak, bere neskamearen aurrean esan zuen  
*madame Bovary konprometatzen ari zela*.

Inudearen etxera iristeko, kalearen buruan  
ezkerretara jo behar zen, kanposantura heltzeko  
bezala, eta, etxetxiki eta larrain batzuen artean,  
xuandorrez hegiztaturik zegoen bidetxior bati  
jarraitu. Hauek loretan zeuden, aretxarteak ere  
bai, eta basarrosak, asunak eta sasi artetik  
altxatzen ziren lar aisitak ere. Laparresien hutsu-  
netik hautematen ziren, *txaboletan*, zerri batzuk  
gorozpila gainean, edo behi muturrekodunak,  
beren adarrak zuhaitz-enborren kontra igurtziz.  
Biak, elkarren alboan, poliki zihoazen, emaku-  
mea gizonaren arrimuan sostengatuz, eta gizona  
bere pausoak zainduz harenekin neurtzen zitue-  
la; beren aitzinean euli multzo bat zihoan hega-  
biraka, aire berotan burrundan.

Gerizpetzen zuen intxaurrondo zahar bategatik ezagutu zuten etxea. Apala eta teila arrez estalia, kanpoaldean, ganbarako argizuloaren azpian, tipula-korda bat zeukan dilingo. Zarbazta batzuk, elorrizko hesiaren kontra zutik, inguratzen zituzten letxu sail bat, izpiliku oin batzuk eta lore-ilarrak arbatan gora. Ur zikina jarioan zihoan belar artean zabalduz, eta inguru guztian pilda nahasi asko zeuden, puntuzko galtzerdiak, indiana gorrizko atorra bat eta oihal lodizko izara handi bat laparresi gainean luzetara hedaturik. Atekaren zaratarra, inudea agertu zen, titia hartzen ari zen haur bat besoan zuela. Beste eskuetik tiraka ume gaixo mengel bat zekarten, aurpegia gingilez betea, Rouengo bonetagine baten semea, zeina bere gurasoek, beren negozioan lanpetuegiak, landetxean uzten baitzuten.

— Aurrera, esan zuen emakumeak; zure txikia hemen dago lotan.

Gelak, eskaratzean, etxeko etzangu bakarra, errezel gabeko ohe zabal bat zeukan hondoan, hormaren kontra, eta oremahaiak hartzen zuen berriz leihoaren aldean, non leiar bat konpondurik baitzegoen paper urdinezko eguzki batez. Txo-

koan, ate atzean, iltze distirantedun bortzegiak harraskaren azpian jasorik zeuden, lepoan luma bat zeraman botila olioze betetako baten aldamean; *Mathieu Laensberg* bat zegoen botata hautsez betetako suburuaren gainean, eskupe-ta-harriren, kandela muturren eta ardagai zatiren artean. Bukatzeko, etxebizitza hartako azken soberakina Ospe bat zen turuta batzuetan puzka, lurrin-prospekturen batetik moztutako irudia eskierki, eta sei hauspoiltzez hormari iltzatu.

Emmaren haurra lotan zegoen lurrean, zumitzezko sehaska batean. Bilduta zegoen estalki eta guzti hartu zuen eta eztiki kantatzen hasi zen kulunkatuz.

Leon harat-honat zebilen gelan; bitxia iruditzen zitzaion dama eder hura nankinezko jantzitan ikustea miseria guzti haren artean. Bovary andrea gorri bilakatu zen; gizona bestaldera jiratu zen, bere begiek agian nolabaiteko mutirikeria izan ote zuten ustetan. Gero Emmak, idunekoaren gainera oka egin berria zuen haurtxoa berriro etzan egin zuen. Inudea berehala etorri zen garbitzera, nabarituko ez zela baieztatuz.

— Sarritan egiten dit horixe bera, eta etengabe garbitu eta garbitu ari naiz! Beraz mesede egingo bazenit eta Camus dendariari agindu, behar dudanean xaboi pixka bat hartzen utz diezadan? eta gainera zuretzat ere erosoago litzateke, ez baitzintuzket molestaturko.

— Ongi da! Ongi da! esan zuen Emmak. Hurrengora arte, Rollet andrea!

Eta irten egin zen, atalazean oinak garbituz.

Emakume gajoak larraineko bururaino lagundu zion, gauez jaikitzea zeinen nekoso zitzaion kontatzen zion bitartean.

— Batzuetan hain nago leher egina non nire aulkian loak hartzen bainau; gutxienez ere ehio-tako kafe libratxo bat behintzat eman beharko zenidake zeren hilabete iraungo lidake eta goizetan hartuko nuke esnearekin.

Haren eskerronak nozitu ondoren, madame Bovary joan egin zen; eta bidetxiorrean jadanik aurreratu xamar zihoala, eskalaproi-hots bat medio burua jiratu zuen: inudea zen.

— Zer da?

Orduan laborarisa, tiraka haltz baten atzera aparte eramanez, bere senarraz hitz egiten hasi

zitzaion, zeinak, bere lanbidearekin eta urtean sei libera kapitainak...

— Buka ezazu azkarrago, esan zion Emmak.

— Ba, begira, ekin zion berriro inudeak hitz bakoitzeko hasperen bat botaz, beldur naiz ez ote duen tristurak joko ni neu bakarrik kafea hartzen ikustean; badakizu, gizonak...

— Izango duzula ba, errepikatzen zuen Emmak, emango dizut!... Aspertu egiten nauzu!

— Horra ba! dama maite gaixoa, izan ere bere zaurien ondorioz, izugarrizko karranpak ditu bularrean. Esan ere egiten du eta sagardopak ahuldu egiten duela.

— Baina esan ezazu behingoz, Roller andrea!

— Beraz, berriz ere inudeak kilimusi bat eginenez, baldin eta gehiegi eskatzea ez balitz..., berriro ere gur egin zuen, — zeuk nahi duzunean, — eta bere begirada erreguka ari zen, — pegartxo bat pattar, esan zuen azkenean, eta haztaz igurtziko nizkioke oinak zure txikiari, mihia bezain beratxak baitauzka.

Inudearengandik libratu, Emmak berriro monsieur Leonen besoa hartu zuen. Denbora batez bizkor ibili zen; gero mantsoago, eta, aitz-



nean pasiatzen zerabilen bere begiradak, gizon gaztearen sorbalda topatu zuen, zeinaren longainak balusa beltzezko lepoa baitzeukan. Bere ile gaztainerak gainera erortzen ziren, zapal eta ongi orrazturik. Haren azkazalak erreparatu zituen, Yonvillen eraman ohi zituztena baino luzeagoak. Urgazlearen zeregin handietariko bat zen haiek zaintzea eta, horretarako, labaina oso berezi bat zeukan bere idazmahaian gordeta.

Ur-ertzari jarraiki itzuli ziren Yonvillera. Urta-ro beroan, ibai-bazter zabalagoak beren oinarrietaraino agerian uzten zituen baratzeetako hormak, zeinak maila banaka batzuetako eskilarak baitzeuzkaten ibairaino. Han azantzik gabe zihonan, laster eta hotz bistarentzako; bertako belar handi meheak batera makurtzen ziren, bultzatzen zituen korrontearen arabera, eta abandonaturiko adats berderen antzo hedatzen ziren beren araztasunean. Aldian behin, ihien puntan edo igebelarren hostoetan, intsektu hanka-finen bat ibiltzen zen edo pausatzen zen. Elkarren jarraian lehertuz zihoazen uhinetako bonboilo txiki urdinak inar batez zeharkatzen zituen eguzkiak; sahats zahar kimatuek uretako islaran

behatzen zuten bere azal grisa; harago, inguru guztian, belazeak hutsik zirudien. Otordu garaia zen landetxeetan, eta emakume gazteak eta bere lagunak ibilian ez zuten besterik entzuten bideko lur gainean beren urratsen kadentzia, elkarri esaten zizkioten hitzak, eta bere inguru osoan firfira zegien Emmaren soinekoaren fereka baino.

Baratzeetako hormak, botila-puskazko beren txapel eta guzti, bero zeuden negutegi bateko leiarrak bezalaxe. Arriluetan zerbak erneta zeuden, eta, bere guardasol irekiaren ertzez, madame Bovaryk, pasatzean, hauts horitan jalgi arazten zuen haien lore zimelduetarik apur bat, edota kanpoaldera zintzilik zegoen ahuntzostoren eta aihenzuriren adarren bat zeta gainean errestatzen zen une batez, litsei atxikiz.

Rouengo antzokian laster espero zuten dantzari-talde espainiar batez ari ziren hitz egiten.

— Joango zara? galdetu zuen emakumeak.

— Ahal badut, erantzun zuen gizonak.

Ez al zeukaten elkarri esateko beste ezer? Beren begiak ordea solas askoz ere seriozago batez beterik zeuden; eta, esaldi arrunten bila

saiatzen ziren bitartean, halakoxe ahuldura bat berbera sentitzen zuten biak menderatzen; ari-maren surmur bat bezala zen, sakona, etengabea, ahotsenari gaina hartzen ziona. Samurtasun berri honetan harridurak ustekabeen harra-paturik, ez zitzairen burutik pasatzen sentipen hori elkarri kontatzerik edo horren arrazoia aurkitzerik. Etorkizuneko zorionek, tropikoetako ur-hegiek bezala, aurretik duten neurtezinekoaren gain proiektatzen dituzte beren sorburu-samurdurak, haizexka lurrintsu bat, eta hordidura horretan lokartzen zara, hautematen ez den ikusmugaz arduratu ere egin gabe.

Lurra, gune batean, hondoraturik aurkitzen zen animalien iragaitea medio. Lohietan tartekaturiko harri handi berdeetan oin hartuz ibili behar izan zuten. Sarritan, emakumea une batez gelditu egiten zen bere oskia non ipini begira, — eta, higitzen zen harriaren gainean zabuka, ukondoak airean, gerria makurturik, begirada kordokan, irri egiten zuen, putzu zuloetara erortzeko beldurrez.

Bere jardinaren aurrera iritsi zirenean, madame Bovaryk ateka bultzatu zuen, mailak lasterka igo eta desagertu zen.

Leon bere bulegora itzuli zen. Ugazaba kanpoan zen; txostenei gainbegirada bat bota zien, gero luma bat pikatu zuen, hartu zuen azkenik bere kapelua eta joan egin zen.

Eta Belaze aldera joan zen, Argueilko aldaparen gainera, basorako sarreran; lurrian etzan zen pinupean, eta bere behatzen artetik zerura begiratu zuen.

— Nola aspertzen naizen! zioen berekiko, nola aspertzen naizen!

Urrikalgarri kausitzen zuen bere burua herri hartan bizi izateagatik, Homais lagun zuela eta Guillaumin jauna nagusi. Azken honek, negozioz zeharo lanpeturik, urrezko uztaidun betaurrekoekin eta papilote gorriak korbata zuriaren gainean, ez zuen ezer ulertzen izpirituaren findadeez, nahiz hasierako garaietan urgazlea liluratu zuten planta buruxut eta ingeles moldekoak egin izan zituen arren. Botikarioaren andreari dago-kionez, Normandiako emazterik hoberena zen, bildots bat bezain goxoa, bere haurren, bere

aitaren, bere amaren, bere ahaideen maitatia, inoren gaitzarendako negartia, etxeko arazoetan oro amore emailea, eta kortseen arbuiatzailea; — baina hain geldoa mugitzeko, hain aspergarria entzuteko, itxura hain arruntekoa eta elkarrizketa hain mugatukoa, non urgazleari inoiz ez baitzitzaion bururatu, nahiz eta hark hogeita hamar urte izan, nahiz eta berak hogeit hamar urte izan, nahiz eta berak hogeit hamar urte izan, nahiz eta elkarren alboko gelatan oheratu, eta hari egunero hitz egiten zion arren, hura inorentzat emakume bat izan zitekeenik, ezta hark bere sexukotik soinekoa besterik eduki zezakeenik.

Eta ondoren, zer zegoen? Binet, merkataritatzuk, bizpahiru tabernari, apaiza, eta azkenik monsieur Tuvache, alkatea, bere bi semeekin, jende diruduna, zakarra, kamutsa, beren lurrak beraiek landuz, familian orritsak eginez, elizakoiak gainera, eta lagunartean zeharo jasanezinak.

Baina, giza aurpegi guzti hauen funts arruntaren gainetik Emmaren betartea nabarmentzen zen isolatua eta halere urrunagoa; zeren haren eta bere artean leize uherrak bezala sentitzen baitzituen.

Hasieran, sarritan etorri izan zen Emmaren etxera botikarioarekin batera. Charlesek ez zirudien oso gogatsu hura bere etxean errezibitzeko; eta Leonek ez zekien nola ekin, indiskretu izateko beldurraren eta ia ezinezkotzat ematen zuen kutuntasun baten nahikundearen artean.

## —IV—

Lehen hotzak hasi orduko, Emmak bere gela utzi egin zuen salan bizitzeko, sabai bajudun gela luzea hau, non, suburuaren gainean, marmukarri trinko bat baitzegoen ispiluaren kontra ipinita. Bere besaulkian eserita, leihoaren ondoran, herriko jendea espaloian barrena iragaiten ikusten zuen.

Leon, egunean bi aldiz, bere bulegotik *Lion d'Or*-era joaten zen; Emmak, urrunetik, etortzen aditzen zuen; makurtu egiten zen entzuten; eta mutil gaztea errezelaren bestaldetik lerratzen zen, beti era berdinean jantzirik eta burua jiratu gabe. Baina, ilunabarrean, kokotsa ezkerreko eskuan, hasitako tapizeria belaunen gainean abandonatua zuenean, sarritan ikara eragiten zion Bat-batean lerratzen zen errainu horren agerpenak. Altxatu egiten zen eta mahaia prestatu zezaten agintzen zuen.

Monsieur Homais afal-garaian heltzen zen. Boneta greziarra eskuan, urrats isilez sartzen zen inor ez kexarazteko eta beti ere esaldi ber-

bera errepikatuz: «Gabon lagunok!». Gero, bere lekuan jarria zenean, mahaiaren kontra, senar-emazte bien erdian, medikuari bere gaixoen berri galdetzen zion, eta honek ordainsariren posibilitateaz kontsultatzen zuen. Ondoren, egunkarian zekarrenaz mintzatzen ziren. Homaisek, ordurako, ia buruz jakiten zuen; eta oso-osorik aditzera ematen zion, kazetariaren gogartek eta Frantzian nahiz atzerrian gertaturiko hondamendi indibidualen historiak eta guzti. Baina, gaia agortzen zenez, ez zitzaion luze joaten ikusten zituen janariez ohartarazpen batzuk botatzeko. Batzuetan, erdi zutiturik, Madameri seinalatu ere egiten zion adeitsuki puskarik samurrena, edo, neskamearengana itzulirik, zenbait aholku ematen zion haragi-saltsak moldatzeko eta gozagarrien higienerako; zoragarri hitz egiten zuen lurrinez, usaigurinez, zukuez eta jelatinaz. Bestalde, burua errezetaz bere botika ontziz baino beteago, Homais biziki trebea zen askotariko gozokiak, ozpinak eta likore goxoak egiten, eta halaber ezagutzen zituen berogailu ekonomikotan aurrerapen berri guztiak, eta gaz-



tak kontserbatzeko eta ardo gaixotuak zaintzeko artea ere bai.

Zortzietan, Justin etortzen zen haren bila botika ixteko. Orduan Homais jaunak begi isekariz so egiten zion, batez ere Felicite bertan aurkitzen bazen, ohartua baitzen bere ikasleak zaleztasuna zuela medikuaren etxerako.

— Nire morroskoa, zioen, zenbait burutazio edukitzen hasia da, eta nik uste, deabruak eraman nazala, zuen neskameaz maitemindurik dabilela!

Baina akats larriago bat, eta aurpegiratzen ziona, beti elkarrizketak entzuten aritzea zen. Igandeetan, esate baterako, ez zegoen modurik irten arazteko salatik, nora Homais andreak deitzen baitzion besaulkietan lokartzen ziren haurrak hartzeko, haien kaliko-azalak, lasaiegiak, bizkarrez teinkatuz.

Ez zen jende asko etortzen botikarioaren tertuli hauetara, bere marmarreriak eta bere iritzi politikoek aldenduak baitzituzten beregandik bata bestearen ondoren askotariko pertsona errespetagarriak. Urgazleak ez zuen han izatetik huts egiten. Txilina entzuten zuen orduko, laster

joaten zen madame Bovaryren aurrerik, haren txala hartzen zuen, eta aparte jasotzen zituen, botikako mahaiaren azpian, elurra zegoenean damak oinetakoen gainetik eraman ohi zituen mendelezko oski-erresta lodiak.

Lehenik hogeita hamaikara jokatzeko partida batzuk; ondoren Homais jaunak «ecarte»ra jokatzeko Emmarekin; Leonek, damaren atzean, bere iritziak ematen zizkion. Zutik eta eskuak haren aulkiaren bizkar gainean, haren mototsa hozkatzen zuten orraziaren hortzak begiratzen zituen. Kartak botatzeko egiten zuen mugimendu bakoitzean, soinekoa eskubiko aldetik igo egiten zen. Bere adats bildutik, kolore beltzarana jaisten zen bere sorbalda gainera, eta, gero eta zurahilago, poliki-poliki itzalean galtzen zen. Bere jantzia, segidan, bi aldeetara erortzen zen aulki gainera, harro-harro, tolesdu-raz beterik, eta lurreraino hedatzen zen. Leonek, aldi berean, bere botaren zorua haren gainean pausatzen sentitzen zuenean, alderatu egiten zen norbait hankapean harrapatu balu bezala.

Kartetako saioa bukatzen zenean, botikarioak eta medikuak dominora jokatzeko zuten, eta

Emmak, lekuz aldatuz, ukondoak mahai gainean tinkatzen zituen *L'illustration* gainetik begiratze-ko. Bere moda-aldizkaria ekarria zuen. Leon alboan jartzen zitzaion; biek elkarrekin begiratzeko zituzten grabatuak eta elkarri itxoiten zioten orri-bukaeran. Sarritan, olerkiak errezita ziezazkion eskatzen zion otoi emakumeak; ahots lerrakorrez deklamatzeko zizkion Leonek, eta artezki hasperenduz maitasunezko pasarteetan. Baina dominoen zaratak gaitzitzen zuen Emma; Homais jauna oso trebea zen joko honetan, eta seiko bikoitzez bete-betean irabazten zion Charlesi. Gero, hiru ehunekoak bukatuak, suaren aurrean luze esertzen ziren biak eta berehala loak hartzen zituen. Sua hautsetan iraungitzen zen, te-ontzia hutsik zegoen; Leon artean irakurtzen ari zen, Emma hari entzuten, ezarian jira araziz lanpararen pantaila, non pintaturik baitzeuden gazoihelean pierrot batzuk kotxe barruan eta soka-dantzarisa batzuk beren zabuekin. Leon gelditu egiten zen, keinu batez bere entzulego lokartua seinalatuz; orduan ahots isilez hitz egiten zioten elkarri, eta are

eziagoa iruditzen zitzairen izaten zuten elkarrizketa beste inork entzuten ez zuelako.

Horrela finkatu zen beren artean halako elkarte molde bat, liburu eta erromantzeren trukaketa etengabe bat; monsieur Bovary, oso jeloskorra ez izaki, ez zen hartaz harritzen.

Bere eguna zela eta buru frenologiko eder bat jaso zuen Charlesek, bular alderaino zenbait erabat josia eta urdin pintatua. Urgazlearen adeitasun bat zen. Beste gehiago ere izaten zituen, Rouendik haren mandatuak egiteraino ere; eta nobelista baten liburuak landare mami-tsuetarako apeta modan jarria zuenez, Leonek Madamentzako erosten zituen, eta bere belau-nen gainean ekartzen, *Hirondelle*-n, haien arantza gogorrez behatzak zulatuz.

Bere leihoaren kontra oholtxo bat ipinarazi zuen baranda gisa bere loreontziei eusteko. Urgazleak ere bazuen bere jardintxo dilingoa; bakoitza bere leihoan loreak zaintzen hautematen zuten elkar.

Herriko leihoen artean bazegoen beste bat are sarriagotan okupatua: zeren, igandeetan goizetik hasi eta gauera arte, eta arratsaldero,

baldin eguraldi argia bazen, ganbara bateko argizuloan ikusten baitzen monsieur Bineten perfil argala bere tornuaren gainean makurturik, zeinaren karranka monotonoa *Lion d'or*-etik ere aditzen baitzen.

Arrats batez, etxeratzean, Leonek bere gelan balusa eta artilezko tapiz bat aurkitu zuen, hondo zuri baten gainean hostoekin. Madame Homaisri deitu zion, eta monsieur Homaisri, Justini, haurrei, sukaldariari; bere ugazabari ere hartaz mintzatu zitzaion; mundu guztiak ezagutu nahi izan zuen tapiz hura; zergatik zituen medikuaren emazteak urgazlearekiko halako eskuzabaltasunak? Gauza bitxia iruditu zitzaien, eta azken finean pentsatu zuten, haren lagun kuttuna izan behar zuela.

Leonek hala ematen zuen sinestera, izan ere etengabe ari baitzitzaizun haren xarmaz eta haren gogamenaz mintzatzen, hainbeste non Binetek halako batean biziki zakar erantzun baitzion:

— Eta zer axola zait ba niri, haren lagunartekoa ez naiz-ta!

Bere burua torturatzen zuen, hari *bere deklarazioa* egiteko moduaren bila; eta, hark atsegin ez izateko beldurraren eta bera hain koldar izateaz lotsaren artean beti ere zalantzan, negar egiten zuen etsipenez eta desiraz. Gero delibero kaliputsuak hartzen zituen; gutunak idazten zituen eta urratu egiten zituen, gero gibelatzen zituen geroko-geroka luzamendutan ibiltzen zen. Maiz abiatzen zen orotara ausartzeko asmoz; baina deliberamendu honek laster abandonatzen zuen Emmaren begibistan, eta Charlesek, etorri eta bere «*boc*»-era igotzera gonbidatzen zuenean, inguruetan gaixo batzuk ikustera elkarrekin joateko, berak berehala onartzen zuen, Madame agurtzen zuen eta joaten zen. Senarra, ez al zen ba haren gauza bat?

Emmari dagokionez, ez zion bere buruari galdetu ere hura maite ote zuen jakiteko. Maitasunak, berak hala uste, Bat-batean heldu behar zuen, distira eta leinuru handirekin, — zeruetako aldagoia, bizitzaren gainera erortzen dena, iharrostean duena, borondateak hostoak bailiren erauzten dituen eta bihotz osoa leizera darimana. Berak ez zekien, etxeetako terraza gaine-

tan, euriak lakuak egiten dituela zorrotenak itsu daudenean, eta hala iraungo zukeen bere segurantz, eta baina hartan, horman arraildura bat aurkitu zuen supituan.

Otsaileko igande batez izan zen, elurra ari zuen arratsalde batean.

Guztiak joanak ziren, Monsieur eta Madame Bovary, Homais eta Monsieur Leon, Yonvilletik legoa erdi batera, haranean barrena, jartzen ari ziren lino-irundegi bat ikustera. Botikarioak berekin eraman zituen Napoleon eta Athalie, ibilazter behartzearen, eta Justinek laguntzen zien aterkiak bizkarrean eramanez.

Halere ez zegoen ezer horratio hain ikusgarri-  
ezagorik ikuskari hura baino. Lurralde zabal huts  
batek, non aurkitzen baitziren nahas-mahas,  
hondar eta harri piloren artean, engranaia-gurpil  
batzuk jadanik herdoildurik, leiho txiki ugariz  
zulaturiko eraikin koadrangular luze bat ingura-  
tzen zuen. Eraikitzen bukatu gabea zegoen eta  
teilatuko kapiroien artetik zerua ikusten zen.  
Gailurraren ostikoari loturik, galburuz tartekatu-  
riko lasto-xorta batek haizetan klaska arazten  
zituen hiru-koloretako bere xingolak.



Homais mintzatzen ari zen. *Lagunarteari* azaltzen zion eraikuntza honen etorkizuneko garrantzia, begira jotzen zituen zoruen indarra, hormen lodiera, eta biziki deitoratzen zuen maki-la metriko bat ez edukitzea, monsieur Binetek bere erabilpen partikularrerako zeukana bezalako.

Emma, hari besoa emanik, pixka bat haren sorbaldan sostengatzen zen, eta eguzkiaren diskoari begiratzen zion urrunean irradiatzen, gandu artean, bere larutasun liluragarria; baina burua jiratu zuen: Charles han zegoen. Bere txanoa bekainetaraino sarturik zeukan, eta bere bi ezpain lodiek dardara egiten zuten, horrek bere aurpegiari nolabaiteko tentelkeria eransten ziolarik; bere bizkarra ere, bizkar patxaratsu hura, amorragarria zen ikusteko, eta emakumeak han hautematen zuen lebita gainean hedaturik pertsonaiaren ergeltasun osoa.

Senarrari so zegoen bitartean, horrela bere amorruan boluptuositate gaizto molde bat dastatuz, Leon pauso bat aurreratu zen. Zuhaitzen zuen hotzak haren aurpegian ahidura eztiagoa pausatzen zuela zirudien; bere korbataren eta

idunaren artean, bere alkandoraren lepoak, lasa xamar, larrazala agerian uzten zuen; belarriaren mutur bat ilexerlo baten azpitik irteten zen, eta bere begi urdin handia, hodeietarantz altxatua, zerua isladatzen den mendi arteko laku horiek baino gardenagoa eta ederragoa iruditu zitzaion Emmari.

— Zorigaitzekoa! egin zuen Bat-batean botikarioak garrasi.

Eta korrika joan zen bere semearengana, zeina kare pila batean orduantxe sartua baitzen bere oinetakoak zuriz pintatzearren. Zapatzen zuten erriten aurrez aurre, Napoleonek marruka ekin zion, Justinek lastazogi batez oinetakoak garbitzen zizkion bitartean. Baina labaina bat beharko zukeen; Charlesek berea eskaini zuen.

— Ah! emazteak berekiko, labaina bat eramaten du patrikan, laborari baten antzo!

Izotza ari zuen, eta Yonvillerantz itzuli ziren.

Madame Bovary, arratsean, ez zen joan auzo-koen etxera, eta, Charles abiatu ondoren, baka-rik sentitu zenean, paraleloa berriro hasi zen ia une bertako sentipen baten gardentasunaz eta oroimenak objektuei ematen dien urruntasunez-

ko ikusmira horrekin. Bere ohetik garretan zegoen su argiari begira, artean ere ikusten zuen, han bezalaxe, Leon zutik, esku batez bere esku-makila malgu-araziz eta beste eskutik Athalie zuela, lasai-lasai koil puska bat xurgatzen. Xarmangarria kausitzen zuen; ezin zuen bere burua hartatik apartatu; beste egun batzuetako haren beste jarrera batzuez oroitu zen, hark esandako esaldiez, haren ahotsaren doinuaz, pertsona osoaz; eta errepikatzen zuen, ezpainak musu baterako bezala aurreratuz:

— Bai, xarmangarria! xarmangarria!... Ez ote du norbait maite? galdetu zuen berekiko. Nor ordea?... baina neu!

Froga guztiak batera azaldu ziren, bere bihotzak jauzi egin zion. Subajuko garrak erlantz alaia dardara-arazten zuen sabaian; bizkar gainera jiratu zen besoak luzatuz.

Orduan hasi zen betiko auhendura: «Oh! baldin zeruak hala nahi izan balu! Eta zergatik ez da hala izan? Nork eragotziko luke beraz?...».

Charles, gauerdian, etxeratu zenean, esnatze itxura egin zuen Emmak, eta, hark erantzten zarata atera zuenez, burukominaz arrenkuratu

zen; gero inpentsan bezala galdetu zuen ea zer pasatu zen tertulian.

— Monsieur Leon, esan zuen senarrak, goiz erretiratu da. Emmak ezin izan zuen irribarrea gorde, eta loak hartu zuen, lilura berri batez beterik arima.

Biharamunean, ilunabarrean, sieur Lheureux moda-saltzailearen bisita izan zuen. Gizon pijoa zen gure merkataria.

Jaiotzez gaskoina, baina normandiar bilakaturua, bere hegoaldetarraren hizjariora cauxtarren zuhurtziaz bikoizten zuen. Bere aurpegi gizen, belaxka eta bizargabeak regaliz argiren egoskinez tindaturia zirudien, eta bere ile zuriak are biziagoa bihurtzen zuen bere begi beltz txiki-kien dizdizera zorrotza. Inork ez zekien lehenago zer izana zen: bizkarkari zioten batzuk, Routoten bankari, beste zenbaitek zioenez. Ziur dena da, egiten zituela alegia, buruz, Binet bera ere izutzeko moduko kalkulu korapilotsuak. Gizabide-tsua adeikortasuneraino, gerria erdi makurturik egoten zen beti, agurtzen edo gonbidatzen ari den norbaiten jarreran.

Krespoi batez apainduriko bere kapela atean laga ondoren, kartoizko kaxa berde bat ipini zuen mahaiaren gainean eta Madameri arrenkurratzen hasi zitzaion, biziki gizabidetsu, egun hartara arte bere konfidantza lortu gabe geratu izanagatik. Berea bezalako denda kaxkarra ez zegoen egina pertsona *dotore* bat erakartzeko; hitza bapikaz esan zuen. Baina ez zeukan ordea eskatu besterik, eta bera arduratuko zen nahi zukeen oroz hornitzen, nahiz mertzeri nahiz arropa zuri, boneteria edo modakotan; zeren erregularki hilean lau aldiz joaten baitzen hirira. Etxerik nagusienekin harremanean zegoen. Berari buruz hitz egin zitekeen *Trois Frères*, *Barbe d'or* edo *Grand Sauvage*-en; jaun horiek guztiek beren patrikak bezalaxe ezagutzen zuten! Gaur, beraz, aukera bitxienetariko bati esker eskuartean edukitzea kausitu zitzaion zenbait jenero, Madameri bidenabar erakustera zetorren. Eta kaxatik dozena erdi bat lepo brodatu atera zituen.

Madame Bovaryk aztertu zituen.

— Ez dut ezeren beharrik, esan zuen.

Orduan Lheureux jaunak emekiro azaldu zituen hiru exarpe algeriar, orratz ingelesez pake-

te zenbait, lastozko txinela pare bat eta, azkenik, kokozko lau arraultzontzi presidiariek trintxaz zizelatuak. Gero, bi eskuak mahai gainean, lepoa teinkaturik, gerria makurturik, jarraikitzen zitzaion, ahozabalik, merkantzi hauen artean erabaki ezinik harat-honat zebilen Emmaren begiradari. Aldian-aldian, hautsa astintzeko bezala, beren luzera osoan zabalduriko exarpeen zeta gainean azkazal-kolpe bat ematen zuen; hauek zirgit egiten zuten azantzaxka batekin, beren ehuneko urre-printzei pindarrak eraginez, izar txikiak bailiren, arrastiriko argi berdaskatan.

— Zenbat kostatzen dira?

— Huskeri bat, erantzun zuen, huskeri bat; baina ez dago presarik; zeuk nahi duzunean; gu ez gara judutarrak!

Emmak hausnartu zuen unetxo batzuez, eta Lheureux jaunari berriro ere eskerrak emanez bukatu zuen, honek artegatu gabe erantzun zuelarik:

— Ederki! beste batean konponduko gara; ni damekin beti moldatu izan naiz, nirearekin izan ezik behintzat! Emmak irribarre egin zuen.

— Zuri esateagatik zen, berriro gizonak aire jatorrez bere ateraldiaren ondoren, alegia dirua ez dela ni kezkatzen nauena... Neuk emango nizuke, behar izanez gero.

Emmak harridura-keinu bat egin zuen.

— Ah! esan zuen gizonak bizkorki eta aho-pean, ez dut urruti joan beharrik izango zuretzat aurkitzeko; seguru izan!

Eta Tellier zaharraren, alegia *Café Français*-ko nagusiaren berri galdezka hasi zen, garai hartan Monsieur Bovaryk zaintzen baitzuen.

— Zer ote du ba, gure Tellier zaharrak?... Eztul egitean etxe osoa astintzen du, eta beldur naiz ez ote duen, oso laster, franelazko atorra ez hain pinuzko maripulisa behar izango! Gazte denboran hainbeste barbuileri egina da izan ere! Jende horiek, madame, ez zeukaten inolako ganorarik! Pattarrez kiskalita geratu zen! Baina, dena den, tamalgarria da ezagun bat joaten ikustea.

Eta, kartoizko kaxa ixten zuen bitartean, horrela ari zen medikuaren bezeriari buruz.

— Eguraldia da, dudarik gabe, zioen leiarrei bekoz kodun begiratzuz, gaitzaldi hauen eragilea!

Neu ere, ez naiz nire onean sentitzen; egun hauetariko batean etorri beharrean izango naiz «Monsieur»ri kontsultatzera, bizkarrean dudan oinaze batengatik. Ea ba, beste bat arte, Bovary andrea; zure peskizan geratzen natzaizu, zerbitzari txit umil hau!

Eta atea itxi zuen emekiro.

Emmak bere afaria gelan zerbitza arazi zuen, supazterrean, bandeja batean; luze egin zuen jaten; ona iruditu zitzaion dena.

— Bai zuhurra izan naizela! zioen bere baitan exarpeak gogoratzuz.

Eskilaretan pauso-hotsa entzun zuen: Leon zen, Zutitu zen eta, komoda gainetik, azpiltzeko zapien artetik, pilako lehenengoa hartu zuen. Mutila azaldu zenean zeharo lanpetua zirudien.

Elkarrizketa ahula izan zen, madame Bovaryk minutuero abandonatzen zuen, bitartean gizona bera ere oso urduri modutsu geratzen zela. Aulki txiki batean eserita, tximiniaren ondoan, bere behatzen artean bolizko estutxea jira arazten zuen; emakumeak jostorrazari eragiten zion, edo, aldian behin, bere azkazalaz oihalaren azpildurak tolesten zituen. Emmak ez zuen hitz



egiten; mutila isilik, haren isiltasunak liluraturik, haren hitzek liluratuko zuketen bezalaxe.

— Mutil gizajoa! pentsatzen zuen Emmak.

— Zertan gogaikatzan ote dut? galdetzen zion mutilak bere buruari.

Leonek halere, azkenerako esan zuen, egun haietako batean Rouena joan beharrean zegoe-la, bere lantokiko arazo batengatik.

— Musikako zure abonamendua bukatu da, berritu egin behar al dut?

— Ez, erantzun zuen emakumeak.

— Zergatik?

— Zeren...

Eta, ezpainak estutuz, hari grisezko albainu luze bat teinkatu zuen astiro.

Lanbide horrek enkoniatu egiten zuen Leon. Emmaren behatzek puntatik larrutzear ziruditen; esaldi lausengakor bat bururatu zitzaion, baina ez zen esatera arriskatu.

— Beraz utzi egin behar al duzu? berriro mutilak.

— Zer? esan zuen biziro: musika? Ah! bai horixe! Ez al daukat nire etxea begiratu beharra, nire senarra zaindu beharra, eta beste mila

gauza, hori hain lehenagoko beste hamaikatxo eginkizun!

Hormako erlojura begiratu zuen. Charles berandu zebilen. Orduan Emmak kezkatuarena egin zuen. Bi edo hiru aldiz errepikatu zuen:

— Hain ona da!

Urgazleak txera zion Bovary jaunari. Baina harekiko maitasarre honek era gozagaitzean txunditu zuen; halere ordea haren laudorioa egiten segitu zuen Leonek, eta bestalde, edonori egiten entzuten ziona, zioen berak, eta batez ere botikarioari.

— Ah! Gizon zintzoa da, berriro Emmak.

— Halaxe da, urgazleak.

Eta mutila madame Homais-ri buruz hitz egiten hasi zen, haren pildaire oso zabarrak barrea eragin ohi baitzien gehienetan.

— Eta zer axola du horrek? moztu zuen Emmak. Familiako ama on bat ez da kezkatzen bere apainduriaz.

Eta berriro bere isiltasunera lerratu zen.

Horixe bera izan zen hurrengo egunetan; bere hizkerak, bere jarduerak, dena aldatu zen. Etxeko lanak gogoz hartzen zituela ikusi zen, eli-

zara itzuli zela erregulariki eta bere neskamea gogorrago hartzen zuela.

Berthe inudearengandik atera zuen. Felicitek eramaten zuen bisitariak etortzen zirenean, eta madame Bovaryk erantzi egiten zuen haren lohadarrak erakusteko. Haurrak adoratzen zituela aldarrikatzen zuen; hura zen bere kontsolamendua, bere bozkarioa, bere eromena, eta bere balakuak expantsio liriko laguntzen zituen, zeinek, Yonvilletarrez besteri, *Notre-Dame de Parisko* Sachette gogoraraziko baitzieketen.

Charles etxeratzen zenean, bere oskierrestak errautsen ondoan aurkitzen zituen berotzen. Orain bere gerrontzeak ez ziren forradura faltan izaten, ezta alkandorak ere botoi faltan, eta eskierki atsegina zen hautematea arasan artilezko txano guztiak pila berdinetan jasorik. Jada ez zen ernegatzen, garai batean bezala, jardinean joan-etorrian ibiltzeagatik; senarrak proposatzen zuena beti onartzen zen, nahiz eta emakumeak ez sumatu zein borondateri menperatzen zitzaion txintik ere gabe; — eta Leonek supazterean ikusten zuenean, afalondoan, bi eskuak sabel gainean, bi oinak suburdinen gainean,

masaila liseriketarengatik gorritua, begiak atse-  
ginez bustirik, tapizaren gainean errestan zebi-  
len haurrarekin, eta, besalkiaren bizkarraren gai-  
netik, bekokian musu ematera zetorkion emaku-  
me gerri-segail hura:

— Hau eromena! zioen berekiko, eta berega-  
naino nola heldu?

Beraz hain bertutetsua eta hurbilgaitza irudi-  
tu zitzaion, non esperantza orok, baita ahulenak  
ere, abandonatu baitzuen.

Baina, ukamendu hau medio, aparteko kondi-  
ziotan jartzen zuen dama. Emma, mutilarentzat,  
haragizko kualitateez gabetu egin zen, hauetarik  
ez bide baitzuen ezer lortu; eta, haren biho-  
tzean, gora eta gora joan zen hegaztatzen den  
apoteosi baten era bikainean gailentzen. Senti-  
mendu garbia zen, bizitzaren jarduketa eragoz-  
ten ez duten horietakoa, bitxiak direlako lantzen  
diren horietakoa, eta zeinaren galerak, edukitza  
atsegin den baino are gehiago dolutuko baitzu-  
keen.

Emma argaldu egin zen, bere masailak zur-  
bildu, bere aurpegia luzatu. Bere adats beltz,  
bere begi handi, bere sudur zuzen, bere txori-

ibilkerarekin, eta beti isilik orain, ez al zirudien ba bere bizialdia doi-doi ukituz iragaiten ari zela, eta bere bekokian gorengo predestinazio baten aztarrena zeramala? Hain triste eta hain nare zegoen, aldi berean hain ezti eta hain eleurri, non bere alboan xarma izoztu batek harrapaturik sentitzen baitzinen, elizetan marmolen hotzarekin nahasturiko lore-usainaren pean zirraratzen den bezala. Besteak ere ez ziren libratzen liluramendu honetatik. Botikarioak esaten zuen:

— Baliabide handitako emakumea da eta suprefektura batean ez litzateke lekuz kanpo kausituko.

Burgesek haren ekonomia miresten zuten, bezeroek haren adeitasuna, pobreek haren kari-tatea.

Baina bera grinaz betea zegoen, amorruez, gorrotoz. Tolesdura zuzendun soineko hark bihotz aztoratua ezkututzen zuen, eta bere ezpain hain ahalketsuek ez zuten kontaktzen bertako ekaitza. Leonez maitemindurik zegoen, eta bakardadea bilatzen zuen, haren irudipenean aisekiago atsegin hartu ahal izatearren. Haren pertsona ikusteak asaldatu egiten zuen gogoeta

honen gurikeria. Emmak pilpira egiten zuen haren oin-hotsetara: gero, haren aitzinean, pirpirara erori egiten zen, eta ondoren ez zitzaion gertzen tristuratan bukatzen zen harridura eskerga bat besterik.

Leonek ez zekien, haren etxetik etsipenak jota irteten zenean, dama bere ondoren altxatzen zela, kalean ikustearren. Haren joan-etorriez kezkatzen zen; haren aurpegia zelatatzen zuen; istorio bat osoa asmatu zuen haren gela bisitatzeko aitzakia bat aurkitzearren. Botikarioaren emaztea zori onekoa iruditzen zitzaion teilatupe berean lo egiteagatik; eta bere pentsamenduak etengabe etxe hartara habailatzen ziren, beren hanka arroxak eta beren hego txuriak hantxe, zorrotenetan, bustitzera zetozen *Lion d'or*-eko usoak bezala. Baina Emma bere maitasunaz zenbat eta gehiago ohartu, are gehiago erreprimitzen zuen, nabari ez zedin, eta txikiagotzearren. Leonek hori sumatzea nahi izango zukeen; eta hori erraztuko zuketena halabeharrak eta hondamendiak imajinatzen zituen. Eusten ziona, dudarik gabe, nagikeria zen edo izularria, eta ahalkea ere bai. Pentsatzen zuen,

urrunegi hastandu zuela, jada beranduegi zela, dena galdua zela. Gero, berekiko «Ni bertutetsua naiz» esatearen harrotasunak eta ispiluan bere buruari etsipen-jarrerak hartuz begiratzearen pozak, apur bat kontsolatzen zuen berak egin uste zuen sakrifiziotik.

Orduan, haragiaren gogoak, diruaren guti-ziak eta irritsaren malenkoniak, oro nahastatzen zen sufrikario bat beratan; — eta bere pentsamendua hartatik apartatu ordez, are gehiago atxikitzen zitzaion hari, oinaze hartan kitzikatuz eta edonon horretarako abagune bila. Gaizki zerbitzaturiko plater batengatik edo erdi irekitako atezirritu batengatik ernegatu egiten zen, arrenkuratu egiten zen ez zeukan balusaz, falta zitzaion atseginaz, bere amets gorenegiez, bere etxe estuegiaz.

Sumintzen zuena zen, Charlesek ez zuela bere sufrikarioaren susmo-itxurarik ere. Bera zoriontsu egiteaz hark zeukan uste osoa, laido mentsa iruditzen zitzaion, eta horri buruzko haren segurantzia, eskergaiztoa. Norengatik zen ba bera zuhur? Ez al zen ba, hura bera, zorion orotarako oztopoa, zorigaitz ororen sorburua,

eta alde guztietatik hertsatzen zuen ugel korapilatsu baten errebolet-ziri zorrotza bezala?

Beraz, haren bera-bakarraren gain irauli zuen bere atsekabeetatik sortzen zen gorroto oparoa, eta murrizteko ahalegin bakoitzak ez zuen balio izaten ugaltzeko baino; zeren alferrikako neke hau beste etsipen-arrazoiei gaineratzen baitzitzaien eta are gehiago bultzatzen zuen elkarren arteko aldentze hau. Bere eztitasunak berak, asaldazioak eragiten zizkion. Bere etxeko kaxkarkeriak luxuzko fantasiatara bultzatzen zuen, ezkon-laztantasunak nahikunde adulterotara. Charlesek jo zezan nahi izango zukeen, justukia-go arbuia ahal izateko, mendeku hartu ahal izateko. Batzuetan harritu egiten zen pentsamendura heltzen zitzaizkion aieru ankerrez; eta segitu beharra al zegoen irribarre egiten, bere baitako errepikan zoriontsu zela entzuten, hala izatearen itxura egiten, senarrari hala sinesten uzten?

Baina, hipokresia honen higuinaldiak bazituen horratio. Tentazioak ere edukitzen zituen Leonekin ihes egiteko, norabait, oso urruti, etorkizun berri batean saiatzera; baina berehala ire-



kitzen zen bere ariman leize lainotsu bat, ilunpez bete.

— Gainera, jadanik ez nau maite, pentsatzen zuen; zer etorkizun? zer laguntza espero, zein kontsolamendu, zein arindura?

Xehaturik geratzen zen, hatsanka, geldo, isilean zotinka eta malkoak zerizkiola.

Zergatik ez diozu esaten nagusiari? galdeztzen zion neskameak krisialdi hauetakoa sartzzen zenean.

— Nerbioak dira, erantzuten zuen Emmak; ez iezaiozu ezer esan, nahigabetu egingo zenuke.

— Ah! bai, berriro Felicitek, zu ere Guerine bezalakoxea zara, Guerin zaharraren alaba, zuenera etorri aurrez Dieppen ezagutu nuen Polletko arrantzariarena. Hain triste, hain triste egoten zen, non, bere etxeko atarian zutik ikusita, ate aurrean zabalduriko hileta-oihal baten zarrasta eragiten baitzizun. Haren gaitza, dirudienez, buruan zeukan halakoxe laino baten antzeko zerbait zen, eta medikuek ezin zuten ezer, ezta apaizak ere. Horrek bortitzegi jotzen zuenean, itsas ertzera joaten zen bera bakarrik, eta eskierki aduanako tenienteak, bere jira egiterakoan,

sarritan aurkitzen omen zuen ahozpez etzanik eta negarrez harrikarian. Gero, ezkondu ondoren, pasatu egin zaio, diotenez.

— Baina, niri, ihardesten zuen Emmak, hain zuzen ezkondu ondoren jazo zait hau.

Leioha irekita zegoen arratsalde batez, eta, haren ondoan eserita, Lestiboudois sakristauari ezpela mozten hegira egon berria zela, Bat-batean *Anjelusa* jotzen entzun zuen.

Apirilaren hasieran zen, primaderako liliak loratzen direnean; lorearlo jorratuen gainean haize epela iraulkatzen da, eta jardinek, emakumeak bezala, udako jaietarako apaintzen ari direla dirudite. Pendizaren barroteetatik eta haragoko inguru guztian, ibaia ikusten zen belazean, bihurgune alderraiak marrazten zituela belarretan. Arratsaldeko behelainoa historik gabeko zumatzurien artean pasatzen zen, haien adar artean geldituriko gasa mehe bat baino beluri eta gardenagoko tindura more batez haien hegiak nabartuz. Urrunean, abereak zebiltzan; ez zen entzuten haien urratsik, ez haien marrurik; eta kanpaiak, artean joka, bere auhendu baketsuan segitzen zuen aireetan barrena.

Tilint errepikari honetan, emakume gaztearen pentsamendua gaztaroko eta pentsioko bere

oroitzapen zaharretara herratzen zen. Aldare gainean lorez betetako ontziak gainditzen zituzten argimutil handiez oroitu zen, eta tabernakulu pilarexadunaz. Nahi izango zukeen, garai hartan bezala, beren elizaulkietan makurturiko monjatxoen txano zurrunek han-hemenka beltzez markatzen zuten belo zuriren zerrenda luzean nahasirik kausitzea, oraindik ere; igandean, mezatan, burua altxatzen zuenean, Amabirjinaren aurpegi ezitia hautematen zuen, gorantz zihoan intsentsuaren zurrunbilo urdinken artean. Orduan samurdura batek atxiki zuen: beratz sentitu zen eta zeharo abandonaturik, aldagoian biraka dabilen txori-luma baten gisa; eta ari zenaren kontzientziarik ere gabe abiatu zen elizarantz, edozein debozionetarako prest, nolana ere hartan bere arima murgiltzekotan eta bere existentzia osoa hartan desageritzekotan.

Plazan, Lestiboudois topatu zuen, elizatik zetorrela; zeren, eguna ez moztearren, nahiago izaten baitzuen lana eten, eta gero berriro ekin, horrela *Anjelusa* bere erosotasunaren arabera

jotzen zuelarik. Bestalde, txilinak, lehenago joz, dotrinarako orduaz ohartarazten zituen umeak.

Dagoeneko batzuk, iritsiak baitziren, kanposantuko harlosen gainean puxtarritarra jolasean zebiltzan. Beste batzuk, horma gainean zankaletran, beren hankei eragiten zien, itxitura txikiaren eta azkeneko hilobien artean hazten ziren asun handiak beren eskalaproinez moztuz. Berde zegoen leku bakarra zen; gainerako guztia harriak besterik ez zen, eta, sakristiako erratza gorabehera, hauts fin batez estalia beti.

Haurrak espartinetan han ibiltzen ziren korrika beraientzat eginiko solairu batean bezala, eta beren ahotsen garrasiak entzuten ziren ezkilaren durunda artean. Han lermatu egiten zen soka lodiaren oszilazioen heinean, zeina, ezkildorreen goietatik eroriz, puntaz lurrean narratzen baitzen. Enarak txilio txikiak botaz pasatzen ziren, beren hegadaren sorbatzez airea ebakitzuten zuten, eta fite sartzen ziren beren habia horietara erlaitzeko teilapeetan. Elizaren zokoan kriseilu bat zegoen garretan, alegia argi-metxa bat ontzi dilingo batean. Haren argiak, urrunetik, narrio zurizka bat zirudien olio gainean dardaraz.

Eguzki izpi batek zeharkatzen zuen elizbarne osoa eta are ilunago bihurtzen zituen behe-aldamenak eta zokoak.

— Non da apaiza, galdetu zion madame Bovaryk, bere zulo lasaiegian ardatza astintzen jolasean ari zen mutiko bati.

— Laster dator, erantzun zuen.

Eta bai, presbiterioko atea kirrinka egin zuen, Bournisien abadea agertu zen; umeek, nahas-mahas, eliza barrura ihes egin zuten.

— Ume mukizu hauek! esan zuen marmarka elizgizonak, beti berberak!

Eta, oztopatu berri zuen dotrina-liburu piltzartu bat jasoz:

— Ez dute deus errespetatzen!

Baina, madame Bovary hauteman zuen orduko:

— Barka iezadazu, esan zuen, ez zintudan ikusten.

Dotrina-liburua patrikan sartu zuen eta gelditu egin zen, sakristiako giltza astuna bere bi behatzen artean dilindatzen segituz.

Bere aurpegia bete-betean jotzen zuen arratsaldeko eguzkiaren zohardurak larutu egiten

zuen sotanaren landarra, ukondoetan distiratsua, azpieran listua. Bere bularrondo zabalaren gainean koipe eta tabako narrioek botoi txikien zerrendari jarraitzen zioten, eta are ugariago bilakatzen ziren anokitik urruntzearen heinean, non pausaten baitziren bere larrazal gorriaren zimur oparoak; larrazala ziprztindurik zegoen izpil horiz, zeinak desagertu egiten baitziren bere bizar urdinkatzearen bilo zekenetan. Afaldu berria zen eta furrundaka hartzen zuen arnasa.

— Zer moduz zaude? erantsi zuen.

— Gaizki, erantzun zuen Emmak; penaturik nago.

— Horra ba! ni ere bai, zioen elizgizonak. Izan ere lehen bero hauek, harrigarriro ahultzen zaituzte, ez al da hala? Eta, zer nahi duzu ba! penatzeko jaio ginen, san Paulok zioen bezala. Eta baina, Bovary jaunak zer deritza?

— Hark! esan zuen emakumeak mesprezuekin batez.

— Zer! errepikatu zuen gizarajoak zeharo harriturik, ez al dizu ezer errezetatzen?

— Ah! zioen Emmak, ez dira lur honetako erremedioak nik behar izango nituzkeenak.

Baina apaizak, aldian-aldian, eliza barrura begiratzen zuen, non ume guztiak belaunikaturik sorbaldaz elkarri bultzaka ari baitziren, eta kartaxut zerrendak bezala erortzen ziren.

— Nik jakin nahi nuke..., hasi zen Emma.

— Itxointzak, itxointzak, Riboudet, egin zuen deiadar ahots haserrez elizgizonak, laster nauk hor hire belarri horiek berotzera, bihurri halakoa!

Gero Emmarenganantz itzulirik:

— Boudet obraginaren semea da; bere gurasoek aisako bizimodua dute eta bere gurari guztiak egiten uzten diote. Baina laster ikasiko luke horratio, nahi izango balu, zeren oso azkarra baita. Eta nik, batzuetan, txantxetan, Riboudet deitzen diet (Marommerra joateko hartzen den aldapa bezala), eta esan ere bai: mon Riboudet. Ah! ah! Mont-Riboudet! Lehengo batean Monsignoreari kontatu nion hitz-joko hau, eta barre egin zuen... barre egitera dinatu zen. — Eta Bovary jauna, zer moduz?

Emmak bazirudien ez zuela entzuten. Apaizak jarraitu zuen:



— Beti ere oso lanpeturik, ez da? Zeren eskierki gu baikara parrokia honetan, bera eta ni, zereginik gehiena dugun bi pertsonak. Baina bera, gorputzen sendagilea da, erantsi zuen barre lodi batekin, eta ni berriz arimena!

Apaizarengan finkatu zituen begi otoikorrak:

— Bai..., esan zuen, zuk miseria guztiak arinagotzen dituzu.

— Ah! ez iezadazu esan, madame Bovary! Gaur goizean bertan Bas-Diauvillera joan beharrean gertatu naiz, *hantura* zeukan behi baten-gatik; sorginkeria bat zela uste zuten. Haien behi guztiek, nik ez dakit nolatan... Baina, barkatu! Longuemarre eta Boudet! segi halere! ez al duzue sekulan amaitu behar!

Eta, jauzi batean, eliza barrura oldartu zen.

Umeak pupitre handiaren inguruan zebiltzan elkarri bultzaka, txantrearen aulki gainera igo-tzen ziren, misala irekitzen zuten; eta beste batzuk, otso-ibilkeran, laster konfesionario barrura ere ausartzear zebiltzan. Baina apaizak, itsumustuan, zaplaztako-zaparrada banatu zuen guztien artean. Txamarretaren lepotik hartuz, lurretik altxatzen zituen eta belauniko ipintzen

zitzen koruko harrolen gainean, bortizki, bertan landatu nahi izan balitu bezala.

— Bai, esan zuen Emmaren ondora itzuli zenean, eta indianazko musuzapi zabala hedatuz, haren ertz bat hortzetan ipintzen zuelarik, nekazariak benetan urrikalgarriak dira!

— Baita beste batzuk ere, erantzun zuen Emmak.

— Bai horixe! hirietako langileak, esate baterako.

— Ez dira horiek...

— Barkatu, aizu! ezagutu izan ditut nik han ama etxekoandre gaixoak, emakume bertute-tsua, halaxe diotsut, benetako santak, eta ogia ere falta zitzaiela.

— Baina beste haiek, hasi zen Emma (eta ezpain-hegia okertu egiten zitzaion mintzaztean), beste haiek, jauna, ogia badutenak, baina ordea...

— Neguan surik ez dutenak, esan zuen apai-zak.

— Eh! zer axola?

— Nola! zer axola? Nik uste dut, nik behintzat, ba epel-epel izanez gero, ongi janda..., zeren, dena den...

— Ene Jainkoa! Ene Jainkoa! hasperenka Emmak.

— Ondoezik aurkitzen al zara? zioen apaizak, kezkatu antzean hurbilduz; digestioa da, inolaz ere. Etxera itzuli behar duzu, Bovary andrea, te hurrupada bat edatera; horrek bizkortuko zaitu, edota baso bat ur freskoa azukrearekin.

— Zergatik?

Eta amets batetik esnatzen denaren itxura zeukan.

— Eskua bekokian pasatzen ari zinen eta. Zorabioak jo zintuela uste nuen.

Gero, harira itzulirik:

— Baina, zerbait galdetzen ari zinen, ez? Zer zen? Jadanik ahaztu zait.

— Nik? Ezer ez..., ezer ez..., errepikatzen zuen Emmak.

Eta, ingurura so zerabilen begirada, geldiro jaitsi zen agure sotanadunaren gainera. Elkarri begira zeuden biak, aurrez aurre, mintzatu gabe.

— Orduan, Bovary andrea, esan zuen azkene-rako apaizak, desenkusa nazazu, baina ezer baino lehen betebeharrak, badakizu; nire bihurri hauekikoa burutu behar dut. Lehen jaunartzeak ere laster dira-ta. Beldur naiz ez ote gaituen beste behin ere ezustean harrapatuko! Beraz, Salvatore egunetik aurrera, *recta* edukitzen ditut asteazkenero ordubete gehiago. Haur gaixoak! inoiz ez litzateke garaizegi hauek Jaunaren bidean sartzeko, gainera, bestalde, bere Seme Jainkoaren ahoz berberak gomendatu digun bezala... Ongi izan, madame; eskumuinak zure senar jaunari.

Eta elizan sartu zen, atetik bertatik belaun eginez.

Eserleku zerrenda bikoitzaren artetik desgertzen ikusi zuen Emmak, ibilkera astunez, burua sorbalda gainera apur bat makurturik, bere bi eskuak kanpoan zeramatzala erdi irekiak.

Gero bere bi orpoen gainean jiratu zen, bloke batean osorik, zutoin baten gainean estatua bat bezala, eta etxerako bidea hartu zuen. Baina apaizaren ahots lodia, umeen ahots zoliak

artean bere belarrira iristen ziren eta atzetik jarraitzen zitzaizkion:

— Kristau al zara?

— Bai, kristaua naiz.

— Kristau izatea zer da?

— Kristau izatea da, bataiatuta egonik..., bataiatuta egonik..., bataiatuta egonik.

Bere eskilaretako mailak eskudelari atxikiz igo zituen, eta, bere gelara heltzean, besaulki batean erortzen utzi zion bere buruari.

Leiarretako egunargi zurizka apaltzen zihoan emekiro zenbait uhindurarekin. Haltzariek beren lekutan higikaitzago bilakatuak ziruditen, eta itzalpean galtzear ozeano ilunbeltz batean antzo. Subajua itzalia zegoen, hormako erlojuak bere eraginean segitzen zuen, eta Emma nolabait ere otzanduz zihoan gauzen baretasun honetan, aldiz bere baitan hainbat asaldura izan arren. Baina, leihoaren eta jostun-mahaiaren artean, Berthe txikia han zegoen, puntuzko bere botatxoan gainean kulunkan eta bere amarengana hurbiltzen saiatuz haren mantalaren xingolak puntatik atxikitzeko.

— Utz nazazu! esan zion amak eskuaz alden-  
duz.

Neskato txikia berehala itzuli zen are hurbila-  
go belaunen kontra; eta, hauetan besoak tinkatuz,  
bere amarengana altxatzen zuen begi urdin  
handia, bere ezpainetik mantalaren zeta gainera  
txistu garbizko hari bat isurtzen zitzaion bitar-  
tean.

— Utz nazazu! errepikatu zuen emakume  
gazteak zeharo haserre. Haren aurpegiak izutu  
egin zuen haurra, eta garrasika hasi zen.

— Eh! utz nazazu ba! esan zion emakumeak  
ukondoaz hastanduz.

Berthe komodaren oinetara erori zen, kobrez-  
ko azpiertzaren kontra; hartaz masaila ebaki  
zuen, odola zerion. Madame Bovary hura altxa-  
tzera lehiatu zen, txilinarekin kordoia puskatu  
zuen, bere indar guztiez neskameari dei egin  
zion, eta bere buruaren kontra ainduraka haste-  
ra zihoan, Charles agertu zenean. Afaltzeko  
ordua zen, etxera zetorren.

— Begira, maite, esan zion Emmak ahots  
narez: horra gure txikia, jolasean zebilela zauritu  
berria da lurrean.

Charlesek lasaitu egin zuen, kasua ez zen inolaz ere larria, eta «diachylum» bila joan zen.

Madame Bovary ez zen salara jaitsi; bera bakarrik geratu nahi izan zuen bere haurra zaintzen. Orduan, hari lotan so, geratzen zitzaion kezka barreiatzen joan zen, eta berekiko bere burua benetan tuntuna eta onegia iruditu zitzaion arestian hain gauza gutxiengatik artegatu izanagatik. Berthe, eskierki, jada ez zen zotinka ari. Bere arnaskerak, orain, ezarian altxatzen zuen algodoizko estalkia. Malko handi batzuk geldirik zeuden, betileen artetik bi betsein beluri, hondoratu, ikusten uzten zituzten betazal erdi-itxien xokoan; esparadrapuak, masailan erantsirik, zeharka teinkatzen zuen azal atezua.

— Gauza bitxia da, pentsatzen zuen Emmak, zeinen itsusia den haur hau!

Charlesek, gaueko hamaiketan, botikatik itzuli zenean, (diachylumetik geratzen zitzaiona itzultzen izan baitzen, afalondoan), bere emaztea sehaskaren ondoan zutik kausitu zuen.

— Baina ziur esan dizut ba ezer ez dela izango, esan zion bekokian musu emanetz; ez ezazu

zeure burua larritu, gajo horrek, bestela gaixotu egingo zara!

Denbora luzez egona zen botikarioaren etxean. Nahiz eta oso hunkitua azaldu ez zen arren, monsieur Homais saiatu zen, horratio, Charlesi adore ematen, haren *moral*a altxatzen. Beraz haurreria mehatxatzen duten askotariko arriskuez eta sehien zabarkeriaz solastu ziren. Madame Homaisek bazekien zertxobait hortaz, oraindik ere bular gainean baitzeuzkan, sukalde-sehi batek, aspaldi, bere brusara erortzen utzitako oporretara txingarraren markak. Eskierki gurasoek hartzen zuten arretarik franko. Labanak sekulan ez ziren zorrotzak egoten, ezta zoruak ere argizarituak. Leihoetan burdinazko sareak izaten ziren eta markoetan barra sendoak. Homaistar txikiek, beren independentzia gora-behera, ezin izaten zuten mugitu beren atzetik zaindari bat gabe; katarrorik txikienarekin, beren aitak ez-tul-jarabez asetzen zituen, eta lau urte baino gehiagora arte guztiek eramaten zituzten, derrigorrean, burute koltxatuak. Hori, egia da, madame Homaisen mania bat zen; bere senarra hortaz penaturik zegoen bere baitan,



adimenaren organoentzat horrelako hertsakuntzaren ondorio posibleen beldur, eta menturatzzen zen hari esateraino:

— Caribeak edo Botocudoak bezala bihurtu nahi al dituzu?

Charles, ordea, sarritan saiatu zen elkarrizketa mozten.

— Zurekin hitz egin beharrean nago, xuxurlatu zion belarrira urgazleari, zeina bere aurrean abiatu baitzen eskilaretan.

— Zerbaiten susmoren bat ba ote zuen? galdetzen zion Leonek bere buruari. Bihotza taupadaka zeukan eta aierutan galtzen zen.

Azkenik Charlesek, atea itxi ondoren, eskatu zion, Ruenen ikus zezala zenbatsu izan zitezkeen dagerrotipo eder baten prezioak; bere emaztearentzat gorderik zeukan sorpresa sentimental bat zen, findadezko kortesia bat, bere erretratu bat frak beltzez. Baina aurrez *jakin nahi zuen zeri atxiki*; eginkizun hauek ez bide zuten monsieur Leon trabatu, zeren gutxi gora behera astero joaten baitzen hirira.

Zein xedetan ordea? Homaisek susmatzen zuen guzti horretan *gizon gazteren gorabehera-*

*ren bat*, amorioren bat. Baina oker zegoen, Leon ez zebilen inolako amurusiaren atzetik. Sekulan ez bezain triste zegoen, eta madame Lefrançois-ek ederki antzematen zion horri, orain bere platerean uzten zuen janari kopuruan. Hortaz gehiago jakitearren, biltzaileari itaundu zion; Binetek ihardetsi zion, berari ez *ziola poliziak pagatzen*.

Bere ostatukidea, dena den, nahiko bitxia iruditzen zitzaion; zeren Leon maiz bere aulkian erraskail besoak zabalduz nolabait ere arrenkuruatu egiten zen bizitzaz.

— Ez baituzu nahiko olgetarik hartzen, zioen biltzaileak.

— Baina zeintzuk?

— Nik, zu bezala, tornu bat edukiko nuke!

— Baina nik ez dakit tornatzen, erantzun zuen urgazleak.

— Oh! egia da! zioen besteak bere matrailezurra ferekatuz, atseginarekin nahasturiko erdeinu aire batez.

Leon unaturik zegoen emaitzarik gabe maitatzeaz; gainera sentitzen hasia zen, bizimodu berbera errepikatzeak eragiten duen ahuldura hori,

inolako interesek gidatzen ez duenean eta inolako esperantzak sostengatzen ez duenean. Hain aspertua zegoen Yonvillez eta yonvilletarrez non zenbait jende, zenbait etxe ikusteak jasanezin adina sumintzen baitzuen; eta botikarioa, hain onpuska izanik ere, zeharo gogaikarri bilakatzen zitzaion. Halere egoera berri baten ikusmirakordea, erakartzen zuen adina beldurtzen zuen.

Engara hau laster bihurtu zen ernegazio, eta orduan Parisek astindu zuen berarentzat, han urrunean, bere dantza mozorrotuen fanfarea jostuntxoekin farreekin eta guzti. Eta bere zuzenbide karrera han bukatu behar zuenez, zergatik ez zen joaten segituan? Nork eragotzi behar zion? Eta barne-prestakuntzak egiteari ekin zion; aurrez moldatu zituen bere eginkizunak. Jantzi zuen, bere buruan, apartamentu bat. Artista baten bizimodua eramango zuen han! Gitarra-lezioak hartuko zituen! Txabusina bat edukiko zuen, eta euskal-txapela, eta balusa urdinezko oskierrestak! Eta dagoeneko miresten zituen suburuan bi florete aspan, gainean buruhezur batekin eta gitarrarekin.

Gauza zaila bere amaren baimena zen; baina ezerk ez zirudien horratio zuhurrago. Bere uga-zabak berak bultzatzen zuen beste bulego bat bisitatzera, hartan gehiago aurreratu ahal izan zezan. Beraz erdibide bat hartuz, Rouenen bigarren urgazleren plazaren bat bilatu zuen, ez zuen aurkitu, eta azkenik bere amari gutun luze zehatz bat idatzi zion, non azaltzen baitzituen Parisera bizitzera berehalaxe joateko arrazoiak. Ama konforme izan zen.

Leon ez zen presaka ibili. Hilabetean zehar egunero, Hivertek garraiatu zituen Yonvilletik Rouenera eta Rouenetik Yonvillera, haren baulak, maletak, paketeak; eta Leon, bere arropa guztiak bidali ondoren, bere hiru besaulkiak berritu arazi, fular-hornidura bat erosi, hitz batean esateko, munduaren biran bidaia egiteko baino xedapen gehiago hartu ondoren, astetik astera luzatzen joan zen, harik eta bere amaren bigarren gutuna hartu zuen arte, non joateko presa ematen baitzitzaion, oporrak baino lehen bere examina pasatu nahi zuenez.

Besarkaden momentua heldu zenean, madame Homaisek negar egin zuen; Justin zotinka

zegoen; Homaisek, gizon gogor gisa, bere hunkidura estali egin zuen; berak eraman nahi zuen bere lagunaren longaina notarioaren atariraino, zeinak baitzeraman bere landoan Leon Rouenera. Azken honek ozta-ozta zuen Bovary jaunari agur esateko astia.

Eskilara-burura heldu zenean, gelditu egin zen, hain zegoen egon ere hatsanturik. Bera sartzean, madame Bovary biziro altxatu zen.

— Berriz ere ni naiz! esan zuen Leonek.

— Ziur nengoen!

Emmak ezpainak ausiki zituen, eta odol olde bat igaro zitzaion larrazalaren pean, zeina erabat arroxaz koloratu baitzitzaion, ileen zainetatik hasi eta goletaren ertzeraino. Zutik segitzen zuen, horma oholtzatuaren kontra sorbaldaz tinkaturik.

— Beraz, Monsieur ez da hemen? hasi zen gizona.

— Kanpoan da.

Emmak errepikatu zuen:

— Kanpoan da.

Orduan isilune bat izan zen. Elkarri so egin zioten; eta beren pentsamenduak, larridura

berean balditurik, estu hertsatzen ziren, bi bular pilpiratsuren gisa.

— Berthe besarkatu nain nuke, esan zuen Leonek.

Emmak zenbait maila jaitsi zituen eta Felicitari dei egin zion. Leonek azkar bota zuen bere ingurura begirada zabal bat, zeina hedatu baitzen hormetara, apaletara, tximiniara, dena barneratzearen bezala, dena eramatearren bezala.

Baina Emma itzuli zen, eta neskameak Berthe ekarri zuen, hari baten puntan haizerrota bat buruz behera astintzen zuela. Leonek behin eta berriz musukatu zuen lepoan.

— Agur, gaixoa! agur, txikitxo maitea, agur! Eta berriro amari utzi zion.

— Eraman ezazu, esan zuen honek.

Bakarrik geratu ziren.

Madame Bovaryk, bizkarra jiratuta, aurpegia leiar baten kontra pausaturik zeukan; Leonek bere boneta eskuan zeukan eta hartaz emekiro taupadaka ari zen bere izterraren gainean.

— Euria dator, esan zuen Emmak.

— Txabusina badut, erantzun zuen gizonak.

— Ah!

Emma jiratu zen, kokotsa apal eta bekokia aurrera. Argia hartan marmol batean bezala labaintzen zen bekainen bihurturaino, jakin ezin zelarik Emmak zeri begiratzen zion ortzimugan, ezta zer pentsatzen zuen ere bere barnezolan.

— Beno ba, agur! hasperendu zuen Leonek.

Mugimendu zakar batez altxatu zuen burua:

— Bai, agur... Joan zaitez!

Elkarrengana aurreratu ziren: gizonak eskua luzatu zion, Emmak zalantza izan zuen.

— Ingeles eran beraz, esan zuen emakumeak, bere eskua abandonatuz, eta barre egiten ahaleginduz.

Leonek bere behatzen artean sentitu zuen, eta bere izate osoaren substantzia bera ahur hezatu hartara jaisten ari zela iruditzen zitzaion.

Gero eskua ireki zuen; bien begiek topo egin zuten berriro ere eta desagertu zen gizona.

Merkatu-enparantzara heltzean, gelditu egin zen, eta pilare baten atzean ezkutatu zen, etxe zuri hura bere lau leihosare berdeekin azkeneko aldiz betestearren. Leihoaren atzean, gelan, errainu bat ikusi uste izan zuen; baina errezelak,

inork ukitu gabe bezala gakotik jalgirik, geldiro higitu zituen bere zehar-tolesdura luzeak, zeinak jauzi bakar batean guztiak hedatu baitziren, eta zuzen geratu zen, igeltsuzko horma bat baino mugikaitzago. Leon korrika hasi zen.

Urrundik hauteman zuen, errepidean, bere nagusiaren landoa, eta alboan gizon bat mantalarekin, zaldiari eusten. Homais eta monsieur Guillaumin elkarrekin hizketan ari ziren. Haren zain zeuden.

— Besarka nazazu, esan zuen botikarioak, malkoak begietan. Tori zure longaina, nire lagun-zahar hori, kontuz gero hotzarekin! Zaindu zeure burua! Erne ibili!

— Ea, Leon, landora! esan zuen notarioak.

Homais lohibabesaren gainera makurtu zen eta, zotin artean etenaturiko ahotsez, bi hitz triste hauei utzi zien erortzen:

— Ongi joan!

— Gabon, erantzun zuen Guillaumin jaunak. Jaregin dena!

Abiatu ziren, eta Homais itzuli egin zen.

Madame Bovaryk irekia zuen jardin aldeko leihoa, eta hodeietara begira zegoen.



Mendebaldean pilatzen ari ziren, Rouen alde-  
tik, eta fite kiribiltzen zituzten beren mataza bel-  
tzak, zeintzuen atzetik garaitzen baitziren eguz-  
kiaren marra handiak, trofeo dilingo baten urrez-  
ko geziak bezala, zeru hutsaren gainerakoak  
portzelana baten zurtasuna zeukan bitartean.  
Baina haize bolada batek makur arazi zituen  
zumarzuriak, eta Bat-batean euria hasi zuen;  
hosto berdeen gainean zirtakatzen zuen. Gero  
berriro eguzkia azaldu zen, oiloek kantatu zuten,  
etxetxoriek sasi bustien artean astintzen zituz-  
ten hegoak, eta hondar gaineko ur istilek zera-  
matzaten jarioan akazia baten lore arroxak.

— Ah! bai urruti izango dela honez gero! pen-  
tsatzen zuen Emmak.

Monsieur Homais, ohi bezala, sei t'erdietan  
etorri zen, afal garaian.

— Beno! esan zuen eseriz, bidean jarri dugu  
beraz gure gizon gaztea?

— Hala dirudi! erantzun zuen medikuak.

Gero, bere aulkian jiratur:

— Eta zer berri zuenean?

— Gauza handirik ez. Nire emaztea bakarrik,  
gaur arratsaldean apur bat hunkiturik egon dela.

Badakizu, emakumeak, edozein huskeriak larritzen ditu! nirea batez ere! Eta horren kontra asaldatzea oker legoke, zeren eta beren nerbio-apailamendua askoz malgukorragoa baita gurea baino.

— Leon gizajoa! zioen Charlesek, nola bizi behar du Parisen!... Ohituko ote da hartara?

Bovary andreak hasperen egin zuen.

— Ez ba! esan zuen botikarioak mihi az klaskatuz, poxin goxoenak jatetxean! mozerro dantzak! txanpaina! Hori guztia barra-barra, ziur da hori!

— Ez dut uste burugalduko denik, argudiatu zuen Bovaryk.

— Ezta nik ere! ihardetsi zuen biziro monsieur Homaisek, nahiz eta besteei jarraitu beharrean gertatuko den arren, jesuitatzat ez pasatzekotan behintzat. Eta zuk ez dakizu zer bizimodu daramaten alproja horiek, Quartier Latinean, aktoresekin! Gainontzean, begi onez begiratzen zaie estudianteei Parisen. Xarmarako trebezia apur bat bederen baldin badute, lagunarterik hoberenetan onartzen dituzte. Eta bada Faubourg Saint-Germaingo damarik ere haietaz mai-

temintzen denik, eta horrek, ondorioz, ezkontza oso ederrak egiteko aukera ematen die.

— Baina, esan zuen medikuak, beldur naiz ez ote zaion... han...

— Arrazoi duzu, moztu zuen botikarioak, horixe da dominaren ifertzina! Beti ere eskua sake-laren gainean ipinita eduki beharrean zaude. Esateko, jardin publiko batean zaude, jo dezagun; norbait aurkezten da, itxurosoa, kondekora-zio eta guzti nahi bada, diplomatikotzat hartuko zenukeen bat; hizketan hasten zaizu: solas egiten duzue; intsinuatu egiten zaizu, surrauskada bat eskaintzen dizu edo zure kapelua jasotzen dizu. Lotura gero eta estuagoa da; kafetetxera eramaten zaitu, landako etxera etortzera gonbidatzen zaitu, bi ardoren artean molde orotako ezagupideak egitera eragiten zaitu, eta, denboraren hiru laurdenetan, ez da zure poltsa ebasterako edo ibilera kaltegarritara errestatzeko bestetarako.

— Egia da, erantzun zuen Charlesek; baina ni batez ere gaitzez ari nintzen pentsatzen, esate baterako, probintziako estudianteak erasotzen dituen sukarrustelaz.

Emmak zirgit egin zuen.

— Erregimenaren aldakuntza dela medio, jarraitu zuen botikarioak, eta horretatik ekonomia orokorrerako erakartzen den nahasmendua-rengatik. Eta gero, Pariseko ura, bistan da! jate-txeetako jatenak, janari saltsabizitsu horiek guz-tiek azkenerako odola berotzen dizute eta, esan ahala esan, eltzeko baten aldean ez dute fitsik balio. Nik neuk, betidanik nahiago izan dut herrietako sukalkia; osasungarriagoa da! Noski, Rouenen farmazia ikasten ari nintzenean, ostatu batean hartu nuen ostatu; irakasleekin egiten nituen otorduak.

Eta horretan jarraitu zion bere iritzi orokorrak eta bere jite pertsonalak adierazteari, harik eta Justin bere bila etorri zen arte prestatu beharra zegoen gorringo-esne batengatik.

— Ezta atsedean alditxo bat ere! oihukatu zuen, beti lanari loturik! Minutu batez ere ezin naiz irten! Beti ere odola eta ura izerditzen aritu behar, labore-zamari bat bezala! Han pename-na!

Gero, atera heldu zenean:

— Hain zuzen, esan zuen, jakin al duzue berria?

— Zer berri?

— Agi denez oso posible da, hasi zen berriro Homais bekainak altxatuz eta aurpegiak seriose-na ipiniz, Behe-Seineko nekazarien biltzarrak aurten Yonville-L'Abbayen ospatuko direla. Zurrumurrua behintzat badabil. Gaur goizean, egunkariak ere zertxobait ukitzen zuen. Biziki garrantzi handikoa litzateke, gure eskualde-barrutirako! Baina gero mintzatuko gara horretaz. Ikusten dut, eskerrik asko; Justinek badu argimutila.

Biharamuna Emmarentzat egun hiltamutsua izan zen. Gauzen azalean nahaskiro kulunkatzen zen egurats beltz batek inguratua iruditu zitzaion dena, eta oinazea bere ariman alarau eztekin zokoratzen zen, neguko haizeak gaztelu abandonatuetan egiten duen bezala. Sekulan itzuliko ez denaz izan ohi den ametseria zen, egitate burutu bakoitzaren ondoren hartzen zaituen lazotasuna, ohizko mugimendu ororen trenkadurak, luzaroko bibrazio baten supituko etendurak ekartzen dizun min hori.

Vaubyessardtik itzultzean bezala, koadrilak bere buruan zurrunbilokatzen ziren hartan bezala, malenkonia hits bat zeukan, etsimendu soraio bat. Leon berragertzen zen handiago, ederrago, eztiago, lainotsuago, beragandik aldendua zen arren, ez zuen utzia, hura hantxe zegoen, etxe-ko hormek haren errainua gordetzen zutela zirudien. Emmak ezin zuen apartatu bere begirada hura ibili izana zen tapiz hartatik, hura eseri izana zen haltzari huts haietatik. Ibaia bazihoan

beti ere, eta astiro bultzatzen zituen bere palas-  
ta apalak bazter labainean barrena. Sarritan ibi-  
liak ziren han paseatzen, uhinen murmurio ber-  
beratan, goroldioz estalitako harrikarian. Zeinen  
eguzki ederrak izan zituzten! Zeinen arratsalde  
ederrak, bakarrik, gerizpean, jardineko zokoan!  
Hark ozenki irakurtzen zuen, buru hutsik, makila-  
mutur lehorrezko aulki batean jarrita; belazetiko  
haize freskoak dardara eragiten zien liburuaren  
orriei eta pendizeko amatxiloreei... Ah, joana  
zen, bere bizitzako xarma bakarra, zorion baten  
esperantza posible bakarra! Nolaz ez zuen berak  
zorion hori atxiki, aurkeztu zitzaionean! Zergatik  
ez zion eutsi bi eskuez, bi belaunez, joan nahi  
izan zuenean? Eta Leon maitatu ez izanagatik  
bere burua madarikatzen zuen; haren ezpainen  
egarria eduki zuen. Gogoak ere eman zion haren  
bila korrika joateko, haren besoetara jausi eta  
esateko: «Ni naiz, zurea nauzu!» Baina Emma  
aldez aurretik larritzen zen eginkizunaren zailta-  
sunengatik, eta bere nahikundeak, atsekabez  
emendaturik, are gartsuago bilakatzen ziren.

Ordudanik, Leonen oroitzapen hau bere  
asperraren zentroa bezala izan zen; bidaiariak

elur gainean, Errusiako estepa batean, abando-  
naturiko suak baino bortitzago pindartzen zuen.  
Emma hartarantz oldartzen zen, haren kontra  
kukubilkatzen zen, su itzaltzear hura emekiro  
irabiatzen zuen, hura gehiago zuzper zezakeena-  
ren bila ibiltzen zen bere inguruan; eta gomuta-  
purrik urrunenak nahiz abagunerik hurbilenak,  
igartzen zuena irudikatzen zuenarekin batera,  
barreiatzen ari zitzaizkion apeta boluptuosoak,  
adar iharrak bezala haizetan kraskatzen ziren  
bere zorion-proiektuak, bere bertute antzua,  
bere esperantza eroriak, etxeko zirtzileriak,  
dena biltzen zuen, dena jasotzen zuen, eta dena  
erabiltzen zuen bere tristura berotzeko.

Alabaina garrak iraungi ziren, nahiz hornidu-  
ra berez ahitu zelako nahiz pilaketa gehiegikoa  
gertatu zelako. Maitasuna poliki-poliki itzali egin  
zen urrundeaz, oroit-mina ito egin zen ohitura-  
ren pean; eta bere zero hitsa purpuratzen zuen  
sutearen zohardura ilunbe handiagok estali zen  
eta graduz gradu ezabatu zen. Bere kontzien-  
tziaren lokarduran, senarrarenganako higuinak  
ere amorantearenganako aharrausitzat hartu  
zituen, gorrotoaren erredurak laztantasunaren



berotzat; baina, aldagoia beti ere bazebilenez, eta irritsa errautsetaraino gargaildu zenez, eta inolako laguntzarik heldu ez zenez, inolako eguzkirik azaldu ez zenez, alde guztietatik gau beltz izan zen, eta Emma galdurik geratu zen aldenik alde zulatzen zuen hotz izugarri batean.

Orduan Tostesko egun gaiztoak hasi ziren berriro. Orain bere burua askoz dohakabeagoztat zeukan, zeren oinazearen esperientzia baitzuen, hura amaituko ez zen ziurtasunarekin batera.

Bere buruari hain sakrifizio handiak inposaturiko emakume bati zilegi zekioken zenbait apeta. Belaunikaleku gotiko bat erosi zuen, hila-betean hamalau libera gastatu zuen azkazalak garbitzeko limoitan; Rouenera idatzi zuen kaxemira urdinezko soineko bat eskatuz; Lheureuxenean, bertako exarperik ederrena aukeratu zuen; gerrian lotzen zuen bere txabusinaren gainetik; eta, leihatilak itxirik, eskuan liburu bat, kanape batean etzanda egoten zen, pildaire honetan.

Sarritan, bere orrazkera aldatzen zuen: txinatarren eran, kiribil lasatan, motots txirikordatu-

tan jartzen zen; buruaren alboan marra bat egin zuen eta haren pean kiribildu zuen ilea, gizon gisa.

Italiera ikasi nahi izan zuen: erosi zituen hiztegiak, gramatika bat, paper zuri hornizioa. Irakurketa serioetan saiatu zen, historia, filosofia. Gaez, batzuetan, Charles tupustean esnatzen zen, gaixoren batengatik bere bila zetozen uste-tan:

— Banoa, zizakatzen zuen.

Eta Emmak marruskatzen zuen poxpolu baten zarata zen, kriseilua berriro piztearren. Baina bere irakurketetan bere tapizerietan bezalaxe zen, denak, hasi orduko, alasan pilakatzen ziren; hartzen zituen, uzten zituen, beste batzuetara pasatzen zen.

Aldarteak izaten zituen, zeinetan erraz bultza baitziezaiokeen nabarmenkerietara. Egun batez baieztatu zuen, bere senarraren aurka, baso-erdi handi bat pattar aise edango zukeela, eta, Charlesek ezetzean desafiatzeko astakeria egin zue-nez, kondarretaraino zurrutatu zuen pattarra.

Bere aire «lurrunduak» eta guzti (Yonvilleko «etxekoandreen» hitza zen hau), Emmak ez zirur-

dien, halere, alai, eta, gehienetan, bere ahoaren ertzean gordetzen zuen, neskazarren eta handinahi txuluteginen aurpegia zimurtzen duen ikoldura higikaitz hori. Zeharo zurbil zegoen, arropa zuria bezain zuri; sudurreko azala sudur-zuloetarantz teinkatzen zen, bere begiek lainotsuki begiratzen zizuten. Lokietan hiru ile urdin aurkitu izanagatik, bere zahartzaroaz hitz egin zuen.

Sarritan izaten zituen ondoezak. Egun basez odola errustatu ere egin zuen, eta, Charles lehia-tzen zenez, bere kezka nabarmenduz:

— Ah bah! erantzun zuen Emmak, eta zer axola?

Charles bere kabinetean abaro hartzera joan zen; eta negar egin zuen, bi ukondoak mahai gainean, bere bulego-besaulkian eserita, buru frenologikoaren pean.

Orduan bere amari idatzi zion etortzeko eskatuz, eta bien artean eleketa luzeak izan zituzten Emmari buruz.

Zein erabaki hartu? Zer egin, Emmak tratamendu oro arbuiazen baitzuen.

— Badakizu zer beharko lukeen zure emazteak? errepikatzen zuen Bovary amak. Eginkizun behartuak, eskulana! Bera ere balego, beste asko bezala, bere ogia irabaztera beharturik, ez luke izango halako lurrunik, buruan sartzen dituen ideia-pila horretatik baitatozkio, eta bizi den soraiokeriatik.

— Alabaina izaten du zereginik, zioen Charlesek.

— Ah! zereginak! Zertan ordea? Nobelak irakurtzen, liburu txarrak, erlijioaren kontra dauden obrak, eta Votairerengandik ateratako diskurtsoak medio apaizez trufatzen direnak. Baina hori guztia urrun doa, nire ume gaixoa, eta erlijiorik ez daukanak beti ere okerreko bidean bukatzen du.

Beraz, Emmari nobelak irakurtzen eragotzi egingo zitzaiola erabaki zen. Lanbideak ez zirudien inolaz ere erraza. Damatxoa bera arduratu zen horretaz: Rouendik pasatzean, berak pertsonalki joan behar zuen liburuen alokatzailearenera eta hari aditzera eman, Emmak harpidetzak eten egiten zituela. Eta ez al zegokeen ba poli-ziari ohartarazteko eskubidea, baldin eta liburu-

dunak hala ere bere pozointze-lanean jarraitzen bazuen?

Amaginarrebaren eta errainaren agurrak lehorrak izan ziren. Elkarrekin egonak ziren hiru asteetan zehar, biek ez zuten lau hitz trukatu, informazioez eta adeitasunezko ez aparte, mahaian elkartzen zirenean, eta arratsean oheratu aurrez.

Madame Bovary ama asteazken batez joan zen, Yonvillen merkatu eguna.

Plaza, goiz-goizetik, karreta zerrenda batez gainezka zegoen, zeinak, denak ipurdiz eta gurtagak airean, etxe zerrendan barrena hedatzen baitziren elizatik hasi eta ostaturaino. Beste aldean, oihalezko txosnak zeuden non saltzen baitziren algodoizko ehunak, estalkiak eta artilezko galtzerdiak, zaldientzako kraistuekin batera eta xingola urdinen xortak ere, zeinak puntatik haizetan hegaztuz baitziren. Kinkaileria handia lurrean hedatzen zen, arraultze-piramideren eta gazta-otarreren artean, zeinetatik lasto likitsu batzuk ateratzen baitziren; garijotzeko makinak ondoan, kaiola zapal batzuetan kakarazka ari ziren oilo batzuk beren lepoak

pasatzen zituzten barroteen artetik. Jendetza, leku berean pilakaturik mugitu nahi gabe, farmaziaren aurrealdea puskatzeko kinkan zegoen alditan. Asteazkenetan, beti jendez beterik zegoen eta elkarri bultzaka, ez hainbeste medikamenduak erosteko baizik eta kontsultak hartzeko, hain zen izan ere fama handikoa musde Homaisen aipua, inguruetako herrietan. Bere zentzutasun sendoak liluraturik zeuzkan landatarrak. Mediku guztiak hain mediku handiagobati bezala begiratzen zioten.

Emma ukondoaz leihoan zegoen (maiz egoten zen han: leihoak ordezkatzeko dituzten probintzietan, antzokiak eta paseoa), eta oiesen iskanbilari begira dostatzen ari zen, halako batean balusa berdezko longain batez jantzitako jaun bat hauteman zuenean. Eskularru horiak zeramatzan, nahiz eta oinetan galzain zakarrak izan; eta medikuaren etxerantz zihoan, atzetik baserritar bat zuela burua makurturik eta aire oso pentsakorrez oinez.

— Ikus al dezaket mediku jauna? galdetu zion, atalasean Feliciterekin solasean ari zen Justin.

Eta, etxeko sehitzat harturik:

— Esaiozu Rodolphe Boulanger jauna, Huchettekoa, etorri dela.

Ez zen inola ere lurralde-harrokeriaz izan iritsi berriak bere izenari partikula eranstea, baizik eta bere burua hobeki ezagutzera ematearren. La Huchette, eskierki, Yonvilletik hurbileko finka bat zen eta bertako gaztelua erosi berria zuen, berak bakarrik lantzen zituen bi etxalderekin batera, neke handiegirik hartu gabe horratio. Soltero bizi zen, eta ziotenez bazeukan *gutxienik hamabost mila libera errentatan!*

Charles sartu zen salan. Boulanger jaunak bere gizona aurkeztu zion, zeinak odolaterrea egin ziezaion nahi baitzuen, *gorputz osoan barrena txingurriak* igartzen baitzituen.

— Horrek purgatu egingo nau, argudiatzen zien arrazoibide guztiei.

Bovary hasi zen beraz berda bat eta konketa bat ekarriz, eta Justini eskatu zion hura sostengatzeko. Gero, baserritar jada zurbilarengana zuzendurik:

— Ez izan beldurrik, adiskide.

— Ez, ez, erantzun zuen besteak, zuk jo aurrera!

Eta, harroputz airez, bere beso lodia luzatu zuen. Lantzetaren sastadapean, odola jalgi zen eta ispiluaren kontra zirtatzera joan zen.

— Hurbildu ontzia! oihuka Charlesek.

— *Aiko!* zioen laborariak, zinez esan liteke iturritxo bat jarioan! Bai gorria daukadala odola! Horrek seinale ona izan behar du, ez al da hala?

— Batzuetan, berriro osasun-ofizialak, hasieran ez da ezer igartzen, gero sinkopea deklaratzeko da, eta batez ere hau bezala askai oneko jendearen artean.

Laborariak, hitz hauek entzunik, bere behatz artean jiraka zerabilen kaxatxoa askatu zuen. Bere sorbalden teinkada batek karranka eragin zion aulkiaren bizkarrari. Bere kapelua erori egin zen.

— Banengoen ba ni, esan zuen Bovaryk bere behatza zainaren gainean ipiniz.

Ontzia dardarka hasia zen Justinen eskuetan; belaunak kordokan zituen, zurbildu egin zen.

— Nire emaztea! nire emaztea! dei egin zuen Charlesek.



Salto batean jaitsi zituen Emmak eskilarak.

— Ozpina! deiadarka Charlesekin. Ah! Jainkoaren izenean, bi batera.

Eta, bere asalduran, lan zuen konpresa ipintzen.

— Ez da ezer, zioen lasai Boulanger jaunak, bere besoen artean Justin hartzen zuen bitartean.

Eta mahai gainean eseri zuen, haren bizkarra hormaren kontra finkatuz.

Madame Bovary hari korbata eransten hasi zen. Alkandoraren kordoietan korapilo bat zegoen; zenbait minutuz aritu zen mutil gaztearen idunean bere behatz arinak erabiltzen; ondoren ozpina isuri zuen batistazko bere musuzapian; hartaz lokiak bustitzen zizkion txaplaka eta gainera putz egiten zuen, emekiro.

Orgaria esnatu zen: baina Justinen sinkopeak artean irauten zuen, eta bere betseinak begizurirango belurietan desagertzen ziren, lore urdin batzuk esnetan gisa.

— Hau ezkutatu egin beharko litzaioke, esan zuen Charlesekin. Madame Bovaryk ontzia hartu eta mahaian utzi zuen; makurtzean egin zuen

mugimenduan, bere soinekoa (udako soineko bat zen lau aloztuna, kolore horia, gerri luzea, gona zabala), soinekoa bere baranoan hedatu zen salako baldosen gainean; — eta, Emmak, pikotxean, besoak zabalduz pixka bat alderoka egin baitzuen, ehunaren puzturak zapart egiten zuen lekurik leku, bere gerrontzearen malguduren arabera. Ondoren, pitxar bat ur hartzera joan zen, eta azukre-koxkor batzuk urtzen ari zen botikarioa heldu zenean. Zalaparta hartan nekamea bila joana zitzaion; bere ikaslea begiak zabalik hautematean, lasaitu zitzaion arnasa. Gero, bere inguruan jiraka, goitik behera begiratzzen zion.

— Memeloa! zioen; benetako memeloa! zazpi letratako memeloa! Ha zer nolako gauza, horixe, flebotomia bat! eta ezeren beldur ez den morrosko bat! urtxintxa baten parekoa, hemen-txe bistan duzuen, intxaurrak astintzearen zoratzeko alturatara igotzen den hau. Ah! bai, hitz egin ezak, harro-harro! Jarrera ederra, gero farmazia-lanean aritzeko; zeren kinka larritan deiturik kausitu haiteke, auzitegi aurrean, magistratuen kontzientzia argitzeko; eta odola

hotz mantendu behar izango duk, arrazoitu, gizon gisa azaldu, edota ergel bat bezala geratu!

Justinek ez zuen erantzuten. Botikarioak segitu zuen:

— Nork eskatu dizu etortzeko? Jauna eta etxekoandrea nekarazten ari zara beti! Gainera, asteazkenetan behar-beharrezkoa dut zure presentzia. Oraintxe bertan bada hogeit hamar pertsona etxean. Dena utzi dut, zureganako dudan interesarengatik. Ea ba, zoaz! azkar! itxoin niri, eta zaindu ustrailak!

Justin, jazten ari baitzen, abiatu zenean, zorabioez mintzatu ziren pixka bat. Madame Bovary halakorik sekulan izan gabea zen.

— Harrigarria da emakume baten baitan! esan zuen Boulanger jaunak. Bestalde, badago jende delikaturik ere. Horrela ikusia dut nik, duelu batean, lekuko bat kordea galtzen kargatzen ari ziren pistolen zarata hutsarengatik.

— Niri, zioen botikarioak, besteren odola ikusteak ez dit ezertxo ere egiten; baina nirea daridala pentsatze hutsa aski litzateke niri ondoeza eragiteko, hartaz gehitxo pentsatuz gero.

Bitarte horretan Boulanger jaunak bere morroia bidali egin zuen, izpiritua lasai zezan gomendatuz, zeren bere irudipena joana baitzen.

— Horrek eman dit zuek ezagutzeko aukera, erantsi zuen. Eta hau esatean Emmari so egiten zion.

Gero mahai ertzean hiru libera utzi zituen, ezaxolati agurtu eta joan egin zen.

Laster zegoen ibaiaren beste aldean (hura zen bere bidea Huchetrera itzultzeko); eta Emmak belazean ikusi zuen, zumazurien pean oinez zihoala, aldian-aldian pausoa baretuz, pentsatzen ari den norbaiten gisa.

— Biziki polita da! zioen berekiko; biziki polita da, medikuaren emaztea! Hortzak ederrak, begi beltzak, oin poxpolinak, eta paristar baten tankera. Non demoniotatik atera da horrelakoa? Non aurkitu ote du, mutil kankar horrek?

Monsieur Rodolphe Boulangerek hogeita hamalau urte zuen; tenperamenduz mutiria eta adimenez zorrotza zen, eta bestalde emaztetan sarri ibilia izaki, hauekikoa ongi ezagutzen zuen.

Oraingo hau polita iruditu zitzaion: hartaz ari zen beraz pentsatzen, eta haren senarraz.

— Zeharo tentela delakoan nago. Senarrarekin asperturik dago dudarik gabe. Azkazal zikinak eta hiru egunetako bizarra ditu. Eta hura bere zaldiarekin gaixorik gaixo dabilen bitartean, emaztea galtzerdiak pasaratzen geratzen da. Eta aspertu noski! Hirian bizi izan nahi, arratsero polka dantzatu! Emazte gaixoa! Ahozabalka maitasunaren atzetik, zamo bat uraren atzetik bezala sukalde bateko mahai gainean. Lausenguzko hiru hitzekin, adoratu egingo zintuzke, ziur naiz! Benetan goxoa litzateke! xarmangarria!... Bai, eta baina ondoren nola hastandu?

Orduan plazeraren gainezkak, perspektiban ikusirik, bere amoranteaz pentsarazi zion, kontrastez. Berak mantentzen zuen Rouengo komedia-aktorea bat zen; eta, irudi horri buruz pausatuta zenean, zeinarekiko, oroitzapenean ere, betekada baitzeukan:

— Ah! Madame Bovary, pentsatu zuen, hura baino askoz politagoa da, batez ere frexkoagoa. Virginie, bene-benetan, gizenegi jartzen ari da.

Bere jolasekin hain da aspergarria. Eta, bestalde, ixkirengatik duen mania hori!

Landan ez zebilen inor, eta Rodolphek bere inguruan ez zuen entzuten bere oinetakoak zihoztatzan zituzten belarren xaflada erregularra baino, urrunean olo artean kukubilkaturiko kirki- len xirritarekin batera; berriro Emma ikusten zuen salan, ikusi zuen bezala jantzirik, eta erantzi egiten zuen.

— Oh! lortuko dut! oihukatu zuen, makilaren kolpe batez bere aurrean sokor bat lehertuz.

Eta, berehala, eginkizunaren alde politikoa aztertu zuen. Berekiko galdetzen zuen:

— Non elkartu? Zeren medioz? Umea beti lepoan izango dugu, eta neskamea, eta auzokoa, senarra, molde orotako poxelua franko. Ah Bah! zioen, denbora gehiegi galtzen da!

Gero berriro hasi zen:

— Izan ere, bihotzean ginbaleta bezala sartzan zaizkizun begiak ditu. Eta larrantz beluri hori!... Eta nik emakume beluriak adoratzan baititut!

Argueilko aldapa gainera iristean, bere erabakia jadanik hartua zen.

— Abagunea bilatu besterik ez dago. Ea ba! aldian behin bertatik pasatuko naiz, ehiza bidaliko diet, hegaztiak; odol-ateratzeak ere egingo ditut, behar izanez gero; lagun egingo gara, nire etxera gonbidatuko ditut... Ah! arraioa! erantsi zuen, laster dira Biltzarrak; Emma han izango da, eta ikusiko dut. Hasi egingo gara, eta ausartki, hori baita seguruen.

## —VIII—

Heldu ziren, eskierki, Biltzar famatu haiek! Ospakizun egunean goiz, biztanle guztiak, beren atarietan, prestakuntzetan ari ziren; udaletxearen aurrealdea huntzezko txirikordaz apaindua zegoen; denda bat eraikita zegoen, belardi batean, orritserako, eta, plazaren erdian, eliza aurrean, bonbarda molde batek seinalatu behar zituen Prefet jaunaren etorrera eta nekazari sari-tuen izena. Buchyko goardia nazionala (Yonvillen bertakorik ez baitzen) etorria zen suhiltzaileen gorputzarekin bateratzera, zeinaren kapitaina Binet baitzen. Egun horretan, idunekoa ohi baino are altuagoa zeraman; eta, bere tunikan galkaturik, soina hain zeukan zurrun eta higikaitz non bere pertsonaren bizi-parte osoa jaitsia zuela baitzirudien bere bi hanketara, zeinak kaden-tziaz altxatzen baitziren, urrats markatutan, mugimendu bakar batez. Zergabiltzailearen eta koronelaren artean lehiaren batek irauten zue-nez, batak zein besteak, norberaren trebeziak azaltzearren, bakoitzak bere aldetik maniobra-



razten zituzten beren gizonak. Txandaka ikusten ziren behin eta berriz pasatzen txarratel gorriak eta atorra-papar beltzak. Artean bukatu gabe eta berriro hasten zen! Sekula izan gabea zen hainbestearainoko punpezia-hedamendurik! Herritar askok, bezperatik, beren etxeak txukunduak zituzten; bandera hirukoloredunak leiho erdirekietatik dilindan zeuden; taberna guztiak beterik zeuden; eta, egiten zuen eguraldi ederra medio, boneta enpesatuek, urrezko gurutzeek eta burukozapi kolorezkoek zuriago ziruditen elurra baino, eguzki zuritan istargitzen zuten, eta beren pikardura sakabanatuaz nabarmenarazten zuten xenilen eta bruxa urdinen monotonia iluna. Inguruetako laborari-andreek, zalditik jaistean, zikin beldurrez bildutako beren soinekoa gorputzaren kontra estutzen zien orratz handia askatzen zuten; eta senarrek, aitzitik, beren kapeluak zaintzearren, gaineratik estaltzen zuten musuzapi batez, honen mutur bati hortzetan eutsiz.

Herriaren bi muturretatik zetorren jendetza kale nagusira. kaletxikietan, ibiltokietan, etxeetan barrena zabaltzen zen, eta tarteka ate-mai-

lukoren bat entzuten zen erortzen, jaia ikustera joateko irteten ziren harizko eskuxorrodun andreen atzean. Gehien miresten zena, argitxilinez betetako tantai luze bi ziren, agintariek egon behar zuten oholtza hegikatzan; halaber bazeuden, udaletxeko lau pilareen kontra, lau haga antzeko, bakoitza oihal berdaxkazko estandarte batekin, urrezko letratan izkribuz horniturik. Batean irakurtzen zen: «Merkataritzari»; bestean: «Nekazaritzari»; hirugarrenean: «Industriari», eta laugarrenean: «Arte-Ederrei».

Baina aurpegi guztiak argitzen zituen bozkarioak, madame Lefrançois ostalera goibeldu egiten zuela zirudien. Bere sukaldeko mailetan zutik, bere golkorako marmarrean ari zen:

— Ha zer inozokeria! Zer nolako inozokeria beren oihalezko barraka hori! Zer uste dute ba, prefeta gustora izango dela han, dendapean bazkaltzen, txerpolari bat bezala ala? Eta horrelako estekuei deitzen diete herriaren ona egitea! Horretarako ez zegoen, noski, Neufchâtelera txiribogin baten bila joan beharrik! Eta norentzat? eta behizain batzuentzat! oinutsgorri arlote batzuentzat!

Botikarioa pasatu zen. Frak beltza zeraman, nankinezko galtzak, kastore-larruzko zapatak eta, aparteko gisa, kapela kopalet apal bat.

— Agur! esan zuen; barkatu, presaka naiz.

Eta alarguntsa gizenak nola zihoan galdetu zionez:

— Harrigarria iruditzen zaizu, ez al da hala? Ni, beti neure laborategian gizaixoaren arratoia bere gaztan baino zokoraruago egoten naizen hau.

— Zein gazta? ostalersak.

— Ez, ezer ez! ez da ezer! berriro Homaisek. Alegia bakarrik esan nahi nizun, madame Lefrançois, ni nire etxe barruan geratu ohi naizela. Gaur, ordea, gertakaria ikusirik, beharrezkoa da noski...

— Ah! Hara al zoaz? esan zuen alarguntsak erdeinu-airez.

— Bai, hara noa, ihardetsi zuen botikarioak harriturik; ez ote naiz ba batzorde kontsultatiboko partaide?

Lefrançois atsoa une batez begira egon zitzaion, eta azkenerako irribarrez erantzun zion:

— Hori beste gauza bat da! Baina nondik nora duzu zuk nekazaritzarekin zerikusirik? Horretaz ulertzen al duzu ba?

— Jakina ba, ulertzen dudala, zeren eta farmazilaria bainaiz, hau da, kimikaria! Eta kimikak, madame Lefrançois, naturako gorputz guztien eragin elkarrekiko eta molekularren ezagutza xedetzat duenez, horretatik jarraitzen da nekazaritza bere eremuan barne aurkitzen dela! Eta, hain zuzen, ongarrien konposizioa, likidoen hartidura, gasen analisia eta kiratsen eragina, zer da hori guztia, galdetzen dizut nik, kimika huts eta soila ez bada?

Ostalersak ez zuen ezer erantzun. Homaisek segitu zuen:

— Agronomo izateko, beharrezkoa dela uste al duzu norberak lurra laboratu izana edo hegaztiak purra-purra gizendu izana? Ezagutu behar dena alabaina zera da, erabiltzen diren substantzien konstituzioa, geruza geologikoak, eragin atmosferikoak, lurren, mineralen, uren kalitatea, gorputz desberdinen dentsitatea eta beraien uiekortasuna! Zer dakit ba nik? Eta higienearen printzipio guztiak sakon jakin beharra dago,

zuzentzeko, kritikatzeko edifizioen eraikuntza, aberen erregimena, sehien elikadura! Eta botanika ere, madame Lefrançois, halaber jakin beharra dago; landareak bereizteko gai izan. Ulertzen duzu? Osasungarriak direnak edendunetatik; elkorrak zeintzuk diren eta zeintzuk elikakorrak; ona ote den hemen erauztea eta han ereitea, batzuk ugaltzea, beste batzuk deuseztatzea; labur esanda, zientziaren jakitun mantendu behar da txosten eta paper publikoen bidez, beti erne egon, aurrerapenak seinaltatzeko...

Ostalersak ez zion begirik kentzen *Café Français*-ko ateari, eta botikarioak segitu zuen:

— Jainkoak nahi baleza gure nekazariak kimikari izatea, edota gutxienez ere zientziaren aholkuak hobeto entzutea behintzat! Badut neuk ere lantxo bikain bat berriki idatzia, hirurogeita hamabi orrialdetatik gorako txostena: *Sagardoaz, bere fabrikazioaz eta bere ondorioez, horri buruzko zenbait gogoeta berriz jarraiturik* du izenburua, eta Rouengo Elkarte agronomikora igorri dut; horrek balio izan dit hartako partaide gisa onartua izateko ohorea, nekazaritza sekzio-

an, pomologia klasean. Begira! nire lantxoak publizitatera eman balitz...

Baina botikarioa gelditu egin zen, kezkatua ere hain kezkatua baitzirudien Lefrançois andreak.

— Begiraiezu ordea! zioen andreak, ez da ulertzekoa! Horrelako txiologa batean!

Eta, puntuzko bere jantzi-sarea bular gainean teinkatzen zion sorbalda-altxatze batekin, bi eskuez seinalatzen zuen bere lehiakidearen taberna, nondik une hartan kantuak irteten baitziren.

— Dena den, ez zaio luzerako geratzen, erantsi zuen; zortzi egun baino lehen, horrenak egin du.

Homaisek atzera egin zuen baldiduraz. Emakumeak hiru mailak jaitsi zituen, eta, hari belarri-  
ra mintzatuz:

— Baina nola! hori ez dakizu? Aste honetan enbargatu behar dute. Lheureux da salarazten duena. Ordaindukoz asasinatu du.

— Bai hondamendi izugarria! oihukatu zuen botikarioak, zeinak beti izaten baitzuen esaera egokiren bat helde imajinagarri orotarako.

Ostalersa beraz istorio hori kontatzen hasi zitzaion, zeina Theodoren, monsieur Guillauminen sehiaren bidez baitzekien, eta, Tellier gaitzetsi zuen arren, Lheureux kulpatzen zuen. Mihizuri bat zen, narrats bat.

— Ah! hortxe duzu, esan zuen, begira plazan: madame Bovary, ginbail berdea daramana, agurtzen ari da. Gainera madame, Boulangeren besotik doa.

— Madame Bovary! esan zuen Homaisek. Banoa korrika hari nire adeia eskeintzera. Agian atsegin izango du leku bat barruan edukitzea, peristilopean.

Eta, luzeago kontatzeko deika ari zitzaion Lefrançois atsoari entzun gabe, botikarioa pauso arinez urrundu zen, ezpainenetan irribarrea eta zangoa teink, ezker-eskuinetara diosala franko banatuz, eta bere atzetik haizetan kulunkatzen ziren bere frak beltzaren hegal handiez leku handiak beteaz.

Rodolphek, urrundik ikusi baitzuen, pauso azkarra hartu zuen; baina madame Bovary hatsantu egin zen; gizonak pausoa baretu zuen beraz eta irribarrez esan zion, tonu zakarrez:

— Gizon potolo horri itzur egitearren da: badakizu, botikarioari.

Emmak ukondoko bat eman zion.

— Zer esan nahi du horrek? galdetu zuen berekiko.

Eta betertzez begiratu zion, oinez aurrera jarraituz.

Bere perfila hain zegoen jabal, non ezer ez baitzen igarri. Argi betetan nabarmentzen zitzaion, kainabera horrien antzeko xingola zurailak zeuzkan bere txanoaren obaloan. Bere begiek, betile makotu luzedunak, zuzen aurrera begiratzen zuten, eta, nahiz eta ongi irekiak, matrailondoetan barrena apur bat saihestuak ziruditen, bere azal finaren pean emeki pirpiratzen zuen odolaren eraginez. Kolore arroxak batek zeharkatzen zuen bere sudur-ttenkada. Sorbalda gainerantz makurtzen zuen burua, eta bere ezpainen artean hortz zurien punta nakaratu ikusten zen.

— Nitaz trufatzen ari ote da? pentsatzen zuen Rodolphek.

Baina Emmaren keinu hura ordea, ohartarazpen bat besterik ez zen izan; zeren monsieur



Lheureux beraiekin baitzuten, eta aldian-aldian mintzatu egiten zitzairen, elkarrizketan sartzearen bezala.

— Egun bikaina benetan! Mundu guztia kalean dabil! Haizeak ekialdetik datoz.

Eta madame Bovaryk, Rodolphek bezalatsu, abantzu ez zion erantzuten, eta aldiz egiten zuten mugimendurik txikienean, hura hurbildu egiten zitzairen esanez: «Mesedez?» eta bere kapelara altxatzen zuen eskua.

Errementariaren etxe aurrera heldu zirenean, kalean barrena itxiturara arte segitu ordez, Rodolphek, bat-batean, zeharbide bat hartu zuen, madame Bovary berarekin erakarriz; oihukatu zuen:

— Arratsaldeon, Lheureux jauna! Atsegin izan dut!

— Nola hastandu duzun! esan zuen Emmak barrez.

— Zergatik, zioen gizonak, zergatik utzi inori norbera inbaditzen? eta, gaur, zurekin egoteko zoriona dudanez...

Emma gorritu egin zen. Gizonak ez zuen esaldia bukatu. Ondoren eguraldi ederraz mintzatu

zen, eta belar gainean ibiltzearen plazeraz. Margarita batzuk erneberriak ziren.

— Begira ze bitxilore politak, esan zuen gizonak, inguruetako neska maitemindu guztiei orakulurik franko egiteko aski legoke.

Erantsi zuen:

— Batzuk bilduko banitu? Zer iruditzen zaizu?

— Maiteminduta al zaude ba? esan zuen damak eztultxikika.

— Eh! eh! auskalo, erantzun zuen Rodolphek.

Belartzaria betetzen hasia zen, eta etxekoandreak tupust egiten zizuten beren guardasol handiekin, beren saskiekin eta beren umeekin. Sarritan norbera gaitzitu beharra zegoen landatar-emakume zerrenda luzeren baten aurrean, neskameak galtzerdi urdinez, oinetako zapalekin, zilarrezko eraztunekin, eta hurbiletik pasatzean esne-usaina botatzen zutela. Elkarri eskuetik helduta zebiltzan, eta horrela hedatzen ziren belartzariaren luzera osoan barrena, lertxun zerrendatik hasi eta orritserako dendaraino. Baina azterketaren momentua zen, eta nekazariak, bata bestearen ondoren, makila batzuetan

finkaturiko soka luze batek moldatzen zuen hipodromo antzeko batean sartzen ziren.

Abereak han zeuden, sudurra soka aldera jiraturik, beren gilbor desberdinak nahas-mahas errengaratzuz. Zerriek lozorroan muturra lurrean sartzen zuten; txahalak orroaka ari ziren; ardiak beeka; behiek, zango bat bildurik, belar gainean zeutzan beren sabela, eta, esnaurrean astiro, beren inguruan burrundari zebiltzan mandeulien pean betazal astunak ñikatzen zituzten. Orgariek, mahukahutsik, erremaletik eusten zieten kamezari putinkariei, zeinak irrintzi egiten baitzuten sudurzuloak betean behorren alderantz. Hauek soraio zeuden, burua luzatuz eta zurdea dilingo, bitartean beren moxalak beren itzalean abaro hartu edo tarteka titia edoskitzera etortzen zitzaizkiela; eta, gorputz nahaspilatu hauen guztien uhinduraren gaineratik, ikusten zen haizetara altxatzen, tirain baten gisa, kuma zuriren bat, edota adar zorrotzen batzuk eta korrika zebiltzan gizonen batzuen buruak gailentzen. Aparte, lehiatokitik at, ehun urrats urrunago, zezen beltz handi muturrekodun bat zegoen, sudurretan burdinazko uztai bat zuela, eta bron-

tzezko animalia bat baino gehiago mugitu gabe. Ume pildaire batek eusten zion soka batetik.

Halatan, bi errengaren artean barrena, jaun batzuk zihoazen pausaje astunez, abere bakoitza aztertuz, eta ondoren txutxumutxuka elkarri kontsultatuz. Haietariko batek, zeinak munta handiagokoa baitzirudien, album batean, zihoan eran, zenbait ohar idazten zuen. Epaimahaiko burua zen: Monsieur Derozerays de la Panville. Rodolphe hauteman zuen orduko, bizkor hurbildu zitzaion, eta aire adeitsu batez irribarre eginenez esan zion:

— Baina zer, monsieur Boulanger, abandonatu egiten al gaituzu? Rodolphek iharduki zuen bazetorrela. Baina mahaiburua desagertu zenean:

— Ez horratio, esan zuen, ez naiz joango: zure lagungoa hobea da horrena baino.

Eta, Biltzarrez trufa eginez, Rodolphek, aisekiago zirkulatzearren, bere txartel urdina erakusten zion jendarmeari, eta tarteka geratu ere egiten zen, madame Bovary abantzu miratzen ez zen *ieki* ederren baten aurrean. Horretaz ohartu zen, eta orduan Yonvilleko damei buruz txantxak

esaten hasi zen, haien apainkera zela-eta; gero bere burua desenkusatu zuen berearen zabarke-riagatik. Honek gauza arrunt eta fazatien inkoherentzia hori zeukan, non sumatu uste baititu, jende arruntak, maizenik, bizimodu xelege baten agerpena, sentimenduaren anabesak, artearen tiraniak, eta beti ere gizarteko eratsutasunekiko nolabaiteko arbuioa, horrek liluratzen duelarik edo amorrarazten. Horrela, eskutur plisatudun bere atorra batistazkoa haizearen menturara puzten zen, dril grisezko bere maripulixaren irekiduran, eta marra zabalezko bere galtzek txonkatiletan agerian uzten zituzten nankinezko bere botinak, txarolezko larruz estekatuak. Hain zeuden lustratuak non belarra islaratzen baitzen beraietan. Beraiekin zanpatzen zituen zaldigorotzak, esku bat txamarraren poltsikoan eta bere lastozko kapela alboka ipinirik.

— Bestalde, erantsi zuen, landan bizi izanez gero...

— Dena da alferreko pena, esan zuen Emmak.

— Egia da! ihardetsi zuen Rodolphek. Pentsa gero jende jator hauetarik bat bera ere ez dela

gai frak baten gorpuzkera berarik konprenitze-ko!

Orduan probintziako kaxkarkeriaz hitz egin zuten, hark itotzen zituen bizitzez, hartan gal-tzen ziren ilusioez.

— Neu ere, zioen Rodolphek, tristuratan mur-giltzen naiz...

— Zu! esan zuen Emmak harriduraz. Baina nik oso alaitzat ematen zintudan.

— Ah! bai, itxuraz, zeren jendearen artean badakit jartzen nire aurpegian mozorro isekari bat; eta, alabaina, zenbat bider, kanposantu bat ikustean, ilargi argitan, nire buruari galdetu dio-dan, ez ote nukeen hobe lo dautzanei lagun egi-tera joan...

— Oh! Eta zure lagunak? zioen damak. Ez duzu haietaz pentsatzen.

— Nire lagunak? Zeintzuk ordeak? Bai al dut lagunik? Nor kezkatzen da nitaz?

Eta azken hitz hauei ezpain artean xixtu bat bezala iratxekei zien.

Baina elkarrengandik aldentzera beharturik kausitu ziren, gizon batek beren atzean zeraman aulki-meta handi bat zela medio. Hain gainezka

kargatua zihoan non bere eskalaproien punta bakarrik ikusten baitzitzaien, zuzen zabalduriko bere bi besoen muturrekin batera. Lestiboudois zen, ehortzailea, elizako aulkiak jendetza artera garraiatzen. Bere interesei zegokien orotarako irudimenez jantzia, medio hau zuen aurkitua biltzarretatik etekina ateratzeko, eta bere ideia arrakastatsu suertatzen ari zitzaion, zeren jada ez baitzekien nori aditu. Izan ere herritarrak, beroa baitzuten, intsentsu-usaindun lastoa zuten aulki hauen harrapazka zebiltzan, eta kandelen argizariz zetakaturiko hauen bizkar sendoen kontra ezartzen ziren, nolabaiteko benerazioz.

Madame Bovaryk berriro Rodolphen besoa hartu zuen; bere buruarekin hizketan bezala segitu zuen gizonak:

— Bai! Hainbat gauza faltatu izan zait! Beti bakarrik! Ah! bizitzan helbururen bat izan banu, laztan bat topatu banu, norbait aurkitu banu... Oh! nola xahutuko nukeen gauza naizen energia guztia, dena gaindituko nukeen, dena hautsi!

— Halere iruditzen zait, esan zuen Emmak, ez zarela hain urrikalgarria.

— Ah! hala uste duzu? esan zuen Rodolphek.

— Zeren azken finean..., berriro Emmak, libre zara.

Eta zalantzaz:

— Aberatsa.

— Ez zaitez nitaz trufatu, ihardetsi zuen gizonak.

Eta Emmak zin egiten zuen ez zela trufatzen ari, kainoikada batek eztanda egin zuenean; berehala, nahas-mahasean elkarri bultzaka ziren denak herri alderantz.

Okerreko alerta bat zen. Prefet jauna ez zen iritsia; eta epaimahaiko partaideak biziki larriturik kausitzen ziren, batzarraldia hasi behar ote zuten hala artean itxoin behar zuten jakin ezinik.

Azkenik, plaza zokoan, alogerako lando handi bat agertu zen, bi zaldi argalek errestaturik, kapelu zuridun kotxero batek txandaka besagain zihoztatzen zituela. Binetek ez zuen oihukatzeko astia baino izan: «Armetara!» era koronelak hari imitatzeko. Jendeak kaparretarantz jo zuen korrika. Oldartu egin ziren. Batzu-batzuek beren idunekoa ere ahaztu zuten. Baina prefetaren jarraigoak larrialdi hura sumatu zuela zirudien, eta bi xamalko uztartuak, beren gurdikatearen gaine-



tik zaloika, trosta apalean heldu ziren udaletxe-ko peristiloaren aurrera juxtu goardia nazionala eta suhiltzaileak han barreiatzen ari ziren momentuan, danborra joz eta pausoa markatuz.

— Irmo! egin zuen garrasi Binetek.

— Geldi! egin zuen koronelak garrasi. Lerroka ezkerretara!

Eta, armak aurkeztu ondoren, non fusiluztaien talka egitean eskilaretan behera piririkatu den kobrezko pertzaren soinua atera baitzen, fusil guztiak beheratu ziren berriro.

Orduan ikusi zen karrozatik jaisten zilarrez brodaturiko frak motz batez jantzitako jaun bat, bekoki aldetik burusoila, kokotean galparra, larrantz beluria eta itxuraz biziki bihozbera. Bere bi begiak, oso handiak eta betazal lodiz babes-  
tuak, erdizka ixten ziren jendetzari begiratzeko, aldi berean sudur zorrotza altxatu eta bere aho barneratuari irribarre eragiten ziola. Alkatea bere xingolarengatik ezagutu zuen, eta hari adierazi zion Prefet jaunak ezin izan zuela etorri. Bera, prefekturako kontseilari bat zen; ondoren zenbait desenkusa erantsi zuen. Tuvachek zenbait konplimendurekin erantzun zion, bestea

ahalketurik aitortu zen; eta horrelaxe geratu ziren, aurrez aurre, beren bekokiak ia elkar ukituz, inguruan epaimahaiko partaideak, udal zinegotziak, jauntxoak, goardia nazionala eta jendetza zituztela. Jaun Kontseilariak, hirugarren txapel txiki beltzari bere bularraren kontra eutsiz, bere olesak errepikatzen zituen, aldiz Tuvachek, mako baten gisa makurturik, berak ere irribarre egiten zuen, totelkatzen zuen, bere esaldiak bilatzen zituen, monarkiarekiko bere atxikimendua eta Yonvillen egiten zitzaion ohorea aldarrikatzen zituen.

Hippolyte, ostatuko morroia, etorri zen kotxe-roaren zaldia erremaketik hartzera, eta bere hankokerraz herrenka, Lion d'Oreko estalpera eramanez zituen, non nekazari ugari multzotu baitzen landoari begira. Danborrak jo zuen, kainoiak eztanda egin zuen, eta jaunak lerroan tranpalera igo ziren esertzera, madame Tuvachek laga zituen Utrecht gorrizko besalkietan.

Jende hauek guztiek elkarren antza zuten. Beren aurpegi gorrailek apotzek, eguzkiak apur bat sispilduak, pitargoaren kolorea zuten, eta beren papilote harroek alde egiten zuten idune-

ko handi gogorretatik, zeinak ongi moldaturiko korapilodun korbata zuri batzuk mantentzen baitzituzten. Gerrontze guztiak balusazkoak ziren, lepokodunak; erloju guztiek zeramaten xingola luze baten muturrean kornalinazko zigilu obalaturen bat; eta beren bi eskuak beren bi izterren gainean ipintzen zituzten, bota trinkoen larruak hain leinurutsuago distiratzten zuen xurpailgabe-ko oihalezko galtzen zankartea tentuz apartatuz.

Gradu handiko damak atzean zeuden, afa-londan, pilareen artean, aldiz jende arrunta aurrean, zutik, edota aulkietan eserita. Hain zuzen, Lestiboudoïsek ekarriak baitzituen belarditik bildutako guztiak, eta elizatik beste gehiagoren bila ere bazebilen minutuero korrika, eta halakoxe zaramatika eragiten zuen bere tratugintzarekin, non lan handia baitzen tranpaleko eskilara txikiraino iristen.

— Niri iruditzen zait, zioen monsieur Lheureuxek (bere lekua hartzera zihoan botikarioari zuzendurik) bi masta veneziar ipini behar zirela hor: berrikuntza gisa gauza larderiatsu xamar eta aberats batekin, oso polit egingo zukeen begibistara.

— Halaxe da, erantzun zuen Homaisek. Bai, zer nahi duzu ba! alkatea baita guztia bere kape-lupean hartu duena. Ez du gusto handirik, Tuva-che gizajo horrek; eta arteen jeinua deritzan horretatik zeharo soil ere soil dago.

Bitartean Rodolphe, madame Bovaryrekin, udaletxeko lehen solairura igoa zen, *biltzar are-tora*, eta, hutsik zegoenez, ikuskizunaz lasaiago gozatzeko han ongi egongo zirela adierazi zuen. Hiru taburete hartu zituen mahai obalatuaren ondotik, monarkaren irudiaren petik, eta, leihoe-tariko batera hurbildurik, elkarren ondoan eseri ziren.

Zalaparta bat izan zen tranpal gainean, xuxurlaketa luzeak, negoziaketak. Azkenik, jaun Kontseilaria zutitu zen. Orain bazekiten Lieuvain zeritzala, eta haren izena bata besteari errepika-tzen ari ziren jende artean. Beraz orri batzuk parekatu ondoren eta hobeto ikustearren begia haien gainera doitu ondoren, ekin zion:

«Jaunak,

»Zilegi bekit lehenik (gaurko bilera honen xedeaz zuekin mintzatu aurrez, eta sentimendu honetan, ziur naiz, zuek guztiok bat etorriko

zarete), zilegi bekit, esan bezala, justizia egitea administraritzaren gorenari, gobernuari, monarkari, jaunak, gure subiranoari, gure errege maitatuari, zeina ez baita ezaxolati joritasun publikoaren nahiz pribatuaren arlo orori dagokionean, eta zeinak esku hain irmoz eta hain zuhurrez gidatzen baitu Estatuaren organo itsaso ekaizti bateko arrisku etengaberen artean, bestalde jakinez bakea nahiz gerla, industria, merkataritza eta arte ederrak errespeta arazten».

— Pixka bat, zioen Rodolphek, atzeratu egin beharko nintzateke.

— Zergarik? esan zuen Emmak.

Baina, momentu horretan, Kontseilariaren ahotsa aparteko tonu batez ozendu zen. Deklamatzen ari zen:

«Jada ez da garai hura, jaunak, non liskar zibilak odoltzen baitzituen gure plaza publikoak, non ondasunduna, negozio-gizona, langilea bera ere, arratsean bake-bakean lotaratu, sute-deien zarataz bat-batean esnaturik gertatzearen beldur-ikaraz baitziren, non esakera iraultzaileen azpijaten baitzituzten oinarriak ozarki...».

— Izan ere, zioen berriro Rodolphek, behetik ikus bainazakete; eta gero hamabost egun behar izango nituzke desenkusatzan, eta, nire aipu txarrarekin...

— Oh! zeure burua beltzitzen ari zara, esan zuen Emmak.

— Ez, ez, nire aipua arbuiagarria da, zin egi-ten dizut.

«Baina, jaunak, jarraitu zuen Kontseilariak, baldin eta, nire oroitzapenetik irudi goibel hauek apartatuz, gure aberri ederraren gaur egungo egoerara nire begiak zuzentzen baditut: zer dakust bertan? Edonon loratzen dira merkataritza eta arteak; edonon komunikazio-bide berriek, Estatuaren gorputzean beste hainbeste arteria berri gisa, haren baitan hartueman berriak finkatzen dituzte; gure lantegi-zentro nagusiek beren jarduerari berriro ekin diote; erlijioa, finkoago, bihotz guztietan kokatzen da alai; gure portuak beterik daude, konfidantza erneberritzen ari da, eta azkenik Frantziak arnasa hartzen du!...».

— Bestalde, erantsi zuen Rodolphek, agian, jendearen ikuspuntutik, ez ote dute arrazoi?

— Nolaz? esan zuen Emmak.

— Zer ba!, zioen gizonak, ez al dakizu ba, zuk, badaudela anima batzuk etengabe oinazetuak? Txandaka behar izaten dituzte ametsa eta ekintza, grinarik xahuenak, gozamendurik zakarrenak, eta horrela oldartzen dira molde orotako fantasiatan, erokeriatan.

Orduan Emmak, aparteko herrialdetan barrena ibilia den bidaiaria betesten den bezala begiratu zion, eta esan zuen:

— Guk ez daukagu jolas horrenik ere, guk emakume gaixook!

— Jolas tristea, zeren horretan ez baita zoriona kausitzen.

— Baina inoiz kausitzen al da? galdetu zuen damak.

— Bai, noizbait ere kausitzen da, erantzun zuen gizonak.

«Eta hortxe dago zuek ulertu duzuen, zioen Kontseilariak. Zuek, nekazariok eta landa-langileok; zuek, erabateko zibilizazio-obra baten aitzindari baketsuok! aurrerakuntzarako eta moralitaterako gizonok! zuek ulertu duzue, berriz diot, ekaitz politikoak benetan are beldur-

garriagoak direla atmosferaren nahastaldiak baino...».

— Noizbait topatu egiten da, errepikatu zuen Rodolphek, egun batez, bat-batean eta etsitzeko zorian zeundenean. Orduan ikuspegiak zabalduxe egiten dira, ahots bat bezala da oihuka: «Hemen da!» Pertsona horri zure bizitzaren kointa egiteko beharra sentitzen duzu, dena berari emateko, dena sakrifikatzeko beharra. Ez da esplikaziorik izaten, elkar sumatzen dute. Elkar hautemana dute beren ametsetan. (Eta begiratu egiten zion). Azkenean ere, hortxe da, hainbeste bilatutako altxor hori, hortxe, zeure aurrean; distira egiten du, pindarka egiten du. Halere zalan-tza egiten duzu oraindik, ez zara sinestera ausartzen; itsuturik geratzen zara, ilunpetatik argitara irtetean bezala.

Eta, hitz hauek bukatzean, Rodolphek imintzioa erantsi zion bere esaldiari. Eskua pasatu zuen aurpegian, zorabioak jo duen gizon baten gisa; gero Emmarenaren gainera erortzen laga zuen. Emmak erretiratu egin zuen bere eskua. Baina Kontseilariak irakurtzen segitzen zuen:



«Eta nor harrituko litzateke, jaunak? Bakar-bakarrik nahiko itsu dagoena, nahiko murgildurik dagoena (ez naiz beldur esatean) nahiko murgildurik dagoena beste garai bateko aurreritzietan oraindik ere nekazal herrien izpiritua ez ezagutzeko eran. Non aurkitu, hain zuzen, landa-herrietan baino abertzaletasun gehiago, kausa publikoarekiko zaletasun gehiago, hitz batean, inteligentzia gehiago? Eta ez naiz ari, jaunok, axaleko inteligentzia horretaz, izpiritu nagien apainduria hutsalaz, baizik eta adimen sakon eta zuhur horretaz gehienbat, zeina saiatzen baita ororen gainetik helburu baliagarriak lortzen, horrela bakoitzaren onerako, guztion onurarako eta Estatuaren sostengutarako lagunduz, legeekiko errespetuaren eta betebeharren praktika-  
ren fruitu...».

— Ah! berriz ere, esan zuen Rodolphek. Beti betebeharrak, abaildurik nago hitz horiez. Zuntzun zahar saldo bat dira flanelazko gerrontzez, eta txopetadun eta errosariodun saildujale saila, etengabe gure belarrietara leloka: «Bete-  
bharra! Betebharra!» Zer arraio gero! bete-  
bharra, handia dena sentitzea da, ederra dena

maitatzea, eta ez gizarteko itxurakeria guztiak onartzea, ezartzen dizkigun desohore guztiekin.

— Halere..., halere..., ihardukitzen zuen madame Bovaryk.

— Ba ez! zergatik jardun grinena kontra? Ez al dira ba hauek, lur honetan dagoen gauza eder bakarra, heroismoaren iturria, entusiasmoarena, poesiarena, musikarena, arteena, oroena alegia?

— Baina, zioen Emmak, munduaren iritziari apur bat jarraiki beharra dago eta haren moralari obeditu.

— Ah! baina bi moral daude, erantzun zion gizonak. Bata txikerra, aurnitua, gizonena, etengabe aldatzen ari dena eta hain ozenki marru egiten duena, behean zalapartatzen dena, lurrazalean, hor ikusten duzun ergel multzo hori bezala. Bestea ordea, sekulakoa, baranoan eta gaintetik dago, inguratzen gaituen paisaia eta argitzen gaituen zero urdina bezala.

Monsieur Lieuvainek ahoa xukatu berri zuen bere musuzapiaz. Berriro ekin zion:

«Eta zertarako aritu ni, jaunak, laboraritzaren baliagarritasuna zuei hemen frogatzen? Nork

zuzkitzen du ba gure beharretarako? Nork hornitzen du ba gure bizibiderako? Ez al da laboraria? Laboraria, jaunak, bere esku lankorraz landetako ildo jorietan ereinez, garia ernarazten duen laboraria, gari hau eihorik aparailu bitxiren bidez hauts bihurtzen baita, horretatik hirin izenez irteten delarik, eta, gero, hirietara garraiaturik, berehala eramaten dute okinenera, zeinak atontzen baitu hartaz pobrearentzako nahiz aberatsarentzako hazkurria. Ez al da halaber laboraria bere artalde ugariak, gure jantzitarako, belazee-tan gizentzen dituen? Zeren nola jantziko ginateke gu, zeren nola elikatuko ginateke gu laboraririk gabe? Eta joan ere, jaunok, exenplu bila hain urrun joan beharra al dago? Nork ez du sarritan pentsatu, gure lobirotako apainduria horretatik, abere apal horretatik ateratzen den etekin garrantzitsuaz, zeinak hornitzen baikaitu aldi berean gure etzanguetarako burko bigunez, gure mahaietarako okela guriz, eta gainera arraultzez? Baina ez nuke bukatuko baldin eta zerrendan eman behar banitu bata bestearen ondoren, lur ongi landuak, ama eskuzabal batek bezala, bere hurrei oparo banatzen dizkien

ekoizkin desberdinak. Hemen mahastia da, beste horretan sagardo-sagarra; han koltza; beste hartan gaztak; eta linoa; jaunak, ez dugu ahaztu behar linoa! zeinak azken urte hauetan gehikuntza nabarmena izan baitu eta zeinari buruz bereziki ohartarazi nahi baitzaituztet».

Ez zegoen ohartarazi beharrik: zeren jendetzaren aho guztiak irekirik baitzeuden, haren mintzoak edateko bezala. Tuvachek, haren alboan, begiak zabal-zabalik entzuten zion; Doroze-rais jaunak, aldian-aldian, ez tiro ixten zituen betazalak; eta, urrunago, botikarioak, bere seme Napoleon belaunen artean zuela, bere eskua uztaitzen zuen belarriaren kontra silaba bat bera ere ez galtzearren. Epaimahaiko beste partaideek beren kokotsa astiro kulunkatzen zuten gerrontze baitan, baiespen seinale gisa. Suhiltzaileek, tranpalaren oinean, beren baioneten gainean hartzen zuten atsedeen; eta Binet, geldigeldi, ukondoa kanpora zegoen, sablearen punta airean zuela. Entzuten zuen agian, baina ez zuen ezer hauteman behar sudur gainera jaisten zitzaion bere kaskoaren hegala medio. Bere lekutenienteak, musde Tuvacheren seme gaz-

teenak, are bapikatuago zuen berea; zeren egundokoa baitzeraman eta buru gainean dilinda egiten baitzion, indianazko bere fularraren motor bat kanporatzen utziz. Haren pean irribarre egiten zuen erabateko haur-eztitasunez, eta bere aurpegi txiki zurailak, iztilak zerizkiola, bozkario, akidura eta logale espresioa zeuzkan.

Plaza etxeetaraino jendez gainezka zegoen. Leiho guztietan ikusten zen jendea ukondoak tinkaturik, beste batzuk zutik ate guztietan, eta Justinek, farmaziaren aran aurrean, begiratzen zutenaren betespenean zeharo tinkaturik zirudien. Isiltasuna arren, monsieur Lieuvainen ahotsa airean galtzen zen. Jende arteko aulki zaratek han-hemenka mozten zituzten esaldi-puskaka iristen zitzaizun; gero, bat-batean, idi-marrua luze bat entzuten zenuen zeure atzetik irteten, edota arkumeen beekarak kalertzetan elkarri erantzuten. Eskierki behizainek eta artzainek beren abereak haraino bultzatuak baitzituzten, eta aldian-aldian marruaka egiten zuten, muturretik zintzilik zuten hostailetik beren mihiaz izpirren batzuk erauziz.

Rodolphe Emmarengana hurreratua zen, eta ahapeka esaten zuen, agudo hitz eginez:

— Munduaren zimarku honek ez al zaitu asaldatzen? Bai al da sentimendu bat bakarrik ere horrek gaitzesten ez duenik? Instinturik nobleenak, sinpatiarik garbienak jazarri egiten dituzte, kalumniatu, eta, noizbait ere bi arima gaixok elkarrekin topo egiten badute, dena antolaturik dago bateratzerik izan ez dezaten. Arima horiek ordea saiatuko dira, hegoei eragingo diete, elkarri dei egingo diote. Oh! ez dio axolarik, goiz edo berandu, sei hilabete barru, hamar urte barru, elkartu egingo dira, elkar maitatuko dute, zeren halabeharrak hala galdatzen baitu eta bata bestearentzat jaioak baitira.

Besoak belautzen ganean gurutzaturik zegoen, eta, horrela aurpegia Emmarenganantz altxatuz, hurbiletik so egiten zion, finkoki. Damak haren begietan urrezko izpi txikiak somatzen zituen, bere betsein beltzen inguru guztira izarniatuz, eta haren adatsa ziratzen zuen ukenduaren lurrina ere nabaritzen zuen. Orduan ahuldura batek jo zuen, Vaubyessarden dantzara atera zuen bizkondeaz oroitu zen, zeinaren biza-

rrak, bertako ile haiek bezala, bainila eta limoi usaina lurrintzen baitzuen; eta, oharkabeki, betazalak erdixka itxi zituen hura hobeto arnasteko. Baina, aulkian sorbaldak atzeraka etzanez egin zuen higidura honetan, urrunean hauteman zuen, ostertzeko zokoan, *L'Hirondelle* diligentzia zaharra, Leuxko aldapa astiro jaisten, bere atzetik errestan hauts-morots luzea zuela. Lando hori horretan zitzaion Leon, hain sarritan, bereganantz etorria; eta errepide horretan barrena joan zen betirako! Aurrez aurre ikusi uste izan zuen, bere leihoan, gero dena nahastu zen, laino batzuk iragan ziren; artean valsean jiraka zebilela iruditu zitzaion, argi-dilingoen pean, bizkondearen besotik, eta Leon ez zela urruti, etorri behar zuela... eta artean ere Rodolpheren burua sentitzen zuen bere alboan. Sentipen honen ezintasuna barneratu egiten zen honela garai bateko bere irritsetan, haize bolara baten eraginez hondar-aleak bezala, hauek zurrunbilatu egiten ziren haren arimaren gainean zabaltzen zen lurrinaren buhadan. Behin eta berriz ireki zituen sudurregalak, bortizki, ginbelen inguruko huntzaren freskura arnasteko. Eskuzorroak erantzi

zitzen eta eskuak xukatu zituen; gero, bere musuzapiaz, aurpegia haizatzen zuen, bere lokien taupadatan zehar jendetzaren zurrumurrua eta bere esaldiak salmodiatzen ari zen Kontseilariaren ahotsa entzuten zituen bitartean.

«Jarrai ezazue! Eutsi iezaiozue! ez entzun ohikeriaren burutazioak, ezta enpirismo ausartegiaren aholku arinegiak ere! Saia zaitezte batez ere lurraren hobekuntzan, ongarrri bikainetan, zaldi, abelgorri, ardi eta urde arrazen garakuntzan! Biltzar hauek izan daitezela zuentzat lehiazelai baketsu gisa non irabazleak, irteerakoan, eskua luzatuko baitio bentzutuari eta anaia gisa jokatu harekin, arrakasta handiago baten esperantzan! Eta zuek, morroi agurgarriok! sehi apalok, zeintzuen lanbide nekosoak ezein gobernuk ez baititu aintzakotzat hartu gaurdaino, zatozte zuen bertute isilaren saria jasotzera, eta ziur izan zaitezte, Estatuak gaurgero zuengan finkaturik dituela begiak, berak adoretzen zaituztela, berak babesten zaituztela, zuen erreklamazio justuak bidezkoztat jasoko dituela, eta arinduko duela, bere esku dagoen heinean, zuen sakrifizio nekosoan zama!».



Monsieur Lieuvain hartan eseri zen; Monsieur Derozerays zutitu zen, beste hitzaldi bati ekinez. Honena, agian, ez zen izan Kontseilariarena bezain loretsua; baina hau estilo-aiurri positiboago batez baliatzen zen, alegia, ezagutza bereziagoz eta kontsidero garrantzitsuagoz. Beraz, gobernuaren laudorioak leku gutxiago hartzen zuen honetan; erlijioak eta laboraritzak betetzen zuten gehiago. Han ikusten zen bataren eta bestearen arteko zerikusia, eta nola lehiatu ziren beti zibilizazioaren alde. Rodolphe, Madame Bovaryrekin, ametsez, sentikizunez, magnetismoaz ari zen solasean. Gizartean sorburuetaraino joanez, ari zen hizlaria deskribatzen garai ohil haiek, non gizonak ezkurrez bizi baitziren baso zokoetan. Gero piztiak larrutzeari utzi zioten, oihalak soineratu, soroak goldatu, mahastia landatu zuten. Hau onerako al zen, eta ez al zegoen aurkikuntza honetan abantaila baino eragozpen gehiago? Derozerays jaunak auzi hau planteiatzen zuen. Magnetismotik, poliki poliki, kide-tasunetara heldua zen Rodolphe, eta, Jaun Presidenteak Cincinnatus bere goldean, Diocletien bere azak landatzen eta Txinako enperadoreak

urteak hazaroz inauguratzen aipatu bide zituen bitartean, gizon gazteak emakume gazteari azaltzen zion, erakarpen jarkiezin haiek aurretiko beste bizialdiren batean zutela beren zergatia.

— Esateko, guk, zioen, zergatik ezagutu dugu elkar? Zein halabeharrek nahi izan du? Dudarik gabe, urruntasunean barrena, bateratzera doazen bi ibai bezala, gure isuri partikularrek elkarrengana bultzatu gaituztelako izan da.

Eta haren eskua hartu zuen; Emmak ez zuen erretiratu.

«Orohar laboretza onak!» zioen oihuka presidenteak.

— Hala, adibidez, ni zure etxera etorri nintzeanean...

«Bizet jaunari, Quincampoixtarra».

— Ba al nekien nik zuri lagun egin behar nizunik?

«Hirurogeita hamar libera!».

— Ehun aldiz behintzat alde egin nahi izan dut, eta baina zuri jarraiki natzaizu, geratu egin naiz.

«Simaurrak».

— Gaur arratsean geratuko naizen bezala, eta bihar, eta ondorengo egunetan, nire bizitza guztian!

«Caron jaunari, Argueilkoa, urrezko domina bat!».

— Zeren inoiz ez dut aurkitu inongo lagunen baitan xarma hain erabatekoa.

«Bain jaunari, Givry-Saint-Martingoa!».

— Nik ere bai, niregan eramango dut zure oroitzapena.

«Merino-ahari batengatik...».

— Baina ahaztu egingo nauzu, itzal bat bezalaxe iragango naiz.

«Belot jaunari, Notre-Damekoa...».

— Oh! ez, ni zerbait izango naiz zure pentsamenduan, zure bizitzan, ez da hala?

«Urde-arraza, saria *ex aequo*: Leherisse eta Cullembourg jaunei; hirurogei libera!».

Rodolphek eskua estutzen zion, eta bero-bero sentitzen zuen eta dardarati, berriro hegaztatu nahi duen usapal gatibuaren gisa; baina, nahiz eskua askatu nahi zuelako edota presio hari erantzuten ziolako, damak behatz-higidura bat egin zuen; gizonak esan zuen:

— Oh! Eskerrik asko! Ez nauzu bazterten!  
Bai ona zarela! Ulertzen duzu zurea naizela!  
Utzidazu zu ikusten, zu kontenplazten!

Leihoetatik heldu zen haize bolada batek mahaiko tapiza zimurkatu zuen, eta, plazan, behean, laborari-emakumeen tximel handi guztiak altxatu ziren, zalapartan dabiltzan tximeleta zuriren hegoak antzo.

«Ale oliotsuren patsaren erabilpena», jarraitu zuen presidenteak.

Presaka ari zen:

«Ongarri flandestarrak, — linuaren laboretza, — urxukagintza, luzarorako maiztertza, — sehien zerbitzuak».

Rodolphek ez zuen jada hitz egiten. Elkarri begira ari ziren. Irrits goren batek dardara eragiten zien beren ezpain agorre; eta, ezarian, oldargabe, beren behatzak elkar nahasi ziren.

«Catherine-Nicaise-Elisabeth Leroux, Sassetot-la-Guerrierecoa, etxalde berean berrogeita hamalau urtez zerbitzatu izanagatik, zilarrezko domina — hogeita bost liberatako sariduna!

»Non da bera, Catherine Leroux?» errepikatu zuen Kontseilariak.

Emakumea ez zen aurkezten, eta ahotsak entzuten ziren xuxurlaka:

— Zoaz ba!

— Ez.

— Ezkerretara!

— Ez zaitez beldur izan!

— Ah! zer nolako tuntuna!

— Zer, hemen al da? zioen oihuka Tuvachek.

— Bai!... hemen da!

— Hurbil dadila ba!

Orduan ikusi zen tranpalera hurreratzen planta beldurtidun andre xahar txiki bat, bere pilda pobreen barruan kuzkurturik zirudiela. Oinetan zurezko eskalaproin lodiak zituen, eta, gerritik behera, mantal urdin handi bat. Bere aurpegi argala, burutxeta mendelgabe batez inguratua, errezil-sagar ximel bat baino zimurragoa zegoen pleguz, eta bere zokota gorriaren mahuketatik bi esku luze irteten ziren, juntura lakardunak. Bihitegietako hautsak, lixubetako potasak eta artileen koipeak hainbeste zizkioten lazkartu, urratu eta gogortu non zikinak baitziru-diten ur garbitan ikuziak zituen arren; eta, zerbitzatu izanaren poderioan, erdi irekiak geratzen

ziren, jasandako hainbat sufrikarioren testigantza umila beren kasa aurkeztearren bezala. Monje-zorroztasunezko zertxobaitek nabarmentzen zuen haren aurpegiaren espresioa. Tristura edo hunkidurazko ezerk ez zuen biguntzen begirada zurbil hura. Abereekin usutua izaki, hauen mututasuna eta naretasuna bereganatuak zituen. Lehen aldia zuen hainbestearainoko jendetzaren erdian aurkitzen zela; eta, banderengatik, danborrengatik, frak beltzez jantzitako jaunengatik eta Kontseilariaren ohorezko gurutzearengatik bere barnean izaturik, geldi-geldi zegoen, aurreratu behar zuen ala ihes egin behar ote zuen jakin gabe, zergatik jende guztiak bultza egiten zion eta zergatik aztertzaileek irribarre egiten zioten jakin gabe. Horrela zegoen, burges bozkari haien aitzinean, sehkuntzako mende-erdi hau.

— Hurbil zaitez, Catherine-Nicaise-Elisabeth Leroux agurgarri hori! esan zuen Kontseilari jaunak, zeinak hartua baitzuen presidentearen eskuetatik sarituen zerrenda.

Eta paper-orria eta gero andre xaharra txandaka aztertuz, aita baten tonuaz errepikatzen zuen:

— Hurbil zaitez, hurbil zaitez!

— Gorra al zara? esan zuen Tuvachek, bere aulkian jauzi egin ez. Eta belarrira oihuka hasi zitzaion:

— Berrogeita hamalau urtetako zerbitzuak! Zilarrezko domina! Hogeitabost libera! Zuretzat da.

Gero, bere domina hartu zuenean, begiratu egin zion. Orduan dohatasunezko irribarre bat zabaldu zitzaion aurpegian, eta joatean, murduskatzen entzuten zitzaion:

— Herriko apaizari emango diot, nire aldeko mezak eman ditzan.

— Zer nolako fanatismoa! zioen botikarioak notarioaren aldera makurturik.

Ospakuntza bukatua zen; jendea sakabanatu egin zen; eta, hitzaldiak jada irakurriak zirenez, bakoitzak berriro bere lerruna hartzen zuen eta den ohiturara itzultzen zen: nagusiek sehiak ebaintzen zituzten, eta hauek abereak makilka-

tzen zituzten, adarren artean koroa berde bat, berriro ikuilura zihoazen garaile soraioak.

Bitarte horretan goardia nazionalak udaletxe-ko lehen oinera igo ziren, beren baionetetan opilak burruntzaturik, eta batailoiko danborreroak otarre bat botila zeramala. Madame Bovaryk Rodolpheren besoa hartu zuen; honek bere etxera lagundu zion; atarian banandu ziren; gero gizona bera bakarrik pasiatzen ibili zen belazean, bazkal ordura arte hartan itxoinez.

Orritsa luzea izan zen, zaratatsua, gaizki zerbitzaturik; hain zeuden pilakatuak non nahiko lan baitzen ukondoak higitzen, eta eserlekutarako baliaturiko ohol meharrak hausteko zorian izan ziren bazkaltiarren zamaren pean. Oparo jaten zuten. Bakoitzaren kuota-partearen heinean opa zion norberak bere buruari. Izerdia zerien bekoki guztiei; eta lain zurizka bat kulunkatzen zen, ibai baten lurruna udazkeneko goiz batez bezala, mahaiaren goialdean, kinke dilingoen artean.

Rodolphek, denda-oihalaren kontra bizkarra etzanik, hain gotorki pentsatzen zuen Emmaz, non ez baitzuen ezer entzuten. Bere atzean, belar gainean, sehiek plater zikinak pilakatzen



zituzten; bere albokoak hizketan ari ziren, berak ez zien ihardesten; edalontzia betetzen zioten, eta pentsamenduan isiltasuna kokatzen zitzaion, marmarizoa ozentzen joan arren. Emmak esan zuenaz eta haren ezpainen formaz ari zen amestetan; haren aurpegiak, ispilu magiko batean bezala, 'xakoen' plaka gainean distiratzten zuen; haren soinekoaren tolesdurak hormetan behera jaisten ziren, eta maitasun egunak amaigabeki iragaiten ziren etorkizunaren ikuspegietan.

Arratsean ikusi zuen berriro, su-festa denboran; baina bere senarrarekin, madame Homaise-kin eta botikarioarekin zegoen, zeina sobera alaitzen baitzen galdutako suzirien arriskuarengatik; eta, momentuoro, bere lagunak utzi eta Binetengana joaten zen gomendioak egitera.

Muscle Tuvacheren helbidera igorritako pieza piroteknikoak, gehiegizko arretaz, haren sotoan giltzapetuak egon ziren; horrela polbora umela nekez sutzen zen eta parterik nagusiena, herensuge bat isatsa hozkatuz irudikatu behar zuena, erabateko porrota izan zen. Noizean behin, erro-ma-kandela arloteren bat ateratzen zen; orduan jendetzak ahozabalik deiadarka hasten ziren,

hartan nahasten zirelarik ilunpetan gerrondoan kilikatzen zituzten emakumeen garrasiak. Emma, isilik, Charlesen sorbaldaren kontra kuku-bilkatzen zen ernekiro; gero, kokotsa altxaturik, suzirien argi xurrustarei segitzen zien ortzi beltzean. Pizturik zeuden argi-txilinen leinurutara betesten zuen Rodolphek.

Poliki-poliki itzali egin ziren. Izarrak piztu ziren. Euri tanta batzuk erori ziren. Emmak buruko-kozia lotu zuen bere burutsean.

Une horretan, Kontseilariaren landoa irten zen ostatutik. Bere kotxeroa, hordi baitzegoen, bat-batean lozorroak hartu zuen eta urrunetik hautematen zen, kapotaren gainetik, bi argimutilen artean, bere gorputzaren mukulua, eskuintetara nahiz ezkerretara zabuka, azpibabeen tangalen arabera.

— Benetan, esan zuen botikarioak, gogor zigortu beharko litzateke hordikeria! Udaletxeko atarian, taula 'ad hoc' batean, astero idatziz azaltzea nahi izango nuke nik, astean zehar edozein alkohol ez intoxikatu diren guztien zerrenda. Bestalde, estatistikari dagokionez, hortxe izango

genituzke urtekari ageri gisa, eta hauek, behar izanez gero,... Baina barkatu.

Eta beste behin ere kapitainarengana joan zen korrika.

Hau etxera zihoan. Bere tornua ikustera zihoan.

— Agian ez zenuke gaizki egingo, esan zion Homaisek, zure gizonetariko bat bidaliko bazenu edo zeu joango bazina...

— Utz nazazu ba bakean, erantzun zuen zergabiltzaileak, zeren eta ez baita ezer!

— Lasai egon zaitezte, esan zuen botikarioak, bere lagunen ondora itzuli zenean. Monsieur Binetek ziurtatu dit, neurriak hartuak direla. Inolako txingarrik ez da eroriko. Uhagak beterik daude. Goazen lotara.

— Bai horixe! badut beharra ere, esan zuen madame Homaisek, ahozabalka ondotxo ari baitzen; baina ez dio axolarik, egun ederra izan dugu benetan gure jairako.

Rodolphek ahapeka errepikatu zuen begirada samur batez:

— Oh! bai, benetan ederra!

Eta, agurtu ondoren, bizkarra eman zioten elkarri.

Bi egun geroago, *Fanal de Rouen*-en artikulu handi bat zegoen biltzarrei buruz. Homaisek moldatua zen, etorri handiz, biharamunean bertan:

«Zergatik buruntza haiek, lore haiek, lili-ustai haiek? Norantz lehiatzen zen jendetza hura, itsaso haserre bateko uhinen gisa, eguzki tropikal baten turrustapetan, zeinak zabaltzen baitzuen bere beroa gure soroen gainera?».

Ondoren, laborarien kondizioaz mintzatzen zen. Egia, gobernuak asko egiten zuen, baina ez aski! «Aurrera! egiten zion oihu; mila erreforma dira behar-beharrezkoak, burutu ditzagun». Ondoren, Kontseilariaren sarrerari ekinez, ez zuen inola ere ahazten «gure gudalostearen aire martziala», ezta «gure herriko emakume bizkorrenak», ezta agure burusoilak ere, «han zeuden patriarka irudikoak, zeinetariko batzu-batzuk, gure falange hilezkorren apurrak, oraindik ere beren bihotzak taupaka sentitzen baitzituzten danborren doinu arrarekin batera». Epaimahaiko partaideen artean bere burua aipatzen zuen

lehenetarikoa, eta gogorarazi ere egiten zuen, ohar batean, ezen Monsieur Homaisek, farmazialariak, Txosten bat bidalia zuela sagardoari buruz Nekazaritza Elkartera. Sarien banaketara heltzen zenean, taiu ditiranbikoz deskribatzen zuen sarituen bozkarioa. «Aitak bere semea besarkatzen zuen, anaiak anaia, senarrak emaztea. Bat baino gehiagok erakusten zuen harrotasunez bere domina umila, eta zalantzarik gabe, etxeratzean, etxekoandre zintzoarekin batera, negarrez zintzilikatuko zuten beren bordatxoko horma apaletan.

«Seiak aldera, afari batek, monsieur Liegearden belartzarian prestatua, jaiko partaide nagusienak bildu zituen. Arraiziarik handiena ez da eten unetxo batez ere. Askotariko topak bota dira: Monsieur Lieuvainek, monarkarengatik! Monsieur Tuvachek, prefetarengatik! Monsieur Derozeraysek, laboraritzarengatik! Monsieur Homaisek, industria eta arte ederrengatik, bi ahizpa hauengatik! Monsieur Leplicheyk, hobe-kuntzengatik! Arratsean, su-festa distirante batek argitu ditu bat-batean aireak. Esan zitekeen benetako kaleidoskopia zela, benetako

opera apainduria, eta, une batez, gure herri txikiak uste ahal izan du *Mila eta Bat Gau*-etako ipuin baten erdira eramana zutela.

»Egiazta dezagun, inolako gertakari dohakaitzik ez dela heldu famili-biltzar hau nahastatze-ra».

Eta eransten zuen:

«Bakar-bakarrik apezteriaren falta nabaritu da. Sakristiek, nonbait, beste era batean uler-tzen dute aurrerapidea. Hor konpon, jaun Loiolatarrok!».

## —IX—

Sei aste iragan ziren. Rodolphe ez zen itzuli. Arrats batez, azkenik, azaldu zen.

Biltzarren biharamunean esana zion bere buruari:

— Ez gaitezen hain agudo itzuli, huts egitea litzateke. Eta, astearen buruan, ehizara joana zen.

Ehizaren ondoren, beranduegi zela pentsatu zuen, gero arrazonamendu hau egin zuen:

— Baina, lehen egunetik bertatik maite izan banau, ni ikusteko larria dela eta, are gehiago maite izan behar nau. Jarrai dezagun beraz!

Eta bere kalkulua ona izan zela konprenitu zuen, bera salan sartzean Emma zurbiltzen hauteman zuenean.

Bakarrik zegoen. Eguna bukatzen ari zen. Muselinazko errezel txikiek, leiarretan behera, usutu egiten zuten ilunabarra, eta barometroaren urrekoloreak, zeinaren gainean jotzen baitzuen eguzki-izpi batek, izekiak hedatzen zituen ispiluan, marmukarriaren arrailduren artean.

Rodolphe zutik geratu zen; eta bere lehen agur-esaldiei abantzu ez zien erantzun Emmak.

— Nik, esan zuen gizonak, zereginak izan ditut. Gaixo egon naiz.

— Larri? galdetu zuen Emmak.

— Ba, begira! esan zuen Rodolphek haren alboan taburete batean eseriz, ez!... Ez dut etorri nahi izan.

— Zergatik?

— Ez al duzu sumatzen?

Berriro ere begiratu zion, baina era hain mutirian non damak burua makurtu baitzuen koloreak gorriturik. Gizonak berriro:

— Emma...

— Jauna! egin zuen Emmak apur bat alden-  
duz.

— Ha! bistan ikusten duzu, ihardetsi zuen gizonak ahots malenkoniatsuz, nik arrazoi nuela etorri nahi ez izatean; zeren izen hau, nire arima betetzen duen eta jaulki zaidan izen hau, zuk debekatu egiten baitidazu! Madame Bovary!... Bai, mundu guztiak horrela deitzen dizu!... Gainera ez da zure izena; beste baten izena da!

Errepikatu egin zuen:



— Beste batena!

Eta aurpegia estali zuen eskuartean.

— Bai, zutaz pentsatzen dut taigabe!... Zure oroitzapenak desesperatu egiten nau! Ah! barkatu!... Banoa... Agur!... Urrun joango naiz... hain urrun non gehiago ez baituzu entzungo nitaz mintzatzen!... Eta halere..., gaur ordea..., ez dakit zein indarrek bultzatu nauen oraindik ere zuregana! Zeren ez da zeruaren aurka borroka egiten, ez baitzaio ihardukitzen aingeruen irribarreari! zeure buruari utzi egiten diozu, ederra, xarmanta, adoragarria den horrek errestan eraman dezan!

Lehendabiziko aldia zuen Emmak horrelako gauzak entzuten; eta bere harrotasuna, bainu berotan atsedean duen bat bezalaxe, nagi-nagi eta oso-osorik sagaitzen zen hizkera honen berotasunean.

— Baina, etorri ez banaiz ere, jarraitu zuen gizonak, zu ikusi ezin izan bazaitut ere, ah! gutxienez zu inguratzen zaituena betetsi dut behintzat. Gauez, gauero, jaikitzen nintzen, honaino iristen nintzen, zure etxeari begiratzen nion, ilargi-argitan distiratzen zuen teilatua, zure

leihenaren aitzinean kulunkatzen ziren baratzeko zuhaitzak, eta argiño bat, leiarretan barrena distiratzeko zuen leinuru bat, ilunpetan. Ah! zuk ez zenekien noski, hantxe zegoela, hain hurbil eta hain urrun, arlote mixerable bat...

Zotin batean itzuli zen Emma gizonarengana.

— Oh! Ona zara! esan zuen emakumeak.

— Ez, maite zaitut, horra dena! Horretaz ez duzu zalantzarik! Esadazu; hitz bat! hitz bakar bat!

Eta Rodolphe, ezarian, taburetetik lurreraino labaintzen ari zen; baina, kalotx-hotsa entzun zen sukaldean, eta salako atea, gizona ohartu zen, ez zegoen itxita.

— Mesede egingo bazenit, jarraitu zuen gizonak zutituz, nire apeta bat asetzeko!

Etxea bisitatzea zen; gizonak ezagutu egin nahi zuen; eta madame Bovaryk ez zuen hartan inolako eragozpenik hautematen, biak zutitzen ari ziren, Charles sartu zenean.

— Egunon, doktore, esan zion Rodolphek.

Medikua, ezusteko titulu honek balakaturik, adeitasunetan urtu zen, eta bestea horretaz baliatu zen bere burua apur bat itxuratzeko.

— Madame bere osasunaz ari zitzaidan..., esan zuen.

Charlesek solasa moztu zion: mila kezka zeuzkan, eskierki; bere emaztearen hersturak berriro hasiak ziren. Orduan Rodolphek galdetu zuen ea zaldiz ibiltzea ez ote zatekeen ona.

— Noski! Oso ona, bikaina!... Hori da ideia! Jarraiki beharko zintzaizkioke.

Eta, emazteak argudiatu zuenez berak ez zeukala inolako zaldirik, monsieur Rodolphek bat eskaini zion; uko egin zion eskainteari; gizonak ez zuen iharduki; gero, bere bisitaren aitzaki legea azaltzeko kontatu zuen, bere gurtzainak, odol-aterea egindako gizonak, artean ere zora-bioak izaten zituela.

— Neu pasatuko naiz zuenetik, esan zuen Bovaryk.

— Ez, ez, bera bidaliko dizut; etorri egingo gara, hori erosoagoa izango da zuretzat.

— Ah! oso ongi. Eskerrik asko.

Eta, bakarrik geratu ziren orduko:

— Zergatik ez dituzu onartzen Boulanger jaunaren eskaintea, hain eskuzabalak izanik?

Emmak bekozko luzea ipini zuen, mila estakuru bilatu zuen, eta azkenik esan zuen horrek agian nabarmentxo emango zukeela.

— Ah! niri bost axola! zioen Charlesek imintzio bat eginez. Orogen aurrez osasuna! Oker jokatu duzu!

— Eh! nola nahi duzu ni zaldiz ibiltzea, amazona-jantzirik ez daukat eta?

— Enkargatu egin behar duzu bat! erantzun zuen Charlesek. Amazona-jantziak erabaki arazi zion.

Jantzia prest izan zenean, Charlesek monsieur Boulangeri idatzi zion, emaztea bere peskizan zeukala, eta bere oniritziarekin kontaktzen zuela.

Biharamunean, eguerdian, heldu zen Rodolphe Charlesen atarira bi zaldi apartekorekin. Batak purpuxeta arroxak zeramatzan belarrietan eta emakume-zela bat antezkoa.

Rodolphek bota luze bigunak zituen jantzita, berekiko esanez ezen, dudarik gabe, Emmak ez zuela sekula ikusi haien antzekorik; eskierki, Emma xarmaturik geratu zen haren trakaz, eski-laraburuan azaldu zenean balusazko bere lon-

gain handiarekin eta puntuzko galtza zuriekin. Emma prest zegoen, bere zain zegoen.

Justinek botikatik hanka egin zuen dama ikustearren, eta botikarioak ere barra zuen neke hori. Gomendioak egiten zizkion Boulanger jaunari.

— Hain azkar heltzen dira ezbeharrak! Kontuz ibili! Zure zaldia fuxosak dira agian!

Emmak zarata entzun zuen bere buru gainean: Felicite zen, leiarren kontra ttarrapattaka, Berthe txikiarekin jolastearren. Haurrak urrundik muxu bat bidali zuen; bere amak zaharoaren eskulekuaz keinu bat eginez erantzun zion.

— Ibilaldi ona egin! oihukatu zuen monsieur Homaisek. Eta kontuz ibili, batez ere! Kontuz!

Eta bere egunkaria astindu zuen haiei urrutiratzen begiratzuz.

Lurra sentitu zuen orduko, Emmaren zaldia asapalan ekin zion. Rodolphe bere alboan zihoan lauhoan. Aldian behin hitzen bat esaten zioten elkarri. Aurpegia apur bat apaldurik, eskua goian eta eskuineko besoa hedaturik, Emma lazatu egiten zitzaion zela gainean kulunkatzen zuen mugimenduaren kadentziari.

Aldaparen oinean, Rodolphek hedeei jaregin zien: biak jauzi batean abiatu ziren batera; gero, gainean, sostean, zaldiak gelditu ziren eta bere belo handi urdina erori egin zen berriro.

Urriaren lehen egunetan zen. Behelainoa zegoen landan barrena. Gandumatata batzuk luzatzen ziren ostertzean, muinoen gerriaren kontra; eta beste batzuk, urraturik, igo egiten ziren, galdu. Batzuetan, laino-eten baten zirriz-tuan, eguzki zirrinta baten pean, urrunean begiz-tatzen ziren Yonvilleko teilatuak, uraren ertzeko baratze, larrain, horma eta elizako kanpando-rrearekin batera. Emmak erdizka ixten zituen betazalak bere etxea aurkitzearren, eta sekulan ez zitzaion hain txiki iruditua bera bizi zen herrix-ka hutsal hura. Beraiek zeuden gailurretik, baila-ra osoak egundoko laku hits bat zirudien, aireta-ra lurrun bihurtzen. Tartean tartekako zuhaitz sailak harkaitz beltzen gisa garaitzen ziren; eta gandua gainditzen zuten zumarzurien lerro altuek, haizeak iharrosten zituen hareetak irudi-katzen zituzten.

Alboan, belarretan, pinuen artean, argi naba-rra zebilen egurats epelean. Lurrak, tabako-hau-

tsa bezala gorritzta, itzalixe egiten zuen urratsen hotsa; eta zaldiek, ibiltzean, beren ferra-ertzez aurrera bultzatzen zituzten pinuburu eroriak.

Rodolphek eta Emmak horrela segitu zuten baso-hegian aurrera. Emmak aldian behin burua jiratzen zuen, haren begiradari itzurtzearren, eta orduan, ez zuen ikusten pinu lerrokatuen enborrak baino, zeintzuen segidako jarraikerak zora-biatu egiten baitzuen pixka bat. Zaldiek puzka egiten zuten. Zelen larruak kirrinka.

Basoan sartu ziren momentuan, eguzkia azaldu zen.

— Jainkoak babesten gaitu! esan zuen Rodolphek.

— Zuk hala uste duzu? ihardetsi Emmak.

— Aurrera! Goazen aurrera! berriro gizonak.

Gizonak mihiatz kliska egin zuen. Bi abereak korrika zihoazen.

Garo luzeak, bide bazterrean, Emmaren barreran atxikitzen ziren. Rodolphe, zihoan eran, makurtzen zen eta heinean kentzen zituen. Beste batzuetan, adarrak apartatzeko, ondotik pasatzen zen eta Emmak haren belauna sentitzen zuen bere zangoa ferekatzen. Zerua urdin

bilakatua zen. Hostoak ez ziren higitzen. Zabaldi handiak zeuden txilarrez beterik lore-loretan. Brioleta-dafailak txandakatzen ziren zuhaitz-mordoekin, zeinak grisak, nabarrak eta urrekolorakoak baitziren, hostaila desberdinen arabera. Sarritan aditzen zen, sasipeetan, hegal-eragin ttipiren bat lerratzen, edota haritzetan hegaztazten ziren beleen karranka arrakoil eta leuna.

Jaitsi egin ziren. Rodolphek zaldiak lotu zituen. Emma zihoan aurretik, goroldio gainean, gurtarrastoen artean.

Baina bere soineko luzeegiak enbarazu egiten zion, gibeletik altxaturik zeraman arren, eta Rodolphek, bere atzetik oinez, ehun beltzaren eta botin beltzaren artean betesten zuen haren galtzerdi zuriaren findadea, zeina haren biluztasunaren parte iruditzen baitzitzaion.

Emma gelditu egin zen.

— Nekaturik nago, esan zuen.

— Ea, saiatu beste pixka bat! zioen gizonak. Ez etsi!

Gero, ehun urrats aurrerago, berriro gelditu zen dama; eta, bere gizon-kapelutik aldaka-gaineraino trabeska jaisten zen bere beloan barre-



na, aurpegia hautematen zitzaion gardentasun urdinka batean, uhin azuren pean igeri bazebilkeen bezala.

— Nora goaz ba?

Gizonak ez zuen ezer erantzun. Emmak etenka hartzen zuen arnasa. Rodolphek bere ingurura botatzen zituen begiradak eta bibotea ausikitzen zuen.

Tantai batzuk mozturik zeuden leku zabalago batera iritsi ziren. Eraitsitako zuhaitz-enbor batean eseri ziren, eta Rodolphe bere maitasunaz mintzatzen hasi zitzaion.

Hasieran ez zuen izutu lausenguka. Ekuru, serios, malenkoniatsu egon zen.

Emmak burua makurturik entzuten zion, bere oinaren puntaz lurrean txirbil batzuk iraultzen zituen bitartean. Baina, esaldi honetan:

— Gure zoriak ez al dira orain baterakoak?

— Ba ez! erantzun zuen damak. Ongi dakizuzuk hori. Ezinezkoa da.

Eta zutitu egin zen abiatzeko. Gizonak esku-muturretik atzeman zuen. Emma gelditu egin zen. Gero, une batzuez begirada maitati eta bustitsu batez behatu ondoren, biziro esan zuen:

— Ah, hegira, ez gaitezen gehiago hortaz mintza... Non dira zaldiak? Itzul gaitezen.

Haserre eta gogait aieru bat egin zuen gizonak. Emmak errepikatu zuen:

— Non dira zaldiak? Non dira zaldiak?

Orduan irribarre bitxi bat eginez eta betseinak finko, hortzak hertsirik, aurrera egin zuen besoak zabalduz. Emmak atzera egin zuen dar-daraz. Zezelka zioen:

— Oh! Beldurra ematen didazu! Mina ematen didazu! Goazen.

— Beharrezkoa denez, esan zuen Rodolphek aurpegia aldatuz.

Eta berehala adeitsu, amultsu eta herabeti bilakatu zen berriro. Damak besoa eman zion. Itzuli ziren. Gizonak zioen:

— Zer zenuen ba? Zergatik? Ez dut ulertu. Oker zaude, dudarik gabe. Zu nire ariman, madona bat zutoi batean bezala zara, leku altu, sendar eta orbangabe batean. Baina bizitzeko zure beharra dut! Zure begien beharra dut, zure ahotsarena, zure pentsamenduarena. Izan zaitez nire laguna, nire arreba, nire aingerua!

Eta besoa luzatzen zuen eta gerria inguratzen zion. Emma saiatzen zen emekiro askatzen. Gizonak horrela eusten zion, ibilian.

Baina bi zaldia entzun zituzten hostaia hozkatzen.

— Oh! oraindik ere, zioen Rodolphek. Ez gaitetzen joan! Gera zaitetz!

Urrunago eraman zuen urmahel txiki baten ondora, non ur-dilista batzuk berdegunea egiten baitzuten uhinen gainean. Igebeldar histu batzuk ekuru zeuden ihien artean. Belarretako haien urratsen abarrotsera, igel batzuk jauzi ziren ezkutatzera.

— Oker ari naiz, oker ari naiz, esaten zuen Emmak. Zoraturik nago zuri entzuteko.

— Zergatik?... Emma! Emma!

— Oh! Rodolphe!... esan zuen emeki andre gazteak haren sorbalda gainera makurtuz.

Bere soinekoaren ehuna longainaren balusari atxikitzen zitzaion, hasgora batez handitzen zen bere idun zuria atzerantz eraitsi zuen eta, ahundurik, negar batean, dardarizo luze batekin eta aurpegia estaliz, abandonatu egin zen.

Arratseko itzalak jaisten ari ziren; eguzki horizontalak, adarren artean pasatuz, begiak itsutzen zizkion. Han-hemenka, bere inguru guztian, hostoetan nahiz lurrean, argi-errainuek dardara egiten zuten, kolibri batzuk, hegan, beren lumak barreiatu balituzte bezala. Isiltasuna edonon zegoen; zuhaitzetatik zerbait ezta irteten zela zirudien; Emmak bere bihotza sentitzen zuen taupadei berriro ekiten, eta odola bere haragian zirkulatzeko esne-ibai baten antzo. Orduan, oso urrunean entzun zuen, basoaz bestaldetik, beste muinoetan, oihu ilaun luze bat, errestatzen zen ahots bat, eta Emmak isilean entzuten zuen, bere nerbio hunkituen azken dirdaiekin musika bat bezala nahasiz. Rodolphe, zigarroa hortzetan, bere labanarekin ari zen bi erremaletariko hautsitakoa konpontzen.

Yonvillera itzuli ziren, bide beretik. Berriro ikusi zituzten lokatzetan beren zaldien oinarrastoak, alboz albo, eta sasi berak, harri berak belar artean. Ezer ez zen aldatua beren inguruan; eta Emmarentzat, horratio, zerbait bazen gertatua mendiak lekuz aldatu balira baino are garrantzi-

tsuagoa. Rodolphek, aldian-aldian, makurtu eta eskua hartzen zion muin emateko.

Xarmangarria zegoen, zaldiz! Zuzen, bere gerri mehea, belauna aberearen kumaren gainera plegaturik eta aire zabalak apur bat koloreztaturik, arrastiriko gorritasunean.

Yonvillen sartzean, itzulika egin zuen Emmak harzolareen gainean.

Leihoetatik begiratzen zioten.

Bere senarrak, afaritan, betarte ona aurkitu zion; baina ez aditu egin zuen, senarrak bere pasieraz itaundu zionean; hantxe zegoen Emma, ukondoa bere plateraren aldamenean, bi ezkargi piztuen artean.

— Emma! esan zion.

— Zer?

— Ba, gaur arratsaldean monsieur Alexandren etxetik pasatu naiz; aspaldiko behor bat dauka, oraindik oso ederra, belaunean apur bat zauritua besterik ez, eta, ziur naiz, ehunen bat ezkututan eskura daitekeela...

Erantsi zuen:

— Eta atsegin zenukeela ere pentsatuz, hartu egin dut..., erosi egin dut... Ongi egin al dut? Esadazu ba.

Baiezko zeinu gisa burua higitu zuen; gero, handik ordu laurdenera:

— Gaur arratsean irten behar al duzu? galde-tu zion Emmak.

— Bai. Zer ba?

— Oh! ezer ez, ezer ez, maite.

Eta, Charlesengandik libratu zen orduko, bere gelan barroilatzera igo zen.

Hasieran, zorabio bat bezala izan zen; zuhaitzak ikusten zituen, bideak, arroilak, Rodolphe, eta artean ere sentitzen zuen haren besoen herstura, hostaiak dardara eta ihiek xixtu egiten zuten bitartean.

Baina, ispiluan bere burua hautematean, bere aurpegiaz harritu egin zen. Sekula eduki gabea zen hain begi handiak, hain beltzak, hain sakon handikoak. Bere baitan ihaurritako finta-sunezko zerbaitek itxuraldatzen zuen.

Berekiko errepikatzen zuen: «Amorante bat dut! amorante bat!» ideia horretaz atsegin hartuz, etorria ziezaiokeen beste nerabe-aro bate-

naz bezalaxe. Eduki behar zituen beraz azke-  
nean ere maitasunaren bozkario horiek, etsitzat  
emana zuen zorionaren sukar hori. Zerbait lilura-  
garritan sartzen ari zen, non dena irritis, extasi  
eta eldarnio izango baitzen; neurrigabetasun  
urdinka batek inguratzen zuen, sentimenduaren  
gailurrek pindarrak botatzen zituzten bere pen-  
tsamenduaren pean, bizitza arrunta ez zen ageri  
urrunean baino, oso behean, itzal artean, goial-  
de hauen arteko hutsarteetan.

Orduan, irakurriak zituen liburuetako heroi-  
sez oroitu zen, eta emazte adultera haien legio  
lirikoa kantuan hasi zen bere oroimenean lilura-  
tzen zuten ahizpa-ahotsez. Bera ere irudipen  
hauen benetako parte gisa bilakatzen ari zen eta  
gaztaroko amets luze hura egikaritzen, hainbat  
irrikatua zuen maitale-molde hartan bere burua  
hautemanetz. Bestalde, Emmak mendekuaren  
atsegina nabaritzen zuen. Ez al zuen ba nahikoa  
sufritu! Baina orain garaile zen, eta maitasuna,  
hain luzaro hertsatua, oso-osorik jalgitzen zen  
burbulu bozkariotsuka. Aladurarik gabe dasta-  
tzen zuen, kezkarik gabe, asaldarik gabe.

Biharamuneko eguna ez-titasun berri batean iragan zen. Elkarri egin zioten zinik. Emmak bere tristurak kontatu zizkion. Rodolphek musuka mozten zion solasa; eta Emmak eskatzen zion, betazalak erdi itxian so eginez, berriz ere bere izenez dei ziezaiola eta maite zuela errepika zezala. Basoan zen, bezperan bezala, eskala-proingileren txapitola batean. Hormak lastozkoak zituen eta teilatua hain behera jaisten zen non makurturik egon behar baitzen. Elkarren kontra eserita zeuden, orbelezko ohe baten gainean.

Egun hartatik aurrera, erregulariki idatzi zioten elkarri arratsero. Emmak bere gutuna ibai ondoko jardina zokora eramaten zuen, baratzeko arraildura baten barrura. Rodolphe hara etortzen zen bila eta bertan ipintzen zuen beste bat zeina laburregia zela aurpegiratzen baitzion beti Emmak.

Goiz batez, Charles egunsentia baino lehen irtena zen, berehalaxe Rodolphe ikusteko apetak atxiki zuen Emma. Huchettera laster iritsi zitekeen, eta han ordubetez geratu eta Yonvillen bueltan izan ere artean mundu guztia lotan zela.



Ideia honek gutiziaz hatsanga eragin zion; laster kausitu zen belazearen erdian, non baitzihoan urrats arinez, bere atzera begiratu gabe.

Egunargia hasten ari zen. Emmak urrunetik antzeman zion bere amorantearen etxeari, bere bi haizeorratz miru-isastunak goiztiri beluriaren kontra beltzez nabari zirela.

Etxaldeko larrainaren ondoren, gaztelua izan behar zuen eraikin bat zegoen. Emma han sartu zen, bera hurbiltzean hormak bere kasa banandu balira bezala. Eskilara handi zuzen bat igozten zen loriora. Emmak ate baten krisketari eragin zion eta, bat-batean, gelaren zokoan, gizon bat hauteman zuen lotan. Rodolphe zen. Oihu bat bota zuen.

— Zu hemen! zu hemen! errepikatu zuen gizonak. Nola moldatu zara etortzeko?... Ah! zure soinekoa bustita dago!

— Maite zaitut! erantzun zuen Emmak besok haren lepoaren inguruan lotuz.

Lehen ausartzia han arrakastatsu suertatu zitzaionez, aurrerantzean Charles goizean goiz irteten zen bakoitzean, Emmak fite jantzi eta

otso-urratsez jaisten zituen ibai-bazterrera zera-  
maten harmailak.

Baina, behientzako langa altxatuz gero, ibai  
bazterrean barrena zihoan hormari jarraiki behar  
zitzaion; urertza labaina zen; ez erortzeko, ziape  
ximelen tortoei heltzen zien eskuz. Gero labore-  
soroetan barrena hartzen zuen, bere botin  
meheak han hondoratuz, oztopatuz eta trabatuz.  
Bere lepokozapia, buru gainean lotua, haizetara  
astintzen zen belardietan; abelgorrien beldur  
zen, korrika hasten zen; hatsangaka heltzen zen,  
masailak gorriztak, eta bere pertsona osotik lan-  
dare-izardiaren, belar hezearen eta aire zabala-  
ren lurrun freskoa zeriola. Rodolphe, garai horre-  
tan, artean lo egoten zen. Udaberriko goiztiri bat  
bezala zen gelan sartzen.

Errezel horiek, leihoetan zehar, argi nagi eta  
beilegiari uzten zioten emekiro pasatzen. Emma  
tentuka sartzen zen begiak ñikatzuz, bere adatse-  
tan pausaturiko ihintz punpuilek bere aurpegia-  
ren inguru guztian topaziozko gandua bezala  
egiten ziotela. Rodolphek, barrez, bereganatzen  
zuen eta bere bihotzaren kontra estutzen zuen.

Ondoren Emmak, gela arakutzen zuen, altzarrietako kajoiak irekitzen zituen, haren orraziaz orrazten zen eta bizarra mozteko ispiluan bere buruari begira aritzen zen. Sarritan bere hortzen artean ipintzen ere zuen, gaumahaiaren gainean limoi eta azukrekoxkorren artean ur-pitxar baten ondoan egoten zen pipa handi baten kirtena.

Ordu laurden bat ona behar izaten zuten adioetarako. Orduan Emmak negar egiten zuen; Rodolpherengandik sekulan ez aldentzea nahi izango zukeen. Bera hain indartsuagoko zerbait tek bultzatzen zuen harengana, eta hartan egun batez, ezustean azaltzen ikusirik, bekozkoa ilundu zuen Rodolphek, gogaindua den norbaitek bezala.

— Zer duzu ba? esan zuen Emmak. Gaizki zaude? Hitz egidazu!

Azkenik deklaratu zuen, aire serio batez, bere bisitak ozarregiak bilakatzen ari zirela eta Emma bere burua konprometatzen ari zela.

Poliki-poliki, Rodolpheren beldur hauek harrapatu egin zuten. Maitasunak zoraturik zeukan hasieran, beste ezertaz ez zuen pentsatu. Baina, orain bere bizitzarako ezinbestekoa zitzaion honetan, hartatik zerbait galtzeko beldur zen, edota zerbaitek artegatuko ez ote zuen beldur. Haren etxetik itzultzerakoan, begirada kezkatiak botatzen zituen inguru guztietara, hegialdean iragaiten zen forma bakoitza eta hauteman zezaketen herriko leihatila bakoitza barrandatzuz. Oinotsak, oihuak, gurdien zaratak entzuten zituen; eta gelditu egiten zen, bere buru gainean dilindatzen ziren zumarzurien hostoak baino zurbilago eta dardartiago.

Goiz batez, horrelaxe etxerantz zetorrela, enkaraturik zeukala zirudien karabina baten kainoi luzea nabaritu uste izan zuen bat-batean. Trabeska gainditzen zuen belar artean erdi estalitako upela txiki baten ertza, lubaki baten bazter gainean. Emmak, izuikaraz ondoezak jotzeko zorian, alabaina aurrera egin zuen, eta gizon bat

irten zen upeletik, kaxa barrutik altxatzen diren deabrutxo malgukidun horien gisa. Galzainak zeuzkan belaunetaraino loturik, txota begietaraino sarturik, ezpainak dardaraz eta sudurra gorri. Binet kapitaina zen, basahateen zelatan.

— Urrunetik hitz egin behar zenuen! egin zuen garrasi. Fusil bat hautematen denean, ohartarazi egin behar da beti.

Zergabiltzailea, horrela, jasan berria zuen beldurra estaltzen saiatu zen; zeren, txalupaz ez beste edonolatako ahate-ehiza gobernu-agindu batek debekatua izanik, monsieur Binet, legeekiko bere errespetoa eta guzti ere, urrapenean kausitzen baitzen. Halatan une oroz aditu uste zuen landa-zaina heltzen. Baina kezka honek kitzikatu egiten zuen bere plazera, eta, bere upelean bakar bakarrik, bere burua txalotzen zuen bere zorionarengatik eta bere maltzurrieriarengatik.

Emma ikustean, zama handi batetatik arindurik zirudien, eta berehala elkarrizketari ekin zion:

— Ez du bero egiten, *ziztatu* egiten du!

Emmak ez zuen ezer erantzun. Gizonak jarraitu zuen:

— Eta zu ere goiztar zabilta horratio!

— Bai, esan zuen Emmak zezelka; nire haurra dagoen inudearenetik nator.

— Ah! oso ongi! oso ongi! Ni berriz, ikusten nauzunez, argia urratu duenetik hementxe nago; baina eguraldia hain da ugertsua non, lumak muturraren aurrean eduki ezean...

— Agur, Binet jauna, moztu zion Emmak orpoak jiratuz.

— Zure zerbitzari, madame, esan zuen besteak tonu lehorrez. Eta berriro bere upelera sartu zen.

Emma damutu egin zen zergabiltzailea hain zakarki utzi izanaz. Zalantzarik gabe, aieru kaltegarriak egingo zituen. Inudearen istorioa aitzakiarik okerrena zen, mundu guztiak baitzekien Yonvillen Bovary txikia zuela urtebete bere gurasoen etxera itzulia zela. Bestalde, inguru haietan ez zen inor bizi; bide hark ez zeraman Huchettera baino; Binetek, beraz, igarria zuen bera nondik zetorren, eta hura ez zen isilduko, berritsu arituko zen, hori ziur zen! Gezur-asmo asmagarri guztietan bere izpiritua hagarantzen egon zen

arratsera arte, eta beti ere bere begien aurrean zuntzun zakutodun hura zuela.

Charlesek, afalondoan, hain kezkatu ikusirik, lekoratzearen, botikarioaren etxera eraman nahi izan zuen; eta Emmak farmazian hauteman zuen lehen pertsona hain zuzen bera izan zen, zergabiltzailea! Zutik zegoen dendamahaiaren aurrean, argiontzi gorriak argiturik, eta zioen:

— Emadazu, mesedez, ontza erdi bat bitriolo.

— Justin, oihuka botikarioak, ekariezaguzu azido sulfurikoa. Gero Emmari, madame Homaisen apartamentura igo nahi baitzuen:

— Ez, gera zaitez, ez du penak merezi, orainxe jaitsiko da. Epel zaitez bitartean berogailuaren ondoan... Barkatu... Arratsaldeon, doktore (zeren botikarioak atsegin handia baitzuen *doktore* hitz hau ahoskatzen, hartan aurkitzen zuen bonbaziatik zertxobait, beste norbaiti zuzentzean ere, berarengana jalgiarazi izan balu bezala)... Baina kontuz ibili zaparria irauli gabe! hobe joan zaitez sala txikiko aulkien bila; badakizu ederki asko sala handiko besaulkiak ez direla lekuz aldatzen.

Eta, besaulkia bere lekura eramateko, Homais dendamahaitik kanpora oldartu zen, Binetek ontza-erdi bat azukre-azido eskatu zionean.

— Azukre-azidoa? esan zuen botikarioak erdeinuz, ez dut ezagutzen, ez dakit! Azido oxaliko nahi ote duzu ausaz? Oxaliko da, ez al da egia?

Binetek esplikatu zuen, finkagarri baten beharra zeukala kobre-ura bere gisa konposatzeko, hartaz ehiza-tresna zenbaiti herdoila kentzeko. Emma ikarak jo zuen. Botikarioa esaten hasi zen:

— Eskierki, eguraldia ez da egokia, umidura handia dago-ta.

— Halere, berriro zergabiltzaileak aire xorrotx batez, bada oso ederki moldatzen den jenderik.

Emma itotzear zegoen.

— Emadazu baita ere...

— Ez al du aldegin behar sekula! Emmak berekiko.

— Ontzaerdi bat kolofon-erretxin eta turmentin, lau ontza argizari hori eta hiru ontzaerdi



beltz-animalia, mesedez, nire ekipamenduaren uhal-bernizak garbitzeko.

Botikarioa argizaria ebakitzeari ekiten ari zen, madame Homais azaldu zenean Irma bere besoetan zuela, Napoleon bere aldamenean eta Athalie atzetik. Balusazko aulkian esertzera joan zen, leihoaren kontra, eta mutikoa taburete baten gainean kukubilkatu zen, bere arreba zaharrena berriz kereisanza-ontziaren inguruan itzulika zebilen bitartean, bere aitaxoren ondoran. Hau han ari zen honilak bete eta ontziak zipoztu, etiketak erantsi eta paketeak egin. Bere inguruan isilik zeuden; eta tarteka besterik ez ziren entzuten balantzetan pisuak dindatzen, botikarioaren mintzo apal batzuekin batera bere ikasleari aholkuak ematen.

— Zer moduz doa zuen gaztetxoa? galdetu zuen hitzetik hortzera Madame Homaisek.

— Isilik! egin zuen deiadar bere senarrak, zifra batzuk idazten ari baitzen zirriborro-koadernoan.

— Zergatik ez duzu ekarri? ekin zion berriro ahapean.

— Ixo! Ixo! xuxurlatu zuen Emmak behatzez botikarioa seinalatuz.

Baina Binetek, buru-belarri kontuaren irakurketari emanik, segur aski ez zuen ezer entzun. Noizbait ere irten zen. Orduan Emmak, lasaturik, hasperen handi bat bota zuen.

— Bai bortizki hartzen duzula arnasa! esan zion madame Homaisek.

— Ah! Bero egiten baitu, erantzun zuen Emmak.

Biharamunean, beraz, elkarren arteko topabideak antolatzeari ekin zioten; Emmak bere neskamea erosi nahi zuen opari baten bidez; baina hobe zuketen Yonvillen etxe diskret bat aurkitu. Rodolphek agindu zuen bat bilatuko zuela.

Negu guztian zehar, astean hiru edo lau bider, gau ilunean, Rodolphe jardinera heltzen zen. Emmak, nahita, kendua zuen atekako giltza, Charlesek galdua zela uste izan zuena.

Ohartarazteko, Rodolphek eskutara bat hondar botatzen zuen pertsianen kontra. Emma itsu-mustuan jaikitzen zen; baina batzuetan itxoin beharrean izaten zen, zeren Charlesek sutondo-

an elekatzeko mania baitzeukan, eta ez zuen sekula bukatzen.

Emma ezinegonez ernegaturik egoten zen; bere begiek ahal izan balute leihoetatik jauzi egin araziko zioten. Dena den, gaueko bere apainketa egiten hasten zen; ondoren liburu bat hartzen zuen eta irakurtzen segitzen zuen lasai-lasai, irakurketak laketu bazukeen bezala. Baina Charlesek, jada ohetik, etzatera etortzeko dei egiten zion.

— Zatoz ba, Emma, esaten zion, bada garaia.

— Bai, banoa! erantzuten zuen Emmak.

Kandelargiek itsutzen zutenez ordea, horma aldera jiratzen zen eta loak hartzen zuen. Emmak ihes egiten zuen, arnasari eutsiz, irribarrez, pilpiraka, erantzita.

Rodolphek burusi handi bat zeukan; hartan biltzen zuen oso osorik, eta, besoa bere gerriaren inguruan pasatuz, jardineko zokoraino eramaten zuen hitzik egin gabe.

Pendizaren pean zen, beste garai batean Leonek udako arratsetan hain amuruski begiratzeko zurrun ustelduzko eserleku hartan bertan. Emmak orain ia ez zuen pentsatzen hartaz.

Hostorik gabeko jazminaren adarretan barrena distiratzen zuten izarrek. Beren atzean entzuten zuten isurian zihoan ibaia, eta, aldian aldian, urpazterrean, kainabera lehorren kirrinka. Itzalmultzoak, han hemenka, puztu egiten ziren ilunpetan, eta noiz behinka, guztiak mugimendu bakarrez dardarizatuz, altxatu eta makurtu egiten ziren, beraiek estaltzeko helduak ziratekeen uhin beltz eskergen gisa. Gaueko hotzak are hertsikiago lotarazten zituen elkarrengana; beren ezpainetako hasperenak bortitzagoak iruditzen zitzaizkien; osta-osta ikuskatzen zituzten beren begiak handiagoak iruditzen zitzaizkien, eta, isiltasunaren erdian, bazen xuxurlan esandako hitzik, zeinak beren arimaren gainera kristalozentasunez erortzen baitziren eta bertan bibrazio biderkatuz oihartzuten baitziren.

Gaua euritsua zenetan, kontsulta-kabinetean babestera joaten ziren, estalpearen eta ikuiluaren artean. Emmak sukaldeko argimutiletariko bat pizten zuen, liburuen atzean ezkutatua baitzeukan. Rodolphe bere etxean bezalaxe jartzen zen han. Biblioteka eta bulegoa ikusteak, apartamentu osoa alegia, bere alaitasuna kitzikatu egi-

ten zuen; eta Emma asaldatzen zuten mila iseka Charlesi buruz egiteari ezin izaten zion eutsi. Seriousago ikusi nahi izango zukeen, eta aukeran dramatikoago ere bai, kanpoko bidean urrats-hotsak hurbiltzen entzun uste izan zuen hartan bezala.

— Norbait dator! esan zuen Emmak.

Gizonak argiari putz egin zion.

— Zure pistolak hemen dituzu?

— Zergatik!

— Ba... zeure burua defendatzeko, esan zion Emmak.

— Zure senarraren kontra? Ah! mutil gizajoa!

Eta Rodolphek bere esaldia hau adierazten zuen aieru batez bukatu zuen: «Zartako batez zanpatuko nuke».

Emma txunditurik geratu zen haren ausardiaz, nahiz eta eskandalizatu zuen nolabaiteko adeitasun falta eta oieskeria inuxente bat sentitu zuen arren.

Rodolphek gogoeta franko egin zuen pistolen istorio honetaz. Emmak seriooki hitz egin bazuen, biziki barregarria zen, pentsatzen zuen, baita gorrotagarria ere, zeren eta berak ez bai-

tzeukan inolako arrazoirik Charles onpuska hura gorrotatzeko, gainera jeloskor errea esaten den horietakoa ez izanik; eta, horri buruz, Emmak egina zion berak gustorik onenekoa ere kausitzen ez zuen zin handi bat.

Bestalde, oso sentimental bilakatzen ari zen. Elkarren erretratuak trukatu beharra izan zen, ile eskutarak moztu zituzten, eta orain Emmak bitxi bat eskatzen zuen, benetako ezkontza-eraztun bat, betirako elkartasunaren ezaugarri gisa. Sarritan mintzatzeko zitzaion arratseko kanpaiez edo *naturaren ahotsez*; gero bere amaz eta Rodolpheren beraren amaz hitz egiten zion. Rodolphek zuela hogeit hamar urte galdua zuen. Emmak, halere, pinpirin-hizkeraz kontsolatzen zuen, ume abandonatu bati egingo litzaiokeen bezala, eta batzuetan esan ere esaten zion, ilargiari begira:

— Ni ziur naiz, han goitik, biek elkarrekin, onesten dutela gure maitasuna.

Baina hain zen polita ordea! Hain gutxi zituen edukiak molde horretako xalotasundunak! Aizunkeriarik gabeko maitasun hau zerbait berria zen berarentzat, eta, bere ohitura erraze-

tatik atereaz, aldi berean bere harrotasuna eta bere sentsualitatea balakatzen zituena. Bere burges zuhurtziak arbuiatzen zuen Emmaren asaldazioa, berari, bihotzaren zolan, xarmangarria iruditzen zitzaion, zeren berarengana zuzendua baitzen. Beraz, maitatua izateaz ziur, ez zen gaitzitu, eta ezarian-ezarian bere jarduera-moldeak aldatu egin ziren.

Jada ez zuen, garai batean bezala, negarra eragiten zioten hitz hain gozo haietakorik, ezta zorarazten zuten fereka oldartsu haietarik ere; alabaina ere beren maitasun handia, non bizi baitzen Emma murgildurik, bere pean urritzen ari zela zirudien, bere uharroilean lurperatzen ari den ibaia bezala, eta basa hauteman zuen. Emmak ez zuen halakorik sinetsi nahi; areagotu egin zen laztantasunean; eta Rodolphek, gero eta gutxiago, bere aihergatasuna ezkutatu zuen.

Emmak ez zekien hari amore eman izanaz damu zen edota, aitzitik, are gehiago maitekuntu nahi ez ote zuen. Ahul sentitzearen umilazioa, boluptuosaldiek ametikatzen zuten herra bihurtzen zen. Ez zen atxikimendua, etengabeko era-

karpena bezala zen. Rodolphek menperaturik zeukan. Emmak ia beldurra zion.

Itxurak, hala eta guztiz ere, sekula baino bareagoak ziren, Rodolphek lortua baitzuen adulterioa bere apetaren arabera bideratzea; eta, sei hilabeteren buruan, udaberria heldu zenean, biak kausitzen ziren, bata bestearen aurrez aurre, etxeko su-lanboa narekiro mantentzen duten bi ezkondu bezala.

Rouault zaharrak, bere zango konponduaren oroigarri, ohizko puloia bidaltzen zuen garaia zen. Oparia beti ere gutun batekin iristen zen. Emmak, otarreari lotzen zuen soka moztu eta ondorengo lerro hauek irakurri zituen:

«Seme-alaba maiteok,

»Gutun honek osasun onean aurkituko zaituztela espero dut, eta oraingo honek ere balio-ko duela besteek adina; zeren pixka bat samurragoa iruditzen baitzait, esatera ausartuz gero, eta guriagoa ere bai. Baina, hurrengoan, aldatzearren, oilar bat emango dizuet, nolaz eta *oilo-papoa* nahiago ez duzuen behintzat, eta itzuliezadazue saskia, mesedez, aurreko beste biekina batera. Ezbehar bat izan dut gurdien estalpean,



bertako teilatua, haizea gogor zebilen gau batez, zuhaitzetaraino hegaztatu baita. Uzta ere ez da izan egundokoa. Dena den, ez dakit noiz joango naizen zuek bisitatzerara. Izan ere biziki zaila zait etxea uztea, bakarrik aurkitzen naizenetik, nire Emma gaixoa!».

Eta hemen lerroen artean tarte bat utzia zuen, gizarajoak luma erortzen utzi balu bezala alditxo batez amets egiteko.

«Niri dagokidanez, ongi nabil, joan den egunean Yvetoteko ferian harrapatu nuen katarroaz aparte, nora joana bainintzen artzain bat hartzeko, nirea kanpora bota dudanez, bere aho-zurikeria handiegia dela medio. Gu erruki alproja horiekin guztiekin! Gizalegerik gabekoa zen gainera.

»Aurtengo neguan zuen eskualdetik barrena zebilela hagin bat ateratzen izan zen txerpolari batengandik jakin dut, Bovaryk gogor segitzen duela beti ere lanean. Horrek ez nau harritzen, eta bere hagina erakutsi zidan; kafe bat hartu genuen elkarrekin. Zu ikusi ote zintuen galdetu nion, ezetz esan zidan, baina bi abere ikusi zituela ikuiluan, hortaz nik ateratzen dut ongi ari dela

lanean. Hala hobe, haur maiteok, eta gure Jainkoak bidal diezazuela pentsa daitekeen zorion oro.

»Pena handia dut Berthe Bovary nire ilobatxo maitea oraindik ez ezagutzeaz. Jardinean, zure gelapean, olo-aranen aranondo bat landatu dut berarentzat, eta ez dut inork ukitzerik nahi, gero nire bilobatxoarentzako konpotak egiteko ez bada, nik gordeko baititut alasan, berari emateko, etorriko denean.

»Agur, nire umeok. Musu bat zuretzat, alaba, eta zuretzat ere bai, suhia, eta txikiarentzat bi masailetan bana.

»Eskumuinak guztioi, zuen aita laztanak,

»THEODORE ROUAULT».

Halaxe geratu zen minutu batzuez, bere behatzen artean paper lodi hura zuela. Ortografia-akatsak elkarren segidan lotzen ziren, eta Emma pentsamendu eztiari zerraikion, zeina hartan barrena kakarazten baitzen elorri-hesi batean erdi ezkutaturiko oilo baten gisa. Idatzia surtako hautsez lehortua zuen, zeren hauts gris pixka bat isuri baitzen gutunetik bere soineko gainera, eta ia hauteman uste izan zuen bere

aíta supazterreraantz makurtzen suhartzak atxikitzeke. Bai denbora luze zela aitarekin ez zegoe-la, sutondoko aulkitxoan, pindarka ari ziren itsas-ihien gar handitan makila baten punta erretzen zuenean bezala! Udako arratsaldeak gogoratu zituen eguzkiz beteak. Moxalek irrintzi egiten zuten pasatzean, eta asapalan, asapalan... Bazen bere leihopean erlauntz bat, eta erleek batzuetan, argitan jirabiraka, leiarren kontra jotzen zuten urrezko pilotak punpaka bezala. Zer nolako zoriona garai hartan! nolako askatasuna! nolako esperantza! ilusioak bai oparo! Jada ez zen fisik geratzen! Bere arimaren abentura guztietan xahutuak zituen, elkarren segidako egoera guztietan, birjintasunean, ezkontzan eta amodioan; — horrela bere bizitzan zehar etengabe galtzen zituelarik, bideko ostatu guztietan bere aberastasunetik zertxobait lagatzen duen bidaiariak bezala.

Baina nork bihurtzen zuen ordea hain dohakabe? Non zegoen hala deboilatu zuen hondamendi ikaragarria? Eta burua altxatu zuen, ingurura begiratu, sufriarazten zion horren kausaren bila bezala.

Apirileko iñar bat ñabartzen zen apaleko porzelanetan: sua garretan zegoen; bere oskiherresten azpian tapizaren leuntasuna sentitzen zuen; eguna zuria zen, eguratsa epela, eta bere haurra entzun zuen algarak botatzen.

Eskierki, neskatoa iraulka zebilen belaxetan, ontzen ari ziren belarraren erdian. Ahozpez etzanik zegoen, metatxo baten gainean. Neskameak eusten zion gonatik. Lestiboudois eskuaretzen ari zen alboan, eta hura hurbiltzen zen bakoitzean, haurra aihertu egiten zen bi besoez airean eraginez.

Ekar iezadazu! esan zuen bere amak, hura besarkatzera oldartuz. Zenbat maite zaitudan, nire haur gaixoa! zenbateraino maite zaitudan!

Gero, belarri puntak zikinxamarrak zituela oharturik, berehala dei egin zuen ur beroaren eske eta garbitu egin zuen, aldatu zizkion zapiak, galtzerdiak, oinetakoak, osasunari buruz mila galdera egin zuen, bidaia batetik itzultzean bezalaxe, eta, azkenik, berriz ere musukatuz eta negar-murriz bat eginez, berriro neskamearen besoetan ipini zuen, zeina txunditurik baitzegoen gehiegizko samurtasun haren aitzinean.

Rodolphek, arratsean, ohi baino seriozago hauteman zuen.

— Pasatuko da, deliberatu zuen; aldarte bat da. Eta hiru topalditara segidan huts egin zuen. Berrero itzuli zenean, Emma hotz azaldu zen, eta ia erdeinuz.

— Ah! denbora galtzen ari zara, panpoxa...

Eta baten suspirio malenkoniatsuez, eta ateratzen zuen musuzapiaz ere, ez ohartuarena egin zuen.

Eta Emma orduantxe damutu zen!

Bere buruari galdetu ere egin zion zergatik arbuiatzen ote zuen Charles, eta hobe ez ote zatekeen hura maitatu ahal izatea. Baina Charlesek ez zuen aukera handirik eskaintzen sentimenduaren itzulera hauentzako, halatan non Emmak zalantza bizitan segitzen baitzuen bere sakrifizio-nahikundean, hartan botikarioa etorri zitzaionean abagunea egokiro hornitzera.

Berriki irakurria zuen hankokerrak sendatze-ko metodo berri baten laudorioa; eta, aurrerape-naren aldekoa zenez, ideia patriotiko hau sortu zuen, alegia Yonvillek, *tokatzen zitzaion graduari jartzeko*, strephopodi-operazioak eduki behar zituela.

— Zeren, esaten zion Emmari, zer arriskatzen da? Hautemazu (eta bere behatzekin zenbatzen zituen entseguaren abantailak): arrakasta ia ziur, gaixoaren arindura eta liraintzea, operatzaileak ospea berehala lortzea. Zure senarrak, esate baterako, zergatik ez luke nahi izango *Lion d'or*-eko Hippolyte gizajo hori gaitzetik libratu? Kontu izan gero, horrek ez lukeela huts egingo bere sendakuntzaren berri bidaiari guztiei kontatzen, eta gainera (Homaisek ahotsa apaltzen zuen eta bere ingurura begiratzen zuen) nork eragotziko lidake egunkarira horri buruz ohartxo bat bidaltzen? Eh! ene ba! artikulu bat zabaltzen da... hartaz mintzaten da..., azkenerako elur-bola egiten da! Eta nork daki? nork jakin?

Izan ere, Bovaryk arrakasta izan zezakeen; ezerk ez zion baieztatzen Emmari hura trebea ez zenik, eta zer nolako atsegina beretzat haren aipua eta fortuna ugaldurik kausituko ziratekeen bideari ekinarazi izana! Maitasuna baino tinkoagoko zerbaitetan finkatzea besterik ez zuen eskatzen Emmak.

Charlesekin, botikarioak eta Emmak eraginik, konbentzimenduari amore eman zion. Rouendik Duval doktorearen liburua ekarrarazi zuen, eta, arratsero, burua bi eskuen artean zuela, irakurketa horretan murgiltzen zen.

Hark ekinoak, varusak eta valgusak estudiantzen zituen bitartean, alegia estrephokatopodia, estrephendopodia eta estrephexopodia (edo, hobeto mintzatzeko, oinaren desbideratze desberdinak, nahiz beherantz, barnealderantz edo kanpoalderantz), estrephipodiarekin eta estrephanopodiarekin batera (bestera esateko: azpialdeko bihurtura eta gorantz txutikatzea), monsieur Homaisekin, orotariko arrazonamenduren bidez, aholkatzen zuen ostatuko morroia opera zedin.

— Ia ez duzu sentitu ere egingo, agian, min txiki bat; odolatera txiki bat adinakoxe xixtako bat besterik ez da, zenbait karatxoren erauzketa baino gutxiago.

Hippolytek, gogoeta eginez, begi tentelak jirakatzen zituen.

— Bestalde, ekiten zion berriro botikarioak, hori ez zait fisik behatzen! zuregatik da! gizabide hutsez! Nik, lagun, zure herreneria zantar horretatik libre ikusi nahi zintuzket, zure gerrontze-aldeko zabukera hori gabe, horrek, zuk besterik esan arren, zure lanbiderako nabarmenki kaltetu behar baitzaitu.

Orduan Homaisek azaltzen zion zenbateraino sentituko zuen ondoren bere burua lerdnago eta pizkorrago, eta aditzera eman ere egiten zion, hobeto kausituko zela emakumeei laketzateko, eta ikuilu-morroia toil-toil irribarrez hasten zen. Gero harrokeriaren aldetik erasotzen zion:

— Ez al zara ba gizona, alajaina? Zer izango ote zen soldadu joan behar izan bazenu, banderren pean gudukatzeraz?... Ah! Hippolyte!



Eta Homais urrundu egiten zen deklaratu, zientziaren onurei uko egiten halako zipozkeria, halako itsukeria ez zuela ulertzen.

Amore eman zuen dohakabeak, zeren hura zimarku bat bezala izan baitzen. Binet, besteren arazotan inoiz nahasten ez zen arren, madame Lefrançois, Artemise, auzotarrak, eta monsieur Tuvache alkatea bera ere, mundu guztia tarteratu zitzaion, sermoika aritu zitzaizkion, lotsarazi zuten; baina azken finean erabakitzaera etsitu zuena zera izan zen, *hura ez zitzaiola ezer kostako*. Bovaryk bere gain hartzen zuen operaziorako makina hornitzea ere. Emmari bururatu zitzaion eskuzabaltasun hori; eta Charlesek baiezkoa eman zuen, bihotzaren zolan berekiko esanez bere emaztea aingeru bat zela.

Botikarioaren kontseiluekin, eta hiru bider hasieratik ekinez, egin arazi zion beraz zurginari, sarrailkinak lagundurik, zortzi libra inguruko kaxa molde bat, eta non burdina, zura, txapa, larrua, torlojuak eta dranbalak ez baitziren inolaz ere xuhurkaturik kausitu.

Hartan ordea, Hippolyteri zein zurda moztu jakiteko, zein moldetako hankokerra zeukan jakin behar zen aurrez.

Zangoarekin lerro ia zuzena egiten zuen oina zeukan, horrek eragozten ez bazuen ere barnealdera bihurkatua egotea, beraz ekinoa zen varus apur batekin nahasturik, edota varus arin bat ekinoz bortizki larritua. Baina ekino honekin, zabala izan ere zaldi baten oina bezala, azal lakarduna, zurda iharrak, behatz handiduna, eta azkazal beltzek perra-iltzeak ziruditela, estrep-hopodoak, goizetik hasita gauera bitartean, orein baten antzo egiten zuen asapala. Plazan ikusiko zenuen taigabe, gurdien inguruan aputika, bere ostiko desberdina aurrera botaz. Sendagoa ere bazirudien hanka horretatik bestetik baino. Hartaz baliatu izanaren poderioz, pazientiaren eta energiaren kalitate moralak bezalatsu bereganatuak zituen, eta eginkizun gogorren batzuk ematen zizkiotenean, aukeran haren gainean hartzen zuen oin.

Beraz, ekino bat zenez, Akilesen zurda moztu behar zen, ondoren kabil-aurreko giharreari ekin beharraz aparte varusetik libratzearen: zeren

medikua ez baitzen ausartzen golpe bakar batean bi operazio menturatzeraz, eta dardaraz ere bazegoen jadanik, berak ezagutzen ez zuen alde garrantzitsuren bati erasotzeko beldurrez.

Ez Ambroise Parèk, Celsoz gero lehen aldiz, hamabost mendetako tartearen ondoren, arteria baten berehalako lotura aplikatzean; ez Dupuy-trenek enzefalo-geruza lodi batean barrena zornagune bat irekitzerakoan; ezta Gensoulek ere, goiko masailaren lehen erauzpena egin zutenean, ez zuten noski bihotza hain taupadatsu, eskua hain dardaratsu, adimena hain atezuan nola monsieur Bovaryk Hippolyterengana hurbildu zenean, bere *tenotomia* behatzen artean. Eta, ospitaletan bezala, alboan ageri ziren, mahai baten gainean, lits pila bat, hari ezkodu-nak, benda asko, benda piramide bat, botikario-arenean zegoen benda guztia. Antolaketa hauek guztiak goiz-goizetik apailatu zituen monsieur Homais zen, hainbat jendetza liluratzeko nola bere burua ilusionatzeko. Charlesekin larrazala ziztatu zuen; zirtako idor bat entzun zen. Zurda mozturik zen, operazioa bukatua zen. Hippolyte harriduraz ez zen bere onera itzultzen; Bovary-

ren eskuen gainera makurtzen zen atergabe muin eman ez.

— Ea ba, lasai zaitez, zioen botikarioak, geroxeago azalduko duzu zure ongilearenganako eskerrona!

Eta ondorea kontatzera jaitsi zen atarian geraturik zeuden bost edo sei kuxkuxerori, zeinek uste baitzuten Hippolyte oinez tente azaltzera zihoala. Ondoren Charles, bere gaixoa motore mekanikoaren barruan gardainaturik, bere etxera itzuli zen, non Emma, antsi bizitan, zain baitzuen afalondoan. Lepora ikotu zitzaion senarari; mahaira eseri ziren; asko jan zuen gizonak, eta, baita nahi ere, otorduburuan hartu nahi izan zuen kikara bat kafe, igandez jendea zegoenean bestetan bere buruari aizu ez zion bonbonkada.

Beila xarmangarria izan zen, eleketaz, boti ametsez betea. Beren fortuna etorkizunaz mintzatu ziren, beren etxean ezarri beharreko hobe-kuntzez; bere ospea hedatzen ikusten zuen, bere ongizatea emendatzen, bere emaztea bera maitatzen beti; eta emaztea zoriontsu kausitzen zen bere burua eraberritzeagatik sentimendu berri batean, zintzoago batean, hobe batean,

alegia laztantzen zuen mutil gizajo harekiko nolabaiteko samurtasuna sentitzeagatik azken finean. Rodolpheren ideia, une batez, iragan zitzaion buruan barrena; baina bere begiak Charlesengana itzuli ziren: eta hauteman ere bai harriduraz, hortzak ez zeuzkala bat ere zatarrak.

Ohean ziren monsieur Homais sartu zenean, sukaldaria arren, tupustean gela barrura, paper-orri idatziberri bat eskuan zuela. *Fanal de Rouen*-era igorri behar zuen iragarpena zen. Irakurtzeko zekarkien.

— Irakurri zeuk, esan zuen Bovaryk.

Irakurri zuen:

— «Europako lurren eretz bat sare batek bezala oraindik estaltzen duten aurreritziak gorabehera, hasi da halere argia gure landetan sartzen. Halatan non, asteartean, Yonvilleko gure herri txikia kausitu baita, aldi berean filantropiarik goreneko ekintza bat den saiakuntza kirurgiko baten antzoki. Monsieur Bovaryk, gure medikurik printzipalenetariko batek...».

— Ah! Gehiegi da! gehiegi da! zioen Charlesek, zirrarak hatsanturik.

— Ez gizona! ezta inola ere! nola gero!... «Hanka oker bat operatu dio...». Ez dut termino zientifikoa ipini, zeren, badakizu, egunkari batean..., mundu guztiak agian ez luke ulertuko; beharrezkoa da masak...

— Halaxe da, esan zuen Bovaryk. Jarrai ezazu.

— Aurretik hasiko naiz, esan zuen botikarioak. «Monsieur Bovaryk, gure medikurik printzipalenetariko batek, hanka oker bat operatu dio Hippolyte Tautain deritzanari, hogeita bost urte honetan zaltegi-morroia bera, madame Lefrançoisek daukan *Lion d'or* hotelean, Armes plazan. Saiakeraren berritasunak eta sujetari zatxekion garrantziak halako jende ostea erakarrria zuen non benetan gainezka baitzegoen etxe-ko ataria. Ebakuntza, bestalde, sorginkeriaz bezalaxe burutu zen eta osta azaldu ziren azal gainera odoltantaren batzuk, zurda bihurriak noizbait ere artearen ahaleginen pean amore eman zuela adieraztearren bezala. Gaixoak, gauza harrigarria (de visu baieztatzen dugu), ez zuen bat ere oinazetik nabarmendu. Bere egoerari oraindainokoan ez bide litzaioke ezer hobea

rik opa. Orok ematen digu uste izateko bidea, eriondoa laburra izango dela, eta nork daki jakin ere ez ote dugun, hurrengo herriko jaietan ikusiko gure Hippolyte jatorra dantza bakikoetan partaide, bestari alairen koru baten erdian, eta horrela guztien begibistan frogatu, bere fleita eta pikoak medio, bere erabateko sendakuntza? Ohore beraz jakitun bihotzonekoei! Beren gaue-tako lana espeziearen hobekuntzara edota aisantziara kontsokratzen duten adimen neka-gaitz horiei ohore! Ohore! Hiru bider ohore! Ez ote da tenorea deiadar egiteko itsuek ikusiko dutela, gorrek entzungo dutela eta herrenak oinez ibiliko direla? Baina garai batean fanatismoak bere hautatuei prometatzen ziena, zientziak orain gizaseme guztientzat burutzen du! Gure irakurleak jakinaren gainean edukiko ditugu sendakuntza ohargarri honen jarraikako faseei buruz».

Horrek ez zuen eragotzi horratio ezen, bost egun beranduago, Lefrançois atsoa zeharo izuturik garrasika hel zedin:

— Lagundu! hiltzorian dago!... burua galtzeko punttuan nago!

Charlesek zalapartaka jo zuen *Lion d'or*-erantz, eta botikarioak, plazan barrena iragaiten hauteman baitzuen, kapelarik gabe, farmazia utzi zuen. Han azaldu zen bera ere, hatsestuka, gorri, urduri, eta eskilarak igotzen zituzten guztiei galdezka:

— Zer du ba gure estrefopodo interesgarriak?

Bihurkatu egiten zen, estrefopodoa, dardarizo izugarritan, halatan non bere hanka hertsaturik zegoen motore mekanikoak hormaren kontra eraitsitzear jotzen baitzuen.

Tentu handiz, menbrua jarrera ez desegokitzearren, erantzi zioten beraz bota, eta ikuskitzen ikaragarria agertu zen. Oinaren eiteak halako hanturatan desagertzen ziren non larrazalak oso-osorik zartatzeko zorian baitzirudien, eta makina famatuak eragindako ekimosiz estalirik zegoen. Hippolyte jada arrenkuratua zen hartaz sufritzeaz; ez zuten arretarik hartu; aitortu beharra izan zen, ez zegoela erabat oker, eta ordu batzuez libre utzi zioten oina. Baina ubeldura apur bat desagertu zen orduko, bi jakintsuek aiposekoa iritzi zioten menbrua berriro tramankuluan ezartzeari, eta are gehiago hertsatu-



tuz, gauzak agudoagotzeko. Dena den, handik hiru egunetara, Hippolyte gehiago ezin zuenez, beste behin ere kendu egin zioten mekanika, hauteman zuten ondorioaz biziki harritzen zirelarik. Hantura beluri bat hedatzen zen zangoan, eta tartean tarteka fliktena batzuekin, hauetatik likido beltz bat zeriola. Hau bihurkera seriosa ari zen hartzen. Hippolyte aspertzen hasia zen, eta Lefrançois atsoak sala txikian jarri zuen, sukaldetik hurbil, olguraren bat bederen eduki zezan.

Baina zergabiltzailea, zeinak han afaltzen baitzuen egunero, minduratsu kexatu zen halako auzakidetzaz. Orduan billar-salara eramane zuten Hippolyte.

Hantxe zegoen, bere estalki lodien pean intzirinka, zurbil, bizarra luze, begiak zulo, eta, aldian behin, bere buru izerditua jiratuz euliak pausatzen ziren buruko zikinaren gainean. Madame Bovary etortzen zitzaion ikustera. Bere kataplasmentzako zapiak ekartzen zizkion, eta kontsolatu egiten zuen, adore ematen zion. Bestalde, ez zen izaten lagun-faltan, batez ere merkatu-egunetan, laborariek bere inguruan billareko bolak sakatzen zituztenean, billare-makilekin

lehiatzen zirenean, erre, edan, kantatu, marru egiten zutenean.

— Zer moduz hago? esaten zuten hari sorbal-  
dan emanaz. Ah! harrokeria handirik gabe, diru-  
dienez! baina heure errua duk. Hau egin behar-  
ko huke, hura egin beharko huke.

Eta bereaz bestelako erremedioren bidez  
sendatuak suertatu ziren jenderen istorioak kon-  
tatzen zizkioten guztiak; gero, kontsolamendu  
gisa, eransten zuzen:

— Hik heure buruari entzuten diok gehitxo!  
altxa hadi ba! errege baten gisa habil axanpa-  
raz! Ah! ez zioz axolarik, adarjole arraioa! ez duk  
ondo usantzen!

Pasmaoa, hain zuzen, gero eta gorago zihoan.  
Bovary bera ere gaixotu egiten zuen horrek.  
Orduero etortzen zitzaion, momentuero. Hip-  
polytek begiak izuikaraz beterik so egiten zion  
eta zotinka zezelkatzen zuen:

— Noiz sendatuko naiz?... Ah! salba naza-  
zu!... Zein dohakabea naizen! ni bai naizela  
dohakabea!

Eta medikua joan egiten zen beti ere dieta  
gomendatuz.

— Eziezaiok jaramonik egin, motel, ekiten zion Lefrançois atsoak; jadanik nahikoa eta gehiegi martirizatu haute! Gero eta ahulago geratuko haiz. To, irentsizak!

Eta salda eder bat edo aurkezten zion, arku-me-izter zatiren bat, urdai-xerraren bat, eta tarte-pattar-baxoren bat, zeina ezpainetara eramateko ez baitzuen adorerik izaten.

Bournisien apaizak, okerrago zihoala jakinik, ikustea eskatzeko bidea egin zuen. Bere gaitzarenatik urrikalduz hasi zen, aldi berean deklaratu hartaz bozkariatu beharra zegoela, zeren eta Jaunaren borondatea baitzen, eta abaguneaz fite baliatu zeruarekin bakeak egiteko.

— Zeren, hala zioen elizgizonak tonu paternal batez, zure betebeharrak apur bat zabartzen ari baitzinen; oso noizbehinka ikusten zintugun elizkizunetan; zenbat urte da mahai saindura hurbildu ez zarela? Nik ulertzen dut zure eginkizunek, munduko zurrunbiloak apartatu ahal izan zaituztela zure salbazioaren arduratik. Baina, orain, horretaz hausnartzeko garaia da. Ez ezazu etsi halere; ezagutu izan dut errudun handirik, Jainkoaren aurrera aurkeztear, (zu oraindik ez zara

inolaz ere horretan, ongi dakit nik hori), haren urrikalmendua erregutzen, eta ziurki gertuarik hoberenetan hil ziren. Espero dezagun, zuk ere, haiek bezalaxe, jarraibide onak emango dizkiguzula! Beraz, bada ezpada ere, nork eragotziko ote lizuke ba goizero eta arratsero «Agur Maria graziaz betea» bat eta «Aira gurea zeruetan zarena» bat errezatzea! Bai, egin horixe! niregatik, niri poz emateko. Zer kostatzen da ba?... Agintzen al didazu?

Gizaixoak agindu egin zuen. Apaiza berriro etorri zen hurrengo egunetan. Ostalersarekin solasean aritzen zen eta pasadizoak ere kontatzen zituen tarteka txisteak eta hitz-jokoak nahasiz, zeinak ez baitzituen Hippolytek ulertzen. Gero, abaguneak aukera ematen zion orduko, berriro erlijio-gaietara sartzen zen, hartarako aurpegia ipiniaz.

Bere lehiak arrakasta izan zuela zirudien; zeren estrefopodoak laster azaldu baitzuen Bon-Secoursera erromes joateko gogoia, sendatzen baldin bazen: horri buruz Bournisien jaunak erantzun zuen, inolako eragozpenik ez zuela

ikusten; bi ardura hobe bat baino. *Ez zen ezer arriskatzen.*

Botikarioa asaldatu egin zen *apaizaren triki-mailuak* zeritzan horren kontra; kaltegarriak ziren, hala zioen berak, Hippolyteren zuzperral-dirako, eta madame Lefrançoisri errepikatzen zion:

— Utzizue! utzizue! morala nahastatzen diozue zuen mistizismo horrekin!

Baina emakume gajoak ez zion gehiago ezer entzun nahi. Hura zen *guztiaren eragile*. Aiherkude-izpirituz, ur-bedeinkatu ontzi bat ere zintzilikatu zuen bete-beterik gaixoaren oheburuan, ezel adar batekin.

Ez zirudien ordea erlijioak ere kirurgiak hain gehiago laguntzen zionik, eta garaitu ezinezko usteldura igotzen zihoan beti ere gorputzadarretatik sabelerantz. Nahiz eta edabeak bestelakotu eta kataplasmak aldatu ere, giarreak, egunetik egunera, are gehiago jalgitzen ziren, eta azkenik Charlesek buruaren baiezkoko keinu batez erantzun zuen Lefrançois atsoak galdetu zionean ea ez ote zezakeen, galduak galdu, andreak

berak monsieur Canivet, Neufchâtelgoa, ekarraz, ospe handikoa baitzen.

Medikuntzan doktore, berrogeita hamar urte, gradu on baten jabe eta bere buruarengan segurantz, ofiziokidea ez zen herabe izan erdeinuz barre egiteko, belauneraino pasmoak jotako zango hura idoro zuenean. Gero, moztu beharra zegoela garbi deklaraturik, botikara joan zen, gizon dohakabe bat egoera hartara bihurtzeko gauza izan ziren astatzarren kontra bereak eta bi botatzera. Monsieur Homais bere xenilaren botoitik astinduz, deiadarka ari zen botika barruan.

— Parisko asmakariak dira hauek! Horra hor Hiriburuko jaun horien ideiak! Estrabismoa, kloroformoa eta litotrizia bezalaxe, gobernuak debekatu behar izango lukeen munstrokeria pila! Baina erpixiarena egin nahi ordea, eta erre-medioz galkatzen zaituzte ondorioez arduratu gabe. Gu ez gara hain jakintsuak, hemen; gu ez gara jakintsuak, xanfarinak, pinpirinak; gu medikuak gara, sendagileak, eta ez litzaiguke burutik pasako primeran dabilen norbait operatzea! Hanka okerrak zuzendu! Zuzen al daitezke ba

hankokerrak? Zera bezala da hori, adibidez, txalkor bat zuzen zuzendu nahi izatea!

Homais sufritzen ari zen mintzaldi hori entzutean, eta gortelari-irribarre baten pean estaltzen zuen bere ondoeza, monsieur Canivetekin, zeinaren errezetak batzuetan Yonvilleraino ere heltzen baitziren, adeitsuki konpondu beharrean izaki; halaber ez zuen Bovaryren defentsarik hartu, ez zuen inolako oharkuntzarik ere egin, eta, bere printzipioak aldera utzirik, bere duintasuna sakrifikatu zuen bere negozioaren interes serioagoen alde.

Gertaera garrantzitsua izan zen herrian Canivet doktoreak buruturiko izter-mozketa hau! Biztanle guztiak, egun horretan, goizago jaikiak ziren, eta Grande-Ruek, jendez beterik eta guzti ere, bazeukan zerbait goibela heriotza-exekuzio bat bailitza. Janari dendan Hippolyten gaitzaz eztabaidatzen zen, beste dendek ez zuten ezer saltzen, eta madame Tuvache, alkatearen emaztea, ez zen leihotik mugitzen, operatzailea etortzen ikusteko zeukan ezinegonarengatik.

Bere landoan heldu zen berak gidatzen zuela. Baina, haren gorputzarraren pisuaren pean den-

boraren poderioz eskuin aldeko balezta emana zegoenez, gertatzen zen kotxea apur bat zeharkatu egiten zela ibilian, eta beste kuxinaren gainean, bere alboan, kaxa handi bat hautematen zen, karamuko gorritz azaleztatua, zeinaren hiru sarraila kobrezkoek maisuki distiratzen zutela.

*Lion d'or*-eko ataripean zurrunbilo bat bezala sartu zenean, doktoreak, oso ozen deiadarka, bere zaldia askatzeko agindu zuen, gero ikuilura joan zen oloa ongi jaten ote zuen ikustera; zeren, gaixoaren etxera iristean, lehenik bere behorraz eta bere landoaz arduratzen baitzen. Hori dela eta esan ere esaten zen: «Ah! monsieur Canivet, bitxia da!» Eta estimu are handiagoa zitzaion sotiltasun asaldakaitz harengatik. Unibertsoa leher zitekeen azken gizoneraino, berak ordea ez zukeen huts egingo bere ohituretarik txikienean ere.

Homais aurkeztu zen.

— Zurekin kontaktzen dut, esan zuen doktoreak. Prest al gara? Aurrera!

Baina botikarioak lotsagorriturik aitortu zuen, horrelako operazio batean bertan egoteko sentiberetgia zela.



— Ikusle hutsa zarenean, zioen, irudimena, badakizu, laztu egiten da! Eta gainera nerbio-sistema hain daukat...

— Ah bah! moztu zuen Canivetek, zuk, aitzitik, apoplexiarako joera daukazula iruditzen zait. Eta, bestalde, horrek ez nau harritzen; zeren, zuek, farmazeutiko jaunok, etengabe zuen sukaldetan sarturik zabilzate, eta horrek azkenerako aldatu egin behar zuen tenperamentua. Begiraidazu niri, ordea: egunero, lauretan jaikitzen naiz, ur hotzez mozten dut bizarra (nik ez dut sekula hotzik) ez dut franelarik jazten, ez dut inoiz katarrorik harrapatzen, kutxa ona da! Batean honela, bestean hala bizi naiz, filosofo gisa, datorrena datorrela. Horregatik ez naiz ni zuek bezala bat ere menddere eta zeharo berdin zait kristau bat nahiz eskura datorren lehen lumakia zatikatu. Jakina, esango duzu zuk, ohitura..., ohitura!...

Orduan, bere maindiren artean estuasunez izerditan zegoen Hippolytekiko inolako begiramenik gabe, jaun hauek elkarrizketari ekin zioten non botikarioak kirurgilariaren odol-hotza jeneral batenarekin gonbaratu baitzuen; eta alderatze hau atsegin izan zuen Canivetek zeina

luze mintzatu baitzen bere artearen galdakizunez. Berak sazerdote goiza behatzen zuen, osasun-ofizialeek desohoratzen zuten arren. Noizbait ere, gaixoarengana itzulirik, Homaisek ekarritako bendak aztertu zituen, hankokerraren hartan aurkeztu ziren berberak, eta norbait eskatu zuen menbruari eusteko. Lestiboudoisen bila bidali zuten norbait, eta monsieur Canivet, bere mahukak altxaturik, billar-salara pasatu zen, eta aldiz botikarioa bertan geratu zen Artemiserekin eta ostaliersarekin, biak beren amantalak baino zurikailago, eta belarria atearen kontra luzaturik.

Bovary, bitarte horretan guztian, bere etxetik mugitzen ez zen ausartzen. Behealdean zegoen, salan, surik gabeko tximini-zokoan eserita, kokotsa papar gainean, eskuak baturik, begiak tinko. Zer nolako zorigaiztoa! pentsatzen zuen, zer nolako etsimendua! Hartuak zituen ba alabaina ardura asmagarri guztiak. Halabeharra nahastua zen hartan. Dena den, baldin eta Hippolyte, gero, hiltzea kausitu baledi, bera litzateke asasi-natu zukeena. Eta gainera, zein arrazoi eman behar zuen bisitetan, galde ziezaiotenean?

Agian, halere, zerbaitetan oker ibilia ote zen? Saiatzen zen, ez zuen aurkitzen. Baina kirurgilari ospetsuenek ere huts egiten zuten noski. Horra hor sekulan sinetsi nahi izango ez zuketena! aitzitik barre egingo zuten, marmarrean jardun! Hau Forgesaino zabalduko zatekeen! Neufchâtelaino! Rouenaino! alde guztietara! Eta nork jakin bere ofiziokideek bere aurka ez ote zuten idatziko? Polemika sortuko zatekeen, egunkarietan erantzun behar izango zukeen. Hippolytek berak ere auzitara eramán zezakeen. Desohoreturik, porrot eginik, galdurik ikusten zuen bere burua! Eta bere irudimena, hipotesi mordo batek erasorik, hauen artean zabukatzzen zen, itsasora eramandako upela huts bat bezala tirainen gainean piririka.

Emmak, aurrez aurre, so egiten zion; bera ez zen haren umilazioan partaide, berak beste bat sentitzen zuen: halako gizon batek zerbait balio izan zezakeela uste izana zen, jadanik hogeï bider haren kaxkarkeria nahiko hauteman izan ez balu bezala.

Charles aldenik alde ibilian zebilen, bere gelan. Bere botek kirrinka egiten zuten zoladura gainean.

— Eseri! esan zion Emmak, amorrizi egiten nauzu! Eseri egin zen.

Nola ordea moldatu zen bera (hain azkarra izanik) beste behin ere huts egiteko? Bestalde, zein tehenberia tamalgarrirengatik hala alferrik galdua bere bizialdia etengabeko sakrifiziotan! Bere luxusenak gogoratu zituen, bere arimaren gabezia guztiak, ezkontzako zatarkeriak, elkarbitzakoak, bere ametsak lohitan eroriak enara zaurituen gisa, gutzizatu izan zuen guztia, bere buruari ukatu zion guztia, eduki ahal zezakeen guztia! Eta zergatik, zergatik?

Herria betetzen zuen isiltasunaren erdian, garrasi arrailgarri batek zulatu zuen airea. Bovary beluri bilakatu zen zorabiatzear. Emmak bekainak zimurtu zituen keinu nerbioso batean, gero jarraitu egin zuen. Horregatik izan zen, ordea, izaki horregatik, ezer ulertzen ez zuen, ezer sentitzen ez zuen gizon horregatik! Zeren hantxe zegoen, lasai-lasai, burutik pasatu ere egin gabe ezen haren izenaren irrigarrikeriak

aurrerantzean hura bezalaxe zikinduko zuela Emma bera ere. Berak egin zituen ahaleginak hura maitatzeko, eta negarrez damutua zen beste gizon bati amore eman izanagatik.

— Baina agian valgus bat zen? oihukatu zuen bat-batean Bovaryk, gogoetan ari baitzen.

Esaldi honen ezusteko tunpakoaz, berunezko bala bat zilarrezko erratilu batean bezala bere pentsamenduaren gainera erortzean, Emmak ikaraz burua altxatu zuen hark zer esan nahi ote zuen sumatzearren; eta elkarri so egin zioten isilean, elkar ikusteaz ia txunditurik, hain baitzeuden beren kontzienteaz elkarrengandik urrun. Charlesek gizon hordi baten begirada uherraz so egiten zion, aldi berean entzunez, arrail, hankamoztuaren azken garrasiak zeinak jarraikako modulaziotan errestatzen baitziren, sakada zorrotzez etenik, lepo egiten ari zaizkion piztiren baten urruneko alarauaren gisa. Emmak bere ezpain zurailak ausikitzen zituen, eta, hautsia zuen marmukarriaren printza bat bere behatzen artean jirakatuz, Charlesi buruz finkatzen zuen bere betseinen punta suhartua, garrezko bi gezi bezala tiratzeko prest. Harengan orok haserrara-

zi egiten zuen orain, haren aurpegiak, haren jantziak, esaten ez zuenak, haren pertsona osoak, haren izateak berak. Emma damutu egiten zen, krimen batez bezala, iraganeko bere bertuteaz, eta hartatik artean geratzen zena bere harrotasunaren kolpe zakarren pean lurjotzen ari zen. Adulterio garailearen ironia gaizto guztietan atsegin hartzen zuen. Bere amorantearen oroitzapena zetorkion erakartasun zorabiagarritz; hartara jaurtikitzen zuen bere arima, entusiasmo berri batek irudi hartarantz eramanez; eta Charles bere bizitzatik hain aldendua iruditzen zitzaion, betirako hain ausente, hain ezinezkoa eta deuseztatua, nola hiltzera joango bailitza eta bere begien bistan agoniatu bailitza.

Urrats hotsa izan zen espaloian. Charlesekin begiratu egin zuen; eta, pertsiana jaitsietatik barrena, azokako ertzean hauteman zuen, bete-betean eguzkitan, Canivet doktorea, bere fularrarekin bekokia xukatzen. Homaisek, haren atzetik, kaxa gorri handi bat zeraman eskuan, eta biak farmazi aldera zihoazen.

Orduan, bat-bateko samurduraz eta huzkurduraz, Charles bere emaztearengana itzuli zen esanez:

— Besarka nazazu, laztana!

— Utz nazazu! esan zion Emmak, haserrez gorri-gorri.

— Zer duzu? zer duzu? errepikatzen zuen gizonak balditurik. Lasa zaitez, lasaitu! Badakizu maite zaitudala!... zatoz!

— Aski da! oihukatu zuen itxura ikaragarri batez.

Eta, salatik aldeginenez, Emmak hain zakar itxi zuen atea non barometroa hormatik jauzi egin baitzen eta lurrean apurtu.

Charles bere besaulkian abaildu zen, irabiatu-rik, Emmak zer eduki ote zezakeen bila, nerbioetako gaitzen bat imajinatuz, negarrez, eta bere inguruan jiraka nolabait ere sentituz halakoxe zorigaitzoko eta ulertezineko zerbait.

Rodolphe, arratsean, baratzerara heldu zenean, harreskilararen oinean aurkitu zuen, lehen mailaren gainean, bere amorantea zain. Hertsiki besarkatu zuten elkar, eta beren herra

guztia elurra bezala urtu zen musu haren berotan.



## —XII—

Berriro amodiotan hasi ziren. Sarritan, baita egunaren erdian ere, Emmak bestegabe idatzi egiten zion; gero, leiarren bestaldetik, keinu egiten zion Justini, eta hau, bere mantala berehala askaturik, habailan joaten zen Huchettera. Rodolphe etortzen zen; hari esateagatik zen, aspertu egiten zela, bere senarra gorrotagarria zela eta existentzia nazkagarria!

— Eta zen egingo dizut ba nik? bota zion egun baten, ernegaturik.

— Ah! Zuk nahi bazenu!...

Emma lurrean eserita zegoen, haren belauen artean, adatsak askaturik, begirada galdu-rik.

— Zer ordea? esan zuen Rodolphek.

Emmak hasperendu zuen:

— Beste leku batera joango ginateke bizitzera..., norabait...

— Zu zoratuta zaude, benetan! esan zuen barrez. Posible al da?

Emma berera itzuli zen; besteak ez ulertuarena egin zuen eta solasgaiez aldatu zuen. Gizonak ulertzen ez zuena zera zen, nahasmendu hori guztia maitasuna bezain gauza ximple batean. Emmak zergatik bat bazeukan, arrazoi bat, eta bere atxikimendurako laguntzaile bat bezala.

Laztintasun hau, eskierki, egunean-egunean are handiagotzen ari zen senarrarekiko higuinaren pean. Zenbat eta gehiago ematen zitzaion batari, hainbat eta arbuiatzenago zuen bestea; sekulan ez zitzaion iruditzen Charles hain gogai-karri, behatzak hain karratuak zituenik, izpirituz hain soraio, moldez hain arrunt nola Rodolpherekin egon ondoren, biak elkarrekin aurkitzen zirenean. Halakoetan, emaztearena eta bertutetsua-rena egin ala, garretan pizten zen ile beltzak bekoki brontzeaturantz kiribil batean bihurka-tzen zitzaizkion buru hartaz pentsatzean, aldi berean hain sendoa eta hain lerdena zen gorputz hartaz, azken finean, gizon hartaz, zeinak hain-besteko esperientzia baitzeukan arrazoian hain-besteko oldarra irritsean! Azkazalak zizelari baten arduraz limatzen bazituen, harentzako

zen, eta baila larrazal gainean nahiko *cold-cream* sekulan ez izatea, eta musuzapietan nahiko patchouli ez izatea ere. Besokoz, bitxiz, idunekoz jazten zen. Hark etorri behar zuenean, kristal urdinezko bere bi ontzi handiak larrosaz betetzen zituen, eta bere gela eta bere burua printze baten zain dagoen gortesana baten gisa prestatzen zituen. Neskamea etengabe arropa zuria garbitzen aritu beharrean izaten zen; eta, egun osoan, Felicite ez zen sukaldetik mugitzen, eta bertan Justin txikia, askotan lagun egiten baitzion, hari lanean begira egoten zen.

Neskamea lisatzen ari zen ohol luzean ukondua, miguru behatzen zituen bere inguruan ipinitako emakume-jantzi haiek guztiak: bonbazinezko azpikogonak, besanak, lepokoak, eta galtza irekiak, aldakatan zabalak eta barrenetan estutzen direnak.

— Zertarako izaten da hau? galdetzen zuen mutikoak bere eskua krinolinaren edo karfeten gainean pasatuz.

— Sekulan ez al duzu ba ezer ikusi? erantzuten zuen barrez Felicitek; zure etxekoandreak,

madame Homaisek, honelakorik eramango ez hain bezala.

— Ah bai, jakina! madame Homais!

Eta tonu gogoetatsuz eransten zuen:

— Hura ordea, Madame bezala dama bat al da?

Baina Felizite ernegatu egiten zen bere inguruan hura horrela itzuli-mitzulika ikusteaz. Berak sei urte gehiago zuen, eta Theodore, monsieur Guillauminen sehia, hasia zuen gorte egiten.

— Utz nazazu bakean! zioen neskameak bere enpesa-potoa lekuz aldatuz. Zoaz hemendik arbendolak xehatzera; emakume artean muturra sartuta zabilta beti; horrelakoetan nahasteko itxoin ezazu, ume ziztrin horrek, harik eta kokotsean bizarra eduki arte.

— Aizu, ez haserretu, *haren botinak garbituko dizkizut.*

Eta berehala hartzen zituen leihondotik Emmaren oinetakoak, lohiez estaliak, —rendez-vous'erako lohia— zeina hautsetan jalgitzen baitzen haren behatzen pean, eta emeki igotzen so egiten zion mutikoak eguzki-iñar batean.

— Hori da beldurra botinak hondatzeko!  
zioen sukaldarisak, zeinak ez baitzuen hainbeste  
arreta ipintzen berak garbitzen zituenean, zeren  
eta Madamek, oihala jada berri ez zegoen ordu-  
ko, berari uzten baitzizkion.

Emmak mordoak zeukan bere alaskan, eta  
berak alferrik hondatzen zituen bata bestearen  
ondoren, Charlesek sekulan ohartarazpen txikie-  
nik ere bere buruari zilegitu ez ziolarik.

Eta horrelaxe jalgi zuen hirurehun libera  
zurezko zango baterako, Emmari komenigarri  
iruditu baitzitzaion Hippolyteri opari egitea.

Egurrezko hanka kortxoztaturik zegoen, eta  
junturak malgukidunak zituen, mekanika konple-  
xua galtza beltz batzuez estalirik, bota bernizatu  
batez bukatzen zela. Baina Hippolytek, hain  
zango eder batez egunero baliatzen ausartzen  
ez zenez, Madame Bovaryri otoi eskatu zion  
beste bat erosoagoa erdiets ziezaion. Erosketa  
honen kostuak ere, jakina, medikuak hartu  
zituen bere gain.

Beraz, ikuilu-morroia poliki-poliki hasi zen  
berriro bere lanbidean. Lehenago bezala ikusten  
zen herrian barrena ibiltzen, eta Charlesek

urrundik entzuten zuenean, galtzara gainean, haren hanka-makilaren hots zekena, laster asko hartzen zuen beste bide bat.

Monsieur Lheureux zen, merkataria, mandatuaz arduratu zena; horrek aukera eskaini zion Emmarekin sarritan tratatzeko. Parisetiko salkin berriez mintzatzen zen damarekin, mila emakume-bitxikeriaz, oso adeibera azaltzen zen eta inoiz ez zuen dirurik galdatzen. Bere apeta guztiak asebetetzeko erraztasun honetara abandonatu zen Emma. Horrela, bereganatu nahi izan zuen, Rodolpheri emateko, Rouengo guardasoldanda batean aurkitzen zen zaharo oso polit bat. Monsieur Lheureuxek, hurrengo astean, mahai gainean ipini zion.

Baina biharamunean etxean aurkeztu zen berrehun eta hirurogeita hamar liberatako faktura batekin, xentimoak kontatu gabe. Emma biziki larritu zen: idazmahaiko kaxoi guztiak hutsik zeuden; hamabost egun baino gehiago zor zitzaion Lestiboudoisri, bi hiruhilabeteko neska-meari, beste gauza pila bat gehiago, eta Bovary larri zegoen monsieur Derozeraysen igorpenaren

zain, zeinak, urtero, San Pedroak aldera ordaindu ohi baitzion.

Emmak hasieran lortu zuen Lheureux txulia-tzea; hark azkenerako pazientzia galdu zuen: Jazartzen ari zitzaizkion, bere kapitalak hortik zehar ziren, eta, eta baten batzuk berreskuratzen ez bazituen, ekarritako merkantzia guztiak kentzera beharturik gertatuko zatekeen.

— Ah! Har itzazu ba! esan zion Emmak.

— Oh! txantxetan ari nintzen! erantzun zuen besteak. Izatekotan, zaharoa bakarrik auhendatzen dut. Alafede, Monsieuri eskatuko diot.

— Ez! Ez! esan zuen Emmak.

— Ah! Harrapatu haut! pentsatu zuen Lheureuxek.

Eta, bere kausitaz ziur, han joan zen ahopean berekiko errepikatuz eta ohizko bere xixtuñoa joaz:

— Hala bedi! ikusiko dugu! ikusiko dugu!

Emma buruhausten ari zen hartatik nola irten, noiz eta sukaldarisak sartu eta tximiniaren gainean paper urdinezko kuezta txiki bat laga zuenean *monsieur Derozeraysen partetik*. Emma jaurtiki zen hartarat, ireki zuen. Hamabost napo-

leon zeuden. Hain zuzen kontuarena. Entzun zuten Charles eskilaran; urrea bere kaxoiaren zokora bota zuten eta giltza hartu egin zuten.

Handik hiru egunetara azaldu zen berriro Lheureux.

— Konponbide bat daukat zuri proposatzeko, esan zuten; baldin eta, esandako zenbatekoaren ordeztu, zuk hartu nahi izango bazenu...

— Hona hemen! esan zion Emmak, eskuan hamalau napoleon ipintzen zizkiola.

Merkataria txundituta geratu zen. Orduan, bere txuluta disimulatzeko, estakurutan hizjaritu zen, eta zerbitzu-eskaintzatan, zeinak Emmak ezetsi egin baitzituen guztiak; gero zenbait minutuz egon zen hark itzuli zizkion ehun sous'-tako bi txanponak bere amantalaren poltsikoan haztakatuz. Ekonomizatzea hitz ematen zion bere buruari, gero itzultzeko...

— Ah bah! pentsatu zuten, ez zaio gehiago bururatuko.

Zilar gorlatuzko eskulekudun zaharoaz beste, Rodolphek jaso zuen zigilu bat izkiribu honekin: *Amor nel Cor*; gainera, etxarpe bat musu-bozaki bat egiteko, eta azkenik zigarro-toxa bat bizkon-



dearen haren berdin-berdina, behin batez Charlesek kamioan jaso eta Emmak gordeta zeukan hura bezalakoa. Halere opari hauek umilatu egiten zuten. Hauetarik asko errefusatu zituen: Emma tematu zen, eta Rodolphek obeditzen amaitu zuen, hura tiraniko eta larregi inbadikor kausitu zuelarik.

Gainera ateraldi bitxiak izaten zituen:

— Gauerdiko hamabiak jotzean, esaten zion, nitaz pentsatuko duzu.

Eta, baldin eta hartaz ez pentsatu izana aitortzen bazuen, ahakarrak ugari izaten ziren, eta aldioro betiko hitzekin bukatzen ziren:

— Maite nauzu?

— Noski ba, maite zaitudala! erantzuten zuen gizonak.

— Asko?

— Bai horixe!

— Besterik ez duzu maite izan, ez?

Birjin hartu nauzula uste al duzu ala? botatzen zuen besteak barrez.

Emmak negar egiten zuen, eta kontsolatzen saiatzen zen Rodolphe, bere protestak xirtoz apainduz.

— Oh! maite baitzaitut! hasten zen berriro Emma, zu gabe ezin bizi izateraino maite zaitut, badakizu hori? Batzuetan zu berriro ikusteko gogoia sartzen zait eta horrelakoetan amodioaren amorru guztiek zartatatzen naute. Nirekiko galdetzen dut: «Non ote da? Agian beste emakumeren batekin hizketan ari da. Besteak irribarre egiten dio, bera hurbiltzen zaio...». Oh! ez, ez al da hala, ez duzula besterik atsegin? Ederragoak badira; baina, nik, hobeto dakit maitatzen! Zure zerbitzaria eta ohaidea naiz ni! zu nire erregea zara, nire idoloa! ona zara! ederra zara! argia zara! azkarra zara!

Hainbatetan entzunak zituen gauza horiek esaten, non berarentzat ez baitzeukaten orijinalik ezer; amorante guztien antzekoa zen Emma; eta berritasunaren xarma, jantzi bat bezala poliki-poliki erortzean, biluzi uzten zuen bistan grinaren betiereko monotonia, zeinak forma berberak eta hizkera berbera baititu beti. Ez zuen bereizten, praktikaz hain jantzitako gizon honek, sentimenduen desberdintasuna adierazpenen berdintasunaren pean. Zeren eta, ezpain lizun edo salkoiek xuxurlatuak baitzizkioten esaldi

berdintsuak, motelki baino ez zuen sinesten hauen xalotasunaz; behehitu beharra zegoen, pentsatzen zuen, txera epelak estaltzen dituzten bapikako diskurtsuak; arimaren betedura ordea batzuetan metafora hutsalenen bidez gainezkaturko ez balitz bezala, zeren eta inork, inoiz, ezin baitezake eman bere beharren neurri zehatza, ez bere kontzeptuena ez eta bere oinazeena, eta giza-mintzoa pertz pitzatu baten antzo baita non jotzen ditugun hartzari dantza eragiteko melodiak, noiz eta izarrak hunkitu nahi genituzkeen.

Baina, ezein kinkatan atzeko aldean mantentzen denak daukan kritika-abantaila horrekin, Rodolphek hauteman zuen maitasun honetan beste zenbait gozamen eskorkatu bide. Ahalke oro deserosotzat jo zuen. Begirunerik gabe tratatu zuen. Gauza malgu eta usteldua bihurtu zuen. Atxikimendu zirauki-modutsu bat zen Emmarena harenganako mirespenez, bereganako boluptuositatez betea, toiltzen zuen dohatasun bat; eta bere arima horditasun horretan hondoratzen zen eta bertan ito, kikildurik, Clarenceko dukea bere malbasia-upelean bezala.

Bere amodio-ohituren eragin hutsez, Madame Bovary aldatu egin zen gisaz. Bere begiradak ausartagoak bilakatu ziren, bere diskurtsoak libreagoak; egin ere, zigarro bat ahoan, Rodolphekin pasiatzeko arrunkeria egin zuen, *munduaz nausatzeko bezala*; dena den, artean zalantzaz zeudenek jada ez zuten gehiago zalantzarik izan ikusi zutenean, egun batez, *Hirondelle*-tik jaisten, soina gerrontze batean hertsaturik, gizon baten erara; eta madame Bovary ama, zeina, bere senarrarekin izugarrizko tekela izan ondoren, bere semearen etxean babestera etorrria baitzen, ez zen izan gutxien eskandalizatutako burgesa. Beste gauza franko ere gaitzitu zitzaion: hasteko Charlesek fitsik ere entzun gabe zituen bere aholkuak nobelak debekatzeari buruz; gero, *etxearen moldakera* gaitzi zitzaion; zilegi hartu zuen zenbait ohartarazpen egitea eta haserretu egin ziren, batez ere behin, Felicite zela medio.

Madame Bovary amak, bezpera arratsean, korridorean barrena zihoala, gizon batekin harra-patu zuen, gizon bizar-beltz bat, berrogei urte ingurukoa, zeinak, urrats-hotserara, arin aldegin

baitzuen sukaldetik. Orduan Emmak barreari ekin zion, baina dama gajoa sumindu egin zen, deklaratu ez, hazturez ez trufatzekotan behintzat, sehien ohiturak zaindu egin behar zirela.

— Zein mundutakoa zara zu? esan zuen errainak, begirada hain mutiriaz non Madame Bovaryk galdetu baitzion ea ez ote zen ari bere aieka propiala defendatzen.

— Alde hemendik! bota zuen emakume gazteak jauzi batean zutiturik.

— Emma!... Ama!... Zioen ozenki Charlesek bakeak egin nahiez.

Baina emakumeak itzuriak ziren biak ere beren suminduran. Emma zangopilaka ari zen errepikatuz:

— Ah! zer nolako jendetasuna! Larre-atso halakoa!

Charlesek bere amarengana jo zuen korrika; bere onetik aterata zegoen, zezelka zioen:

— Lotsagabe bat da! buruarina! edo okerragoa agian!

Eta berehala alde egin nahi zuen, baldin beste etortzen ez bazitzaion desenkusatzera. Char-

les bere emaztearengana itzuli zen eta arren erregutu zion amore eman zezan: belauniko jarri zitzaion; Emmak noizbaitekoan erantzun zuen:

— Hala bedi! banoa.

Eskierki, bere amaginarrebari eskua luzatu zion markesa baten duhintasunez, esanez:

— Desenkusa nazazu, madame.

Gero, bere gelara igo eta luze jauzi zen ahozpeztan bere ohearen gainean, eta han haur batek bezala egin zuen negar Emmak, burua burkoan murgildurik.

Elkarren artean hitzartua zuten, berak eta Rodolphek, ezen aparteko gertakaririk izanez gero, Emmak paperzuri mutur bat lotuko zukeela pertsianan, hura, ausaz, Yonvillen aurki baldi, etxe atzeko zurrunara arin etor zedin. Emmak egin zuen seinalea; zuela hiru ordu laurden zain zegoen non eta azoketako ertzean hauteman zuenean bat-batean Rodolphe. Tentaturik egon zen leioa irekitzeko, dei egiteko; baina hura ordurako desagertua zen. Berrito etsipenean erori zen.

Berehala, ordea, espaloian norbait zebilela iruditu zitzaion. Bera zen, dudarik gabe; eskila-

rak behera jaitsi zen, baila zeharkatu zuen. Han zegoen, kanpoan. Haren besoetara jauzi zen.

— Kontu izan gero, esan zuen gizonak.

— Ah! bazeneki! zioen damak.

Eta hari dena kontatzen hasi zen, presaka, segidarik gabe, egitateak bapikatuz, asko asma-tuz, eta parentesiak oparo tartekatuz, hain ugari non gizonak ezer ez baitzuen ulertzen.

— Ea ba, nire aingeru gaixoa, izan adorea, kontsola zaitetz, hartzazu pazientzia!

— Baina horra lau urte pazientzia hartzen ari naizela eta sufritzen ari naizela!... Gurea bezala-ko maitasuna zeruaren aurrez aurre aitortu beharko litzateke! Ni torturatzen ari dira. Ezin dut gehiago! Salba nazazu!

Rodolpheren kontra hertsatzen zen. Bere begiek, malkoz beterik, garrak uhinpean bezala pindarkatzen zuten; bere eztarriak kolpe sarrika hatsankatzen zuen; inoiz ez zuen Rodolphek hainbeste maite izan; hainbat non burua galdu baitzuen eta esan zion:

— Zer egin behar da? Zer nahi duzu?

— Eraman nazazu! zioen Emmak. Ebatsi nazazu!... Oh! otoi eskatzen dizut!

Haren ahoaren kontra oldartu zen, bertatik laztan batean lurruntzen zen baiezko ustekabea atxikitzearen bezala.

— Baina..., hasi zen Rodolphe.

— Baina zer?

— Eta zure alaba?

Momentu batez gogartu zuen, gero erantzun zuen:

— Geurekin hartuko dugu, gero gerokoak!

— Zer nolako emakumea! zioen berekiko, urruntzen so eginez.

Zeren jardinean barrena itzuria baitzen. Deika zituen.

Bovary ama, ondorengo egunetan, oso harriturik egon zen bere errainaren metamorfosiaz. Eskierki, Emma menerakorrigo azaldu zen, eta luzkarttipiak gatzunetan jartzeko errezeta bat hari eskatzeraino ere eraman zuen bere adeitaz.

Bata eta bestea hobeto atzipetzearen alden? Edota, estoizismo boluptuos antzeko zer-baitengatik, sakonkiago sentitu nahi ote zuen abandonatzera zihoan gauzen mindura? Baina ez zuen horretaz arretarik hartzen, aitzitik: laste-



rreko bere zorionaren dastapen aitzinatuan galdurik bezala bizi zen. Hau zen Rodolpherekin etengabeko solasgaia. Haren sorbaldaren kontra ezartzen zen, xuxurlatzen zuen:

— Eh! Posta-kotxe barruan egongo garenan!... Pentsatzen al duzu horretaz? Posible al da? Landoa habailan abiatzen sentituko dudan momentuan, globoan igoko bagina bezala izango dela iruditzen zait, hodeietarantz abiatuko bagina bezala. Badakizu egunak kontatzen ari naizela?... Eta zu?

Inoiz ez zen izan madame Bovary denboraldi hartan bezain ederra; bozkariotik, gogoberotik, arrakastatik sortzen den, eta inguruabarrekin temperamentuaren harmonia besterik ez den definiezineko edertasun hori zeukan. Bere apeta, bere atsekabe, plazeraren esperientzia eta bere ilusio beti ere gazteek, loreei gorotzak, euriak, haizeek eta eguzkiak egiten dieten bezala, garatua zuten gradazioz, eta azkenean ere bere naturaren osotasunean zabaltzen ari zen. Bere betazalek propio dolatuak ziruditen bere begirada luze amurusentzako non betseina galtzen baitzen, anartean hats bortitz batek bere

sudur-hegal meheak zabaldu eta, argitara ilaun beltz apur batek iluntzen zuen bere ezpainen hegi haragitsua altxatzen ziola. Esan zitekeen, artista ustelgaldutan trebe batek adelatu zuela bere garondoan bere ileen bihurkina; mordoska lodi batean kiribiltzen ziren, zabarki, eta egunero askatzen zituen adulterioaren menturen araberak. Bere ahotsak, orain, malgudura belaskagoak hartzen zituen, bere soinak ere bai; barnerritzen zitzaizun zerbait mehaxka jalgitzen zen bere soinekoaren azpilduretatik eta bere oinaren kopaduratik. Charlesek, ezkonberritako garaian bezalaxe, gozagarria eta zeharo jarkiezina kausitzen zuen.

Gauaren erdian etxera itzultzen zenean, ez zen iratzartzera ausartzen. Portzelanazko ontzi-ko argiñoak erlantz dardaratia biribiltzen zuen sabaian, eta sehaska txikiaren errezel itxiek, itzalpean bonboilatzen zen etxola bat bezala egiten zuen, ohearen alboan. Charlesek so egiten zien. Bere haurraren arnasa arina entzun uste izaten zuen. Orain hazten joango zen; urtaro bakoitzak, laster, aurrerapen bat ekarriko zuen, ikusten zuen jada arrastirian eskolatik itzultzen,

irribarretsu, soinekotxoa tintaz orbandurik, eta besoan bere otarretxoa zeramala; gero barnetegian sartu beharko zuten, hori asko kostako zen; nola moldatu? Orduan gogoetan aritzen zen. Inguruetan etxalde bat alokatzea ere pentsatzen zuen, berak zainduko zukeen, goizero, gaixoak bisitatzera zihoanean. Hango irabaziak gorde egingo zituzkeen, aurrezki kutxan sartu; gero akzioak erosiko zituzkeen, nonbait, edonon; bestalde bezeria ugaltzen joango zen; horrekin kontaktatzen zuen, zeren Berthe ongi eskolatua izan zedin nahi baitzuen, buruz jantzia izan zedila, pianoa ikas zezala. Ah! bai polita izango zela, gero, hamabost urtetan, noiz eta, amaren antzekoa, hark bezala berak ere eramango zituenean, udan, lastozko ginbail handiak! Urrunetik bi ahizpatzat joko zituzten. Arratsean beren ondoan lanpararen argitan lanean irudikatzen zuen. Oskierrestak brodatuko zizkion; etxeko lanez arduratuko zen; etxe guztia beteko zuen bere xarmaz eta bere alaitasunez. Azkenik, pentsatuko zuten haren enpleguaz: etxe oneko mutil jator bat aurkituko zioten; hark zoriontsu egingo zuen; horrek beti iraungo zuen.

Emmak ez zuen lo egiten, lotan egotearen itxura egiten zuen; eta, gizona bere ondoan lokartzen ari zen bitartean, bera beste amets batzuetan esnatzen zen.

Lau zaldiren asapalan, bazeramaten zuela zortzi egun herrialde berri baterantz, nondik ez baitziren gehiago itzuliko. Bazihoazen, bazihoazen, besoa besoan, mintzatu gabe. Sarritan, mendi baten tontorretik bat-batean hiri distiratsuren bat hautematen zuten kupula, zubi, itsasuntzi, limoiondo-baso eta marmol zurizko katedralekin beren kanpandorre zorrotzetan zikoinahabiak zituztela. Pausoan ibiltzen ziren harlosa handiengatik, eta lurrean loresortak zeuden zeinak gorontz gorriz jantzitako emakume batzuek eskaintzen baitzizkizuten. Kanpai hotsak entzuten ziren, mandoen arrantzak, gitarren murmurakin eta iturrien azantzarekin batera, zeintzuen lurrinak hegatzatuz freskatzen baitzituen fruitu pilak, piramidetan taiutuak, ur zurrusten pean barretsu zeuden estatua zurpailen oinetan. Eta gero, arrats batean, heltzen ziren arrantzale-herrixka batera non sare beltz batzuk baitzeuden haizetan lehortzen labarretan eta etxoletan

luze. Hantxe geratuko ziren bizitzen: etxe apal teilatu zapaldun batean, palmondo batek gerizpetua, goiko baten zokoan, itsasoaren ertzean. Gondolaz paseatuko ziren, hamakan kulunkatuko ziren; eta beren biziardia erraza eta lasaia izango zen beren zetazko jantziak bezala, erabat bero eta izartsua, betetsiko zituzten gau eztiak bezala. Halere, berekiko agertarazten zuen etorkizun horren hondargabetasunean, ezer bitxirik ez zen azaltzen: egunak, denak bikainak, elkarren antzekoak ziren olatuak bezala; eta hori ostertz infinituan, harmoniatsuan, urdinkan eta eguzkiz betean kulunkatzen zen. Baina haurra eztulka hasten zen bere sehaskan, edota Bovaryk bortitzago egiten zuen zurrunka, eta Emma ez zuen loak hartzen goizaldean baino, egunsentiak leiarrak zurizkatzen zituenean eta jada Justin txikiak, plazan, farmaziako hegazpeak zabaltzen zituenean.

Monsieur Lheureuxi etorrarazi eta esana zion:

— Beroki baten beharrean izango naiz, beroki handi bat, lepo luzeduna, forratua.

— Bidaiaren batera al zoaz? galdetu zion.

— Ez! baina..., berdin da, zurekin kontaktzen dut, ez al da hala? eta bizkor!

— Merkatariak burua makurtu zuen.

— Baina ere behar izango dut, berriro Emmak, kutxa bat..., ez astunegia..., eroso.

— Bai, bai, ulertzen dut, laurogeita hamabi zentimetro inguru, bider berrogeita hamar, gaur egun egin ohi diren bezala.

— Gauetarako poltsa barekin.

— Dudarik gabe, pentsatu zuen Lheureuxek, hemen badago istiluren bat.

— Eta tori, esan zuen madame Bovaryk, bere gerrikotik erlojua ateraz, hartzazu hau: horretatik kobratuko duzu zurea.

Baina merkataria oihuka hasi zitzaion oker zegoela esaten; elkar ezagutzen zutela; bera fidakaitza al zen ba Emmari buruz? Zer nolako umekeria! Damak halere erautsi egin zuen gutxienez ere katea behintzat har zezan, eta Lheureuxek jadanik bere poltsikoan sartua zuen eta bazihoan, Emmak berriz deitu zionean.

— Guztia zeure etxean utziko duzu. Berokiari dagokionez, —gogoetan zirudien— ez, etzazu ekarri; beste gabe, jostunaren helbidea emango

didazu eta niretzako prest edukitzeko ohartaraziko diozu.

Hurrengo hilean egin behar zuten ihes. Bera Yonvilletik abiatuko zen Rouenen erosketak egi-tera joateko bezala. Rodolphek lekuak hartuta izango zituen, pasaporteak jasota, eta Parisera ere idatzia izango zuen Marseilara arteko posta-bidaia osoa segurtatzeko, han erosiko baitzuten zalgurdi bat eta, handik, gelditu gabe segituko zuten Genovarako errepidean barrena. Berak ardura hartua izango zuen Lheureuxen etxera bidaltzeko bere bagaia, zeina zuzenean eramango baitzuten *Hirondelle*-ra, horrela inork susmorik ez izateko eran; eta, guzti horretan, bere haurra ez zen ezertarako aipatzen. Rodolphek itzur egiten zion hartaz mintzatzeari; Emmak agian ez zuen hartaz pentsatzen.

Rodolphek beste bi aste luzatu nahi izan zuen, zenbait xedapen burutzearren; gero, zortzi egunen buruan, beste hamabost eskatu zituen; gero gaixo zegoela esan zuen; ondoren bidaia bat egin zuen; abuztua joan zen, eta, luzamendu guzti hauen ostean, erabaki zuten, atzeraezineko menduz irailaren 4rako izango zela, astelehe-

na. Azkenik larunbata, bezpera-aurrekoa, heldu zen. Rodolphe etorri zen arratsean, ohi baino garaizago.

— Dena prest dago? galdetu zion Emmak.

— Bai.

Lorearlo bat inguratu zuten, eta terrazaren ondoan esertzera joan ziren, hormako baraldan.

— Triste zaude, esan zuen Emmak.

— Ez, zergatik?

Halere era bitxi batean, samurki, so egiten zion Emmari.

— Joan behar duzulako da? berriro Emmak; zure kutunak, zure bizitza uzteagatik? Ah! ulertzen dut... Baina, nik, nik ez daukat ezer munduan! niretzat zu zara dena. Ni ere dena izango naiz zuretzat, familia bat izango natzaizu, aberri bat: zainduko zaitut, maitatuko zaitut.

— Bai xarmangarria zarela! esan zuen Emma bere besoetan estutuz.

— Benetan? zioen Emmak barre boluptuos batekin. Maite nauzu? Zin egizu ba!

— Maite zaitudan! Maite zaitudan! baina adoratu egiten zaitut eta, laztana!



Ilargia, zeharo borobil eta purpura kolorekoa, jeikitzen ari zen lurraren arrasean, belazearen zokoan. Laster igotzen zen zumazurien adarren artean, zeintzuk estaltzen baitzuten tartean tarte-ka, errezel beltz zulatu baten gisa. Gero, zuri-tasunez dotore, berak argitzen zuen zero hutsean azaldu zen; eta orduan, astiroagotuz, ibaiaren gainera erortzen utzi zuen orban handi bat, zeinak eragiten baitzuen izar elementia bat, eta zilarrezko leinuru hark hondoraino bihurka-tzen zela zirudien, ezkata argitsuz jantzitako suge bururik gabeko baten gisa. Horrek bazuen argimutil izugarriren baten antza ere, zeinari, bere luzera osoan, diamante urtua baitzerion tantaka. Gau eztia bere inguruan hedatzen zen; itzal-mihise batzuk betetzen zuten ostaia. Emmak, begiak erdi itxirik, hasgorapen handiz arnasten zuen ibilian zebilen haize freskoa. Ez ziren elkarrekin mintzo, egon ere galduegiak bai-tzeuden beren ameskizunaren inbasioan. Iragan egunetako samurtasuna itzultzen zitzaien biho-tzera, oparo eta isilean joanean zihoan ibaia bezala, seringilen usainak zekarrena bezainbate-ko nagitasunarekin, eta beren oroitzapenetan

islaratzen zituen, belarretan luze zitzaten sahas ekuruen itzalak baino errainu eskerga eta malenkoniatsuagoak. Tarteka gau-piztiren batek, triku nahiz erbinudek, ehizari ekinez, hostoak astintzen zituen, edota noizbehinka muxika helduren bat entzuten zen keretatik bere kasa erortzen.

— Ah! ederra gaua! esan zuen Rodolphek.

— Gehiago ere izango ditugu! jarraiki zion Emmak.

Eta, bere buruari hitz egiten bezala:

— Bai, ona izango da bidaiatzea... Zergatik daukat bihotza triste, ordea? Ezezagunaren larderria ote da..., utzitako ohituren ondorioa..., edo agian...? Ez, zorionaren gairididura da! Bai ahula naizela, ez al da hala? Barkaidazu!

— Oraindik garaiz zaude! oihukatu zuen Rodolphek. Gogartu orain, agian gero damutu egingo zara.

— Sekulan ez! erantzun zuen oldarki. Eta, gizonarengana hurbilduz:

— Zein zorigaizto gerta dakidake ba? Ez dago deserturik, ez amildegirik ezta ozeanorik nik zurekin zeharkatuko ez nukeenik. Elkarrekin bizi-

ko garen eran besarkada bat bezala izango da egunetik egunera estuagoa, beteagoa! Ez dugu ezer izango artegatuko gaituenik, ez kezkarik ez inolako oztoporik! Bakarrik izango gara, guztiz geuretzako, betikoz... Hitz egin ezazu ba, erantzuidazu.

Gizonak tarte erregularlarka ihardesten zion: «Bai... Bai!...».

Emmak eskuak ile artean pasatuak zizkion , eta haur-ahotsez errepikatzen zuen, nahiz eta malko mardulak isuri:

— Rodolphe! Rodolphe!... Ah! Rodolphe, nire Rodolphetxo laztana!

Gauerdia jo zuen.

— Gauerdia! esan zuen Emmak. Ea, bihar da! beste egun bat oraindik!

Rodolphe altxatu egin zen abiatzeko; eta, egiten ari zen higitze hura beren iheserako seinalea izan balitz bezala, Emmak, bat-batean, aire alaia hartuz:

— Pasaporteak badituzu?

— Bai.

— Ez al duzu ezer ahaztu?

— Ez.

— Ziur zaude?

— Baietz.

— *Provence* hotelean itxoingo didazu, ez da?... Eguerdian? Keinu bat egin zuen buruaz.

— Bihar arte, beraz! esan zuen Emmak azken balaku batean. Eta urruntzen begiratu zion.

Rodolphek ez zuen burua jiratzen. Emma korrika joan zen haren atzetik, eta, lahar artean ibai bazterrerantz makurturik:

— Bihar arte! oihukatu zuen.

Gizona jadanik ibaiaz beste aldean zen eta bizkor zihoan belazean barrena.

Zenbait minuturen buruan, Rodolphe gelditu egin zen; eta, bere jantzi zuriarekin mamu baten gisa ilunpean emekiro desagertzen ikusi zenean, halakoxe bihotz-taupakarak eraso zion non zuhaitz baten kontra tinkatu baitzen ez erortzeko.

— Zer nolako ergelontzia naizen! bota zuen, biraoka izugarriro eginez. Bost axola, amorante polita zen!

Eta, berehala, Emmaren edertasuna azaldu zitzaion berriro, amodio haren plazer guztiekin

batera. Hasieran hunkitu egin zen, gero asaldatu Emmaren kontra.

— Zeren, azken finean, zioen imintzioka, nik ezin dut neure burua erbesteratu, haur baten kargua neure buruari leporatu.

Are gehiago bermatzeko esaten zituen gauza hauek berekiko.

— Eta, bestalde, trabak, gastua... Ah! ez, ez, mila bider ez! Tentelkeria handitxoak litzateke!

## —XIII—

Etxera iritsi orduko, Rodolphe zakarki eseri zen bere bulegoan, hormaren kontra trofeo gisa egiten zuen orein-buruaren pean. Baina, baina luma behatzen artean izan zuenean, ez zuen jakin ezer aurkitzen, hala izan ere non, bi ukondoak tinkaturik, gogoetari eman baitzitzaion. Emma iragan urrun batera gibelatua iruditzen zitzaion, hartua zuen erabaki-horrek bat-batean bien artean egundoko tarteaz ezarri berri balu bezala.

Emmaren zer edo zer berreskuratzearen, alasara joan zen, bere ohearen buruan, Reimsko bixkotxo-kaxa baten bila, han sartu ohi baitzitu bere amorante-gutunak, eta hartatik hauts umelaren eta larrosa ximelen usaina aidatu zen. Lehenik musuzapi bat hauteman zuen, ttantta hitsez betea. Emmaren musuzapi bat zen, sudurretik odola zeriola egon zen batekoa, paseo batean; Rodolphe jadanik ez zen oroitzen. Haren ondoan, txoko guztietan tope eginez, Emmak emandako miniatura; haren apainduria harrox-

koa iruditu zitzaion eta haren begirada *zeharkatua* itxurarik penagarrienekoa; gero, irudi hari so egitearen eta modeloaren oroitzapena gomutaratzearen poderioz, Emmaren aurpegikera poliki-poliki nahastatzen joan zen bere oroimenean, aurpegi biziak eta aurpegi pintatuak, bata bestearen kontra igurtziaz, elkar ezabatu izan balute bezala. Azkenik haren zenbait gutun irakurri zuen; beren bidaiari buruzko esplikazioz beterik zeuden, azalpen motzak, teknikoak eta premia-tzaileak negozio-izkribuak bezala. Luzeak berrikusi nahi izan zituen, garai bateko haiek; kaxaren hondoan haiek atzemateko, Rodolphek gainerako guztiak nahaspilatu zituen, eta oharkabeki paper eta gauza pila hartan miaka hasi zen, bertan nahas-mahas loresortak, galtzari bat, mozorro beltz bat, orratzak eta ilexerloak — ilexerloak! beltzaranak, horailak; batzuk, kaxaren burdinduran katiaturik, puskatu ere egiten ziren irekitzen zenean.

Horrela bere oroikarrien artean denborapasa, gutunetako idazkerak eta estiloa aztertzen zituen, beren hortografiak bezain askotarikoak. Samurrak nahiz alahiak ziren, jostariak, malen-

koniatsuak; baziren maitasuna eskatzen zutenak baita dirua eskatzen zutenak. Hitzzen bat zela medio oroitzen zen aurpegiez, zenbait keinuz, ahots-doinu batez; batzuetan, alabaina, ez zen ezertaz oroitzen.

Izan ere, emakume haiek, guztiak arrapaladan bere pentsamenduratuz, elkarri traba egiten zioten eta txikertu egiten ziren bertan, berdintzen zituen maitasun-maila bat beraren pean bezala. Beraz gutun nahastuak eskutaraka hartuz, zenbait minutuz jolasean jardun zen bere eskuineko eskutik bere ezkerreko eskura haiek purraran erorrarazten. Azkenik, asperturik, jabaldurik, kaxa berriro alasara eramatera joan zen Rodolphe berekiko esanez:

— Zer nolako txorakeria pila!...

Horrek laburbiltzen zuen bere iritzia; zeren plazereek, eskolaumeak ikastetxe bateko bailan bezala, hainbat istikaturik zuten bere bihotza non bertan ez baitzen ezer berderik erretzen, eta hartatik pasatzen zenak, umeak hain zorongoago, hartan ez baitzuen lagatzen sikira, haiek bezala, bere izena horman grabaturik



— Ea ba, esan zion bere buruari, has gaitezzen!

Idatzi zuen:

«Izan adore, Emma! izan adore! Nik ez dut eragin nahi zure bizialdirako zorigaitza...».

— Azken finean, egia da, pentsatu zuen Rodolphek; bere onerako dihardut; ondradua naiz.

«Zuhurtziaz aztertu al duzu zure erabakia? Badakizu zein hondaletara errestatzen zintudan, aingeru gaixo hori? Ez, ez al da hala? Zu fidati eta itsu-itsuan zindoazen, zorionaz, etorkizunaz sinetsirik... Ah! dohakabeak gu! burugabeak!».

Rodolphe gelditu egin zen, hemen estakuru on bat aurkitzeko.

— Nire ondasun guztiak galduak direla esango banio?... Ah! ez, eta, bestalde, horrek ez luke ezer eragotziko. Geroxeago berriro hasi beharra izango litzateke. Sar ote daiteke ordea horrelako emakumerik arrazoipidean?

Gogoetan aritu zen, gero erantsi zuen:

«Nik ez zaitut ahaztuko, hori sinetsita izan, eta zureganako beti ere atxikimendu sakona izango dut; baina, egun batez noizbait, lehen-

txeago edo geroxeago, sugar hau (horixe da giza-gauzen zoria) urritu egingo litzateke, zalan-tzarik gabe! Asperra etorriko litzaiguke, eta nork daki ez ote nukeen jasan behar izango zure alhaduretan presente izatearen eta neuk ere hartan partehartzearen oinaze izugarria, zeren eta neuk eraginak bailirateke. Jazo bide zaizkizun saminaldiez pentsatze hutsak torturatu egiten nau, Emma! Ahaztu nazazu! Zergatik gertatu behar zuen nik zu ezagutzea? Zergatik zinen hain ederra? Nire errua al da? O nire Jainkoa! ez, ez, ez iezaiozu leporatu halabeharrari baino!».

— Horra hitz bat beti ere eragina duena, esan zuen berekiko.

«Ah! ikusi ohi diren emakume txolin horietariko bat izan bazina, eskierki, ahal izango nukeen, nerekoikeriaz, esperientzia bat entseiatu hartan zuretzat arriskurik gabe. Baina, aldi berean zure xarma eta zure pairamena egiten duen zure asaldazio ezti horrek, eragotzi egin dizu ulertzea, emakume adoragarri horri, gure etorkizuneko egoeraren faltsikeria. Neuk ere, hasieran ez nuen horretaz gogoetatu, eta zorion ideal horren gerizpean atsedenean nengoen,

manzaniloarenean bezala, ondorioak sumatu gabe».

— Lukurreriaz atzera egin dudala uste izango du agian... Ah! bost axola! hor konpon, hau bukatu beharra dago!

«Mundua ankerra da, Emma. Edonora joan bagina ere, jazarri egingo gintuzkeen. Nozitu behar izango zenituzkeen mihiluze-galderak, fal-tseria, erdeinua, laidoa agian. Laidoa zuri! Oh!... Eta ni ordea, zu tronu batean eserrarazi nahi zintuzkeen hau! Ni, zure pentsamendua talisman baten gisa daraman hau! Zeren erbesteratzeaz zigortu bide baitut nire burua egin dizudan kalte guztiarengatik. Ni banoa. Nora? Ezer ez dakit, zoraturik nago! Agur! Ona izan zaitez beti! Galdu zaituen dohakabearen oroipena gorde ezazu. Nire izena erakuts iezaiozu zure haurrari, bere otoitzetan errepika dezan».

Bi kandelen metxa dildil zegoen. Rodolphe zutitu egin zen leihoa ixtera joateko, eta, berriro eseri zenean:

— Iruditzen zait hauxe dela guztia. Ah! hau ere bai, *berriro zirika eta mirika* etor ez dadin:

«Jada urrun izango naiz zuk lerro triste hauek irakurriko dituzunean; zeren lehenbailehen aldegin nahi izan baitut zu berriz ikusteko tentaziotik itzur egitearren. At ahulezia! Itzuliko naiz; eta agian, noizbait, hotz-hotzean solas egingo dugu elkarrekin gure aspaldiko amodioez. Agur!».

Eta azken agur bat zegoen bi hitzetan banaturik: *A Dieu!*, gustuz aparta iruditu baitzizaion.

— Nola sinatuko dut, orain? zioen berekiko. Biziro adeitsuki zure... Ez. Zure lagun?... Bai, horixe da.

«Zure lagun».

Berriro irakurri zuen bere gutuna. Ona iruditu zitzaion.

— Emakumetxo gaixoa! pentsatu zuen hunkiduraz. Harkaitz bat baino soraioagotzat joko nau; malko batzuk beharko ziratekeen hemen gainean; baina, nik, ezin dut negarrik egin; ez da nire errua. Beraz, godalet batera ura atera, bertan behatza busti zuen eta tanta lodi bati erortzen utzi zion goitik, zeinak orban hits bat egin baitzuen tinta gainean; gero, gutuna nola zigilatu bila zebilela, *Amor nel Cor* zigiluarekin topo egin zuen.

— Hau ez da hain egokia abagunerako... Ah! bah! bost axola!

Horren ondoren, hiru pipa erre zituen eta ohera joan zen.

Biharamonean, jaiki zenean, (ordubiak inguruan, berandu lokartua baitzen), saskitxo bat muxika bil arazi zuen Rodolphek. Gutuna ipini zuen zokoan, mahats-hosto batzuen pean, eta berehala agindu zion Girardi, bere labore-morroiarri, hura zoliki madame Bovaryren etxera eraman zezan. Erabide honetaz baliatu ohi zen Emmarekin berriak trukatzeko, hari bidaliz, urtaroren arabera, fruituak edo ehizia.

— Nire berri galdetzen badik, esan zion, bidaia batera joana naizela erantzungo diok. Berari eman behar diok otarrea, bere eskuetara... Hoa, eta kontuz ibili!

Girardek bere bruxa berria jantzi zuen, bere musuzapia muxiken baranoan lotu zuen, eta, bere kalotx ferratuetan urrats handi astunka, lasai-lasai hartu zuen Yonvillerako bidea.

Madame Bovary, morroia bere etxera heldu zenean, xurimanta pilo bat moldatzen ari zen Feliciterekin, sukaldeko mahaiaren gainean.

— Hona hemen, esan zuen sehiak, gure nagusiak bidaltzen dizuna.

Larderio bat atxiki zitzaion Emmari, eta, bere poltsikoan txanponen bat bilatzen zuen bitartean, begirada laborrituaz so egin zion laborariari, hark berak ere balditurik begiratzen zion bitartean, nola horrelako opari batek norbait hainbeste hunki zezakeen ez zuelarik konprenitzen. Azkenik irten zen. Felicite bertan geratu zen. Ezin zuen gehiago; salara sartu zen lasterka, muxikak hara eramatera bezala, otarrea irauli zuen, hostoak erauzi zituen, gutuna aurkitu zuen, ireki zuen, eta, bere atzean ikaragarriko sutea egon balitz bezala, Emma iheska joan zen bere gelarantz, zeharo izuturik.

Charles han zegoen, Emmak hauteman zuen; senarra mintzatu zitzaion, berak ez zuen ezer entzun, eta biziro jarraitu zuen mailak igotzen, hatsanturik, zoraturik, horditurik, eta beti ere paper-orri izugarri hari eutsiz, bere behatzetan klaska egiten ziola latorri batek bezala. Bigarren solairuan, gelditu egin zen itxita zegoen ganbarako atearen aurrean.

Orduan lasaitu egin nahi izan zuen; gutunaz oroitu zen; amaitu beharra zegoen, ez zen ausartzten. Bestalde, non? nola? Ikusi egingo zuten.

— Ah! ez, hemen, pentsatu zuen, ongi egongo naiz. Atea bultzatu zuen eta sartu zen.

Arbelek plomuan erortzen uzten zuten bero astuna, zeinak hertsatzen baitzizkion lokiak eta itotzen baitzuen; errestatu zen txapitola itxiraino, bertako maratilatik tira egin eta argi itsugarria jalgi zen supituan.

Aurrez aurre, teilatuen gainetik, landa hedatzen zen bete-betean bistak eman ala. Behean, bere azpian, herriko plaza hutsik zegoen; espaloiko harriek pindarka zegiten, etxeetako haizeorrazak geldirik zeuden; kale ertzean, beheargoko solairu batetik, modulazio kirrinkatsuzko burrundara-molde bat irten zen. Binet zen bere tornuan.

Txapitolako leihoaren kontra tinkatu zen eta gutuna berriro irakurtzen ari zen amorruzko irrimurrika. Baina zenbat eta gehiago tinkatzen zuen bere aditasuna hainbat eta nahastenago ziren bere ideiak. Berriro hura ikusten zuen, entzuten zuen, bere bi besoez inguratzen zuen,

eta ariete-kolpe handika gisa bere bularpean jotzen zuten bihotz taupadak bata bestearen segidan agudotzen ziren pausagune desberdinka. Bere ingurura botatzen zituen begiradak, lurra noiz erroiztuko desiatzen. Zergatik ez akabatu? Nork eragozten zion ba? Bera libre zen. Eta aurrera egin zuen, galtzarari begiratu zion esanez:

— Goazen! Goazen!

Behetik zuzenean igotzen zen inar distiratsuak hondalerantz tirakatzen zuen bere gorputzaren pisua. Iruditzen zitzaion, plazako zoru zabukaria hormetan gora igotzen zela, eta solairua ertzean makurtzen ari zela, kulunkatzen den itsasuntzi baten gisa. Bera ertz-ertzean zegoen, ia dilingo, espazio handi batez inguraturik. Zeruaren urdinak inbaditzen zuen, airea zebilen bere buru arrolduan, ez zeukan amore eman besterik, bere burua harrapatzen utzi besterik; eta tornuaren burrundara ez zen eteten, deika ari zitzaion ahots haserre baten gisa.

— Etxekoandre! Etxekoandre! Charlesek deiadarka. Emma gelditu egin zen.

— Non zaude ba? Zatoz!



Heriotzatik libratu berri zela pentsatzeak, sarrakioz ondoez arazteko zorian eduki zuen; begiak itxi zituen; gero, esku batek bere mahaika gainean ukitzean zirgirit egin zuen: Felicite zen.

— Monsieur zain duzu, madame; zopa mahaian dago.

Eta jaitsi egin behar izan zuen! mahairatu egin behar!

Jaten saiatu zen. Ahokadek ito egiten zuten. Orduan bere dafaila destoleztu zuen zurtzidurak aztertzeke bezala eta lan hartan benetan ahalegindu nahi izan zuen, ehunaren hariak kontatzen. Bat-batean, gutunaren oroipena etorri zitzaion. Galdu egin al zuen? Eta non aurkitu behar zuen? Baina izpirituan hainbaterainoko unadura sentitzen zuen non inolaz ere ezin izan baitzuen aitzakia bat asmatu mahaitik joateko. Gainera koldar bilakatua zen; Charlesen beldur zen; hark bazekien dena, hori ziur! Hain zuzen, hitz hauek ahoskatu zituen, era bitxian:

— Dirudienez, monsieur Rodolphe ez dugu berehalakoan ikusiko.

— Nork esan dizu? galdetu zuen Emmak zirgit batean.

— Nork esan didan? erantzun zuen, tonu zakar hartaz apur bat harriturik; Girardek, ares-tian *Cafe Français*-ko atean berarekin topo egin dudanean. Bidaiaren batera joana da, edo joatekotan da.

Negar-zotin bat irten zitzaion.

— Zerk harritzen zaitu ba? Horrelaxe joan ohi da aldian-aldian hortik zehar laketzera, eta, alafede! nik ontzat ematen dut. Dirua eduki eta ezkongabea izaki!... Gainera, polito olgatzen da, gure laguna! Zer nolako alproja! Monsieur Langloisek kontatu izan dit...

Isildu egin zen, gizalegez, neskamea baitzetorren.

Honek berriro otarrean ipini zituen apal gainean sakabanaturiko muxikak; Charlesek, bere emaztearen gorriduraz ohartu gabe, ekarrarazi zizkion, bat hartu zuen eta beste gabe horzkatu zuen.

— Oh! bikaina! zioen. Tori, dastatu.

Eta saskia luzatu zion, zeina Emmak emekiro baztertu baitzuen.

— Usnatu orduan: zer nolako usaina! esan zuen senarrak hari sudurpetik behin eta berriz muxika pasatuz.

— Ito egiten naiz! oihukatu zuen Emmak jauzi batean zutituz.

Baina, borondatearen ahalegin batez, desagertu zen herstura hau; gero:

— Ez da ezer! esan zuen, ez da ezer! nerbio-etakoa da! Eser zaitez, jan!

Zeren beldur baitzen galdezka hasiko ez ote zitzaion, zaintzen, bakarrik ez ote zuen utziko.

Charles, hari obeditzearren, eseri zen berriro, eta bere eskura tukatzen zituen, berehala bere platerera husten zituen muxika-hezurak.

Halako batean, tilbury urdin bat iragan zen trosta handian plazan barrena. Emmak garrasi bat bota zuen eta ziplo erori zen lurrera, ahozgora.

Eskierki, Rodolphek, gogoeta frankoren ondoren, Rouen aldera abiatzea erabakia zuen. Eta, Huchettetik Buchyra, Yonvilleko bidea besterik ez dagoenez, herria zeharkatu behar izan zuen, eta Emmak ezagutu egin zuen, arrastiria tximistak bezala ebakitzen zuten farolen argitara.

Botikarioak, etxean sortu zen zalaparta medio, hara jo zuen lasterka. Mahaia, plater guztiekin batera, iraulita zegoen; saltsaz, okelaz, labanez, gatzontzi eta oliontziz ihaurri zegoen etxea; Charles laguntza eske ari zen; Berthe, izuturik, garrasika; eta Felicite, bere eskuak ikaraz, Madameren arropak lasatzen ari zen, dardarizohigidurak baitzituen gorputzean.

— Banoa korrika nire laborategira, esan zuen botikarioak, ozpin lurrintsu apur baten bila.

Gero, potoxinetik arnastuz Emmak begiak ireki zituenez:

— Ziur nintzen, esan zuen; hildakoa ere piztuko lizuke honek.

— Hitz egiguzu! esaten zuen Charlesek, hitz egiguzu! Itzul zaitetz zeure onera! Ni naiz, maite zaituen zure Charles! Ezagutzen nauzu? Begira, hemen zure alabatxoa: besarka ezazu ba!

Haurrak besoak luzatzen zituen bere amaren-gana haren lepotik zintzilikatzeko. Baina, burua jiratz, ahots trebukariz esan zuen Emmak:

— Ez, ez... inor ez!

Berriro kordea galdu zuen. Bere ohe gainera eramán zuten.

Luze zetzan, ahoa zabalik, betazalak itxirik, eskuak zabal ezarririk, ekuru, eta argizarizko estatua baten gisa zuri. Bere begietatik bi malko-erreka irteten ziren, geldiro burukoaren gainera isurtzen zirela.

Charles, zutik, gelaren zokoan zegoen, eta botikarioak, bere alboan, isiltasun oldozkorra gordetzen zuen, zeina edukitzea komenigarria baita bizitzako parada serioetan.

— Lasai zaitez, esan zion ukondoa eraginez, paroxismoa pasa dela uste dut.

— Bai, orain apur bat atsedenean dago! erantzun zuen Charlesek, emazteari lotan begira. Emakume gaixoa!... Emakume gaixoa!... horra berriro ere erorita!

Orduan Homaisek galdetu zuen ea nola jazo zen istripua. Charlesek erantzun zion, bat-batean etorri zitzaiola muxikak jaten ari zen bitartean.

— Harritzekoa!... ekin zion botikarioak. Baina baliteke sinkopea muxikek eragin izana! Natura hain hunkikorak dira izan ere batzuk zenbait usaini buruz! eta halaber ikertzeko gai ederra litzateke, nahiz patologiaren ikuspegitik nahiz

fisiologiaren ikuspegitik. Apaizek ezagutzen dute horren garrantzia, baita nahastu ere haiek nahastu izan dituzte betidanik beren zeremonietan lurringaiak. Adimena laborritu eta estasiak eragitearren izaten da, bestalde gauza erraza sexuko pertsonen baitan hori lortzea, besteok baino samurberagoak baitira. Aipatu ohi dute adar errearen usainarengatik zorabiatzen denik, edota ogi bigunarenagatik.

— Kontu izan esnatu gabe! esan zuen ahopeka Bovaryk.

— Eta ez dira gizakiak bakarrik, jarraitu zuen botikarioak, anomalia hauen harrapakizun, baik eta animaliak ere. Esateko, zuri ez zaizu ezezagun, *nepeta catariak*, arruntki katu-belarra deritzanak, eragiten duen ondorio afrodisiako aparta, felino-jendearen baitan; eta, bestalde, egiazkotzat neuk bermatzen dudan adibide bat aipatzeko, Bridouxek (garai bateko nire kideetarikoa bat, gaur egun Malpalu kalean finkatua) badu zakur bat zeina, tabako-toxa bat aurkezten zaion orduko, dardarizoak jotzen baitu. Eta sarritan egin ere ohi du esperientzia bere lagunaren aurrean, Guillaume basoko bere landetxean.

Sinestekoa al da, urtzintzeragile ximple batek lauhankako baten organismoan horrelako triskantzarik egin dezakeenik? Biziki bitxia da, ez al da egia?

— Bai, esan zuen Charlesek, entzuten aritugabe.

— Horrek frogatzen digu, jarraitu zuen besteak askitasun amultsuzko aire batez irriparrezka, nerbio-sistemako irregularitateen elementua. Madameri dagokionez, beti iruditu izan zait, hala aitortzen dut, benetako sentsitibo bat. Beraz ez nizuke inolaz ere aholkatuko, lagun, sendagaiak direlako horietarik bat bera ere, zeinak, sintomei erasotzeko aitzakiatan, temperamentuari erasotzen baitiote. Ez, alferrikako medikamentaziorik ez! Janeurriak eta kito! Lasaigarriak, eztigarriak, gozagarriak. Gero, ez al duzu pentsatzen, agian irudimena astindu beharko litzatekeela?

— Zertan? nola? esan zuen Bovaryk.

— Ah! horretantxe datza arazoa! Horixe da hain zuzen arazoa: *That is the question!* duela gutxi egunkari batean irakurri nuen bezala. Baina Emmak, esnatuz, oihukatu zuen:

— Eta gutuna? Eta gutuna?

Eldarnioa zeukala uste izan zuten; gauerditik aurrera bai eduki zuten: garun-sukarra zitzaion azaldu.

Berrogeita hiru egunez Charles ez zitzaion aldendu. Bere gaixo guztiak abandonatu zituen; jada ez zen oheratzen; etengabe pultsua hartzen ari zitzaion, enplastuak jartzen, ur hotzezko txaplatak. Justin Neufchateraino bidaltzen zuen koila bila; koila bidean urtzen zen; berriro bidaltzen zuen. Monsieur Caniveti egin zion kontsultadeia; Lariviere doktorea, bere irakasle-ohia, etorrarazi zuen Rouendik; etsita zegoen. Gehien izutzen zuena, Emmaren abaildura zen; zeren ez baitzuen hitz egiten, ez zuen ezer entzuten, eta bazirudien sufritu ere ez zuela egiten, — bere gorputzak eta bere arimak beren istilu guztietatik biek batera atsedean hartu izan balute bezala.

Urriaren erdi aldera, bere ohean eserita egoiteko gauza izan zen, bere atzean burkoak zituela. Charlesek negar egin zuen, erreximentazko bere lehen opilxigorra jaten ikusi zuenean. Indarrak bihurtu zitzaizkion; zenbait orduz jaikitzen zen arratsaldean, eta, hobeto sentitzen zen egun batean, jardinean barrena bere besotik joan-eto-



rri bat eginarazten entseiatu zen Charles. Bideko hondarra orbelen pean desagertzen zen; pausoka-pausoka zebilen Emma, bere oskierrestak narraka, eta, sorbaldaz Charlesen kontra sostengatuz, irribarre egiten segitzen zuen.

Horrela joan ziren jardinarean hondoraino, terraza ondora. Tente jarri zen poliki-poliki, eskua ipini zuen begien aurrean, begiratzeko: urrunera begiratu zuen, oso urrunera; Baina ortze-hegian belar-su handiak besterik ez zegoen, muino gainetan ketan.

Nekatu egingo zara, laztana, esan zuen Bovaryk.

Eta, pendizpean sarrarazteko emekiro bultza eginez:

— Eser zaitetz aulki honetan: hemen ongi egongo zara.

— Oh! ez, hor ez, hor ez! zioen ahots ahundu batez.

Zorabio bat eduki zuen, eta, arratsaz gero, bere gaitza berritu zitzaion, itxura aldakorrago batez, hori bai, eta jite konplexuagoz. Batean bihotzean zuen mina, hurrengoan bularrean, edo garunean, edota menbruetan; gorminak etorri

zitzaizkion eta hartan hauteman uste izan zituen  
Charlesekin minbizi baten lehen sintomak.

Eta mutil gizajoak, horretaz gain, dirularriak  
ere bazituen!

## —XIV—

Hasteko, ea zekien nola moldatu Homaiseri bere etxetik hartutako medikamendu guztiak medeatzeko; eta, nahiz eta, mediku gisa, haiek ez pagatzea posible zukeen arren, eskerzor horrek apur bat lotsarazi egiten zuen horratio. Gero, etxeko gastua, orain sukaldarisa etxeko-andre izaki, izugarria bilakatzen zen; pagakizunak zaparradaka heltzen ziren etxera; hornitzailak marmarrean zebiltzan; batipat monsieur Lheureuxek estu hartzen zuen. Eskierki, Emma-ren gaixoaldiaren gogorrenean, hark, bere faktura bapikatzeko abaguneaz baliatuz, berehala eramane zituen berokia, gauetarako poltsa, baten lekuan bi kaxa, eta beste gauza pila bat ere. Charlesekin alferrik esan zion haien beharrik ez zeukala, merkatariak harro erantzun baitzion eroskari haiek guztiak enkargatu zitzaizkiola eta ez zituela beretzako hartuko; bestalde, Madame bere eriondoan gaitzitzea zatekeela; Monsieurak gogoetatuko zuela; labur, pronto zegoela auzitara eramateko, bere eskubideak bertan behera

utzi eta bere merkantziak atzera bueltan eraman baino lehen. Haiek dendara itzultzeko agindu zuen Charlesek; Feliciteri ahaztu egin zitzaion; Charlesek berak bazuen beste kezkarik; hartaz ez zuten gehiago pentsatu; monsieur Lheureux erasoan itzuli zen, eta, oraintxe mehatxuka oraintxe zinkurinaka, halaxe maniobratu zuen non Bovaryk azkenean ordainduko bat sinatu baitzion sei hilabeteko epeaz. Baina ordaindukoa sinatu orduko, ideia ausart bat piztu zitzaion: monsieur Lheureuxi mila libera mailegutan hartzea alegia. Beraz, galdetu zuen, urduri trazaz, ea ez ote zegoen diru hura lortzeko modurik, urtebeterako eta nahi zen korrituan izango litza-tekeela erantsiz. Korrika joan zen Lheureux bere dendara, eskutuak ekarri zituen eta beste ordainduko bat diktatu zuen, zeina medio Bovaryk deklaritzen baitzuen ordaindu behar zuela haren agindura, hurrengo irailaren 1ean, mila eta hirurogeita hamar libera kopurua; horrek, aurrez itunduriko ehun eta laurogeiekin, zehazki mila eta berrehun eta berrogeita hamar egiten zuelarik. Horrela, ehuneko seian mailegutuz, gehi laurden bat komisioa, eta hornidurak

gutxienez heren bat ona irabazitan uzten ziolarik, horrek, hamabi hilabetetan, eman behar zion ehun eta hogeita hamar liberatako mozkina; eta negozioa horretan ez zela bukatuko espero zuen, ordaindukoak ezin izango zituztela pagatu, berritu egingo zituztela, eta bere diru gaixoa, medikuarenean osasun-etxe batean bezalaxe elikatu ondoren, itzuliko zitzaiola, egun batez, dexente guriago, eta gizenduta zakua leher-tzeaz.

Dena, bestalde, ongi zihoakion. Sagardo-hornidura baten adjudikazioduna zen Neufchatelgo ospitalerako; monsieur Guillauminek akzioak agintzen zizkion Grumesnilgo zoikaztegietan, eta Arcueil eta Rouen artean dilijentzia-zerbitzu berria jartzea zuen amets, zeinak luzaro baino lehen, zalantzarik gabe, porrot eragingo baitziokeen *Lion d'or*-eko tramankulu horri, eta, laster-rago ibiliz, prezioz merkeago izanez eta atu gehiago eramanez, bere eskuetan ipiniko baitziokeen Yonvilleko merkataritza guztia.

Charlesek sarritan galdetu zion bere buruari nola ordaindu ahal izango ote zuen, hurrengo urtean, hainbeste diru, eta saiatzen zen bila,

irtenbideak irudikatzen zituen, adibidez bere aitarengana jotzea edo zerbait saltzea. Baina bere aitak entzungor egingo zukeen eta berak, berriz, saltzekorik ezer ez zeukan. Orduan, hainbateko estekuak kausitzen zituen non bere kontzientziatik berehala hasantzen baitzuen gogoe-ta-gai hain desatsegina. Emmaz ahaztea jaukitzen zion bere buruari; halatsu nola, bere pentsamendu guztien jabea emakume hura izaki, etengabe hartaz ez pentsatzea hari zerbait ebas-tea izan balitz bezala.

Negua gogorra izan zen. Madameren eriondo luzea izan zen. Eguraldi ona egiten zuenean, bere besaulkian eramaten zuten leihoaren ondora, Plazara begiratzen zuenera, zeren orain anti-patia baitzion jardinari eta alde hartako pertsiana beti itxita egoten zen. Zaldia saltzea nahi izan zuen; garai batean atsegin zuena, orain higuin zuen. Bere ideia guztiak bere burua zaintzera mugatuak ziruditen. Bere ohean egoten zen otamentxoak egiten, neskameari dei egiten zion bere belar-uren berri galdetzeko edo berarekin solasean aritzeko. Bitartean, azokako teilatu gaineko elurrak leinuru zuria jaurtikitzen zuen,

ekuru, gela barruan; ondoren, euria izan zen. Eta Emma, egunean-egunean, nolabaiteko herstura batez egoten zen, gertakari hutsalen errepika hutsezinaren zain, nahiz eta haiek ia fitsik ez axola. Hauetarik aipagarriena, arratsean, *Hiron-delle*-ren helera zen. Orduan ostaliersa garrasika hasten zen eta beste ahots batzuk ihardesten zuten, bitarte horretan Hippolyten eskuargiak, goialdean baul bila, ilunpean izar batek bezala egiten zuela. Eguerdian, Charles etxera itzultzen zen; ondoren irten egiten zen; gero Emmak salda bat hartzen zuen, eta, bostak aldera, ilunkastean, eskolatik zetozen hurrek, beren eskalaproinak espaloian errestan, guztiek jotzen zuten beren erregelaz aterpeko teilatertza, batak bestearen ondoren.

Ordu horretan etorri ohi zitzaion Bournisien jauna bisitan. Bere osasunaz galdetzen zuen, albistek ekartzen zizkion eta erlijiora zentzitzen zuen, erakargarritasunik falta ez zitzaion hizjariotxo loxinkari batean. Haren sotana ikuste hutsak pizkortu egiten zuen.

Bere gaixoardiaren gogorrean, hiltzorian zegoela uste izan zuen egun batean, jaunartzea

eskatu zuen; eta, bere gelan sakramenturako prestakuntzak egiten ari ziren eran, jarabez jositako komoda aldare gisa antolatzen zuten bitartean eta Felicite dalia-lorez lurra ihautzen ari zen heinean, zerbait indartsua sentitzen zuen Emmak bere gainean pasatzen, zeinak baitzuen eskantzutzen bere oinazeetatik, hautemate orotatik, sentimendu orotatik. Bere haragi arinduak ez zuen jada pisatzen, beste bizitza bat hasten zen; iruditu zitzaion ezen bere izatea, Jainkoarengana igoaz, maitasun hartan deuseztatzera zihoala lurrunetan suntsitzen den intsentsu piztua bezala. Ur bedeinkatuz ihintzatu zituzten oheko maindireak; apaizak erretiratu zuen kopoi santutik hostia zuria; eta bozkario zerutiar batez ahundurik aurrerratu zituen bere ezpainak aurkezten zitzaion Salbatzailearen gorputza onartzeko. Bere etzanguko errezelak malguki puzten ziren bere inguruan, hodeiak antzo, eta komoda gainekeo bi kandela piztuen leinuruak gloria itsugarriak bailira iruditu zitzaizkion. Orduan bere buruari erortzen utzi zion, espazioetan barrena entzun ustetan harpa serafikoen kantua eta zeru urdinean hauteman ustetan, urrezko trono



batean, palma berdeak zituzten santuen artean, Aita Jainkoa maiestategi erabat distirante, eta, seinale batez, lurrerantz jaitsiarazten zituela suzko hegaldun aingeruak bera besoetan eramateko.

Ikuskari dirdaitso honek bere oroimenean iraun zuen amets egin zitekeen gauzarik ederrena bezala; hainbat non orain ahalegintzen baitzen berriro sentsazio hura bereganatzen, zeinak artean irauten baitzuen, baina modu ez hain eksklusiboan eta baina ez-titasun hura bezain sakonarekin. Bere arimak, burgoikeriaz maki-tuak, atsedean hartzen zuen azkenerako kristaumiltasunean; eta, ahula izatearen plazera dastatuz, Emmak berarengan betesten zuen bere borondatearen suntsimendua, zeinak egin behar baitzien graziaren inbasioei sarbide zabal bat. Beraz bazen zorionaren orde zehatztasun handiagorik, beste maitasun bat maitasun guztien ginetik, tartekapenik eta bukaerarik gabea, eta sekula eta beti hazten joango zena! Begiztatu zuen, bere itxaropeneko liluramenduen artean, garbitasun egoera bat lurraz ginetik flotatzen, zeruarekin nahasturik, non egotea aspi-

ratu baitzuen. Santa bilakatu nahi izan zuen. Errosarioak erosi zituen, kutunak jantzi zituen; bere gelan, oheburuan, erlikitegi bat eduki nahi zuen, esmeraldaz gardainatua, arratsero musukatzeko.

Apaiza miresturik zegoen xedapen guzti haiengatik, nahiz eta Emmaren erlijioak, bere iritzirako, amai zezakeen arren, suharduraren poderioz, heresia edota nabarmenkeria ere ferekatzen. Baina, gai hauetan oso trebea ez zenez, hauek halakoxe neurri bat gainditzen zuten heinean, monsieur Boulardi, Monsignorearen liburuzainari, idatzi zion hark bidal ziezaion *zerbait bikaina sexuko pertsona batentzat, zeina gogamenez jantzia baitzen*. Liburuzainak, beltzei pirtxileria igorriko liekeen adinako ezaxolaz, nahas-mahas bildu zuen errezo-libururen negozioan garai hartan erabili bide zen oro. Galderaz eta erantzunezko eskuliburu txikiak ziren, tonu harroko panfletoak M. de Maistreren erara, eta nobela gisako batzuk arroxaz kartonatuak eta estiloz melengak, seminarista koblakari edo marimaistra damuturen batzuek fabrikatuak. Han zeuden *Pensez-y bien; l'Homme du monde*

*aux pieds de Marie, par M. de \*\*\**, décoré de plusieurs ordres; des *Erreurs de Voltaire*, à l'usage des jeunes gens eta abar.

Madame Bovaryk ez zeukan artean adimena nahiko argia edozertan ere seriozki saiatzeko; bestalde, harrapazkaegi ekin zien irakurketa hauei. Haserretu egin zen kultuaren aginduen kontra; idatzi polemikoen harropuzkeria higuin izan zuen, berak ezagutzen ez zuen jendea jazartzeko era hankerrarengatik; eta erlijioz eraberrituriko ipuin profanoak, munduari buruzko hainbestearainoko ezjakinkeriaz idatziak iruditu zitzaizkion non berak froga-aiduru zeuzkan egietatik haiek hastandu baitzuten ezarian. Alabaina berak gogor jarraitu zuen, eta, liburua eskuetatik erortzen zitzaionean, arima etereo batek sor zezakeen malenkonia katoliko finenak atzitzat ematen zuen bere burua.

Rodolpheren oroipenari dagokionez, bere bihotzaren azkeneko zokoraino eraitsia zuen; eta han irauten zuen, errege-momia bat lurpe batean baino solemneago eta ekuruago. Maitasun handi baltsamatu hartatik hats-laino bat jalgitzen zen zeinak, orotan barrena iraganez,

samurduraz lurrintzen baitzuen Emmak bizi izan nahi zuen orbangabepenezko eguratsa. Bere belaunikaleku gotikoan belaunikatzen zenean, garai batean bere amoranteari, adulterioko bihotz-isurietan xuxurlatzen zizkion mintzo ezti berberak zuzentzen zizkion Jaunari. Sinesmena eratortzeagatik zen; baina inolako gozamenik ez zen jaisten zeruetatik; eta hala altxatzen zen, menbruak nekaturik, atzipe itzel baten sentimendu lausotsu batekin. Bilaketa hura, pentsatzen zuen, ez zen beste meritu bat baino; eta, bere debozioaren hantustean, Emmak bere burua parekatzen zuen beihalako dama handi haiekin, zeinen arrandia amestu baitzuen La Villièren erretratu baten aurrean, eta zeinak, beren soineko luzeen isats apain-jarioa halako maiestateaz errestatuz, bakardadeetara erretiratzen baitziren han Kristoren oinetan isurtzeko bizitzak zauritzen zuen bihotzaren malko guztiak.

Orduan, gehiegizko karitatetara eman zen, pobreentzako arropak josten zituen; emazte erdituberriei suegurra bidaltzen zien; eta Charlesek, egun batez, etxeratzean, hiru arlote topatu

zituen sukaldean mahairaturik zopa jaten. Bere alabatxo berrero etxera etorrarazi zuen, ze bere senarrak, bere gaixo-denboran, berriz ere inu-dearen etxera bidalia baitzuen. Irakurtzen irakatsi nahi izan zion; Berthekek negar eta negar egin arren, bera ez zen jada haserretzen. Etsipenaren aldeko eskantitze bat zen, barkazio unibertsal bat. Bere mintzaera orori buruz aztarren idealez beterik zegoen. Bere haurrari esaten zion:

— Zure sabelmina joan al zaizu, aingerutxo horri?

Madame Bovary amak zer jorraturik ez zuen aurkitzen, salbu agian umezurtzentzako atorrak ehuntzeko tehenleria hura, bere pildak adabatu orde. Baina, bere etxeko istiluez asperturik, atso gajoak atsegin hartzen zuen etxe naretsu honetan, eta geratu ere bertan geratu zen Pazko-ondoren arte, Bovary zaharraren eztenka-dei itzur egitearren, zeinak ez baitzuen huts egiten, ostiral santu oroz, lukainka bat beretzat enkargatzea.

Bere amaginarrebaren laguntzaz aparte, zeinak bermatzen baitzuen apur bat bere zuhurtziaren zuzentasunaz eta bere portamolde zentzu-

tsuaz, Emmak, ia egunero, bazuen beste lagunarterik ere. Hala ziren madame Langois, madame Caron, madame Dubreuil, madame Tuvache eta, erregulariki ordubietatik bostetara, madame Homais jatorra, zeinak sekulan ez baitzuen nahi izan, berak behinik behin, bere auzokoaren lepo botatzen ziren esamesetarik bat bera ere sinetsi. Homais txikiak ere etortzen ziren bisitan; Justinek lagun egiten zien. Beraiekin igotzen zen gelara eta zutik geratzen zen ate ondoan, ekuru, hitzik egin gabe. Sarritan ere madame Bovaryk, hura aintzat hartu gabetan, bere buruaren apainketari ekiten zion. Bere eustorrazia kentzetik hasten zen, brastako batean burua astinduz; eta, adats hura guztia bere kiribil beltzak jalgirik iztazainetaraino jaisten, lehen aldiz hauteman zuenean, hura izan zen berarentzat, mutiko gizaixoarentzat, supituan sartzea bezala gauza handi eta berri batean, zeinaren distirak izutu baitzuen.

Emmak, zalantzarik gabe, ez zituen erreparatzen haren arreta isil eta haren herabeak. Damak ez zuen inolaz ere aieru ezen, maitasuna, bere bizitzatik desagertua, pirpiraka zegoela

bere alboan, oihal zarpailezko alkandora haren pean, bere edertasunaren jarioetara irekitako bihotz nerabe hartan. Bestalde, halako axolagabetasunean biltzen zuen orain dena, mintzo hain amultsuak eta begirada hain aidorrak zituen, gisa hain askotarikoak, non jada ez baitzen bereizten berekoikeria karitatetik, ezta ustelkeria bertutetik. Arrats batez, esate baterako, nekamearen aurka eraso zion, irteteko baimena eskatzen baitzion eta aitzakiaren baten bila zezelka ari baitzen, gero bat-batean:

— Maite duzu beraz? esan zion.

Eta, gorritzen ari zen Feliciteren erantzuna iguriki gabe, aire triste batez emendatu zuen:

— Ea ba, segi bixkor! ongi pasa!

Udaberria hastean, jardina azpikoz gain aldarazi zuen mutur batetik besteraino, Bovaryren ohararazpenak gora-behera; senarra poztu egin zen, halere, noizbait ere hura nolabaiteko borondatearen bat azaltzen ikusteaz. Zuzperten zihoran eran are gehiago agertu zituen. Lehenbizi, aurkitu zuen modua Rollet atsoa, inudea, ohiltzeko, zeinak hartua baitzuen, eriondoko denboran, sukaldera sarritxo etortzeko ohitura bere bi uga-

zumeekin eta bere apopiloarekin, kanibal bat baino haginkatiagoa bera. Gero Homais familia-rengandik libratu zen, gainerako bisita guztiei segidan jaregin zien eta maiztasun urriagoz joaten zen elizara ere, botikarioaren onespén handienarekin, zeinak esan baitzion orduan adiskidetsuki:

— Xeroratzen ere ari zinen apur bat!

Bournisien jauna, lehen bezalaxe, egunero azaltzen zen, dotrinatik irtetea. Nahiago izaten zuen kanpoan geratu airea hartzen *saroiaren erdian*; berak horrela deitzen zion pendizari. Charles etxeratzen zen ordua zen. Bero izaten zuten; sagardo gozoa ekartzen zuten eta elkarrekin edaten zuten Madameren erabateko zurperkuntzarako.

Binet han kausitzen zen, beheraxago alegia, terrazako hormaren kontra, karramarroak harapatzen. Bovaryk freskatzera gonbidatzen zuen, eta hura bikain moldatzen zen potoxinak irekitzen.

— Egin behar da, zioen bere inguruan eta paisaiaren hegietaraino begirada atsegindua hedatuz, botila honela eduki plomuan mahai gainean,



eta, hariak moztu ondoren, kortxoa bultzatu kolpe-txikika, poliki, poliki, jatetxeetan Seltz urari egiten zaion bezala, bestalde.

Baina sagardoa, frogaketan ari zen bitartean, sarritan jauzten zitzaien bete-betean aurpegira, eta horrelakoetan elizgizonak, barre lodi batez, ez zuen inoiz huts egiten ateraldi hau:

— Bere bikaintasuna begibistara saltatzen da!

Gizon jatorra zen, izan ere, eta ez zen eskandalizatu ere egin, egun batez, botikarioa Charlesi aholku ematen ari zitzaion batean, Madame laketzeko Rouengo antzokira Lagardy tenore ospetsua ikustera eraman zezan. Homaisek, isiltasun hartaz harriturik, haren iritzia jakin nahi izan zuen, eta apaizak aitortu zuen, hazturentzako arrisku gutxiagokotzat jotzen zuela musika literatura baino.

Baina botikarioak letren defentsari ekin zion. Antzerkiak, argudiatzen zuen, aurreritziak oinarritzeko zerbitzen zuen, eta, plazeraren mozorropean, bertutea irakasten zuen.

— *Castigat ridendo mores*, Bournisien jauna! Horrela, begira itzazu Voltaireren tragedia gehie-

nak; artezki ereinik daude gogoeta filosofikoz, horrela herriarentzako moralaren eta diploma-ziaren benetako eskola bilakatzen direla.

— Nik, esan zuen Binetek, behin batean ikusi nuen *Le Gamin de Paris* izeneko obra bat, eta han, benetan burutik zeharo jota dagoen jeneral zahar baten izakera azaltzen da. Honek, agirakatzan du familia-seme bat, langile-neska bat amainatu zuena, eta hau azken finean...

— Noski baietz! jarraitu zuen Homaisek, badago literatura txarra farmazia txarra dagoen bezalaxe; baina arte ederretarik garrantzitsuena osotoro kondenatzea inozokeria iruditzen zait, ideia gotiko bat, Galileo giltzaperatu zuten garai arbuigarri haietarako hobe.

— Badakit nik, argudiatu zuen apaizak, badaudela obra onak, autore onak; halere, besterik ez bada ere sexu desberdineko pertsona horiek mundu-punpeziak apainduriko leku xar-mangarri batean bildurik, eta gero mozorro-jantzi pagano horiek, tindatze horiek, zuzi horiek, ahots anddereus horiek, horrek guztiak azkene-rako sortarazi behar du izpirituaren nolabaiteko aizukeria eta pentsamendu desonestak eragin,

tentazio lizunak. Hori dabehintzat Elizako Guraso guztien iritzia. Dena den, jarraitu zuen ahots-tonu mistikoa bat-batean hartuz, erpuruaren gainean tabako poxi bat kiribiltzen zuen bitartean, baldin eta Elizak ikuskariak kondenatu baditu, arrazoi zuelako izan da; haren aginduen menpean jarri beharrean gaude.

— Zergatik, galdetu zuen botikarioak, eskomekatzen ditu komedianteak? garai batean ordea, ageri askoan parte hartzen zuten ba kultuaren ospakizunetan. Bai, koruaren erdian jokatzen ziren, antzesten ziren misterioak zeritzaten fama antzeko batzuk zeinetan ahalkekortasunaren legeak sarritan kausitzen baitziren laidotuak.

Hasperen bat botatzearekin konformatu zen elizgizona, eta botikarioak jarraitu zuen:

— Biblian bezala da; badago..., badakizu..., zertzelada bat baino gehiago... gordin askorik, zenbait gauza... benetan... nabarmenkeriak!

Eta monsieur Bournisienek egin zuen haserre-keinu baten segidan:

— Ah! Nirekin ados izango zara, pertsona gazte baten eskuetan ipintzeko liburua ez dela,

eta ni haserre izango nintzateke baldin eta Athalie...

— Baina protestanteak dira, eta ez gu, oihukatu zuen besteak ernegaturik, Biblia gomendatzen dutenak!

— Ez du axolarik! zioen Homaisek, harriturik nago nola, gure egunotan, argien mende batean, oraindik ere tematzen diren kaltegabekoa, moralizatzailea eta batzuetan higienikoa ere den dostaketa intelektual bat proskribatzen, ez al da hala, doktore?

— Bai noski, erantzun zuen medikuak soraio-ki, beharbada ideia berberak izanik inor mindu nahi ez zuelako, edo agian inolako ideiarik ez zuelako.

Elkarrizketak bukatu zirela, botikarioari komenigarri iruditu zitzaionean azken ostiko bat botatzea.

— Ezagutu ditut nik, zenbait apaiz, dantzari-sen izterjokoa ikustera joateko prakaz jazten zirenak.

— Ea gero! esan zuen apaizak.

— Ah! ezagutu ditut!

Eta bere esaldiko silabak bananduz, Homaisek errepikatu zuen:

— E-za-gu-tu ditut.

— Ba, oker zeuden! esan zuen Bournisienek, zernahi entzutera etsiturik.

— Alajaina! eta bestelakorik ere egiten dute franko! oihukatu zuen botikarioak.

— Jauna!... iharduki zuen elizgizonak begi hain oldarkorrez, non botikarioa larderiatu baitzuen.

— Bakarrik esan nahi dut, argudiatu zuen orduan tonu ez hain mutirian, tolerantzia dela biderik finkoena arimak erlijiora erakartzeko.

— Egia da! egia da! amore eman zuen gizajo onpuskak berriro aulkian eseriaz.

Baina bi minutu besterik ez zen geratu. Gero, hura joan zenean, monsieur Homaisek esan zion medikuari:

— Hauxe da esaten dena mokoka-saioa! Ikusi duzu zer nolako jorratua eman diodan!... Dena den, sinetsidazu, eraman ezazu Madame ikuskarira, zure bizitzan behin bederen belabeltz horietariko bat amorrarazteko bestetarako ez bada ere sikira, zer arraio! Inork ordezkatu ahal banin-

du, neuk lagunduko nizueke. Bizkor ibili! Lagardyk emanaldi bat bakarrik izango du; Inglaterrarako konprometaturik dago ordainsari bikainak medio. Diotenez, axeri ederra izan behar du! Urretan igeri dabil! Hiru ohaide eta bere sukaldaria berarekin eramaten ditu! Artista handi hauek guztiek bi muturretatik erretzen dute kandela; bizimodu lotsagabea behar dute, beren irudimena apur bat kitzika dezan. Baina ospitalean hiltzen dira, nahiko buru izan ez dutelako, gaztetan, zerbait aurreratzeko. Horra ba, on egin deizuela; bihar arte!

Ikuskariaren ideia hau berehala erne zen Bovaryren buruan; zeren segituan eman baitzion aditzera bere emazteari, zeinak hasiera batean uko egin zuelarik, nekea, deserosotasuna, gas-tua alegatuz; baina, ohi ez bezala, Charlesek ez zuen amore eman, hain iruditzen zitzaion lake-taldi hura onurakor izan behar zitzaiola emazteari. Ez zuen inolako eragozpenik ikusten; bere amak hirurehun libera igorriak zizkien hauekin kontatzen ez zutelarik, zor arruntak ez ziren bat ere egundokoak, eta monsieur Lheureuxi kitatu beharreko ordaindukoen epea artean hain luzea

zen non ez baitzegoen hartaz pentsatu beharrik. Bestalde, Emmak hartan kuperatasuna ere ipintzen zuela irudituz, Charlesek are gehiago iharduki zuen berean; halatan non azkenerako, obsesioen poderioz, Emma deliberatu baitzen. Eta, biharamunean, zortzietan, *Hirondelle*-n sartu ziren.

Botikarioak, zeini ezerk ez baitzion Yonvillen eusten eta baina bertatik ez mugitzera behartuzat baitzeukan bere burua, haiek abiatzen ikustean hasperen egin zuen.

— Ea ba, ongi ibili! esan zien, zuek bai zaretela hilkor zoriontsuak!

Gero, Emmarengana zuzendurik, zeta urdinezko lau hegaletako soinekoz jantzia:

—«Amour» bat bezain polita kausitzen zaitut! Rouenen izango duzu *begiztari franko!*

Dilijentzia *Croix-Rouge* hotelean gelditzen zen, Beauvoisine plazan. Probintzietako hiripe guztietan dauden horietako ostatu bat zen, ikuilu handirekin eta lotarako gela txikirekin, larrairenen erdian oiloak ikusten direla oloari mokoka denda-bidaiarien gurtarin lokatzatuen pean; — ostatu zahar ederrak, negu-gauetako haizetan

kirrinka dagiten zur bipitsuzko balkoiekin, beti jendez, zarataz eta janariz beterik, mahai beltzak *kafe pattarrez* likistuak dituztela, leiar lodiak euliek horizkaturik, dafaila umelak ardo-urdinez orbanduak; eta, beti herrixka-usainez, baserri-morroiak kale-jantzian bezala, kale alde-ara kafetegi bat dutela, eta landa aldetik baratzea. Charles, berehala, batetik bestera hasi zen. Eszenaurrea galeriekin nahastu zuen, *besalki-etsaria* palkoekin, esplikazioak eskatu zituen, ez zituen ulertu, kontrolatzailearengandik zuzendarirengana bidali zuten, ostatura itzuli zen, berriro sarrera-txartelen bulegora joan zen, era, horrela behin eta berriz, hiriaren luzera osoa ibilkatu zuen, antzokitik hasi eta boulevarderaino.

Madamek ginbail bat erosi zuen, eta eskularruak, eta loresorta bat. Monsieur oso beldur zen hasiera galduko ote zuten; eta, salda irensteko astirik hartu gabe, artean itxirik zeuden antzokiko ateen aurrean plantatu ziren.



Jendea hormaren kontra geratzen zen, baranda batzuen artean simetrikoki aparkaturik. Ingu-ruko kaleen ertzetan, egundoko afitxe batzuk letra barrokotan errepikatzen zuten: «*Lucie de Lammermoor* ... Lagardy ... Opera... e.a.». Egu-raldi ederra egiten zuen; bero zen; izerdia jaisten zen kizkurretan barrena, musuzapi guztiak at-erata bekoki gorriak xukatzen zituzten; eta tarte-ka ibaitik zetorren haize epel batek emeki erabil-tzen zituen kafetegitxoen ateetan zintzilikaturiko kotizko kaparren mendelak. Pixka bat beraxago halere, gantz, larru eta olio usaina zuen aire izoz-tuzko jaidura batek freskatzen zuen. Upelak iraulkatzen diren biltegi beltz handiz betetako rue des Charrettesko balada zen.

Barregarri azaltzeko beldurrez, Emmak, sartu aurrez, portu aldetik ibilalditxo bat egin nahi izan zuen, eta Bovaryk, zuhurtziaz, eskuan gorde zituen txartelak, galtzen patrika barruan, bere sabelaren kontra tinkaturik.

Atalondotik bertatik bihotza taupadaka hasi zitzaion Emmari. Nahiezta irribarre egin zuen harrokeriaz, eskuinera beste korridorean barrena lehiatzen zen jendetza ikustean, aldiz bera printzipalen eskilara igotzen ari zelarik. Plazer izan zuen haur baten gisa ate zabal tapizatuak bere behatzaz bultzatzen; bularra betean arnastu zuen barnebidetako usain hautseztatua, eta, bere palkoan eseri zenean, dukesa baten aisatasunez lerdendu zuen gerria.

Aretoa betetzen hasia zen, prismatikoak ateratzen zituzten beren xixkuetatik, eta abonatuak, urrunetik elkar hautemanez, elkarri agurka ari ziren. Salmenten kezketatik arte ederretan atsedean hartzera zetozen; baina *negozioak* ahaztu gabetanik, artean ere algodoiaz, laurogeita bost gradutako alkoholaz edo indigoaz mintzo ziren. Han ikusten ziren zaharren buruak, espresiogabeak eta baketsuak, eta zeinak, ilez eta larrantzez zurizka, berunezko gandu batez histutako zilarrezko dominak baitziruditen. Gazte galantak etsarian hanpurutzen ziren, beren maripulixaren irekiduran korbata arroxak edo berde-sagarra hedaturik; eta madame

Bovaryk miretsi egiten zituen goitik, urrezko heldulekudun eskumakiletan beren eskularru horien ahur atezutua tinkatzen.

Horretan, orkestako kandelak piztu ziren; argiarmiarma jaitsi zen sabaitik, bere kristalaldexken leinuruarekin sosteko alaitasuna aretoan isuriaz; gero musikariak sartu ziren bata bestearen ondoren, eta hasieran xaribari luze bat izan zen, baxuak burrundaka, arrabitak kirrinka, turutak tronpetaka, txilibistak eta txirulak txioka. Baina hiru kolpe entzun ziren eszenan; tinbalen arrada bat hasi zen, kobrezko instrumentuek errepikatu zituzten akordeak, eta oihalak, altxatuz, paisaia bat utzi zuen agerian.

Baso bateko bidegurutze bat zen, iturri batekin, ezkerretan, haritz batek gerizpeturik. Herri-tarrak eta jaunak, burusia lepoan, ehiza-kantu bat ari ziren guztiak batera kantatzen; gero kapitain bat azaldu zen gaitzaren aingeruari deika bere bi besoak zerurantz jasorik; beste bat agertu zen; joan ziren, eta ehiztariak berriro ekin zioten.

Berriro bere gaztaroko irakurketetan kausitzen zen, Walter Scottenean bete-betean. Entzu-

ten ari zela iruditzen zitzaion, lainotan barrena, kornamusa eskoziarren doinua txilarretan errepikatzen. Bestalde, nobelaren oroipenak librettoaren ulerpena errazten zionez, esaldirik esaldi jarraitzen zuen joko nahasia, anartean bururazten zitzaizkion pentsamendu atxikiezinak musikaren burrunbapean berehalakoan barreiatzen zirelarik. Melodien kulunketan nagitzen zen eta bere burua sentitzen zuen dardarikatzen bere izate osoaz, arrabiten arkuak bere nerbioetan barrena pasiatuko balira bezala. Ez zeukan aski begi betesteko jantziak, apainduriak, pertsonaiak, oinez ibiltzean ikara egiten zuten zuhaitz pintatuak, eta balusazko bukozapiak, longainak, ezpatak, beste mundu bateko eguratsean bezala harmonian higitzen ziren irudikapen haiek guztiak. Baina emakume gazte bat aurreratu zen poltsa bat jaurtikiaz zaldizko berde bati. Bakarrik geratu zen, eta orduan txilibista bat entzun zen zeinak iturriaren murmurioa bezala edo txoriaren txirulia bezala egiten baitzuen. Ahaire bihoz-tunez ekin zion Luciek *sol* nagusiko bere kabatinari; maitasunez arrenkuratzen zen, hegoak eskatzen zituen. Emmak, era berean, nahi izan-

go zukeen, bizitzari ihesiaz, besarkada batean hegaztatu. Bat-batean, Edgar Lagardy azaldu zen.

Hegoaldeko arraza sutsuei marmolen maies-tatetik zertxobait ematen dien zurbiltasun dir-daitsu horietakoa zeukan. Bere soin indartsua kolore nabarreko gerrontze batean hertsaturik zuen; sastakai txiki zizelatu bat zuen tapaka ezkerreko iztar gainean, eta nagiduraz erresta-tzen zituen begiradak bere ertz zuriak azalduz. Ziotenez, arrats batez Miarritzeko hondartzan, non txalupak istinkatzen baitzituen, haren kan-tua entzutean, printzesa poloniar bat hartaz mai-temindu omen zen. Harengatik bere sosak sun-tsitu zituen. Mutilak bertan behera utzi zuen beste emakume batzuen amoreagatik, eta aipu sentimental honek bere ospe artistikorako serbi-tu baino ez zuen egiten. Komeriante diplomatiko honek artera ere hartzen zuen karteletan esaldi poetikoren bat beti ere labainarazteko bere per-sonaren lilurari eta bere arimaren sentiberata-sunari buruz. Ahots ederra, zentzutasun asalda-kaitza, tenperamentua gehiago inteligentzia baino, enfasia gehiago lirismoa baino, hauek

ziren, berritsu-natura miresgarri haren goratzea burutzen zurenak, zeinak bai baitzeukan ilemoz-kinetik eta toreadoretik zerbait.

Lehen eszena orduko sutarazi zuen jendea. Lucie bere besoetan estutzen zuen, uzten zuen, itzultzen zen, etsiturik zirudien: haserre-brastakoak zituen, gero hondargabeko samurdurazko karranka elegiakoak, eta notak han jalgitzen ziren bere lepo biluzitik, zotinez eta musuz betetik. Emma makurtu egiten zen hura ikusteko, bere palkoko balusa bere azkazalez hatzamar-tuz. Bihotza betetzen zuen heiagora melodiatsu haiez zeinak lerratzen baitziren kontrabaxuen laguntzaz, itsasoan galdutakoen garrasiak ekaitzaren abarrots artean bezala. Hiltzeko zorian edukia zuten horditasun era herstura haiek guz-tiak kausitzen zituen. Kantoresaren ahotsa ez zitzaion iruditzen bere kontzientziaren oihartzu-na baino zenik, eta liluratzen zuen ilusio hura beraren bizitzako zertxobait. Baina munduan inork ez zuen halako maitasunaz maitatu. Hark ez zuen Edgarek bezala negar egiten, azkeneko arratsean, ilargi argitan, elkarri esaten ziotenean: «Bihar arte; bihar arte!...». Aretoa leher-

tzear zegoen gorahotsen artean; berriro ekin zioten 'strette' osoari; maitaleak beren hilobiko loreez mintzo ziren, zin-hitzez, erbesteratzeaz, halabeharraz, itxaropenez, eta, azken agurra jaurti zutenean, Emmak garrasi zorrotz bat bota zuen, azken akordeen dardarizoarekin nahastu zelarik.

— Zergatik du ordea jaun hori jazarrika? galdetu zuen Bovaryk.

— Ez gizona, erantzun zuen Emmak; bere amorantea da.

— Alabaina bere familiaren gain mendeku hartzea zin egiten du, eta aldiz besteak, lehen-txeago etorri denak, esaten zuen: «Nik Lucie maite dut, eta berak maite nauela uste dut». Bestalde, bere aitarekin joan da, besoa besoan. Zeren hain zuzen bere aita da, ez al da hala, bere kapeluan oilar-luma bat daraman txiki itsusi hori?

Emmaren esplikazioak gorabehera, Gilbertek bere nagusi Ashtoni bere zimarku nazkagarriak azaltzen dizkion duo errexitatuaz gero, Charlesek, Lucie atzipetu bide duen ezkontitz-eraztun faltsoa ikusirik, Edgardek igorritako maitasun-

oroikarri bat zela pentsatu zuen. Aitortzen zuen, bestalde, istorioa ez zuela ulertzen, —musikaren erruz— asko nahastatzen baitzituen hitzak.

— Zer axola du? esan zion Emmak; zaude isilik!

— Baina niri ordea, berriro Charlesek haren sorbalda gainera makurturik, jakinaren gainean egotea gustatzen baitzait, hori badakizu.

— Zaude isilik! ixo! esan zuen Emmak erregaturik.

Lucie aurreratu zen, bere emakumeek erdi sostengaturik, laranja-lorezko koroa bat adarretan, eta bere soinekoaren saten zuria baino zurikailago. Emma bere ezkontzako egunaz oroitzuten zen; eta han berrikusten zuen bere burua, galsoroen erdian, bidexkan barrena, elizarantz zihoazenean. Eta berak ordea zergatik ez zuen, honek bezala, jarki, erregutu? Bera, aitzitik, pozik zegoen, zein hondaletan amiltzen ari zen ohartu gabe. Ah! baldin eta, bere edertasunaren freskuran, ezkontzako lohiduren eta adulterioko desilusioaren aurrez, bere bizitza bihotz handi tinko baten baitan ipini ahal izan balu, orduan bertutea, txera, irritsak eta betebeharra batera-



turik, inoiz ez zatekeen jaitsiko dohatasun hain gorenetik. Baina zorion hura, zalantzarik gabe, nahikunde ororen etsipenerako asmatu- riko gezur bat zen. Berak orain ezagutzen zuen grin- nen txikitasuna, zeina arteak bapikatzen bai- tzuen. Beraz hartatik bere pentsamendua alden- tzen saiatuz, Emmak bere oinazeen errepikapen honetan begien atseginerako fantasia plastiko bat baino gehiago ez ikustea nahi zuen, eta berekiko irribarre ere egiten zuen kupida erdei- nari batez, non eta antzokiaren zokoan, balusaz- ko ateoialen pean, longain beltz batez gizon bat azaldu zenean.

Espainol erako bere kapelu handia, egin zuen aieru batean erori zen; eta berehala instrumen- tuek eta kantariak seikoari ekin zioten. Edgarek, haserrebiziz pindarka, beste guztiak menpera- tzen zituen bere ahots zoliagoaz; Ashtonek nota lodiagotan axut gihaziltzaileak jaurtikitzen ziz- kion; Luciek bere auhen zorrotza botatzen zuen; Arthurek aparte modulatzeko zituen doinu ertai- nak, eta ministroaren baxu-ahotsak organo baten gisa burrunbatzen zuen, bitartean emaku- meen ahotsek, haren hitzak errepikatuz, koruan

ekiten ziotelarik, zoragarri. Guztiak errenkada berdinean zeuden imintzioka; eta amorrua, mendekua, jelsia, izularria, urrikalmendua eta txundidura aldi berean jalgitzen ziren haien aho erdiriekietatik. Amurus laidotuak bere ezpata biluziari eragiten zion: bere iduneko farfilla brastadaka altxatzen zen, bere bularraren mugimenduen arabera, eta eskuinalderantz eta ezkerralderantz zebilen, urrats handika, orkatiletan lasatzen ziren bere bota bigunetako ezproin gorriztei oholzolaren kontra zarata eraginez. Amodio agortezina eduki behar zuen nonbait, pentsatzen zuen Emmak, halako jario oparoak jendetzarengana isurtzeko. Bere erdeinu-gurari guztiak suntsitzen ziren mendean hartzen zuen antzerki-pertsonaiaren poesiaren pean, eta, pertsonaiaren lilurak gizonarengana lerraturik, haren bizitza irudikatzen saiatu zen, bizitza durundatsu hura, bikaina, apartekoa, berak eraman ahal izango zukeena horratio, baldin eta halabeharrrak nahi izan balu. Elkar ezagutuko zuketena, elkar maiteko zuketena! Harekin, Europako erresuma guztietan barrena, hiribururik hiriburu bidaiatuko zukeen, haren nekeen eta haren

harrotasunaren partaide, hari botatzen zizkioten loreak bilduz, haren jantziak berak brodatuz; gero, arratsero, palko bateko zokoan, urrezko zurkaiztun hesi baten atzean, berak jasoko zituzkeen, ahozabalik, berarentzat baino kantatuko ez zukeen arima haren jaulkipenak; eszenatoki-rik, jokatzen ari zen bitartean, berari begiratuko ziokeen! Baina zoraldi batek harrapatu zuen: berari begira zegoen, ziur! Haren besoetara jaus-teko gogoia izan zuen haren indarrean babeste-ra, maitasunaren beraren haragipenean bezala, eta hari esateko, oihukatzeko gogoia: «Har naza-zu, eraman nazazu, goazen! Zuretzat, zuretzat! aireugar guztiak eta nire amets guztiak!».

Oihala jaitsi zen.

Gasaren usaina hats-bafadekin nahasten zen; haizemaileen haizeak are itogarriago bihurtzen zuen eguratsa. Emmak irten nahi izan zuen; korridoreak jendez gainezka zeuden, eta berriro bere besaulkian erori zen pilpiraz hatsankaturik. Charles, zorabiatzen ikusteko beldur, kantinara joan zen korrika baso bat arbendoluraren bila.

Nahiko lan izan zuen bere tokira itzultzeko; zeren, bere eskuetan helduta zuen basoa medio,

ukondoetan jotzen baitzuten urrats bakoitzeko, eta hiru laurden isuri ere egin zuen mahuka motzetako emakume Rouendar baten bizkar gainean, zeinak, likido hotza gultzurrunetan behera jarioan sentiturik, pauma-garrasiak bota baitzitu-  
tuen, hil balute bezala. Bere senarra, irule bat, traketsaren kontra asaldatu zen; eta, emazteak bere musuzapiaz gerezi-koloreko tafetanezko bere soineko ederrean orbanak xukatzen zituen bitarrean, senarrak kalte-galera, gastu, ordain hitzak marmarkatzen zituen tonu zakarrez. Noiz-baitekoan, Charles iritsi zen bere emaztearen albora, eta hatsalbo esan ondoren:

— Uste nuen bertan geratuko nintzela, alafede! Zer nolako jendetza!... jendearen emana!...

Erantsi zuen:

— Ea asmatzen duzun norekin topo egin dudan han goian. Monsieur Leon!

— Leon?

— Berbera! Zu agurtzera etortzekotan da.

Eta, hitz hauek bukatzen ari zela, Yonvilleko urgazle-ohia sartu zen palkoan.

Eta aitonen-semeren ganoraz luzatu zuen eskua; eta madame Bovaryk oharkabea aurre-

ratu zuen berea, eskierki borondate bortitzago baten erakarpinari obedituz. Hosto berdeen gainera euria ari zuen udaberriko arrats harez gero sentitu gabe zuen, leihoaren ondoan zutik elkarri agur esan ziotenez gero. Baina, segituan, egoeraren moduzkotasunaz oharturik, bere oroitzapenen zurrundura hura eginahaleko batean astindu zuen eta esaldi arin batzuk zezelkatzen hasi zen.

— Ah! arratsaldeon... Nolaz! zu hemen?

— Ixo! egin zuen ahots batek etsaritik deia-  
dar, zeren hirugarren ekitaldia hasten ari bai-  
tzen.

— Rouenen zaude beraz?

— Bai.

— Noiztik?

— Kalera! kalera!

Jendea berenganantz jiratzen zen; isildu egin ziren.

Baina, momentu hartatik hasita, Emmak ez zuen gehiago entzun; eta gonbidatuen korua, Ashton eta bere sehiaren eszena, *re* nagusian duo bikaina, dena urruntasunean iragan zen bere baitan, instrumentuak ozentasunez eskasa-

goak eta pertsonaiak gibelatuagoak bilakatu izan balira bezala: botikarioareneko karta jokaldiez oroitzen zen, eta inudearen etxerako ibilaldiaz, pendizpeko irakursaioez, eta sutondoko hitzaspertuez biak elkarrekin, maitasun gaixo hartaz hain barea eta hain luzea, hain zuhurra, hain samurra, eta berak halere ahantzia zuena. Zergatik itzuli zen? Zein mentura-konbinaziok kokatzen zuen berriro bere bizitzan? Bere atzean zegoen, bizkarra trenkaduraren kontra tinkaturik; eta, aldian behin, bere baitan dardari sentitzen zen, adatsera jaisten zitzaion haren sudurren arnas epelaren pean.

— Laket al duzu han? esan zion Leonek bere gainean makurturik hain hurbil non bibotearen puntaz masaila ferekatu baitzion. Emmak erantzun zuen soraioki:

— Oh! ene ba, ez! ez asko.

Orduan antzokitik irtetea proposatu zuen, elatua hartzera norabait joateko.

— Ah! oraindik ez! gera gaitezen! esan zuen Bovaryk. Emakumeak adatsa solte du: tragikoa izango dela esango nuke.

Baina zoramenaren eszena Emmari ez zitzaion fisik interesatzen, eta kantoiresaren jokamoldea bapikatua iruditu zitzaion.

— Bortitzegi egiten du garrasi, esan zuen Emmak, entzuten ari zen Charlesengana itzulirik.

— Bai... agian... apur bat, ihardetsi zuen, bere plazeraren sanotasunaren eta bere emaztearen aburuekiko zuen begirunearen artean ezin erabakirik.

Gero Leonek esan zuen hats-beheraka:

— Zer bero egiten duen...

— Jasan ezinekoa! egia da.

— Gaitziturik al zaude? galdetu zuen Bovaryk.

— Bai, itotzeko zorian: goazen.

Monsieur Leonek leunkiro ipini zion bere sorbalden gainean farfailazko bere txal luzea, eta hirurak portu gainean esertzera joan ziren, haize zabalean, kafetegi bateko leihartzaren aurrean. Lehenik gaixoaldiaz mintzatu ziren, nahiz eta Emmak hitza moztu aldian-aldian Charlesi, monsieur Leon aspertzeko beldurrez, damak berak zioenez. Leonek kontatu zien, bi urte pasatzera

zatorrela Rouenera garrantzi handiko estudio batean, eginkizunei gogor ekiteko helburuz, hauek desberdinak baitziren Normandian Parisen erabiltzen zituztenen aldean. Gero Berthez galdetu zuen, Homais familiaz, Lefrançois atsoaz; eta, senarraren aurrean, elkarri esateko besterik ezer ez zeukatenez, berehala itzali zen elkarrizketa.

Ikuskaritik irten ziren batzuk espaloian pasatu ziren, ahopean nahiz eztarria betean kantatuz: *O bel ange, ma Lucie!* Orduan Leon, zaletuarena egiteko, musikari buruz hitz egiten hasi zen. Ikusiak zituen Tamburini, Rubini, Persiani, Grisi; eta haien aldean, Lagardyk, bere deiadarrak gorabehera, ez zuen tutik balio.

— Alabaina, iharduki zuen Charlesek bere ron-izozkiari aminika hozka eginez, azkeneko ekitaldian zeharo miragarria dela diote behintzat; lastima da bukaera baino lehen aldegin izana, zeren hasia bainintzen gustua hartzen.

— Nolanahi ere, berriro urgazleak, beste emanaldi bat laster izatekotan da.

Charlesek erantzun zuen, biharamunean berean bazihoazela.



— Nolz eta, erantsi zuen bere emaztearengana itzulirik, zuk bakarrik geratu nahi ez baduzu behintzat, nire kuttun horrek.

Eta, bere esperantzari eskaintzen zitzaion ustekabeko aukera honen aurrean maliobra aldatuz, Lagardyren azken puskari buruzko laudorioari ekin zion gizon gazteak. Hura apartekoa zen, sekulakoa! Orduan Charlesek erautsi zuen:

— Igandean etorriko zara. Ea ba, delibera zaitetz! oker zaude, baldin eta horrek on egiten dizula pittin bat bederen sentitzen baduzu.

Bitarte horretan mahaiak, inguruan, husten ari ziren; zerbitzari bat etorri zen sotilki beren ondoan paratzera; Charlesek, ulertu baitzuen, bere poltsa atera zuen; urgazleak besotik eutsi zion, eta ez zitzaion ahaztu ere noski, beste bi txanpon zuri gehiago uztea, marmolaren kontra txintxin-hotsa atera arazi zielarik.

— Haserre nago, benetan, marmaratu zuen Bovaryk, zuk diru hori...

Besteak keinu erdeinati bat egin zuen txeraz beterik, eta, bere kapelua hartuz:

— Konforme beraz, ez da hala? bihar seietan.

Charlesek errepikatu zuen beste behin ere, berak ezin zezakeela luzaroago kanpoan geratu; baina ezerk ez zion eragozten Emmari...

— Bai baina..., zezelkatu zuen damak irribarre bitxi batekin, nik ez dakit ba...

— Begira! pentsatuko duzu, ikusiko dugu, gauak aholkua dakar...

Gero Leoni, beraiekin baitzihoan:

— Orain berriz ere gure alderdi hauetan zaitugunez, etorriko zara, hala espero dut behintzat, aldian behin afaria eskatzera, ez?

Urgazleak baietsi zuen ez zuela huts egingo, bestalde Yonvillera joan beharrean baitzegoen bere estudioko gorabehera baterako. Eta Saint-Herbland pasabidearen aurrean banandu ziren, katedralean hamaika t'erdia jotzen ari ziren momentuan.

# **HIRUGARREN PARTEA**

Monsieur Leonek, bere zuzenbide-ikasketak egiten zituen bitartean, dexente usutua zuen *La Chaumière*, non lortu baitzuen arrakasta politik franko, *planta dotorea* kausitzen zioten jostun-txoeren artean. Ikasleetarik zintzoena zen. Ilea ez zeraman luzeegi ezta motzegi ere, hilaren lehenengoan ez zuen jaten bere hiruhilabetetarako dirua, eta irakasleekin harreman onetan mantentzen zen. Gehiegikeriak egiteari dagokionean, horretatik beti aldendu izan zen, hainbat uzkurreriagatik nola findadeagatik.

Sarritan, bere gelan irakurtzen geratzen zenean, edota arratsean Luxembourgeko ezkien pean eserita, bere Kodea lurrera erortzen uzten zuen, eta Emmaren oroitzapena etortzen zitzaion. Baina, poliki-poliki, sentimendu hura ahuldu egin zen, eta beste irrirts batzuk pilatu zitzaizkion gainean, nahiz eta hauetan barrena hark irauten segi; zeren Leonek ez baitzuen itxaropen oro galtzen, eta hartan bazegoen berarentzat nolabaiteko promesa bat etorkizunean

kulunka, nola fantasiako hosto arteren batean urrezko fruitu bat dilingo.

Gero, hiru urtetako ausentziaren ondoren berriro ikustean, bere grina berpiztu egin zen. Deliberatu beharrean zegoen azken finean, pentsatzen zuen, hura bere egin nahi izatera. Bestalde, bere herabetasuna higaturik zegoen zenbait lagunarte eroxkoren harremanetan, eta berriro probintziara zetorren, boulevardeko asfaltoa oin txarolatuez istikatzen ez zuen edonor mespretxatuz.

Hegalunez jantzitako dama paristar baten ondoan, doktore ospetsu, pertsonaia kondekortu eta kotxedun baten sala handian, urgazle gizaixoak, dudarik gabe, dardar egingo zukeen haur baten gisa; baina hemen, Rouenen, portu gainean, mediku txastar haren emaztearen aurrean, aiseki sentitzen zen, alde zurratik ziur lilura eragingo zuela. Zentzutasuna, pausatzen den ingurunearen baitan datza: bastardean ez da hitz egiten laugarren oinean bezala, eta emakume aberatsak badirudi bere inguruan dituela, bere bertutea zaintzeko, bere banku-bilete guz-

tiak, koraza baten gisa, bere gorontzearen forraduran.

Bezpera arratsean, monsieur eta madame Bovaryrengandik banantzean, Leon, urrunetik, jarraiki egin zitzaien kalean; gero, *Croix Rouge*-n gelditu zirela ikusirik, orpoak jiratu eta plan bat hausnartzen iragana zuen gau osoa.

Biharamunean beraz, bostak aldera, ostatuko sukaldean sartu zen, eztarria hertsaturik, masailak beluri, eta ezerk atzerarazten ez duen koldarren delibero horrekin.

— Monsieur ez dago, erantzun zuen sehi batek.

Hori asturu onekoa iruditu zitzaion. Igo zen.

Emma ez zen urduritu hura sartzean; aitzitik, desenkusatu egin zen, ostatu non hartua zuten esatea ahantzi izanagatik.

— Oh! asmatu egin dut, hasi zen Leon.

— Nola?

Saiatu zen azaltzen halabeharrak gidatu zuela harengana, instintu batek. Emma irribarrez hasi zen, eta berehala, bere lelokeria konpontze-ko, Leonek kontatu zuen, goiz osoa pasatu zuela

bata bestearen ondoren hiriko hotel guztietan bila.

— Geratzea erabaki duzu beraz? erantsi zuen.

— Bai, esan zuen Emmak, eta gaizki egin dut. Gauzatu ezineko plazeretara ez da ohitu behar, norberaren inguruan hainbeste eskakizun dagoenean...

— Oh! pentsatzen dut, bai...

— Ba, ez, zu ez baitzara emakumea.

Baina, gizonek ere bazeuzkaten beren penak, eta gogoeta filosofikoetan barrena abiatu zen elkarrizketa. Emma luze aritu zen txera lurtarren miseriaz eta bihotza zokoraturik egoten den betiereko isolamenduaz.

Bere burua baliaraztearren, edo bereari eragiten zion malenkonia haren imitazio inuxente batengatik, gizon gazteak deklaratu zuen, bere ikasketa-denbora osoan izugarri aspertu zela. Auzilanak ernegarazi egiten zuen, beste bokazio batzuk erakartzen zuten eta bere ama etengabe ari zitzaion, gutun bakoitzean, tormentu ematen. Zeren gero eta gehiago zehazten baitzituzten beren atsekabearen arrazoiak, bakoitza, hitz

egin ala, gero eta areagoko konfidentzia hone-  
tan pixka bat buruberotuz. Baina batzuetan gel-  
ditu egiten ziren beren ideiarene azalpen osoaren  
aurrez aurre, eta orduan halere hura adieraziko  
zukeen esaldi bat bururatzen saiatzen ziren.  
Emmak ez zuen ez aitortu beste batenganako  
bere irritsa; gizonak ez zuen esan ahantzia zue-  
nik.

Agian jadanik ez zituen gogoan dantza ondo-  
ko afariak, zenbait bargastarekin; eta dama ez  
zen oroitzen dudarik gabe garai bateko elkarki-  
zunez, goizez belar artean bere amorantearen  
gatzelurantz korrika joaten zenekoez. Hiriko  
zaratak abantzu ez ziren heltzen beraiengana;  
eta gelak txikia zirudien, beren bakardadea are  
estuagotzeko aproposa. Emmak, bonbasizko  
txabusina batez jantzirik, besalki zaharraren biz-  
karraren kontra pausatzen zuen bere mototsa;  
hormako paper horiak urrezko hondo bat bezala  
egiten zuen bere atzean: eta bere buru biluzia  
ispiluan errepikatzen zen, bere arroil zuria  
erdian, eta bere belarrien gangaila adatsen azpi-  
tik agerian zuela.



— Baina, barkatu, esan zuen Emmak, oker ari naiz! nire betiko kexuekin aspertu egiten zaitut!

— Ez, inolaz ere! inolaz ere!

— Jakingo bazenu nik amestu izan nuen gutia! zioen damak, malko bat biribilkatzen zuten bere begi ederrak sabaira altxatuz.

— Eta neuk ere! Oh! ederki sufritu dut! Sarritan, irteten nintzen, joaten nintzen, errestatzen nintzen kaietan barrena, jendetzaren zarata artean zorabiatu, jazartzen ninduen obsesioa ezin hastandurik. Bazen boulebardean, estanpa-saltzaile batenean, Musa bat irudikatzen zuen grabatu italiar bat. Tunikaz jantzita dago, eta ilargiari begira ari da, bere adats soltean miosotis batzuekin. Zer edo zerk hara bultzatzen ninduen taigabe; ordu osoak egin izan ditut han.

Gero, ahots ikaratsu batez:

— Zure antza zuen piska bat.

Madame Bovaryk burua jiratu zuen, bere baitatik jalgitzen sentitzen zuen irribarre jarkiezina bere ezpainetan hark ikus ez zezan.

— Sarritan, berriro Leonek, idazten nizekizun gutunak eta gero urratu egiten nituen.

Emmak ez zuen erantzun. Leonek jarraitu zuen:

— Batzuetan bururatzen zitzaidan, menturaren batek ekarriko zintuela. Kausitu uste izan zaitut kale ertzetan: zurearen antzeko txal bat, belo bat atetik zabuntzen zitzaien lando guztien atzetik joaten nintzen korrika.

Emmak erabakita zirudien hari hitz egiten uztera moztu gabe. Besoak gurutzatu eta aurpegia apaldurik, bere oskierresten bigitxinari begiratzen zion, eta bere oineko behatzez, tarteka, mugimendu txikiak eragiten zituen haien satean.

Halere, hasperendu zuen:

— Dagoen deitoragarriena da, nik bezala alferrikako bizialdia errestatzea, ez al da hala? Gure oinazeak norbaitentzat baliagarri gerta baldin balitez, sakrifizioaz pentsatzean kontsolatuko ginateke!

Bertutea, betebeharra eta, isileko inmolazioak goraipatzen hasi zen gizona, berak ere ase ezin zuen sinestezineko sakrifizio-beharra zeukalarik.

— Biziki maiteko nuke, esan zuen Emmak, ospitaletako monja izatea.

— Horra! ihardetsi zuen Leonek, gizonek ez daukate horrelako eginkizun saindurik, eta nik ez dut inon ikusten inolako ofiziorik..., agian medikuarena izan ezik behintzat...

Bere sorbalden altxatu-begi batez, Emmak moztu egin zuen bere gaixoaldiaz arrenkuratzeko, hiltzeko zorian egona baitzen; lastima! jadanik ez zukeen gehiago sufrituko. Leon berehala zen *hilobiko jabalduraren* gura, eta gainera, arrats batez, bere testamentua idatzi ere egin zuen, Emmak emanda zeukan balusa-mendelezko oin-estalki eder hartan bilduta ehorts zezaten gomendatuz; zeren horrela izan bailitza nahi izango baitzuketen, batak bai besteak orain beren iraganeko bizitza egokitzen zioten ideal bat moldatzen zutelarik. Bestalde mintzoa, sentimenduak beti ere luzeagotzen dituen xaflagailu bat da.

Baina oin-estalkiaren asmakari hari buruz:

— Zergatik ordea? galdetu zuen Emmak.

— Zergatik?

Zalantzan zegoen.

— Biziki maite izan zaitudalako!

Eta, oztopoa gainditu izanagatik bere burua txalotuz, Leonek, betertzez, haren fisionomia zelatatu zuen.

Zerua bezala izan zen, haize-bolada batek hodeiak ohiltzen dituenean. Goibeltzen zituen pentsamendu tristeren mordoak haren begi urdinetatik erretiran zirudien; haren aurpegi osoak distiratu zuen.

Gizona zain zegoen. Azkenean erantzun zuen:

— Betidanik izan dut susmoa...

Orduan, elkarri kontatu zizkioten bizitza urrun hartako gertakari txikiak, zeinaren plazerak eta malenkoniak, hitz bakar batean, laburbildu berriak baitzituzten. Leon aihen xurizko sehaskaz oroitzen zen, Emmak jazten zituen soinekoez, haren gelako altzariez, haren etxe osoaz.

— Eta gure kaktus gaixoak, non dira?

— Hotzak hil ditu joan den neguan.

— Ah! Zenbat pentsatzen nuen haietaz, ez dakizu! Garai hartan bezalaxe ikusten nituen sarritan, eguzkiak, udako goizetan, leihosarean

ematen zuenean bezala... eta zure bi beso biluziak loreen artean pasatzen hautematen nitue-  
nean.

— Lagun gaixoa! esan zuen Emmak hari eskua luzatuz.

Leonek, laster asko, bertan itsatsi zituen bere ezpainak. Gero, zabal-zabal arnasa hartu ondoren:

— Zu niretzat garai hartan zinen, nire bizitza arrobatzen zuen nik ez dakit zen indar ulertezin. Behin batez, esate baterako, joan nintzen zure etxera; baina zuk ez duzu gogoan izango, dudarik gabe.

— Bai, esan zion. Jarraizazu.

— Zu behean zinen, eskaratz-aitzinean, irte-  
teko prest, azkeneko eskilara-mailan; — gainera  
lore txiki urdindun ginbaila zenuen; eta, zure  
aldetik inolako gonbiterik gabe, neure damu eta  
guzti ere, lagundu egin nizun. Baina unetik unera  
ordea, neure tentelkeriaren kontzientzia argia-  
goa neukan, eta bidean aurrera zure alboan  
segitzen nuen, zuri jarraitzera erabat ausartu  
gabe, eta zuregandik aldendu nahi ezik. Denda  
batean sartzen zinenean, ni kalean geratzen nin-

tzen, leiarretatik begiratzen nizun zure eskularruak erantzi eta salmahaian dirua kontaktzen. Ondoren, madame Tuvachenean jo zenuen atea, ireki zizuten, eta ni hantxe geratu nintzen ergel baten gisa, zure atzean gainera etorri zen ate handi astunaren aurrean.

Madame Bovary, hari entzunez, hain zaharra izateaz harritzen zen; azaltzen ari ziren gauza hauek guztiek bere bizialdia luzeagotzen zutela iruditzen zitzaion; horrek neurgabetza sentimentalak bezala gauzatzen zituen non lekuratzen baitzen bera; eta tarteka esaten zuen, ahopean eta betazalak erdi itxirik:

— Bai, egia da!... egia da!... egia da...

Zortziak jotzen entzun zituzten Beauvoisine auzoko erloju desberdinetan, pentsio-etxez, elizaz eta jauregi abandonatuz beterik baitago. Jada ez ziren mintzo; baina, elkarri begira, xuxur-la bat sentitzen zuten beren buruetan, beren betsein tinkoetatik gauza doinutsuren batek elkarrengana aldegin izan balu bezala. Orduantxe elkartuak zituzten eskuak; eta iragana, etorkizuna, oroipenak eta ametsak, dena nahasirik kausitzen zen estasi hartako eztitasunean. Gaua

usutzen ari zen horma gainetan, non distiratzan baitzuten artean, ilunkaran erdi galdurik, lau estanparen kolore lodiek *Tour de Nesle*-ko lau pasarte irudikatuz, oinean izkiribu bat zutela, espainolez eta frantsesez. Gilotinazko leihotik, zeru beltzeko ertz bat ikusten zen, bi teilatu zorrotzen artean.

Komoda gaineko bi kandela piztera altxatu zen Emma, gero berriro esertzera etorri zen.

— Horra ba!... esan zuen Leonek.

— Horra ba!... erantzun zuen damak.

Eta gizona bila ari zen, etendako elkarrizketa berriro nola bideratuko, Emmak esan zionean:

— Zergatik ez ote dit, gaurdaino, inork horrelako sentimendurik inoiz adierazi?

Urgazleak oihukatu zuen ezen natura idealak zailak zirela ulertzen. Berak, lehen begirada orduko maite izan zuela; eta etsitu egiten zen pentsatzean edukiko zuketan zorionean baldin eta, zoriaren mesede bat medio, elkar lehenago kausitu izanik, bata besteari askaezineko eran lotu izan balira.

— Hortaz pentsatu izan dut noiz edo behin, esan zuen Emmak.

— Zer nolako ametsa! ahapeka Leonek.

Eta haren gerriko zuri luzearen mendel urdina leunkiro haztatuz, erantsi zuen:

— Nork eragozten digu berriro hastea?...

— Ez, lagun, erantzun zuen Emmak. Ni zaharregia naiz... zu gazteegia zara..., ahantzi nazu! Beste batzuek maitatuko zaituzte..., maitatuko dituzu.

— Ez zu bezala! oihukatu zuen.

— Haurra zara gero! Ea, izan gaitezen zuhurrak! halaxe nahi dut!

Eta beren maitasunaren ezintasunak azaldu zizkion, eta mantendu beharrean zeudela, lehengo bezala, senide-adiskidantza baten hein soiletan.

Serioski mintzo al zen horrela? Dudarik gabe Emmak ez zekien ezer bere buruaz, amainuaren xarmak eta hartatik bere burua defendatu beharrek zeharo arazoturik; eta, begirada samur batez gizon gaztea beretsiz, emekiro hasantzen zituen haren esku ikaratiek entseiatzen zituzten fereka herabetiak.

— Ah! barkatu, esan zuen gizonak atzera egin ez.



Eta Emma, izularri lainotsu batek harrapatu zuen, herabe honen aurrez aurre, arriskutsuagoa hau berarentzat, besoak zabalik hurbiltzen zitzaioneko Rodolpheren ausartzia baino. Sekula ez zitzaion iruditu hain eder beste gizonik inor. Xalotasun ezti bat jaulkitzen zitzaion haren jarre-rari. Makotzen ziren betile luze finak beheratzen zituen. Haren masaila, epidermi leuna, bere per-tsonaren irritsez gorritzen zen —pentsatzen zuen Emmak— eta bere ezpainak hartara eramateko gogo gairidituezina sentitzen zuen. Orduan, ordua begiratzeko bezala erlojurantz makurturik:

— Zer berandu den, ene Jainkoa! esan zuen Emmak. Hau hizjariora guk daukaguna!

Gizonak ulertu zuen zeharresana eta bere kapeluaren bila abiatu zen.

— Ikuskaria ere ahaztu egin zait! Eta propio horretarako utzi nauen Bovary gizajoa! Monsieur Lormauxek, rue Grand-Pontekoak, eraman behar ninduen bere emaztearekin.

Eta parada galdua zen, zeren biharamunean bertan baitzihoan.

— Benetan? zioen Leonek.

— Bai.

— Alabaina beharrezkoa dut zu berriz ikus-  
tea, hasi zen Leon, zuri esan beharra neukan...

— Zer?

— Gauza bat... larria, seriosa. Eh! ez, gaine-  
ra, ez zara joango, ez da posible! Jakingo baze-  
nu... Entzuidazu... ez al didazu ba ulertu? ez  
duzu beraz igarri?...

— Halere ederki hitz egiten duzu ba, esan  
zuen Emmak

— Ah! txantetan! Aski da, aski da! Egizu,  
errukiz, berriro ikus zaitzadan..., behin..., behin  
bakarrik.

— Ea ba! ...

Emma gelditu egin zen; gero, damaturik  
bezala:

— Oh! hemen ez!

— Nahi duzun lekuan.

— Nahi al duzu...

Gogoetan zirudien, eta, tonu motz batean:

— Bihar, hamaiketan, katedralean.

— Han izango naiz! oihukatu zuen Leonek  
damaren eskuak atxikiz, eta hark erretiratu egin  
zituen.

Eta, biak zutik aurkitzen zirenez, gizona damaren atzean eta Emma burua apaldurik, Leon haren leporantz makurtu zen eta luze musukatu zuen garondoan.

— Baina zoratuta zaude! ah! zoratuta zaude! zioen Emmak barretxiki ozenen artean, musuak ugaltzen ziren bitartean.

Horretan, haren sorbalda gainetik burua luzatuz, haren begien baietzaren bila zirudien Leonek. Haiek bere gainera jausi zitzaizkion, maies-tate izoztu batez beterik.

Leonek hiru pauso egin zituen atzeraka, irte-teko. Atalazean geratu zen. Gero ahots ikarati batez xuxurlatu zuen:

— Bihar arte.

Buruaren keinu batez erantzun zuen Emmak eta txori bat bezala desagertu zen alboko gelan barrena.

Emmak, arratsean, amaiezineko gutun bat idatzi zion urgazleari, non aldera uzten baitzuen «rendez-vous»a; orain dena bukatu zegoen, jada ez zuten inoiz gehiago, beren zorionarengatik, elkarrekin kausitu behar. Baina, gutuna itxi

zuenean, Leonen helbidea ez zekienez, biziki enbarazaturik aurkitu zen.

— Neuk emango diot, esan zuen berekiko; etorriko da.

Leonek, biharamunean, leihoa ireki eta kantuarrean balkoian, berak lustreatu zituen bete xapinak, eta eskualdi bat baino gehiagorekin. Galtza zuriak jantzi zituen, galtzerdi finak, jaka berdea, zeuzkan usangai guztietarik isuri zuen bere musuzapian, gero, ilea kizkurrarazi ondoren, deskizkurtu egin zuen, bere adatsari dotoretasun natural handiagoa ematearren.

— Oraindik goizegi da! pentsatu zuen ilea-paintzailearen kukuerlojuari begiratzuz, bederatzia seinalatzen baitzituen.

Moda-aldizkari zahar bat irakurri zuen, irten zen, zigarro bat erre zuen, hiru kale gora joan zen, garaia bazela pentsatu zuen eta Notre-Dameko elizatarirantz abiatu zen astiro.

Udako goiz eder batez zen. Zilarreriek distira egiten zuten zilarginen dendetan, eta katedralaren gainera lapranean heltzen zen argiak isladrak pausatzen zituen harri grisen hausturetan; txori konpainia bat zurrunbilatzen zen zeru urdi-

nean, hirustakerako dorretxoan inguruan; plazak, garrasiz durundaka, bere galtzara hegizatzen zuten loreen usaina zuen, arrosak, jasminak, krabelinak, lilipak eta akarak, berdegune hezetan, katubelarretan eta txorientzako xoihas-ka artean desberdinki sakabanaturik; iturria, erdian, gurgurika ari zen, eta guardasol handiren pean, piramidetan mailakaturiko meloien artean, zenbait saltzailek, buru-hutsik, paperean biltzen zituzten brioleta-xortak.

Gizon gazteak hauetako bat hartu zuen. Lehen aldia zuen emakume batentzat loreak erosten; eta bere bular artea, haien usaina arnastuz, harrotasunez puztu zen, beste bati zuzentzen zion gorazarre hura beregana itzuli balitzaio bezala.

Halere, ikusiko ote zuten beldur zen; elizan sartu zen bipilki.

Hartan, klamera atalazean zegoen, ezkerretako atariaren erdian, *Marianne dansant*-aren pean, lumagandorra buruan, ezpata izterrean, makila eskuan, kardinal bat baino maiestatesuago eta kopoi bat bezala distirante.

Leonengana hurbildu zen, eta, elizgizonek hurrei itaunka ari direnean hartzen duten onberatasun lausengarizko irribarre horrekin:

— Monsieur, dudarik gabe, ez da hemengotarra. Monsieurek nahi al du elizako bitxitasunak ikusi?

— Ez, esan zuen besteak.

Eta beheko aldean jira egin zuen lehenik. Gero plazan begiratzera etorri zen. Emma ez zen heltzen. Koruraino igo zen.

Nabea urbedeinkatuaren ontzi beteetan miratzen zen, ojiben hasierarekin eta leiarrerizati batzuekin. Baina pinturen isladurak, marmolaren ertzean puskaturik, urrunago jarraitzen zuen, harlosen gainean, tapiz nabar baten gisa. Kanpoko egunargia eliza barruan luzatzen zen hiru errainu itzeletan, hiru atari irekietatik. Aldian behin, hondoan, sakristau bat pasatzen zen elizakoi presatuen zeharkako belaunplegua aldare aurrean eginez. Kristalezko argidiak dilingo zeuden geldi. Koruan, zilarrezko argimutil bat zegoen pizturik; eta, aldamenetako kaperetatik, elizako leku ilunetatik, hasperen-heiagora gisa-koak jalgitzen ziren noizpehinka, ixten zen burdi-

nesi baten hotsarekin batera, bere oihartzuna ganga altuetan durundatuz.

Leon, ibilkera zuhurrez, hormen hegiz hegi zebilen. Bizitza ez zitzaion inoiz hain ona iruditu izan. Emma laster etorriko zen, xarmangarri, urduri; bere atzetik segika zituen begiradak zelatatuz, —bere soineko hegaldunarekin, urrezko betaurrekoekin, bere botin mehekin, berak oraindik dastatu gabeak zituen dotorezia molde guztiekin, eta jausten ari den bertutearen ezinesaneko lilurarekin. Eliza, ganbara erraldoi baten gisa, damaren inguruan adelatzen zen; gangak makurtu egiten ziren haren maitasunaren aitorpena itzalpean jasotzeko: leiarrek distira egiten zuten haren aurpegia argitzeko, eta intsentsuontziak piztu egingo ziren hura aingeru bat bezala ager zedin, lurrunkerean artean.

Artean ere ez zetorren. Leon aulki batean jarri zen eta bere begiek leiar urdin batekin topo egin zuten non ikusten baitira otarreak daramatzaten batelari batzuk. Luzaro begiratu zion, arretaz, eta arrainen ezkatak eta jipoinen botoizuloak kontatzen zituen, bere pentsamendua Emmaren bila alderrai zebilen bitartean.

Klabera, aparte xamar, bere barnean asaldatu egiten zen, katedrala bere kasa miresten haizu zen handik honako haren kontra. Iruditzen zitzaion, bidutzi baten gisa ari zela portatzen, nolabait ere lapurtzen ari zitzaiola, eta ia-ia sakrilegio bat egiten.

Baina zetaren frufuru bat harlosa gainean, gimbail baten hegia, lepoko beltz bat... Bera zen! Leon zutitu eta korrika joan zen harekin elkartzera.

Emma zurbil zegoen. Arin zebilen.

— Irakurtzazu! esan zuen hari paper bat luzatuz... Oh! ez.

Eta brastakoan erretiratu zuen bere eskua, Amabirjinaren kaperan sartzeko, non, aulki baten kontra belaunikaturik, otoitzean hasi zen.

Gizon gaztea haserre zen fantasia santujale harekin; gero horratio nolabaiteko xarma nabaritu zuen horrela ikusiaz, «rendez-vous» baten erdian bere otoitzetan hala galdurik markesa andaluz baten gisa; gero ez zitzaion luze joan aspertzen, Emmak ez baitzuen bukatzen.

Emma errezatzen ari zen, edo batipat erreza-tzen saiatzen zen, supituko deliberoren bat zeru-



tik jaitsiko ote zitzaion esperoan; eta, Jainkoaren sorospena erakartzeko, tabernakuluko distiraz betetzen zituen begiak, loreontzi handitan zabalduko juliana zurien usaina arnasten zuen, eta belarria zabaltzen zion elizako isiltasunari, zeinak ez baitzuen egiten bere bihotzeko zalaparta handiagotu baino.

Zutitzen ari zen, eta jada bazihoazen, klabe-  
ra hurbildu zitzaientean arin-arian, esanez:

— Madame, dudarik gabe, ez da hemengotarra. Madamek nahi al du elizako bitxitasunak ikusi?

— Ezetz! oihukatu zuen urgazleak.

— Zergatik ez? hasi zen Emma.

Zeren bere bertute kordokariaz Amabirjinari, eskulturei, hilobieiei, aukera guztiei atxikitzen baitzitzaien.

Beraz, *ordenuz* jardutearen amoreagatik, klabe-  
berak sarreraraino gidatu zituen, plaza ondora, eta han, harlosa beltzeko zirkulu handi bat, inolako izkiribu edo zizeldurarik gabe, bere makilaz seinalatuz:

— Horra hor, ekin zion majestuoski, Anboiseko kanpai ederraren zirkunferentzia. Berrogei

mila libra pisatzen zuen. Ez zegoen hura adinako beste bat Europa osoan. Hura galdaztu zuen langilea, egin izanaren bozkarioz hil zen...

— Goazen, esan zuen Leonek.

Gizonak aurrera segitu zuen; gero, Amabirjinaren kaperara itzulirik, erakuspen-keinu sintetiko batean luzatu zituen besoak, eta, laborari etxagun batek bere keretak erakusten dizkizun baino harroago:

— Harlosa xingle honek estaltzen du Pierre de Brézé, Varenneko eta Brissaceko jauna, Poitouko mariskal handia eta Normandiako gobernaria, Montlhéryko batailan hila, 1465.eko uztailaren 16an.

Leonek, ezpainei hozka, zorua ostikatzen zuen.

— Eta, eskuinetan, burdinaz zeharo estalita-ko aitonseme hau, zaldi aztoratu baten gainean, bere biloba Louis de Brézé da, Breval eta Montchaubeteko jauna, Maulevriereko kondea, Maounyko baroia, erregeren txanbelana, Ordenako zalduna eta era berean Normandiako gobernaria, 1531.eko uztailaren 23an hila, igande batez, izkiribuak dioen bezala; eta beheal-

dean, hilobira jaisteko prest dagoen gizon hori, berbera duzue. Inolaz ere ezin daiteke, ez al da hala?, ezdeustasunaren irudikapen bikainagorik ikusi.

Madame Bovaryk bere betaurrekoak hartu zituen. Leon, ekuru, begira zeukan, hitz bat bera ere berriz esaten, keinu batño ere egiten saiatu gabe, hainbestearinoxe sentitzen zen etsiturik hizjarioaren eta antsigabekeriaren aldeko delibero bikoitz haren aurrez aurre.

Betiko erakuslea segi eta segi:

— Bere ondoan, belauniko negarrez ari den emakume hau bere emaztea da, Diane de Poitiers, Brézéko kondesa, Valentinoisuko dukesa, 1499.ean jaioa, 1566.ean hila; eta, ezkerretan, haur bat daraman hau, Amabirjina. Orain, jira zaitzte alde honetara: hona hemen Amboiseta-  
ren hilobiak. Biak kardinal izan ziren eta Rouengo artzapezpiku. Hemengo hau Louis XII. erregearen ministro zen. On asko egin zion katedralari. Bere testamentuan hogeita hamar mila eskutu kausitu ziren pobreentzako.

Eta, gelditu gabe, hitz egin ala, barandaz gainezkako kapera batera bultzatu zituen, batzuk

baztertu zituen, eta gaizki egindako estatua bat eskierki izan zitekeen bloke antzeko bat azaldu zuen.

— Garai batean, esan zuen hasperen luze batez, Rikardo Lehoi-Bihotz, Ingalaterrako errege eta Normandiako dukearen hilobia apaintzen zuen. Calvinistak izan ziren, jauna, egoera honetara bihurtu zutenak. Zitalkeriaz, lurpean hobiratu zuten, Monsignoreren aulki episkopalaren pean. Hona hemen, Monsignore bere egongura sartzen den area. Goazen Zorroterako leiarreriak ikustera.

Baina Leonek atera zuen arin-arin bere patriatik txanpon zuri bat eta Emmari besotik heldu zion. Klamera zeharo txunditurik geratu zen, garaiz kanpoko eskuzabaltasun hura ulertzen ez zuela, arrotzari artean hainbeste gauza geratzen zitzaizolarik ikusteko. Beraz, deika:

— Eh! monsieur. Dorrepunta! Dorrepunta!...

— Mila esker, esan zuen Leonek.

— Monsieur oker dago! Laurehun eta berrogei oinbete du, Ejiptoko piramide handiak baino bederatzi gutxiago. Dena galdazkoa da, eta gainera...

Leon ihesi zihoan; zeren, iruditzen zitzaion, bere maitasuna, zeina, ia bi ordu hartan, elizan eskantitua baitzen harriak bezala, orain airetan galtzera zihoala kelaino baten gisa hodi trenkatu, kaiola luzanga, tximinia sare antzeko hartatik barrena, zeina hain xelebrequi ozartzen baitzen katedralaren gainean, perzkile fantasiatsu baten entsegu bitxi baten antzo.

— Nora goaz ba? zioen damak.

Erantzun gabe, Leonek aurrera segitzen zuen pauso biziz, eta jada madame Bovary bere behatza ur bedeinkatutan bustitzen ari zen, beren atzean entzun zutenean arnas bortitz bat hatsanka, makila baten jauziek tarteka erregularki etenda. Leon jiratu zen.

— Monsieur!

— Zer?

Eta klamera hauteman zuen, bere besapean eta sabelaren kontra orekan mantenduz hogei-koren bat liburutzar azalezatu zeramala. *Katedralari buruz tratatzen zuten* obrak ziren.

— Inozoa! marmartu zuen Leonek elizatik kanpora oldartuz. Elizatarian mutiko bat zebilen aputika.

— Hoa lando baten bila!

Haurra bala bat bezala abiatu zen, Quatre-Vents kalean barrena; biak bakarrik geratu ziren minutu batzuez, aurrez-aurre eta apur bat urdu-ri.

— Ah, Leon!... Benetan... nik ez dakit... ongi ote dagoen...!

Hala mindulikatzen zuen. Gero, aire serio batez:

— Oso desitxurosoa da, badakizu?

— Zertan? ihardetsi zuen urgazleak. Parisen egiten da!

Eta hitz honek, argudio iharduki-ezin baten gisa, deliberatu zuen.

Artean landoan ez zen heltzen. Leon beldur zen Emma ez ote zen berriro elizan sartuko. Noizbait ere azaldu zen landoa.

— Gutxienez ere iparraldeko atetik irten zaitzte behintzat! oihukatu zien atalasean geratua zen klaberak, *Berpizkundea*, *Azken Iudizioa*, *Paradisua*, *Dabid Erregea* eta *Zorigaiztokoak* infernuko garretan ikusteko.

— Jauna nora doa? galdetu zuen kotxeroak.

— Nahi duzun lekura! esan zuen Leonek Emmari kotxe barrura bultza eginez.

Eta makina astuna ibiltzen hasi zen.

Rue Grand-Pont jaitsi zuen, Place des Arts, Quai Napoleon, Pont Neuf zeharkatu zituen eta planto geratu zen Pierre Corneilleren estatuaren aurrean.

— Segi! esan zuen barnetik irten zen ahots batek.

Kotxea berriro abiatu zen, eta, La Fayette bidagurutzetik aurrera, aldapa-behera eramaten utziaz, trenbideko geltokian sartu zen asapala handian.

— Ez, zuzen aurrera! egin zuen deiadar ahots berak.

Landoa irten zen burdinesietatik, eta berehala, ibilbidera heldurik, trosta apalean jarraitu zuen, zumar handien artean. Kotxeruak bekokia xukatu zuen, larruzko kapelua izterren artean ipini zuen eta kotxea zeharkaleetatik kanpora eramane zuen, uraren ertzera, belarretatik hurbil.

Ibai-hegian barrena joan zen, uharriz zolaturiko zirga-bidean barrena, eta, luzaro, Oyssel aldetik, irlez haindian.

Baina, bat-batean, jauzi batez habailatu zen Quatremares, Sotteville, La Grand-Chaussée, rue d'Elbeuf barrena, eta hirugarren geldiunea egin zuen jardin des Plantes aurrean.

— Segitzeko ba! oihukatu zuen ahotsak hase-  
rreago.

Eta segituan, berriro bere bideari helduz, iragan zituen Saint-Sever, Quai des Curandier, Quai aux Meules, berriro ere zubia, Champs de Mars plaza eta ospitaleko jardinen atzealdea, non beltzez jantzitako agure batzuk baitzebiltzan eguzkitan paseoan, huntzez erabat berdeturiko terraza batean. Bouvreil boulebarda igo zuen, boulevard Cauchoise egin zuen, gero, Mont-Riboudet osoa Devilleko aldaparaino.

Itzuli egin zen; eta orduan, deliberorik eta norakorik gabe, menturaren menturan, alderrai ibili zen. Ikusi zuten Saint-Pol-en, Lescure-n, Gargan mendian, Rouge-Mare-n eta Gaillardbois plazan; Maladrerie kalean, Dinanderie kalean, Saint-Romain aurrean, SaintVivien, Saint-Maclou, Saint-Nicaise, Douane aurrean, Basse-Vieille-Tour-en, Trois-Pipes-en eta Cimetière Monumental-en. Aldian behin, kotxeroak, bere



aulki gainean, etsipen begiradak botatzen zituen tabernetara. Ez zuen ulertzen zein ibili-behar-amorruk bultzatzen zituen bi haiek inolaz ere gelditu nahi ez izateko. Batzuetan saiatzen zen, eta berehalakoan entzuten zituen bere atzean haserre-oihuak jalgitzen. Orduan fin zihoztatzen zituen bere bi xamalko patsetan izerdituak, baina zabukadei kontu egin gabe, han-hemenka bazterrak ferekatuz, arretarik gabe, desmoralizaturik, eta ia negarretan egarriz, nekez eta tristuraz.

Eta portuan, kamioi eta upel artean, eta kaleetan, zedarri ertzetan, hiritarrek begiak zabal-zabal irekitzen zituzten probintzietan hain bitxia zen gauza haren aurrean txunditurik, kotxe bat errezelak itxirik, eta horrela behin eta berriz segidan azaltzen, hilobi bat hain hertsiago eta itsasuntzi bat bezala kulunka.

Halako batean, egunaren erdian, landan bete-betean, argiontzi zilarreztatu zaharren kontra eguzkiak bortizkien jotzen zuen momentuan, esku biluzi bat pasa zen oihal horizko errezel txikien azpitik eta paper-zati zarratatuak bota zituen, zeinak haizetan barraiatu baitziren eta

urrunago abaildu, tximeleta txuriren gisa, hirus-  
ta gorri lorebeteko zelai batean.

Gero, seiak aldera, Beauvoisine auzaldeko  
kalexka batean gelditu zen kotxea, eta bertatik  
jaitsi zen, beloa eraitxirik oinez, burua jiratu  
gabe joan zen emakume bat.



Ostatura heltzean, madame Bovary harritu egin zen dilijentzia ez hautemateaz. Hivert, berrogeita hamahiru minutuz haren zain egona baitzen, azkenerako joana zen.

Ezerk ez zuen ordea joatera behartzen; baina bere hitza emana zuen, arratsean itzuliko zela. Bestalde Charles zain zeukan; eta Emmak dagoeneko sentitzen zuen bihotzean meneratasun koldarra, emakume askorentzat, adulterioaren zigorra eta aldi berean bahisaria dena.

Fite egin zuen maleta, kontua pagatu zuen, larrainean kabriolet bat hartu zuen, eta, zaltzainari presa sartuz, adore emanez, minutuero ordua eta egindako kilometroak galdetuz, erdie-tsi zuen *Hirondelle* harrapatzea Quincampoixko lehen etxeak aldera.

Xoko batean eseri bezain pronto, begiak itxi zituen eta aldaparen oinean ireki zituen, non hauteman baitzuen urrunetik Felicite, errementariaren etxe aurrean barrandan nabari zegoela.

Hivertek eutsi zien zaldiei, eta sukaldarisak, atemailara igorik, misterioski esan zuen:

— Madame, monsieur Homaisen etxera joan beharrean zaude segituan. Presazko gauzaren baterako da.

Herria isil zegoen ohi bezala. Kale ertzetan, arrosa-koloreko pila txikiak zeuden airetara ketan, konfituren garaia baitzen, eta Yonvillen mundu guztiak egun berean egiten baitzuen bere hornidura. Baina botikarioaren dendaren aitzinean pila askoz zabalagoa miresten zen, eta beste guztiak gainditzen zituena botika-etxe batek herriko jendearen labeen gain eduki behar duen aldeaz, emendio orokor batek banan-banako gurarien gain.

Sartu zen Emma. Besalki handia iraulita zegoen, eta *Fanal de Rouen* bera ere lurrean zetzan, haren bi hanken artean zabaldurik. Korridoreko ateari bultza egin zion; eta, sukaldearen erdian, arakatz aletuz betetako pitxar nabarren artean, azukre hautsaren, azukre koxkorren, mahai gaineko balantzen, surtako eltzeen artean, Homaistar guztiak hauteman zituen, handiak eta txikiak, kokotseraino igotzen zitzaiz-

kien mantalekin eta eskuan sardeskak zituztela. Justinek, zutik, burua makurtzen zuen, eta botikarioa garrasika ari zen:

— Nork esan dik horren bila «capharnaum»-era joateko?

— Zer da ba? Zer gertatzen da?

— Zer gertatzen den? erantzun zuen botikarioak. Ari gara konfiturak egiten: egosten ari dira; baina gainezka egitera zihoazen irakin bortitzegia medio, eta nik beste ontzi bat eskatzen dut. Orduan, hau, zabarkeriaz, alferkeriaz, nire laborategira joan da, bere iltzean zintzilikaturiko «capharnaum»-eko giltza hartzera!

Botikarioak horrela deitzen zion ganbaratxo bati, teilatupean, bere ofizioko lanabes eta merkantziak betea. Sarritan pasatu ohi zituen han ordu luzeak bakarrik, etiketatzen, ontziz aldatzen, lokarriak jartzen; eta berak ez zuen behatzen biltegi soil gisa, baizik eta benetako saildutegi gisa, handik jalgitzen baitziren gero, bere eskuez elaboraturik, molde orotako pilulak, aleak, belarrurak, lozioak eta edabeak, inguruetan bere ospea hedatuko zutenak. Munduan inork ez zuen han oinik ipintzen; eta hainbeste-

raino errespetatzen zuen non berberak pasatzen baitzuen erratza. Alegia, farmazia, zetorren guztiari irekirik, bere harrotasuna zabaltzen zuen lekua baldin bazen, capharnauma zen bere abarroa non, berekoiki bere baitara bildurik, Homai-sek atsegin hartzen baitzuen bere kuttuntasunen egikaritzan; beraz Justinen kokorrodura adeigabekeriaz eskerga iruditzen zitzaion; eta, arakatzak baino gorritzago, errepikatzen zuen:

— Bai, capharnaumgoa! azidoak alkali kaus-tikoekin batera giltzapetzen dituen giltza! Eta haraxe joan behar Emendio-ontzi bat hartzera! ontzi estalkidun bat! eta agian hartaz ez naiz sekulan baliatuko! Orok du bere garrantzia gure artearen operazio delikatueta! Baina, ze demonio! berezkuntzak finkatu beharra dago eta ia-ia etxeko usantzatarako ezin da erabili farmazeuti-koetarako xedaturik dagoenik. Kapoin bat bistu-ri batez zatikatzea bezalaxe litzateke, magistra-tu batek ...

— Baina lasa zaitez! zioen madame Homai-sek. Eta Athaliek, xenilatik tira eginez:

— Aita! aita!

— Ez, utz nazazue! ekiten zion berriro botikarioak, utz nazazue! alajaina! berdin litzateke espezia-denda bat jartzea, horra nire ohorezko hitza! Tira, tira! hik ez ezer errespetatu! hautsi! puskatu! itxainak askatu! malbaxuria erre! pepiniloak potoetan mariatu, bendak zarratatu!

— Zuk bazenuen ordea..., esan zuen Emmak.

— Hori gero! — Bai al dakik zertara arriskatzzen hintzen?... Ez al duk ezer ikusi, txokoan, ezkerretan, hirugarren apalean? Hitz egin ezak, erantzun, esan zerbait behintzat!

— Nik ez... dakit, zezelkatu zuen mutikoak.

— Ah! hik ez dakik! Horra ba! nik bai, baze-kiat! Botila bat ikusi duk, kristal urdinezkoa, argizari horiz zigilatua, barrean hauts zuri bat daukana, eta bertan neuk idatzirik: Arriskutsua! Eta badakik barruan zer zegoen? Artsenikoa! Eta hik zer eta huraxe ukitu behar! harexen alboan zegoen ontzia hartu!

— Alboan! oihukatu zuen madame Homaisek eskuak elkartuz. Artsenikua? Gu guztiok pozoindu ahal izan gaituzu!

Eta haurrak garrasika hasi ziren, jadanik beren erraieran oinaze izugarriak sentitzen hasiak bailiren.

— Edota gaixo bat pozoindu! jarraitu zuen botikarioak. Beraz kriminalen eserlekura joan nendin nahi al zenuen, auzitegian? Urkabera errestatzen ikusi? Ez dakizu zer nolako arreta gordetzen dudan maneiatzerakoan, nahiz eta ohitura itzela eduki. Sarritan izutu egiten naiz neure kasa, nire erantzukizunaz pentsatzean! Zeren gobernuak pertsekutatu egiten baikaitu, eta eraentzen gaituen legeri zentzugabea benetan Damoklesen ezpata bat bezala da gure buruen gainean dilingo!

Emmari jada ez zitzaion burutik pasatzen ere berarengandik zer nahi zuten galdetzerik, eta botikarioak esaldi hatsangatuz jarraitzen zuen:

— Horra nola eskertzen dituzun zureganako ditugun onberatasunak! Horra nola ordaintzen dizkidazun nik barra-barra eskaintzen dizkizudan ardura hain aitatiarrak! Zeren, ni gabe, non izango zinatekeen? Zer egingo zenukeen? Nork ematen dizu jatena, hezkuntza, jantzia, eta egun batez gizartearen lerrunetan ohorez agertzeko



modu guztiak! Baina horretarako izerdia finki bota beharra dago ahaleginean, eta, esaten den bezala, eskuetan ikorzirinak lortu. *Fabricando fit faber, age quod agis.*

Latinak jaulkitzen zituen, hain zegoen sutan. Txinera eta groenlandiera ere aipatuko zituzkeen, baldin bi hizkuntza horiek ezagutu balitu; zeren krisialdi horietako batean aurkitzen baitzen, non arima osoak erakusten baitu nahasi-mahasian barnean duen guztia, Ozeanoak bezala, ekaitzetan, bere ertzetako gorbeletatik hasi eta bere hondaleetako hondarretaraino zirrikatzen dela.

Eta berriro ekin zion:

— Ikaragarri damutzen hasia naiz zure pertsonaren kargua hartu izanaz! Hobe egingo nukeen une hartan jaio zinen krakan bertan eta zeure mixerian usteltzen utzita! Zuk ez duzu sekulan balio izango piztia adardunak zaintzeko bestetarako! Inolako gaitasunik ez daukazu zientzietarako! Apenas dakizun etiketa bat eransten! Eta hemen bizi zara, nire etxean, kalonje baten gisa, moko-goxo, patxada ederrean!

Baina Emmak, madame Homaisengana itzulirik:

— Etortzeko esan didate...

— Ha! ene Jainkoa, moztu zuen dama gajoak tastaire triste batez, nola esango nizuke banik?... Zorigaitz bat da!

Ez zuen bukatu. Botikarioa burrundaka ari zen:

— Hustu! Garbitu! Eraman! eta arin gero! Eta, Justin bere bruxaren lepotik astinduz, poltsikotik liburu bat jalgi arazi zion.

Mutikoa makurtu zen. Homais bizkorragoa izan zen, eta, liburua jasorik, hari so zegoen, begiak zabal zabalik, baraila irekirik.

— *L'Amour... conjugal!* esan zuen, bi hitz hauek astiro bananduz. Ah! oso ongi! oso ongi! oso polita! Eta irudiak! ... Ah! hau gogorregia da! Madame Homais aurreratu zen.

— Ez, hau ez ukitu!

Hurrek estanpak ikusi nahi izan zituzten.

— Kanpora! esan zien larderiatsuki.

Eta irten egin ziren.

Mutur batetik bestera ibili zen lehenik, urrats handiz, bere behatzen artean liburua irekita

mantenduz, begiak jiraka, hatsanturik, hanpaturik, sorreriak jota. Gero zuzen hurbildu zitzaion bere ikasleari, eta, besoak gurutzaturik bere aurrean tente:

— Baina zuk beraz bizio guztiak dituzu, dohakabe horrek!... Kontuz gero, maldabehera batean zaude!... Zuk ez duzu noski gogartu, hau, liburu zital hau, nire haurren eskuartera eror zitekeenik, beren buruetan txinparta pizt zezakeenik, Athalieren xahutasuna lausotu, Napoleon usteldu zezakeenik? jadanik gizon gisa osaturik dago. Ongi ziur al zaude, gutxienik ere behintzat, ez dutela irakurri? Niri ziurtatzeko gauza al zara...?

— Baina, aizu, jauna, esan zuen Emmak, zerbait bazenuen niri esateko... ?

— Egia da, madame. Zure aitagarreba hilda!

Hain zuzen musde Bovary aita egun bi lehenago hila zen, bat-batean, sorreri-atake bat medio, mahitik altxatzean; eta, Emmaren sentiberatasunarekiko gehiegizko begirapenez, Charlesek monsieur Homaiseri eskatua zion berri lazgarri hau tentuz adieraz ziezaion hari.

Bere esaldia hausnartua zuen, borobildu zuen, legundu, erritmatu; maisulan bat zen zuhurtziaz eta iragakeraz, esamolde finez eta eztitasunez; baina haserreak aurre hartu zion erretorikari.

Emmak, inolako xehetasunik jasotzeari uko eginez, utzi egin zuen botika; zeren monsieur Homaisek hartua baitzuen berriro bere gaitzespenen haria. Ari zen horratio baretzen, eta, orain, doinu aitatiar batez marmaratzen zuen, bere txano greziarraz haizatzen zen bitartean.

— Ez da nik obra hori zeharo arbuiatzen dudalako! Egilea medikua zen. Obra horrek badi-tu bere alde zientifikoak, gizaseme bati ezagutzea gaizki ez datozkionak, eta, atrebentziz esan ere esango nuke, beharrezkoa dela gizonak ezagutu ditzan. Baina beranduago, beranduago! Itxointzazu behintzat zeu ere gizon izan arte eta zure temperamentua egina eduki arte.

Emmaren mailukotsera, Charles, zain baitze-goen, besoak zabaldurik hurbildu zitzaion eta, ahotsean malkoak zituela, esan zion:

— Ah! nire lagun laztana...

Eta emekiro makurtu zen Emma besarkatze-ko. Baina, haren ezpainen ukitzean, bestearen oroitzapena atxiki zitzaion, eta eskua pasatu zuen Emmak bere aurpegian zirgite eginez.

Alabaina erantzun zuen:

— Bai, badakit..., badakit....

Charlesek gutuna erakutsi zion non kontatzen baitzuen bere amak gertaturikoa, inolako hipokrisia sentimentalik gabe. Bakar-bakarrik, bere senarrak erlijioaren laguntzak hartu ez izana auhendatzen zuen, Doudevillen hil baitzen, kalean, kafetegi bateko atarian, ofiziale-ohirekin bazkari patriotiko baten ondoren.

Emmak gutuna itzuli zion; gero, afarian, adetasunez azaldu behar-eta, nolabaiteko higuinaren itxura egin zuen. Baina, senarrak adoretzen zuenez, jateari ekin zion deliberatuki, bitartean Charles, bere aurrez aurre, ekuru zegoen, jarra abaildu batean.

Aldian-aldian, burua altxatuz, begirada luze bat zuzentzen zion dena hersturaz beterik. Behin hasperen egin zuen:

— Berrito ikustea nahi izango nukeen!

Emma isilik zegoen. Azkenean, hitz egin beharra zegoela konprenituz:

— Ze adin zuen, zure aitak?

— Berrogeita hemezortzi urte!

— Ah!

Eta horixe izan zen dena.

Ordu laurden bat beranduago Charlesek esan zuen:

— Nire ama gaixoa!... zer egin behar du, orain?

Ezjakin-keinu bat egin zuen Emmak.

Hain isil ikusirik, atsekabeturik zegoela suposatzen zuen Charlesek eta ezer ez esatera behartzen zuen bere burua, hunkitzen zuen oinaze hura ez suspertzearren. Halere, berea astinduz:

— Ongi leketu al zinen atzo? galdetu zuen.

— Bai.

Mahaitik dafaila jaso zutenean, Bovary ez zen altxatu. Emma ere ez; eta, hari so egon ahala, ikuskari honen monotoniak hastandu egiten zuen pixkanaka-pixkanaka bere bihotzaren dolumen oro. Bere senarra txepela iruditzen zitzaion, ahula, deuseza, alegia gizaixo bat, inolako

moduz ere. Nola libratu hartaz? Zer nolako arrats akabaezina! Halakoxe sorgogarriren batek, opio-lurrun baten gisa, soraioturik zeukan.

Ohol gainean makila baten hots zekena entzun zuten eskaratzean. Hippolyte zen, Madameren maletak ekartzera.

Haiek lurrean pausatzeko, zirkulu-laurden bat deskribatu zuen nekez bere hanka-makilarekin.

Jada ez du pentsatu ere egiten hortaz! zioen Emmak berekiko mutil gizarajoari begira, bere adats gorri oparoa izerdiz tantaka zuela.

Bovary txanpon baten bila ari zen bere poltsaren zokoan; eta han, bere gauzaezkeria sendaezinaren destaina pertsonifikatua bezala, zutik zegoen gizon haren presentzia hutsean berarentzako umilaziotan zegoen guztia ulerztearen antzik gabe:

— Kontxo! Loresorta polira daukazu! esan zuen, tximini gainean Leonen brioletetz errepatu-rik.

— Bai, zioen damak ezaxolatuki, lehentxeago erosi dudan loresorta bat da... eskale bati.

Charleseke brioletak hartu zituen, eta, malkoz gorrituriko bere begiak haien gainean freskatuz, emekiro usaintzen zituen. Emmak berehala kendu zizkion eskutik, eta ontzi batean uretan ipintzera eraman zituen.

Biharamunean, madame Bovary ama heldu zen. Berak eta bere semeak negar asko egin zuten. Emma, eman beharreko zenbait aginduren aitzakiatan, desagertu egin zen.

Hurrengo egunean, dolujarriez arduratu behar izan zuten elkarrekin. Uraren ertzera joan ziren, jostun-kaxekin, pendizaren pean esertze-ra.

Charleseke bere aitaz pentsatzen zuen, eta harritu egiten zen hainbaterainoko txera sentitzeaz gizon harenganako, zeina oso hala-hola baino ez zuela maite uste izan baitzuen anarteraino. Madame Bovary amak bere senarraz pentsatzen zuen. Garai bateko egunik txarrenak inbidiagarriak azaltzen zitzaizkion orain. Ohitura hain luze baten instintuzko galduminaren pean dena ezabatzen zen; eta, aldian behin, bere jostorrazari eragiten zion bitartean, malko lodi bat



jaisten zen bere sudurrean behera eta han gertatzen zen momentu batez dilingo.

Emmak pentsatzen zuen, zuela berrogeita zortzi ordu abantzu, elkarrekin zeudela, mundutik urrun, hordidura betean, eta elkar betesteko aski begirik gabe. Desagerturiko egun hartako xehetasunik oharkaitzenak berreskuratzen saiatzen zen. Baina amaginarrebaren eta senarraren presentziak gogaitu egiten zuen. Ezer ez entzutea nahi izango zukeen, ezer ez ikustea, ez artegatzearren bere amodioaren barnebilkuntza, zeina galtzen baitzihoan, berak zernahi eginik ere, kanpoko sentsazioen pean.

Soineko baten forraduraren joscura askatzen ari zen, haren hari-litsak bere inguruan barreiatzen zirela; Bovary amak, begiak altxatu gabe, bere guraizeei kirrinka eragiten zien, eta Charles, bere oskierresta mendeldunekin eta gelajantzitarako erabiltzen zuen bere xenila nabarrarekin, han zegoen bere bi eskuak patriketan eta mintzatu ere ez zen egiten; beren ondoan Berthek, amantal txiki zuriz, bere palaz ibilbideetako hondarra harrotzen zuen.

Bat-batean, monsieur Lheureux oihal-merkataria ikusi zuten atekatik sartzen.

Bere zerbitzuak eskeintzera zetorren, *ohondiko*zko *kinka kontutan harturik*. Emmak erantzun zuen, bere ustez halakorik gabe moldatu ahal izango zela. Merkatariak ez zuen etsi.

— Barkatu mila bider, esan zuen; aparteko elkarrizketatxo bat eduki nahi nuke.

Gero, ahots apal batez:

— Beste gorabehera hari buruzkoa da... badakizu? Charles gorri-gorri jarri zen belarrieta-raino.

— Ah! bai..., noski.

Eta, bere larriduran, emaztearengana itzuli-rik:

— Ezin ote zenuke..., laztana...?

Emmak ulertu ziola zirudien, altxatu egin baitzen, eta Charlesek bere amari esan zion:

— Ez da ezer! etxerako huskeriaren bat dudarik gabe.

Ez zuen nahi bere amak jakin zezan ordaindukoaren kontua, haren ohartarazpenen beldur.

Bakarrik kausitu ziren bezain pronto, monsieur Lheureux hasi zen, nahiko argi eta garbi,

Emmari zorionak ematen herentziarengatik, gero axolagabeko gauzaz solasean, keretei buruz, uztari buruz, beraren osasunaz, zeina beti ere *erdipurdi baitzihoakion, batean hala bestean hola*. Izan ere, mila demonioren nekeak hartzen zituen bere gain, nahiz eta, jendearen esamesak gorabehera, bere ogiaren gainean gurinik ipintzeko lain ere ez atera.

Emmak hitz egiten uzten zion. Hain izugarriro ari zen aspertzen bi egun hartan!

— Eta zu erabat sendaturik al zaitugu? jarraitu zuen. Alafede, ederrak pasatzen ikusi dut zure senar gizarajoa! Mutil jatorra da, elkarren artean zenbait arazo izan dugun arren.

Ea zeintzuk, galdetu zuen Emmak, zeren Charlesek ezkutatu egin baitzion hornizioen bihurketa.

— Baina zuk oso ongi dakizu! esan zuen Lheureuxek. Zure gurari haiengatik zen, zure bidaia-kaxa haiek.

Kapelua bi begien gainera jaitsia zuen, eta bi eskuak bizkar atzean, irribarrez eta txistuka, aurrez aurre begiratzen zion Emmari, jasanezinezko modu batean. Ba ote zuen zerbaiten sus-

morik? Emmak galdurik segitzen zuen molde orotako beldurren artean. Azkenean, horratio, ekin zion berriro:

— Elkarrekin adiskidetu gara, eta hari beste konponbide bat proposatzera nentorren.

Bovaryk sinaturiko ordaindukoa berritzea zen. Monsieurrek, bestalde, bere gisara jokatu zuen; ez zeukan buruhausteren beharrik, batez ere orain hainbesteko enbarazu pila izan bide zuen honetan.

— Eta gainera hobe egingo luke zama hori beste norbaiten gain utziz, zure gain, esate baterako; eskuordetza batekin, eroso izango litzateke, eta orduan guk elkarrekin edukiko genituzke gure negoziotxoak...

Emmak ez zuen ulertzen. Merkataria isildu egin zen. Ondoren, bere egitekora pasatuz, Lheureuxek deklaratu zuen, Madame ezin libratu izango zela berari zerbait erostetik. Barege-oihal beltz bat igorriko zion, hamabi metro, soineko bat egiteko adina.

— Zuk hemen daukazuna etxerako ona da. Beste bat behar duzu bisitetarako. Nik hori lehen

begiradan hauteman dut, sartu orduko. Begi amerikanoa daukat nik.

Ehuna ez zuen igorri, berak ekarri zuen. Gero neurriak hartzera etorri zen, beste zenbait aitzakia medio berritan itzuli zen, aldioro atsegin azaltzen saiatuz, eta adeitsu, feudo bilakaturik, Homaisek esango zukeen bezala, eta beti ere Emmari ezarian zenbait aholku emanaz eskuordetzari buruz. Ordaindukoaz ez zen mintzatzen. Emmak ez zuen hartaz pentsatzen; Charlesek, eriondoaren hasieran, zer edo zer kontatu zion noski; baina hainbeste nahasketa iragan zen bere buruan non berak ez baitzuen jada gogoan. Bestalde, tentuz saiatu zen Emma inolako interes-eztabaidarik ez sortarazten; madame Bovary ama harritu egin zen horretaz, eta haren umorealdakuntza gaixoaldian hartutako sentimendu erlijiosoei eratzeki zien.

Baina, ama joan ondoren, Emmak ez zuen luze eman Bovary txunditzen bere zentzu on praktikoarengatik. Informazioa bildu beharra omen zegoen, hipotekak egiaztatu, ikusi ea leku ote zen lizitazio bat edo likidazio bat.

Termino teknikoak botatzen zituen, menturara, hitz handiak esaten zituen ordenuaz, etorkizunaz, zuhurtziaz, eta herentziaren enbarazuak bapikatzen zituen etengabe: horretan, egun batez senarrari baimen orokor baten eredia «bere negozioak administratzeko eta kudeatzeko, ezein mailegu egiteko, ordaintzeko oro sinatzeko eta endosatzeko, ezein kopuru pagatzeko, e.a.». Lheureuxen lezioei aterea zien etekina.

Charlesek, xaloki, paper hura nondik zetorren galdetu zion.

— Monsieur Gillauminengandik.

Eta, munduko odolotzik hotzenaz, erantsi zuen:

— Ez naiz gehiegi fidatzen. Notarioek hain dute aipu txarra! Agian aholku eskatu behar izango genuke... Guk ezagutzen dugun bakarra... Oh! inor ez.

— Nolaz eta Leonek..., ihardetsi zuen Charlesek, pentsatzen ari zen bitartean.

Baina postaz elkar ulertzea zaila zen. Orduan Emma bidaia hori egiteko prest azaldu zen. Senarrak eskerrak eman zizkion. Emazteak erautsi egin zuen. Amultsutasun-lehiaketa bat izan

zen. Azkenik, Emmak oihukatu zuen asaldapen-tonu itxuratsu batez.

— Ez, mesedez, ni joango naiz.

— Bai ona zarela! esan zion Charlesek beko-kian musu eman ez. Biharamunean bertan, *Hirondelle* hartu zuen Rouena joateko, monsieur Leoni aholku eskatzera: hiru egun geratu zen bertan.



Hiru egun bikainak izan ziren, eztiak, oparokak, benetako eztei-ilargia.

*Boulogne hotelean* zeuden, portu gainean. Eta han bizi ziren, leihatilak itxirik, atea giltzaturik, goizetik ekartzen zizkien loreak lurrean eta siropak izotzetan.

Arrats aldean, txalupa estali bat hartzen zuten eta irla batean afaltzera joaten ziren.

Ordugarai hartan entzuten zen, lantegi inguruetan, untzien kroskoaren kontra istinkarien mailua durundaka. Mundrunaren kea zuhaitzen artetik jalgitzen zen, eta ibai-axalean koipe tanta zabalak ikusten ziren, eguzkiaren kolore purpuraren pean desberdinki kulunkan, brontze florentziarrezko plakak hezala, flotatzen.

Txalupa amarraturen artean jaisten ziren, haien zehar-kable luzeek txaluparen goialdea apur bat ferekatzen zutela.

Hiriko zaratak ezarian urruntzen ziren, karroen pirrilotsa, ahotsen iskanbila, zakurren ahautsia untzietako zubi gainetan. Emmak ginbaila



askatzen zuen eta beren irlan lehorreratzten ziren.

Atean sare beltz batzuk zintzilik zeuzkan taberna bateko behe-salan jartzen ziren. Esperlin prejituak, krema eta gereziak jaten zituzten. Belar gainean etzaten ziren; zumarzurien pean besarkatzen ziren apartean; eta, beren dohatsutasunean, lurbirako ederrena iruditzen zitzaaien lekutxo hartan bizi izan nahiko zuketan, bi Robinsonen gisa, betirako. Ez zuten lehen aldia zuhaitzak hautematen, eta zeru urdina, eta belartza, uraren ibilia eta haizexkaren hosto arteko bolada entzuten; baina dudarik gabe inoiz miretsi gabea zuten hori guzti anarteraino naturarik izan ez balitz bezala, edota beren irritsen asemenduaren ondoren baino hasi ez balitz bezala ederra izaten.

Gaua hastean, abiatu egiten ziren. Txalupa irlen hegiari jarraitzen zitzaion. Beraiek txalupa-hondoan geratzen ziren, biak itzalpeak ezkutataturik, hitz egin gabe. Arraun karratuek soinua ateratzen zuten burdinazko toleten artean; eta horrek isiltasunean metronomo baten taupakeraren gisa markatzen zuen; eta atzean errestan

zerorren goroiteak ez zuen eteten bere txaplastako txiki leuna uretan.

Behin batez, ilargia azaldu zen; orduan ez zioten huts egin esaldiak egiteari, astroa malenkoniatsua eta poesiaz betea kausitzen zutelarik; kantatzen ere hasi zen Emma:

*Un soir, t'en souvient-il? nous voguions, etc.*

Bere ahots armoniatsu eta iraungia uhinen gainean galtzen zen; eta Leonek bere inguruan, hegats-irabioren gisa, iragaiten entzuten zituen txiruliak haizeak eramaten zituen.

Emma aurrean zegoen, txalupako itxituraren kontra tinkaturik, nora sartzen baitzen ilargia irekitako leihatiletariko batetik. Bere soineko beltzak, argalago egiten zuen, handiago bihurtzen zuen. Burua altxaturik zeukan, eskuak baturik, eta bi begiak zerurantz. Batzuetan sahatsen itzalak osorik estaltzen zuen, gero berriro azaltzen zen bat-batean, agerkari baten gisa, ilargiaren argitan.

Leonek, lurrean, Emmaren ondoan, zeta gorrizko xingola bat aurkitu zuen bere eskupean.

Untzizainak aztertu zuen eta azkenik esan zuen:

— Ah! lehengo batean pasiatu nuen talde batena da agian. Komeriante sail bat etorri ziren, gizonezkoak eta emakumezkoak, pastelak, champaigne, turutak, eta fanfarreria guztiarekin! Bazegoen batez ere bat, gizon handi bikain bat, bibote txikiekin, barreragile apartekoa! eta honela esaten zuten:

«Ea ba, kontaiguzu zerbait..., Adolphe... Dodolphe..., uste dut.»

Emmak zirgit egin zuen.

— Ondoezik al zaude? galdetu zion Leonek harengana hurbilduz.

— Oh! ez da ezer. Gaueko freskura nonbait.

— Eta ez du, noski, emakume-faltarik ere izango, erantsi zuen marinel zaharrak, arrotzari konplimendu bat egin ustetan.

Gero, bere eskuetara tu eginez, arraunak hartu zituen berriro.

Banandu beharra izan zen alabaina! Adioak tristeak izan ziren. Rolet atsoaren etxera igorri behar zituen bere gutunak; eta kartazal bikoitzari buruz gomendio hain zehatzak egin zizkion Emmak, non gizonak biziki miretsi baitzuen honen amorante-maiña.

— Beraz, dena ongi dagoela bermatzen didazu? esan zuen Emmak azken musuan.

— Bai, ziur! — Baina zergatik ordea, pentsatu zuen gero, hartaz oroitzean bakarrik kaleetan barrena, ote dio hainbateko atxikimendua prokurazio horri?

## —IV—

Laster hasi zen, Leon, bere lagunuen aurrean harroxko sarrairoak hartzen, haiekin ibiltzeari utzi zion, eta lege-paperez zeharo zabartu zen.

Emmaren gutunen zain egoten zen; behin eta berriz irakurtzen zituen. Idazten zion. Bere irri-tsaren eta bere oroipenen indar guztiaz gogoratzen zuen. Ausentziaz murriztu orde, hura berriz ikusteko gogoia hazi egin zen, hainbeste hazi ere non larunbata goiz batez bete estudiantik alde egin baitzuen.

Aldapa gainetik, ibarrean elizako kanpandorea hauteman zuenean bere latorrizko bandera haizetan jiraka zuela, milionarioek beren herririka bisitatzera itzultzen direnean eduki bide duten gozamen hura sentitu zuen, harrotasun garailez eta hunkidura berekoiez nahasia.

Bere etxearen inguruan itzuli bat egitera joan zen. Argi batek distiratzen zuen sukaldean. Errezel atzean bere errainua zelatatu zuen. Ez zen ezer azaldu.

Lefrançois atsoak, ikustean, oihu handiak bota zituen, eta «handitua eta argaldua» kausitu zuen, eta Arthemisek berriz, aitzitik, «potzolutua eta belzkarretua» kausitu zuen.

Sala txikian afaldu zuen, garai baretan bezala, baina bakarrik, zergabiltzailerik gabe; zeren Binetek, *Hirondelle*-ren zain egoten *unaturik*, behin betirako ordubetez aurreratua baitzuen bere otordua, eta, orain, bostetan puntuan afaltzen zuen, ordea gehienetan tematzen zen halerre *tramankulu zaharra berandu zebilela* esaten.

Leon horratio deliberatu zen; medikuaren atea jotzera joan zen. Madame bere gelan zegoen, eta handik ez zen jaitsi ordu laurden bat geroago baino. Monsieur pozik agertu zen Leon ikusteaz; baina ez zen mugitu arrats osoan, ezta hurrengo egun osoan ere.

Ikusi zuen Emma bakarrean, arratsean, oso berandu, jardinez bestaldean, zurrunean; — zurrunean, bestearekin bezala! Aldagoia zen, eta guardasolpean ari ziren solasean, tximisten argitan.

Beren bananketa jasanezina bilakatzen zen.  
— Nahiago hil! zioen Emmak.

Haren besoaren gainean bihurrikatzen zen, negarrez.

— Agur!... agur!... berriro noiz ikusiko zaitut?

Egindako bidean atzera itzuli ziren berriz ere elkar besarkatzeko; eta hantxe egin zion Emmak promes laster aurkituko zuela, nolana hikoia izanik ere modua, bere burua libre kausitzeko parada iraunkorra, astean behin gutxienez. Emmak ez zuen hortaz zalantzarik. Eta, bestalde, itxaropenez beterik zegoen. Dirua etorri bide zitzaion.

Halatan, marra zabalezko errezel hori parearen erosi zuen bere gelarako, haien merke-aukera aidatua baitzion monsieur Lheureuxek; tapiz batez amets egin zuen, eta Lheureux, «itsasoa edan beharra ere ez zela» esanez, halako batez hornitzera konprometatu zen itxuroski. Jadanik ezin zuen haren zerbitzuak alde batera utzi. Egunean hogeit hamar aldiz bidaltzen zuen norbait haren bila, eta Lheureuxek berehala plantatzen zizkion bertan bere gauzak, bere buruari murmurio bat ere zilegitu gabe. Ez zen halaber ulertzen zergatik Rollet atsoak egunero Emmaren etxean bazkaltzen zuen, eta zergatik bakarkako bisitak ere egiten zizkion.

Garai-modutsu hartan izan zen, negu-hasiera aldera alegia, musika-irrits handi batek jo zuela zirudienekoa.

Charles entzuten ari zitzaion arrats batean, lau bider segidan hasi zen atal berbera jotzen, eta beti ere oker, Charlesek, diferentziaz ohartu gabe, oihukatzen zuen bitartean:

— Ederto!... Oso ongi!... Oker zaude! segi aurrera!

— Ezetz ba! higuingarria da! behatzak baldaturik dauzkat. Biharamunean, berarentzako zerbeit jotzeko eskatu zion Charlesek.

— Ea ba, zure atseginerako!

Eta Charlesek aitortu zuen, Emma apur bat atzenduta zegoela. Pentagramaz huts egiten zuen, nahastu egiten zen; gero, brast geldituz:

— Ah! akabo! klaseak hartu beharko nituzke; baina...

Ezpainak ausiki zituen, eta erantsi zuen:

— Saio bakoitzeko hogeit libera, garestiegi da!

— Bai, egia... garestitxo..., esan zuen Charlesek irriabar tentel batez. Baina, merkeago ere ausaz balitekeela iruditzen zait ba; zeren badira



aipurik gabeko artistak, sarritan ospetsuek baino gehiago balio dutenak.

— Bila itzazu, esan zuen Emmak.

Biharamunean, etxeratzean, begi fineziosez betetsi zuen, eta azkenerako ezin izan zion esaldi honi eutsi.

— Zeinen burugogorra zaren batzuetan! Barfeucheresen izan naiz gaur. Eta horra! madame Liegeardek ziurtatu dit, Misericordian dauden bere hiru alabatxoek klaseak hartzen dituztela saioko berrogeita hamar soretan batez beste, eta maistra ospetsu batengandik gainera!

Emmak sorbaldak altxatu zituen, eta ez zuen gehiago ireki bere pianoa.

Baina albotik pasatzen zenean (Bovary bertan kausitzen bazen), hasperen egiten zuen:

— Ah! nire piano gaixoa!

Eta inor bisitara zetorrenean, ez zion huts egiten adierazteari, musika abandonatua zuela eta orain ezin zuela berriro hartara itzuli, ezinbesteko arrazoirengatik. Orduan urrikaldu egiten zitzaizkion. Lastima benetan! halako talentu bikaina edukita! Bovaryrekin ere hartaz hitz egin

izan zuten. Lotsarazi egiten zuten, eta batez ere botikarioak:

— Oker ari zara! Inoiz ez dira utzi behar naturaren ahalmenak debet. Bestalde, pentsa ezazu, lagun, Madame ikastera bideratzean gerorako ekonomizatzen ari zara zure haurraren musika-hezkuntzaren gain! Nik behintzat kaustitzen dut, amak berak eskolatu behar dituela bere haurrak. Hau Rousseauren ideia bat da, agian berrixamarrara oraindik, baina azken finean garaile irtengo dena, ziur naiz, amarengandiko edoskitzea bezalaxe, eta txertuak bezalaxe.

Charles beraz berriro ere pianoaren arazo honetara itzuli zen. Emmak garrakki erantzun zuen, hobe zela saltzea. Piano gaixo hura, hainbat atsegin harro emanak zizkiona, joaten ikustea, emaztearen parte baten suizidio zehatzezina bezala zen Bovaryrentzat.

— Zuk nahi izango bazenu..., esaten zion Emmari, noizbehinka klase bat, hori ez litzateke, nolana ere, zeharo galerakorra.

— Baina klaseak, erantzuten zuen Emmak, ez dira probetxukoak segidan izan ezik.

Eta horrelaxe moldatu zen bere senarraren-gandik baimena lortzen, asteen behin hirira joateko, bere amorantea ikustera. Eta, hilabetearen buruan, aurrerapen nabarmenak egin zituela kausitu zuten gainera.

Ostegunez zen. Jaikitzen zen eta isil-isilik jartzen zen Charles ez esnatzearren, garaizegi prestatzen zela-eta kargu hartuko baitzioken hark. Gero ibilian ibiltzen zen gelaren mutur betetik bestera; leihoen aurrean jartzen zen eta Plazara begiratzen zuen. Egunsentiak azokako pilareen artean zirkulatzen zuen, eta botikarioaren etxeak, leihatilak itxirik zituela, goizargitako kolore zuhaitetan uzten zituen sumatzen bere letreroak maiuskulak.

Hormako erlojuak zazpiak eta laurden markatzen zituenean, *Lion d'or*-era joaten zen, eta Artemise erortzen zitzaion, aharrausika, bertako atea irekitzera. Honek lurmendatzen zituen Madamentzat errautsetan hondoraturiko ikatzak. Bakarrik geratzen zen Emma sukaldean. Aldian behin irten egiten zen. Hivert han aritzen zen presatu gabe uztartzen eta, gainera, Lefrançois atsoari entzuten, zeinak, algodoizko boneta batez jantzitako bere burua leihatila batetik aterata, mandatuak enkargatzen baitziz-

kion eta beste edozein gizaseme nahasarazteko moduko esplikazioak ematen zizkion. Emmak bere botinen zoruak istikatzen zituen atariko harlauzen kontra.

Noizbait ere, bere arrantxoak jan, bere kapusaia leporatu, bere pipa piztu eta bere zaharoa atzeman ondoren, astiro jartzen zen bere eserlekuan.

*Hirondelle* trosta txikian abiatzen zen, eta, legoa baten hiru laurdenetan zehar tokian-tokian gelditzen zen bidaiariak jasotzera, hauek zelatan egoten baitziren zutik, bidearen ertzean, larrainerako erromaratearen aurrean. Bezperatik abisua emana zutenek berantetsi arazten zuten. Zenbaitzuk egon ere ohean egoten ziren artean beren etxeetan; Hivertek dei, garrasi, sakre egiten zuen, gero bere eserlekutik jaisten zen eta ateen kontra kolpe handiak jotzera joaten zen. Leihatila arrailduetatik haizea sartzen zen.

Bitarte horretan lau aulkiak betetzen ziren, kotxea bazihoan aurrera, sagarrondo zerrendak jarraian igarotzen ziren; eta bidea, ur horiz betetako bere bi erreten luzeen artean, beti ere mehartzten zihoan ostertzerantz.

Emmak mutur batetik bestera ezagutzen zuen; bazekien belartzari baten ondoren zutoin bat zegoela, gero zumar bat, borda bat edo kaminero-txabola bat; batzuetan, bere burua ustekabean harrapatzeko, begiak itxi ere egiten zituen. Baina geratzen zen distantziaren sentimendu zehatza inoiz ez zuen galtzen.

Azkenik, arriluzko etxeak hurbiltzen ziren, lurrak soinua ateratzen zuen gurpilen pean, *Hirondelle* jardin artean leratzen zen, non haudematen baitziren, baranga batetik barrena, estatuak, mahatsondo bat, hagin muxarratuak eta zabu bat. Gero, begikaldi bakar batez, hiria agertzen zen.

Anfiteatro modura jaitsiz eta lainoartean murgildurik, zubiez bestaldera zabaltzen zen, nahaskiro. Gero landalur hutsa igotzen zen berriro mugimendu monotono batean, harik eta urru-nean ortze hitsaren ezbaiko oina ukitu arte. Horrela goitik ikusirik, paisaiak oso-osoa gelditxura zeukan pintura batek bezala; untzi ainguratuak xoko batean pilatzen ziren; ibaiak biribildu egiten zuen bere bihurgunea muino berdeen oinean, eta irlek, eite luzangakoak, geldituriko

arrain beltz handiak ziruditen ur ganean. Fabriketako tximiniek egundoko motots nabarrak jaurtikitzen zituzten, muturretik hegaztatzen zirela. Fundizioen burrunba entzuten zen, gandu artean altxatzen ziren elizetako kariloi zoliekin batera. Bulebarretako zuhaitzek, historik gabe, sasitza moreak egiten zituzten etxeen artean, eta teilatuek, euriz distiratsu, desberdinki isplartzten zuten, auzaldean alturaren arabera. Aldian behin haize-kolpe batek eramaten zituen lainoak Sainte-Catherineko aldapa aldera, labar baten kontra isilean hausten ziren aireko uhinak bezala.

Gauza zorabiagarriren bat jalgitzen zen berarentzako existentzia pilakatu haietatik, eta bere bihotza oparo puzten zen, han pilpiratzen zuten ehun eta hogeita mila arimek guztiek batera igorri balute bezala berak haiei suposatzen zizkien grinaren hatsa. Bere maitasuna handiagotu egiten zen espazioaren aurrean, eta arrabotsez betetzen zen igotzen ziren burrundara gandutsuekin. Berak kanpora jalgitzen zuen, plazetara, pasealekuetara, kaleetara, eta hiri zahar normandiarra egundoko hiriburu baten gisa hedatzen zen bere

begien aurrean, bera sartzen ari zen Babilonia baten gisa. Leihatilatik kanpora makurtzen zen bi eskuez, haizekirria arnastuz; hiru zaldiak asapalan zihoazen. Harriek kirrinka zegiten lokatze-tan, dilijentziak zabu egiten zuen, eta Hivertek, urrunetik, deiadar egiten zien orgatxarrei bidean, eta aldiz gaua Bois-Guillaumen iragana zuten burgesek lasai jaisten zuten aldapa beren familia-kotxe txikian.

Erromaratean gelditzen ziren; Emmak bere eskalaproinak askatzen zituen, beste eskularru batzuk jazten zituen, bere txala txukun ipintzen zuen, eta, hogeit hamar pauso aurrerago, *Hirondelle*-tik irteten zen.

Hiria orduan esnatzen zen. Enplegatuak, boneta greziarra buruan, dendetako erakusleihoak iguzten ari ziren, eta emakume batzuk, gerrian otarteak zituztela, oihu ozenak botatzen zituzten tarteka, kale ertzetan. Emma lurrera begira joaten zen oinez, hormak ferekatuz, eta jaitsitako bere belo beltzaren pean plazerez irribarreka.

Ikusiko ote zuten beldur, gehienetan ez zuen hartzen biderik laburrena. Kalexka ilunetan



barrena murgiltzen zen, eta erabat izerditan iristen zen rue Nationaleko behe aldera, han dagoen iturritik hurbil. Hauxe da antzokiaten, kafetinen eta emagurien auzaldea. Sarritan zalgurdiren bat pasatzen zen bere albotik, dardara zegiten apainduriaz adelaturik. Amantalez jantzitako mutil batzuek hondarra zabaltzen zuten harlauzen gainean, zuhaixka berderen artean. Asantzi-likore, zigarro eta ostra usaina hartzen zen.

Emmak kale baterantz okertzen zuen; kape-  
latik kanpora irteten zitzaion adats kizkurraren-  
gatik ezagutzen zuen hura.

Leonek, espaloian, aurrera jarraitzen zuen; berak hoteleraino segitzen zion; hura igotzen zen, atea irekitzen zuen, sartzen zen... Zer nolako laztana!

Gero hitzak, musuen ondoren, oldartu egiten ziren. Gero asteko atsekabeak kontatzen zizkio-  
ten elkarri, presentimenduak, gurunengatiko  
kezkak; baina orain dena ahazten zen, eta  
aurrez aurre begiratzen zioten elkarri, irri bolup-  
tuosez eta mintzakera samurrez.

Ohea kaobazko ohe handi bat zen txalupa  
forman. Sabaitik jaisten ziren zeta gorrizko erre-

zelak beheregi taiutzen ziren oheburu mako-  
hedatuaren aldetik; — eta ez zen munduan ezer  
bere buru beltzarana eta bere larrazal zuria  
bezain ederrik purpura kolore haren gainean  
nabarmendurik, noiz eta, lotsaizunezko keinu  
batez, bere bi beso biluziak hersten zituenean,  
aurpegia eskuen artean ezkutatzuz.

Gela epelak, bere tapiz diskret, bere apaindu-  
ria eroska eta bere argi ekuruarekin, oso apropos-  
a zirudien irritsaren mamitasunetarako. Gezi  
eran burututako kamadarrek, kobrezko erreze-  
leuskarriek eta suburnietako bola handiek bat-  
batean distiratzen zuten, eguzkia sartzen bazen.  
Tximiniaren gainean, argimutilen artean bi itsas-  
kurkuilu arrosa handi zeuden, belarrira doitzean  
itsasoaren hotsa entzuten den horietakoak.

Bai atsegin zutela alaitasunez betetako gela-  
txo eder hura, bere arrandi higatuxamarra gora-  
behera! Altzariak beren lekuan aurkitzen zituz-  
ten beti, eta batzuetan aurreko ostegunean  
ahaztuak zituen ileorratzak ere; erloju handiaren  
zolarean pean. Sutondoan bazkaltzen zuten, pali-  
sandrozko inkrustaziodun mahaitxo txiki batean.  
Emmak zatikatzen zuen, eta puskak bere plate-

rean ipintzen zizkion molde orotako balakuak jalgiz; eta barre ozen eta gordin batez egiten zuen irri Champagneko ardoaren aparrak gainez egiten zuenean baso arinetik bere behatzetako eraztunen gainera. Hain zeharo galdurik zeuden elkarren gozamenean non, han, beren etxe partikularrean zirela uste baitzuten, eta bertan bizi behar zutela hil arte, bi ezkonberri eternalen gisa. Gure gela esaten zuten, gure tapiza, gure besaulkiak, eta Emmak nire oskierrestak ere esaten zuen, Leonen opari bat izaki, Emmak izan zuen apeta bat. Saten arroxazko oskierresta batzuk ziren, zisnez mendelduak. Emma haren belaunetan esertzen zenean, bere zangoa, horrela laburregia, airean dilindatzen zen; eta oinetako panpox hura, ez baitzuen orpotoparik, behatzetatik bakarrik atxikitzen zitzaion bere oin biluziari.

Lehen aldiz ari zen dastatzen Leon dotorezia femeninoen ezinesaneko findadeak. Aurkitu gabea zuen inoiz hizkeraren grazia hura, janzkeran halako zuhurtzia, uso lokartuaren jarrera haiek. Haren arimako garra eta haren gonako farfailak miresten zituen. Bestalde, ez al zen ba,

*gradu*ko emakume bat, eta emakume ezkondua!  
benetako amorantea alegia!

Haren umore aldartetsua medio, noiz misti-koa noiz alaia, nahiz kalakaria, isila, sumina, soraioa, beregan mila irrits gogora ematen zihokion, senak edo reminiszentziak oroitarazten. Bera zen nobela guztietako maitaria, drama guztietako heroisa, olerki liburu guztietako lainarteko *dama*. Haren sorbaldetan hautematen zuen *odaliska bainuan*-eko anbar-kolorea; gaztelu-andere feudalen gerruntze luzea zeukan; bazuen halaber *Bartzelonako emazte beluriaren* antza, baina ororen gainera Aingerua zen!

Maiz, hari begiratzean, iruditzen zitzaion bere arimak harengana ihes egiten zuela, haren buruaren baranoan uhin bat bezala hedatzen zela, eta lerratuki jaisten zela haren bularteko zuritiesunera.

Lurrean jartzen zen, Emmaren aurrean; eta, bi ukondoak belaunen gainean, so egiten zion irribarre batez, eta bekokia teink.

Emma harenganantz makurtzen zen eta xuxurlatzen zion horditasunez hatsanturik beza-la:

— Oh! ez zaitez mugi! ez zaitez mintzo! begi-raidazu! Zure begietatik zerbait hain ezta jalgitzen da, hainbat on egiten dit! Haurra deitzen zion:

— Haurtxo, maite al nauzu?

Eta ez zuen entzuten Rodolpheren erantzunik, ahora igotzen zitzaizkion haren ezpainen lehiakarrean.

Bazegoen erlojuaren gainean brontzezko Cupidon txiki bat, lili-xorta baten pean besoak biribilduz imintzioka. Askotan barre egin zioten; baina, elkarrengandik banandu behar zirenean, dena serioa iruditzen zitzaien.

Elkarren aurrez aurre geldi, errepikatzen zuten:

— Ostegunera arte!... Ostegunera arte!

Supituan Emmak burua hartzen zion bi eskuen artean, musu ematen zion fite bekokian oihukatuz: «Agur!» eta eskilaretara oldartzen zen.

Rue de la Comediera joaten zen, ileapaintzaille batenera, bere mototsak txukunaraztera. Gaua sartzen zen; gasa pizten zuten dendan.

Antzokiko txilina entzuten zuen, komedian-teei jokaldirako deika, eta han ikusten zituen, aurrez aurre, aurpegi zuridun gizonak eta soineko higatudun emakumeak pasatzen, aldalekue-tarako atetik barrena.

Bero egiten zuen, ileorde eta ukendu artean berogailua burrundaka ari zen areto txiki apalegi hartan. Ilematxarden usainak, burua zerabilkioten esku koipetsu haiekin batera, ez zuen denbora luzea behar izaten Emma logaletzen, eta loak hartzen zuen pixka bat bere orraztailua-ren pean. Sarritan morroiak, orrazten zuen bitartean, mozorro-dantzarako txartelak eskaintzen zizkion.

Gero joan egiten zen! Berriro kaleak gora egiten zuen; *Croix rouge*-ra heltzen zen; goizean aulki baten pean ezkutatuak zituen eskalaproinak jasotzen zituen, eta bere lekuan jartzen zen, bidaiari ernegatuen artean. Batzuk aldaparen oinean jaisten ziren. Bera bakarrik geratzen zen kotxean.

Bihurgune bakoitzean, gero eta gehiago ikusten ziren hiriko argi guztiak, etxe nahasien gainean laino argitsu zabal bat egiten zutela. Emma

belauniko jartzen zen kuxinen gainean, eta liluramendu horretan galtzen zuen begirada. Zotinka aritzen zen, Leoni deitzen zion, eta mintzo samurrak igortzen zizkion, eta haizetan galtzen ziren musuak.

Bazen aldapan arlote gizaixo bat bere makilarekin, dilijentzien artean alderrai. Piltzar nahaspila batek estaltzen zizkion sorbaldak, eta kastore-larru arraildu batek, kupeltxo modura biribildurik, ezkututzen zion aurpegia; hain, eranzten zuenean, betazalen lekuan, bi betzulo zabal azaltzen zituen zeharo odoletan. Zintzilikario gorritan listen zen haragia; eta zornabildu berdetan mamitzen ziren likido batzuk zerizkion sudurreraino, eta han sudurzulo beltzek zurrupatzten zituzten dardarizo eta guzti. Hitz egin behar zizunean, burua etzaten zuen barre tentel batekin; — orduan bere betsein urdinkak, etengabe-ko mugimendu batean jiraka, lokietarantz zihoa-zen danba jotzera zauri biziaren ertzean.

Kantu txiki bat abesten zuen kotxeei segika:

*Souvent la chaleur d'un beau jour  
Fait rêver fillette à l'amour.*

Eta gainerako guztian txoriak zeuden, eguzkia era hostaia.

Batzuetan, bat-batean azaltzen zen Emma-ren atzean, burua biluzi. Emma garrasika apartatzen zen. Hivert hurbiltzen zitzaion adarra jotzera. Saint-Romainetako ferian barraka bat hartzera zirikatzen zuen, edota, barreka, bere neskalguntxoak zer moduz zihoan galdetzen zion.

Sarritan, abiatuta gero, bere kapelua, mugimendu zakar batez, dilijentzian sartzen zen leihatilarik, eta bitartean bera, beste besoak, ointokian atxikitzen zen, gurpilen lohizirta artean. Bere ahotsa, motela hasieran eta marrangatsua, zorrotza bilakatzen zen. Gauean barrena errestatzen zen, herstura zehazgabe baten heiagora lainotsua bailitzan; eta, txilin-soinuen artetik, zuhaitzen murmurio artetik eta kaxa hutsaren burrunba artetik barrena, ahots hark bazuen Emma urduritzen zuen urruneko zerbeit. Hura arimaren zolaraino jaisten zitzaion leize batean zurrunbiloa gisa, eta mugagabeko malenkonia bateko espazioen artera eramaten zuen. Baina Hivertek, alderakargaz ohartzan bai-



tzen, itsu-itsuan luzatzen zituen bere zaharoaz zarrada handiak. Zihoztak zaurietan zafratzen zuen, eta lohietara erortzen zen marru bat jaurtikiz.

Gero *Hirondelle*-ko bidaiariak loak hartzen zituen azkenerako, batzuk ahoa zabalik, besteak kokotsa apaldurik, albokoaren sorbaldan sostengu hartuz, edota besoa uheletik pasaturik, kotxearen zabuekin batera erregulariki kulunkatuz; eta kanpoaldean gurtarasen gilborrean dilindatzen zen kriseiluaren distirak, txokolate koloreko kalikozko errezeletan barrena sartuz, errainu odolkarak pausatzen zituen jende ekuru guzti haien gainean. Emmak, tristuraz hordi, daldara egiten zuen bere jantzien pean eta gero eta hotzago sentitzen zituen oinak, ariman heriotza zuela.

Charles, etxean, zain egoten zitzaion; *Hirondelle* beti ere berandu zetorren ostegunetan. Noizbaitekoan ere heltzen zen Madame! Ozta-ozta besarkatzen zuen haurra. Afaria ez zegoen prest, bost axola! Desenkusatzen zuen sukaldarisa. Orain dena zilegi zitzaion, zirudienez, neska hari.

Sarritan bere senarrak, haren beluritasunaz oharturik, gaixo ez ote zegoen galdetzen zion.

— Ez, esaten zuen Emmak.

— Baina, argudiatzen zion, baina zeharo xelebrea zaude gaur.

— Ez, ez da ezer! Ez da ezer!

Zenbait egun ere bazen non, etxeratu orduko, bere gelara igotzen baitzen; eta Justin, han aurkitzen baitzen, isil-isilean ibiltzen zen, neska-me iaio bat baino aztiago haren zerbitzuan. Ipintzen zituen poxpoloak, kandela, liburu bat, presatzen zuen kamixa, ohea irekitzen zuen.

— Ea ba, esaten zion Emmak, ongi da, joan zaitez!

Zeren han geratzen baitzen zutik, eskuak zintzilik eta begiak zabalik, bat-bateko ametsaide baten hari elementia artean trabaturik bezala.

Biharamuneko eguna ikaragarria izaten zen, eta ondorengoak are jasangaitzagoak izaten ziren Emmak zeukan ezinegonagatik bere zorionari berriro atxikitzearen, — irrika latza, irudi ezagunez sutua, eta, zazpigarren egunean, zeharo aiseki lehertzen zena Leonen laztanetan. Gizonaren suhardurak lilura eta eskerron heda-

kuntzapean ezkutatzen ziren. Emmak zuhurki eta bere baitan murgildurik dastatzen zuen amodio hau, bere samurtasunaren artezi guztiez zaintzen zuen, eta noizbait galduko ez ote zen beldurrak ikara pixka bat eragiten zion.

Sarritan esaten zion Leoni, ahots malenko-niatsuaren eztitasunez:

— Ah! utzi egingo nauzu, bai!..., ezkondu egingo zara!... besteak bezalaxe izango zara.

Hark galdetzen zuen:

— Zeintzuk besteak?

— Ba gizonak, aizu, erantzuten zuen.

Eta gero eransten zuen, ahuldurazko keinu batez gizona hastanduz:

— Zitalak zarete, denok!

Munduko desengainuei buruz filosofikoki solasean ari ziren egun batez, esan ere esan zion (haren jelosgoa entseiatzearren edo agian lasaitubehar bortitzegi bati amore emanez) garai batean, bera baino lehen, beste norbait maite izan zuela, «ez zu bezala!» esan zion berehala, bere alabaren buruaren gain baieztatuz ez zela ezer gertatu.

Gizon gazteak sinetsi egin zion, eta alabaina galdeka aritu zitzaion, hark zer egiten zuen jakitearren.

— Itsasuntzi bateko kapitaina zen, lagun.

Hau ez al zen ikerketa orori aurre hartzea, eta aldi berean bere burua oso goian ipintzea, berezkoz oldarkorra eta ohoretara ohitua izan behar zuen gizon batengan eragin omen izandako liluramendu hura medio?

Urgazleak orduan sentitu zuen bere graduaren deusezkeria; txarratelak, gurutzeak, tituluak bekaiztu zituen. Damak hori guztia atsegin zuen nonbait; haren xahutzaile ohituretan hala sumatzen zuen.

Alabaina, Emmak isildu egiten zituen bere nabarmenkerietarik asko, hala esate baterako bera Rouera eramateko tilbury urdin bat edukitzeko gogoia, zaldi ingeles batek tiraturik eta bota ifrentzudunez jantzitako «groom» batek gidaturik. Justin izan zen apeta hori iradoki ziona, bere etxean mirabe gisa bat zezan erregutuz; eta, gabezia honek elkartzeko aldi bakoitzeko heleararen plazera murrizten ez bazuen ere, itzulera-aren mindura handiagotzen zuen eskierki.

Sarritan, elkarren artean Parisez mintzo zirenean, Emmak azkenean xuxurlatzen zuen:

— Ah! han bai ongi izango ginатеkeela bizitzan!

— Ez al gara ba zoriontsu? esaten zuen eztiro gizon gazteak, hari adatsetan eskua pasatuz.

— Bai, egia da, esaten zuen damak, ni zoraturik nago: besarka nazazu!

Sekula baino xarmangarriagoa zen bere senarrarekiko, pistatxe kremak egiten zizkion eta afalondoan valsak jotzen zituen. Gizon guztietarik dohatsuentzat kaustitzen zuen beraz Charlesek bere burua, eta Emma kezkarik gabe bizi zen, eta baina hara non arrats batez tupustean:

— Mademoiselle Lempereur da noski, lezioak ematen dizkizuna, ez?

— Bai.

— Ba begira! Arestian ikusi dut, zioen Charlesek, madame Liegearden etxean. Zutaz hitz egin diot: ez zaitu ezagutzen.

Tximistaren antzo izan zen hura. Halere aire natural batez erantzun zuen horratio:

— Ah! dudarik gabe ahaztu egingo zitzaion nire izena!

— Baina Rouenen agian, esan zuen medikuak, piano irakasle diren mademoiselle Lempereur bat baino gehiago izango dira.

— Baliteke!

Gero bizi:

— Hementxe ditut ordea bere errezibuak, tori! begira.

Eta izkribumahaira joan zen, kajoi guztiak miatu zituen, paperak nahastu zituen eta azkeneko hainbesteraino galdu zuen burua non Charlesek biziki gomendatu baitzion, ordainagiri mixerigarri haiengatik halako nekerik har ez zezan.

— Oh! aurkituko ditut, zioen Emmak.

Eskierki, hurrengo ostiralean, Charlesek, bere jantziak gordetzen ziren gela ilunean bere bota bat jaztean, paper orri bat sumatu zuen larruaren eta bere galtzerdiaren artean, hartu zuen eta irakurri zuen:

«Hartu dut, hiru hilabetetako lezioengatik, gehi zenbait hornidura, guztira hirurogeita bost libera. FELICIE LEMPEREUR, musika irakasleak».

— Nola demonio dago hau nire botetan?

— Seguraski, erantzun zuen Emmak, apalaren ertzean dagoen faktura-kaxa zaharretik eroriko zen.

Une hartatik aurrera, bere bizitza gezur-gardainu bat besterik ez zen izan, non biltzen baitzuen bere maitasuna oihalen artean bezala, ezkutatzeko.

Behar bat zen, grina bat, plazer bat, hainbestereinokoa non, berak esaten bazuen, halako kaletan, atzo, eskuineko aldetik iragan zela, pentsatzekoa baitzen ezkerreko aldetik hartu zuela.

Goiz batez, ohi bezala arropa nahiko armez jantzirik abiatu berria zela, elurra hasi zuen berehalakoan; eta Charlesek, eguraldiari begira leihoan zegoenez, Bournisien jauna ikusi zuen sieur Tuvacheren gurtarin barruan Rouenera bidean. Jaitsi eta elizgizonari eraman zion txal lodi bat, *Croix Rouge*-ra heldu bezain pronto Madameri entrega ziezaion. Ostatura heldu orduko, Yonvilleko medikuaren emaztea non zegoen galdetu zuen Bournisienek. Ostalersak erantzun zuen, hura oso gutxitan etortzen zela ostatura. Hartan, arratsean, *Hirondelle*-n Mada-

me Bovary hautemanik, bere enbarazua kontatu zion apaizak, bestalde garrantzi handirik eman gabe, zirudenez; zeren eta tenore hartan katedralean harritzekoak egiten ari zen sermoilari baten gorazarreari ekin baitzion, eta dama guztiak han zihoazela hari entzutera.

Halere, hark inolako esplikaziorik eskatu ez bazuen ere, beste zenbaitek, hurrengo batean, zuhurtzia gutxiago erakuts zezakeen. Beraz egoki iruditu zitzaion aldioro *Croix Rouge*-n jais-tea, eta horrela bere herriko jendeak eskilaretan ikusten zutenean inolako susmo txarrik ez zuten.

Egun batez, ordea, M. Lheureuxekin topo egin zuen *Boulogne* hoteletik irtetean Leonen besotik; eta Emma beldur izan zen, mihiluze suertatuko ote zen pentsatuz. Hura ez zen hain tentela.

Baina, handik hiru egunetara, gelara etorri zitzaion, atea itxi zuen eta esan zion:

— Dirua beharko nuke.

Emmak aitortu zuen, ezin ziola eman. Lheureux auhendamendutan hedatu zen, eta berak izan zituen mesede guztiak gogoratu zituen.



Izan ere, Charlesek suskribaturiko bi ordaindukoetatik, Emmak artean bat baino ez zuen ordaindua. Bigarrenari zegokionez, merkatariak, hark hala erreguturik, amore eman zion haren orde bestea bi egiteari, eta hauek gainera epe oso luzerako berritu ziren. Gero poltsikotik atera zuen ordaindu gabeko hornizioen zerrenda bat, alegia: errezelak, tapiza, besaulkientzako mihi-sea, zenbait soineko eta apainduri-artikulu asko, hauen balioa guztira bi mila libera inguru izaki.

Emmak burua makurtu zuen; hark jarraitu zuen:

— Baina, dirurik ez badaukazu, zuk baduzu *ondasunik*.

Eta Barnevillen, Aumaletik hurbil, kokaturiko borda kaxkar bat aipatu zion, zeinak ez baitzuen etekin handirik ematen. Monsieur Bovary aitak saldutako etxalde txiki batena zen garai batean, zeren Lheureuxek dena baitzekien, baita zenbat hektarea zituen eta auzokoen izenak ere.

— Nik, zure lekuan, saldu egingo nuke, eta artean ere diru sobera geratuko litzateke.

Emmak erosle faltaren koxka argudiatu zuen; merkatariak baten bat aurkitzeko esperantza

eman zuen; baina berak saldu ahal izateko nola moldatu galdetu zuen Emmak.

— Baina ez al daukazu ahalordea?

Hitz hau haize bolada fresko bat bezala heldu zitzaion.

— Utzidazu kontua, esan zion Emmak.

— Oh! ez du merezi! esan zuen Lheureuxek.

Hurrengo astean itzuli zen, eta harro azaldu zen, azkenerako lortu zuelako, hara-honaka gogorren ondoren, halako Langlois zeritzan bat kausitzea, zeinak, aspaldidanik, jabego hura begiz jota baitzeukan bere prezioa adierazi gabe.

— Bost axola prezioa! oihukatu zuen Emmak.

Aitzitik, itxoin beharra zegoen, mutil hura tentuz hartu beharra. Gorabeherak merezi zuen bidaia bat, eta, Emmak bidaia hori ezin egin zenez, bera bertara joateko prest azaldu zen, Langloisekin aurrez aurre tratatzera. Itzultzean adierazi zuen, erostunak lau mila libera proposatzen zuela.

Berri honekin Emmak lasaitu ederra hartu zuen.

— Egia esan, erantsi zuen Lheureuxek, ongi pagatua dago. Kopuruaren erdia orduantxe bertan jaso zuen, eta, bere kontuak kitatzerakoan, merkatariak esan zion:

— Pena ematen dit, bene-benetan, zu kolpe batean horrenbesterainoko kopuru *garrantzitsuari* jaregiten ikusteak.

Orduan Emmak bankuko bileteei begiratu zien; eta, bi mila libera haiek suposatzen zituzten rendez-vous elementiaz pentsatuz:

— Nola ordea! Nola! zezelkatu zuen.

— Oh! berriro merkatariak xano-xano barre eginez, faturetan nahi den guztia ipintzen da. Nik ez ote ditut ba ezkonduen arteko gorabeherak ezagutzen?

Eta zuzen-zuzen so egiten zion, aldi berean bere eskuan bi paper luze hatzazalen artean irristarazten zituela. Hartan, bere kartera ireki eta mahai gainean zabaldu zituen lau ordainduko, bakoitza mila liberatakoa.

— Sina iezadazu hau, eta gorde guztia.

Emmak protestatu egin zuen, eskandalizaturik.

— Baina, soberakoa ematen badizut, erantzun zuen lotsagabeki M. Lheureuxek, ez al da zeuri mesede egitea?

Eta, luma bat hartuz, kontuaren oinean idatzi zuen: «Hartu dut lau mila libera madame Bovaryrengandik».

— Nolaz kezkatzen zara, zeren sei hilabete barru kobratuko baituzu zure bordaren atzertua, eta azken ordaindukoaren epea kobrantzaren ondorenerako jartzen baitizut?

Emma nahastu egiten zen apur bat bere kalkuluetan, eta bere belarrietan txintxin-hotsa entzuten zuen, urrezko txanponak zakuak leher-turik bere inguruan zoru gainean hotsa ateratzen ari bailiran. Azkenik Lheureuxek azaldu zuen, bere lagun bat bazuela, Vinçart, Rouenen bankari, eta hark deskontatuko zituela lau ordainduko haiek, eta gero berak eskuratuko ziola Madameri benetako zorraren soberakoa.

Baina, bi mila liberaren ordeztu, mila eta zortzi-rehun besterik ez zuen ekarri, zeren Vinçart lagunak (*bidezkoa* den bezala) berrehun hartu baitzuen, komisiio eta deskontu gastuena.

Gero errezibu bat eskatu zuen ezarian.

— Badakizu..., merkataritzan..., batzuetan...

Eta data ipini, mesedez, data.

Fantasia gauzagarriren ikuspegi bat hedatu zen orduan Emmaren aurrean. Nahiko zuhurtzia eduki zuen mila eskutu aparte gordetzeko, eta horrekin pagatu ziren, epea burutzean, lehen hiru ordaindukoak; baina laugarrena, hala beharrez, ostegun batez erori zen etxean, eta Charles, artegatsu, bere emaztea noiz itzuliko zain egon zen pazientki esplikazioren esperoan.

Ordainduko haren berri eman ez bazion, etxeko arazoak ez gaineratzeagatik zen; senarraren belaunetan eseri zen, ferekatu zuen, bala-kuz jardun zen, kredituz hartutako behar-beharrezko gauza guztien zerrenda luzea egin zion.

— Dena den, konforme izango zara, hau guztia ikusi ondoren, garestiegi ere ez dela.

Charlesek, beste burubiderik ezean, berehala jo zuen betiko Lheureuxengana, eta honek zin egin zuen gauzak baretuko zituela, baldin eta Monsieurek bi ordainduko sinatzen bazizkion, hauetariko bat zazpirehun liberatakoa, hiru hila-bete hartu ordaintzeko. Hortetarako gauza izateko, gutun patetiko bat idatzi zion bere amari.

Erantzuna igorri orde, ama bera etorri zen; eta Emmak jakin nahi izan zuenean zerbait atera ote zion:

— Bai, erantzun zuen Charlesek. Baina fakturaren berri galdatzen du.

Biharamunean, egunsentian, Emma Lheureuxen etxera joan zen, mila libera gaindituko ez zituen beste kontu-paper bat egin ziezaion eskatzera; zeren, lau milakoa erakustekotan, bi heren ordainduak zituela esan behar izango baitzukeen, eta beraz etxearen salmenta aitortu, merkatariak egokiro eramandako negoziaketa, eta eskierki beranduago arte jakin ez zena.

Artikulu bakoitzaren prezioa oso merkea izanik ere, madame Bovary amak alabaina gehiegizkoa kausitu zuen gastua.

— Behar-beharrezkoa al zen tapiza? Zergatik aldatu behar zen besaulkien oihala? Nire garaian, besaulki bakarra izaten zen etxean, pertsona adinetuentzako, —hala zen behintzat nire amaren etxean, eta, horra nik esan, emakume zintzoa zen hura—. Mundu guztia ezin da aberats izan! Ez dago inolako fortunarik zarrastelkeriari eutsiko dionik! Ni lotsagorritu egingo nintzateke

zuen gurikeria horretan bizitzeaz! eta ni halere zaharra naiz gero, mainak behar ditut... Eta hara! Hara kuxidadea! itxura hutsa! Nola! Bon-bazinetarako zeta bi liberatan!... hamar sosetan mihisea aurki daitekeenean, baita zortzitan ere, horretarako zeharo aproposa!

Emmak, kanape gainean erraskail, ahalik eta lasaien ihardesten zion:

— Aski da, aizu! aski da!

Besteak sermoia botatzen segitzen zuen, mixerikordian bukatuko zutela iragarritz. Bestalde, Bovaryren errua zen. Gaitzerdi halere, ahalorde hura deuseztatzea agindua zuen behintzat eta...

— Nola?

— Ah! zin egin dit, erantsi zuen emakume gajoak.

Emmak leioa ireki zuen, Charlesi dei egin zion, eta mutil gizajoa beharturik gertatu zen bere amak irazitako hitza aitortzera.

Emma desagertu zen, eta gero berriro fite sartu zen paperezko orri lodi bat maiestuoski hari luzatuz.

— Mila esker, esan zuen atsoak.

Eta notari-ahalmena surtata ihautiki zuen.

Emma barrez hasi zen algara karrankari, zalapartatsu eta etengabeko batez: nerbioetako atake bat zuen.

— Ah! ene Jainkoa! Charlesek oihuka. Bai, zu ere bai, oker ari zara! etorri eta istiluak sortzen dizkiozu!...

Bere amak, sorbaldei eraginez, *hori guztia imintzio hutsa zela* esaten zuen.

Baina Charlesek, lehenengo aldiz oldartuz, bere emaztearen defentsa hartu zuen, hainik non madame Bovary amak joan egin nahi izan baitzuen. Biharamunean bertan abiatu zen, eta, atarian, Charles geldiarazten saiatzen zenez, amak jarduki zuen:

— Ez, ez! Ni hain maiteago duzu bera, eta arrazoi duzu, bidezkoa da. Gainontzean, hor konpon! ikusiko duzu!... Ongi izan!... zeren ni ez bainago etortzeko prest, zuk diozun bezala, horri istiluak sortzera.

Charles ez zen halere ahalkez urriago geratu Emmarekiko, honek ez baitzuen inolaz ere ezkutatzen harenganako zeukan herra konfidantzarik ez izanagatik; erregu franko egin behar izan



zion, Emmak berriro bere notari ahalordea hartzeko amore eman zezan, eta berak lagundu ere zion M. Guillauminen etxera beste bat lehengoaren berdina egitera.

— Ulertzen dut bai, zioen notarioak, zientziagizon bat ezin daiteke bizitzako xehetasun praktikoetan zabartu.

Eta Charles lasaiturik sentitu zen gogoeta lausengari han medio, ardua nagusiago baten itxura loxinkaria ematen baitzion bere ahuleziari.

Zer nolako gairididura, hurrengo ostegunean, hotelean, beren gelan, Leonekin! Barre, negar, kanta, dantza egin zuen, sorbete batzuk igotzeko agindu zuen, zigarroak erre nahi izan zituen, Leoni nabarmena iruditu zitzaion, baina adorgarria, egundokoa.

Leonek ez zekien haren izate osoko zein erreakziok gehienik bultzatzen zuen Emma bizitzako gozamenetan oldartzera. Haserreti, lamiti, boluptuos bihurtzen zen; eta Leonekin pasiatzen zuen kaleetan barrena, burua zut, bere burua konprometatzeko —hala zioen berak— beldurgabe. Batzuetan halere, Emmak zirgir egiten

zuen Rodolphekin topo egitearen bat-bateko burutapenarekin; zeren, nahiz eta betirako banandurik izan, harenganako atxikimendutik erabat libratu gabe zegoela iruditzen baitzitzaien.

Arrats batean, ez zen Yonvillera itzuli. Charles zoratzear zebilen, eta Berthe alabatxoa, bere amatxorik gabe ez baitzuen oheratu nahi, intzirik ari zen bularra lehertzeko zorian. Justine errepidean barrena abiatua zen, bada-ezpada ere. M. Homais bere botikatik irten egin zen.

Azkenik, hamaiketan, egonean egonezinik, Charlesek bere zalgurdia prestatu zuen, salto batean igo, aberea zigoztatu eta goizeko ordubiak aldera iritsi zen *Croix Rouge*-ra. Inor ez. Urgazleak agian ikusia izango zuela pentsatu zuen; baina non bizi zen ordea? Charles, zorionez, haren ugazabaren helbideaz oroitu zen. Hara jo zuen korrika.

Eguna argitzen hasia zen. Letrero batzuk hauteman zituen ate baten gainean; atea jo zuen. Norbaitek, ireki gabe, deiadarkatu zion eskaturiko argibidea, irain itzelak erantsiz gauez jendeari gogait eragiten dabilzanen kontra.

Urgazlea bizi zen etxeak ez zeukan txilirik, ez mailukorik, ez atezainik. Charlesek ukabilkada handiak jo zituen leihatilen kontra. Polizia-agente bat suertatu zen pasatzen; orduan Charles beldurtu eta joan egin zen.

— Zoraturik nago, zioen berekiko; M. Lormeauxen etxean geraraziko zuten nonbait afaltzen.

Lormeaux familia jada ez zen Rouenen bizi.

— Madame Dubreuil zaintzen geratuko zen. Eh! Madame Dubreuil duela hamar hilabete hil zen!... Non ote da ba?

Idea bat etorri zitzaion. Kafetegi batean «Annuaire» eskatu zuen, eta fite bilatu zuen Renelle-des-Marouquiniers kaleko 74.an bizi zen mademoiselle Lempereur-en izena.

Bera kale honetan sartzearekin batera azaldu zen Emma ere beste muturrean; Charles, emaztea besarkatu ezezik, habailatu egin zen haren gainera, oihuka:

— Nork gerarazi zaitu, atzo?

— Ondoezik egon naiz.

— Zerekin?... Non?... Nolaz?...

Bekoki gaintetik eskua pasatu zuen, eta erantzun zuen:

— Mademoiselle Lempereuren etxean.

— Ziur nintzen! Hara nindoan.

— Oh! ez du merezi, esan zuen Emmak.

Duela gutxi irten da; baina, aurrerantzean, egon zaitez lasai. Ni ez naiz libre, ulertzen duzu, luzamendurik txikienak horrela aztoratzen zaituela jakinda.

Bere buruari ematen zion baimen molde bat bezala zen, bere ihesaldietan fitsik ere ez kezkatzeko. Eta baliatu ere egin zen horretaz aiseki, oparo. Leon ikusteko gogoak hartzen zuenean, joan egiten zen edozein aitzakia medio, eta, egun horretan espero izaten ez zuenez, Emma bere estudiora joaten zitzaion bila.

Zorion handia izan zen, lehen aldietan; baina luze hain lehen ez zuen jadanik egia ezkutatu, alegia: bere ugazaba biziki kexu zela nahaste haiengatik.

— Ah bah! zatoz hona! esaten zion Emmak.

Eta Leonek itzuri egiten zion.

Erabat beltzez jantzi zedin eta kokotsean bizar puntta bat luzatzen utzi zezan nahi izan

zuen Emmak, Luis XIII.ren erretratuen antza izatearren. Leonen bizilekua ezagutu nahi izan zuen, kaxkarra kausitu zuen; gizona lotsagorritu egin zen, Emmak ez zion arretarik hartu, gero bereen antzeko errezelak erosteko aholkatu zion, eta, gastua argudiatzen zuenez:

— Ah! ah! zure sosei eusten diezu! esan zuen Emmak barrez.

Leonek aldioro kontatu behar izaten zion bere portaera guztia, azkeneko elkarraldiaz gero. Olerkiak eskatu zizkion, berarentzako olerkiak, *amodiozko kantu bat* bere ohorez; Leonek sekula ez zuen lortu bigarren bertsoaren errima aurkitzerik, eta azkenean soneto bat kopiatu zuen keepsake batean.

Ez zen gehienbat harrokeriaz izan baizik eta hura laketarazteko xedez bakarrik. Ez zituen argudiatzen haren ideiak; haren apeta guztiak onartzen zituen; Leon bera ari zen haren amorantea bilakatzen hura berea zen baino gehiago. Mintzo samurrak esaten zizkion Emmak, arima atzipetzen zioten musuekin batera. Non ikasia ote zuen usteleria hura, sakona eta disimulatua izatearen poderioz ia inmateriala?

Emma ikustera egiten zituen bidaietan, Leonek sarritan afaldu zuen botikarioaren etxean, eta bere burua hertsatutzat eman zuen, gizalegez, berak ere hura gonbidatzera.

— Bai pozik! erantzun zuen M. Homaisek; gainera, apur bat zuzpertz beharrean nago, konkortzen ari bainaiz hemen. Antzokira joango gara, jatetxera, erokeriak egingo ditugu!

— Ah! nire lagun zaharra! xuxurlatu zuen samurkiro madame Homaisek, hark jasan bide zituen arrisku lainotsuez izaturik.

— Zer ba? ez al zaizu iruditzen nire osasuna nahikoa hondatzen dudarik botikako etengabe-ko jarioen artean biziak! Hona hemen, bistan, emakumeen izakera: jeloskor dira Zientziarekiko, eta gero olgurarik bidezkoenak hartu nahi badituzu kontra izango dituzu. Bost axola, kontatu nirekin, egun hauetako batean Rouenen azalduko naiz eta biok elkarrekin xahutuko ditugu *xemekoak*.

Botikarioak, garai batean, tentu handiz baztertuko zukeen horrelako esakuntzarik; baina orain mintzamolde eroska eta paristarrari emana zebilen, gusturik hoberenekoa kausitzen baitzuen, eta madame Bovaryk, bere auzokoak bezala, urgazleari galdeka aritzen zitzaion jakinminez hiriburuko ohiturei buruz, eta argota ere hitz egiten zuen... burgesak liluratzearren, *turne, bazar, chicard, chicandard, Breda-street* esanez, eta *Je me la casse Ni banoa* esan ordez.

Hartan, ostegun batez, Emma harritu egin zen M. Homais aurkitzean, *Lion d'Or*-eko sukaldean, bidaiari jantziz, alegia ezagutzen ez zitzaion beroki zahar batez estalirik, esku batean maleta bat zuela eta bestean bere dendako zango-zorroa. Bere asmoa ez zion inori aipatu, bere ausentziarengatik bezeroak kezkarazteko beldurrez.

Bere gaztaroa igaroa zen lekuak berriro ikusteko ideiak asaldatu egiten zuen nonbait, zeren bide osoan ez baitzion utzi hausnartzeari; gero, iritsi orduko, bizkor salto egin zuen kotxetik Leonen bila abiatzeko; eta, iharduki zitzaion bai urgazlea, baina M. Homaisek *Normandie* kafete-

gi handirantz eraman zuen, eta bertan sartu zen maiestuoski, bere kapela erantzi gabe, zeharo probintzianotzat jotzen baitzuen leku publiko batean burutsik jarri beharra.

Hiru ordu laurden egin zuen Emmak Leonen zain. Azkenik haren estudiora joan zen, eta, molde orotako aieru artean galdurik, hari axola-gabekeria leporatuz eta bere buruari bere ahuldadea ohondikatuz, bekokia leiarren kontra erantsirik iragan zuen arratsaldea.

Ordubietan artean mahaian zeuden elkarren aurrez aurre. Sala handia husten ari zen; berogailuaren hodiak, palmondo baten eitekoa, sabai zurian biribilkatzen zuen urrekoloreko bere azaua; eta berengandik hurbil, beiraduraz bestaldean, bete-betean eguzkitan, ur-zirrista batek gurgur egiten zuen marmolezko aska batean non, krexu eta esparrago artean, hiru misera soraio hedatzen baitziren luze, alboz albo pila etzandako galeper batzuetaraino.

Homais gozaten ari zen. Okela onez baino are gehiago luxuz txerbeldu zen arren, Pomardeko ardoak horratio kitzikatzen zizkion apur bat kemenak, eta ron-tortila agertu zenean, emaku-



meei buruz teoria inmoralak azaldu zituen. Bera ororen gainera erakartzen zuena, «chic»-a zen. Adoragarria zitzaion jatzera dotore bat ongi altzaritutako apartamentu batean, eta, gorputz dohainei dagokienez, *okela* onari ez zion muzin egiten.

Leonek erlojuari begiratzen zion etsipenez. Botikarioak edan, jan, mintzatu egiten zuen.

— Ondo urriturik ibiliko zara, esan zuen hitzetik hortzera, Rouenen. Dena den, zure amodioek ez daukate urrun etzangua.

Eta bestea lotsagorritu zenez:

— Aizu, esan egia! Ukatuko al didazu zuk Yonvillen...?

Gizon gaztea zezelka hasi zen.

— Madame Bovaryren etxean, ez ote zenuen ba gortetzen...?

— Baina nor?

— Neskamea!

Ez zen txantxetan ari; baina, harropuzkeriak zuhurtzia orori gaina harturik, Leonek, oharkabean, iharduki egin zion. Bestalde, emakume beltzaranak bestenik ez zuen atsegin.

— Bat nator horretan, zioen botikarioak; jite handiagoa dute.

Eta, bere lagunaren belarrira makurturik, emakume batek jitea baduela jakiteko bidea ematen duten sintomak adierazi zizkion. Digresio etnografiko bati ere ekin zion: emakume alemaniarra lainotsua zen, frantsesa lasaka, italiarra grinatsua.

— Eta beltzak? galdetu zuen urgazleak.

— Artistaren gustua da, esan zuen Homaisek.

— Mutil! bi kikara-erdi!

— Bagoaz? esan zuen azkenik Leonek erregaturik.

— *Yes.*

Baina, joan baino lehen, jatetxeko nagusia ikusi nahi izan zuen eta zorionak eman zizkion.

Orduan gizon gazteak, bakarrik geratzearren, zeregina zuela argudiatu zuen.

— Ah! nik eskoltatuko zaitut! esan zion Homaisek.

Eta, harekin kaleak behera zihoala, bere emazteaz, bere haurrez, haien etorkizunaz eta bere farmaziaz hitz egiten zuen, hura garai batean zenbateraino lur-jota zegoen kontaktzen

zuen, eta berak zenbaterainoko bikaintasun puntura altxatu zuen.

*Boulogne* hotelaren aurrera heldurik, Leonek utzi egin zuen bat-batean, eskilarak gora igo zen, eta amorantea biziki asaldaturik aurkitu zuen.

Botikarioaren izena entzutean, haserre biziari jarri zen. Leonek arrazoi sendoak pilatzen zituen alabaina; ez zen bere errua, ez al zuen ba monsieur Homais ezagutzen? Pentsa al zezakeen haren lagunartea nahiago zuenik? Baina Emma aldendu egiten zen; Leonek eutsi egin zion; eta, belauniko apalduz, bere bi besoez gerria inguratu zion, irritsez eta eskarioz betetako jarrera ahuleziatsu batean.

Emma zutik zegoen; bere begi handi suhartzuek seriozki eta era ia izugarri batean begiratzeko zioten. Gero malkoek ilundu zituzten, bere betazal arroxak jaitsi ziren, bere eskuak abandonatu zituen, eta Leonek bere ahora zeramatzan sehi bat agertu zenean, jaunari adieraziz bere galdezka zirela.

— Itzuliko zara? galdetu zuen Emmak.

— Bai.

— Baina noiz?

— Berehala.

— *Amarru* bat da, esan zuen botikarioak Leon ikustean. Gogaikutzen zintuela iruditzen zitzaidan bisita hori eten nahi izan dut. Goazen Bridouxenera «garus» baso bana edatera.

Leonek zin egin zuen bere estudiora itzuli beharrean zegoela. Orduan botikarioa adarra jotzen hasi zitzaion papertzarren eta prozeduraren kontura.

— Utz itzazu apur batez Cujas eta Barthole, zer demonio gero! Nork eragozten dizu? Izan ausarta! Goazen Bridouxenera; ikusiko duzu bere zakurra. Oso bitxia da!

Eta urgazlea berean tematzen zenez:

— Neu ere joango naiz ba. Zure zain nagoen bitartean egunkari bat irakurriko dut, edo Kode bat gainetik begiratu.

Leon, Emmaren haserrearengatik, M. Homaisen hizjarioarengatik, eta agian bazkariaren pisutasunarengatik ere, balditurik, erabaki ezinik zegoen eta botikarioaren liluramenduaren menpean bezala, zeinak errepikatzen baitzuen:

— Goazen Bridouxenera! hemendik bertan dago, Malpalu kalean.

Orduan, koldarkeriaz, txaldankeriaz, egintzarik gogaikarrienera bulkatzen gaituen kalifikaezineko sentimendu hori medio, Bridouxenera joateri amore eman zion; eta hau bere atari txikian aurkitu zuten, Seltz-ura egiteko makina baten gurpil handiari eragiten hatsanka ari ziren hiru mutiko begiratzen. Homaisek aholkuak eman zizkien; Bridoux besarkatu zuen; «garus» edan zuten. Hamaika aldiz aldegin nahi izan zuen Leonek; baina besteak gerarazi egiten zuen besotik atxikita esanez:

— Berehalaxe! banoa. *Fanal de Rouen*-era joango gara, jaun haiek ikustera. Thomassin-aurkeztuko zaitut.

Libratu zen horratio eta antxintxika batean joan zen hoteleraino. Emma jadanik ez zegoen.

Arestian joana zen, sumindurik. Orain higuin zuen Leon. Rendez-vousan hitzari huts egin izana laido bat iruditzen zitzaion Emmari, eta beste arrazoi gehiagoren bila ere zebilen haren-gandik aldentzeko: heroismorako gauzaeza zen,

ahula, arrunta, emakume bat baino belaskagoa, zikoitza gainera, eta txaldana.

Gero, bareturik, azkenerako idoro zuen, Leon kalumniatu egin zuela noski. Baina maite ditugunon erdeinuak beti ere apur bat banandu egiten gaitu. Idoloak ez dira ukitu behar: haien urrebitsa eskuetan geratzen da.

Jada maizago mintzatzen ziren beren maitasunarekiko axolarik gabeko gauzez; eta, Emmak igortzen zizkion gutunetan, loreak, bersoak, ilar-gia eta izarrak ziren jardungai, lekoreko laguntza guztien bidez zuzperten saiatzen zen irrirts ahuldu baten baliabide xaloak. Emmak aldioroz bere buruari agintzen zion, hurrengo bidaiarako, zorion sakona; gero berekiko aitortzen zuen ezer apartekorik ez sentitu izana. Kamusada hau berehala ezabatzen zen esperantza berri baten eraginez, eta Emma harengana itzultzen zen are sutsuago, gutiziosago. Mutiriki biluzten zen, bere gerruntzeko xingola mehea erauziz, zeinak bere aldaken baranoan xistu egiten baitzuen narrandoan ziraun baten gisa. Bere oin hutsen puntetan joaten zen heste behin ere begiratzera ea atea itxirik zegoen, gero higidura bakar batez

uzten zituen bere jantzi guztiak batera erortzen; — eta, beluri, hitzik gabe, serioski, haren bularren kontra abailtzen zen dardarizo luze batez.

Bazegoen, halere, tanta hotzez estalitako bekoki hartan, ezpain zezelkari haietan, betsein makur haietan, beso haien estuketan, halakoxe azkentasunezko zerbait, lainotsua eta goibela, zeina bien artean zara-zara leratzen ari zela iruditzen baitzitzaion Leoni, elkarrengandik banantzearren bezala.

Galderak egiten ez zen ausartzen; baina, hura hain trebatua hautemanik, iragana zen nonbait, zioen Leonek berekiko, sufrimenduaren eta plazeraren gorabehera guztietatik. Garai batean xarmangarria zitzaionak, orain ikaratu egiten zuen apur bat. Bestalde, bere nortasunaren xurgapen egunetik egunera handiagoaren aurka oldartu egiten zen. Begitan zuen Emma etengabeko garaipen horregatik. Saiatu ere egiten zen hura ez maitatzen; gero, haren botinen kirrinka hutsarekin, koldar sentitzen zen, moz-kortiak edari bizien aurrez aurre bezala.

Emmak halere ez zizkion eskasian ematen, egia da, molde orotako mainak, hasi mahaiko

kutixietatik eta janzkerako panpoxeriak eta begirada milingak ere. Yonvilletik larrosak ekartzen zituen bularrean, eta aurpegira botatzen zizkion, haren osasunaz ardura azaltzen zuen, portaerari buruz aholkuak ematen zizkion, eta, areago eustearren, zeruak agian esku hartuko zuen esperantzan, Amabirjinaren domina bat zintzilikatu zion lepotik. Haren lagunartearen berri biltzen zuen, ama bertutetsu baten gisa. Esaten zion:

— Ez itzazu ikusi, ez zaitez irten, geu bestetan ez ezazu pentsatu, maite nazazu!

Haren bizitza zelatatu ahal izatea nahi izango zukeen Emmak, eta kaleetan barrena hari jarraiki arazteko ideia bururatu zitzaion. Bazegoen egunero, hotel ondoan, bidaiariekin sartzan zen arlote antzeko bat, eta hark ez ziokeen uko egingo... Baina bere burgoitasuna oldartu zen.

— Eh! zer egingo da ba! Engaina nazala, bost axola! Zer doakit ba niri?

Elkarrengandik garaiz aldendu ziren egun batean, eta boulevardean barrena bakarrik zetorrela, bere komentuko hormak hauteman zituen; orduan aulki batean eseri zen, zumarren itzalean. Zer nolako jabaldura garai hartan! Nola irri-



katzen zituen, zenbait libururi jarraiki irudikatzen saiatzen zen adierazezineko maitasun sentimendu haiek!

Ezkonberritako lehen hilabeteak, basoan ibilaldiak zaldiz, valsean egiten zuen bizkondea, eta Lagardy kantatzen, dena iragan zen berriro bere begien aurrean... Eta Leon ere bat-batean besteen urruntasun berean azaldu zitzaion.

— Baina maite dut ordea! zioen bere baitan.

Eta zer! bera ez zen zoriontsu, inoiz ere ez zen izan.

Nondik ote zetorren bizitzaren eskasia hura, berak sostengu hartzen zuen gauzen berehalako usteldura hura?... Baina, baldin eta inon bazegoen izaki indartsu eta eder bat, natura adoretzu bat, aldi berean suharduraz eta fintasunez betea, poetaren bihotza aingeru baten eitearen pean, brontzezko haridun lira, eztei-eresi elegia-koak zerurantz joz, zergatik ez ote zuen, menturaz, berak topatu behar? Oh! Ezin-ezinezkoa! Bestalde, ezerk ez zuen merezi bila ibiltzerik; dena zen gezurti! Irribarre bakoitzak asper-aharrausi bat ezkutatzen zuen, bozkario bakoitzak madarikazio bat, plazer orok bere okazadura,

eta musurik onenek ez zizuten uzten ezpainetan boluptuostasun gorenago baten irrika gauzatu ezina baino.

Metalezko karranka bat errestatu zen aireetan eta komentuko kanpaiak lau dangada eman zituen entzutera. Laurak! eta iruditzen zitzaion bera hantxe zegoela, aulkiaren gainean, betieraz gero. Baina grinatza amaigabekoa koka daiteke minutu batean, jendetza bat leku txiki batean bezalaxe.

Emma bereetan oso arazoturik bizi zen, eta diruaz ez zen arduratzen artxidukesa bat baino gehiago.

Behin batez ordea, txepel plantako gizon bat, musugorria eta burusoila, Emmaren etxean sartu zen, M. Vinçart-ek, Ruengoak, igorri zuela deklaratu. Bere longain berde luzearen alboko patrika hersten zuten orratzak atera zituen, bere mahukan ziztatu zituen eta adeitsuki paper bat luzatu zuen.

Zazpirehun liberatako ordainduko bat zen, Emmak suskribatua, eta Lheureuxek, besterik agindu izan arren, Vinçarten kargura pasatua zuena.

Neskamea bidali zuen haren etxera. Lheureuxek ez zeukan etortzerik.

Orduan, ezezagunak, han segitzen baitzuen zutik, bere bekain lodi horailek estaltzen zituzten begirada barrandariak ezker eskuinetara botaz, planta xano batez galdetu zuen:

— Zer erantzun eraman Vinçart jaunari?

— Ba begira! erantzun zuen Emmak, esaio-zu... ez daukadala... Datorren astean izango dut... Itxoin dezala... bai, datorren astean.

Eta gizontxoa txintik esan gabe joan zen.

Baina, biharamunean, eguerdian, protesto bat jaso zuen; eta paper zigilatua ikusteak, non sarri eta letra handiz nabarmentzen baitzen: «Hareng Abokatua, Buchyko agente judiziala», hain bortizki lazkitu zuen non ehun-merkatariaren etxera jo baitzuen lasterka.

Bere dendan aurkitu zuen, pakete bat lotzen.

— Zure zerbitzari! esan zuen, prest nauzu.

Baina Lheureuxek bere zereginetan segitu zuen horratio, hamahiru urte inguruko neskato batek lagundurik, apur bat txalkorra, aldi berean dendaritzan eta sukaldaritzan zerbitzatzeko zuena.

Gero, bere eskalaproinak dendako oholtzan klaskaraziz, Madameren aurretik igo zen lehen solairura, eta gela mehar batean sartu zuen non pinuzurezko izkribu-mahai handi batek erregistro batzuk sostengatzen baitzituen, kateaturiko burdinazko barra batek trabeska defendaturik. Hormaren kontra, indianazko mihise batzuen pean, burdin-kutxa bat ikuskatzen zen, baina halako neurritakoa non ordaindukoez eta diruaz beste zerbait ere eduki behar baitzuen. M. Lheureuxek, hain zuzen, bahiturapean egiten zituen abantzuak, eta hantxe ipinia zuen madame Bovaryren urrezko katea, Tellier zahar gizajoaren belarritakoekin batera, eta honek, azkeneko saltzera beharturik, Quincampoixen erosi zuen janari denda kaxkar bat, eta hantxe ari zen bere katarroaz hiltzen bere aurpegia bezain horiak ez ziren kandelen artean.

Lheureux eseri zen lastozko bere besaulki zabalean, esanez:

— Zer berri?

— Tori.

Eta Emmak papera erakutsi zion.

— Ederki! eta zer egin dezaket nik?

Orduan Emma asaldatu zen, bere ordaindukoak ez zirkularazteko emana zuen hitza gogoraziz; bestea ados zen.

— Baina neu ere beharturik gertatu naiz, labana zintzuraren kontra neukan.

— Eta zer gertatuko da orain? esan zuen Emmak.

— Oh! oso ximplea da: auzitegiaren epaia eta gero enbargua..., *bapo!*

Emma bere buruari gogor egiten ari zen hura ez jotzeko. Emekiro galdetu zion ea modurik ez ote zegoen M. Vinçart baretzeko.

— Ah! nola ez ba! Vinçart baretu; ez duzu asko ezagutzen; arabiar bat baino ohilagoa da.

Baina beharrezkoa zen ordea M. Lheureuxek horretan esku hartzea.

— Entzuidazu! iruditzen zait, gaurdaino behintzat nahiko ongi portatu naizela zurekin.

Eta, bere erregistroetariko bat zabalduz:

— Horra!

Gero bere behatzaz orrialdean gora igoz:

— Ea... ikus dezagun... Abuztuaren 3an, berrehun libera... Ekainaren 17an ehun eta

berrogeita hamar... martxoak 23, berrogeita sei... Apirilean...

Gelditu egin zen, txorakeria bat egiteko bel-durrez bezala.

— Eta Monsieurek suskribaturiko ordainduko ez zer esanik ez, bat zazpiehun liberatakoa, beste bat hirurehuneko!

Zuri aurreratutako kopuru txikiak, interesak, horrek ez du kaburik, galtzeko adinako nahasketa. Horretan ez naiz sartu ere egiten!

Emma negarrez ari zen, «bere monsieur Lheureux txintxoa» ere deitu zion. Baina hark beti ere «Vinçart zital» haren aitzakia jartzen zion. Bestalde, ez zeukan xentimorik ere, orain inork ez zion ordaintzen, bere lepotik jaten ari ziren, bera bezalako dendari pobre batek ezin zezakeen abantzurik egin.

Emma isilik, zegoen; eta M. Lheureux, luma baten bizarrei hozka ari baitzen, haren isiltasunarengatik nonbait kezkatu egin zen, zeren segitu zuen:

— Nolaz eta, egun hauetako batean sarrerraren batzuk banitu... ahal izango nuke...

— Bestalde, esan zuen Emmak, Barnevilleko atzeratuak jasotzean...

— Nola?...

Eta Langloisek artean ez zuela ordaindu jakitean, oso harriturik bezala zirudien. Gero, ahots ez-titsu batez:

— Eta zertan dugu tratua, esaidazu...?

— Oh! nahi duzun bezala!

Orduan, begiak itxi zituen pentsatzeko, zifra batzuk idatzi zituen, eta, nahiko lan izango zuela, arazoa latza zela eta bere galbidea zela deklaratu, lau ordainduko diktatu zituen bakoitza berrehun eta berrogeita hamar liberatakoa, elkarren artean hilabeteko epea emanaz.

— Vinçartek entzun nahi izango al dit behintzat! Nolanahi ere, tratua hor dago, ni ez naiz badaezpadakoetan ibiltzen, nik gauzak biribil esaten ditut.

Ondoren ezarian bezala salkin berri batzuk erakutsi zizkion, baina hauetariko batño bera ere, bere iritzian, ez zen Madamerentzako lain.

— Honako oihal honek, metroa boxentimotan eta tindaduraren fintasuna ziurtaturik daukala pentsatzea ere! Eta harrapazka daramate! Zer

den ez diegu esaten noski, pentsa dezakezu! besteekiko axerikeria honen aitorpenaren bidez bere zintzotasunaz erabat konbentzitu nahirik.

Ondoren berriro dei egin zion, berriki «*inkante* batean» aurkitua zuen hiru kana gipure hari erakusteko.

— Ederra da! zioen Lheureuxek, orain asko erabiltzen da, besalki-burutarako, aproposa da.

Eta inkaminari batek baino agudoago, gipurea paper urdinez bildu zuen eta Emmaren eskuetan ipini zuen.

— Gutxienez jakin beharko dut behintzat...?

— Oh! gero, gero; esan zuen orpoak jiratzuz.

Arrats hartan bertan premiatsu zuen Emmak Bovary bere amari idaztera, hark lehenbailehen igor ziezaien primantzaren azken parte osoa. Amaginarrebak erantzun zuen ez zegoela ezer gehiago: likidazioa buruturik zegoen, eta, Barnevillez gainera, seihun errealetako errenta gertzen zitzaien, eta puntu-puntuan igorriko zizkiela.

Orduan Madamek fakturak bidali zizkien bi edo hiru bezerori, eta aurki sarritan baliatu zen arrakastatsu suertatzen zitzaion erabide hone-



taz. Beti ere kontu handia zuen eransten, post-scriptum gisa: «Hontaz ez hitz egin nire senarrari, badakizu zeinen burgoia den... Barkatu... Zure zerbitzari...». Izan zen zenbait tiramen; berak interzeptatu zituen.

Dirua biltzearren, bere eskularru zaharrak, bere ginbail zaharrak, txatarrerria zaharra saltzeari ekin zion; eta harrapazkeriaz lehiatzen zen tratuan, —nonbait bere nekazari odolak etekinerat bultzatzen. Gero, hirirako bere bidaietan, txitxibitxiak merkatatzen zituen, Monsieur Lheureuxek, besterik ezean, hartuko baitzizkion eskierki. Ostruka-luma batzuk, Txinako portzelana eta kutxaxka batzuk erosi zituen; edonori eskatzen zion mailegutan dirua, Feliciteri, madame Lefraçois-ri, *Croix Rouge*-ko ostalersari, edonon. Barnevilletik noizbaitekoan jaso zuen diruaz, bi ordainduko kitatu zituen, gainerako mila eta bostehun liberak jarioan joan zitzaizkion. Zorpetu zen berriro ere, eta beti hartan!

Noizean behin, egia da hori, saiatzen zen kalkulak egiten, baina gauza hain gehiegizkoak aurkitzen zituen non ezin baitzituen sinetsi. Orduan berriro hasten zen, nahaspilatzen zen

berehala, dena bertan behera uzten zuen eta ez zuen hartaz gehiago pentsatzen.

Ongi triste zegoen orain etxea! Hornilariak amorru aurpegiz irteten ikusten ziren. Mukizapiak sukalde gainean botata zeuden; eta Berthe txikiak, madame Homaisen eskandalu handirako, galtzerdi zulatuak zeramatzan. Baldin eta Charlesek, herabeki, ohartarazpenen bat jalgitzen bazuen, Emmak mutirikeriaz ihardesten zuen, hori ez zela inolaz ere bere erruz!

Haserrealdi haiek zergatik? Nerbioetako aspaldiko gaitz harengatik esplikatzen zuen Charlesek dena; eta, haren gaixotasunak akastzat hartu izanagatik bere burua larderiatur, berekoikeria leporatzen zion bere buruari, korrika Emma besarkatzera joateko gogoa zeukan.

— Oh! ez, esaten zuen berekiko, gogait eragingo nioke!

Eta halaxe geratzen zen.

Afal ondoren, bakarrik pasiatzen zen jardinean; Berthe txikia bere belaunen gainean hartzen zuen, eta, bere medikuntza-aldizkaria zabalduz, hari irakurtzen irakasten saiatzen zen. Haurrak, ez baitzuen inoiz estudiatzen, luzaro

hain lehen irekitzen zituen begiak handi eta triste eta negarrari ematen zitzaion. Orduan Charlesek kontsolatu egiten zuen; garastailuan ur bila joaten zitzaion hondarretan errekek egiteko, edota loresailetan xuhandor adarrak mozten zituen zuhaitzak landatzeko, eta horrek ezer gutxi hondatzen zuen jardina, erabat belartzarez josia; izan ere hainbeste jornal zor zitzaion Lestiboudois-ri! Gero haurra hotzak zegoen eta ama galdetzen zuen.

— Deitu neskameari, esaten zion Charlesek. Badakizu, txiki, zure amak ez duela inork asper-tarazterik nahi.

Udazkena hasten ari zen eta jada erortzen ari ziren hostoak, —duela bi urte Emma gaixo zegoenean bezala!— Noiz amaituko ote da hau guztia!... Eta pasieran segitzen zuen, bi eskuak atzealdean.

Madame bere gelan zegoen. Hara ez ziren igotzen. Han egoten zen egun osoan, soraio, ia jantzi gabe, eta, aldian aldian, Rouenen algeriar baten dendan erosiak zituen emategi-pastila batzuk erre araziz. Gauez, bere alboan etzanda, gizon hura lotan ez edukitzearren, azkenerako,

bekozkoren poderioz, bigarren solairura hastandu zuen; eta goizaldera arte irakurtzen aritzen zen, egoera odoltsurekin batera pasarte orgiakok zeuzkaten liburu xelege batzuk. Sarritan izuikarak harrapatzen zuen, garrasi bat jaurtikitzen zuen. Charles korrika etortzen zitzaion.

— Ah! zoaz! esaten zion Emmak.

Edo, beste batzuetan, adulterioak bizkortzen zuen barneko gar honek bortizkiago errerik, hatsanka, hunkiturik, irritsez beterik, leioa irekitzen zuen, aire hotza arnasten zuen, bere adats astunegia haizetan ihurtzen zuen, eta, izarrei so, printzeren amodioak desiatzen zituen. Hartaz pentsatzen zuen, Leonez. Orduan dena emango zukeen, asetzen zuten rendez-vous haietariko bat bakarraren truke.

Bere gala egunak izaten ziren. Hauek bikainak nahi izaten zituen, eta, gastua Leonek bakarrik pagatu ezin zuenean, berak osatzen zuen gainerakoa oparo, eta hori halatsu gertatzen zen aldioro. Leon saiatu zen hari ulertarazten, hala bezain ongi izango ziratekeela beste nonbait, hotel apalagoren batean; baina Emmak eragozpenak idoro zituen.

Egun batean, zilar gorritzazko sei goilaratxo atera zituen bere poltsatik (Rouault zaharraren eztei-saria zen), berehala joan zedin eskatuz, bere izenean, hura bahitura-etxera eramatera; eta Leonek obeditu egin zuen, nahiz eta jokabide hau desatsegin gertatu zitzaion. Bere burua konprometatzearen beldur zen.

Gero, hartaz gogoetan, bere amorantea jorkamolde bitxiak hartzen ari zela hauteman zuen, eta agian ez zeudela oker bera harengandik aldendu nahi izatean.

Izan ere, norbaitek bidalia zion bere amari gutun anonimo luze bat, *emakume ezkondu batekin galbidean zebilela* kargu emateko; eta dama gajoak segituan, familien betiko mamua sumaturik, alegia zehazgabeko kreatura galgarrria, sirena, munstroa, maitasunaren barnezolan fantastikoki bizi dena, maitre Dubocageri idatzi zion, haren ugazabari, zeinak bikain jokatu baitzuen arazo honetan. Hiru ordu laurdenez eduki zuen, begiak zabalarazi nahiez, amildegiaz ohar-tarazten. Horrelako nahasketa bat kaltegarri zitzaiokeen etorkizunean bere establezimenduari. Hausteko erregutu zion, eta, bere interes pro-

pialengatik sakrifizio hori egingo ez bazuen ere, egin zezala behintzat harengatik, Dubocagerengatik!

Leonek azkenean zin egin zuen Emma ez zuela gehiago ikusiko; eta bere hitzari eutsi ez izana jaukitzen zion bere buruari, emakume hark aurrerantzean ere erakar zekiokoen enbarazu eta prediku oro kontutan izanik, goizetan bergailu inguruan bere adiskideek botatzen zituzten adarjotzeak kontatu gabe. Bestalde, lehen urgazle bilakatzeraz zihoan: serio izateko garaia zen. Halaber uko egingo zien txilibituari, sentimendu sutsuei, irudimenari: —zeren burges orok, bere gaztaroko beroalditan, bederen egun batez, minutu batez, bere burua trebetzat eduki baitu egundoko irritsetarako, ekintza gorenetarako. Lasaka erdipurdienak izan ditu sultanesak amets; notario bakoitzak bere baitan daramatza poeta baten kondarrak.

Aspertu egiten zen orain, Emmak bat-batean bere bular gainean negarzotinka egitean; eta bere bihotza, musika-dosi tamaina bat besterik jasan ezin dezaketen jendeak bezala, aihergata-

sunez lokartzen zen jada eztitasunak hautematen ez zizkion amodio haren burrunbatan.

Gehiegi ezagutzen zuten elkar posesioaren gozamina ehunkoizten duten lilurazio horiek edukitzeko. Hainbat zegoen Emma hartaz gogaiturik nola hura damaz asperturik. Orain adulerioan aurkitzen zituen Emmak ezkonbizitzako txepelkeria guztiak.

Baina nola libratu ordea hartatik? Bestenaz, halako zorionaren purtziltasunarengatik umildurik sentitzen zen arren, hari atxikitzen zitzaion ohituraz edo galduraz; eta egunetik egunera are amorrutiago tematzen zen, handiegia nahi izatearen poderioz atsegin oro agortuz. Bere esperantza etsituen errua Leoni leporatzen zion, hark traizio egin izan balio bezala; eta beren arteko banakuntza erakarriko zukeen hondamendiren bat ere opatzen zuen, berak ez baitzeukan adorerik horretara deliberatzeko.

Halere segitzen zuen horratio hari amodiozko gutunak idazten, ideia honek eraginik, alegia emakume batek beti ere idatzi egin behar diola bere amoranteari.

Baina, idaztean, beste gizon bat hautematen zuen, fantasma bat bere oroitzapen sutsuenez egina, bere irakurtza ederrenez, bere irrirts bortitzenez egina; eta azkenerako hain egitazkoa era atzemankorra bilakatzen zen gizona non Emmak liluraturik pilpiratzen baitzuen, halere ordea zehazki irudikatu ezinik, hainbaterainoxe galtzen baitzen hura, jainko baten gisa, bere atributuen joritasunaren pean. Gizonaren egongua herrialde urdinka zen, zetazko zurubiak kulunkatzen direna balkoietan, loreen hatsematearen pean, ilargi argitan. Bere ondoan sentitzen zuen, gizona etortzera zihoan eta bahitu egingo zuen oso-osorik pot batean. Segidan jota geratzen zen, birrindurik; zeren amodio bulta lainotsu hauek gehiago nekatzen baitzuten zalapartaldi handiek baino.

Abaildura etengabea eta unibertsala sentitzen zuen orain. Jaso ere sarritan jasotzen zituen auzideiak, ia-ia begiratu ere egiten ez zituen paper tinbratuak. Jada ez bizitzea nahi izango zukeen, edo taigabe lo egitea.

Garizuma erdiko ostegunean ez zen Yonville-ra itzuli; arratsean mozorro-dantzara joan zen.



Balusazko galtzak eta galtzerdi gorri batzuk jantzi zituen, ileorde batekin eta hiru adarreko kapelua belarri gainean. Saltaka ibili zen gau osoan, tronboien soinu zakarretan; zirkulua egi-ten zuten bere inguruan; eta antzokiko peristiloan kausitu zen goizean bost edo sei mozorroren artean, kaltetako neskak edo marinela, Leonen adiskideak, afaltzera joateaz mintzo zirela.

Inguruko kafetegiak beterik zeuden. Portu gainean hauteman zuten jatetxe bat kaxkarre-nerikoa, eta bertako nagusiak gelatxo bat ireki zien laugarren oinean.

Gizonak txutxumutxuka aritu ziren txoko batean, gastuaz elkarri galdeka dudarik gabe. Abokatu-urgazle bat, zaldizko soldadu bi eta enplegatu bat zeuden: zer nolako konpainia berarentzat! Emakumeei dagokienean, Emma berehala ohartu zen, haien ahotsen doinuaz, mailarik bajuenekoak izan behar zutela, ia guztiek. Orduan beldur izan zen, aulkia atzeratu zuen eta begiak beheratu zituen.

Besteak jaten hasi ziren. Berak ez zuen jan; bekokia sutan zeukan, betazaletan ziztakoak eta larrazala izotza bezain hotza. Bere buruan senti-

tzen zuen dantzalekuko zorua, artean dardarka, dantzan ari ziren mila oinen bulkara erritmikoaren pean. Gero, pontxearen usainak zigarroen kearekin batera zorabiatu egin zuen. Kordea galtzen ari zen: leihoaren aurrera eraman zuten.

Egunargia hasten ari zen, eta purpura koloreko orban handi bat zabaltzen zen zeru zuhailean Saint-Catherine aldetik. Ibai ubelak ikara zegien haizetan; ez zegoen inor zubi gainetan; dirdaiak itzaltzen ari ziren.

Hartan bizkortu zen, eta Berthez pentsatzen jarri zen, han lotan, bere neskamearen gelan. Baina burdin-ziri luzez betetako orga bat iragan zen, etxeetako hormen kontra metalezko dardarizo gorgarria jaurtikiz.

Emma zakarki aldendu zen, bere mozorrojantzia erantzi zuen, Leoni esan zion itzuli beharrean zegoela, eta noizbaitekoan bakarrik geratu zen *Boulogne* hotelean. Dena eta bere burua ere jasanezina zitzaion. Nahi izango zukeen, txori baten gisa ihes eginez, norabait gaztetzera joan, oso urrun, espazio orbangabeetara.

Irten zen, zeharkatu zuen boulevarda, Cauchoise plaza eta auzaldea, jardinak bistan har-

tzen zituen kale ireki batetaraino. Arin zebilen, aire zabalak baretu egiten zuen: eta ezari-ezarian, jendetzaren aurpegiak, mozorroak, koadrilak, dirdaiak, afaria, emakume haiek, dena desagertzen zen lainaide eramana bezalaxe. Gero, *Croix Rouge*-ra itzulirik, bere ohe gainera jaurtiki zen, bigarreneko gela txikian, *Tour de Nesle*-ren irudi batzuk zeuden hartan. Arratsaldeko lauretan Hivertek iratzarri zuen.

Etxera heltzean, Felicitek paper gris bat erakutsi zion erloju atzean. Irakurri zuen:

«Jakinarazpen-kopiaren eraginez, epai baten era exekutatzailean...».

Zein epai? Bezperan eskierki, beste paper bat ekarria zuten, berak ezagutzen ez zuena; hitz hauek balditurik utzi zuten noski:

«Erregeren, legearen eta justiziaren aginduz, Madame Bovaryri...».

Orduan, zenbait lerro saltaturik, hauteman zuen:

«Edonola ere hogeita lau ordutako epearen barruan». — Zer ordea? «Guztira zortzi mila libera kopurua ordaindu». Eta gainera beherago zioen: «Horretara hertsatua izango da zuzenbi-

dezko molde oroz, eta batipat bere mueble eta efektuen bahikuntza exekutatzaillez».

Zer egin?... Hogeita lau ordu hartu zen; bihar! Lheureuxek berriro ere izutu egin nahi zuen non-bait, pentsatu zuen; zeren sumatu baitzituen bat-batean haren azpijoko guztiak, haren zurikerien xedea. Lasaitzen zuena, kopuruaren gehiegikoa zen.

Baina erosi, ez ordaindu, mailegutan dirua hartu, ordaindukoak suskribatu, epe berri bakoitzean puzten zihoazen ordainduko hauek berritu, azkenerako moldatua zion kapital bat Lheureux jaunari, zeina horren esperoan baitzegoen ezinegonez bere espekulazioetarako.

Antsikabe plantaz azaldu zen Emma haren etxera.

— Badakizu zer gertatzen zaidan? Txantxetako da, noski!

— Ez.

— Nola ezetz?

Lheureux aldendu zen astiro-astiro, eta besoak gurutzatuz esan zion:

— Zuk uste al zenuen ba, damatxo, Jainkoaren maitasunagatik izango nintzela ni zure horni-

tzaile eta bankari sekula santa guztirako? Nik ere bildu beharko ditut ba, banatu ditudanak, bidezkoa da! Emma kopuruarengarik hasi zen deiadarka.

— Ah! zer egingo da ba! auzitegiak ontzat eman du! Epaia hor dago! Jakinarazi dizute! Bestalde, ez naiz ni, Vinçart da.

— Eta ezin izango al zenuke...?

— Oh! ezta ezertxo ere.

— Baina..., halere..., mintza gaitezen gizabidez.

Eta ura jorratzen jardun zen; berak ezer ez omen zuela jakin... ustekabeen harrapatu zuela...

— Norena da errua? esan zuen Lheureuxek ironikoki mintzatuz. Hor nabil, ni, beltz baten gisa jo ta ke lanean, eta bitartean zu ederki asko denborapasa.

— Ah! Moralik ez!

— Horrek ez du sekula kalterik egiten, erantzun zuen besteak. Koldar izan zen, erregu egin zion; eta bere esku polit zuria eta luzea pausatu ere egin zuen merkatariaren belaunetan.

— Utz nazazu! Amainatu egin nahi nauzula esan daiteke!

— Doilorra zara! esan zion deiadarka Emmak.

— Oh! oh! aurreratxo zoaz! besteak barrez.

— Jakingo du jendeak zu nor zaren. Nire senarrari esango diot...

— Ba, aizu! nik, neuk erakutsiko diot zertxobait zure senarrari!

Eta Lheureuxek mila eta zortzirehun liberaren errezibua atera zuen bere dirukutxatik, Vinçarten deskontukoan berak eman ziona.

— Zure lapurretatxoa, segitu zuen merkatariak, ez duela ulertuko uste al duzu, gizon gizajo horrek?

Jota geratu zen, mazo batez eman baliote baino abailduago. Lheureux pasieran zebilen leihotik bulegoraino, errepika eta errepika:

— Ah! erakutsiko diot, bai... erakutsiko diot, bai...

Ondoren Emmarengana hurbildu zen, eta, ahots ezti batez:

— Ez da atsegina, badakit; baina dena den, inor ez da horretaz hil, eta, neure dirua bihurtzeko geratzen zaizun modu bakarra denez...

— Baina non atzeman behar dut? esan zuen Emmak besoak bihurrituz.

— Ah! Bah! zuk bezala lagunak edukita!

Eta era hain zorrotzez eta hain izugarritz so egiten zion non Emma erraietaraino dardaratu baitzen.

— Agintzen dizut, esan zion Emmak, sinatuko dudala...

— Badut aski, zure sinaduraz!

— Salduko dut oraindik...

— Nola ez ba! esan zuen sorbaldak altxatuz, ez zaizu ezer geratzen.

Era dendarantz irekitzen zen leihatilatik oihu egin zuen:

— Annette! hamalauko hiru oihalkiak ez ahaztu.

Neskamea azaldu zen; Emmak ulertu zuen eta galdetu zuen «ea zenbat diru behar izango zen jazarpen guztiak gerarazteko».

— Beranduegi da!

— Baina milaka batzuk ekarriko banizkizu, kopuruaren laurdena, herena, ia dena?

— Eh! ez, alferrik da!

Eskilararantz bultzatzen zuen emeki.

— Zinez eskatzen dizut, monsieur Lheureux,  
zenbait egun oraindik!

Negar-zotinka ari zen.

— Ene ba! malkoak!

— Etsipenean uzten nauzu!

— Ez naiz gutxi trufatzen zure etsipenaz!  
esan zuen atea ixterakoan.



## —VII—

Estoiko izan zen, biharamunean, Maitre Hareng prokuradorea bere etxean azaldu zenean, bi lekukorekin, atxikipenaren akta jasotzera.

Bovaryren kabinetatik hasi ziren eta buru frenologikoa ez zuten inskribatu, *bere lanbiderako lanabes gisa* eman baitzuten; baina kontatu zituzten sukaldean platerak, tupinak, aulkiak, argimutilak, eta, bere logelan, apaletako pitxi guztiak. Arakatu zituzten bere soinekoak, arropa zuria, apainketa-gela; eta bere existentzia, bere xokorik kutunenetaraino, luze hedatua geratu zen, autopsiatzen ari diren gorpu bat bezala, hiru gizon haien begibistan.

Maitre Harengék, jantzi beltz mehar batean botonaturik, gorbata zuriz, eta orkaiak oso estu zituela, tarteka errepikatzen zuen:

— Mesedez, madame? mesedez?

Sarritan oihukatzen zuen:

— Xarmanta!... biziki polita!

Gero berriro idazten hasten zen, ezkerreko eskuaz eusten zion adarrezko tintontzian bere luma bustiz.

Geletakoa bukatu zutenean, ganbarara igo ziren.

Emmak han gordetzen zuen Rodolpheren gutunak giltzapeturik zeuden pupitrea. Ireki egin behar izan zen.

— Ah! gutun batzuk! esan zuen Maitre Harengak irribarre zogi batez. Baina, utzi mesedez! zeren ziurtatu beharrean nago kaxan beste gauzarik ez ote dagoen.

Eta paperak okertu zituen, apur bat, haien artetik napoleonak jalgi erazteko bezala. Orduan Emma asaldatu egin zen, esku lodi hura ikustean, bare gisako behatz gorri begats haiekin, bere bihotzak pիրpirա egin izan zuen orri haien gainean pausatzen.

Aldegin zuten noizbaitekoan! Felicite itzuli zen. Zelatatzer a igorria zuen Bovary aldentzeko; eta amenjesus batean kokatu zuten teilatupean atxikipenaren zaindaria, zeinak zin egin baitzuen hantxe geratuko zela.

Charles, arrats hartan, kezkatu iruditu zitzaion. Emmak larritasunezko begiradaz barrandutzen zuen, haren aurpegiko zimurretan akusazioak hauteman ustez. Gero, bere begiak pantaila txinatarrez hornitutako tximini gainean pausatzean, edota errezel zabaletan, besaulkietan, alegia bere bizitzako garratzasuna arindu zuten gauza guzti haietan pausatzean, aladura batek erasotzen zion, edo gehienbat egundoko atsekabe batek eta honek irritsa kitzikatu egiten zion, deuseztatu beharrean. Charlesek sua zirikatzeko zuten gozo-gozo, bi oinak suburnietan zituela.

Momentu batean zaindariak, bere ezkutalekuan asperturik nonbait, zarata pixka bat egin zuen.

— Norbait al dabil bat goian? esan zuen Charlesek.

— Ez! orduan Emmak, irekita geratu den sabaileiho bat da haizeak eraginik.

Biharamunean, igandea, Rouenera abiatu zen, izena ezagutzen zuen bankari guztiengana joateko xedez. Haiek landetxean edo bidaiari ziren. Emmak ez zuen etsi, eta topatu ahal izan

zituenei, dirua eskatu zien, beharrean zegoela zineztatuz, eta bihurtuko ziela. Batzuk barre egin zioten sudurpuntan; guztiek ukatu zioten.

Ordubietan, Leonen etxera joan zen, atea jo zuen. Ez zuten ireki. Noizbait ere Leon azaldu zen.

— Nolaz hemen?

— Gogaitu egiten zaitu!

— Ez..., hain...

Eta aitortu zuen, jabeak ez zuela bat ere atsegin han «emakumeak» errezibitzea.

— Zurekin hitz egin beharrean nago, esan zion Emmak. Orduan Leonek giltza jaso zuen. Emmak geldiarazi egin zuen.

— Oh! Ez, han, gure txokoan.

Eta beren gelara joan ziren, *Boulogne* hotele-  
ra.

Heldu zirenean Emmak baso handi bat ur edan zuen. Oso beluri zegoen. Esan zion:

— Leon, mesede bat egin behar didazu.

Eta estu atxikitzen zizkion bere bi eukuetatik astinduz, erantsi zuen:

— Entzuidazu, zortzi mila libera behar dut.

— Baina eroruta zaude!

— Oraindik ez!

Eta, segidan, atxikipenaren historia kontatuz, bere herstura azaldu zion; zeren Charlesek ez baitzekien ezer: bere amaginarrebak arbuiatu egiten zuen, Renault zaharrak ezer ezin zezakeen; baina hark, Leonek, bizkor mugitu behar zuen nahitaezko kopuru hori atzemateko...

— Nola nahi duzu...?

— Bai txepela zarela! oihukatu zion.

Orduan Leonek esan zuen zozoki:

— Gaitza bapikatzen ari zara. Agian milaren bat eskutukin zure morroi hori baretu egingo litzateke.

Are arrazoi gehiago zerbait bideratzen saiatzeko; ez zen posible nolabait ere hiru mila libera ez atzematea. Bestalde, Leon jar zitekeen kaiero bere ordeaz.

— Zoaz! saia zaitez! beharrezkoa da! korri! Oh! Ahalegindu! Ahalegindu! biziki maiteko zaitut!

Irten zen, ordubeteren buruan itzuli zen, eta aurpegi solemne batez esan zuen:

— Hiru pertsonarekin egon naiz... alferrik!

Gero eserita egon ziren bata bestearen aurrez aurre, subajuaren alde banatan, geldi, hitzik gabe. Emmak sorbaldak altxatzen zituen aldi berean zorua istikatuz. Ahopean esaten entzun zion Leonek:

— Zure lekuan banego, nik atzemango nuke, bai horixe!

— Non ordea?

— Zure estudioan!

Eta Emmak so egin zion.

Haren betsein sutuetatik ausardi infernutiarrira jalgitzen zen, eta betazalak era lizunkoi eta kitzikagarriz juntatzen ziren; — hainbat non gizon gaztea ahultzen sentitu baitzen krimen bat aholkatzen zion emakume haren borondate mutuaren pean. Orduan Leon beldur izan zen, eta, argibide oro hastantzearren, bere bekokia kolpatu zuen oihukatuz:

— Morel gaur gauean itzultzekotan da! Hark ez dit ukatuko, hala espero dut (bere lagunetari-ko bat zen, negoziogizon aberats purrukatu baten semea), eta bihar ekarriko dizut zera, erantsi zuen.

Esperantza hau, Leonek uste adinako bozkarioz hartu izanaren trazarik ez zuen izan inolaz ere Emmak. Susmatzen ote zuen gezurra? Lotsagorrituz jarraitu zuen Leonek:

— Alabaina, hiruretan ikusiko ez baninduzu, ez egon nire zain, laztana. Joan beharrean nago, barkatu. Agur!

Eskua estutu zion, baina zeharo geldo sentitu zuen. Emmak jada ez zeukan inolako sentimendutarako indarrik.

Lurak jo zituen; eta Emma Yonvillera itzulzeko altxatu zen, ohituren eraginari automata baten gisa men eginez.

Eguraldi ederra egiten zuen; martxoko egun horietako bat zen argitsua eta garratza, zero oso zurian eguzkiak distiratzen duenetakoa. Rouen-darrak jai-jantzitan zoriontsu plantaz pasiatzen ziren. Katedraleko plazara heldu zen. Bezperatik irtetzen ari ziren; jendetza jarioan zihoan hiru ateetatik, zubi baten hiru arkuetatik ibaia beazala, eta, erdian, harkaitz bat hain mugikaitzago, klamera zegoen.

Orduan egun hartaz oroitu zen non, pirpirabiziz eta esperantzaz beterik, bere amodioa

baino sakonera gutxiagoz bere aurrean hedatzen zen nabe handi hartan barrura sartu baitzen; eta oinez segitu zuen, bere beloaren pean negarrez, balditurik, zabuka, zorabiatzeko zorian.

Kontuz! egin zuen garrasi irekitzen ari zen zalgurdi-ate batetik irtenez ahots batek.

Emma gelditu egin zen zaldi beltz bati pasatzen uzteko, tilbury baten pertiken artean putingoka, zebelin larruz jantzitako gentleman batek gidaturik. Nor zen hura ordea? Berak ezagutzen zuen... Kotxea oldartu zen eta desagertu zen.

Baina huraxe zen, bizkondea! Emma itzuli zen; kalea hutsik zegoen. Eta hain abaildurik, hain triste geratu zen non horma baten kontra bermatu baitzen ez erortzeko.

Gero pentsatu zuen oker iruditu zitzaiola. Gainera, berak ez zekien ezer. Orok, beregan eta beregandik at, abandonatu egiten zuen.

Galdurik sentitzen zen, menturaren menturan piririka leze mugaezinetan barrena; eta ia bozkarioz izan zen, *Croix Rouge*-ra heltzean, Homais hantxe hautematea, farmazi-horniduraz betetako kaxa handi bat *Hirondelle*-ren gainean



kargatzen begira; eskuan, lepoko zapi batean, sei *cheminot* zeuzkan bere emaztearentzat.

Madame Homaisek biziki atsegin zituen opil astun horiek, turbante formakoak, zeinak garizuman jaten baitira gurin gaziarekin: elikadura goriko etarik azken aztarrena, agian gurutzaden mendedanik datorrena, zeinaz asetzen baitziren garai batean normandiar sendoak, mahai gainean ikusi uste zituztelarik, zuzi horiren argitara, hipokras pegarren eta egundoko okelapusken artean, sarrazeno-buruak irensteko. Botikarioaren emazteak haiek bezalaxe ausikitzen zituen, heroikoki, bere hagindura higuingarria gorabehera. Beraz, M. Homaisek hirira bidaia egiten zuen guztietan, huts egin gabe ekartzen zizkion, beti okin handiaren etxean erosiz, Massacre kalean.

— Biziki pozten nau zu ikusteak! esan zion eskua eskeiniz Emmari *Hirondelle*-ra igotzen laguntzeko.

Gero, *cheminotak* sareko uhaletatik zintzilikatu zituen, eta burutsik jarri zen, besoak gurutzaturik, jarrera pentsakor eta napoleoniar batean.

Baina, itsua, ohi bezala, aldaparen oinean azaldu zenean, oihukatu zuen:

— Nik ez dut ulertzen, agintedunek oraindik ere industria hain errudunak ametitzea. Giltza-peratu egin beharko lituzkete dohakabe hauek, eta lanen batera behartu. Horra nire ohorezko hitza, Aurrerakuntza dortoka-pausoan doala! Barbarerian bete-betea blai segitzen dugu!

Itzeetatik askatutako tapizeria-poltsa baten gisa atearen ertzean balantzaka zebilen kapelua luzatzen zuen itsuak.

— Hona hemen, zioen borikarioak, gaitz gailentsu bat!

Eta, arlote gizajoa lehendik ezagutu arren, lehen aldiz ikustearen itxura egin zuen, *betzurin-goa*, *betzuringo opakoa*, *esklerotika*, *facies* eta molde horretako hitzak ahopean esan zituen, eta gero aita gisako tonuz galdetu zion:

— Aspaldidanik al daukazu, lagun, gaitz izugarri hau? Tabernan mozkortu ordez, hobe egingo zenuke janeurri bati jarraituz.

Ardo ona, garagardo ona eta haragi-erre ona har zitzan gomendatzen zion. Itsuak bere kan-

tuan segitzen zuen; bestalde, ia inozoa zirudien. Azkenean, M. Homaisek ireki zuen bere poltsa.

— Tori, hona hemen sos bat, itzul iezadazu bi xentimo: eta ez ahaztu nire aholkuak, ongi kausituko zara.

Hivertek sori hartu zuen ozenki jalgitzea haien eraginkortasunari buruz zenbait zalantza. Baina botikarioak ziurtatu zuen berak sendatuko zukeela berak asmatutako ukendu antiflogistiko batez, eta bere helbidea eman zuen:

— M. Homais, azoka ondoan, nahiko ezaguna.

— Ea ba! ordainetan, esan zuen Hivertek, *komeria egin behar diguzu*.

Itsua bere izterburuen gainean abaildu zen eta, burua atzera botarik, bere begi berdaskak birakatuz eta mihia aterata, urdaila iguzten zuen bi eskuez, eta aldi berean ahuri helkor bat botatzen zuen, zakur goseti baten gisa. Emmak, nazkaturik, sorbalda gainetik jaurtiki zion bost liberatako txanpon bat. Hura zen bere ondare guztia. Ederto iruditzen zitzaion horrela botatzea.

Kotxea jada abiatua zen, M. Homaisek bat-batean leihatilatik burua atera eta deiadar egin zuenean:

— Irinezkorik eta esnezkorik ez! Larrazal gainean artilea jantzi eta parte gaiztotuak epurubikorren ketara jarri!

Bere begien aurrean iragaiten ziren gauza ezagunen ikuskizunak poliki-poliki aldentzen zuen Emma bere oinaze presentetik. Unadura jasanezin batek abailtzen zuen, eta zozoturik heldu zen bere etxera, etsiturik, ia lokaturik.

— Behar dena gerta dadila! zioen berekiko.

Gainera, nork jakin? zergatik ez zen, momentu batetik bestera, gertaera apartekoren bat sortuko? Lheureux hil zitekeen noski.

Goizeko bederatzietan, plazako ahots-zaratak iratzarri zuen. Azoka inguruan jende pila bat zegoen zutabe baten kontra erantsitako kartel handi bat irakurtzeko, eta Justin ikusi zuen petri-larri batera igotzen eta kartela puskatzen. Baina, une horretan, mendi-goardak lepezamarrera bota zion eskua. M. Homais irten zen botikarrik, eta Lefrançois atsoak, jendetzaren artean, hitzaldi bat ematen ari zela zirudien.

— Madame! Madame! oihukatu zuen Felicitek sartzean, doilorkeria bat da!

Eta neska gaixoak, hunkiturik, atetik erauzi berria zuen paper hori bat luzatu zion. Emmak lehen begiradan irakurri zuen, bere altzari guztiak salgai zeudela.

Orduan elkarri so egin zioten isilean. Bata bestearantzako ez zeukaten, neskameak eta etxeakoandreak, inolako sekreturik. Azkenik Felicitek hasperendu zuen:

— Nik zu bezala, madame, M. Guillauminengana joko nuke.

— Hala iruditzen zaizu?

Eta galdera honek esan nahi zuen:

— Zuk etxea morroiaren bidez ezagutzen duzun horrek, nagusiak inoiz hitz egin al du nitaz?

— Bai, joan zaitez, ongi egingo duzu.

Emma jantzi zen, bere soineko beltza azabaxte aiezko bere txanoarekin jarri zuen, eta, ikus ez zezaten (artean ere jende asko zegoen plazan), herriaz kanpotik hartu zuen uraren ertzeko bidean barrena.

Zeharo hatsanturik heldu zen notarioaren atariko itxiturara; zerua ilun zegoen eta elur pixka bat ari zuen.

Txirrinaren soinura, Theodore, gerrontze gorriz, eskilaraburuan azaldu zen; ia-ia familiarki etorri zitzaion atea irekitzera, adiskide bati gisa, eta jangelara sartu zuen.

Portzelanazko berogailu handi bat burrundan ari zen hormazuloko apala betetzen zuen kaktus baten pean, eta, zur beltzezko marko batzuetan, haritz-koloreko paperaren kontra, Steuben-en *Esmeralda* zegoen, Schopin-en *Putiphar*-ekin batera. Mahai zerbitzatuak, zilarrezko bi ontzi-berogailuek, ateen kristalezko eskulekuak, zoruko oholtzak eta altzariak, orok distira egiten zuen garbitasun arduratsuz, ingelesez; leiarrak apaindurik zeuden, ertz bakoitzean, kolorezko beirakiz.

— Han da hau jangela, pentsatzen zuen Emmak, nik beharko nukeen bezalakoa.

Notarioa sartu zen, palmazko bere txabusina ezkerreko besoaz soinaren kontra estutuz, aldi berean beste eskuaz erantzi eta berriro fite jazten zuelarik balusa marroizko bere txanoa, han-

puruski eskuineko alderantz ipinia, non labaintzen baitziren hiru xerlo beilegiren muturrak zeinak, lepagainetik hartuta, bere kaskasoila inguratzen baitzuten.

Eserleku bat eskaini ondoren, bera eseri zen gosaltzeko, atrebentziarengatik franko desenkusatzuz.

— Jauna, esan zuen damak, erregutuko nizuke...

— Zer da, madame? Zuk esan.

Bere egoera azaltzen hasi zitzaion Emma.

Maitre Guillauminek ezagutzen zuen, oihalmerkatariarekin sekretuan elkar-harturik zegonez, haren baitan beti kausitzen baitzituen kapitalak, kontratatzeko eskatzen zizkieten hipoteka-maileguetarako.

Beraz hark bazekien (eta Emmak berak baino hobeto) ordainduko haien historia luzea, txikararak hasieran, endosatzaile gisa askotariko izenak zeramatzatela, epe luzetara tartekatuak eta etengabe berrituak, harik eta egun batez, protestu guztiak bildurik, merkatariak bere lagun Vinçarti enkargatu zion arte behar ziren jazarpenak bidera zitzan haren izen propialean, herriki-

deen artean inolaz ere trigre baten gisa azaldu nahi ezik.

Emmak Lheureuxen kontrako ahakarrez tartekatu zuen bere kontaketa, ahakar hauei notarioak aldian-aldian mintzo hutsalen batez erantzuten zielarik. Bere txuleta janez eta bere tea edanez, kokotsa jaisten zuen bere korbata zerukolarearen gainera, bi orratz diamantedunez ziztatua, urrezko kateatxo bat estekatzen zuela, eta irriño bitxi batez egiten zuen irribarre, era melenga eta anbiguo batez. Baina, damak oinak bustitsuak zituela oharturik:

— Hurbil zaitez ba berogailura... gorago..., portzelanaren kontra.

Berogailua zikintzeko beldur zen Emma. Notarioak galai tonuz esan zion:

— Gauza ederrek ez dute ezer hondatzen.

Orduan hura hunkitzen saiatu zen Emma, eta, bera ere samurturik, bere etxeko esturak, tekalak eta beharrak hari kontatzeari eman zion. Hark ulertzen zuen hori: emakume dotore bat! eta, jateari utzi gabe, damaren alderantz erabat biratua zen, eskierki belaunaz haren botina fere-



katzen zuela, zeinaren zorua berogailuaren kontra makotzen baitzen lurruna botaz.

Baina, Emmak mila eskutu eskatu zionean, notarioak ezpainak estutu zituen, gero biziki penaturik azaldu zen haren fortunaren artezkari-tza aurrez eduki ez izanaz, zeren bazegoen hamaika bide, eta oso erosoak, baita dama batentzako ere, norberaren diruari etekinik ateratzeko. Nahiz Grumesnilgo zohikaztegieta nahiz Havreko terrenoetan menturatu zatekeen ia segurtasun osoz espekulazio bikainik; eta amorruez tripajaten laga zuen ziurki irabazi izan zitzakeen dirutza izugarrien ideiarekin.

— Nolatan, jarraiki zion notarioak, ez zinen etorri nire etxera?

— Ez dakit ba nik, esan zuen Emmak.

— Ea, zergatik? Hainbesteko beldurra ematen nizun? Aitzitik neu naiz kexu beharko nintzatekeena! Abantzu ez dugun elkar ezagutzen! Nik halere begirune handia dizut: horretaz ez duzu noski zalantzarik, ala?

Eskua luzatu zuen, Emmarena hartu zuen, musu irrikatsu bat eman zion, eta bere belaunaren gainean gorde zuen; haren behatzekin josta-

tzen ari zen emekiro, mila eztitasun kontatzen zion bitartean.

Haren ahots gexalak xuxurlatu egiten zuen, erreka ixurkari baten gisa; haren betseinetik pindar bat jalgitzen zen bere betaurrekoen istargimendutik barrena, era haren eskuak aurrera zihoazen Emmaren mahukan barnean, besoan haztaka egiteko. Emmak bere masailaren kontra sentitzen zuen arnasa estu baten hatsa. Gizon hark izugarri gogaitzen zuen.

Emma jauzi batean zutitu zen eta esan zion:

— Monsieur, zain nago!

— Zeren zain! esan zuen notarioak, bat-batean zeharo beluri bilakaturik.

— Dirua.

— Baina...

Gero, irritis bortitzegi baten oldarrari amore emanaz:

— Dena den, bai!

Belauniko errestatzen zen Emmarenganantz, bere txabusinaz arretarik hartu gabe.

— Otoi, gera zaitetz! maite zaitut!

Gerritik heldu zion.

Purpurazko olde bat igo zen berehala madame Bovaryren aurpegira. Atzera egin zuen planta ikaragarri batez, oihukatuz:

— Nire zorigaitzaz ari zara lizunki baliatzen, monsieur! Urrikalgarri naiz, baina ez salgai!

Eta irten egin zen.

Notarioa arras kikildurik geratu zen, begiak tapizeriazko oskierresta ederretan tinkaturik. Maitasunaren opari bat zen. Ikuspen horrek azkenik kontsolatu egin zuen. Bestalde pentsatzen zuen, halako abentura batek urrunegi lerratuko zukeela.

— Bai doilorra! bai zitala!... Hau laidoa! zioen Emmak berekiko, oin urduriz ihesi kamioko orri-karen pean. Arrakastarik ezaren etsimenduak indartu egiten zuen bere ahalke irainduaren sumindura; iruditzen zitzaion, Probidentzia amorratzen ari zela bere kontrako jazarketan, eta, harrotasunez burgoiturik, inoiz eduki gabea zen bere buruarenganako hainbat preziamendu eta besteenganako hainbat arbuio. Halakoxe borrokazaletasun batek bulkatzen zuen. Gizonak jotzea nahi izango zukeen, haiei aurpegira tuka egitea, guztiak xehatzea; eta oinez aurrera segi-

tzen zuen arin, zurbil, dardarizoka, amorrazioz, begi negartsuz ostertz hutsa barrandatzuz, eta itotzen zuen gorroto hartan atsegin hartuz bezala.

Bere etxea begiztatu zuenean, hildura batek lotu zuen. Ezin zuen aurrera egin; beharrezkoa zen ordea; bestalde, nola ihes egin? Felicite bere zain zegoen atean.

— Eta...?

— Ez! esan zuen Emmak.

Eta, ordu laurden batez, biek elkarrekin, laguntzeko agian prest izan zitezkeen Yonvilleko pertsona desberdinak erreparasatu zituzten. Baina, Felicitek norbait izendatzen zuen bakoitzean, Emmak ihardesten zuen:

— Posible al da! Ez dute nahi izango!

— Eta nagusia laster da hemen!

— Badakit bai... Utz nazazu bakarrik.

Ahalegin guztiak eginak zituen. Orain ez zegoen jada zer eginik; eta Charles azaltzean, berak esan beharko zion beraz:

— Bazter zaitez. Oinpean darabilzun tapiz hori ez da jadanik gurea. Zure etxetik, ez dauka-

zu altzari bat, orratz bat, lastaizpi bat ere, eta ni naiz porrot eragin dizuna, gizajo horri!

Orduan intziri handi bat izango zen, gero negar egingo zuen ugari, eta azkenik, txundioa iraganik, barkatu egingo zuen.

— Bai, zioen marmarrean hortzak kirrinka, barkatu egingo dit, ni ezagutu izana barka niezaionekotz niri eskaintzeko milioi batez aski izango ez lukeen horrek... Sekula ez! sekula!

Bovaryren bere gaineko nagusitasunaren ideiak sumindu egiten zuen. Bestez, berak aitortu ala ez aitortu, berehala, segituan, bihar, hura ez zen eskierki hondamendiaren jakin gabetan izango; beraz, eszena izugarri hura iguriki beharra zegoen eta haren gogohanditasunaren pisua nozitu. Lheureuxen etxera itzultzeko gogoak eman zion: zertarako ordea? Bere aitari idazteko: berantegi zen; eta agian damutzen hasia zen besteari ez amore eman izanagatik, bidean zaldi baten trosta entzun zuenean. Bera zen, langa irekitzen ari zen, igeltsuzko horma baino zuhailago zegoen. Eskilaretara jauzi eginez, plazan barrena aldegin zuen Emmak bizkor asko; eta alkatearen emazteak, Lestiboudoisekin solasean

ari baitzen elizatarian, zergabiltzailearen etxean sartzen ikusi zuen.

Korrika joan zen madame Caron-i esatea. Bi dama hauek ganbarara igo ziren; eta, haga batzuetan hedaturiko arroparen artean ezkurturik, eroso paratu ziren Bineteneko barnealde osoa ikusmiratzeko.

Binet bakarrik zegoen, bere mandioan, zurez imitatzen bolizko lan deskribakaitz horietako bat, ilargierdiz eta bata bestearen barruan kokaturiko esferaz konposatua, guztia zuzen obelisko bat bezala eta ezertarako balio ez duena; azken zatiari ekiten ari zitzaion, edo burutzen ote? Lanlekuko arginabarretan, hauts gorraila hegaldatzen zen bere lanabesetik, zaldi baten asapalan ferrapetik pindarrezko gandor bat bezala: bi gurrupilak biraka ari ziren, burrundaka; Binet irribarrez ari zen, kokotsa apaldurik, sudurregalak zabalik, eta nonbait galdua zirudien dohatsutasun bete-bete horietako batean, zalantzarik gabe lanbide eskasek bakarrik eragiten duten horretan, zailtasun errazez laketzen baitute adimena eta asetzen baitute eginkizun batean zeinaren haindian ez baitago zertan amesturik.

— Ah! begira hor! esan zuen madame Tuvachek.

Baina ez zen abantzu posible, tornua zela eta, Emmak esaten zuena entzutea.

Halako batean, libera hitza sumatu uste izan zuten dama hauek, eta Tuvache atsoak ahapean xuxurlatu zuen:

— Erreguka ari zaio, bere kontribuzioetan luzamendu bat lortzearren.

— Dirudienez! zioen besteak.

Aldenik alde zebilela ikusi zuten, hormen kontra hautemanetz dafaila-uztaiak, kandela-oinak, eskudel-bolak, Binetek atseginez bere bizarra iguzten zuen bitartean.

— Zerbait enkargatzera etorri ote zaio? esan zuen madame Tuvachek.

— Baina ez du ezer saltzen ordea! argudiatu zion auzoak.

Zergabiltzaileak entzulari planta zeukan, begiak zabal-zabal, ulertuko ez bazukeen bezala. Emmak modu samurrez, erreguka, jarraitzen zuen. Gizonarengana hurbildu zen; bularra hatsanka ari zitzaion; jadanik ez ziren mintzo.

— Limurtu nahiez ari ote zaio? esan zuen madame Tuvachek. Binet gorri zegoen belarrietaraino. Emmak eskuak hartu zizkion.

— Ah! Hau gehiegi da!

Eta dudarik gabe nardabideren bat ari zitzaion proposatzen zeren zergabiltzaileak, — gizon adoretsua zen horratio, Bautzen eta Lutzenen gudukatua, Frantziako kanpaina egina, eta gurutze-dominarako izendatua ere bai— bat-batean, suge bat ikusita bezala, atzera egin baitzuen urrun ere urrun, oihukatuz:

— Madame! hori pentsatzea ere!...

— Horrelako emakumeak zigorkatu beharra legoke! esan zuen madame Tuvachek.

— Non da ordea? hasi zen madame Caron.

Zeren hitz hauen bitartean Emma desagertua baitzen; gero, Grande-Ruetik barrena zihoala eta kanposantura joateko bezala eskuinetara hartzen zuena begiztaturik, aierutan nahastu ziren.

— Etxekoandre, esan zion Rolet atsoari inudearen etxera beltzean, itotzear nago! lasaidazu.

Ohe gainera jausi zen; zotinka ari zen. Rolet atsoak gona batez estali zuen eta zutik geratu



zen bere alboan. Gero, erantzuten ez zuenez, andre gajoa urrundu egin zen, bere gorua hartu zuen eta linoa harilkatzen hasi zen.

— Oh! amai ezazu! murmurikatu zuen, Binen tornua entzuten zuelakoan.

— Nork gogaitzen du? galdetzen zuen inudeak berekiko. Zertara etorri da hona?

Hara joana zen, bere etxetik iraitzen zuen izu molde batek bultzaturik.

Ahazgora etzanik, geldi-geldi eta begiak tinki, uherki bereizten zituen objektuak, horretara bere aditasuna seta inozo batez xedatzen zuen arren. Hormako harrodurak betesten zituen, bi ilati muturrez mutur ketan, eta bere buru gainean habearen arrailduran barrena zebilen armiarma luze bat. Azkenik bildu zituen bere ideiak. Oroitzen zen... Egun batez, Leonekin... Oh! bai urrun geratzen zela... Eguzkiak distira zegien ibaiaren gainean eta aihenzuriei lurrina zerien... Orduan, purrustan doan erreka batean bezala bere oroitzapenetan eramanik, laster heldu zen bezperako egunaz gogoratzerara.

— Ze ordu da? galdetu zuen.

Rolet atsoa irten zen, bere eskuin eskuko behatzak zerua argien zegoen aldera altxatu zituen, eta astiroki itzuli zen esanez:

— Hirurak, laster.

— Ah! Eskerrik asko! eskerrik asko!

Zeren hura etorriko baitzen. Ziur zen! Dirua aurkituta izango zuen. Baina beharbada hara joango zen, bera han ez zegoenik pentsatu ere egin gabe; eta inudeari agindu zion korrika bere etxera joan zedin hura ekartzera.

— Mugi arin!

— Baina, nire dama maitea, banoa! banoa!

Eta Emma harritu egiten zen, orain, lehenik hartaz ez pentsatu izanaz; atzo, bere hitza eman zuen, ez zuen huts egingo; eta jadanik ikusten zuen bere burua Lheureuxen etxean haren bulego-mahaiaren gainean hiru banku-bileteak zabaltzen. Gero, Bovaryri gauzak azaltzeko erako istorio bat asmatu behar izango zen. Zein?

Halatan, inudeari aski luze zihoakion itzultzen. Baina, bordan erlojurik ez zegoenez, Emma beldur zen agian bapikatzen ez ote zuen denboraren luzera. Baratzean harat-honat paseatzen hasi zen, pausoka; bidean barrena joan zen

hesiaren kontra, eta arin itzuli zen, andre gajoa beste bide batetik itzulia izango zen esperantzaz. Azkenik, itxoiten asperturik, hastantzen zituen susmoek erasorik, jada jakin gabe han zuela mende bat edo zuela minutu bat ote zegoen, bazter batean eseri zen eta begiak itxi zituen, belarriak bozatu zituen. Ateak kirrinka egin zuen: Emmak jauzi egin zuen; berak hitz egin baino lehen, Rolet atsoak esana zion:

— Inor ez dago zure etxean!

— Nola?

— Oh! inor ez! Eta nagusia negarrez ari da.

Zuri deika. Zure bila dabilta.

Emmak ez zuen ezer erantzun. Hatsanka zegoen, begiak bere ingurura biraka, eta anartean etxeko emakumea, haren aurpegiaz izuturik, atzeraka ari zen instintiboki, hura zoraturik zegoelakoan. Bat-batean Emmak bekokia zaplatu zuen, garraisi bat bota zuen, zeren Rodolphen oroitzapena, tximist handi bat gau ilunean bezala, iragana baitzitzaien ariman. Hain ona zen hura, hain adeitsua, hain eskuzabala! Eta, bestalde, baldin berari mesede hura egiteko zalantzarik bazuen, berak jakingo zuen noski

hartara behartzen, begiñika bakar batez elkarren arteko amodio galdua gogoraraziz. Beraz Huchette alderantz abiatu zen, zuela gutxi hain bortizki sumindu zuen hartaraxe korrika eskaintzera zihoala ohartu gabe, eta pailardiza hartan tutik ere erreparatu gabe.

## —VIII—

Bidean zihoala bere buruari galdetzen zion: «Zer esan behar dut? Nondik hasiko naiz?» Eta, aurrera zihoan heinean, ezagun kausitzen zituen sasiak, zuhaitzak, muino gaineko itsas-ihia, han aurrean gaztelua. Bere lehen laztantasunaren sentipenetan aurkitzen zen berriro, eta bere bihotz gaixo hertsatua hartan zabaltzen zen amuruski. Haize epelak ematen zion aurpegian; elurra, urtuz, tantaka-tantaka erortzen zen erne-muinetatik belar gainera.

Garai hartan bezala, parkeko are txikitik sartu zen, gero ezki trinkoren bi ilarak inguratzen zuten atari nagusira heldu zen. Haiek beren adar luzeak kulunkatzen zituzten, xixtuka. Zakurtegian zakurrek zaunka egin zuten guztiek, eta haien ahausien istiluak durunda egiten zuen inor azaltzen ez zelarik.

Zurezko barandadun eskilara luze zuzena igo zuen, hautsez betetako harlauzaz zolaturiko loriora zeramana, non irekitzen baitziren zenbait gela ilaran, monastegietan edo ostatueta bezala.

la. Harena muturrean zegoen, erabat zokoan, ezkerretan. Bere behatzak sarrailean pausatu zituenean, indarrek supituan abandonatu egin zuten. Beldur zen hura han ez ote zen izango, ia-ia halaxe zuen desio, alabaina hori zen bere esperantza bakarra, azkeneko salbazio-aukera. Barnebildu zen une batez eta, presenteko beharraren sentimenduan bere adorea teinkatuz, sartu zen.

Rodolphe sutondoan zegoen, bi oinak sutxakur gainean, pipakada bat erretzen.

— Hara! zu zara! esan zuen, brastakoan zutituz.

— Bai, ni naiz!... nik, Rodolphe, aholku bat eskatu nahi nizuke.

Eta, eginahala guztiak arren, ezinezkoa zitzaion ahoa laztatzea.

— Ez zara aldatu, beti ere xarmagarria zara!

— Oh! erantzun zuen Emmak saminki, xarma tristek dira hauek, lagun, zuk erdeinatu zenituenez.

Orduan bere portaeraren esplikazio bati ekin zion Rodolphek, adierazmolde uhertsutan desenkusatzuz, hoberik asmatu ezinean.

Emmak haren mintzoetan katiatzen utzi zion bere buruari, are gehiago haren ahotsean eta haren pertsonaren betespenean; hainbat non sinestearen itxura egin baitzuen, edo agian sine-tsi baitzuen, bien arteko hausturaren estakurua; sekretu bat zen, zeinaren baitan baitzegoen hirugarren pertsona baten ohorea eta bizia bera ere.

— Dena dela! esan zuen Emmak hari goibelki begiratzuz. Ederki sufritu dut!

Tonu filosofiko batez erantzun zuen besteak:

— Horrela da bizialdia!

— Zuretzat bederen, esan zuen Emmak, ona izan al da gure bananketaz gero?

— Oh! ez ona... eta ez txarra.

— Beharbada hobe sekula banandu ez bagina.

— Bai... beharbada!

— Hala iruditzen zaizu? esan zion hurbilduz.

Eta hasperen egin zuen.

— Oh Rodolphe! Bazenek!... Biziki nahi izan zaitut!

Orduan hartu zion Emmak eskua, eta zenbait denboraz behatzak antxumaturik egon ziren, —

lehen egunean bezala, Biltzarretan! Harrotasun adierazpen gisa, Rodolphek borroka zegien hunkiduraren kontra. Baina, haren bularraren kontra abaildurik, Emmak esan zion:

— Nola nahi zenuen ni zu gabe bizitzea? Zorionaren ohitura ezin da galdu! Etsita nengoen! Hilko nintzela uste nuen! Kontatuko dizut hau guztia, ikusiko duzu. Eta zuk, ihes egiten zenuen nigandik!...

Zeren, hiru urte hartan, itzur egiten baitzion arretatsuki, sexu indartsua karakterizatzen duen koldarkeria natural horren ondorioz; eta Emmak buruaren aieru panpoxekin segitzen zuen, kate-me maitemindu batek baino mainuntziago:

— Beste batzuk maite dituzu, esan egia. Oh! ulertzen diet, aizu! barkatzen diet; amainatu egingo zenituen, ni amainatu ninduzun bezala. Zu zara gizona, zu! Maite izanarazteko behar den guztia daukazu. Baina gu berriro hasiko gara, ez? Elkar maitatuko dugu! Hara, barrez ari naiz, zoriontsu naiz!... hitz egin ezazu ba!

Eta ikusteko zoragarri zegoen, malko bat dildilka zeukan begirada harekin, ekaitz baten ura kaliza urdin batean bezala.



Rodolphek bere belaunen gainera erakarri zuen, eta eskugainaz ferekatzen zituen haren adats lauak non, arrastiriko argitan, eguzkiaren azken leinuru bat islatzen baitzen urrezko gezi baten gisa. Emmak bekokia makurtzen zuen; azkenik Rodolphek musu eman zion betazaletan, eztiki, bere ezpainen puntaz.

— Baina negar egin duzu! esan zion. Zergatik?

Emmak intzirika ekin zion. Bere maitasunaren eztanda zela uste izan zuen Rodolphek; dama isiltzen zenez, azken ahalketzat hartu zuen isiltasun hau, eta orduan oihukatu zuen:

— Ah! barkaidazu! zu zara atsegin dudan bakarra. Ergela eta zitala izan naiz! Maite zaitut eta beti maite izango zaitut! Zer duzu? Esantza-zu ba!

Rodolphe belaunikatu egin zen.

— Horra ba!... porrot eginda nago, Rodolphe! Hiru mila libera aurreratu behar didazu!

— Baina... baina..., zioen gizonak astiro-astiro altxatuz, haren karantzak adierazkortasun larria hartzen zuen bitartean.

— Badakizu, jarraitu zuen Emmak agudo, nire senarrak notario baten esku ipinia zuela bere ondasun guztia; hark ihes egin du. Mailegutan hartu izan dugu dirua; bezeroek ez zuten ordaintzen. Bestez, likidazioa bukatu gabe dago; aurre-rago izango dugu dirua. Baina, gaur, hiru mila liberaren faltaz, enbargatu egingo digute; berehalakoan da, oraintxe bertan; eta zure adiskidetasunarekin kontatuz, etorri egin naiz.

— Ah! pentsatu zuen Rodophek, bat-batean zeharo beluri bilakaturik, horretara etorri da!

Azkenik esan zuen planta oso barez:

— Diru horrenik ez daukat, dama maite hori.

Ez zen gezurretan ari. Eduki balu, emango zukeen, dudarik gabe, nahiz eta gehienetan gogaikarri izan horrelako obra onak egitea: diru eskaera bat izaki, maitasunaren gainera erortzen diren ekaitz guztietarik, hotzena eta deserrotaileena.

Emma lehenik begira geratu zitzaion apur batez.

— Ez daukazu!

Behin eta berriz errepikatu zuen:

— Ez daukazu!... Azken lotsa honetatik libratu behar nuen nire burua. Zuk ez nauzu inoiz maite izan! Ez zara bestea baino hobea! Bere burua saltzen ari zen, bere burua galtzen.

Rodolphek moztu egin zuen, bera ere «estu» zebilela baieztatuz.

— Ah! erruki zaitut! esan zion Emmak. Bai, dexente!...

Eta, panoplían distiratzén zuen karabina damaskinatu batean begiak pausatúrik:

— Baina, hain behartsua izanez gero, ez da zilarrik jartzen fusilaren kulatan! Ez da erosten karei-inkrustaziozko erlojurik! segitzen zuen Emmak Boule dilindordua seinalatuz; ezta zilar-gorritzko txilínik zaharoetarako —ukitu egiten zituen!— ez girgilik bere erlojurako! Oh! ezer ez zaio falta! baita likore-toxa bat ere bere gelan; zeren, mizkintzen duzu zeure burua, ongi bizi zara, baduzu gaztelu bat, zenbait etxalde, basoak; oihanik oihan egiten duzu ehizan, Parisera joaten zara... Eta hauxe besterik izan ezean ere, oihukatu zuen beheko-suaren pantetxetik haren besomuturretako txirbiuak hartuz, huskeria hauetariko kaxkarrena bera! honetatik dirua

egin daiteke!... Oh! diru horrenik ez dut nahi!  
gorde itzazu.

Eta urruti jaurtiki zituen bi txirbiuak, zeintzuen urrezko katea puskatu egin baitzen hormaren kontra jotzean.

— Baina, nik ordea, dena emango nizukeen, dena salduko nukeen, nire eskuez lan egingo nukeen, bidez bide eskean ibiliko nintzatekeen, zure irriño baten truke, begirada baten truke, zuri esaten entzutearren: «Mila esker!» Eta zu hor geratzen zara lasai asko zure besaulkian, dagoeneko nahikoa sufriarazi ez bazenit bezala! Zu gabe, ongi dakizu hori, oso zoriontsu bizi nintzatekeen! Nork behartzen zintuen? Erronka bat al zen? Alabaina maite ninduzun, hala zenion... Eta oraindik duela gutxi ere... Ah! kanpora bota baninduzu hobe! Eskuak beroak dauzkat zure musuez, eta horra tokia, tapizaren gainean, nire belaunetan amodiozko betikotasuna zin egiten zenidana. Sinetsarazi egin zenidan: bi urtetan zehar ametsik zoragarrienean eta gozoenean errestatu nauzu!... Eh? gure bidai asmoak, gogotan dituzu? Oh! zure gutuna, zure gutuna! hark zarratatu zidan bihotza! Eta gero, beregana itzu-

li naizenean, beregana, aberats, zorientsu, libre den honengana! edozein morroik eskainiko lukeen laguntza baten eske, erreguka eta nire laztantasan guztia berari bihurtuz, berak zaputz egiten dit, hori hiru mila libera kostako litzaio-keelako!

— Ez dauzkat! erantzun zuen Rodolphek, haserre etsituak, ezkutu batez bezala, estaltzen diren baretasan biribil horrekin.

Emma irten egin zen. Hormek dardar zegiten, sabaiak zanpatu egiten zuen; eta berriro ere ibilbide luzean barrena iragan zen, haizeak sakabatatzen zituen orbel-pilen kontra tupustaka. Heldu zen noizbaitekoan burdin-arekaren aurreko arroilera; azkazalak puskatu zituen sarrailaren kontra, hainbestexek presatzen zen hura irekitzen. Gero, ehun urrats aurrerago, hatsanturik, erortzeko zorian, gelditu egin zen. Eta orduan, birakaturik, hauteman zuen beste behin ere gaztelu soraioa, bere parkearekin, jardinekin, hiru larrainekin, eta aurrealdeko leiho guztiekin.

Baldiduraz konkorturik geratu zen, jada bere buruaren kontzientziarik gabe bere zainetako taupadengatik beste, zeinak ihes egiten entzun

uste baitzituen landa betetzen zuen musika burrunbatsu baten gisa. Zola, bere omenpean, uhin bat baino begatsagoa zen, eta ildoak egundoko olatu arreak iruditu zitzaizkion, zapartaka. Bere buruan zegoen oroitarrastorik, ideiarik orok aldi berean aldegiten zion, jauzi bat beraz, supesta bateko mila puskaren gisa. Ikusi zuen bere aita, Lheureuxen kabineta, beren gela han nonbait, beste paisaia bat. Eromenak jotzen zuen, beldur izan zen, lortu zuen bere onera bihurtzea, nahiz eta dudamudatsu, egia esan; zeren jadanik ez zen oroitzen bere egoera izugarriaren zergatiaz, diru arazoaz alegia. Ez zuen sufritzen bere maitasunaz baino, eta arima bere burua abandonatzen sentitzen zuen oroitzapen hartan barrena, nola zaurituek, azkenetan, sentitzen baituten existentzia badoala odola darion zauritik.

Gaua sartzen ari zen, belatxingak hegan zebiltzan.

Bat-batean iruditu zitzaion, su koloreko bonboilotxoak lehertzen zirela airean bala birrintzailak gisa zanpatuz, eta jirabiraka zebiltzan, jirabiraka, elurretan funditzera joateko, zuhaitzen

adarren artean. Haietako bakoitzaren erdian, Rodolpheren aurpegia ageri zen. Ugalduegin ziren, eta hurbiltzen ari ziren, sartu egiten zitzaizkion; dena desagertu zen. Etxeetako argiak hauteman zituen, urrunetik distiraka laino artean.

Orduan azaldu zitzaion, leize baten gisa, bere egoera. Hatsanka ari zen bularra zartatzeko zorian. Gero, ia bozkariotsu bihurtzen zuen heroismo bulta batean, korrika jaitsi zuen aldapa, gero behientzako ohola zeharkatu zuen, bidexka, bidezabala, azoka, eta botikarioaren dendaren aurrera heldu zen.

Ez zegoen inor. Sartzera zihoan; baina, txilinararen hotsera, norbait etor zitekeen; eta, hesitik barrena lerratuz, arnasari eutsiz, hormak haztamukatuz, aurreratu zen, labe gainean ipinita kandela piztu bat zegoen sukaldeko atalazeraino. Justinek, mahukutsik, erratilu bat zeraman.

— Ah! afaltzen ari dira. Itxoin dezagun.

Itzuli zen Justin. Emmak kax-kax jo zuen leirraren kontra. Justin irten zen.

— Giltza! han goikoa, zerak daudenekoa...

— Nolaz!

Eta so egiten zion, zeharo harriturik haren aurpegiaren beluriaz, zeina zuriz trenkatzen baitzen gauaren zola beltzaren gainean. Aparteko ederra kausitu zuen, eta mamu bat bezala maiestuosa; zen nahi ote zuen ulertu gabe, zerbait izugarria sumatzen zuen Justinek alde zurretik.

Biziro mintzatu zen Emma, ahapeka, ahots ezti, disolbakor batez:

— Nahi dut giltza hori! Emaidazu.

Trenkada mehea zenez, sardesken zarata entzuten zen plateren kontra jangelan.

Lo egitea eragozten zioten arratoiak hil behar omen zituela zioen Emmak.

— Nagusiari hots egin beharko nioke.

— Ez! egon hemen!

Gero, ezaxolatuaren tankeraz:

— Bah! ez du merezi, neuk esango diot geroxeago. Goazen, argi egidazu!

Laborategiko atea irekitzen zen korridorera sartu zen Emma.

Hormakontran giltza bat zegoen *Capharnaum* etiketarekin.



— Justin! oihukatu zuen botikarioak, ernegatzen.

— Goazen gora!

Eta Justinek atzetik segitu zion.

Giltzak bira egin zuen sarrailean, eta Emma zuzen joan zen hirugarren apalerantz, hain ongi ere gidatzen baitzuen bere oroipenak, atxiki zuen poto urdina, erauzi zion tapoia, bertan sartu zuen eskua, eta, hauts zuri batez beterik aterata, hura jateari ekin zion beste gabe.

— Geldi! oihukatu zion Justinek bere gainera jauzi eginez.

— Ixo! norbait etor daiteke...

Justin etsipenak jota zegoen, deitu egin nahi zuen.

— Ez ezazu ezer esan, zure nagusiari leporatuko liokete dena!

Gero Emma itzuli zen bat-batean bareturik, eta betebegar bat burutu izanaren lasaitasunean ia-ia.

Charles, atxikipenaren berriak aztoraturik, etxera itzuli zenean, Emma bertatik irten berria zen. Charlesek garrasi, negar, alditxar egin zuen, baina Emma ez zen itzuli. Non izan zitekeen?

Felicite bidali zuen Homaisenera, M. Tuvacheren etxera, Lheurexenera, *Lion d'Or*-era, alde guztietara; eta, bere estularriaren etenguneetan, bere aipua deuseztaturik ikusten zuen, beren ondasuna galdurik, Bertheren etorkizuna birrindurik! Eta zergatik!... ezta txintik ere! Zain egon zen arratsaldeko seiak arte. Azkenik, gehiago ezin eutsirik, eta Emma Rouenera abiatua zela pentsatuz, errepidean barrena joan zen, legoa erdi bat egin zuen, inor ez zuen topatu, artean ere zain egon zen eta itzuli egin zen.

Emma itzulia zen.

— Zer gertatzen zen?... Zergatik?... Esplikadazu!...

Emma bere idazmahaira eseri zen, gutun bat idatzi eta astiro zigilatu zuen, eguneko data eta ordua erantsiz. Ondoren solemnitetez esan zuen:

— Bihar irakurriko duzu; ordura arte, mese-dez, ezidazu galdera bat bera ere egin!... Ez, bakar batik ere!

— Baina...

— Oh! utz nazazu!

Eta luze-luze etzan zen bere ohearen gainean.

Ahoan sentitzen zuen keru garratz batek iratzarri zuen. Charles erdikusi zuen eta berriro begiak itxi zituen.

Jakinguraz barrandatzen zuen bere burua, sufritzen ez ote zuen hautemateko. Baina ez! artean ezer ez. Entzuten zuen erlojuaren tikitaka, suaren hotsa, eta Charles, bere etzanguearen ondoan zutik, arnasa hartzen.

— Ah! benetan gauza gutxi da heriotzea! pentsatzen zuen. Loak hartuko nau eta kito dena! Ur hurrupa bat edan zuen eta hormarantz jiratu zen.

Tinta zapore higuigarri hark segitzen zuen.

— Egariak nago!... Egundoko egarria daukat! egin zuen hasperen.

— Zer duzu ba? zioen Charlesekin edalontzi bat luzatuz.

— Ez da ezer!... Ireki leihoa... ito egiten naiz!

Eta goragaleak eman zion, hain supituan non doi-doi izan baitzuen astia burukopetik bere musuzapia hartzeko.

— Kentzazu! esan zuen biziro; bota ezazu!

Charles galdezka hasi zitzaion; berak ez zuen erantzun. Ekuru zegoen, zirrara txikienak oka eragingo ez ote zion beldur. Hartan, izotzaren hotza sentitzen zuen, oinetatik bihotzeraino igotzen zitzaiola.

— Ah! hasi da, bai! murmurikatu zuen.

— Zer esaten duzu?

Emmak burua birakatzen zuen higikera ezti batez, larriduraz beterik, aldi berean ahoa eten-gabe irekiz, bere mihi ganean gauza oso astunen bat eraman izan balu bezala. Zortzietan okadak berriro hasi ziren.

Charlesek nabaritu zuen, konketaren hondotan hondar zuri antzeko zerbait zegoela, portzelanaren alboei erantsirik.

— Harrigarria da! bitxia da! errepikatu zuen.

Baina Emmak ahots ozen batez esan zuen:

— Ez, oker zaude!

Orduan, emekiro eta ia ferekatuz bezala, urdail ganean pasatu zion eskua. Garrasi zorrotz bat jaurtiki zuen Emmak. Atzera egin zuen Charlesek zeharo izuturik.

Gero Emma intzirinka hasi zen, motelki lehenik. Dardarizo handi batek astintzen zizkion sor-

baldak, eta haren behatz kakotuak tinkatzen ziren izarak baino zurikailago ari zen bilakatzen. Haren pultsua, desorekatua, ia sumaezinekoa zen orain.

Izerdia tantaka zerion, lurrun metalikozko hasperen batean finkatua zirudien haren aurpegiari. Haren hortzak klasketaka ari ziren, haren begi handiagotuek uherkiro so egiten zuten bere ingurura, eta galdera guztiei ez zien erantzuten burua mugituz beste; irribarre ere egin zuen bi edo hirutan. Poliki-poliki, haren heiagorak ozenagoak izan ziren. Alarau helkor bat jalgi zitzaion; hobeto omen zihoala zioen, eta berehala jaikiko zela. Baina dardarizoez harrapatu zuten; eta oihukatu zuen:

— Ah! hau izugarria da, ene Jainkoa!

Charles belauniko jaurtiki zen oheraren kontra.

— Mintza zaitez! zer jan duzu? Erantzun ezazu, Jainkoaren izenean!

Emmak sekula ikusi ez bezalako samurdurazko begiez so egiten zion Charleseki.

— Horra ba, hor... hor!... esan zuen Emmak ahots ahulbera batez.

Idazmahaira habailatu zen Charles, zigilua urratu zuen eta ozenki irakurri zuen! *Ez dezatela inor salatu...* Gelditu egin zen, eskua begien gainean pasatu zuen, eta berriro irakurri zuen.

— Nola! Lagundu! Lagundu niri!

Eta hitz hau errepikatu besterik ezin zuen: «Pozoindu! pozoindu!» Felicite Homaisen etxera joan zen korrika, eta honek plazan oihukatu zuen; madame Lefrançoisek entzun zuen *Lion d'Or*-etik; batzuk jaiki ziren beren auzokoei adierazteko, eta gau osoan herria esna egon zen.

Konkorturik, zezelka, erortzeko zorian, Charles bueltaka zebilen gelan. Altzarien kontra tupust egiten zuen, ileak erauzten zituen, eta botikarioak sekula ez zukeen sinetsiko halako ikuskizun izugarririk izan zitekeenik.

Bere etxera itzuli zen M. Canivet-i eta Lariviere doktoeari idaztera. Burua galtzen zuen; hamabost zirriborro baino gehiago egin zituen. Hippolyte Neufchatelera abiatu zen, eta Justinek hain bortizki ezproinatu zuen Bovaryren zaldia non Bois-Guillaumeko aldapan utzi baitzuen, ahiturik eta zeharo leherturik.

Charlesek bere medikuntza-hiztegia gainbegiratu nahi izan zuen; ez zuen ikusten, lerroek dantza egiten zuten.

— Lasai! zioen botikarioak. Antidoto indartsuren bat eman besterik ez dago. Zein da pozoina?

Charlesek gutuna erakutsi zion. Arsenikoa zen.

— Ea ba! berriro Homaisek, horren analisia egin beharko litzateke.

Zeren hark bai baitzekien, pozoinadura guztietan analisia egin behar dela; eta besteak, ez baitzuen ulertzen, erantzun zuen:

— Ah! egintzazu! egintzazu! salba ezazu...

Gero, Emmaren ondora itzulirik, lurrean uzkuritu zen tapizaren gainean, eta han geratu zen burua haren oheko ertzaren kontra tinkaturik, zotinka.

— Ez ezazu negarrik egin! esan zion Emmak. Laster ez zaitut gehiago penatuko!

— Zergatik? Nork behartu zaitu?

Emmak ihardetsi zuen:

— Beharrezkoa zen, lagun.

— Ez al zinen zoriontsu? Nire errua al da? Nik egin dut ba ordea, ahal nuen guztia!

— Bai..., egia da..., zu bai, zu ona zara!

Eta eskua pasatzen zion ile artetik, geldiro. Sentsazio honen ez-titasunak astunago bihurtzen zuen bere tristura; bere izate osoa etsipenez lur-jotzen sentitzen zuen galdu behar zuela pentsatzean, noiz eta Emmak, aitzitik, bereganako sekula baino maitasun handiagoa aitortzen zue-nean; eta berak ez zuen ezer aurkitzen; berak ez zekien, ez zen ausartzen, berehalako irtenbide baten hertsamenduak azken erremateraino nahasten zuelarik.

Bukatuak zituen, pentsatzen zuen Emmak, hagarantzen zuten traizioak, purtzilkeriak eta ezin konta alako irritsak. Orain ez zuen inor gorrotatzen; bere pentsamenduan arrastiriko nahastura ari zen abailtzen, eta lurbirako zarata guztietarik Emmak ez zuen entzuten bihotz gaixo haren auhen aldizkatua baino, ezti eta zehazgabea, urruntzen doan sinfonia baten azken oihartzuna antzo.

— Ekarridazue haurra, esan zuen ukondoaz altxatuz.

— Okerrago ez zaude, ez da? galdetu zion Charleseki.



— Ez! ez!

Neskamearen besoetan heldu zen haurra, kamixoi luzez jantzirik, bertatik oin biluziak ateratzen zitzaizkiola, serio eta ia ametsetan artean. Harriduraz hautematen zuen gela dena azpikoz gain, eta begiez ñika zegien, altzarien gainean pizturik zeuden zuziek itsuturik. Hauek Urteberrietako edo «mi-carême»ko goizak gogorazten zizkioten nonbait, orduan etortzen baitzen, horrela goiz esnaturik kandelen argitan, bere amaren ohera bere opariak jasotzera, zeren galdezka hasi baitzen:

— Non da ba, ama?

Eta mundu guztia isiltzen zenez:

— Baina ez dut ikusten nire zapata txikia.

Felicitek oherantz makurtzen zuen, haurrak aldiz tximini alderantz begiratzen zuen beti ere.

— Inudeak hartu ote du? galdetu zuen.

Eta, izen hau entzutean, bere adulterioen eta bere zorigaitzen oroitzapenetara eramaten baitzuen, madame Bovaryk burua jiratu zuen, ahora igotzen zitzaion beste pozoiz bortitzago baten higuinez bezala. Berthe, bitartean, ohe gainean pausaturik zegoen.

— Oh! ze begi handiak dituzun, ama! ze zurbil zauden! zenbat izerdi!

Bere amak so egiten zion.

— Beldurrak nago! esan zuen haurrak atzera eginez.

Emmak eskua hartu zion musu emateko; haurrak zaputz egiten zion.

— Aski da! eraman dezatela! oihukatu zuen Charlesek, zeina etzanguan zotinka ari baitzen.

Gero sintomak baretu egin ziren momentu batez; bazirudien egonezin gutxiago zuela; eta, hutsaren hurrengo mintzo bakoitzeko, haren bularraren arnasa lasaixeago bakoitzeko, Charlesi itxaropena pizten zitzaion berriro. Azkenik, Canivet sartu zenean, haren besoetara jausi zen negarrez.

— Ah! zu zara! mila esker! zu ona zara! Baina dena hobeto doa. Horra, hegira...

Ofiziokidea ez zen inolaz ere iritzi berekoa, eta, berak esan ohi zuen bezala, *inguru-minguru ibiltzen ez zenez*, emetiko bat preskribatu zuen, urdaila erabat garbitzeko.

Emmari ez zitzaion luze joan odola okatzeko. Bere ezpainak are gehiago hertsu ziren. Men-

bruak kuzkurturik zeuzkan, gorputza orban uherrez estalirik, eta bere pultsua behatzen pean labaintzen zen hari teinkatu baten gisa, harpa hari bat eteteko zorian bezala.

Gero garrasika hasten zen, izugarri. Pozoia madarikatzen zuen, ahakar egiten zion, presa zedin erregutzen zion, eta bere beso zurrunduez hastantzen zuen, Charles, bera baino hiltzorikogo, edanarazten saiatzen zitzaion oro. Gizona zutik zegoen, bere musuzapia ezpainetan, itolarrika, negarrez, orpoetaraino inarrosten zuten negar-zotinek hatsanturik. Felicite hara eta hona zebilen korrika gelan; Homaisek, geldi-geldi, hasperen handiak botatzen zituen, eta M. Canivet, beti ere bere zentzunaren jabe, hasia zen horratio artegaturik sentitzen.

— Deabrua!... halere... purgatu dugu ba, eta, kausa eten denez gero...

— Ondorioa eten egin behar da, esan zuen Homaisek; hori bistakoa da.

— Baina salba ezazu! oihukatzen zuen Bovaryk.

Hartan, botikarioari entzun gabe, zeina artean hipotesi han menturatzen ari baitzen:

«Paroxismo osasungarri bat da agian», Canivet bazihoan teriaka ematera, zaharo baten klaskatkoa entzun zenean; leiar guztiek dardar egin zuten, era posta-berlina bat, lohiez belarrietaraino betetako hiru zaldik habailan zeramatela, jauzi batean oldartu zen merkatuko ertzean. Lariviere doktorea zen.

Jainko baten agerketak ez zukeen eragingo zirrara handiagorik. Bovaryk eskuak altxatu zituen, Canivet plott gelditu zen, eta Homaisek bere boneta greziarra doktorea sartu baino dexente lehenago erantzi zuen.

Bichaten amantaletik irtendako kirurgia-eskola handiko partaide zen, sendagile filosofo-  
ren jada desagertutako belaunaldi hartakoa zein-  
nek beren artea, maitasun fanatiko batez  
kuttunduz, handiespenez eta zorroztasunez egi-  
karitzen baitzuten! Oro ikaratzen zen haren ospi-  
talean hura haserretzen zenean, eta haren ikas-  
leek hainbaterainoko benerazioa zioten non,  
bakoitza bere lanean finkatu orduko, ahalik eta  
gehien hura imitatzen ahalegintzen baitziren;  
horrela kausitu ohi ziren haien soinean, ingurue-  
tako herrietan, haren merinuzko berokia eta

haren jantzi beltz zabala, besomutur askatuek esku mamitsuak pixka bat estaltzen zizkiotela, inoiz eskularrurik ez zeukaten esku benetan eder haiek, miserietan murgiltzeko prestuago egotearren bezala. Gurutze, titulu eta akademiekiko arbuiati, behartsuekiko abegikor, liberal eta paternala, eta birtutea sinetsi ez arren praktikatuz, santutzat abantzu pasa zitekeen baldin eta bere izpirituaren zorrotzasunak deabru baten gisa beldurra sorrarazi ez balio. Haren begirada, bere bisturiak baino ebakileagoa, zuzen jaisten zitzaizun arimaren barnera eta estakuru eta ahalkeetatik barrena gezur oro desmoldatzen zuen. Eta horrela ibiltzen zen, talentu handiaren kontzientziak, ondasunak eta existentzia langile eta akasgabe bateko berrogei urtek ematen duten maiestate onbera horretaz beterik.

Bekozko iluna ipini zuen atetik bertatik, Emmaren aurpegi gorpuplantakoa ikustean, bizkarrez etzanik, ahoa zabalik. Gero, itxuraz Caniveti entzunez beti ere, behatz erakuslea sudurpetik pasatzen zuen eta errepikatzen zuen:

— Ongi da, ongi da.

Baina sorbaldez keinu astitsu bat egin zuen. Bovaryk hauteman zuen: elkarri begiratu zioten; eta gizon honek, oinazeen eretzera hain ohitua alabaina, ezin izan zion eutsi paparrera erori zitzaion malko bati.

Canivet alboko gelara eraman nahi izan zuen. Charles jarraiki zitzaion.

— Benetan gaizki dago, ez da? Eta txaplata batzuk ipini ezker? ez dakit ba! Zerbait topa ezazu behintzat, hainbat salbatu izan dituzu eta!

Charlesek bere bi besoez inguratzen zion gorputza, eta era laborritsu batean begiratzen zion, erregukari, haren bularraren kontra txundioak erdijota.

— Ea ba, nire ume hori, izan adorea! Ez dago zer eginik.

Eta Lariviere doktorea aldendu egin zen.

— Bazoaz?

— Itzuliko naiz.

Irten zen, zaltzainari agindu bat ematera bezala, Canivet jaunarekin, zeina ez baitzen bera ere Emma bere eskuen artean hiltzen ikusteko peskizan.

Plazan bildu zitzairen botikarioa. Ezin zen, temperamentuz, pertsona ospetsuengandik alden du. Hortaz arren eskatu zion M. Lariviereri, berean bazkaltzea onartzearen ohore paregabea egin ziezaion.

Laster bidali zituzten usapal bila *Lion d'Or*-era, aukeran aukerako txuleta bila harategira, Tuvacherenetik krema, Lestiboudoisenetik arraultzeak, eta botikarioak berak laguntzen zuen antolaketan, madame Homaisek esaten zuen bitartean, bere gerrontzearen kordioak teinkatuz:

— Barkatuko al diguzu, jauna; zeren, gure zorigaiztoko herrialde honetan, baldin eta bezperatik jakinean jarri ezean...

— Godalet zangodunak!!! xuxurlatu zuen Homaisek.

— Gutxienez ere, hirian bagina, hankatxa beteak jartzeko modua izango genuke.

— Zaude isilik!... Mahaira, doktore!

Ongi iritzi zion, lehen mokaduen ondoren, katastrofeari buruz zenbait xehetasun hornitzea-ri.

— Lehenik eduki dugu idortasun sentimendu bat faringean, gero jasanezineko oinazeak epigastrioan, superpurgazioa, koma.

— Nola pozoindu da ordea?

— Nik ez dakit, doktore, eta gainera azido arseniko hori non eskuratu ahal izan duen ere bat ere garbi ez dakit.

Justin, plater pila bat baitzekarren anartean, dardarizoak jo zuen.

— Zer duzu zuk? galdetu zuen botikarioak.

Mutil gazteak, galdera entzunik, dena lurrera erortzen utzi zuen, zarata handiz.

— Txaldana! oihukatu zuen Homaisek, baldarra! traketsa! Astapikua!

Baina, bat-batean, bere onera itzuliz:

— Analisi bat entseiatu nahi izan dut, doktore, eta «primo», tentu handiz sartu dut hodi batean...

— Hobe zenukeen, esan zuen kirurgilariak, zure behatzak sartu bazenizkio eztarrian behera.

Bere ofiziokidea isilik zegoen, arestian jaso baitzuen konfidentzialki jorratu eder bat bere emetikoa zela medio, eta beraz Canivet gizajoa, zango okerrarenekoan hain harro eta hiztuna,



oso apal zebilen gaurkoan; irribarrea zegien ete-  
nik gabe, baiespen modura.

Homais zabal-zabal zebilen bere anfitrioi-  
harrotasunean, eta Bovaryren ideia mingarriak  
lagundu egiten zion nolabait ere bere plazerera,  
berekiko egiten zuen irauldura egoista baten  
bidez. Gainera Doktoarearen presentziak birloratu  
egiten zuen. Bere erudizioa hedatzen zuen,  
nahas-mahas aipatzen zituen errauliak, upas,  
mantzaniloa, sugedorria...

— Eta irakurria ere badut, zenbait pertsona  
pozoindurik suertatu zela, doktore, eta tximistak  
jota bezala, keatze bortitzegia jasan zuten odol-  
ki batzuk medio! Hori zioen behintzat txosten  
biziki eder batean, gure farmazilari gorenetariko  
batek egina, gure maisuetako batek, Cadet de  
Gassicourt ospetsuak!

Madame Homais azaldu zen berriro, ardo-  
izpirituarekin berotzen diren makina kordokari  
horietariko bat zeramala; zeren Homais kafea  
mahaian bertan egiten tematzen baitzen, bestal-  
de gainera berak xigortua, berak porfidizatua,  
berak nahasia.

— *Saccharum*, doktore, esan zuen azukrea eskainiz.

Gero bere haur guztiak jaitsiarazi zituen, haien larrantzari buruz kirurgilariaren iritzia jakiteko guraz.

Hartan, M. Lariviere abiatzera zihoan, madame Homaisek bere senarrarentzat kontsulta eskatu zionean. Hainbestearino ari zitzaion *odola* (sang) loditzen non gauero afalondoan loak hartzen baitzuen.

— Oh! gaitzitzen duena ez da *zentzua* (sens).

Eta, oharkabeko ateraldi honetaz irribarretxo bat eginez, doktoreak atea ireki zuen. Baina farmazia jendez gainezka zegoen eta nahiko lan izan zuen libratzen Tuvache jaunarengandik, zeina bere emaztearengatik beldur baitzen bular-jarioren bat ez ote zuen, zeren errautsetara ttuka aritzeko ohitura baitzeukan; gero M. Binetengandik, zeinak sabelzorriak sentitzen baitzituen batzuetan, eta madame Caronengandik, zeinak hazkureak baitzeuzkan; eta Lheureuxengandik, zeinak zorabioak izaten baitzituen; Lestiboudoisengandik, zeinak erreumaidea bai-

tzeukan; madame Lefrançoisengandik, zeinak bihotzerrea izaten baitzuen.

Noizbaitekoan oldartu ziren hiru zaldiak, eta jendeak oro har kausitu zuen, doktorea ez zela oso abegikor azaldu.

Olio santuekin azokapetik barrena iragaiten ari zen Bournisien jaunaren agerkuntzak lekortu zuen atentzio publikoa.

Homaisek, bere printzipioei hala baitzegokien, hildakoen usainak erakartzen dituen belee-kin erkatu zituen apaizak; elizgizon bat ikustea berari pertsonalki desatsegina zitzaion, zeren sotanak beztidura gogorarazten baitzion, eta biguin zuen bata apur bat bestearen ohildura-rengatik.

Alabaina, *bere misioa* zeritzan haren aurrean atzera egin gabe, Bovaryren etxera itzuli zen Canivetekin batera, zeina M. Larivierek, abiatu aurrez, biziki ardurarazi baitzuen eginkizun horretaz; eta, bere emaztearen mukerduraren-gatik izan ezean, berarekin eramango zituzkeen bere bi haurrak ere, ingurugiro bortitzetara ohi-tzearren, hura aurrerantzean buruan geratuko

zitzaian lezio bat, exenplu bat, irudi solemne bat izan zedin.

Gela, haiek sartu zirenean, solemnitare goibel batez gainezka zegoen. Jostun-mahaiaren gainean, zapi zuri batez estalia, algodoizko bos-pasei matazatxo zeuden zilarrezko erretilu batean, gurutze handikote baten ondoan, piztu-tako bi kandelargiren erdian. Emmak, kokotsa bere bularraren kontra, larregi zabaltzen zituen betazalak: eta bere esku gaixoak izaren gainean errestatzen ziren, jadanik hilmihisez estali nahiez diruditen hiltzorikoen keinu izugarri eta leun horrekin. Estatu bat bezain zurbil, eta begiak gorri txingar batzuen gisa, Charles, negarrik gabe, Emmaren aurrez aurre zegoen ohearen oinean, eta apaizak bitartean, belaun batez tinkaturik, mintzoak murmurikatzen zituen aha-pean.

Emmak aurpegia jiratu zuen poliki-poliki, eta bazirudien bozkarioz bete zela bat-batean estola morea ikustean, nonbait aparteko otzandura baten erdian kausituz bere lehen bulta mistikoe-tako boluptuostasun galdua, hasten ari ziren betirako dohatsutasunaren ikuspeneekin batera.

Apaiza altxatu egin zen gurutzera hartzera; orduan Emmak lepoa luzatu zuen egarri den norbaiten gisa, eta, Jainko-Gizonaren gorputzaren gainean bere ezpainak erantsiz, hantxe ipini zuen bere hiltzori-indar guztiaz berak sekula emandako amodio-musurik handiena. Ondoren *Misereatur* eta *Indulgentiam* errezitatu zituen apaizak, bere eskuin erpurua oliotan busti zuen eta azkenigurtziei ekin zien: lehenik begien gainean, zeinek hainbat grinatu baitzituzten soberrantzia lurtar guztiak; gero sudurregaletan, haitzekirri epelen eta amodio-lurrinen irrikati hailetan; gero ahoaren gainean, zeina gezurretarako ireki izan baitzen, harrokeriaz deitoratu eta haragikeriatan garrasi egina baitzen; gero eskuen gainean, zeinek ukimendu leunetan atsegin hartzen baitzuten, eta azkenik oin-zoletan, hain arinak garai batean bere irritsen asetzerako korrika zihoanean, eta jadanik gehiago ibiliko ez zirenetan.

Apaizak behatzak xukatu zituen, olioak bustitako algodoi-matazako surtara bota zituen, eta hiltzorikoaren alboan esertzera itzuli zen, orain bere sufrimenduak Jesukristorenekin elkartu

behar zituela eta bere burua Jainkoaren urrikal-  
menduaren esku abandonatu behar zuela esate-  
ra.

Hartan bere aholkuak bukatuz, hari eskuetan  
kandela bedeinkatu bat ipintzen saiatu zen, las-  
ter inguratuko zuten dohatasun zerutiarren sin-  
bolo. Emmak, ahulegi kausitzen, ezin izan zituen  
behatzak hertsu, eta kandela, M. Bournisien izan  
ezean, lurrera eroria zatekeen.

Halere Emma ez zegoen hain zuhail, eta bere  
aurpegiak narotasunezko eitea zeukan, sakra-  
mentuak sendatu balu bezala.

Apaizak ez zion hutsean utzi horren oharkun-  
tza egiteari; esplikatuz ere egin zion Bovaryri, Jau-  
nak batzuetan luzatu ere egiten zuela pertsonen  
bizialdia salbaziorako komenigarria iruditzen  
zitzaiotzan; eta Charles beste egun hartaz oroitu  
zen non, horrela hiltzeko zorian, Emmak jau-  
nartu baitzuen.

— Agian ez zegoen zertan etsiturik, pentsatu  
zuen.

Eskierki, Emmak bere ingurura so egin zuen,  
geldiro, amets batetik esnatzen den batek beza-  
la, gero, ahots garbi batez, bere ispilua eskatu

zuen, eta hartan pausaturik egon zen zenbait denboraz; harik eta begietatik malko mardul batzuk isuri zitzaizkion arte. Orduan eratzan zuen burua hasperen bat jaurtikiz eta berriro burukoaren gainera erori zen.

Haren bularra berehala hasi zen presaka hatsantzen. Mihia oso-osorik irten zitzaion ahotik kanpora; haren begiak, biraka, itzaltzen ari diren lanpara-bonboilo biren gisa margultzen ziren, jada hiltzat emateko moduan, saihetsen ziztu beldurgarriarengatik ezean, arnasketa zakar batek astinduak, arima jauzika ari bailitzan jalgitzearren. Felicite gurutzaren aurrean belaunikatu zen, eta botikarioak berak ere plegatu zituen apur bat zangoak, M. Canivetek ezarian plazara begiratzen zuen bitartean. Bournisien hasia zen berriro errezotan, aurpegia etzanguertzaren kontra makurturik, bere sotana beltz luzea bere atzetik gelan arrastaka zuela. Charles beste aldean zegoen, belauniko, besoak Emma-rengana luzaturik. Haren eskuak hartuak zituen eta estutu egiten zizkion, haren bihotzaren tau-pada bakoitzeko zirgit eginez, erortzen den deboilu baten kontrakolpeka bezala. Karranka

bortitzagoa bilakatzen zen heinean, elizgizonak bere otoitzak lasterragotzen zituen: hauek Bovaryren zotin itoekin nahasten ziren, eta batzuetan dena desagerturik zirudien, hilkanpai baten gisa tilinkatzen zuten latinezko silaben murmurio gorberatan.

Bat-batean, eskalaproin handi batzuen zarata entzun zen espalogainean, makila baten errestararekin batera; eta ahots bat altxatu zen, ahots erlats bat, kantari:

*Souvent la chaleur d'un beau jour  
Fait rêver fillette à l'amour.*

Emma altxatu egin zen galbanizatzen den gorpu baten gisa, ileak deslaian, betseina finko, ahozabalik.

*Pour amasser diligemment  
Les épis que la faux moissonne,  
Ma Nanette va s'inclinant  
Vers le sillon qui nous les donne.*

— Itsua! oihukatu zuen.



Eta Emma barrez hasi zen, barre itzel, zoroska, etsitu batez, dohakabearen aurpegi gogaikarria ikusi ustetan, ilunbe eternaletan zutitzen bidutzi baten gisa.

*Il souffla bien fort ce jour-là,  
et le jupon court s'envola!*

Dardaizo batek eraitsi zuen berriro lumatxa gainera. Guztiak hurbildu ziren. Jadanik ez zuen existitzen.

Beti izaten da, norbaiten heriotzaren ondoren, jalgitzen den baldidura bat bezala, hain da izan ere zail deusezaren jazokuntza hau ulertzea eta sinestera etsitzea. Baina, baten mugiezinaz ohartu zenean ordea, Charles Emmaren gainera jausi zen garraisika:

— Adio! adio!

Homaisek eta Canivetek eraman zuten gela-tik kanpora.

— Erresi zaitez!

— Bai, zioen hark aharran, zuhurra izango naiz, ez dut ezer txarrik egingo. Baina utz nazazue! ikusi egin nahi dut! nire emaztea da! Eta negar egiten zuen.

— Egizu negar, zioen botikarioak, libratu bidea naturari, horrek lasaitu egingo zaitu!

Haur bat baino ahulago bilakaturik, behera eramaten utzi zien, eskaratzera, eta M. Homais, berehala, bere etxera itzuli zen.

Plazan, itsua hurreratu zitzaion, zeinak, Yonvilleraino errestan etorririk, ukendu antiflogisti-

koaren esperantzaz, bidari bakoitzari galdetzen baitzion botikarioa non bizi zen.

— Tira, aizu! Aurreragoko beste zereginik ez banu bezala! Ah! zer egingo da ba, itzul zaitez beste batean!

Eta zalaparta batean sartu zen farmaziara.

Bi gutun idatzi beharrean zegoen, Bovarytentzako edabe sorgarri bat egin beharrean, pozoin-datzea ezkuta zezakeen gezur bat aurkitu eta hori *Fanal*-erako artikulu batean idatzi beharrean, berriak jakin nahirik zain zeuzkan pertsonak kontatu gabe; eta, Yonvilletar guztiek bere istorioa entzun zutenean, alegia Emmak arsenikoa azukretzat hartu zuela, bainila-krema bat egiterakoan, Homais, berriro ere, Bovaryren etxera itzuli zen.

Bakarrik aurkitu zuen (M. Canivet abiatu berria zen), besaulkian eserita, leihoaren ondoran, begirada tentel batez eskaratzeko harlauzei so.

— Orain, esan zion botikarioak, zeuk jarri beharko zenuke zeremoniarako ordua.

— Zertarako? Zein zeremonia?

Gero, ahots zezelkari eta ikarati batez:

— Oh! ez, ez da hala? ez, gorde egin nahi dut. Homaisek, zerbait egin behar eta, apaletik pitxer bat hartu zuen jeranioak ureztatzeko.

— Ah! eskerrik asko, esan zuen Charlesek, zu ona zara!

Eta ez zuen bukatu, botikarioaren keinu hark gogorarazten zizkion oroitzapen ugaritan hatsankaturik.

Orduan, lekoratzearen, Homaisek egoki iritzizion baratzaintzaz apur bat elekatzeari; landareek hezetasuna behar zuten. Charlesek burua apaldu zuen baieztapen modura.

— Bestalde, eguraldi onak laster hasiko dira berriro.

— Ah! egin zuen Bovaryk.

Botikarioa, ideiak agorturik, leihoko errezel txikiak emekiro alboratzen hasi zen.

— Hara! hor doa M. Tuvache.

Charlesek makina baten gisa errepikatu zuen:

— Hor doa M. Tuvache.

Homais ez zen ausartu hari berriro hiletaxedapenez hitz egiten; elizgizona izan zen horretara deliberatzea lortu zuena.

Bere kabinetan sartu zen, luma bat hartu zuen, eta, denboralditxo batez zotinka aritu ondoren, idatzi zuen:

*Bere ezkontza-soinekoaz jantzirik ehortzi dezaten nahi dut, zapata zuriekin, koroa bat. Adatsak sorbalden ganean bedatuko zaizkio; hiru zerraldo, bata haritzezkoa, bestea kaobazkoa, bestea berunezkoa. Ez diezadatela ezer esan, izango dut adorea. Balusa berdezko oihal handi bat ipiniko zaio gainetik. Hala nahi dut. Egin ezazue.*

Jaun haiek erruz harritu ziren Bovaryren ideia erromaneskoez, eta berehalakoan joan zitzaion botikarioa esatera:

— Balusa hori larregikoa iruditzen zait. Gastua, bestalde...

— Eta zure axola al da ba? oihukatu zion Charlesek. Utz nazazu! zuk ez zenuen maite! Alde hemendik!

Elizgizonak besarpetik hartu zuen lorategian barrena ibilalditxo bat eginarazteko. Lurreko gauzen hutsalkeriaz elekatzen zen. Jainkoa benetan handia zen, benetan ona; haren dekretu-

tuei zuen egin behar zitzaien txintik gabe, eta gainera eskerrak eman.

Charlesek biraoka ekin zion.

— Higuin dut, zuen Jainko hori!

— Asaldazioaren izpiritua zuregan dago oraindik, hasperendu zuen elizgizonak.

Bovary urrun zen. Urrats handiz zihoan, hormari jarraiki, keretaren ondotik, eta hortzak kirrinka zerurantz altxatzen zituen madarikazio-begiradak; baina hosto batek berak ere ez zuen horratio zirkin egin.

Euri-lanbroa ari zuen. Charles, bularra biluzi baitzeukan, azkenerako hotzikaraz hasi zen; etxeratu egin zen sukaldean esertzera.

Seietan, txatar-zarata entzun zen plaza alde-tik: *Hirondelle* zen orduantxe iristen; eta Charles hantxe egon zen burua leiarren kontra, bidaiari guztiak bata bestearen ondoren jaisten ikusten. Felicitek koltxoi bat hedatu zion eskaratzean; bertan etzan zen eta loak hartu zuen.

Filosofoa izanik ere, M. Homaisek errespeta-tzen zituen hildakoak. Beraz, Charles gizajoaren-ganako herrarik gorde gabe, arratsean etorri zen

berriro gorpuari beila egitera, hiru liburu berekin zituela, eta orri-zorro bat, nola batzuk hartzeko.

M. Bournisien han aurkitzen zen, eta, etzangutik kanpora aterea zuten ohearen buruan bi kandela handi zeuden pizturik.

Botikarioak, isiltasuna astun baitzitzaien, ez zuen luze eman zenbait dolamen formulatzen «emakume gazte dohakabe» hartaz; eta apaizak erantzun zuen, jadanik ez zela geratzen haren alde otoitz egitea besterik.

— Halere ordea, zioen Homaisek, bietariko bat: edota Jainkoaren grazian hil da (Elizak esaten duen bezala), eta orduan ez dauka bat ere gure otoitzen beharrik; edota damurik gabe zendu da (hala da, nik uste, elizak esaten duen bezala), eta hortaz...

Bournisienek moztu egin zuen, tonu zakarrez ihardetsiz, horregatik ez zegoela zertan gutxiago otoitz eginik.

— Baina, argudiatu zuen botikarioak, Jainkoak gure behar guztiak ezagutzen dituenenez, zertarako balio dezake otoitzak?

— Nola! zioen elizgizonak, otoitzak! Zu ez al zara ba kristaua?

— Barkaidazu! zioen Homaisek. Nik miresten dut kristautasuna. Lehendabizi esklabuak askatu ditu, moral bat sartu du munduan...

— Ez gara horretaz ari! Testu guztiek...

— Oh! oh! testuei dagokienez, ireki ezazu historia; gauza jakina da jesuitek faltsifikatu dituztela.

Charles sartu zen, eta, oherantz aurreratuz, errezelak ireki zituen geldiro.

Emmak eskuineko sorbaldaren gainera makurturik zeukan burua. Bere ahoaren ertzak, irekita baitzegoen, zulo beltz bat bezala egiten zuen bere aurpegiaren behealdean, bi erpuruek kakotu gabe segitzen zuten eskuzabaletan; hauts zuri baten antzekoak ihinztatzen zituen bere betileak, eta bere begiak desagertzen hasiak ziren oihal mehe bat zirudien zurbildura likitsu batean, zenbait armiarmak gainean sarea egin balute bezala. Maindirea abaildu egiten zen bularretatik belaunetaraino, ondoren oinetako behatz-puntetan berriro altxatuz; eta Charlesi iruditzen zitzaion, masa elementak, egundoko pisuak zamatzen zuela hura.



Elizako erlojuan ordubiak jo zituen. Ilunpetan barrena terrazaren oinean zihoan ibaiaren murmurio ozena entzuten zen. M. Bournisienek, aldian-aldian, zintz egiten zuen zarata handiz, eta Homaisek bere lumari kirrinkarazten zion paper gainean.

— Ea ba, lagun, esan zuen, erretira zaitez, ikuskizun horrek jota uzten zaitu.

Charles joan ondoren, botikarioak eta apaiak beren eztabaidari ekin zioten berriro.

— Irakurtzazu Voltaire! zioen bata; irakurri Holbach, irakurri *Entziklopedia!*

— Irakur itzazu *Lettres de quelques juifs portugais!* zioen besteak; irakurtzazu *Raison du christianisme*, Nicolas egilea, magistratu ohia!

Berotu egiten ziren, gorri zeuden, batera hitz egiten zuten, elkarri entzun gabe; Bournisien eskandalizatu egiten zen halako ausardiaz; Homais txunditu egiten zen halako tentelkeriaz; eta ez zeuden urrun elkarri irainak botatzetik, Charles berriro, bat-batean, azaldu zenean. Lili-ramendu batek erakartzen zuen. Behin eta berriz eskilarak igotzen zituen.

Emmaren aurrez aurre pausatzen zen hura hobeto ikusteko, eta sakona izatearen poderioz jada oinazetsua ez zen betespen hartan galtzen zen.

Katalepsiaren istorioez oroitzen zen, magnetismoaren mirariez; eta bere buruari esaten zion ezen, biziki nahi izanez gero, lortuko zukeela agian Emma berpiztea. Halako batean harengantz makurtu ere egin zen, eta ahapeka oihukatu ere: «Emma! Emma!» Bere arnasak, bortizki jaurtikia, kandelen garra dildil arazi zuen Normaren kontra.

Egunsentian, madame Bovary ama heldu zen; Charlesek, besarkatzean, berriro negarrez gainezka egin zuen. Saiatu zen dama, botikarioak egin zuen bezalaxe, hiletetako gastuei buruz zenbait ohartarazpen egiten. Hain gogor oldartu zitzaion non isildu egin baitzen, eta gainera berehalakoan hirira joateko gomendioa eman zion, behar zena erostera.

Charles bakarrik geratu zen arratsalde osoan; Berthe madame Homaisen etxera erama zuten. Felicite zegoen goian, gelan, Lefrançois atsoarekin.

Arratsean, bisita batzuk izan zituen. Altxatzen zen, eskuak estutzen zizkizun ezin hitz egirik, eta besteen alboan esertzen ziren, beheko suaren aurrean zirkuluerdi handi bat egiten zutela. Aurpegia apaldurik eta zangoa belaun gainean, beren hanka dilindatzen zuten, aldi berean tarteka hasperen handi bat botaz; eta bakoitza neurritz kanpo aspertzen zen; nor abiatukoa zen ordea gorabehera.

Homais, bederatzietan itzuli zenean (bera baino ez zen ikusten plazan, bi egun hartan), alkanfor, erretxin lurrintsu eta belar usandunen horniduraz kargaturik zetorren. Kloroz betetako ontzi bat ere bazekarren, kiratsak uxatzeko. Une horretan, neskamea, madame Lefrançois eta Bovary ama Emmaren inguruan harat-honat zebiltzan, hura beztitzea bukatzen; eta oihal luze gogorra jaitsi zuten, satenezko bere zapatetaraino estaltzen zuela.

Felicite negarzitinka ari zen:

— Ah! nire etxekoandre gaixoa! nire etxekoandre gaixoa!

— Begiraiozue, zioen hasperenka ostalersak, zeinen polita dagoen oraindik ere! Esan ere esan liteke, une batetik bestera jaiki behar duela.

Gero makurtu egin ziren hari bere koroa ipintzeko.

Burua apur bat altxatu behar izan zitzaion, eta orduan likido beltzezko zurrusta bat isuri zen, okada baten gisa, bere ahotik.

— Ah! ene Jainkoa! soinekoa, kontuz ibili! oihukatu zuen madame Lefrançoisek. Lagunduiezaguzu ba! esaten zion botikarioari. Beldurrez al zaude, ala?

— Beldurra, nik? ihardetsi zuen sorbaldak altxatuz. Nola ez ba! Horrelakorik franko ikusi izan dut ospitalean, farmazia ikasten ari nintze-la! Pontxea egiten genuen diseizioen anfiteatroan! Ezerezak ez du izutzen filosofo bat; eta gainera, esan ere askotan esan dut, nire gorpua ospitalei lagatzeko asmoa daukat, Zientziaren zerbitzurako izan dadin.

Heltzean, apaizak galdetu zuen ea zer moduz zegoen Monsieur; eta, botikarioaren erantzunaren segidan, esan zuen:

— Kolpea, ulertzen duzu, oraindik berriegia da!

Orduan Homaisek zoriondu egin zuen, hark, mundu guztiak ez bezala, lagun maite bat galtzeko arriskurik ez zeukalako; horri, apaizen zelibatoari buruzko eztabaida jarraiki zitzaion.

— Zeren, zioen botikarioak, ez da naturala gizon batek emakumerik gabe pasatzea! Ikusi izan dira krimenak...

— Baina, arranopola! oihuka elizgizonak, nola nahi duzu ezkontzaz lotutako pertsona batek gorde ahal izatea, jo dezagun, konfesioko sekretua?

Homaisek konfesoari eraso zion. Bournisienek defendatu egin zuen; luze aritu zen egin arazten zituen bihurketez. Bat-batean zintzo bilakaturiko lapurren zenbait gertakari aipatu zituen. Zenbait militarrek, penitentziaren auzitegira hurbildurik, ezkatak sentitu zituzten beren begietatik erortzen. Bazen Fribourgen ministro bat...

Bere adiskidea lo zegoen. Gero, gelako egurats astunegian apur bat itotzen zenez, leihoa ireki zuen, eta horrek iratzarri zuen botikarioa.

— Tori, sudurrauts pixka bat! esan zion. Har-tzazu, argitu egiten du.

Ahausi etengabeak errestatzen ziren urru-nean, nonbait.

— Entzuten al duzu zakur bat zaunkaz? esan zuen botikarioak.

— Hilak sentitzen dituztela diote, erantzun zuen elizgizonak. Erleak bezala da; hauek erlauntzatik hegaztatu egiten dira pertsonak hiltzean. — Homaisek ez zien ihardetsi sineskeria hauei, zeren berriro lo baitzegoen.

M. Bornisienek, sendoagoa izaki, jarraitu zuen denbora batez ahapean ezpainak mugitzen; gero, ezarian, kokotsa beheratu zuen, bere liburu beltz lodiari jaregin zion eta zurrungaka hasi zen.

Bata bestearen aurrez aurre zeuden, sabela aurrera, aurpegia putzukaturik, bekozkoa zimur, hainbat desakordioren ondoren azkenik giza-ahulezia berean elkarturik; eta ez ziren mugitzen beren alboko gorpua baino gehiago, zeinak lo itxura baitzeukan.

Charlesekin, sartzean, ez zituen esnatu. Azkene-neko aldia zen. Bere agurrak egitera zetorkion.

Belar usandunak artean ketan ari ziren, eta lurrun-zurrumbilo urdinka batzuk leihoertzean nahasten ziren sartzen zen lainaldearekin. Izar batzuk bazeuden, eta gaua epela zen.

Kandelen argizaria malko lodika erortzen zen oheko izaren gainera. Charlesek erortzen begiratzaren zien, haien gar horiaren leinuruaren kontra bere begiak nekatuz.

Distirek dardara zegiten satenezko soineko gainean, ilargi argia bezain zuri. Emma azpian desagertzen zen; eta Charlesi iruditzen zitzaion ezen, bere baitatik at barraiatuz, Emma nahas-mahas galtzen zela inguruko gauzen artean, isiltasunaren baitan, gauaren baitan, iraganean zihoan haizearen baitan, igotzen ziren usain hezatsuen baitan.

Gero, bat-batean, Tostesko jardinean ikusten zuen, eserlekuaren gainean, laparresiaren kontra, edota Rouenen, kaleetan barrena, beren etxearen atalasan, Bertauxko larrainean. Oraindik ere entzuten zuen sagarrondoan pean dantzatzen zebiltzan mutikoen barre alaia; haren adatsen lurrinaz beterik zegoen gela, eta haren soi-

nekoak dardara egiten zion besoetan pindarazata batekin. Eta haxe bera zen, berbera!

Luze egin zuen horrela gogoratzen desager-turiko zorion guztiak, haren jarrerak, haren kei-nuak, haren ahotsaren soinua. Etsipen baten ondoren, beste bat zetorren beti, atergabe, gai-nezka egin duen itsasandiaren uhinak bezala.

Ikusmin izugarri bat izan zuen: geldiro, beha-tzen puntaz, pilpiraka, beloa altxatu zion. Baina laborrizko garrasi bat bota zuen eta horrek beste biak esnatu zituen. Hauek behera jaitsi zuten, eskaratzera.

Gero Felicite etorri zen esatera, nagusiak ile-xerlo bat eskatzen zuela.

— Moztu ba! ihardetsi zuen botikarioak.

Eta, neskamea ausartzen ez zenez, bera joan zen, guraizeak eskuan. Hain bortizki egiten zuen dardar non toki askotan xulatu baitzuen lokieta-ko larrazala. Azkenik, hunkipenaren kontra bere burua teinkatuz, Homaisek bizpahiru mozketa handi jo zituen itsu-itsuan, eta horrek marka zuri batzuk egin zituen adats beltz eder hartan.

Botikarioa eta apaiza berriro beren zeregine-tan murgildu ziren, ez horratio tarteka lo egin



gabe, horretaz elkar salatzen zutelarik esnaldi bakoitzean. Orduan Bournisien jaunak gela ur bedeinkatuz garaztatzeko zuen eta Homaisek kloro poxin bat botatzeko zuen lurrean.

Felicitek ardura izan zuen komodan haientzako pattar botila bat, gazta eta bixkotxo handi bat ipintzeko. Hartan botikarioak, ezin baitzuen gehiago, hasperendu zuen goizeko laurak alde-  
ra:

— Alajaina, pozik hartuko nuke bizigarri pixka bat!

Elizgizonak ez zuen erregutzeko aukerarik eman; irten zen bere meza ematera joateko, itzuli zen; ondoren biek jan eta zurrut egin zuten, aldi berean irrimurri pixka bat eginez, zergatik jakin gabe, tristura saioen ondoren harrapatzen gaituen alaitasun lainotsu horrek kitzikaturik; eta, azkeneko tragoxkan, apaizak esan zion botikarioari, eskuaz sorbaldan eman ez:

— Azkeneko bat etorriko gara!

Behean, sarreran, langileak topatu zituzten iristen. Orduan, Charlesek, bi orduz, oholen kontra durundatzen zuen mailuaren tortura pairatu behar izan zuen. Gero, haritzezko zerraldoan jai-

tsi zuten eta hau beste bietan gardainatu zuten; baina, hilkutxa zabalegia zenez, tarteak koltxo baten artilez bete behar izan ziren. Azkenik, hiru tapak marraskatu, iltzatu eta soldeaturik geratu zirenean, ate aurrean ipini zuten; etxea zabal-zabal ireki zuten, eta Yonvilleko jendea etortzen hasi zen.

Rouault zaharra heldu zen. Plazan bertan ondoezak jo zuen zapi beltza hautematean.

Botikarioaren gutuna ez zuen jaso gertaeratik hogeita hamasei ordutara baino; eta, haren sentiberatasunarekiko begirunez, M. Homaisek halakoxe moduz idatzi zion, non ezinezkoa baitzen zeri atzeman jakitea.

Gizon gizajoa lehenbizi apoplexiak jota beza-la erori zen. Ondoren ulertu zuen, bere alaba ez zegoela hilik. Baina egon zitekeen... Dena den bere bruxa jantzi zuen, bere kapelua hartu, bere zapatari ezproin bat atxiki eta hankajoko bizian abiatu zen; eta, bide osoan, Rouault zaharra, hatsanka, larriduraz alhaturik joan zen. Halako batean, jaitsi beharrean ere gertatu zen. Ez zuen ezer ikusten, bere inguruan ahotsak entzuten zituen, bere burua erotzen sentitzen zuen.

Eguna zabaldu zuen, hiru oilo beltz hauteman zituen zuhaitz batean lo; ikaratu egin zen, seinale horrek izaturik. Orduan Amabirjina santuari hiru mezajantzi agindu zizkion elizarako, eta oinutsik joango zela Bertauxeko kanposantutik Vassonvilleko kaperaraino. Ostatuko jendeari deiadarka sartu zen Marommen, sorbaldaren bulkara batez ireki zuen atea, olo-zakuaren gainera jauzi zen, sagardo-geza botila bat hosto zuen askan, eta zankaletran heldu non berriro bere zamalkoari, zeinari sua baitzerion lau ferretatik.

Berekiko zioen salbatuko zutela nola edo hala; medikuek aurkituko zuten erremedioren bat, hori ziur zen. Berari kontatu izan zizkioten mirarizko sendakuntza guztiak gogoratu zituen.

Gero, hilik azaltzen zitzaion alaba. Hantxe zegoen, bere aurrean, bizkarrez etzanik, bidea-  
ren erdian. Erremaletik tira egiten zuen eta lilurakeria desagertu egiten zen.

Quincampoixen, bere buruari adore emateko, hiru kale hartu zituen bata bestearen gainean.

Idazterakoan izenez herratuko zirela pentsatu zuen. Gutunaren bila hasi zen patrikan, han sentitu zuen, baina ez zen irekitzen ausartu.

Dena *adarjotzeren* bat ote zen pentsatzeari ere eman zion, norbaiten mendekuren bat, pertsona txantxetariren baten asmadizoa; eta, bestalde, bere alaba hila balitz, nola ez ba jakin? Baina ez! landak ez zeukan ezer apartekorik: zerua urdina zegoen, zuhaitzak kulunkatu egiten ziren; artalde bat iragan zen. Herrixka begiztatu zuen; presaka ikusi zuten bere zaldian makurmakur eginda, kolpe handiz zihorkatzen zuela, petraletik odola tantoka.

Kordea bihurtu zitzaionean, negar batez jausi zen Bovaryren besoetan:

— Nire alaba! Emma! nire umea! nola ordea...?

Eta besteak erantzun zuen zotinka:

— Nik ez dakit, nik ez dakit! Madarikazio bat da!

Botikarioak banandu zituen.

— Xehetasun izugarri horiek alferrikakoak dira. Nik jarriko dut jauna jakinaren gainean.

Jende asko dator. Duintasun pixkat, arraioa! Filosofia pixka bat!

Mutil gizajoak kementsu azaldu nahi izan zuen, eta behin eta berriz errepikatu zuen:

— Bai..., adorea!

— Horra ba! oihukatu zuen gizonak, nik ere izango dut, ala Jainkoa! Azkenera arte eramango dut dena.

Hilkanpaia jotzen ari zen. Dena prest zegoen. Abiatu beharrean ziren.

Eta, koruko jarleku batean eseririk, bata bestearen ondoan, beren aurrean pasatzen eta etengabe pasa eta pasa ikusi zituzten hiru txantreak salmodiatzen. Sugeturutak soinu betean putz egiten zuen. Monsieur Bournisienek, apainduria handiz jantzirik, ahots zorrotzez kantatzen zuen; tabernakuluari gur egiten zion, eskuak altxatzen zituen, besoak hedatzen zituen. Lestiboudois eliza barruan zebilen bete bale-hagarekin; zerraldoa han zetzan, koruaren ondoan, lau kandela-zerrendaren artean. Charlesek, haiek itzaltzera altxatzeko gogoia zeukan.

Saiatzen zen halere deboziotan kitzikatzen, berriro Emma ikusiko zukeen geroko bizitza

baten esperantzara oldartzen. Hura bidaia batera, oso urrun, aspaldidanik, joana zela imajinatzen zuen. Baina, han behean aurkitzen zela pentsatzen zuenean, eta dena bukatua zela, lurpera eramango zutela, amorru basati, beltz, etsitu batek harrapatzen zuen. Batzuetan iruditzen zitzaion, jadanik ezer ez zuela sentitzen; eta bere oinazearen leunaldi hau dastatzen zuen, aldi berean bere buruari doilorra izatea leporatuz.

Harlauzen gainean, denbora berdinka jotzen zituela, makila burnidun baten zarata elkorra bezala entzun zen. Hau hondotik zetorren, eta bat-batekoan gelditu zen elizabarneko aldame-netan. Txamarra arre lodi batez jantzitako gizon bat belaunikatu zen nekez. Hippolyte zen, *Lion d'Or*-eko morroia. Bere zango berria zuen jarria.

Txantreetako batek egin zuen elizabarneen jira diru-eskean, eta txanpon handiek, bata bestearen ondoren, soinua ateratzen zuten zilarrezko erretiluan.

— Mugi zaitez ba! ni sufritzen ari naiz, aizu! oihukatu zuen Bovaryk, bost liberako txanpon bat haserrez botatzen zion bitartean.

Elizgizonak eskerrak eman zizkion gurkera luze batez.

Kantatzen zuten, belaunikatzen ziren, berriro zutitzen ziren, hura ez zen bukatzen! Oroitu zen ezen behin batez, lehen garaietan, biak elkarrekin izan zirela mezatan, eta beste aldean zirela, eskuinetan, hormaren kontra. Berriro kanpaia hasi zen. Aulki-mugimendu handi bat izan zen. Eramaileek beren hiru makilak zerraldoaren azpian sartu zituzten, eta elizatik irten ziren.

Orduan Justin azaldu zen botikako atalasean. Barrura sartu zen segituan, zurbil, balantzaka.

Jendea leihoetan zegoen segizioa iragaiten ikusteko. Charles, aurrean, gerria tente zihoan. Adoretzu itxura arrandiatzen zuen eta keinu batez agurtzen zituen, kaletxikietatik edo etxeetatik jendetza artean sartzera zetozenak. Sei gizonak, hiru alde bakoitzean, pauso txikian zihoazen eta apur bat hatsanka. Apaizek, txantreek eta bi elizmutilek *De Profundis* errezitatzen zuten; eta haien ahotsak landetan barrena joaten ziren, goraka eta beheraka uhindurak eginez. Batzuetan desagertu egiten ziren bidearen

bihurguneetan; baina zilarrezko gurutze handia beti altxatzen zen zuhaitzen artean.

Emakumeak zetozen segidan, mantu beltzez estalirik txanoa jantzira; kandela handi bana zeramaten eskuan pizturik, eta Charlesek auna-tzen sentitzen zuen bere burua errezoen etengabe-ko errepikatze harekin eta kandelagar haie-kin, argizari eta sotana usain melenga haren pean. Haizekirri freskoa zebilen, zekalea eta kol-tza berdetzen ari ziren, ihintz tantoxkek dardar zegiten bidearen bazterretan, elorrizko hesietan. Molde orotako hots alaitsuek betetzen zuten ingurumaria: urrunean gurtarrastoetan barrena zihoan gurdi baten kirrinka, oilar batek errepika-tzen zuen kukurrukua edo sagarrondoan pean iheska ikusten zen moxal baten asapala. Zen garbia hodei zurigorritz orbandurik zegoen; kea-dar urdinkak, atsoliliz estalitako etxolen gainera jaisten ziren; Charlesek, pasaran, larraineak eza-gutzen zituen. Hau bezalako beste goiz batzuek oroitzen zen, gaixoren bati bisita egin ondoren, haietatik irteten eta Emmarengana itzultzen zenekoez.



Zapi beltza, malko zuriz zipriztindua, aldian behin altxatu egiten zen zerraldoa azalduz. Era- maile nekatuek abiadura baretzen zuten; eta zerraldoa etengabe andarka zihoan, uhin bakoit- zean zabu dagien txalupa bezala.

Heldu ziren.

Gizonek beheraino segitu zuten, hilobi-zuloa eginik zegoen belartzagune bateraino.

Haren baranoan pausatu ziren; eta apaiza mintzo zen bitartean, lur gorria, alboetara baz- tertua, zaratarik gabe isurtzen zen ertzetatik, etengabe.

Gero, lau sokak prest egon zirenean, haren gainera bultzatu zuten zerraldoa. Charlesek jais- ten begiratzen zuen. Jaitsi eta jaitsi ari zen.

Azkenik entzun zen punpateko bat; sokak kirrinka igo ziren berriro. Orduan Bournisienek pala hartu zuen, Lestiboudoisek luzatzen ziona; ezkerreko eskuaz, aldi berean eskuinaz garazta- tzen zuela, palakada handi bat bota zuen bortiz- ki; eta zerraldoaren zurak, harriek kolpaturik, betikotasunaren durunda dela iruditzen zaigun zarata ikaragarri hori egin zuen.

Elizgizonak bere albokoari pasa zion ixipua. M. Homais zen. Honek benaz astindu zuen, gero Charlesi luzatu zion, zeina belaunetaraino hondoratu baitzen lurretan, eta eskuak betean botatzten zuen aldi berean deiadar eginez: 'Adio'. Musuak bidaltzen zizkion; zulorantz errestatzen zen harekin batera bertan hondoratzeko.

Eraman egin zuten; eta laster lasaitu zen, agian sentituz, beste guztiek bezala, hura bukatu izanaren gozamen lainotsua.

Rouault zaharra, itzultzean, lasai-lasai pipakada bat erretzen hasi zen; eta horri Homaisek, bere kolkorako, desegokia iritzi zion. Halaber errepatu zuen, M. Binet ez zela azaldu ere egin, Tuvachek 'hanka egin zuela' mezaren ondoren, eta Theodorek, notarioaren morroiak, jantzi urdina zeramala 'jantzi beltzik ezin aurkitu balitz bezala, usadioari jarraituz, zer arraio!' Eta, bere oharpenak adierazteko, talde batetik bestera zebilen. Emmaren heriotza deitoratzen zuten, eta batik bat Lheureuxek, zeina huts egin gabe etorri baitzen hobiratzera.

— Damatxo gaixoa! zer nolako atsekabea bere senarrarentza!

Botikarioa hasten zen berriro:

— Ni izan ezean, ongi dakizue hori, bere buruaren kontrako atentatu galgarriren bat egingo zukeen!

— Halako pertsona ona! eta oraindik joan den larunbatean bertan nire dendan ikusi nuela esatea ere!

— Ez dut astirik izan hitz batzuk prestatzeko, zioen Homaisek, bere hilobiaren gainean jalgitzeko.

Itzultzean, Charles erantzi egin zen, eta Rouault zaharrak bere bruxa berria plantxatu zuen. Berria zen, eta, bidean, begiak besomuturraz sarritan xukatu zituenez, tindura jaregin zuen haren aurpegian; eta malkoen arrastoek marrak egiten zituzten zikintzen zuen hauts geruzan.

Madame Bovary ama beraiekin zegoen. Isilik zeuden hirurak. Azkenik gizon gizajoak hasperendu zuen:

— Gogoan al duzu, lagun, ni behin batean Tostesera etorri nintzela, zuk zure lehen zendua galduberri zenuela. Garai hartan kontsolatzen

zintudan! Aurkitzen nuen zer esanik; baina orain...

Gero, bere bular osoa altxatu zuen heiagora luze batez:

— Ah! nireak egin du, aizu! Nire emaztea ikusi dut joaten..., gero nire semea..., eta orain alaba, gaur!

Berehala Bertauxetara itzuli nahi izan zuen, etxe hartan ezin zezakeela lorik egin esanez. Bere bilobatxoa ikusteari ere uko egin zion.

— Ez! ez! pena handiegia hartuko nuke. Hori bai, musu handi bat emaiozu! Agur!... mutil jatorra zara! Eta gainera, sekula ez dut ahaztuko hau, esan zuen bere izterra joaz, ez beldurrik izan! beti jasoko duzu zure pauma.

Baina, aldaparen gainera heldu zenean, jiratu egin zen, aspaldiko beste hartan Saint-Victor bidean jiratu zen bezala, bere alabarengandik aldentzerakoan. Herriko leihoak argi bizitan zeuden belazetan sartzen ari zen eguzkiaren laprako inarren pean. Eskua begien aurrean ipini zuen, eta ortzi-hegian hauteman zuen hormazko itxitura bat non zenbait zuhaitzek, han-hemenka, sorta beltzak egiten baitzituzten harri zurien

artean, gero bere bideari jarraiki zitzaion, trosta txikian, zeren bere zamalkoak herren egiten baitzuen.

Charles eta bere ama, beren nekea arren, oso denbora luzez geratu ziren arratsean elkarrekin solasean. Garai bateko egunez eta etorkizunaz mintzatu ziren. Ama Yonvillen bizitzera etorriko zen, berak eramango zuen etxea, ez ziren sekula gehiago elkarrengandik aldentuko. Agudeziatsu eta laztankiro jardun zen ama, zuela hainbat urte ihes egiten ari zitzaion txera berreskuratzeaz bere barnean pozturik. Hamabiak jo zituen. Herria, beti bezala, isilean zegoen, eta Charlesek, esna, Emmaz pentsatzen segitzen zuen.

Rodolphe, egun osoan basoan barrena ibilia baitzen, laketzearren, lo zegoen lasai bere gazteluan; eta Leon, han urrunean, lo zegoen hura ere.

Bazen beste bat, ordu hartan, artean lo ez zena.

Hilobiaren gainean, pinuen artean, haur bat negarrez ari zen belauniko, eta bere bularrak, zotinka puskatutik, hatsanka zegien ilunpean,

dolumen eskerga baten, ilargia baino eztiago eta gaua baino hondogabeago baten presioaren pean. Burdinazko atea bat-batean kirrinka egin zuen. Lestiboudois zen; lehentxeago ahaztuta utzia zuen palaren bila zetorren. Justin ezagutu zuen horma igotzen, eta jakin zuen ordudanik zertan egon patatak lapurtzen zizkion gaizkileari buruz.

Charlesek, biharamunean, haurra itzularazi zuen. Hark bere amaz galdetu zuen. Erantzun zitzaion, ama kanpoan zela, jostailuak ekarriko zizkiola. Berthe maiz mintzatu zen berriz ere horretaz; gero, denboraren poderioz, ez zuen gehiago hartaz pentsatu. Haur haren alaitasunak minduratu egiten zuen Bovary, eta botikarioaren kontsolamendu jasanezinak nozitu behar izaten zituen.

Laster hasi ziren berrito diru arazoak, M. Lheureuxek kitzikatu egin baitzuen berriz ere bere lagun Vinçart, eta Charles neurritz gaindiko kopurutan zorpetu zen; zeren inoiz ez baitzuen amore eman nahi izan *harenak* izandako altzarrietariko kaxkarrena ere saltzen uzteko. Horrek bere ama sutan jarri zuen. Ama baino are bortizkiago haserretu zen bera. Charles zeharo aldatu rik zegoen. Amak alde egin zuen etxetik.

Orduan mundu guztia hasi zen *aprobetxatzen*. Mademoiselle Lempereurek sei hilabetetako lezioak galdatu zituen, Emmak batño bera ere

inoiz hartu ez zuen arren (Bovaryri erakutsi zion faktura ordaindu hura gorabehera): bi emakumeen arteko itun bat zen; liburuen alokatzaileak hiru urtetako harpidetzarena galdatu zuen; Rolet atsoak hogeiren bat gutunen ordainketa galdatu zuen; eta, Charlesek argibideak eskatu zizkionez, hau erantzuteko fintasuna eduki zuen:

— Ah! nik ez dakit ezer! bere gorabeheretarako zen.

Ordaintzen zuen zor bakoitzeko, azkena zela pentsatzen zuen Charlesek. Gehiago etortzen zitzaizkion, etengabe.

Aspaldiko bisiten atzerapenak galdatu zituen. Bere emazteak igorri zituen gutunak erakutsi zizkieten. Orduan desenkusatu beharrean kausicen.

Felicitek orain Madamen soinekoak jazten zituen; ez guztiak, zeren batzuk Charlesek gorde baitzituen, eta haiei so egitera joaten zen haren apaingelara, bertan hersten zelarik. Gutxi-asko haren kaizu beretsukoa zen Felicite, Charles sarritan, atzealdetik hautemanik, liluramendu batek atxikitzen zuen, eta oihukatzen zuen:

— Oh! geratu! geratu!



Baina, Mendekostez, Felicitek ospa egin zuen Yonvilletik, Theodorek eramanik, eta jantzigelan geratzen zen guztia lapurtuz.

Garai inguru honetan izan zen Madame Dupuis alarguntsak ohore izan zuena, «bere seme M. Leon Dupuis, Yvetoteko notarioaren eta Bondevilleko mademoiselle Leocadie-Leboeuf-en arteko ezkontzaren berri» Chaslesi ematea, Charlesek, hari zuzendu zion zorion-gutunean, besteak, beste esaldi hau idatzi zuen:

«Zenbateraino poztu zatekeen nire emazte gaixoa!».

Egun batez, etxean noraezean txitxibitxian zebilela, ganbararaino igo zelarik, bere oskie-rrestaren pean paper finezko bolatxo bat sentitu zuen. Ireki zuen eta irakurri zuen: «Izan adoretsu, Emma! izan adoretsu! Nik ez dut zure bizialdiko zorigaitza egin nahi». Rodolpheren gutuna zen kaxen artean lurrera eroria, hantxe geratu baitzen, eta sabaileihotiko haizeak bultzatuberri baitzuen aterantz. Eta Charles hantxe egon zen zirgingabe eta ahozabalik toki hartan bertan non behinola, bera baino are zurikailago, Emmak, etsiturik, heriotzea nahi izan baitzuen. Azkenik,

bigarren orrialdearen behealdean «R» txiki bat aurkitu zuen. Nor ote zen? Rodolpheren usutasunez oroitu zen, haren supituko desagerpenaz eta geroztik harekin topo egitean, bizpahirutan, hark eduki zuen jarrera zapuztiaz. Baina gutunaren tonu begirunetsuak ilusionatu egin zuen.

Agian platonikoki maite izan dute elkar, esan zuen berekiko.

Bestalde, Charles ez zen gauzen barnefuntserraino jaisten diren horietakoa; frogen aurrean atzera egin zuen, eta bere duda-mudako jelostasuna bere arrenkuraren hondargabetan galdu zen.

Nonbait, pentsatzen zuen, adoratu egiten zuten. Dudarik gabe, gizon guztiek desio izan zuten. Hortaz, are ederragoa iruditu zitzaion; eta horretatik irritis iraunkorra piztu zuen, zakarra, bere etsipena sutzen zuena eta mugarik ez zeukana, zeren eta orain gauzatu ezina baitzen.

Hari atsegin izateko, artean bizi izan balitz bezala, haren gurakoak, haren ideiak, bere egin zituen; txarolezko botak erosi zituen, korbata zurien usuarioa hartu zuen. Kosmetikoa ipintzen zuen bibotean, ordaindukoak izenpetu zituen

hark bezala. Hilobiaz handik ere ustelarazi egiten zuen.

Zilarrerria pezarik peza saldu beharrean gertatu zen, ondoren egongelako altzariak saldu zituen. Gela guztiak desornitu ziren; baina gela, haren gela, garai hartan bezala geratu zen. Afalondoren, Charles hara igotzen zen. Suaren aurrera bultzatzen zuen mahai borobila, eta *haren* besaulkia hurreratzen zuen. Bera haren aurrez aurre esertzen zen. Urrekoloreko argimutiletako batean kandela bat egoten zen piztuta. Berthekek, bere ondoan, saintuak argitzen zituen.

Sufritu egiten zuen, gizon gizajoak, hura hain gaizki jantzirik ikusita, oskiak lokarririk gabe, bruxaren galtzarbeko jostura gerriraino zarraturik, zeren neskamea ia fitsik ez baitzen hartaz arduratzen. Baina hain zen eztitsua, hain adeiberra, eta bere burutxo hain panpoxkiro makurtzen zen bere masaila gorrixten gainera adats beilegi ederra erortzen utziaz, non gozamen kabugabe batek harrapatzen baitzuen, garratzasunez erabat nahasturiko plazera, erretxin usaina duten ardo gaizki irakitu horiek bezala. Berak konpontzen zizkion jostailuak, marimuxalak egi-

ten zizkion kartoiez, edo panpinen sabel urratua josten zion. Gero, begiez jostun-otarra topatzen bazuen, edo xingolaren bat errestan edota mahaiaren zirrikitu batean geratutako orratzen bat bera ere, ametsari ematen zitzaion, eta hain planta tristea edukitzen zuen non haurra ere bera bezalaxe triste jartzen baitzen.

Jadanik inor ez zen etortzen haiek ikustera; zeren Justin Rouenera ihes egina baitzen, non janari-denda batean saltzaile bilakatu den, eta botikarioaren haurrak gero eta gutxiago ibiltzen ziren Bertherekin, M. Homais ez baitzen axolatzten, beren maila sozialen arteko aldea ikusirik, adiskidetasuna luza zedin.

Itsua, bere ukenduaz ezin sendatu izan zuena, Bois-Guillaumeko aldapara itzuli zen, eta han bidaiariei kontatzen zien botikarioaren alfer-saioa, hainbestez ezen Homais, hirira zihoanetan, *Hirondelle*-ko errezelen atzean ezkutatzen baitzen, harekin kausitzeari itzur egitearren. Gorrotoa zion; eta, bere ospe propialaren interesez, harengandik nola edo hala libratu nahirik, haren kontra bateria ezkutu bat zuzendu zuen, zeinak nabarmentzen baitzuen bere adimenaren

sakonera eta bere hantusteriaren makurkeria. Sei hilabetez segidan, irakurri ahal izan ziren beraz *Fanal de Rouen*-en honelatsu moldaturiko txatalak:

«Picardieko eskualde malatsetarantz doazen pertsona guztiek erreparatuko zuten, eskierki, Bois-Guillaumeko aldapan, aurpegi-zauri izugarri batek jotako dohakabe bat. Gogaitu egiten zaitu, pertsekutatzen zaitu eta benetako zerga bat kobratzen du bidaiarien lepotik. Erdi Aroko denboraldi higuigarri haietan ote gara oraindik, zeinetan zilegi baitzitzaien arloteei gurutzadetatik ekarriak zituzten legena eta umorotzak gure herrietako plazetan erakusten ibiltzea?».

Edota:

«Arloteriaren kontrako legeak gorabehera, gure hiri handietako inguruek behartsu taldez kakazturik segitzen dute. Ikusten dira bakarka dabilzanak ere eta, agian, ez dira arriskurik gutxiena sortzen dutenak. Zertan pentsatzen ari dira gure zinegotziak?».

Gainera Homaisek gertakariak asmatzen zituen:

«Atzo, Bois-Guillaumeko aldapan zaldi izuti batek...». Eta itsuaren presentziak eragindako istripu baten istorioa zetorren segidan.

Hain egoki egin zuen non itsua atxilotu egin baitzuten. Baina berriro libre laga zuten. Hark berriro ekin zion, eta Homaisek ere berriro ekin zion. Borroka bat zen. Homaisek lortu zuen garaipena; zeren bere etsaia betirako giltzapera kondenatu baitzuten ospizio batean.

Arrakasta honek oilartu egin zuen; eta ordu-danik ez zen izan eskualde hartan zakur zanpatu bat, etxalde sutu bat, emakume egurtu bat, zeinaren berri hark berehala publikoari emango ez zionik, beti ere aurrerapenaren maitasunak eta abadeenganako gorrotoak gidaturik. Gonbarazioak egiten zituen lehen mailako eskolen eta praileanaidien artean, azken hauen narriotarako, elizaren alde emandako ehun liberatako dirulaguntza bat zela-eta Saint-Bathelemy gaua gogorarazten zuen, eta gehiegikeriak salatzen zituen, ozarreriak botatzen zituen. Hori zen bere hitza. Homaisek azpijana egiten zuen; arrisku-tsua bilakatzen ari zen.

Hartan, kazetaritzaren muga estuetan ito egiten zen, eta laster beharrezkoa egin zitzaion liburua, obra! Orduan *Statistique general du canton d'Yonville, suivie d'observations climatologiques* moldatu zuen, eta estatistikak filosofiarantz bultzatu zuen. Arazo handiez kezkatu zen: arazo soziala, klase behartsuen moralizazioa, arraintzaintza, kautxua, trenbideak e.a. Burges izateaz lotsagorritu ere egin zen. *Artista plantaren* arrandi egiten zuen, pipatu egiten zuen! *chic* Pompadour estatuatxo bi erosi zituen, bere egongela apaintzeko.

Ez zuen inolaz ere farmazia uzten; aitzitik! aurkikuntzen jakinaren gainean mantentzen zen. Txokolateen mugimendu handia jarraitzen zuen. Bera izan zen lehena Seine-Inferieure eskualde-*ra cho-ca* eta *revalentia* ekarrarazi zituena. Pulvermacher katea hidroeletrikoen aldeko entusiasmoaz suhartzu zen; berak ere bazeraman bat; eta, arratsean, franelazko bere gerrontzea erantzten zuenean, Madame Homais zeharo liluraturik geratzen zen urrezko espiralearen aurrean zeinaren pean desagertzen baitzen hura, eta eszita bat baino zurrunduagoa eta

mago bat bezain naharoa zen gizon haren aldeko suoldea emendatzen sentitzen zuen.

Ideia ederrak izan zituen Emmaren hilobiaz. Lehendabizi proposatu zuen zutabe trenkatu bat oihaleri batekin, ondoren piramide bat, gero Vestaren tenplu bat, Torio borobil moldekoen bat... edota 'hormazar pila bat'. Eta, egitamu guztietan, ez zuen inolaz ere at uzten sahas negarti bat, tristuraren nahitaezko sinbolotzat jotzen baitzuen.

Charlesek eta biek bidaia bat egin zuten elkarrekin Rouenera, hilobiak ikusteko, ehorzketa-entresari baten etxera —artista pintore batek lagundurik, Vaufrylard izeneko morroi bat, Bridouxen laguna, eta denbora guztian txistek botatzen aritu zena—. Dena den, ehunekoren bat marrazki aztertu ondoren, aurrekontu bat eskatu eta beste bigarren bidaia bat Rouenera eginik, Charles mausoleo baten alde deliberatu zen, zeinak bere bi horma nagusietan «jeinu bana zuzi itzali bana eutsiz» eraman behar baitzuten.

Inskripzioari dagokionez, Homaisek ez zuen ezer aurkitzen hau bezain ederrik: *Sta viator*, eta



horretan egiten zuen planto; irudimena industen zuen; etengabe errepikatzen zuen: *Sto viator...* Noizbaitekoan aurkitu zuen: *amabilem conjugem calcas!!* eta hori onartu zen.

Gauza harrigarri bat zera da, alegia, Bovary, etengabe Emmaz pentsatuz ere, hura ahazten ari zela; eta desesperatu egiten zen sentitzean haren imajina bere irudimenetik aldegiten hura atxikitzeke egiten zituen ahalegin guztien artean. Gauero, halere, hura zuen bere amets; beti amets bera zen: bera Emmarengana hurbiltzen zen; baina, besarkatzen hasten zenean, usteljariotan erortzen zen bere besoetan.

Ikusi zuten aste batean zehar arratsean elizara sartzen. M. Bournisienek bizpahiru bisita ere egin zion, gero abandonatu egin zuen. Bestalde, gizon gizajoa intolerantziara, fanatismora ari zen labaintzen, zioen Homaisek; mendeko izpiritua- ren kontra tximistak jaurtikitzen zituen eta hutsik egin gabe, hamabostero, sermoian, Voltaireren agonia kontatzen zuen, zeina bere gorozkiak jaten hil baitzen, edonork dakien beza- la.

Bovaryk bizi zuen bizimodu dirueuslea arren, bere aintzinako zorrak amortizatu ahal izatetik urrun zegoen. Lheureuxek uko egin zion inolako ordaindukorik berritzeari. Atxikipena gainean zen. Orduan bere amarengana jo zuen, zeinak baimena eman baitzuen hari hipoteka bat hartzen uzteko bere ondasunen gain, baina Emma-ren kontrako ahakar gogorak igorritz; eta, bere sakrifizioaren bueltan, Feliciteren triskantzatik libratutako txal bat eskatzen zuen. Charlesek ukatu egin zion. Liskartu egin ziren.

Adiskidetzeko lehen saioak amak egin zituen, haurra bere etxean hartzea proposatuz, etxeko lanetan lagunduko baitzion. Charlesek baiezkoa eman zuen. Baina, abiatzerako momentuan, adore orok abandonatu egin zuen. Hau izan zen behin-betirako etendura, erabatekoa.

Bere afektuak desagertzen ziren heinean, bere haurrarenaganako maitasunera hertsikiago biltzen zen. Hain umeak kezkatu egiten zuen; zeren batzuetan eztula izaten baitzuen, eta masailalboetan zapla gorri batzuk baitzeuzkan.

Bere aurrez aurre hedatzen zen, loretsu eta alaitsu, botikarioaren familia, munduan orok

hura konplizteraz laguntzen zuela: Napoleonek laborategian laguntzen zion, Arhaliek boneta greziarra brodatzen zion, Irmak paper borobilak mozten zituen gozokiak estaltzeko, eta Franklinek errengaren batean errezitatzen zuen Pitagoraren taula. Aitarik zoriontsuena zen, gizonik doha-tsuenena.

Okerra! irris elkor batek hortzikatzen zuen: Homaisek gurutzera nahi zuen. Tituluak ez zitzaizkion falta:

1. Koleraren garaian, mugagabeko ahalegi-nengatik nabarmendu izana; 2. utilitate publiko-dun obra zenbait, eta neure poltsikotik, argitaratu izana, esate baterako... (eta haako bere txosten hura gogoratzen zuen: *Du cidre, de sa fabrication et de ses effets*; gainera galderna iletsuari buruzko oharpenak, Academiara igorriak; estatistikako bere bolumena, eta baita farmaziako bere tesia ere); jakitun elkarte askotako partaide naizela kontatu gabe (bakar batekoa zen).

— Dena den, oihukatzen zuen, aputika egi-nez, suteetan gailendu izanagatik besterik ez balitz ere!

Orduan Homais Boterearen alde makurtzen zen. Prefeta jaunari zerbitzu handiak egin zizkion, ezkutuka, hauteskundeetakoan. Bere burua saldu zuen azken finean, pailardatu egin zen. Subiranoari eskaera bat zuzendu ere egin zion zeinetan erregutzen baitzion *justizia egin ziezaion; gure errege ona* deitzen zion eta Henri IV.rekin parekatzen zuen.

Eta, goizero, botikarioa egunkarira oldartzen zen han bere izendapena aurkituko ote: hau ez zen heltzen. Azkenerako, gehiago ezin eutsirik, bene jardinean marraztarazi zuen ohorezko izarra irudikatzen zuen belartxa bat garako aldetik sortzen ziren bi belar-kalpar txikirekin xingola antzera. Haren baranoan pasiatzen zen, besoak gurutzaturik, gobernuaren gauzaezkeriaz eta gizonen eskergaitzaz gogoetatuz.

Errespetoz, edo bere ikerketetan nagitasuna ezarrarazten zion sentsualitate molde batengatik, Charlesek artean ireki gabe zuen Emmak gehienetan erabili ohi zuen palisandrozko idaz-mahaiko konpartimendu sekretu bat. Egun batez, azkenik, aurrean eseri zen, giltzari eragin zion eta gakoa sakatu zuen. Leonen gutun guz-

tiak hantxe aurkitzen ziren. Ez zegoen zalantzarik, oraingoan! Azkenekora arte irentsi zituen, miatu zituen xoko guztiak, altzari guztiak, kajoi guztiak, horma-atzeak, zotinka, alarauka, burugalduta, zoro. Kaxa bat aurkitu zuen, ostiko batez puskatu zuen. Rodolphen erretratua saltatu zitzaion bete-betean aurpegira, gutun eztitu nahasien artean.

Jendea harritu egin zen haren etsimenduaz. Ez zen inoiz irteten, ez zuen inor hartzen, bere gaixoak ikustera joateari ere uko egiten zion. Orduan esaten hasi ziren *edatearren hersten zela*.

Noiz edo behin ordea, begiluzeren bat altxatzen zen jardineko itxituraren gainetik, eta txundiduraz hautematen zuen gizon bizarluze hura jantzi lardatsez estalirik, mutiri, eta oinez ibilian ozenki negarrez.

Arratsean, udan, hartzen zuen alabatxoa eta kanposantura eramaten zuen. Gau ilunean itzultzen ziren, plaza aldera Bineten sabaileihoa beste argirik ez zegoenean.

Halere bere oinazearen boluptuostasuna ez zen osoa, zeren bere inguruan ez baitzeukan

partzuertuko zuenik; eta Lefrançois atsoari egiten zizkion bisitak, *hartaz* hitz egin ahal izatearren. Baina ostalersak ez zion entzuten belarri batez baino, berak ere hark bezalaxe bere penak baitzuten, zeren M. Lheureuxek azkenerako jarriberria baitzuen *Favorites du Commerce*, eta Hivertek, mandatuetarako aipu handiaz gozatzten baitzuen, soldata igoera galdatzen zuen eta 'Konkurrentziara' pasatzeko mehatxua egiten zuen.

Egun batez, bere zaldia saltzera, —azken baliabidea—, Argueilko merkatura joan zelarrik, Rodolpherekin topo egin zuen.

Elkar hautematean beluritu egin ziren. Rodolphek, bere txartela bidali bakarrik egin baitzuen, lehenik zenbait desenkusa zezelkatu zuen, gero ozartu egin zen eta bere ausartzia eraman ere (oso bero egiten zuen, abuztua zen) tabernan zerbeza botila bat hartzera konbidatzeraino eraman zuen.

Aurrez aurre ukondoak tinkaturik, bere zigarroa marruskatzen zuen aldi berean hitz eginez, eta Charles ametseriatan galtzen zen Emmak maite izan zuen aurpegi honen aurrean. Emma-

ren zerbait berriro ikusten ari zela iruditzen zitzaion. Liluramendu bat zen. Gizon hura izatea nahi izango zukeen.

Besteak laboreez, abereez, ongarriez mintzatzzen segitzen zuen, zeharradierazpenen bat irrista zitekeen zirrikitu oro esaldi banalez estaliz. Charlesek ez zion entzuten; Rodolphe ohartzen zen horretaz, eta haren aurpegiaren higikeran barrena segitzen zuen oroitzapenen iragaitza. Aurpegi hura purpuratzen ari zen poliki-poliki, sudurregalek fite pilpiratzen zuten, ezpainen dardar zegiten; izan zen une bat non Charlesek, amorru goibel batez beterik, bere begiak tinkatu baitzituen Rodolpheren aurka, eta hau, laborri molde batean, moztu egin zen. Baina laster azaldu zen berriro bere aurpegian herio-lazotasun bera.

— Ez dizut herrarik, esan zuen.

Rodolphe mututurik geratua zen. Eta Charlesek, burua bere bi eskuen artean, ahots motelez eta oinaze hondargabeen doinu etsituaz esan zuen:

— Ez, jadanik ez dizut herrarik!

Eta esaldi borobil bat ere erantsi zuen, sekulan esan zuen bakarra:

— Halabeharraren errua da!

Rodolphek, halabehar hura berak gidatu baitzuen, nahiko onpuska kausitu zuen kinka hartako gizon batentzat, baita komiko ere, eta apur bat doilor.

Biharamunean, Charles aulkian esertzera joan zen, pendizpera. Argizpiak pasatzen ziren zuresitik barren; mahats-hostoek beren errainuak marrazten zituzten hondarraren gainean, jazminari lurrina zerion, zerua urdina zegoen, errauliek burruna zegiten lili loratuen inguruan, eta Charles nerabe baten gisa hatsankatzen zen bere bihotz penatua puzten zuten amodio-jario uherren pean.

Zazpitan, Berthe txikia, zeinak arratsalde osoan ez baitzuen ikusi, bila etorri zitzaion afaltzeko.

Burua hormaren kontra etzanik zeukan, begiak itxirik, ahoa zabalik, eta bere eskuetan ile-beltz xerlo luze bat zeukan.

— Aita, goazen ba!



Eta, jolas egin nahi zuela pentsatuz, Berthekek bultza egin zion emekiro. Lurrera erori zen. Hilik zegoen.

Hogeita hamasei ordu geroago, botikarioak hala eskaturik, M. Canivet etorri zen. Ireki zuen eta ez zuen ezer aurkitu.

Dena saldu eta gero, hamabi libera eta hirurogeita hamabost xentimo geratu zen, zeinak amonaren etxera mademoiselle Bovaryren bidaia ordaintzeko erabili baitziren. Emakume gajoa urte berean hil zen; Rouault zaharra perlesiak jota zegoen; izeba bat egin zen haren kargu. Hau pobrea da eta, bizibidea irabaztera, algodoi-irundegi batera bidaltzen du.

Bovaryren heriotzaz gero, bata bestearen jarraian hiru mediku izan dira Yonvillen aurrera-piderik atera ezin izan dutelarik, hainbestearaino-xe aurka egin baitie Homaisek hasieratik bertatik. Egundoko bezereria dauka; agintaritzak zuri egiten dio eta iritzi publikoak babestu egiten du.

Jasoberria du ohorezko gurutzea.